



Asier Larrinaga Larrazabal

EUSKAL TELEBISTAREN SORRERA, GARAPENA ETA FUNTZIOA  
EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN TESTUINGURUAN

# EUSKAL TELEBISTAREN SORRERA, GARAPENA ETA FUNTZIOA EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN TESTUINGURUAN

Doktoregaia  
Asier Larrinaga Larrazabal

Zuzendariak  
Agurtzane Elordui Urkiza  
Igone Zabala Unzalu

.....  
Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila

2019  
.....

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

.....  
2019  
.....

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

2019

EUSKAL TELEBISTAREN  
SORRERA, GARAPENA ETA FUNTZIOA  
EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN  
TESTUINGURUAN

---

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila

---

Doktoregaia

**Asier Larrinaga Larrazabal**

Zuzendariak

**Agurtzane Elordui Urkiza**

**Igone Zabala Unzalu**

2019



### **Nire kredo**

Sinesten dut senidetasun unibertsalean

Sinesten dut askotarikoak garela, ez desberdinak

Sinesten dut ezagutzaren partekatzean

Sinesten dut musika dela jainkoen substantzia



## LABURPENA

Tesi honetan, Euskal Telebistaren 1982tik 2018ra arteko historiaren azterketa egingo dugu, euskararen normalizazioaren ikuspegitik begiratuta. Euskal Telebista 1982an eratu zen, euskal gizarteak irrikatzen zuen burujabetza politiko, ekonomiko eta kulturala neurri batean erdiesteko aukera gertatu zen testuinguru batean. Proiektua Eusko Jaurlaritzak eraman zuen aurrera, Gernikako Estatutuan jasota zeuden eskumenez baliatuta. Hedabide berriak hiru eginkizun bete behar zituen komunitatearen zerbitzuan: herritarrei informaziorako eta parte-hartze politikorako baliabide bat eskaintzea; hezkuntza-sistema osatzea, eta euskara eta euskal kultura sustatzea eta zabaltzea.

ETBren 35 urteko ibilbidean, faktore bi izan dira euskara sustatzeko eta zabaltzeko betekizun horren baldintzatzaile nagusiak. Lehena, euskararen estandarizazioa. ETBk euskara batua hartu zuen bere hizkuntza-eredutzat lehen unetik, baina euskararen estandarizazioa hasierako urratsetan zegoen eta, gainera, literatur eredu bat ekoizteko planteatua zen. Ondorioz, ETBk hainbat erronkari egin behar izan zien aurre, besteak beste, euskara telebistako komunikaziorako lantzea, euskara batua ahozko erabilerara egokitzea, eta komunikatzaileak euskara batu berri horretan aritzeko prestatzea.

Bigarren faktorea teknologia digitalaren agerpena izan da. XXI. mendearen atarian, teknologia horrek mundu globalizaturatu ekarri digu, alegia, lurbira osoa konektatuta egotea komunikabideen bitartez eta komunikabideotan nagusi den ingelesaren bitartez. Mundu horretan, hedabideei —hizkuntza gutxituko hedabideei batez ere— erronka zailak planteatu zaizkie, hala nola, plataforma, kanal eta eragile berrien lehia; hiztunen eta, beraz, komunikatzaileen hizkuntza-jarrera berriak, estandarraren erabilera desantolatu egin dutenak; hedabideak kontsumitzeko modu berriak, komunitateari zerbitzua ematearen ideiarekin zerikusirik ez dutenak. Erronka horien guztien aurrean ETBk zelan jokatu eta zelan erantzun duen aztertzea izango da tesi honen ardatza.

**Hitz gakoak:** Euskal Telebista, Euskal Irrati Telebista, hizkuntza-normalizazioa, euskararen normalizazioa, hedabideak, hizkuntza gutxituko hedabideak



## AITZINSOLASA

Ia hogeita hamar urteko ibilbide profesionala egin dut Euskal Irrati Telebistan eta, Euskara Zerbitzuan egokitu zaizkidan zeregin eta ardurei esker, lehen lerrotik ezagutu ahal izan dut euskarari zer arreta eta zer toki eman zaion Euskal Autonomia Erkidegoko komunikazio-talde publikoan. Alegia, ikerketa honetako hirugarren eta laugarren kapituluetan deskribatzen diren hainbat erabaki, ekimen eta jardueratan, parte-hartze zuzena izan dut. Zalantza barik, zuzeneko ezagutzak nahiko erraztu dit erreferentzien bilaketa eta bilketa, baina eragozpena ere izan da, objektibotasun-saiakera egitea eskatu baitit idatzi dudan lerro bakoitzean, ez nitzan testura eraman prozesu bakoitzean bizi izan ditudan pozak, frustrazioak, etsipenak eta lorpenak.

Nire lehen bokazioa natur zientziak izan ziren, eta hizkuntzaren lanketarekiko interesa Biologiako karreran piztu zitzaidan, Leioako Zientzia Fakultatean. Izan ere, lehen mailako lehen egunetik bertatik —azken mailako euskara teknikoaren ikasgaia amaitu genuen arte— azpimarratu eta barnerarazi ziguten ezagutzaren eraikuntzan, garapenean eta komunikazioan, ezinbestekoa dela hizkuntza den tresna egokitasunez eta zehaztasunez erabiltzea. Fakultateko prestakuntzarekin, euskararen arloko lanetan jardun nuen lizentziatura amaitutakoan eta, 1991. urtean, Euskal Telebistak hizkuntzalari-lanposturako deitu zituen oposizioak gainditu nituen. 1998an, EiTbko zuzendari nagusiak Euskara Saileko buru izendatu ninduen.

1999an, Rosa Agost, Castelloko Jaume I unibertsitateko Ikus-entzunezko Itzulpengintza Saileko irakaslea, ETBra zuzendu zen, euskarazko bikoizketari buruzko hainbat datu eskatuz ikerketa baterako. Erantzutea niri egokitu zitzaidan, eta orduan bildu nituen tesi honetarako baliagarri izan zaizkidan datuetatik lehenak. Harrezkero, hainbat bider gertatu zait ETBren euskara-jarduerari buruzko datuak bildu behar izatea artikulu eta hitzaldietarako eta, horietako batean ari nintzela, ohartu nintzen gaia sakonago eta zehatzago aztertze beharra zegoela. 2007an izan zen hori. EiTbren egoitza nagusia Iurretatik Bilbora lekualdatzea erabaki zuten komunikazio-taldeko arduradunek, eta horrek ekarri zuen hamarkada bi eta erdian metaturiko dokumentu eta paperetan hustuketa egitea, behargabea bertan utzi eta baliozkoa salbatzeko. Euskara Zerbitzuaren



bulegoan, hustuketak dokumentu garrantzitsu asko atera zituen agerira, ETBren euskararen kudeaketaren historia ezagutzeko giltzarri zirenak. Karpeta batean sartu eta artxiboan gorde balira, nekez ezagutuko zatekeen euskararen normalizazioarekin loturiko pasarte garrantzitsu bat.

Tesi honen proiektuari kezka horregatik ekin nion, baina gauzak oso garbi eduki barik. Nire zuzendariei, Igone Zabalari eta Agurtzane Elorduari, zor eta eskertu behar diet nire hasierako ideia lausoak antolatzeko eta bideratzeko argitasuna, laguntza eta, batez ere, ikerketa honek hartu duen egiazko tesi baten taxua. Hamar bat urte egin ditugu elkarrekin eta, niretzat, urrats bakoitza, hasierako asmoa gauzatuta ikusteko ahalegin bat baino gehiago, nire ezagutza handitzeko eta nire lanera ikuspegi berriak eta oparoak ekartzeko aukera bat izan da. Profesional moduan, hazi egin naiz Igoneri eta Agurtzaneri esker. Eta, nolabait esatearren, zirkulua itxi dut, Igone euskara teknikoko irakasle izan bainuen karreran.

Batzuei irudituko zaie hamar urte denbora luzeegia dela ikerketa honetarako. Agian, bada. Niri oso zail egin zait lana eta ikerketa bateratzea, eta neure buruari ezartzen nizkion epeak hegaz antzean igarotzen ziren tesian nahi beste aurreratu barik. Azkenean, kaltetuna nire familia izan da. Ikerketa honek eskatu didan denbora berari kendu diot, batez ere amari eta Javiri. Ordainez, musu handi bana bidaltzen diet. Baita nire lagunei ere, hainbestetan bigarren edo hirugarren tokian utzi behar izan ditut eta.

Nire esker ona agertu nahi diet, halaber, Euskal Irrati Telebistako lankide guztiei, eta gure enpresarako lan egiten duten ekoizpen-etxeetako eta bikoizketa-estudioetako pertsona guztiei, oraingoei eta lehengoei. Lehenengo eta behin, askok eta askok eskuzabaltasun osoz lagundu didatelako informazioa jakiten, datuak biltzen eta dokumentuak eskuratzen. Bigarrenik, Euskal Irrati Telebista lantoki abegikor, interesgarri eta aberasgarri egiten dutelako egunero.

---

AURKIBIDEA

---



# AURKIBIDEA

LABURPENA.....	7
AITZINSOLASA.....	9
AURKIBIDEA.....	13
IRUDIEN ZERRENDA.....	19
<b>0. EUSKAL TELEBISTA ETA EUSKARAREN NORMALIZAZIOA GAI AZ IKERTZEA:</b>	
<b>ABAGUNEA ETA URRATSAK.....</b>	<b>23</b>
0.1. IKERGAIA.....	26
0.2. HELBURUAK.....	27
0.3. METODOLOGIA.....	28
0.4. ANTOLAMENDUA.....	30
<b>1. HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOAREN MARKO TEORIKOA.....</b>	<b>33</b>
1.1. NORMALIZAZIOAREN ARLOKO OINARRIZKO KONTZEPTUEN ZEDARRITZEA.....	34
1.1.1. 'Diglosia' eta 'hizkuntza-ordezkapena'.....	35
1.1.2. 'Normalizazioa' eta 'hizkuntza-politika eta -plangintza'.....	37
1.2. NORMALIZAZIOAREN TEORIA ETA PRAKTIKA.....	39
1.2.1. HPParen hastapenak eta eboluzioa.....	39
1.2.1.1. Deskolonizazioaren aldia.....	40
1.2.1.2. Neokolonialismoaren aldia.....	41
1.2.1.3. Globalizazioaren aldia.....	42
1.2.2. HPPko paradigma berri bat: hizkuntza-ekologia.....	43
1.2.2.1. Globalizazioa eta hizkuntza gutxituak.....	43
1.2.2.2. Hizkuntza-ekologia eta hizkuntza-ekosistema.....	44
1.2.2.3. Hizkuntza-eskubideak.....	45
1.2.2.4. Taldeen eta gizabanakoen eragintza.....	46
1.2.3. HPPko ereduak.....	47
1.2.3.1. Haugenen lau dimentsioko ereduak eta beraren ostekoak.....	48
1.2.3.2. Belaunaldi arteko etenaren eskala.....	52
1.3. HPPa ETA IKUS-ENTZUNEZKO HEDABIDEAK.....	54
1.3.1. Dohaintza aldia.....	55
1.3.2. Zerbitzu aldia.....	56
1.3.2.1. Guztizkotetasun funtzionala eta bideragarritasun ekonomikoa.....	57
1.3.2.2. Hizkuntza gutxituko hedabideen hizkuntza-praktikak.....	59
1.3.3. Performantzia aldia.....	60
1.3.4. Hedabideen hizkuntza-eragina.....	61
1.3.4.1. Hedabideak eta estatus-plangintza.....	62
1.3.4.2. Hedabideak eta corpus-plangintza.....	64

1.3.4.3. Hedabideak eta jabekuntza-plangintza.....	64
1.4. HEDABIDEEN NORMALIZAZIO-EGINKIZUNA MUNDU GLOBALIZATUAN.....	68
1.4.1. Komunikazio-sektorea aro digitalean.....	69
1.4.2. Egungo konplexutasunak hizkuntza gutxituko hedabideen arloan.....	71
1.4.2.1. Banakako eragintza.....	72
1.4.2.2. Audientziaren konfigurazioa.....	73
1.4.2.3. Hizkuntza-kontzeptua.....	74
1.4.2.4. Hizkuntza-errepertorioa.....	75
1.4.3. Hizkuntza gutxituko hedabideak egun: audientziaren parte-hartzea.....	76
<b>2. EUSKARAREN NORMALIZAZIOA.....</b>	<b>79</b>
2.1. EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN LEHEN ALDIA.....	82
2.1.1. Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa 1970 aldera.....	82
2.1.2. Normalizazioaren abioa. Euskararen corpus-plangintza.....	84
2.1.2.1. Euskararen estandarizazioaren aurrekariak.....	85
2.1.2.2. Batasunari buruzko gizarte-debatea 1960ko eta 1970eko hamarkadetan.....	87
2.1.2.3. Arantzazuko biltzarra.....	89
2.1.3. 1970eko hamarkadako araugintza eta lantze funtzionala.....	91
2.2. EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN BIGARREN ALDIA.....	93
2.2.1. Frankismoaren osteko testuingurua Hego Euskal Herrian.....	95
2.2.2. Euskal Herriko lehen hizkuntza-politika.....	95
2.2.2.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernua.....	96
2.2.2.2. Nafarroako Gobernua.....	99
2.2.2.3. Eragile ez-instituzionalak.....	100
2.2.3. Euskararen estatus-plangintza: ofizialtasunaren irismena.....	102
2.2.3.1. Normalizazioaren aurreko egoera.....	102
2.2.3.2. Euskal Autonomia Erkidegoa.....	104
2.2.3.3. Nafarroa.....	105
2.2.3.4. Eragile ez-instituzionalak.....	107
2.2.4. Euskararen jabekuntza-plangintza: hezkuntza-ereduak.....	109
2.2.4.1. Plangintza aurreko egoera.....	109
2.2.4.2. Euskal Autonomia Erkidegoa.....	110
2.2.4.3. Nafarroa.....	111
2.2.4.4. Ipar Euskal Herria.....	112
2.2.5. Estatus berrirako corpus-plangintza.....	113
2.3. EUSKAREN NORMALIZAZIOAREN HIRUGARREN ALDIA.....	116
2.3.1. Ziklo-aldaketa hizkuntza-politikan.....	118
2.3.1.1. EAEko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia.....	119
2.3.1.2. Nafarroako hizkuntza-politikaren ahultzea.....	120
2.3.1.3. Ipar Euskal Herriko lurralde-plangintza eta hizkuntza-normalizazioa.....	121

2.3.2. Menpekotasun-egoera agerian euskararen estatus-plangintzan.....	122
2.3.2.1. Euskal Autonomia Erkidegoa.....	123
2.3.2.2. Nafarroa.....	124
2.3.2.3. Ipar Euskal Herria.....	126
2.3.2.4. Eragile ez-instituzionalak.....	127
2.3.3. Normalizazio-abiadura ezberdinak agerian jabekuntza-plangintzan.....	129
2.3.3.1. Euskal Autonomia Erkidegoa.....	130
2.3.3.2. Nafarroa.....	131
2.3.3.3. Ipar Euskal Herria.....	132
2.3.4. Kodifikazioaren hirugarren ekinaldia, eta kezka berriak.....	133
2.3.4.1. Leioako biltzarra eta hurrengo urteetako araugintza.....	134
2.3.4.2. Euskararen kalitatea.....	138
2.3.4.3. Batuaren kontestazioa eta bernakularren aldarrikapena.....	139
2.4. EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN LAUGARREN ALDIA.....	142
2.4.1. Egoera soziolinguistikoa Euskal Herrian XXI. mendearen hasieran.....	144
2.4.1.1. Euskararen ezagutzaren eboluzioa.....	145
2.4.1.2. Euskararen erabileraren eboluzioa.....	148
2.4.2. Eragile instituzionalen XXI. mendearen hasierarako hizkuntza-politika.....	151
2.4.2.1. EAE: Euskara 21 egitasmoa.....	151
2.4.2.2. Nafarroa.....	157
2.4.2.3. Ipar Euskal Herria.....	158
2.4.3. Gizarte-eragileak eta euskararen sustapena XXI. mendearen hasieran.....	159
2.4.3.1. Euskal herritarren hizkuntza-eskubideak.....	160
2.4.3.2. Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoak.....	163
2.4.3.3. Euskararen eta erdaren arteko bizikidetza.....	165
2.4.3.4. Hizkuntza-ohituren aldaketa.....	166
2.4.4. Euskararen lekua sendotzeko estatus-plangintza.....	168
2.4.4.1. Euskal Autonomia Erkidegoa.....	168
2.4.4.2. Nafarroa.....	170
2.4.4.3. Ipar Euskal Herria.....	171
2.4.5. Euskararen transmisioa sendotzeko jabekuntza-plangintza.....	171
2.4.5.1. Euskal Autonomia Erkidegoa.....	172
2.4.5.2. Nafarroa.....	175
2.4.5.3. Ipar Euskal Herria.....	176
2.4.6. Corpus-plangintza eta teknologia berriak.....	177
<b>3. EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOAREN HASTAPENAK. ZERBITZU</b>	
<b>ALDIA ETA EUSKAL TELEBISTAREN SORRERA.....</b>	<b>182</b>
3.1. DOHAINTZA ALDIA EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKOETAN.....	186
3.1.1. Euskarazko lehen komunikabideak.....	187

3.1.2. Euskarazko ikus-entzunezko komunikazioaren lehen urratsak.....	189
3.2. ZERBITZU ALDIA EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKOETAN.....	191
3.2.1. Dohaintzatik zerbitzura.....	192
3.2.2. ETBren sorrera.....	194
3.2.2.1. Lege-euskarria.....	194
3.2.2.2. Zerbitzu publikoa helburu.....	196
3.2.2.3. Antolaketa eta azpiegiturak.....	201
3.3. EUSKARAREN ESTATUS-PLANGINTZA ETA ETB ZERBITZU ALDIAN.....	202
3.3.1. ETBren balio sinbolikoa.....	203
3.3.2. Euskadiko ikus-entzunezko industria.....	205
3.3.3. ETB eta euskararen komunikazio-esparrua.....	209
3.3.3.1. Guztizkotasuna euskararen komunikazio-esparruan.....	210
3.3.3.2. Komunikazio-arloaren egitura euskararen esparruan.....	215
3.3.3.3. Irismena eta kontsumoa.....	218
3.4. EAEko HIZKUNTZA-POLITIKA ETA ETB ZERBITZU ALDIAN.....	221
3.4.1. Elebitasunaren kudeaketa.....	222
3.4.2. Hizkuntza-eredua.....	226
3.5. EUSKARAREN CORPUS-PLANGINTZA ETA ETB ZERBITZU ALDIAN.....	230
3.5.1. Corpus-plangintzaren eskumena eta irismena.....	232
3.5.2. Barne-produkzioko informazioa.....	234
3.5.3. Kanpo-produkzioko dramatikoak.....	239
3.5.4. Kanpo-produkzioko entretenimendua.....	245
3.6. ETBren HIZKUNTZA-HAUTUEN INPLEMENTAZIOA ZERBITZU ALDIAN.....	246
3.6.1. Gaztelaniazko azpidazketa.....	247
3.6.2. Euskararen ezagutzaren sustapena.....	249
3.6.3. Hizkuntza-zaintza ETBn.....	250
3.6.3.1. Euskara Sailaren sorrera.....	251
3.6.3.2. Profesionalen etengabeko hizkuntza-formazioa.....	257

#### **4. EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA MUNDU GLOBALIZATUAN.**

##### **PERFORMANTZIA ALDIA ETA EUSKAL TELEBISTAREN HELDUAROA.....260**

4.1. PERFORMANTZIA ALDIA EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKOETAN.....	263
4.1.1. Euskararen komunikazio-esparrua XXI. mendearen hasieran.....	265
4.1.2. Eragintza publikoa euskarazko komunikazioan XXI. mendearen hasieran.....	268
4.2. EUSKAL TELEBISTA PERFORMANTZIA ALDIAN.....	272
4.2.1. EiTbren plangintza estrategikoa.....	273
4.2.1.1. 2000-2007 epealdia.....	274
4.2.1.2. 2007-2009 epealdia.....	277
4.2.1.3. 2009-2013 epealdia.....	281
4.2.1.4. 2013-2020 epealdia.....	283

4.2.2. EiTbren garapena.....	288
4.2.2.1. Antolamendua eta azpiegiturak.....	288
4.2.2.2. Irismena eta kontsumoa.....	291
4.2.2.3. Euskara Zerbitzuaren sorrera.....	295
4.2.2.4. Enpresako lan-hizkuntza.....	301
4.2.3. ETBren erreferentzia-esparrua.....	305
4.3. EUSKARAREN ESTATUS-PLANGINTZA ETA ETB PERFORMANTZIA ALDIAN.....	310
4.3.1. Euskadiko ikus-entzunezko industria.....	312
4.3.2. ETB eta euskararen komunikazio-esparrua.....	315
4.3.3. Orotariko eskaintza bakarretik espezializaziora.....	318
4.4. EAEko HIZKUNTZA-POLITIKA ETA ETB PERFORMANTZIA ALDIAN.....	323
4.4.1. Elebitasunaren kudeaketa.....	325
4.4.2. Hizkuntza-eredua.....	329
4.4.3. Hizkuntzaren kalitatea.....	333
4.5. EUSKARAREN CORPUS-PLANGINTZA ETA ETB PERFORMANTZIA ALDIAN.....	335
4.5.1. Egokitasunaren erronka.....	336
4.5.2. Barne-produkzioko informazioa.....	339
4.5.3. Kanpo-produkzioko informazioa.....	346
4.5.4. Barne-produkzioko dramatikoak.....	348
4.5.5. Kanpo-produkzioko dramatikoak.....	350
4.5.6. Barne-produkzioko entretenimendua.....	355
4.5.7. Kanpo-produkzioko entretenimendua.....	357
4.5.8. Kanpo-produkzioko publizitatea.....	358
4.5.9. ETBren eredu prosodikoa.....	361
4.6. ETBren HIZKUNTZA-HAUTUEN INPLEMENTAZIOA PERFORMANTZIA ALDIAN.....	361
4.6.1. Euskarazko azpidazketa.....	362
4.6.2. Euskararen ezagutzaren sustapena.....	364
4.6.3. Hizkuntza-zaintza ETBn.....	366
4.6.3.1. Hizkuntza-prestakuntza.....	366
4.6.3.2. ETBko euskara-ereduaren kanpo-zabalkundea.....	369
4.6.3.3. HIKEA aplikazioa.....	371
4.6.3.4. Euskaltzaindiarekiko hitzarmena.....	373
<b>5. IKUSPEGI OROKORRA ETA AZKEN GOGOETAK.....</b>	<b>377</b>
<b>6. ONDORIOAK.....</b>	<b>395</b>
<b>BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>403</b>
<b>I. ERANSKINA: TAULAK.....</b>	<b>439</b>
<b>II. ERANSKINA: LABURTZAPENAK.....</b>	<b>448</b>



<b>III. ERANSKINA: EiTBrekin LOTURIKO PERTSONAK.....</b>	<b>452</b>
<b>IV. ERANSKINA: ETBren EUSKARAZKO SAIOAK.....</b>	<b>466</b>
<b>V. ERANSKINA: TELEBISTAKO TERMINOLOGIA.....</b>	<b>476</b>
<b>VI. ERANSKINA: LEGERIA.....</b>	<b>488</b>
V.1. EUROPA.....	488
V.2. ESPAINIA.....	488
V.3. FRANTZIA.....	488
V.4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA.....	488
V.5. NAFARROAKO FORU ERKIDEGOA.....	489
<b>VII. ERANSKINA: EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO PLANGINTZA.....</b>	<b>492</b>
VII.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA.....	492
VII.2. NAFARROAKO FORU ERKIDEGOA.....	492
VII.3. IPAR EUSKAL HERRIA.....	492

## **IRUDIEN ZERRENDA**

1. irudia: Lau dimentsioko plangintza-eredua.....	49
2. irudia: HPPrako eredu integratzailea.....	51
3. irudia: Hamabost urtetik gorakoen hizkuntza-gaitasunaren eboluzioa Euskal Herrian.....	146
4. irudia: Euskararen ezagutzaren eboluzioa Ipar Euskal Herrian adinaren arabera.....	147
5. irudia: Euskararen kale-erabileraren eboluzioa Euskal Herrian.....	148
6. irudia: Euskararen kale-erabileraren eboluzioa Euskal Herrian.....	149



---

ETBren SORRERA GARAPENA ETA FUNTZIOA  
EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN TESTUINGURUAN

---



## **0. EUSKAL TELEBISTA ETA EUSKARAREN NORMALIZAZIOA GAI AZ IKERTZEA: ABAGUNEA ETA URRATSAK**

1980ko hamarkadaren hasiera euskararentzako aldi berri baten hasiera ere izan zen, eta Euskal Telebistaren abioa, aldi berri haren irudia, proiektuak berekin zekartzan zailtasunetako asko gainditzeko hainbat urte behar izan ziren arren. Garai hartan, telebista ikono bat zen, eta Euskal Telebista (ETB) euskararentzako bizkorgarria izango zelakoan zeuden gizarte-eragile euskaltzaleak. Telebistak —berak bakarrik— ez zuen euskara salbatuko baina, telebistarik gabe, euskara ez zen salbatuko (Torrealdai, 1985, or. 266). Hala, hasierako urte haietan, ETBk aurretik ezagutu gabeko zabalkundea, presentzia eta erabilera eman zizkion euskarari, eta ETBren emanaldiek euskal gizartearen zati handi baten arreta erakarri zuten, euskaldunen artean ez ezik, euskara ez zekitenen artean ere, kirol-emankizunen bitartez, "Dallas" bezalako programa arrakastatsuen bitartez eta haurrentzako saioen bitartez (Etxarri, 1985).

Euskal gizarteak bezala, irauteko eta etorkizuna izateko ahalegina egitea erabaki duten hizkuntza gutxituko komunitate askok nahitaezkoztat jo dute telebista bat antolatzea euren hizkuntzan, esate baterako, Katalunian (CCMA, 2013), Britainian (Baudu, 2000), Galizian (CRTG, 2014), Zeelanda Berrian (Mather, 2008), Galesen (Laughton, 2004), Ekuadorren (Kearns, 2009) eta Irlandan (O'Connell, 2007). Esperientzia horiek, ispilu eta jarraibide izateaz gainera, berrespen bat izan dira Euskal Telebistarentzat, euskararen normalizazioan egokitu zaion tokiaren berrespena.

Euskal Telebista sortzeko helburuetako bat, hain zuzen, euskal kultura eta euskal hizkuntza sustatzea zen, 5/1982 Legeak, Euskal Irrati Telebista herri-erakundea sortzeari buruzkoak, 3.h. artikuluan ezarritakoaren arabera. Euskal gizarteak toki nabarmena aitortzen dio euskararen sustapenean, asmo horrekin abiarazi zen lehen tresna delako, Euskal Herri osoa hartzen duelako, eta sarbide erraza duelako herritarren etxean eta bizitzan. Horrekin batera, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoari zein mediatikoari buruzko testuetan (Díaz Noci, 1998; Arana, Amezaga, & Azpillaga, 2010), aho batekoa da Euskal Telebista euskararen normalizaziorako tresna garrantzitsua delako iritzia.

Iritzi hori datuekin aldeztu nahi izanez gero, ordea, gaia gutxi aztertu dela ohartuko gara. Euskaralariak arreta urria eskaini diote telebistari —prentsari baino urriagoa, bederen— eta, gehienetan, ikus-entzunezko hedabideetako euskararen kalitateaz baino ez dira aritu. Torrealdaik (1985) Euskal Telebistaren hastapenetan hizkuntza-eredua eta euskara-eredua zehazteko prozesuaz eginiko ikerketatik hona, nekez aurki daiteke ETBren normalizazio-eginkizunari buruzko literaturarik, iritzi-artikuluak ez badira. Oro har, ETB euskararekin loturik aztertzeke interesa handiagoa izan da komunikabideen arloko ikertzaileen aldetik, hizkuntza-arlokoen aldetik baino.

Bestalde, ikergai nahiko berria da hedabideek —batik bat, telebistak— hizkuntzaren normalizazioan duten betekizunarena. Abiapuntu modura har daitezkeen lanen artean, batzuk —Cormack (2004), O'Connell (2004), Pietikäinen eta Kelly-Holmes (2011)— diziplinaren garapenarekin lot daitezke, eta beste batzuk —Ó Laoire (2008), Cotter (1999), Jones (2013b)— hizkuntza gutxituen kasu partikularren azterketarekin.

Pietikäinenek eta Kelly-Holmesek (2011) hiru aldi bereizi dituzte hedabideek hizkuntza gutxituen sustapenean izan dezaketan eginkizunari buruzko pentsamenduaren bilakaeran: dohaintza aldia, zerbitzu aldia, eta performantzia aldia. Hiru aldi horiek osatzen duten ibilbidean, hizkuntza gutxituek beste hizkuntza bateko programazioan leiho txiki bat izatetik euren hedabide propioak izatera eta iraultza digitalean murgilduta egotera igaro dira eta, gertakizun horiekin batera, eboluzionatuz joan da hedabideei hizkuntza-normalizazioan aitortu zaien rolari buruzko ikuspegia.

Izan ere, XX. mendearen erdialdean gizarte-zientzietan zabaldu zen pentsaerak zioen hedabideek ezin zezaketela gizarte-aldaketa eragin. Ideia hori Soziolinguistikara eramanda, hedabideak ez ziren hartzen hizkuntza-aldaketaren eragiletzat. Gehienez ere, hizkuntza-aldaketaren berri eman zezaketela onartzen zen, hiztunak hizkuntza-aldatera berrien jakitun ipin zitzaketela. Hizkuntza-normalizazioaren ikuspegitik, horrenbestez, hizkuntza gutxituei hedabideetan zabaldu zizkieten lehendabiziko leiho haiei helburu testimonial hutsa eman zitzaientzen, mintzaira ikusgai egitea eta komunitatearen identitatea berrestea —estatus-plangintza (Haugen, 1983) arloko funtzioa—.

Aurrerago, hizkuntza gutxituko hedabideak (HGHak) eratu zirenean, estandarraren zabalkundea eta ezagutarazpena lortzeko tresnatzat jo ziren —corpus-plangintza (Haugen, 1983) arloko funtzioa—, hizkuntza hegemonikoen kasuan gertatzen zen bezala. Harrezkero, ikerketa berriak egin dira hizkuntza-aldaketa kontzeptuaz. Batetik, hedabideekiko esposizioaren eta hizkuntza-aldaketaren artean korrelazioa dagoela aurkitu da, hirugarren faktore batek azaltzen duena: hiztunaren motibazioa (Naro & Pereira Scherre, 1996). Bestetik, 'aldaketa soziolinguistiko' (Coupland, 2010) kontzeptua proposatu da, agerian jartzeko hizkuntza-aldatera baten gramatikan ez ezik karga ideologikoan ere gerta daitekeela aldaketa; ikusi denez, hedabideak azken era horretako aldaketaren gertaleku eta hedatzaile garrantzitsuak dira. Ikerketa berriok frogatutzat utzi dute HGHak hizkuntzaren transmisioan laguntzeko tresna ere izan daitezkeela —jabekuntza-plangintza (Hornberger, 2007) arloko funtzioa—.

Bien bitartean, iraultza digitalak ondorioak izan ditu komunikazioaren sektorean: ekoizlearen eta hartzailearen roletan bategitea gertatu da; audientziak zatitu, eta zabalkunde-plataformak ugartu egin dira; ikus-entzunezko produktuetan gaindituta dago estandarraren ideologia, eta bernakularizazioa eta heteroglosia atzeman daitezke. Elorduik (2013) dioenez, hizkuntza gutxituko ikus-entzunezko hedabideek, normalizazio-eginkizuna betetzen segituko badute, panorama berri horrek dakartzan erronkei heldu beharko diete. Elorduik berak (2016) erakutsi duenez, hizkuntza gutxituko hedabide sozial berriek, behintzat, jakin dute esandako erronka horiei heltzen.

Testuinguru honetan, iruditzen zaigu une egokia dela hainbat galderari erantzuteko: Zer eginkizun egotzi zion legeak Euskal Telebistari euskara sustatzeko ahaleginean? Euskal



gizarteak zer eginkizun espero zuen ETBk betetzea euskara sustatzeko ahaleaginean? Ezarri zitzaizkion eginkizunei nahiz berarengandik espero zirenei erantzuteko, ETBk zer estrategia landu ditu eta zer ekimen eraman ditu aurrera? Estrategia eta ekimen horiek bat datoz hizkuntza gutxituko beste hedabide batzuenekin? Zein izan dira arazoak ETBk euskararen normalizazioko eginkizunak bete zitzaizkion? Arazo horien ondorioz eta munduaren eboluzioaren ondorioz, zer aldaketa gertatu dira denboran zehar ETBk aurre egin beharreko eginkizunetan eta horiei erantzuteko estrategia eta ekimenetan? Etorkizunari begira, zer aurreikus daiteke eginkizun, estrategia eta ekimen horiei dagokienez?

## 0.1. IKERGAIA

Gure ikergaia telebista-enpresa bat da, Euskal Telebista, erakunde handiago baten parte dena. Erakunde handiago hori Euskal Irrati Telebista (EiTB) da, Euskal Autonomia Erkidegoko komunikazio-talde publikoa. ETBk aurrera eramaten dituen politikak, ekimenak eta eginkizunak EiTBren politketan, ekimenetan eta eginkizunetan txertatuta egoten dira edo, behintzat, EiTBk erabakitako ildotik etortzen dira. Hortaz, tesi honetan, hainbeste bider gertatu zaigu EiTBri erreferentzia egin behar izatea ETBri buruz jarduteko. Alderantzizkoa ere gertatu zaigu: ETB bakarrik esan arren, EiTB osoari dagokionaz dihardugu. Herritarren artean ere, ETB esanda, EiTB osoa hartzen da gogoan, telebista baita komunikazio-taldearen bandera-ontzia. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi ikerketa hau telebistatik harago eraman dugunik.

Ikerketa honen esparrua, bestalde, hizkuntza gutxitu<sup>1</sup> baten, alegia, euskararen normalizazioa da. 'Hizkuntza-normalizazio' terminoa 1960ko hamarkadan azaldu zen Soziolinguistikan, eta batik bat hizkuntza gutxituen gaineko literaturan erabiltzen da, prozesu jakin bat izendatzeko, hizkuntza gutxitu bat ordezkaturik izateko arriskutik gizartean funtzio guztiak normal betetzera daramana, hain zuzen.

---

<sup>1</sup> *Soziolinguistika eskuliburua*-ri (Zarraga et al., 2010, or. 166) jarraituta, 'hizkuntza gutxitu' terminoa darabilgu tesi honetan.

Soziolinguistika jakintza berri samartzat har dezakegu baina, hamarkada gutxitan, beraren intereseko gaiak ugartu egin dira, eta berorien gaineko ikerketa eta gogoetek testu-ekoizpen oparoa eragin dute. Gure ikerketa hau Soziolinguistikaren arloko gaietako bati dagokio, hizkuntza-normalizazioari, berak mugarritutako esparruan uztartzen baitira ikerketaren ideia giltzarriak: euskara —hizkuntza gutxitu bat— eta hedabideak. Hizkuntza-normalizazioaren mugen barruan kokatzen da, horrenbestez, tesi honen marko teorikoa.

## **0.2. HELBURUAK**

Goian adierazitako galderei erantzuteko ahaleginez, ikerketa honen helburu nagusia da *Euskal Telebistak euskararen normalizazioan izan duen eginkizuna aztertzea*. Horretara iristeko bidean, lau helburu zehatz bereizi ditugu. Lehen helburu zehatza da ikerketa honen marko teorikoa mugarritzea, urrats hauekin: 'hizkuntza-normalizazio' kontzeptuaz gogoeta egitea; hizkuntza-normalizazioan ezarrita dauden ideiak eta aplikatzen diren ereduak deskribatzea, eta hedabideei hizkuntza gutxituen normalizazioan aitortzen zaizkien eginkizunak identifikatzea.

Ikerketa honen bigarren helburu zehatza da euskararen normalizazioaren berrikusketa egitea. Euskararen normalizazioaren historia antolatzeke Ricentok (2000) proposaturiko aldi-banaketa oinarri modura hartuta, urrats hauek bete ditugu: 1970 aldera euskararen normalizazioa abiarazi zenean Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa zein zen deskribatzea; euskararen normalizazioa abiaraztea ahalbidetu zuten faktoreak identifikatzea; euskararen normalizazioaren ibilbidea aztertzea, eta Euskal Telebista euskararen normalizazioaren testuinguruan kokatzea. ETB testuinguru horretan kokatuta, hirugarren helburu zehatza da beraren sorrera eta garapena deskribatzea, arretagune hauekin: ETBren sorrerako testuinguru politiko eta legalari gainbegiratu ematea; ETBk komunikazio-enpresa moduan egin duen ibilbidea zirriborratzea, eta Euskal Telebistak euskararen komunikazio-esparruan duen tokia agerraraztea.

Azkenik, laugarren helburu zehatza da Euskal Telebistak aurrera eraman dituen ekimen eta jardueretatik euskararen normalizazioarekin lot daitezkeenak identifikatzea. Ekimen

eta jarduera horiek antolatzeko, Pietikäinen eta Kelly-Holmesen (2011) aldi-banaketa hartu dugu oinarri modura eta, euskararen normalizazioarekin lot daitezkeenak identifikatzeko, urrats hauek bete ditugu: ETBren kudeaketa-sistema deskribatzea; ETBren barne-dokumentazioan edo ETBren gaineko dokumentazio ofizialean euskarari buruz agertutako kezka eta egindako gogoetak jasotzea eta sistematizatzea; kezka eta gogoeta horiei erantzuteko ETBren barruan erabakitako ekimenak jasotzea; ekimenok izan dituzten emaitzak aztertzea; ETBren gaineko artikulua eta analisisetan euskarari buruz agertutako kezka eta egindako gogoetak jasotzea eta sistematizatzea, eta kezka eta gogoeta horiek ETBren ekimenetan izan duten eragina aztertzea.

### **0.3. METODOLOGIA**

Hizkuntza gutxitu bat sustatzeko plangintza irizpide biren arabera azter daiteke (Grin & Vaillancourt, 1999, or. 2–3): irizpide deskribatzailea eta irizpide ebaluatzailea. Irizpide deskribatzailea erabiltzen denean, helburua da hizkuntza-politika jakin bati eusten dion ideologia esplizitu zein implizituaren berri ematea, eta politika hori gauza dadin zer neurri zehazten diren identifikatzea. Irizpide ebaluatzailea erabiltzen denean, helburua da aldagai soziolinguistiko jakin baten balioetan —esate baterako, hiztun-kopuruan— gertatzen den aldaketa hizkuntza-politika jakin batekin lotzea eta berorren ondorioa dela frogatzea. Euskal Telebistak euskararen sustapenean izan duen eginkizunari buruzko azterketa honetan, irizpide deskribatzailea erabiliko dugu, eta metodologia nagusi bi: eduki-analisisa eta bibliografiaren berrikuspena.

Bibliografiaren berrikuspena, batik bat, gure ikerketaren marko teorikoa mugarrizteko baliatu dugu. Aintzat hartu dugun bibliografian, euskararen normalizazioa aztertu duten lanekin batera, multzo garrantzitsua osatzen dute nazioarteko mailan hizkuntza gutxituen sustapenari buruz aritu diren ikertzaileen lanek, besteak beste, Fishman (1991), Haugen (1983), Hornberger (2007) eta Ricentorenak (2000). Bi dira arretaguneak. Alde batetik, hizkuntza-normalizazioan ezarrita dauden ideiak eta aplikatzen diren ereduak. Beste aldetik, hedabideei —telebistari, batez ere— hizkuntza gutxituen normalizazioan aitortzen zaizkien eginkizunak.

Eduki-analisia euskararen normalizazioari eta Euskal Telebistari buruzko datuak jasotzeko baliatu dugu, arretagune hauekin: 1) Euskal Herriaren 1970 aldeko egoera soziolinguistikoa eta soziopolitiko; 2) euskararen normalizazioan bereiz daitezkeen urratsak, eragileak eta esparruak; 3) ETBren sorreraren testuinguru soziopolitiko, legal eta kulturala; 4) ETBren enpresa-garapena, eta 5) ETBren hizkuntza-arloko estrategiak, beharrianak eta ekimenak.

Euskal Herriaren garai bateko egoera soziolinguistikoaren berri izateko, orduan argitaratu ziren ikerketetara jo dugu nagusiki. Euskararen normalizazio-prozesuaren berri izateko, lau eratako dokumentazioa miatu dugu: 1) aginte publikoek ekoiztako legeak, planak, kontratuak eta gaiarekin loturik egon daitezkeen bestelako agiri guztiak; 2) euskal gizarte-eragileek euren nahi, esperantza eta jomugak plazaratzeko idatzi dituzten liburu, artikulua eta txostenak; 3) hizkuntzalarien artikulua, ikerketak eta doktoretza-tesiak, eta 4) komunikatzaileen erreportaje eta ikerlanak.

Euskal Telebistaren eginkizunak eta emaitzak ezagutzeko, lau dokumentazio-multzo arakatu ditugu: 1) enpresak berak edo enpresaren ordezkariak prestaturiko memoria, aurkezpen, txosten, akta, artikulua eta agiri guztiak. Zenbaitetan, ETBren jardueretan arduradun edo partaide izan direnen ahotik jaso ahal izan dugu informazioa zuzenean. 2) Ikertzaile eta adituen artikulua, txostenak eta liburuak. 3) Gizarte-eragileek euren gogoetak, iritziak edo kritikak plazaratzeko idatzi dituzten artikulua. 4) Prentsan eta Interneten plazaratu diren albisteak eta erreportajeak. Gizarte-eragileen artean, multzo bi interesatzen zaizkigu bereziki, ETBri ere —barne-dokumentazioan jasota dagoenaren arabera— interesatzen zaizkion eran. Batetik, hizkuntzaren arloko eta komunikazioaren arloko profesionalak: kazetariak, hizkuntzalariak eta idazleak. Bestetik, erakundeetako ordezkariak, batez ere, Euskaltzaindikoak, Euskal Herriko unibertsitateetakoak eta euskarazko beste hedabideetakoak. Batzuen eta besteen iritzi-artikulua une horretan gizartean ETBri buruz egon den debatearen lekukotza gisa erabili ditugu.

Euskal Telebistak edo enpresaren ordezkariak prestaturiko dokumentuek askotan zabalkunde publikoa izan dute, berariaz horretarako egin direlako zein erakunde publiko baten dokumentazioa publikotzat jotzen delako beste barik. Oro har, halakoak erraz atzi daitezke, artxiboetan gordeta edo egunkari, aldizkari nahiz liburuetan argitaratuta

daudelako. Euskal Telebistaren barne-erabilerako dokumentazioa biltzeko orduan, ostera, hainbat erronkari egin behar izan zaie aurre. Lehena, oso garrantzitsua, Euskal Irrati Telebistaren egoitza nagusiaren lekualdaketak eragin zuen, 2007. irailean, uko egin behar izan baitzitzaion dokumentu gehienak egoitza berrira eramateari. Hortaz, 2007ko udan, Euskara Zerbitzuaren bulegoan zegoen dokumentazio guztia arakatu behar izan zen, agiri esanguratsuak kontserbatzeko. EiTBko beste bulego batzuetan ere egin zen miaketa.

Bigarren erronka, informazioaren sakabanaketa da. Euskararekin lotutako jardueretan —enpresako beste jarduera askotan bezala—, pertsona askok hartzen dute parte, eta jarduera horiekin lotuta sortzen dituzten dokumentuak ez dira ez formatu bakarrean sortzen, ez sistematikoki antolatzen, ez toki bateratu batean gordetzen. Hainbat kasutan, erabili dugun informazioa email zaharretatik jaso dugu. EiTBn, beraz, informazioa galtzeko arriskua handia da, eta kontserbatzen den informazioa berreskuratzeko esfortzua, eskerga. Hirugarren erronka ETBren hasierako esperientzia faltak eragindakoa da. 1990era arte, artxiboa eta hemeroteca ez zeuden irizpide profesional zorrotzen arabera antolatuta, eta horrek oso gaitz egiten du 1980ko hamarkadan prentsan Euskal Telebistari buruz agertu ziren kritikak eta iritziak biltzea. 1990etik aurrera, ordea, gauza gehienak katalogatuta daude, eta erraz samarra izan da eskuratzea.

Erronka horiei gehituta, Euskal Telebistako dokumentazio gehienak ez du zabalkunde publikorik, eta egile gehienek ez dute aditzerik enpresatik kanpo. Dokumentuok ikerketa honetarako egokiak direla bermatzearen, eta ikerketa honen ikuspegitik nor badiren pertsonak egin dituztela egiaztatzearen, beraz, hirugarren eranskinean eman dira enpresa barruko edo enpresaren inguruko egileei buruz jakingarri diren datuak, Euskal Telebistarekin edo Euskal Irrati Telebistarekin duten lotura nabarmenduta.

#### **0.4. ANTOLAMENDUA**

Tesi hau bost kapituluatan banatu dugu. Lehen kapituluatan, gure ikerketaren marko teorikoaz ari gara. Euskara bezalako hizkuntza gutxituak sustatzeko plangintzaren ideiatik abiatuta, tesi osoan giltzarri diren kontzeptuen argiketa egitea da kapituluaren

haria: hizkuntza-normalizazioa zer den, aurrera eramateko zer eredu proposatu diren, eta eredu horietan hedabideak zelan txertatzen diren. Bigarren kapituluan, euskararen normalizazioaren berrikusketa egin dugu, hurrengo kapituluetan Euskal Telebistaren sorrera eta garapena testuinguru horretan kokatu ditugu eta. Hirugarren kapituluan, ETBren abiatzeaz eta lehen urteetako ibilbideaz dihardugu eta, laugarren kapituluan, 2000. urtetik aurrerako ibilbideaz. Kapitulu biotan, ETBk euskararen normalizazioan izan duen parte-hartzeak ezartzen du kontakizunaren haria. Gure ikerketaren ondorioak bosgarren kapituluan azaldu ditugu eta, etorkizunari begira, ikerketa-ildo berriak proposatu ditugu.

Atzetik, bibliografiaren ostean, eranskinak datoz. Lehen eranskinean, hainbat datu osagarri eskaini ditugu taula gisa. Bigarren eranskinean, testuan erabilitako laburtzapen guztiak bildu ditugu, bai siglak, bai laburdurak, eta azpian dagoen hitza edo hitz-andana jarri dugu alboan; beharrezko kasuetan, euskarazko ordaina ere bai. Hirugarren eranskinean, gorago aurreratu bezala, testuan ETBekin moduren batean loturik aipatzen diren pertsona guztiak bildu ditugu, hainbat argibiderekin: jaiotzaren eta heriotzaren urteak, jarduera profesionala, eta EiTBrekin duten lotura. Laugarren eranskinean, testuan aipatzen diren Euskal Telebistako euskarazko programa guztiak bildu ditugu, hainbat argibiderekin: emisio-urtea, programaren deskribapen labur bat —generoaren eta edukiaren berri emateko—, eta ekoizpen-etxea.

Bosgarren eranskinean, testuan zehar aipatzen diren telebistaren —edo, modu zabalagoan hartuta, ikus-entzunezkoen— arloko hitz eta terminoak jaso ditugu, eta bakoitzari definizioa eman zaio. Seigarren eranskinean, testuan azaltzen diren lege guztien bilduma eman dugu, administrazio publikoaren eta dataren arabera antolatuta. Azkenik, tesi honetan ezinbesteko erreferentzia izan diren euskararen normalizaziorako planak eta plan horiei loturiko dokumentuak bildu ditugu, horiek ere administrazio publikoaren eta dataren arabera antolatuta.



# 1. HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOAREN MARKO TEORIKOA

Euskal Telebista Eusko Legebiltzarraren lege batek sortu zuen 1982. urtean euskara normalizatzeko prozesurako tresna izan zedin —ez, hala eta guzti, asmo horrekin bakarrik— eta, hogeita hamar urte baino gehiago igarota, oraindino, zalantza egiten da telebista baliagarria ote den horretarako. Adibidez, Maniasek (2018) —2010eko hamarkadaren hasieratik hizkuntza gutxituko ikus-entzunezkoen arloan diharduen ikertzaileak— honela azaldu dio publiko arruntari: «*Ez dago ebidentzia argirik telebistak komunitate batengan izan dezakeen eraginaz, hizkuntza biziberritzeko eta erabilpena sustatzeko*». Baieztapen horren ondorioa ez da ezin daitekeela aurkitu euskararen normalizazioan ETBk egindako ekarpenik edo betetako eginkizunik. Hain zuzen, ETBren ekarpen eta eginkizunak identifikatzea eta deskribatzea da ikerlan honetan egin asmo dugun azterketa eta, hortaz, lehen kapitulu honetan, gure helburua da halako baieztapen baten azpian dautzan ideiak deskorapilatzea, eta lan honi euskarria eskaintzen dioten ikerketen eta eredu teorikoen berri ematea, alegia, gure marko teorikoa ezartzea. Hiru gairi buruz arituko gara: 'normalizazio' kontzeptuaren zedarriztapena, normalizazio-egitasmoen diseinua eta inplementazioa, eta hedabideen normalizazio-eginkizunaren aitortpena.

Kapitulu honetako 1.1. atalean, gure arretagunea terminologia izango da. Izan ere, deitura ezberdinak atzeman daitezke euskara bezalako hizkuntza gutxituen iraupenaz ari



diren testuetan; aurreko paragrafoan: *euskara normalizatzea, hizkuntza biziberritzea eta erabilpena sustatzea*. Nahitaezkoa da, beraz, 'hizkuntza-normalizazio' kontzeptua eta beraren inguruko terminoak zehaztea eta argitzea. 1.2. atalean, hizkuntza gutxituak iraunarazteko ahaleginak izango dira arretagunea. Azken 50 urteetan euskara aurrera ateratzeko onartu diren helburu, egitarau eta baliabideek beste hizkuntza gutxitu batzuen sustapenean probatu diren politikak, plangintzak eta erremintak izan dituzte erreferentzia moduan eta, hortaz, berorien berrikusketa egingo dugu, aldian aldiko ideia eta ereduetan eragina izan duten faktoreak azpimarratuz.

Faktore horietako bat gizarte-komunikazioaren arloko ikerketak dira. 1950eko hamarkadatik, hedabideen eragina aztertu duten ikertzaileek aldarrikatu dute ez dagoela erlazio zuzenik hedabideetako edukien eta giza jokabideen artean, eta hortik etorri da hurrengo hamarkadetan hizkuntza gutxituen sustapenaz ikerketak egin eta ereduak landu dituzten hizkuntzalariek —Fishmanek, oso modu aipagarrian— ia aintzat ez hartzea hedabideak, baliagarriak ez direlakoan hizkuntza edo hizkuntza-aldaera jakin bat erabiltzea sustatzeko. Kapitulu honetako 1.3. atalean, ideia horretan jarriko dugu arreta. Azken hamarkadetan, soziolinguistikaren arloan eta hizkuntza gutxituen arloan egin diren ikerketek ikuspegi teoriko berriak eskaini dituzte eta, praktikan, eboluzio bat gertatu da hedabideei hizkuntza gutxituak sustatzeko politika, plangintza eta ekimenetan egokitzen zaien tokian. Eboluzio horren azken fasea XXI. mendeko testuinguru berrian gertatu da. 1.4. atalean, komunikazioen arloan indar handiz ezarri den teknologia digitalak sorrarazi duen testuinguru berri hori aztertuko dugu, eta hizkuntza gutxituko hedabideen normalizazio-eginkizunera ekarri dituen konplexutasunez jardungo dugu.

## **1.1. NORMALIZAZIOAREN ARLOKO OINARRIZKO KONTZEPTUEN ZEDARRITZEA**

Gure marko teorikoak heldu behar dion lehen gaia hizkuntza gutxituen normalizazioarekin loturik erabiltzen den terminologiaren argiketa da. XX. mendearen bigarren erdian, galtzeko zorian zeuden hizkuntzen iraupenaren gaineko kezkek ikerketa-ildo bat ireki zuen Soziolinguistikaren alor sortu berrian. Orduetik egin diren azterlanetan, arriskuan dauden hizkuntza gutxituen egoerak deskribatu dira, bai eta

gizarte batean gerta daitezkeen bestelako egoera soziolinguistikoak ere. Euskararen eta euskal gizartearen kasuan, 'diglosia' terminoa erabili da maiz egoera deskribatzeko eta, berarekin batera, 'hizkuntza-ordezkapena'. Gizarte-egoeren deskribapenaz gainera, ikerketetan, hizkuntza gutxituek jasaten dituzten arrisku-egoerei zer irtenbide eman dakiekeen aztertu da. Irtenbideok, besteak beste, 'normalizazioa', 'biziberritzea' eta 'hizkuntza-ordezkapena itzularaztea' terminoen bidez izendatu dira, hirurak erabiliak euskarari buruzko testuetan.

Atal honetan, termino horietaz eta beroriekin loturiko beste batzuek arituko gara, testu honetara ekarri ditugun erreferentzietan euskararen eta euskal gizartearen kasuari aplikatzen zaizkionean zer adierazi nahi den zehazteko helburuz. Lehenik, hizkuntza gutxitu bat desagertzeko arriskuan ipin dezaketen egoeren berri ematen denean zer ideia erabiltzen diren ikusiko dugu (ikus 1.1.1.) eta, horren ondoren, egoera horietan esku hartu eta, hala, hizkuntza gutxituaren iraupena bermatzeko ekimenak zer kontzeptutan oinarritzen diren aztertuko dugu (ikus 1.1.2.).

### **1.1.1. 'Diglosia' eta 'hizkuntza-ordezkapena'**

Hizkuntza bat komunitate batean galtzeko arriskuan dagoela esaten denean, beste barik ulertzen da komunitate horretan gutxienez beste hizkuntza bat ere badela. Hizkuntza bietako batek gizarte-estatus apalagoa izan ohi du eta, horregatik, L (*low*) hizkiaren bidez aipatzen da; besteak gizarte-estatus jasoagoa izan ohi du, eta H (*high*) hizkiaren bidez aipatzen da. Azurmendiri (2002, or. 49–51) jarraituta, halako komunitateetan, lau egoera soziolinguistiko bereiziko ditugu, modu eskematikoan honela azal daitezkeenak:

1. Ikuspegi diakronikotik, erlazio egonkorra eratzen da H eta L artean:
  - 1.1. H eta L hizkuntza beraren aldaerak izanda, hezkuntzak iraunarazten du H idatzian eta estatus jasoko erabileretan.
  - 1.2. H eta L erro ezberdinetako hizkuntzak izanda, Hk bere prestigioari zor dio estatus jasoagoan irautea.
2. Ikuspegi diakronikotik, erlazioa ez da egonkorra H eta L artean:
  - 2.1. H eta L hizkuntza beraren aldaerak izanda, gizartearen demokratizazioak bultzatzen du L Hren lekua hartzera idatzian eta estatus jasoko erabileretan.
  - 2.2. H eta L erro ezberdinetako hizkuntzak izanda, Hk inposizioari zor dio bere aldi bateko estatus jasoagoa.

Komunitateko mintzaira bien arteko estatus-erlazioak bere horretan irauten duenean, komunitate horretan diglosia (Ferguson, 1959) gertatzen dela esaten da. Zentzu hertsian, mintzaira biek hizkuntza beraren aldaerak izan behar dute (eskemako 1.1. egoera) baina, zentzu zabalagoan, erro ezberdinetakoak ere izan daitezke (eskemako 1.2. egoera). Euskal gizartearen 1970eko hamarkadako egoeraren deskribapenetan, diglosia zentzu zabalago horretan erabilia aurkitzen dugu, beraren bidez azpimarratuz H eta L hizkuntzen artean komunikazio-eremuen banaketa zegoela: H hizkuntza —gaztelania edo frantsesa— komunikazio formalean, eta L hizkuntza —euskara—, berriz, familiako eta lagunarteko giroan (Euskaltzaindia, 1979a, or. 18–19).

Komunitatearen bizitzan, Hren eta Lren arteko estatus-erlazioa faktore askorengatik izan daiteke ezegonkorra, hala nola, demokratizazioa eta modernizazioa (goragoko eskemako 2.1. kasuan) edo inposizioen errefusa (eskemako 2.2. kasuan). Halako gizarte-dinamiken berri eman ezin zezakeen aldetik, diglosia ez zen kontzeptu gogobetegarria izan 1970eko hamarkadan European euren hizkuntza gutxituen sustapenean behartu ziren zenbait talderentzat (Kremnitz, 1981, or. 65). Hizkuntza gutxitu horien gizarte-arazoa hobeto jasotzen zuelakoan, Herrialde Katalanetako soziolinguisten artean 'hizkuntza-gatazka' kontzeptua hedatu zen. Termino horren bidez, hizkuntza batek gizartean betetzen dituen funtzioen eta gizarte horretan bereiz daitezkeen hizkuntza-funtzioen arteko defizit edo desorekak dakarren tentsioa adierazten da (Aracil, 1986, or. 24–25).

1970eko hamarkadan, Soziolinguistika katalanak hizkuntza-gatazka klase-gatazka zabalago baten elementutzat jo zuen (Ninyoles, 1978). Gatazka horretan, batetik, goiko klasea dago, ekonomi eta kultur produkzioaren sustatzailea eta jabea, hizkuntza jakin batean mintzo dena eta, bestetik, herri xehea dago, beste hizkuntza batean mintzo dena. Testuinguru horretan, diglosia nozioaren bidez, menderakuntza-erlazio baten berri eman nahi zen: goiko klasearen hizkuntza kulturaren, erlijioaren, hezkuntzaren eta administrazioaren hizkuntza bilakatuko zen komunitate osoarentzat, eta herri xehearen hizkuntza landu gabe geratuko zen, beheko klasekoen lagunarteko eta familia barruko erabileran. Diglosia ulertzeko modu horrek —menderatuen diglosia deritzonak— arrakasta izan zuen Euskal Herriko egoeraren interpretazio gisa (Zalbide, 2011, or. 67).

1980ko hamarkadan orientazio-aldaketa gertatu zen Herrialde Katalanetako Soziolinguistikaren barruan, eta uko egin zitzaion gatazka sozialaren teoriari (Ninyoles, 2001, or. 23–25). Paradigma berrian, Herrialde Katalanetako gizartean gertatzen den hizkuntza-gatazka deskribatzen denean, elebitasun oso zabalduko egoera dela esaten da, gatazkaren funtsa katalanaren ordezkapena dela azpimarratuta (Vallverdú, 1983). Hizkuntza-ordezkapenak esan nahi du komunitatearen barruan hizkuntzetako bat erabilera-eremuak irabaziz eta bestea eremuak galduz doala (Aracil, 1986, or. 163).

Hizkuntza-ordezkapena gertatzen denean, normalean, aginpidearekin eta nagusigoarekin loturiko hizkuntza izaten da eremuak irabaziz doana. Aracilek (1986, or. 163–169) deskribatu bezala, prozesuaren amaieran, intimitatearen esparrua ere inbaditu, eta guztiz desagerrarazten du komunitatean hizkuntza propioa. Ordezkapen horri Kingek (2001, or. 12) negatiboa deritzo, baina ordezkapen positibo bat ere badagoela dio, komunitatearen hizkuntzak esparru guztiak bereganatzeko —eta, aldi berean, hiztunak gehitzeko— norabidean gertatzen dena, alegia, hizkuntzari bizindarra ematen diona. Bigarren prozesu hori izendatzeko, 'hizkuntza-biziberritzea' darabil Kingek (ibid., or. 4). Eusko Jaurlaritzaren testuetan sarritan azaltzen da biziberritzea —adibidez, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian (Euskararen Aholku Batzordea, 1998)—; gehienetan 'normalizazio' gisa irakur daiteke. Biziberritze terminoak, ukipen-egoera inplikatzeko duen aldetik, ondoz ondo du Pauwelsek (2004, or. 719) darabilen 'hizkuntza-iraupen' terminoa, zeinaren bidez deskribatzen baitu komunitate batek, hizkuntza prestigiodun baten presioa jasan arren, bizitzako arloren batean —edo guztietan— bere hizkuntza erabiltzen jarraitzea.

### **1.1.2. 'Normalizazioa' eta 'hizkuntza-politika eta -plangintza'**

Hainbat egoera soziolinguistikorekin loturiko terminoak argitu ondoren, galtzeko arriskuan dauden hizkuntzak sustatzeko ahaleginekin loturiko kontzeptuez arituko gara azpiatal honetan. Hizkuntza gutxituen testuinguruan, 'normalizazio' terminoa Europa hegoaldean erabiltzen da batik bat, kulturalki eta politikoki menperaturik egotearen ondorioz hizkuntza-ordezkapena jasaten ari den komunitate batek bere mintzairaren erabilera berpiztera, zabaltzera eta etorkizunean normal eta egonkor egitera zuzendurik

abiarazten dituen prozesuak izendatzeko (Bastardas-Boada, 1996, or. 355). Prozesu adiera horretan, normalizazioa hizkuntza-plangintzaren sinonimotzat jo daiteke (Aracil, 1986, or. 182). Aldi berean, normalizazioa xede bat ere bada, mintzaira gutxituaren erabilera normal egitea, hain zuzen, eta, hala ulertuta, hizkuntza-plangintzaren helburua normalizazioa (Rotaetxe, 1988, or. 156) dela esaten da. Normalizazio terminoa, horrez gainera, estandarizazio terminoaren sinonimo gisa ere erabili ohi da, hizkuntza batean aldakortasuna agertzen duten elementuak —grafikoak, lexikoak zein bestelakoak— batasunera ekartzea (Corbeil, 1980, or. 91) adierazteko. Adiera horretan, normalizazioa hizkuntza antolatzekeo egitarau zabalago baten parte dela ulertzen da.

Ikerketa honetan, euskararen sustapenari buruzko testuetan nagusi diren adiera bietan erabiliko dugu normalizazioa: prozesu gisa eta helburu gisa. Hizkuntza-normalizazioa prozesu gisa hartzen denean, atal bi dituela ulertzen da: hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza (Zenbait Egile, 1982, or. 10). Hala, komunitate batean erabiltzen diren hizkuntza-kodeen banaketa funtzionala, jabekuntza edo egitura aldatu nahi izanez gero, hizkuntza-politika helburuak hautatzeko eta deskribatzeko prozesuei dagokien atala da (Cooper, 1989, or. 29) eta hizkuntza-plangintza, berriz, hizkuntza-jokabideetan eragiten ahalegintzeko jarduerari dagokien atala (ibid., or. 45). Frantsesezko literatura soziolinguistikoan, 'hizkuntza-antolamendu' (*aménagement linguistique*) terminoa erabiltzen da testu honetan normalizazio-prozesua izendatu dugunaren lekuan, eginkizunean herritarren atxikimenduak eta partaidetzak duten garrantzia azpimarratu nahirik (Corbeil, 1980, or. 9). Euskararen normalizazioaz hitz egiten denean ere, garrantzi handia aitortzen zaio parte-hartzearen alderdiari (Zenbait Egile, 1982, or. 11).

Azken hamarkadetan, hainbat ikerketa eta garapen teoriko egin dira hizkuntza-politikaz eta hizkuntza-plangintzaz. Hornbergerrek (2007, or. 24–25) nabarmendu duenez, lantze horretan, politikari dagokion arloa eta plangintzari dagokiona gero eta elkarrengandik hurbilago eta bat eginago atzeman dira eta, horren ondorioz, arlo bien arteko harreman konplexu eta bereizgaitza agerrarazteko, *language policy and planning* (LPP) kontzeptua nagusitu da ingelesezko literatura soziolinguistikoan. Testu honetan, hizkuntza-politika eta -plangintza (HPP) darabilgu euskaraz.

## **1.2. NORMALIZAZIOAREN TEORIA ETA PRAKTIKA**

Kapitulu honetan ezartzen ari garen markoaren bigarren gaia normalizazio-egitasmoen diseinuari eta inplementazioari dagokie. Aurreko atalean, 'hizkuntza-normalizazio' eta 'hizkuntza-politika eta -plangintza' terminoez jardun dugu, eta ikusi dugu tradizio soziolinguistiko banatetik datozela. Hala eta guzti, gure ikerketa honetan 'euskararen HPPa' edo 'euskararen normalizazioa' diogunean ez da ulertu behar gauza ezberdinez dihardugula. Batera zein bestera esan, guri ardura diguna da zelan esku hartu den euskararen sustapenean: ezarri diren helburuak, aurrera eramanez diren ekimenak, eta ekimenon funts teorikoa. Horretaz jardungo dugu atal honetan.

Hamarkada batzuk dira hizkuntzekin loturiko esku-hartzeek hizkuntza-adituen arreta erakarri dutela, baina diziplinak denbora behar izan du deskribapenetik azalpena igarotzeko, alegia, hizkuntza-planifikatzaileek zer egiten duten esatetik zergatik eta zertarako egiten duten argitzera. Haugenek (1983, or. 276) jauzi hori egin gabe ikusten zuten diziplina hainbat urtetako azterlanaren ostean. Handik urte batzuetara, garapen teorikoa maila garrantzitsura heldurik ere, Fishmanen (1994, or. 97) kritika zen HPPan oso praktika gutxi zutela euskarri teorikoa. Gauzak horrela, funtsezkoa da diziplinaren eboluzioa gogoan hartzea, beraren alderdi praktikoa eta alderdi teorikoa bereizita.

Atal honetan, HPPari buruzko ikerketek denboran zehar izan duten bilakaera aztertuko dugu (ikus 1.2.1.). Bilakaera horretan, arreta berezia emango diogu XXI. mendearen atarian HPPan eratu den paradigma berri bati, hizkuntza-ekologiaren paradigma deritzonari (ikus 1.2.2.). Hurrengo kapituluaz azalduko dugunez, garrantzi handikoa da azken urteetan euskararen sustapenean diharduten eragileentzat, paradigma horretan aurkitu baitute euren argudioak lantzeko euskarri ideologikoa. Atal honetan, azkenik, hizkuntzen sustapenean jarduteko hiru eredu gainbegiratuko ditugu, osatu diren guztien artean gure ikerketari ekarriren bat egin diezaioketenak hautatuta (ikus 1.2.3.).

### **1.2.1 HPParen hastapenak eta eboluzioa**

Hornbergerrek (2007, or. 27–28) dioenez, hizkuntza bat baino gehiagoko testuinguruetan, hizkuntza-planifikatzaileek aurre egin beharreko arazoa da zein hizkuntza sustatu zein erabileratarako eta, zehatzago esanda, zein erabileratarako sustatu

tokian tokiko hizkuntza mehatxatuak. Euskararen sustapenari modu planifikatuan ekin zitzaionetik hona, normalizazio-eragileek antzeko galderak izan dituzte buruan, eta eman dituzten erantzunek HPParen arloan landuz joan diren pentsamolde eta gogoeta teorikoen eragina izan dute, bete-betean zein zeharka.

Euskararen normalizazioan unean-unean egoerari buruz zer analisi egin den, gizartean zer aldaketa eragin nahi izan diren, aldaketok eragiteko zer bitarteko aukeratu diren eta gainerako elementuak interpretatu ahal izateko, beraz, funtsezkoa da HPPko pentsamolde eta gogoeta teorikoak aztertzea. Ricentok (2000) hiru aldi bereizi ditu Bigarren Mundu Gerratik XXI. mendearen hasierara HPPko ideien eboluzioan, hiru faktore-motatan oinarrituta: soziopolitikoak, epistemologikoak, eta estrategikoak. Azpiatal honetan, banaka deskribatuko ditugu hiru aldiak eta, bakoitzean, besteetatik zer faktorek bereizi duten eta faktoreok HPPan zer pentsamolde eta eredu eragin dituzten aztertuko dugu. Hiru aldiak bereizteko, izen hauek jaso ditugu Ricentoren testutik: Deskolonizazioaren aldia (ikus 1.2.1.1.), Neokolonialismoaren aldia (ikus 1.2.1.2.), eta Globalizazioaren aldia (ikus 1.2.1.3.).

#### 1.2.1.1. Deskolonizazioaren aldia

Ricentoren (2000, or. 10–13) arabera, HPPko ideietan pisu handia izan zuen adituen hizkuntza-prestakuntza estrukturalistak klasikoa ere esaten zaion aldi honetan. 1960ko urteak ziren, eta Afrikako eta Hego Amerikako deskolonizazioak hizkuntza-arazo bat azaleratu zuen nazio berrietan, hizkuntza-aniztasuna demokratizazioaren, garapenaren eta modernizazioaren eragozpenzat jotzen baitzen. Orduko pentsamoldearen arabera, plangintza tekniko bat izan zitekeen arazoari konponbidea emateko modua, eta planifikatzaileen proposamena «*nazio bat, hizkuntza bat*» idealari heltzea izan zen. Hartara, hizkuntza bat hautatu behar zen nazio bakoitzean, eta adituek idazketa-sistema, gramatika eta hiztegia garatzen lagunduko zuten, nazio-estandarrari zegozkion funtzioak bete zitzaizkien. Ikuspegi nagusiaren arabera, deskolonizazioaren osteko nazio berri haietan, Europa garatuko hizkuntza handi batek bete beharko zuen erabilera formalen eta espezializatuen eremua, eta nazio-estandarrari gainerako eremuak egotziko zitzaizkien, alegia, diglosia izango zen hizkuntza-arazoaren konponbidea. Europako

nazio garatuei zegokienez, planifikatzaileek aurre egin beharreko arazoa hizkuntza estandar klasikoak modernizatzea eta eguneratzea izan zen nagusiki.

#### 1.2.1.2. Neokolonialismoaren aldia

Ricentoren (2000, or. 13–16) arabera, 1970eko eta 1980 hamarkadetako egitura sozioekonomikoak eta politikoak deskribatzeko, 'neokolonialismo' terminoa erabili da. Horren bidez adierazi nahi da botere ekonomikoak mendebaldeko estatuen eskuetan segitzen zuela, eta behinola kolonia izandako herrialdeetan huts eginak zirela modernizatzeke eta demokratizatzeke ahaleginak. Ikertzaileak gero eta jabetuago zeuden lehenagoko hizkuntza-plangintzako ahaleginak desegokiak izan zirela eta, neurri batean, gizarte-ezberdintasunak areagotu eta lehengo metropoliarekiko mendekotasuna handitu egin zutela garapen-bideko herrialdeetan.

Ordura arte, hizkuntza-plangintza baliabideak kudeatzeko jarduera tekniko batera mugatuta zegoen, baina diziplina teoriko modura garatu beharra zuelakoan zeuden ikertzaileak. Garapen horretarako aukera Soziolinguistikarekin etorri zen. Azterketa soziolinguistikoeak agerian jarri zuten Linguistika soilak ezin zezakeela paradigma egokirik eskaini hizkuntzaren aldaketaz, jabetuntzaz eta erabileraz ikertzeko, hain zuzen, HPPan lehen mailako garrantzia duten gaiez. Horrez gainera, azterketok ikusarazi zuten HPParen arloan lehenago erabilitako kontzeptu asko Mendebaldeko gizarte-ikuspegi jakin baten isla zirela, eta zalantzan ipini ziren. Kontzeptu haietako bat hizkuntza zen, zeina lehenagoko pentsamoldeek entitate diskretu gisa imajinatzen baitzuten, gramatika estandar baten bidez muga eta zehatz zitekeena. Halaber, zalantzan ipini ziren diglosia, elebitasuna, ama-hizkuntza eta beste hainbat kontzeptu, ez zituztelako jasotzen ikuspegi soziolinguistikotik funtsezkotzat jotzen ziren gaiak, hala nola, hizkuntza-komunitatearen estatusa eta hizkuntza-jarrerak.

Oro har, gizarte-ikerketako arlo guztietan zabaldu zen aurreko ikuspegiekin apurtzeko joera, eta azterbide eta ildo teoriko berriak urratu ziren —'teoria kritikoa' izenpean biltzen direnak—, faktore historiko, kultural eta ekonomikoei lehen mailako arreta ematen zietenak. Hala, HPPa ere ildo teoriko berri horien barruan kokatuta, hobeto



deskribatu ahal izan zen zelan funtzionatzen duen hizkuntzak bere testuinguru soziokulturean baina, hala eta guzti, ezinezkoa izan zen emaitza jakinak eskain zitzakeen HPPko eredu bat lantzea (Ricento & Hornberger, 1996, or. 407–408).

### 1.2.1.3. Globalizazioaren aldia

Ricentoren (2000, or. 16–22) arabera, 1990eko hamarkadan, hizkuntza-galera —batez ere, hizkuntza gutxituen galera— kezka bihurtu zen HPPan. Alde batetik, migrazio handiek, etnien oinarrituriko identitate nazionalen erretzeak, Europar Batasunaren eta beste eskualde-koalizio batzuen eraketak eta globalizazioak aurrez aurre jarri zituzten eskualde-hizkuntzak eta hizkuntza handiak. Bestetik, munduan existitzen ziren desoreka kultural, ekonomiko eta politikoek aurrez aurre jarri zituzten herrialde garatu eta boteretsuetako hizkuntzak eta herri indigenen hizkuntzak. Hizkuntza askoren galera edo galzoria halako talken ondorioa zen.

Hizkuntzak gorde eta iraunarazi beharra zegoela defendatzen zutenek biodibertsitatea zaintzearen garrantziarekin parekatu zuten kultura/hizkuntza-aniztasuna zaintzearen garrantzia. Beste ikertzaile batzuek hegemonia-harremanetan ipini zuten begirada, eta hizkuntza-eskubideak aldarrikatu zituzten botere politiko, ekonomiko eta kulturalaren inposizioaren ondorioz euren mintzaira galtzeko zorian zeuden herrientzat. Ideia horietan pentsamendu-ildo interesgarri baina deterministegia aurkitu zutenen artean, boterea, hizkuntza-ideologiak eta hizkuntza-politikak zelan erlazionatzen diren aztertzeko lanak abiarazi ziren.

Hegemonia-harremanak eta hizkuntza-ideologia ez ziren gai berriak HPPan, aldi klasikoan aritu ziren ikertzaileak ere haietaz ohartuta baitzeuden, baina ez zituzten hizkuntza-politiken eta hizkuntza-plangintzen ardatz bihurtu. Aditu haien helburua desberdintasun kultural, sozial eta ekonomikoak gainditzen laguntzea zen, eta HPPa horretarako tresna tekniko eta neutral bat zelakoan zeuden. Ikuspegi hori 1980ko hamarkadan atzean utzi, eta teoria kritikoan eta hizkuntza-ekologian oinarritutako paradigma berri bat nagusituz joan zen HPParen arloan, hizkuntza-ekologiaren paradigma deritzona. Hurrengo azpiatalean aztertuko dugu zehatzago.

### 1.2.2. HPPko paradigma berri bat: hizkuntza-ekologia

Ricentok (2000, or. 20) azpimarratu bezala, Globalizazioaren aldiaren, paradigma berri bat sortu da HPParen alorrean, hizkuntza-ekologiaren paradigma deritzona. Munduko hizkuntza-ugaritasunaren aurrean, hizkuntza-ekologiaren paradigmak eleaniztasuna zaintzea eta kanpoko hizkuntzak ikastea sustatzen du, eta hizkuntza-eskubideak defendatzen ditu hizkuntza guztien hiztunentzat (Phillipson & Skutnabb-Kangas, 1996, or. 429). Hizkuntza-politikez, hizkuntzen iraupenaz eta giza eragintzaz landu diren ikuspegi berrien bultzadaz, paradigma berri honek beste maila batera eraman du HPPa (Hornberger, 2007, or. 34). Euskal Herriari dagokionez, hizkuntza-ekologiaren paradigmak garrantzi handia hartu du azken hamarkadetan, bertan aurkitu baitira diskurtsoa eta argudioak euskararen sustapenean kontsentsu berriak eraikitzeko eta normalizazioa kritikatu eta geldiarazi nahi izan dutenei erantzuteko.

Azpiatal honetan, paradigma berriaren testuinguru historikoaz arituko gara lehenik, arreta globalizaziora eta gertaera horrek hizkuntza gutxituetan izan duen eraginera zuzenduta (ikus 1.2.2.1.). Horren ondoren, paradigmaren ardatz nagusiak aztertuko ditugu: hizkuntza-ekologia —eta berarekin loturik doan hizkuntza-ekosistema— (ikus 1.2.2.2.), hizkuntza-eskubideak (ikus 1.2.2.3.), eta gizabanakoen eta gizarte-taldearen eragintza (ikus 1.2.2.4.).

#### 1.2.2.1. Globalizazioa eta hizkuntza gutxituak

Informazio- eta komunikazio-teknologiak XX. mendearen azken hamarkadetatik izan duten garapen eta zabalkundeak globalizazioa eragin du, alegia, mundu osoa eta denbora-mugarik gabe zabaltzea giza harremanak gertatzeko aukera. Pertsonak aurrez aurre eta momentu jakin batean eta toki jakin batean elkartzeko beharra ezereztuta, komunitate-mota berriak sortu dira mundu globalizatuan (Hauser, 2009, or. 3). Hizkuntzaz denaz bezainbatean, globalizazioa ingelesaren nagusigoarekin lotzen da, hots, ingelesa mundu osoan hedatuta eta *lingua franca* modura onartuta egotearekin, eta, berebat, hizkuntza gutxituen galtzeko arriskuarekin (Ó Laoire, 2008, or. 205).

Ingelesaren mundu osoko hedapena kapitalismoaren eta zientzia eta teknologiaren eskutik jazo da (Phillipson & Skutnabb-Kangas, 1996, or. 437), pentsaera bik bultzatuta: ingelesa modernizazioaren ekarlea dela, eta estatuak optimoki funtzionatzeko hizkuntza nazional bakarra behar duela. Ingelesaren hedapenarekin batera, kultura homogeneizatu egin da mundu osoan (ibid., or. 439), hots, bazter guztietara zabaldu dira Estatu Batuetako bizimodua eta mundu-ikuskerak, eta merkataritza-harremanak ere homogeneizatu egin dira, alegia, merkatu global bat sortu da, zerbitzu-emaile globalak nahi dituzten kontsumitzaile globalentzat. Komunikazioaren sektoreari dagokionez, merkatuaren globalizazioak hizkuntza gutxituak mehatxatu, eta haien hiztunen hizkuntza-eskubideak zapaltzen ditu (ibid., or. 443). Bereziki, telebistari deritzo arriskurik handienekoa hizkuntza gutxituentzat (Krauss, 1992, or. 6).

#### 1.2.2.2. Hizkuntza-ekologia eta hizkuntza-ekosistema

Ingelesaren hedapenean eta nagusigoan oinarri daitekeen hizkuntza-politikaren beste muturrean, hizkuntza-ekologian oinarri daitekeen politika dago (Phillipson & Skutnabb-Kangas, 1996, or. 436). Hizkuntza-ekologiaren pentsaeraren arabera, kezkarria da hizkuntza eta kultura gutxituak desagertzea, eta egungo gizarte eta estatuen ezin utzizko erantzukizuna da munduko kultur aniztasuna zaintzea eta hizkuntzen iraunkortasunaz arduratzea (Bastardas-Boada, 2007).

Hizkuntza-plangintzan «*nazio bat, hizkuntza bat*» ideologiak huts egin zuenean, ekologiaren metaforak helduleku bat —beste oinarri ideologiko bat— eskaini zion hizkuntza-aniztasuna kudeatu beharri (Hornberger, 2003, or. 319–320). Ekologiaren metaforari jarraituta, hizkuntza —bizidunak bezala— ekosistema baten barruan garatzen eta bizi izaten da, beste hizkuntza batzuekin batera; garatu eta bizi bitartean, hizkuntza elkarrekintzan ari da ekosistemarekin eta, ingurune-baldintzak behar bezalakoak ez badira, hizkuntza galtzeko arriskuan jar daiteke (ibid., or. 323). Metafora horrek, hala eta guztiz ere, okerrera eramán gaitzake, hizkuntzak eboluzio-borroka batean harrapatuta daudela pentsatu eta, horrenbestez, gizakiaren egintzek hizkuntzen gainean duten eragina gutxietsiz gero (Hornberger, 2007, or. 34).

Ekosistemaren ideia, berriz, oso baliagarri gertatzen da HPParen ikuspegitik: hizkuntza bat salbatzeko ez da hizkuntza bera salbatu behar, beraren ekosistema baizik. Hizkuntza ez da bere kabuz existitzen, hiztunek eta gizarteek erabiltzen dutelako baizik, eta existitzen eta garatzen jarrai dezan bere ekosistema, bere ingurune soziokulturala zaindu behar da (Bastardas-Boada, 2011, or. 14). Hain zuzen, hizkuntza baten ekosistema hizkuntza hori erabiltzen duen komunitatea da, eta hizkuntzaren erabilpena komunitatea osatzen duen gizabanako bakoitzarengan eragiten duten faktore psikologikoen eta faktore soziologikoen baitan dago (Haugen, 1971, or. 19). Euskararen normalizazioan, ekosistemaren ideiarekin markora eramanez, azken urteetako hainbat gogoeta, hala nola, komunitate saretuaren arazoa, euskal gizartearen hizkuntza-aniztasuna eta euskararentzako berariazko habitat baten beharra, hizkuntzaren eta gizarte-bizitzako gainerako elementuen arteko lotura (Marko & Uranga, 2011).

### 1.2.2.3. Hizkuntza-eskubideak

Hizkuntza-ekologiaren paradigman, hizkuntza-politika baten nahitaezko ildotzat jotzen da giza eskubideek aldarrikatzen duten berdintasuna hizkuntzen arloa ere zabaltzea (Phillipson & Skutnabb-Kangas, 1996, or. 442). Euskararen normalizazioan, eskubide kontzeptua izan da EAEko eta Nafarroako eragile instituzionalen hizkuntza-politiken gakoetako bat, lehen unetik izan ere, baina hizkuntza-eskubideak nekez azaldu dira euskararen sustapenari buruzko debate publikoan Eusko Jaurlaritzak 2007an Euskara 21 izeneko prozesua abiarazi arte.

Normalean, bereizketa bat egiten da. 'Hizkuntza-eskubide' terminoaren bidez, gizarte eleaniztun bateko bizitza publikoan, eskolan, administrazioan eta beste hainbat esparrutan hizkuntza-erabilera arautzen duen legeriak aitorturiko eskubideak adierazi nahi dira, eta 'hizkuntzako giza eskubide' terminoaren bidez, berriz, hizkuntzarekin loturiko eskubideak giza eskubideen esparruari dagozkiola azpimarratu nahi da, agerian jartzearen hizkuntza-sustapenaren zutarria gizarte-justizia eta berdintasuna direla: hizkuntza bateko hiztunak beste hizkuntza batekoen berdina izatea (Paulson, 1997).

Hizkuntzarekin loturiko eskubideen garapena eta defentsa lau gogoetaren ondorio da (May, 2007). Lehen gogoeta —eta kezka— munduko hizkuntza askoren gainbehera eta galera da. Galtzen direnak, hizkuntza gutxitsuak izaten dira, testuinguru eleaniztunetan.

Bigarren gogoeta da hizkuntza gutxitu bihurtzea ez dela ez prozesu natural bat, ez prozesu linguistiko bat, baizik botere-erlazioen ondorioa. Estatu modernoek, euren eskura duten makineria politikoaren bitartez —hezkuntzarako, administraziorako eta merkaturako hizkuntza bat hautatuz—, legitimizatu eta iraunarazi egiten dute hierarkizazioa. Hirugarren gogoeta da estatuaren presioa hainbat argudioen bidez sendotzen dela. Argudio horietatik gailena: gizabanakoaren mugikortasun sozialerako hizkuntza gutxitua oztopo dela. Azken gogoeta da lege-babes egokia garatuz bateragarri egin daitezkeela hizkuntza gutxitu baten hiztunen mugikortasun soziala eta hizkuntza gutxitua erabiltzen segitzeko eskubidea.

Estatuaren erantzukizuntzat hartzen da herritarrari erazko baldintzak bermatzea, hizkuntza-eskubideen bitartez, estatuko kide izateagatik dagokion berdintasuna eduki dezan (Rubio-Marín, 2003, or. 53). Erazko baldintza horien erreibindikazioan, badira muga batzuk. Alde batetik, herritar guztiei eska dakieke estatuko hizkuntza komuna ezagutzea neurriren batean (May, 2007, or. 265). Beste alde batetik, hizkuntza-eskubideak gutxiengo nazionaleri eta herri indigenei dagozkie bakarrik; ez migratzaile-edo errefuxiatu-taldee (ibid., or. 266).

#### 1.2.2.4. Taldeen eta gizabanakoen eragintza

Hizkuntza-ekologiaren paradigma berria paradigma klasikotik bereizten duena eragintzari buruzko ikuspegia da, hau da, taldeei eta gizabanakoei hizkuntza-politiketan aitortzen zaien eginkizuna (Ricento, 2000, or. 23). 1950eko eta 1960ko hamarkadetan, goitik beherako (*top-down*) eredua egon zen indarrean: HPParen eskumena gobernuena zen, eta teknokraten esku uzten zen inplementazioa. Azken hamarkadetan, HPParen arloko ikerketak hizkuntza mehatxatuen eta gutxituen sustapenera zuzendu direnean, garrantzia eman zaie behetik gorako (*bottom-up*) ahaleginei (Ricento & Hornberger, 1996, or. 405). Halako ahaleginen adibidea da Perun kitxuazko alfabetatzearekin gertatu dena. Herrialdeko politikariek, eta hezitzaileek eurek ere, ez dute ardurarik erakutsi kitxua-hiztunak euren hizkuntzan alfabetatzeko baina, pertsona saiatuen banakako ahaleginari esker, kitxuadun alfabetatuak gehituz joan dira eta, horren ondorioz, gainera, kitxuazko testu-ekoizpena handitu egin da (Hornberger, 1994, or. 84).

Tipula baten irudiaren bidez azaltzearen, HPP hainbat geruzaz osaturik dagoela esan daiteke (Ricento & Hornberger, 1996, or. 408–411). Geruza bakoitzean, eragile, prozesu eta ideologia batzuek dihardute. Tipularen kanpo-geruzan, nazio-mailako erakundeak daude. Erakundeok ezarritako hizkuntza-politikak eta politika horiek interpretatzeko eta aurrera eramateko jarraibideak barruko geruzetara zabaltzen dira, besteak beste, gobernu-sailetara, ikastetxeetara eta enpresetara eta, geruza bakoitzean, bertan nagusi diren diskurtsoen eta ideologiaren arabera inplementatzen dira. Sasoi batean, noranzko bakarrean gertatzen zen prozesua, baina barruko geruzetako eragileak —banakako pertsonak barne— aspaldi konturatuta daude badutela indarra euren intereseko hizkuntza-politikak sustatzeko behetik gora, ez dutela zertan mugatu goitik behera datozen politikak modu batera edo bestera inplementatzera.

Euskararen normalizazioan, "tipula" horretako barreneko eragileak —gizabanakoak eta gizarte-taldeak— lehenengotatik izan dira euren rolaren garrantziaren jakitun eta, EAEn, behintzat, eragile instituzionalek hainbat ekimenen bidez aitortu diete garrantzi hori. Aipagarriena, Euskararen Aholku Batzordea, Euskararen Normalizazio Legean aurreikusten zen bitartekaritza-organoa. Gure ikerketa honen testuinguruan, azpimarratu beharrekoa da hedabide batek ere bitartekari-zeregin garrantzitsua bete dezakeela, behetik gorako eta goitik beherako normalizazio-ekimenak bideratuz, O'Connellék (2004, or. 38) nabarmendu bezala.

### **1.2.3. HPPko ereduak**

Azpiatal honetan, HPParen alderdi aplikatuari begiratuko diogu, alegia, hizkuntzen sustapenean jarduteko landu diren ereduak. Euskararen normalizaziorako onartzen diren legeetan eta diseinatzen diren planetan, bi HPP eredu atzeman daitezke nagusiki: Haugenena eta Fishmanena. Testuetan bataren eta bestearen ideiak eta terminoak elkarretaratuta egoten diren arren, ereduok kezka ezberdinei erantzuten diete. Haugenek batik bat estandarizazio-arazoei begira osatu zuen bere erdua, eta Fishmanek, berriz, euskara bezala euren komunitatean ordezkatuak izateko arriskuan dauden hizkuntza gutxituetarako landu zuen berea. Jarraian, xeheago aztertuko ditugu ereduak.

Lehenik, Haugenen ereduaz jardungo dugu (ikus 1.2.3.1.), aintzat harturik hainbat ekarpen egin zaizkiola urteokaz. Ekarpenon bateratzerik interesgarriena Hornbergerrek egin du bere eredu integratzailean, oso jarraibide baliagarria eskaintzen diguna hurrengo kapituluetan euskararen normalizazioaren berrikuspena antolatzeko eta ETBren normalizazio-eginkizunen ikerketa egituratzeko. Bigarrenik, Fishmanek proposaturiko ereduari buruz arituko gara (ikus 1.2.3.2.), Euskal Herriko plangintzetan itzal handikoa eta funtsezko erreferentzia baita.

### 1.2.3.1. Haugenen lau dimentsioko eredu eta beraren ostekoak

Hizkuntza-plangintzako lehen eredu, osteko guztietan eragina izan duena, Haugenek landu zuen. 'Hizkuntza-plangintza' terminoa bera, Haugenek (1959) erabili zuen lehen aldiz literatura soziolinguistikoa, Norwegian XIX. mendean estandar idatzi bi produzitu zituzten saioen gaineko ikerketa batean, honela definituz: ortografia, gramatika eta hiztegi arauemaileak prestatzeko zeregina, komunitate ez-homogeneo bateko idazleak eta hiztunak gidatzeko helburua duena. Ikuspegi horretan aurrera eginda, Haugenek (1966) azaldu zuen hizkuntza-plangintza hizkuntza-arazoei (*language problems*) irtenbidea ematera zuzendutako jarduera zela, eta ortografia, gramatika eta hiztegia prestatzea planifikatzaileek arazoen aurrean harturiko erabakiak indarrean jartzeko zereginaren parte zela.

Eredu horretatik abiatuta, ikertzaileek hainbat kontzeptu berri landu eta garatu zituzten hizkuntza-plangintzaren arloan hurrengo urteetan. Ekarpen horiek jaso, eta Haugenek (1983) plangintza-eredu berrikusi bat eskaini zuen (ikus 1. irudia). Aurrekoa bezala, planifikatzaileen jardueren deskribapen hutsa zen, ez zion oinarririk eskaintzen hizkuntza-plangintzaren teoriari, ez baitzuen azaltzen planifikatzaileek zergatik egiten zuten egiten zutena, ezta haien helburuak zein ziren ere (ibid., or. 274).

Eredua laburbiltzen duen eskemako lehen errenkadan, hizkuntza-plangintzako alderdi soziala ageri da, eta bigarren errenkadan, alderdi linguistikoa, estatus-plangintza eta corpus-plangintza izenekin, hurrenez hurren. Eskemako lehen zutabea hizkuntzaren formari dagokio, eta bigarren zutabea, hizkuntzaren betekizunari. Horrela eratutako

matrizean, Haugenek lau dimentsio edo jarduera-arlo bereizi zituen: 1) hautapena, 2) kodifikazioa, 3) inplementazioa, 4) lanketa edo —Zabalak (2018) darabilen bezala— lantze funtzionala. Normalizazio-prozesu jakin batean, urratsak matrizeko ordenari jarraituta gerta daitezke, baina ez dago zertan. Lantze-saio jakin baten ondoren, esaterako, berriro beharko dira inplementazio-jarduerak.

-----  
**1. irudia: Lau dimentsioko plangintza-eredua**

	<b>FORMA</b> (politika-plangintza)	<b>FUNTZIOA</b> (hizkuntzaren jorraketa)
<b>GIZARTEA</b> (estatus-plangintza)	1. hautapena	3. inplementazioa
<b>HIZKUNTZA</b> (corpus-plangintza)	2. kodifikazioa	4. lanketa

(Haugen, 1983, or. 275)

-----

Hautapena hizkuntza-eredu baten aukeraketa da, zehatzago esanda, esparru jakin batean —elizan, idatzietan, hedabideetan nahiz beste edozeinetan— erabili beharreko eredua zein izango den zehaztea. Horren adibidea (Haugen, 1983, or. 270–271) da turkieraren idazketarekin gertatu zena, herrialdeko presidenteak alfabeto arabiarretik latinora aldatzea erabaki baitzuen XX. mendearen hasieran. Erabiltzen den prozedura erabiltzen dela, aukeratzen den ereduari 'estandar' esaten zaio, eta berorretara heltzeko estandarizazio-prozesua bariazioaren murrizketan datza (Deumert, 2004, or. 6). Komunitate osoarentzako hizkera estandarra zehazteaz denaz bezainbatean, kasu batzuetan, dialekto bakar bat izaten da oinarria —hautapen monozentrikoa— eta, beste batzuetan, hainbat dialektoren nahaste edo konposizioa (ibid., or. 2).

Kodifikazioa hautaturiko ereduaren zuzentasun-arauak zehaztea da. Arau-emailea akademia bat izan daiteke, frantsesean bezala, edo autoritatetzat hartzen diren egileen



testuak, ingelesean bezala (Deumert, 2004, or. 7). Zuzentasun-arauen helburua idazketa izan daiteke ('grafizazioa'), hitzak eta hitz bakoitzari dagozkion erabilera-eremuak eta erregistroak ('lexikalizazioa'), edo ezaugarri morfologikoak eta sintaktikoak ('gramatikalizazioa'), eta kodifikazioaren emaitzak ortografia, hiztegi eta gramatika arauemaileak izaten dira (Haugen, 1983, or. 271).

Inplementazioa hautaturiko ereduak erakundeetan finkatzeko eta hiztunen artean zabaltzeko zeregina da. Ardura gobernuak edo bestelako erakunderen batek hartzen du bere gain, eta eskola eta hedabideak izaten dira ohiko tresnak (Haugen, 1983, or. 272). Lantze funtzionala, azkenik, ereduaren etengabeko eguneratzea da, kulturak, teknikak eta giza irudimenak eta emozioek sortzen dituzten beharrian berriei erantzuteko. Hiztegi teknikoak garatzeaz harago, lantzeak hizkuntza-baliabide guztiak jorratzea eskatzen du, hala nola, ahoskera, toponimia eta transliterazioa (ibid., or. 273).

Haugenek beste ikertzaile batzuen azterketak eta lan teorikoak jaso zituen bere 1983ko ereduan. Hamarkada bat geroago, ekarpen berriak zeuden HPParen arloan eta, guztiak bildu eta bateratuta, Hornbergerrek (1994) HPPko eredu integratzaile bat eskaini zuen. Berrikusketa egin zuenean, Hornbergerrek (2007) bere ereduan gainjarrita erakutsi zuen Haugenen 1983koa (ikus 2. irudia), esanez bere ereduaren interpretazioan funtsean Haugeni jarraitzen ziola. Berez, Hornbergerren ereduak ez du hizkuntza-politika jakinik markatzen; gizarteak berak erabaki behar du norantz orientatu hizkuntzaren egoeran beharrezkotzat jotzen diren aldaketak. Helburuak zehaztuta, Hornbergerren eredu integratzaileak bi ikuspegi bereizten ditu beraiek lortzeko hizkuntza-plangintza: hizkuntzaren formari dagokiona, eta hizkuntzaren funtzioei dagokiena. Bestenaz, Haugenen ereduaren aldean, eredu integratzaileak hiru plangintza-mota bereizten ditu: 1) estatus-plangintza, gizartean zentratutako ahaleginei dagokiena, 2) corpus-plangintza, hizkuntzan zentratutako ahaleginei dagokiena, eta 3) jabeplangintza, hiztunarengan zentratutako ahaleginei dagokiena.

Eredu integratzailean, berritasun nagusia estatus-plangintza eta jabeplangintza banatzea da. Hala, estatus-plangintzaren arlokotzat jotzen dira hizkuntza gutxitu baten iraupenerako nahitaezkoak diren faktore sozial, politiko eta ekonomikoekin loturiko ekimen eta jarduerak —hala nola, erabilera-eremu berrien konkista, legegintza eta

hiztunen borroka—, Williamsek (1992, or. 133–136) azaldu bezala. Sachdev eta Hanlonen (2000, or. 70) azpimarratu dute garrantzitsua dela, horrez gain, faktore psikologikoekin —besteak beste, hizkuntza-jarrerekin— loturiko ahaleginak hartzea aintzat estatus-plangintzan. Jabekuntza-plangintzaren arlokoak dira, berriz, hiztunen gehitzera zuzendutako ekimen eta jarduerak, horiek ere hizkuntza gutxitu baten iraupenerako nahitaezkoak. Hornbergerrek (2007, or. 28, 32) ohartarazten du hizkuntza ikaste hutsa baino modu zabalagoan ulertu behar dela zer den jabekuntza; honela: hizkuntza ikasteko, berreskuratzeko edo transmititzeko aukerak sortzea, hobetzea eta/edo sustatzea. Halako aukerak hezkuntzan sortzen dira, baina baita komunikabideetan, lanean eta eguneroko bizitzako beste hainbat esparrutan ere.

-----

## 2. irudia: HPPrako eredu integratzailea

	FORMA	FUNTZIOA
<b>ESTATUS PLANGINTZA</b>	1.	3.
<b>JABEKUNTZA PLANGINTZA</b>	hautapena	inplementazioa
<b>CORPUS PLANGINTZA</b>	2. kodifikazioa	4. lanketa

(Hornberger, 2007, or. 29)

-----

Ikertzaile batzuek desegokitzat jotzen dute, hein bateraino, hizkuntza-plangintzan motak bereiztea. Hala, estatusa eta corpusa alde banatetik aztertzen dituen arren, Williamsek (1992) dio hizkuntza-plangintzaren arloan egin daitezkeen banaketak ez direla esparru bereizitzat hartu behar, zuzeneko loturak eta inplikazioak baitaude elkarren artean. Oharra aintzat hartuta ere, iruditzen zaigu corpusa, estatusa eta jabekuntza bereiztea lagungarriagoa izango zaigula ikerketa hau antolatzeko, sail koherenteetan bil ditzakegulako euskara sustatzeko ekimen eta jarduerak. Estatusen, hizkuntza-politikak

aurrera eramateko hitzartze- eta legegintza-prozesuak. Jabekuntzan, euskararen transmisioarekin loturiko plan eta ekimenak, besteak beste, hezkuntzan txertatzea, euskararen kasuan Romainek (2006, or. 465–466) oso garrantzitsutzat daukana. Azkenik, corpusean, euskara estandarizatzeko eta eguneratzeko ahaleginak.

### 1.2.3.2. Belaunaldi arteko etenaren eskala

Hornbergerren eredu integratzaileak, 1990eko hamarkadaren erdialdean plazaratu zen arren, aldi klasikoan ditu erroak, eta —erro horietatik garrantzitsuena den Haugenen ereduak bezala— herrien eta haien hizkuntzen garapena du jomugan. Eredu integratzailea proposatu zenerako, baina, HPPa oinarri teorikoak jartzen hasia zen, eta ikuspegia zabaltzen. Hala, garapen-bidean zeuden herrien hizkuntza-arazoez gainera, galtzeko zorian zeuden hizkuntza gutxituak bihurtu ziren kezka-iturri. Bigarren testuinguru horretan, Fishmanek (2001) gogoeta teoriko garrantzitsua egin zuen bere ikerketa hizkuntza-ordezkapenera zuzendu zuenean, eta hizkuntza-ordezkapena itzularazteko eredu bat ere landu zuen, 'belaunaldi arteko etenaren eskala' deritzona (eskala horren eskema bat 1. taulan ikus daiteke).

Fishmanentzat (2001, or. 452), hizkuntza-ordezkapena itzularaztea bizimodu oso bat indarberritu eta atxikitze ahalegina da, aintzat hartzen dituen bai alderdi linguistikoak, bai ez-linguistikoak ere. Fishmanen gogoetak eta eskalaren eredu bera funtsezko erreferentziak izan dira Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-politika publikoan 1990eko hamarkadatik aurrera (Azkarate, 2012, or. 127). Oro har, Fishmanek darabiltzan hainbat kontzeptu, arnagunearena, besteak beste, osagai garrantzitsuak dira oraindino euskararen normalizaziorako gogoeta eta plangintza guztietan, baina beraren beste ideia batzuk —hedabideen normalizazio-eginkizunari burukoa batik bat— oso urrun daude euskararen arloan nagusi direnetatik.

Fishmanen eskalak zortzi maila dauzka, eta eusten dion ideia da hizkuntzak ez duela irauten baldin eta belaunaldien artean ama-hizkuntza gisa transmititzen ez bada (Fishman, 1991, or. 113). Transmisioaren giltzarria 6. mailan dago eta, eskalaren bitartez, hizkuntza-ordezkapena itzularazteko ahaleginak 6. maila horretara zelan

konektatu eta zelan bideratu ikusaraz daiteke (Fishman, 2001, or. 467). Izan ere, goiko maileri begira ipinita, eskolak, hedabideek, lanak edo administrazioak, beste barik, ezin dezakete hizkuntza bat ama-hizkuntza bihurtu; egin dezaketen bakarra da gizartean behar den kontzientzia sortzea ama-hizkuntza —eta berari loturiko kultura— familian, auzoan eta komunitatean atxiki dadin (Fishman, 1991, or. 375).

Ildo horretatik, hizkuntza gutxitu batek ez luke arrakastarik izango bigarren hezkuntzan, komunikabideetan eta administrazioan —4b-tik gorako mailetan— hizkuntza menperatzailearekin lehian hasiz gero. Fishmanen arabera, hedabideek, adibidez, hizkuntza-ordezkapena itzularazteko baliagarriak izango badira, familian, auzoan eta komunitatean hizkuntza atxikitzeke egiten den lanaren indargarriak izan behar dute. Fishman (2001, or. 482) «*hedabideen fetitxea*» aipatzera ere heldu da, esanez hizkuntza ordezkatzailea darabilten hedabideen eskaintza ugariago, merkeago eta dibertsoagoak errealitatekanpo uzten duela hizkuntza gutxitua darabilten hedabideen eskaintza.

Horrenbestez, Fishmanen (1991, or. 114) arabera, hizkuntza batek belaunaldi belaunaldi irauteko itxaropen bakarra da intimitatearen esparrua —familia, auzoa, komunitatea— berarentzat erreserbatzea. Ordezkapen-arriskuan dagoen hizkuntzaren iraupena ziurtatzeko, komunitate gutxitua gainerako gizartetik banatu beharko litzateke etnokulturalki eta, banaketa horren bertutez, hizkuntza propioa funtzio etnokultural jakin batzuetarako —barne-harremanetarako— erabili beharko litzateke, eta beste hizkuntza(k), beste funtzio batzuetarako —kanpo-harremanetarako—, alegia, diglosia ezarri beharko litzateke (ibid., or. 357-358). Komunitate gutxitua etnokulturalki banatu eta gune jakin batean bilduz gero, espazio fisiko bereizi bat sor daiteke —'arnasgune' deritzona—, non hizkuntza gutxituak arazorik gabe bete baititzake barne-harremanetako funtzioak (ibid., or. 58-59).

Hizkuntza baten iraupena halako konpartimentazioan —diglosian— oinarritzen duen soluzioaren aurka, hainbat argudio eman dira. Nagusietako bat da modernizazioa, urbanizazioa, hezkuntza eta kultura toki guztietara hedatu diren honetan nekez euts dakiokela hizkuntzen eta esparruen banantze zurrun bati eta, azkenean, gizarte elebidunetan, hizkuntza hegemonikoak etxe barruko esparrua ere irabazten duela (Romaine, 2006, or. 453). Arnasguneekin loturik azaldu den beste eragozpen bat da

hizkuntza mehatxatuaren estatusa apaldu egiten dela konpartimentazioak esparru prestigiodunak —lana, hedabideak, administrazioa— ixten badizkio (ibid., or. 454).

### **1.3. HPPa ETA IKUS-ENTZUNEZKO HEDABIDEAK**

Gure marko teorikoa osatzen segitzeko, hedabideek normalizazioan zer leku izan dezaketen aztertu behar dugu. Izan ere, euskararen eta beste hizkuntza gutxitu askoren sustapen-plangintzetan berealdiko garrantzia ematen zaie hedabideei normalizaziorako tresnen artean, eta hainbat adituk berretsi egiten dute balio hori. Mac Donnachak (2000) industriako balio-katean inspiraturik proposatu duen hizkuntza-plangintzako ereduari jarraiturik, O'Connellék (2004) —batik bat telebistaz diharduela— baliagarri deritze komunikabideei normalizazioaren atal guztietarako, bestek beste, hizkuntzarekiko jarrera positiboak sustatzeko, hizkuntzaren ezagutza handitzeko, hizkuntzaren erabilera areagotzeko, hizkuntza-komunitatea handitu eta indartzeko, hizkuntzaren sustapenean parte hartzen duten giza baliabideak erakarri, formatu eta kudeatzeko, corpusaren garapenean laguntzeko, eta horrela hamaika ataleko zerrenda bat osatzeraino. Eten bat sumatzen da, beraz, teoriaren eta praktikaren artean, HPPko eruedetan hedabideek ez baitute berezko tokirik. Tokiren bat aitortzen zaienean ere, Fishmanek (1991, or. 403) bezala, plangintzako bigarren mailan edo aurreragoko faserako uzten dira, identitatearen eraketari, komunitatearen antolakuntzari eta gazteen sozializazioari lotuta.

Hedabideak berealdiko normalizazio-tresnatzat ez hartzeko jarrera horren jatorria 1950eko hamarkadan dago, gizarte-komunikazioaren arloan egiten hasi ziren ikerketek erabat aldatu baitzuten hedabideen eraginari buruzko ikuspegia (Pooley, 2006, or. 131). Ikerketa haien emaitzen arabera, hedabideek oso eragin mugatua zuten pertsonen jokabideetan, hau da, ez zegoen erlazio zuzenik hedabideetako edukien eta giza jokabideen artean, eta ikuspegi berri horrek naif eta espekulatibotzat utzi zuen Bigarren Mundu Gerraren aurreko ikuspegia —hots, hedabideak giza pentsaeraren aldaketarako tresna ahaltzuak zirela—. Hortaz, pertsonen jokabideetan eragin mugatua bazuten, balio gutxikoak izango ziren komunitate baten hizkuntza-jokabide eta -ohituretan aldaketa eragiteko.

1950eko hamarkadatik hona HPPari buruzko ideietan eboluzioa gertatu den bezala, hedabideen normalizazio-baliagarritasunari buruzko ideiak ere eboluzionatuz joan dira. Guretzat, funtsezkoa da bilakaera hori aztertzea, lehenengo eta behin zalantzatik kanpo uzteko hedabideak badirela HPPrako tresna egokia, alegia, Euskal Telebista euskararen normalizazioaren testuinguruan ikertzeak zentzua baduela agerian uzteko. Bigarrenik, hedabideek hizkuntzen sustapenean izan ditzaketen eginkizunak zein izan daitezkeen zehazteko.

Atal honetako azterketan, Pietikäinen eta Kelly-Holmesi (2011) jarraituko diegu, haiek ere eboluzioaz mintzo baitira hedabideei hizkuntza gutxituen sustapenean aitortzen zaien eginkizunari buruzko ideien ikerketan. Eboluzio horren markotzat, Ricentok HPPari buruzko ideien bilakaeran proposatu duen eskema darabilte (ibid., or. 52), zeren Ricentoren eskemak azaltzen baitu HPParen arretagunea estatutik komunitatera eta komunitatetik gizabanakora igaroz joan dela, hain zuzen, beraiek hizkuntza gutxituko hedabideen (HGHen) kasuan atzeman dutenaren antzera. Ikertzaileok hiru aldi bereizi dituzte HGHen bilakaeran, zirkunstantzia hauetan oinarrituta: HGHen eginkizunak, eragileak, eta ideologia linguistikoak.

Pietikäinen eta Kelly-Holmesek proposaturiko lehen aldia Dohaintza aldia da (ikus 1.3.1.), hizkuntza gutxituek ikus-entzunezko hedabideetan lehen agerpenak egin zituzten denbora. Ondoren, Zerbitzu aldia etorri zen (ikus 1.3.2.), zeina euskararentzat funtsezkoa izan baita, hor kokatu behar dugulako ETBren sorrera. Azken aldia, informazio- eta komunikazio-teknologia berriek ardatzen dutena, Performantzia aldia da (ikus 1.3.3.). Hiru aldiak ikuskatuta, trazaturik uzten duten ibilbidea korrituko dugu hedabideei hizkuntza-normalizazioan egozten zaien eragina aztertzeko (ikus 1.3.4.).

### **1.3.1. Dohaintza aldia**

Hizkuntza gutxituek hedabideetan egin zituzten lehen agerpenak tarte batzuk baino ez ziren, hizkuntza nagusi baten programazioaren barruan txertatuak. Lehen urrats haiek helburu testimonial hutsa zuten: komunitatea ikusgai egitea eta beraren identitatea berrestea. Bestela esanda, agerpen haiek estatus-plangintzaren arloan kokatu behar dira

(Pietikäinen & Kelly-Holmes, 2011, or. 57–58). Hizkuntza gutxituak hedabideetara eramateko lehen ekimen haietan, eragilerik garrantzitsuena estatua zen, bai eta estatua hizkuntza gutxituen aldeko urratsak egitera bultzatzen zuten ekintzaile banaka batzuk ere (ibid.). Estatuak, dohaintza modura, hedabideetan agertzeko aukera eskaintzen zien bere mugen barruko hizkuntza gutxitu batzuei —eta beste batzuei ez—, berak kudeatutako hedabide publikoetan tarte urri batzuk utzita.

Linguistikan, pentsaera estrukturalista zen gailena. Hizkuntza, batetik, komunitatea mugarriztatzen zuen ezaugarritzat hartzen zen; hau da, komunitatea —bera osorik hartuta— beste batzuetatik bereizten zuena hizkuntza zela ulertzen zen. Bestetik, hizkuntza hura sistema objektiboa, homoginoa, isolatua eta arauen bitartez finkatzeko eta garbi zaintzeko modukoa zela zeritzon. Horren ondorioz, hizkuntzaren purutasuna zaintzeko jarrera da nagusi hedabideetako hizkuntza-erabileran, alegia, hizkuntza arautuari bakarrik leku egitea, komunitatean eguneroko bizitzan erabiltzen diren gainerako hizkuntzak eta aldaerak alboratuta.

Euskal Telebistaren sorrera aldi hau baino geroagokoa da, baina euskarazko kanalaren lehen urratsak gidatu zituzten pentsaeretako asko Dohaintza aldian indarrean zeuden berak dira. Alde batetik, ETBk euskara estandarra hautatu zuen euskarazko emanaldietarako, eredu estandarra jotzen baitzen euskara etorkizunean iraunarazteko eta euskaldun-komunitate osoa biltzeko bidetzat. Bestetik, bere jarduerari dagokienez, ETB hasieratik lotu zen euskara prestigiatzeko eta beraren aurkako hizkuntza-jarrerak aldarazteko betekizunarekin, euskara bera gizartean ikusgai eginez eta euskaldunen kultura- eta identitate-ezaugarriei zabalkundea emanez.

### **1.3.2. Zerbitzu aldia**

Pietikäinen eta Kelly-Holmesek (2011, or. 59–60) nabarmendu bezala, komunitate gutxituak euren irrati-telebistak eratzen hasi zirenean, aurrerapauso bat egin zen mintzaira gutxituen hedabide-politika eta -praktikan, hizkuntzari tarte bat eskaintzetik hitzunei zerbitzua eskaintzera. Irrati eta telebista haiek funtsezko tresnak ziren komunitateak bizimodu modernoarekin bat egin zezan. Hizkuntzari zegokionez,

hedabideok corpus-plangintzarako tresna bihurtu ziren, hizkuntza-baliabideak eguneratzen eta ezagutarazten lagunduz. Indarrean segitzen zuen purutasuna zaintzeko jarrerak baina, hizkuntza gutxituko hedabideetan (HGHetan), elebakartasun paraleloa ere agertu zen, alegia, tarte batzuk komunitateak zerabiltzan hizkuntzetako batean, eta beste tarte batzuk beste hizkuntzetako batean. Bitarteko materialei zegokienez, gobernuko instituzioak ziren eragile nagusiak, eurek arautzen baitzuten emisio-denbora, eurek antolatzen baitzuten azpiegitura teknikoa eta, askotan, eurek ematen baitzuten finantzazioa. Hainbat bider, ETBren kasuan bezala, HGHa eratzeko ekimena ez zen etorri estatuko gobernuaren aldetik, baizik eta eskualde-instituzioen aldetik.

1970eko eta 1980ko hamarkadetan, HGHen sustatzaileek gauza asko espero zituzten baliabide berrion aldetik, baina ikertzaileek hainbat galdera zituzten hedabideek HPPan izan dezaketen betekizunari buruz. Arazoaren muina hau zen: hedabideetan hizkuntza gutxitu batean mintzatzeak zelan eragiten die hizkuntza horren iraupenari eta garapenari (Moring, 2007, or. 18)? Galdera horri erantzuteko ikerketetan, bi ikuspegi nagusi erabili dira. Lehen ikuspegitik, hedabideek HPParen hiru ataletan —estatusen, corpusean eta jabekuntzan— zer eragin izan dezaketen aztertu da. Bigarren ikuspegitik, berriz, zer baldintza bete behar duten hizkuntza gutxituko hedabideek HPPan eragina izan dezaten.

Hedabideek HPParen hiru ataletan izan dezaketen eraginaz, aurrerago arituko gara (ikus 1.3.4.), HGHen ibilbidea ikustatu ondoren. Orain, zerbitzu aldiko pentsaerarekin lotuago, hedabideon izatea eta normalizazio-jarduera baldintza dezaketen faktoreak aztertuko ditugu. Lehen faktorea, guztizkotasun funtzionala, komunikazio-eremuari dagokio, eta hedabideen bideragarritasun ekonomikoarekin lotuta dago (ikus 1.3.2.1.). Bigarren faktorea hedabide bakoitzaren hizkuntza-praktikak dira, alegia, zer hobesten den, zer lehenesten den, zer ohitura dagoen hizkuntza erabiltzeko orduan (ikus 1.3.2.2.).

#### 1.3.2.1. Guztizkotasun funtzionala eta bideragarritasun ekonomikoa

Hizkuntza gutxituko hedabideek HPPan izan dezaketen eragina baldintzatzen duten faktoreak direla eta, ikertzaile batzuek hizkuntza gutxituaren komunikazio-esparruan jarri dute arreta, eta eskaintzaren guztizkotasunaz eta hedabideen euren bideragarritasun



ekonomikoaz aritu dira. Moringek (2007, or. 18–19) bere gogoetaren abiapuntu modura baieztatu du pertsonak —hiztunek— eguneroko bizitza euren hizkuntzan egin ahal izatea bilatzen dutela, alegia, guztizkotasun funtzionala bilatzen dutela. Horretarako, beharrezkoa da —baina nahikoa ez— beraien hizkuntzaren komunikazio-esparruan guztizkotasun instituzionalaren baldintza betetzea, hau da, mota guztietako hedabideak eta plataformak aurkitu ahal izatea hizkuntza-komunitateari egiten zaion eskaintzan, ordezkatzeko-estrategietara jo barik. Izan ere, hedabide batzuen hutsunea bete nahian beste batzuk indartzeko ahaleginak ez du arrakastarik erakutsi hiztunaren beharrianak asetzeari dagokionez, batik bat hizkuntza gutxituko komunitateetan (ibid., or. 23).

Antzera gertatzen da genero-guztizkotasunaren baldintzarekin. Komunitatearentzat, hedabide jakin bat edukitzea bezain garrantzitsua da hedabide horretan aurki daitezkeen formatu edo genero guztiak edukitzea eta, hizkuntza gutxituei dagokienez, gainera, bereziki zaintzekoa da eskaintzan gazteei erakargarri zaizkien programa-formatuak jasotzea (Moring, 2007, or. 25). Izan ere, lehenespen hertsiaeren printzipioaren arabera, ikus-entzuleek nahiago izango dute hizkuntza gutxituko programazioarekin bat egin, baldin hizkuntza handi baten eta hizkuntza gutxitu baten hedabide-eskaintzak eta genero-eskaintzak parekoak badira (ibid., or. 28-29).

Hortaz, guztizkotasuna nahitaezko baldintza da hedabideek eraginen bat izan dezaten hizkuntzaren eta beraren komunitatearen iraupenean (Moring, Husband, et al., 2011, or. 172). Komunitate gutxituentzat, baina, helburu erdiesten zaila izan daiteke. Batetik, hedabide bakar batek ezin dezake bermatu hiztun guztientzako genero guztiak dituen eskaintza (Pietikäinen & Kelly-Holmes, 2011, or. 59–60). Bestetik, ikus-entzunezko hedabideak kostu handikoak izaten dira, eta irizpide komertzial hutsak nekez funtziona dezake hizkuntza-komunitate txiki batean telebista, zinema edo halako bitartekoak finantzatzeko (Cormack, 2004, or. 5). Ekonomikoki bideragarriak izan daitezten, beharrezkoa da, beraz, erakunde publikoen finantzazioa. Hala eta guzti, horrek ez du esan nahi ikuspegi ekonomikotik gastu hutsa direnik komunitatearentzat. Izan ere, enplegua sortzen dute, eta lan-aukerak ematen dizkiete hizkuntza gutxituaren hiztunei (Cotter, 1999, or. 145). Euren produktuak hizkuntza gutxituan ekoitzi nahi dituzten sortzaileentzat ere egiazko dirubidea izan daitezke (Cormack, 2004, or. 4). O'Connell (2004, or. 35–36) arabera, HPParen barruan izan litezkeen aukera guztiak ustiatu beharko lirateke diru publikoa jasotzen duten HGHen eraginkortasuna optimizatzeko.

Izan ere, termino absolutuetan, halako hedabideak beste HPPko tresna batzuk baino askoz garestiagoak dira baina, termino erlatiboetan, baliagarriagoak izan daitezke. Hori neurtzeko, Grin eta Vaillancourtek (1999) adierazle-sistema bat proposatu dute:

- 1) Kostua: komunitateak baliabide edo ekimen bat finantzatzera zuzentzen duen aurrekontu osoa.
- 2) Eraginkortasuna<sup>2</sup>: kostua, pertsonako eta orduko. Adierazle honek konparazioak egitea ahalbidetzen du, neurketa-unitate komuna ezarriz.
- 3) Inpaktua: baliabide edo ekimen batek hizkuntza-plangintzarekin loturiko esparru batean duen eragina, beste baliabide edo ekimen batzuek esparru berean dituzten eraginak jasotzen dituen ranking bateko posizio modura adierazita.

Hainbat normalizazio-ekimen alderatu nahi izanez gero, eraginkortasunaren eta inpaktuaren datuak adierazle bakarrean konbina daitezke eta, hala, jardunbiderik egokiena zein den zehaztu. Oso interesgarria iruditzen zaigu adierazle-sistema hau, euskararen normalizaziora zuzenduriko finantza-baliabideak debate publikora ateratzen direnean kostu absolutua besterik ez baita aipatzen gehien-gehienetan.

#### 1.3.2.2. Hizkuntza gutxituko hedabideen hizkuntza-praktikak

Zerbitzu aldian abiarazi ziren HGHa<sup>k</sup> komunitatea zerbitzatzeko eta hizkuntza sustatzeko helburu garbiarekin sortu ziren. Ikertzaileek ikusi dute hedabideak hizkuntzan eragingarriak izan daitezen faktore baldintzatzaile batzuk badirela. Dagoeneko, guztizkotasunaz aritu gara eta, azpiatal hau ixteko, hizkuntza gutxituko hedabideen hizkuntza-praktikez jardungo dugu.

Jonesek (2013b, or. 32–33) dioenez, ohikoa izaten da debatea piztea lurralde batean ari diren hedabideen hizkuntza-praktikek lurralde horretako mintzairaren patuan duten eraginaz. Komunitate gutxituen kasuan, ez da izaten debate ixten erraza eta, askotan, iritzi kontrajarriak azaltzen dira, besteak beste, hizkuntza-gai hauei buruz:

- a) Elebitasunaren kudeaketa (batzuek nahiago dituzte emanaldi elebakarrak; beste batzuek gizarteko hizkuntza bie<sup>i</sup> onartzen diete tokia emanaldietan).

---

2 Eraginkortasunaz hitz egiten denean, nahi den emaitza lortzen den ala ez hartzen da kontuan; efizientziatz hitz egiten denean, ostera, baliabide eraginkor guztien artetik, zein den onena (Grin eta Vaillancourt, 1999: 3).

- b) Emanaldien hartzaile potentziala (batzuen ustez, hizkuntza gutxituaren hiztunak bakarrik izan behar dira; beste batzuen ustez, hiztun ez direnak ere bai).
- c) Emanaldietako hizkuntzaren estiloa (batzuek formala hobesten dute: beste batzuek, kolokiala).
- d) Emanaldietako hizkuntzaren kalitatea (batzuek zuzena baino ez dute onartzen; beste batzuek ez dituzte akatsak gaitzesten).
- e) Emanaldietako hizkuntzaren maila (batzuentzat, konplexutasuna saihestu behar da; beste batzuentzat, pobretasuna eta murriztasuna).
- f) Emanaldietako hizkuntza-eredua (batzuen ustez, estandarrari bakarrik egin behar zaio tokia; beste batzuentzat, dialektoei ere bai).
- g) Testuen jatorria (batzuek mugatu egingo lituzkete itzulpenak; beste batzuek, libre utzi).
- h) Enpresako lan-hizkuntza (batzuen ustez, emanaldietakoa izan beharko litzateke; beste batzuen ustez, ez nahitaez).

Maila akademikoan, badira ikerketak praktika horietako hainbati buruz, eta behaketek baieztatu dute hizkuntzaren normalizazioa baldintza dezaketela (Jones, 2013b, or. 33–34). Zerbitzu aldian, HGH bakoitzaren ardura izan da bere hizkuntza-politika zehaztea praktika posible horien aurrean, baina iraultza gertatu da azkenaldian. Teknologia digitalak eta hedabide sozialek ez-profesionalen eskuetan utzi dute media-edukien ekoizpen eta banaketa, eta horrek ondorio nabariak izan ditu hizkuntza-praktiketan testuinguru elebidunetan, HGH tradizionalen hizkuntza-politikak ere ukitzera heldu diren ondorioak (ibid., or. 34-35).

### **1.3.3. Performantzia aldia**

Mundu berri bat —globalizaturik deritzoguna— sortu da mende-aldaketako urteetan teknologia digitalaren eraginez, eta ondorioak izan ditu HGHetan. Aipagarriena da hizkuntza gutxituko ikus-entzunezko eskaintzan hornitzaile berriak azaldu direla behetik gorako eragintzaren ekimenez, eta berorien kezka ez dela guztizkotasun instituzionala edo funtzionala, baizik ikus-entzunezko produktuak eskuragarri edukitzea nahi den momentuan eta nahi den tokian kontsumitzeko prest. Horregatik, hornitzaile berriok

ikus-entzunezko produktuen ekoizpenean zein horiek zabaltzeko kanaletan hartzen dute parte. Horrez gainera, ez dira era bakarreko eragileak: asko behin-behinekoak dira; asko, norbanako soilak. Hizkuntzari dagokionez, komunitate eleaniztunaren erreperitorio osoa erabiltzeko urratsa egin dute (Pietikäinen & Kelly-Holmes, 2011, or. 60–62).

Performantzia aldian, indarrean segitzen dute lehengo dohaintza- eta zerbitzu-logikek HGHen jardueran, batez ere, erakunde ofizialen menpekoetan, baina beste logika bat nagusitu da: aritzea, ikus-entzunezko produktuak lantzea eta erabiltzaileen eskuetan jartzea denboraren eta lurraldearen hesien barruan itxita geratu barik, ezta —gorago nabarmendu bezala— hizkuntzarenaren barruan ere. Beste modu batean esanda, HGHeK komunikaziorantz lerratu dituzte euren ardurak aldi honetan, zerbitzu aldiko beste ardura batzuk albora utzita, hala nola, hizkuntzaren leihoa izatea, hizkuntzaren funtzionaltasuna sustatzea edo hiztunen hizkuntza-eskubideak bermatzea (Pietikäinen & Kelly-Holmes, 2011, or. 61).

#### **1.3.4. Hedabideen hizkuntza-eragina**

HGHen agerpenak ikertzaileen arretagunean ipini zuen hedabideok hizkuntza gutxituaren iraupen eta sustapenari laguntzen ote dioten. Horretaz jardun duten gogoeta eta ikerketetan, guk hiru multzo bereiziko ditugu, HPParen hiru atalekin bat datozenak. Hortaz, hedabideen hizkuntza-eragina estatusaren, corpusaren eta jabekuntzaren ikuspegitik aztertuko dugu. Azterketa antolatzeke era horretan, eboluzio bat igar daiteke hedabideen eraginari buruzko pentsaeran, moduren batean gorago aztertu ditugun hiru aldietan zehar izan den eboluzio ideologikoarekin bat datorrena.

Hala, estatus-plangintzari dagokionez (ikus 1.3.4.1.), hedabideak hizkuntzaren ikusgaitasunarekin lotu dira Dohaintza alditik bertatik. Corpus-plangintza dela eta (ikus 1.3.4.2.), Zerbitzu aldian, nabarmengarritzat jo da hedabideek aldaera estandarren zabalkundearen eta hizkuntza-baliabideen lanketan duten eginkizuna. Azkenik, jabekuntza-plangintzaren ikuspegitik (ikus 1.3.4.3.), hiztunaren eta hizkuntzaren arteko harremanak gertaleku berri batean kokatzea aitortu zaie hedabideei IKTen iraultzarekin batera etorri den Performantzia aldian.

#### 1.3.4.1. Hedabideak eta estatus-plangintza

Hizkuntza gutxituei telebista eta irrati handietan lehen leihoak zabaldu zitzaizkientetik, iritzi orokorra da hedabideetan agertzeak eragin positiboa duela hiztunen zein gainerako ikusleen hizkuntza-jarreretan, alegia, hedabideek funtzio bat dutela estatus-plangintzan. Strubellek (2001, or. 261) faktore-mota bi bereizten ditu hizkuntza-jarreretan eragina dutenen artean, pragmatikoak eta identitarioak. Hedabideak mota bietakoak izan daitezke. Faktore pragmatiko gisa, besteak beste, hedabideek ekonomi jarduera batekin eta lan-arloarekin lot dezakete mintzaira gutxitua, aktualitateko gaien debate publikora ekar dezakete, eta erabilera-eremu espezializatuera jaso dezakete (Cotter, 1999, or. 144). Faktore identitario gisa, besteak beste, hedabideek komunitate-sentimendua pitz dezakete erabiltzaileen artean, eta diskurtsoa —'agenda informatiboa', hedabideen hizkeran esanda— komunitate barruan sortzen lagun dezakete (Strubell, 2001, or. 262). Horrekin batera, hedabideetan —batik bat, telebistan—, etengabe zabaltzen dira ikusleari identitatea gogorarazten dioten diskurtsoak, askotan oharkabean pasatzen direnak, 'gu', 'hemen' eta antzeko hitz xume eta prosaiko osatuak —esaldi gogoangarrien beharrik gabe— (Billig, 1995).

Hedabideek ahalmen biri zor diete euren eragin handia: ikusgaitasuna eskaintzea eta gertaleku izatea. Ikusgaitasunari dagokionez, hizkuntza gutxitu asko eremu pribatura murriztuta egoten dira, ez dira presente egoten eremu publikoan. Hedabideek —batik bat, telebistak— ikusgaitasuna eskaintzen dute, hizkuntza gutxitu bat eta beraren komunitatea agerira atera eta, horrela, gizartearen zein mundu osoaren begien aurrean legitimatzen dute (Guyot, 2004, or. 16–18). Ó Laoirek (2008, or. 211), Zeelanda Berriko Maori Telebistaz ari dela, hiru ideiatan laburbildu du hizkuntza gutxituko telebista batek zelán legitimatzen dituen bere komunitatea eta bere hizkuntza. Lehenik, maoriera hiztunentzat garrantzitsuak diren arloetan erabil daitekeela erakusten du. Bigarrenik, telebistak maorien komunitateari buruzko informazioa eta ezagutza zabaltzen ditu herrialde osoan. Hirugarrenik, maoriera gehitzen du herritarren etxeetara heltzen den telebista-eskaintzan. Horren guztiaren ondorioz, maorierari buruzko jarrerak aldarazten lagun dezake, hiztun-komunitatean zein gizarte osoan.

Hedabideak, hala eta guztiz ere, kalterako ere izan daitezke, batez ere korrante nagusikoak (*mainstream*). Hala, Strubellek (2001, or. 262–263) hizkuntza-jarreretan eragin negatiboa egozten die Madrilen ekoizten diren hedabideei katalanaren normalizazioaren testuinguruan —alde horretatik, euskararen normalizazioaren testuinguru ere badena—, eta beldur da, gainera, ez ote duten edozein hesi etnokultural baino haragoko irismena, Fishmanen (1991) arnaguneak gogoan. Kanadako eta Mexikoko esperientziak erakutsi dutenez, ordea, bete ezinezko asmoa da kanpoko hedabideei mugak ixtea herrialdeko identitatea(k) defendatzearren (Casas, 1996).

Gertaleku izateari dagokionez, esan dezagun ezer baino lehen identitateak ez direla errealitate finkoak eta aldaezinak, baizik eta biziak, dinamikoak eta komunitate bakoitzaren testuingurura etengabe moldatuz doazenak (Casas, 1996, or. 91). Identitatea hainbat ezaugarriren gainean eraikitzen dute euren burua komunitate jakin bateko kideztat daukatenean, ezaugarriak hautatzeko eta baztertzeko prozesu kolektibo baten bitartez, denbora jakin batean eta espazio jakin batean (Schlesinger, 1993, or. 7). Kultur identitateen kasuan, bizilekutat duten lurraldea, hizkuntza, erakunde politikoak eta abar egoten dira ezaugarrien zerrendan (Castelló, 2005, or. 500).

Egun, nekez uler daiteke kultur identitate baten eraikuntza hedabideetatik kanpo, eta horrek lehen mailako HPPko tresna bihurtzen ditu. Izan ere, identitatea eta hizkuntza bat etorri eta elkarren sustagarri izan ohi dira, batez ere ukipen-egoeretan (Bastardas-Boada, 2012, or. 20–21). Barne-produkzioako telebista, esaterako, audientziarekin konektatu nahian, ispilu moduko batean erakusten diote komunitateari beraren irudikapen bat, honelako kultur ezaugarriak hautatu eta elkartuz osatua: hizkuntza, antroponimoak, argumentuetako gaiak, girotzeko musikak eta abar (Castelló, 2005, or. 505). Hedabide batek osatzen duen irudikapenak ez du halaberrez erabakitzen hartzaileen identitatea, pertsona bakoitzak bere modura interpretatzen baitu ikus-entzunezko testua bere identitatearen eraikuntzan (Schlesinger, 1993, or. 12–13). Nolanahi ere den, identitatearen eta hedabide-hautuaren arteko erlazioa noranzko bikoitzekoa izaten da: identitateak baldintzatzen du pertsona batek zein hedabide aukeratzen duen eta, aldi berean, hedabide horrek agertzen duen irudikapenaren kontsumoak identitatea elikatzen du (Morris, 2008, or. 553).

#### 1.3.4.2. Hedabideak eta corpus-plangintza

Hedabideetan agertzeak mintzaira gutxituen estatusen eragin positiboa duela onartzen den bezala, zalantza gutxi egiten da mintzaira gutxituko hedabideak laguntza handikoak direla hizkuntza-baliabideak eguneratzeko eta hiztunei ezagutarazteko eta, alde horretatik, eragina badutela corpus-plangintzan. Eguneratzeari dagokionez, hedabideek maila jasoan eta testuinguru formalean erabil daitezkeen hizkuntza-eredu bat eskaintzen dute (Cotter, 1999, or. 144; Strubell, 2001, or. 262). Horrez gainera, hizkuntzan garatu ez diren beste aldaera batzuk sortzen eta lantzen lagun dezakete (Estrada, 2004), besteak beste, hedabide bakoitzean gauzatzen den komunikazioan berariaz erabiltzeko aldaerak —medialekto deritzenak— (Hjarvard, 2004, or. 92).

Hizkuntza-baliabideak ezagutarazteari dagokionez, hedabideek hizkuntzako elementu berrien edo ezezagunen jakitun ipin ditzakete hiztunak, oso bereziki, aldaera estandarren jakitun (Milroy & Milroy, 1987, or. 30–31). Hala ere, esan beharra dago hedabideak, euren hizkuntza-eredua zehaztu behar dutenean, gizartean hobetsitakoaren ispilu bihurtzen direla (Bell, 1983). Alegia, gizartean prestigioa duen aldaera aukeratzen dute, aldaera estandarra, eta —dinamika biribil batean sartuta— hedabideen emankizunetako hizkerak prestigioa irabazten du hedabideetan erabiltzen delako. Azkenean, hiztunen begietara hedabideak estandarren jagole bilakatzen dira, baita estandarren erreferentziarik eskuragarriena ere. Estandarrak harago, hedabideek zabalkundea eman diezaiekete gizarte-talde mugatuetan bakarrik ezagutu ahal izan diren beste hizkuntza-aldaera batzuei. Hizkuntza gutxituen kasuan, hedabideetan aurkitu da hiztunei bestela ezagutu ezin izan dituzten aldaerak —dela estandarra, dela beste edozein— ezagutarazteko bitarteko garrantzitsu bat (Castellanos, 1997).

#### 1.3.4.3. Hedabideak eta jabekuntza-plangintza

Espektatibak handiak izan ziren zerbitzu aldia deritzen urteetan abiarazi ziren HGHehiko eta, espektatiba horiekin bat, hizkuntzaren estatusen eta corpusean aitortzen zaien eragin onuragarria argudio nahikotzat jo daiteke hedabideei berezko tokia egiteko HPPan. Hala izan beharrean, ikertzaileek bigarren mailan utzi dituzte HPPko eruedetan, hedabideek hizkuntza-jabekuntzan eta, ondorioz, hizkuntzaren iraupenean eragina izan

dezaketela frogatzeko modurik ez dagoela argudiatuta. Pentsamolde horren jatorria 1950eko hamarkadan dago, komunikabideen eraginari buruz egin ziren ikerketetan, eta beraren kontzeptu ardatza hizkuntza-aldaketa da.

Hizkuntza-aldaketak —hizkuntza baten fonologian edo gramatikan gerta daitezkeen aldaketak— teknologiako, modako edo beste edozein arlotako berrikuntzen pare dira pertsonen ohituretan errotzeari dagokionez. Horrek esan gura du hizkuntza-elementu berrien edo ezezagunen zabalkundea hiztunetik hiztunera gertatzen dela buruz buruko interakzioaren bitartez, hain zuzen, telebista edo irrati bidezko komunikazioan ezinezkoa den eran (Trudgill, 1986, or. 39–40). Aurreko azpiatalean esan dugunez, hedabideek berba, esapide eta hizkuntza-ezaugarri berrien jakitun ipin ditzakete hiztunak, baina jakitun egoteak ez dakar, ondoren, elementu horiek bereganatzea, alegia, hizkuntza-jabekuntza gertatzea.

Ingelesaren kultur eremuko ikertzaileek aldaera estandarraren ezarpena —zehazkiago esanda, *received pronunciation* deritzon ahoskera-ereduaren ezarpena— erabili dute horren frogagarri. Izan ere, Britainia Handian XX. mendeko bigarren laurdenetik aurrera irratia eta telebista —eskolarekin batera— estandarra zabaltzen egindako ahalegina gorabehera, hiztunen % 3-5ek baino ez dute erabiltzen hizkuntza-eredu hori (Milroy & Milroy, 1987, or. 29). Horrenbestez, hedabideei ez zaie eragin nabarmenik aitortu hizkuntza-aldaketaren zabalkundean (Chambers, 1998, or. 124). Ondorioz, ez zaie ahalmenik aitortu hizkuntzaren belaunaldiz belaunaldiko transmisioan (Fishman, 1991, or. 175).

Ikerketa berriek ulerbide berriak ekarri dituzte, bai hizkuntza iraunarazteko ahaleginei buruz, bai hizkuntza-aldaketari berari buruz, eta ondorioa da argudio berriak eskaini dituztela hedabideei eragina aitortzeko hizkuntza-jabekuntzan. Lehenik eta behin, ikertzaileek ez dute dagoeneko onartzen hizkuntzak bizirik irauteko modu bakarra gurasoengandik haurrengana igarotzea denik. Bigarrenik, ikertzaileek bi faktore aurkitu dituzte —motibazioa eta karga ideologikoa—, hedabideak hizkuntza-aldaketarekin lotzen dituztenak. Hurrengo paragrafoetan, gainbegiratu bat emango diegu argudio bakoitzari eusten dioten ikerketa nabarmenei.



Iraunarazpen-ahaleginak direla eta, hainbat ikertzailek —Fishmanek, batik bat (ikus 1.2.3.3.)— enfasi handia jarri dute belaunaldiz belaunaldiko transmisioan, baina beste ikertzaile batzuek errealistagotzat daukate ahaleginak biziberritzera zuzentzea (Romaine, 2006, or. 464–465). Hau da, belaunaldiz belaunaldiko transmisioari uko egin barik, hizkuntzak esparru berriak eta erabiltzaile berriak irabaztearen garrantzia azpimarratzen dute. Horrela begiratuta, arrazoizkoa da pentsatzea hizkuntzaren etorkizuna eguneroko bizitza publiko zein pribatuko esparruetan erabilia izatean datzala (Moring, 2013, or. 40). Horregatik, arrazoizkoa da pentsatzea hedabideek badutela nolabaiteko eragina hizkuntzaren etorkizunean, komunikazioa baita herritarren bizitzan esparru garrantzitsuenetako bat (ibid., or. 39-40): eguneko denboraren tarte zinez handia hartzen die —gero eta handiagoa—, eta komunikabide-mota bakoitza funtzio ezberdin batean baliatzen dute. Beste modu batean esanda, hiztunaren eta hizkuntzaren arteko harremanaren gertaleku garrantzitsuenetako bat, egun, hedabideak dira.

Hizkuntza-aldaketa dela eta, ikerketa berriek motibazioaren garrantzia atera dute agerira. Trudgillen (1986, or. 40–41) arabera, hiztunek hedabideen bitartez ezagut ditzakete hizkuntza-elementu berriak, eta hiztun askok imitatu eta eredutzat hartzen dituzte, ez elementu deigarriak bakarrik, baita gramatikalak eta fonologikoak ere, baina jokabide horren atzean jakinaren gaineko erabaki bat dago. Halako kasuetan, beraz, ezin daiteke esan hizkuntza-aldaketa hedabideek eragiten dutenik, baina bai esan daiteke korrelazio bat dagoela hedabideekiko harremanaren eta hizkuntza-aldaketaren artean. Naro eta Pereira Scherrek (1996) diote korrelazio hori hirugarren faktore batek azalduko lukeela: hiztunaren motibazioak.

Hiztun motibatuak hedabideetan aurki dezake bila dabilena. Esate baterako, Uruguaiako portuges-hiztunen kasuan, motibazioa estatus jasoagoko hizkera bat bereganatzea izan zen (Carvalho, 2004). Brasiletik heltzen zitzaizkien telebista-emisioetan aurkitu zuten euren asmoak betetzen zituen eredia, eta bertan behera utzi zuten euren ahoskera tradizionala. Komunitate horretan, hizkuntza-aldaketa ez zuen telebistak eragin, baina aldatzeko nahia zuten hiztunei lagundu zien faktore bat izan zen. Alemanian, berriz, belaunaldi gazteetan gertatu den hizkuntza-aldaketaren motibazioa argot propioa bilatzea izan da (Androutsopoulos, 2001). Telesailtako pertsonaien bitartez, jaiotzeko alemandun gazteek turko-alemana ezagutu dute, turkiar migrazioaren ondorioz sortu

den aldaera soziolinguistikoa. Telebista bidez hizkuntza-baliabide berrien jakitun egin, eta gazteok euren komunikazio-estrategietarako baliatu dituzte.

Austrian, antzeko gertaera aurkitu du Muhrrek (2003). Telebistaren bitartez, Austriako alemandunak neurri oso handian jarri dira Alemaniako alemanaren irispidean, eta esposizio horrek nabariki bizkortu du Austriako alemanaren hainbat ezaugarri galtzea Alemaniako alemanaren ezaugarriek ordezkaturata, batik bat belaunaldi gazteetan. Izan ere, gazteok Alemaniako alemanean aurkitzen dute, aldi berean, botere eta prestigio handiagoko komunitate baten mintzamoldea, euren gurasoen belaunalditik bereizteko hizkera, eta euren argota osatzeko hitzak, biraoak eta bestelako hizkuntza-baliabideak.

Stuart-Smith, Pryce, Timmins eta Gunterrek (2013) Glasgow hirian aurrera daramaten ikerketan ildo bereko emaitzak lortu dituzte. Ikertzaileok aurkitu dutenaren arabera, korrelazioa dago telebistaren eta hizkuntza-aldaketaren artean, eta korrelazio horretan efektu sendoa duen aldagaia da telesail baten jarraitzaile kartsua izatea. Glasgowlako ikerketan, gaztetxoek ahoskera aztertu dute, eta *East Enders* telesailera katigatuta dauden gaztetxoek protagonisten ahoskera-ezaugarri jakin batzuk erreproduzitzen dituztela aurkitu dute. Halako eraginaren mekanismoa ez da telesaila ikuste soila, baizik hiztunak telesailarekin atxikimendu psikologiko eta emozionala izatea. Horrez gainera, Glasgowlako ikerketatik ondorioztatu dute hiztunak bere inguruneko iragazki soziolinguistikoa ezartzen diola telebistatik etor dakioken eraginari zer ezaugarri bereganatzen dituen eta zer balio soziolinguistikoa esleitzen dien erabakitzeke orduan.

Gaur egun, horrenbestez, ez dago zalantzan telebista hizkuntza-aldaketaren faktoreetako bat dela. Horrez gainera, hizkuntza-aldaketaren testuingurua telebista izan daitekeela aurkitu du Couplandek (2010). Bere lanean, ez da hizkuntza-aldaketaz mintzo, 'aldaketa soziolinguistikoa'-az baino, batetik, hizkuntza-elementuen karga ideologikoan gertatzen diren aldaketak ere kontzeptuan biltzeko eta, bestetik, hizkuntzan jazotzen diren aldaketak gizarte-aldaketaren modalitate bat direla nabarmentzeko. Bada, Couplanden arabera, aldaketa soziolinguistikoaren sustapenean eta zabalkundean, hedabideak baliabide ahaltsuak dira. Izan ere, hedabideek —telebistak batik bat— ikuslearen begien aurrean jartzen dute hizkuntza-dibertsitatea, aurrez aurreko gizarte-harremanetan ezinezkoa den neurrian eta, aldi berean, ugaritasun horren berri ematearekin batera,

azpikoz gora jartzen dituzte hizkuntza-elementu bakoitzarekin lotzen ziren estereotipo —esangura— soziologikoak (ibid., or. 69).

Irratsaioetan zein telebista-programetan, era guztietako hizkerek dute euren lekua, baina mintzo den pertsona, kutsu geolektal edo soziolektal nabarmeneko aldaera erabilia ere, berorrekin lotu izan den testuingurutik kanpo ageri da. Hizkuntza-aldiera hori, beraz, programan mintzo den pertsona testuinguru soziolinguistiko batean txertatzeko baino gehiago, hau da, beraren jatorri geografiko edo sozialaren berri emateko baino gehiago, beraren norbanakotasuna bereizteko baliatzen da, beste modalitate semiotiko batzuekin batera, besteak beste, jantziekin eta keinuekin batera (Coupland, 2010, or. 70–72). Dagoeneko, egungo munduan, hedabideetan eraikitzen eta zabaltzen dira bereizgarriak (pertsonak bereiz ditzaketen tasunak), hizkuntza-ezaugarrien bitartez markatu zein bestela markatu (Coupland, 2009, or. 295). Alegia, hizkuntza-ezaugarriak hedabideetan testuinguratzen dira.

#### **1.4. HEDABIDEEN NORMALIZAZIO-EGINKIZUNA MUNDU GLOBALIZATUAN**

Marko teorikoa osatzeko, egungo egoeratik begiratu behar diegu HGHei eta berorien jarduerari. Hamarkada gutxi dira hedabideok agertu zirela, eta ez hamarkada askoz gehiago HPPari loturiko praktikak eta ikerketak hasi zirela. Hala ere, aurreko ataletan ikusi dugunez, eboluzio ideologikoa gertatu da alor bietan, eta eboluzio bietan dago mugarri bat mendearen aldaketan ezarrita, aro digitalaren hasiera markatzen duena. Teknologia digitalak eta berarekin batera ekarri duen mundu globalizatuak ideia berriak ernarazi dituzte hizkuntzen iraupenari buruz, jokabide berriak sustatu dituzte hiztunen artean, eta den-denaren mediazioa<sup>3</sup> (Livingstone, 2008) eragin dute. Horrek ez du esan nahi lehenagoko pentsamoldeak, giza portaerak eta harreman-bideak erabat ordeztu edo desagertu direnik; alderantziz, gehienek iraun egiten dute, eta ondorioa da egungo mundua orain dela urte batzuetakoa baino aniztasun handiagokoa eta askoz konplexuagoa dela. HGHei ere mundu konplexu horretan jardun behar dute, eta bertan

---

3 Hots, hedabideak izatea bitartekoa pertsonen arteko eta pertsonen eta gizartearen arteko harremanetan.

eraman behar dituzte aurrera euren normalizazio-helburuak. Atal honetan, zelan egokitu behar izan duten aztertuko dugu.

Lehenik, aro digitalak komunikazio-sektorea zelan eraldatu duen deskribatuko dugu (ikus 1.4.1.). Horren ondoren, begirada HGHetan jarrita, aro berriari haien jardura testuinguratzen eta baldintzatzen duten ideiak eta jokabideak zertan diren aztertuko dugu (ikus 1.4.2.). Atalaren amaieran, HGHeke euren normalizazio-helburuak testuinguru eta baldintza berrien sintonian ipintzeko beharraz arituko gara (ikus 1.4.3.).

### **1.4.1. Komunikazio-sektorea aro digitalean**

Aro digitaleko mundu globalizatuan, lurbera osoa konektatzen duten faktorerik garrantzitsuenak migrazioak, turismoa eta hedabideak dira. Hiru faktoreon eraginez, ikasle, negoziolari, artista, zientzialari eta beste pertsona askorentzat, espazio geografiko finkoen erreferentzialtasuna ahuldu egin da identitateari eta eguneroko bizimoduari dagokienez, eta lurralde gabeko komunitateak sortu dira, interes profesional, sozial eta/edo pribatuen gainean eraikiak (Hauser, 2009, or. 2).

Hedabideentzat ere, espazio geografiko finkoek erreferentzia-izaera galdu dute mundu globalizatuan. Egun mundu osoa hartzen duen komunikazio-sektorean, enpresak gero eta gutxiago dira, eta gero eta boteretsuagoak. Teknologia digitalak, gainera, komunikazio-enpresa gero eta kontzentratuago horiei hedabide-eskaintza ugaritu ahal izatea ekarri die, besteak beste, konbergentzia-prozesuei esker. Konbergentzia teknologia digitalaren ondorioetako bat da, ikus-entzunezko hedabideek eta idatzizkoek euren edukia Internet bidez zabaltzeko elkarlanetik sortu duten aukera-esparru gisa defini daitekeena (Lawson-Borders, 2003, or. 92). Konbergentzia kultur aldaketa gisa ulertu behar da nagusiki, eta hiru bereizgarriren bitartez ezagut daiteke (Jones, 2013a):

- a) Pertsonen arteko komunikazioa eta masa-hedabideak arlo banatan bereizten dituen marra gero eta lausoagoa da.
- b) Mundu birtuala mundu errealaren parte bihurtuta, komunitateen bizitza errealak komunikabideei esker eta komunikabideetan gertatzen da.
- c) Komunikabideetan, maila gero eta handiagoan gertatzen dira parte-hartzea eta interaktibitatea.

Komunikazioaren negozioak ere aldaketa handiak jasan ditu aro digitalean aurrerapen teknologikoen ondorioz (Guerrero, 2008, or. 295–296):

- a) Telebista, hedabide modura, etxetresna elektriko batetik askatu da. Gaur egun, betiko telebista-aparatuaz gainera, ordenagailua, telefono adimenduna zein tableta erabil daitezke ikus-entzunezkoen kontsumorako, nahi den tokian eta nahi den unean.
- b) Ikuslea bere ikus-entzunezko menuaren produktore eta programatzaile bihurtu da, teknologiak ahalbidetu dituen parte-hartzeari eta interakzioari esker.

AEBn egiten hasitako ikerketetan egiaztatu da ikus-entzunezkoak kontsumitzeko gailu edo pantaila guztien artetik mugikorrek dutela hazkunderik bizkorrena baina, horrekin batera, telebista ikusteko modu tradizionala ere gorantz doala (Nielsen, 2013, or. 3). Izan ere, herrialde hartan, ikusleen artean —batik bat, ikusle gazteen artean— oso zabaldua dago esperientzia multipantaila, alegia, gailu mugikorrekin osatzea telebista-ikusketa, programan parte hartzeko, entzundako datuak egiaztatzeko, publizitate-tarteetan entretenitzeko, lagunekin edo beste ikusle batzuekin iritziak trukatzeko, eta abar (Smith & Boyles, 2012, or. 2).

Ikus-entzunezko produktuak kontsumitzeko gailuak ugaritu direnez gero, edukia ustiatzeko leihoak gehiago izan daitezke orain. Edozelan ere, komunikazio-enpresek sortzen dituzten edukiek erabiltzaileek sortzen dituztenekin partekatu behar dituzte leiho horiek (Guerrero, 2008, or. 302). Egoera zail horri edukietarako aurrekontuen murrizketa eta audientziaren zatiketa gehitu zaizkio, eta errentagarri izatea bilatzen duten enpresek egokitu egin behar izan dute. Estrategiak hiru dira (ibid., or. 301-302): a) kanal anitzeko eskaintza, b) zerbitzu interaktiboak, eta c) zeharkako edukia.

Kanal anitzeko eskaintzaren bidez, aro digitala iritsi baino lehenagoko ikusle-kopuruak edo are altuagoak lor ditzake telebista batek erabiltzaile-nitxo ezberdinei zuzendutako kanalen audientzia guztiak batuz gero, eta, aldi berean, nitxo bakoitzari egokitutako formula komertzialak eraman daitezke aurrera. Formula horien euskarri garrantzitsua zerbitzu interaktiboak dira, erabiltzailearen protagonismo handiagoa ahalbidetzen baitute. Zeharkako edukiek ere, erabiltzailea egiten dute protagonista (Guerrero, 2008, or. 307–308): programak bere telebista-kanaletik beste kanal batzuetara eta beste

plataforma batzuetara egiten du jauzi eta, ingurune bakoitzera egokitutako formatuak eta piezak —'produktu krosmediak' (Iacobacci, 2008)— ez ezik, produktu eratorriak eta elkarri lotuak —'produktu transmediak' (ibid.)— ere sortzen dira. Hori dela eta, lehen emanaldi bakarreko produktu iraungikorra zena orain erabiltzaileak esploratu eta bizi beharreko esperientzia bihurtzen da. Esploratzeko aukeren artean, hizkuntza dago. Ikusentzunezko produktuen formatu digitalek nahi beste hizkuntzatako audio-bandak eta nahi beste hizkuntzatako azpidatziak bil ditzakete irudiekin batera, erabiltzaileek interesatzen zaien bezala erreproduzi ditzaten euren gailuetan.

Komunikazio-enpresei, panorama berri horrek finantzazio-bideak ugaritzea ekarri die (Guerrero, 2008, or. 305–306): besteak beste, publizitatea, harpidetza, *premium* zerbitzuak, eta ordaindu eta ikusiko sistema. Hala ere, enpresen aurrekontuaren zati handi bat erabiltzaileak euren plataformetara erakartzera zuzentzen dute, Youtube, Twitter eta beste plataforma askotan ez baitago komunikazio-enpresentzako negoziarik, Aurrekoetxeak (2014, komunikazio pertsonala), Mediaseteko sare sozialen arduraduna zenak, adierazi bezala.

#### **1.4.2. Egungo konplexutasunak hizkuntza gutxituko hedabideen arloan**

HGHei dagokienez, eboluzio bat gertatu da Dohaintza alditik teknologia digitalak eta globalizazioak markatutako Performantzia aldira. Eboluzio horrek eragileetan, ideietan eta jokabideetan izan du eragina, baina bilakaera ez da izan erabatekoa, alegia, aldi berriko eragileek, ideiek edo jokabideek ez dituzte ordezkatu lehenagokoak eta, horren ondorioz, aurreko aldietako ideia eta jokabide batzuek indarrean segitzen dute berriagoen alboan (Pietikäinen & Kelly-Holmes, 2011, or. 62). Horrek oso panorama konplexua ekarri du hizkuntzaren normalizazioan diharduten hedabideentzat. Euskal Telebistari, adibidez, etorkizunik eza iragarri zaio oraindik orain genero-guztizkotasuna ez betetzeagatik (Urkizu, 2015), alegia, Zerbitzu aldiko ideia batean oinarrituriko argudioa erabiliz.

Jarraian, konplexutasun horretako elementu nagusiak bereiziko ditugu, hizkuntza gutxituko hedabideen jarduera zelan testuinguratzen eta baldintzatzen duten aztertze

helburuarekin. Elementuok lau ideiaren inguruan bildu ditugu: banakako eragintza (ikus 1.4.2.1.), audientziaren konfigurazioa (ikus 1.4.2.2.), hizkuntza-kontzeptua (ikus 1.4.2.3.) eta hizkuntza-errepertorioa (ikus 1.4.2.4.).

#### 1.4.2.1. Banakako eragintza

Oraindino ere, hizkuntza gutxitu batzuek estatuaren eskutik lortzen dute euren tartea hedabideetan; beste batzuek eurentzako hedabideak dituzte hizkuntza-komunitatearen ekimenez eta ahaleginez. Azken urteetan, hedabide-eredu horien ondoz ondo, bakarkako gizabanakoak agertu dira eragile gisa komunikazio publikoan, teknologiaren aurrerakuntza dela medio. Izan ere, Interneti eta ordenagailuei esker, noranzko bakarreko komunikaziotik interakziorako urratsa egin da (Lawson-Borders, 2003, or. 93). Horrenbestez, hedabideekiko harreman tradizionalarekin batera, harreman berri bat agertu da, aukera, jabego eta autonomia kontzeptuetan oinarritzen dena (Pietikäinen & Kelly-Holmes, 2011, or. 62).

Eboluzio horren guztiaren ondorioa da hizkuntza gutxituko ikus-entzunezkoak kontsumitu nahi dituenak orain ez duela zertan erakunde baten eskaintzaren zain egon; berak ekoitz ditzake bere produktuak (Pietikäinen & Kelly-Holmes, 2011, or. 61). Beste hainbat sektoretan ere, gero eta ohikoagoa da produktorearen eta kontsumitzailearen arteko bereizketa ezereztea, eta gero eta zabalago dabil 'prosumitzaile' deitura rol biak bateratzen dituen izendatzeko (Ritzer & Jurgenson, 2010, or. 17–20). Internet bidezko hedabideei dagokienez, produktuak sortzeko eta sareratzeko ekimena izan duten erabiltzaile horien agerpenak Web 2.0 deritzon aroa ekarri du (Moring, 2013, or. 47). Oso kostu txikian iraultza handia eragin dute, besteak beste, sare sozialen *booma* eta telefono adimendunen erabilera berriak.

Banakako eragileek piztu duten iraultzak HGH tradizionalak ere ukitu ditu. Hedabideon jardueran, Pietikäinen eta Kelly-Holmesek (2011, or. 62) azaldu bezala, logika berri bat azaldu da, zeinak ez baitu helburutzat hizkuntza, baizik hizkuntza horretan programazio erakargarria eskaintzea. Horrez gainera, hedabide tradizionalak —hizkuntza gutxitukoak zein hegemonikokoak izan— plataforma berrietarako edukien ekoizpenean

inbertsio handiak egitera behartu dituzte, testuinguru berrian bizirik iraungo badute (Moring, 2013, or. 47).

#### 1.4.2.2. Audientziaren konfigurazioa

HGHentzat erronka handia dira audientziaren konfigurazio berriak, komunitateek izan ditzaketen konfigurazio berrien ondorio direnak. Oraindino ere, hizkuntza-komunitate asko geografikoki defini daitezke, baina beste asko sakabanatuta egon daitezke, hainbat tokitan zabaldua jatorrizko espaziotik kanpo. Estatuentzat eta administrazio publikoentzat, oso zail egiten da halako komunitateei hizkuntza-eskubideak eta hedabide-eskaintza bermatzea eta, aldi berean, komunitate lauso horientzat, oso zail egiten da euren eskubideen gaineko elkarrizketa ezartzea. Hizkuntza-sustapenaren ikuspegitik, interesgarria izan daiteke komunitatea muga geografikoez gaindi handitzeko aukera, baina audientzia sakabanatu bat aurrez aurre jartzen zaio eragile instituzionalek zerbitzu-hornikuntzan darabilten logika geografikoari (Pietikäinen & Kelly-Holmes, 2011, or. 67).

Espazio geografiko beraren barruan, bestalde, hizkuntza-komunitate gutxitua saretuta ageri daiteke, hots, hiztunen arteko harremanak zailduta eta bakanduta. Halako komunitateentzat, ikus-entzunezko hedabideek hiztunen arteko loturari atxikitze moduko espazio birtual bat antola dezakete (O'Connell, 2004, or. 37). Edozelan ere, egungo audientzia potentzialak —oraintsu arte hizkuntza-komunitatearen tamaina osoa harrapatzen zutenak— multzo txikiak dira, zaletasunek, adinak, bizimoduek eta beste ezaugarri batzuek bananduak. Multzo bakoitzaren nahi eta premiei erantzun beharra ezin helduzko eginkizuna izan daiteke enpresa bakar batentzat, eta behetik gorako presio bat eragin dezake hedabidearen hizkuntza-politiketan, erakundeek goitik behera zehazten duten ildotik aldentzea ekar dezakeena (Kelly-Holmes, Moriarty, & Pietikäinen, 2009, or. 228). Euskal Telebistari, hain zuzen, gobernuaren politikekin bat egin eta ikusleen beharrak aintzat ez hartzea egotzi zaio, euskara batua darabilelako hizkuntza-eredu gisa bera ulertzeko eta berarekin identifikatzeko arazoak dituela adierazten duen audientzia baten aurrean (ibid., or. 231).



### 1.4.2.3. Hizkuntza-kontzeptua

HGHen testuinguruan, eragile instituzionalei baliagarriagoa zaie estandarra ardaztat duen hizkuntza-kontzeptua (Pietikäinen & Kelly-Holmes, 2011, or. 64–66). Izan ere, aginte publikoentzat, gainerako hizkuntzetatik eta dialektoetatik bereiz daitekeen estandar batek errazago egiten du corpus-, estatus- eta jabekuntza-plangintzei ekitea, finantza-baliabideen helburua zehaztea, eta hiztunen eskubideen garantia antolatzea. Horregatik, oraindino ere, hizkuntza-batasunaren logika indarrean dago goitik beherako eragintzan. Logika horrek dakarren arriskua da hedabideetan erabiltzen den mintzaira oso urrun egotea komunitatearen eguneroko hizkuntzatik eta hizkuntza-jokabide eleaniztunetik.

Aldi berean, teknologia digitalaren eskutik, beste hizkuntza-kontzeptu bat azaldu da HGHetan (Pietikäinen & Kelly-Holmes, 2011, or. 61). Behetik gorako eragintzak sortutakoetan, batez ere, hizkuntza-molde puru, batu eta ondo finkatuak tarte zabalak utzi behar izan dizkio hizkuntza-dibertsitateari, hiztun bakoitzak bere gogoko hizkuntza-aldaera erabiltzen dueneko egoerari. Horrek ez du esan nahi jario oneko hiztun alfabetatu gabe asko ez direnik uzkur agertzen hedabideetan mintzatzeko, estandarra menperatzen ez dutelako beldurrez, baina, beste muturrean, behinola hiztun jatortzat edo hizkuntza-komunitateko kideztat hartuko ez ziratekeen pertsonak badute orain sarbidea hedabideetan (ibid., or. 65-66).

Hizkuntza-zatiketako egoera horretan, Couplandek (2014, or. 79) aurkako noranzkoetan doazen bi joera gisa aurkeztu ditu bernakularizazioa eta estandarizazioa. Bernakularizazioa aldaketa soziolinguistiko bat da, zeinak baitakar estandarrak beretzat izan dituen erabilera-eremuetara igarotzen uztea beste ezaugarri eta aldaera linguistiko batzuei (ibid., or. 87). Hedabideetan, programazio-irizpideak zerbitzu publikotik entretenimendura eta ikusleen parte-hartzera lerratuz joan diren heinean, aldaera bernakulariak presenteago egin dira, oraindino ere estandarrarenak bakarrik diren esparruak egon arren, esate baterako, albistegiak (ibid., or. 90). Umorezko bakarrizketak eta beste genero batzuk, ostera, bernakularren esparru eksklusiboak dira. Hedabideetan ireki diren parte-hartezko kanal eta plataformak ere, sare sozialak batik bat, estandarraz besteko hizkuntza-praktiken esparru bihurtu dira (Jones, 2013b, or. 35).

Baliteke bernakularrei esparru jakin batzuk uztearen atzean beroriekin behinola lotu diren jatorri-esangurak —geografikoak zein sozialak— egotea baina, egun, hedabideek azpikoz gora jarri dituzte hizkuntza-aldaeren eta jatorri-esanguren arteko loturak (Coupland, 2010). Oraindino ere, landa-eremua edo beheko gizarte-maila irudikatzeko erabiltzen dira bernakularrak telebista genero batzuetan, adibidez, baina estereotipo horiek hausten dituzten moduetan ere bai.

#### 1.4.2.4. Hizkuntza-errepertorioa

HGHetan, hasierako denboretan izan zitezkeen elebakartasun asmoak gorabehera, errealitateak praktika eleaniztunak ezarri zituen Zerbitzu aldian bertan (Pietikäinen & Kelly-Holmes, 2011, or. 63). Praktika horien eragina hedabideotako askoren hizkuntza-politika ukitzera ere heldu da, audientziaren hizkuntza-profil konplexua aintzat hartu beharragatik, baina Jonesek (2013b, or. 43) azpimarratu duenez, komunitate gutxituen testuinguruan, hizkuntza-iragazkortasuna HGHetan baino ez da gertatzen, mintzaira hegemonikoa darabiltenetan praktika elebakarra baita nagusi.

IKT berriek agerira atera dute eleaniztasuna ez dela komunitate jakin batzuen ezaugarria, giza esperientziarena berarena baizik eta, premiamendu handiagorekin edo txikiagorekin, hedabide guztiei heldu zaie errealitate hori kudeatzeko unea. Irratiak, telebistak eta erakundeen Interneteko hedabideek, oro har, elebakartasun paralelo gisa kudeatu dute, esaterako, webgune osoa erabiltzailearen hizkuntzara aldatzeko aukera eskainiz. Kelly-Holmes eta Milanik (2013, or. 16) ohartarazi bezala, halako praktikak Interneteko hedabide sozialetan jarri dira kolokan. Praktika berrietan, hiztunek erabiltzaile-sortzaile gisa jokatzeko dute, euren hizkuntza-errepertorioko elementu guztiak baliatuz eta nahasiz uneko jardunaren arabera (ibid., or. 6).

Bakhtinek (1981, or. 291) 'heteroglosia' izena eman dion hizkuntzen elkarretaratze hori ez datza hizkuntzen batuketa eta elkarketa soilean. Horrela osatzen diren diskurtsoetan, hizkuntzak edo hizkuntza-ezaugarriak parez pare jarritz, agerira ateratzen dira hizkuntza bakoitzari edo hizkuntza-ezaugarri bakoitzari atxikitzen zaizkion esangura historiko, ideologiko eta soziologikoak. Androutsopoulosek (2008, or. 742) dio gaur egun

hedabideetako diskurtsoa heteroglosiaren agertoki gisa ulertu behar dela. Beraren azterketaren arabera, azken hamarkadetan, Internet bidezko hedabide berrietan (*new medietan*), zineman, baina baita hedabide tradizionaletan ere, bernakularrak eta bestelako aldaerak diskurtso berean elkartzen dira, ez gizarte-errealitate bat islatzeko, diskurtsoa eraikitzen duten ahotsak<sup>4</sup> bereizteko baizik, eta, orduan, aldaera jakin batek zer irudikatzen duen edo zer esangura datxezkion unean bertan zehazten da, beste ahots batzuekin kontrastean. Androutsopoulos (2011, or. 294) dio, gainera, diskurtso heretroglosikoa, hizkuntzen eta aldaeren nahitako uztartze baten emaitza izan daitekeela, edo —Web 2.0aren esparruan bezala— diskurtsoaren eraikuntzan egile anitz aritzearen albo-emaitza izan daitekeela.

Heteroglosia egungo mundu globalizatuak egin du posible neurri handi batean, gizabanakoak orain hizkuntza-errepertorio zabal bat baitu eskura hedabideei, pertsonen mugikortasunari eta abarri esker. Oro har, gauza positibotzat hartu da, askatasun handia ematen baitio bakoitzari bere aukerako hedabide-hizkera osatzeko, baina kezka ere sortu du. Besteak beste, hizkuntza-errepertorioa zabaleran handitzeak sakoneran galera ekarri ote duen galdetzea eragin du (Pietikäinen & Kelly-Holmes, 2011, or. 66).

#### **1.4.3. Hizkuntza gutxituko hedabideak egun: audientziaren parte-hartzea**

HGHak une historiko jakin batean eratu ziren, normalizazioarekin loturiko eginkizunak bete zitzaten. IKT digitaletan komunikazioaren arloan eragin duten testuinguru berrian, hedabideon jarduerak aurrez aurre egin du topo mundu globalizatu batekin, hizkuntza-aniztasunaren gaineko jarrera berriekin, eta teknologiak ahaldundu dituen hedabide-erabiltzaileekin. Horrez gainera, 2010eko hamarkadako krisi ekonomikoak finantzazio-arazoak ekarri dizkie enpresei, eta begi guztiak hedabide publikoetara zuzendu dira. Lehendabizi zalantzan jarri direnak hizkuntza gutxituko komunikabide publikoak dira.

---

4 'Ahotsa' kontzeptu konplexua da baina, Blommaerti (2005) jarraiturik, esango dugu ahotsa dela ulertua izatea —edo ez izatea— lortzeko modua. Horrek dakar hiztunak aukeraketa bat egiten duela hizkuntza-baliabideetan, testuinguruaren arabera eta baliabide bakoitzari aitortzen dion balio sozialaren arabera.

Testuinguru horretan, Elorduik (2013, or. 255) ohartarazi bezala, zalantzan jarri diren horiek jardunean segitzea eta hizkuntzaren sustapenean baliagarri izatea nahi bada, beraien arduradunek komunikazio-arloaren aro berriko baldintza eta betekizunen sintonian jarri beharko dituzte hedabideon normalizazio-helburuak. Sintonia horren gakoa audientziaren parte-hartzea da. HGHeK, horrenbestez, Internetarako jauzia egin beharko dute, eta ikus-entzunezko produktuen zirkuitu berriek eta hizkuntza-tratamendu berriek dakartzaten erronkei heldu beharko diete.

Urteak dira HGHeK audientziaren parte-hartzea funtsezkoa izango zela aurreikusten zela. Teknologia denboragarrenean ekarriko zituen baliabide eta jokabide zehatzen jakitun egon ezinda ere, Aranberrik (1995, or. 92–93), ETBko zuzendaritzatik, interaktibitatea, ikus-entzuleekiko hurbiltasuna, eta produktuak ekoizteko eta banatzeko modu berriak aipatu zituen HGHen irtenbide modura globalizazio eta digitalizazio hasi berriek zekartenaren aurrean. Gorago aztertu dugunez, komunikazio-sektore globalizatuan, enpresak kontzentratzen eta gero eta boteretsuago egiten hasi ziren, eta horren ondorio zuzena izan da edukiei eta programazioari buruzko erabakien guneak kontsumo-tokitik milaka kilometrora joan direla, komunitatez eta estatuez gaindi (ibid., or. 90). Gorago aztertu dugu, halaber, teknologia digitalak kanalen ugaritzea ekarri duela. Horren ondorioz, hizkuntza gutxituko mikroaudientziak ehunka kanaletan barreiatuta geratu dira, programazio boteretsuen eraginaren menpe (ibid., or. 91).

Hizkuntza gutxituei ezinezkoa zaie ikus-entzunezko enpresa handien politketan esku hartzea, ezta kanalak hizkuntza hegemonikoen hein berean ugaritzea ere, baina jarrera aktiboa eta parte-hartzezkoa susta dezakete hiztunen artean ikus-entzunezkoen kontsumoarekin lotutako nahiak eta beharrianak asetzeko orduan. Interaktibitateaz eta halako kontzeptuez hitz egiten hasi zenetik hona, Internet bilakatu da hedabideetako parte-hartzearen paradigma. Internetek ikus-entzunezko produktuen zirkuituan, alegia, sorkuntzan, banaketan eta kontsumoan duen garrantzia ikusita, Pradok (2008, or. 43–44) hiru ildo proposatu ditu hizkuntza gutxituen komunikazio-politiketarako.

Lehenik, ardura eta inbertsioa ekoizpenera zuzendu behar dira, produktu lehiakorak sortzeko. Bigarrenik, inbertsioaren beste parte garrantzitsu bat produktuon zabalkundera zuzendu behar da. Alde batetik, plataforma digitaletan kokatu behar dira, eta

plataformak eurak ondo hornitu behar dira hizkuntza gutxituko produktuekin. Beste alde batetik, plataforma digitaletan kokatzen diren ikus-entzunezkoak era guztietako gailuetan kontsumi daitezkeela bermatu behar da. Hirugarrenik, erabiltzaileei produktu horietara iristea erraztu behar zaie, prestakuntza emanez, informazioa eskura jarritz, eta abar. Era horretako plataformen adibideak EiTBrn Nahieran zerbitzua eta Youtubeko kanala dira.

Plataforma digital horietan, baita telebistan eta irratan ere, toki handia dute egun produkzio-zirkuitu konbentzionaletatik kanpo ekoizten diren ikus-entzunezkoek eta, parte-hartzezko jokabideak gehiagora doazen heinean, gero eta handiagoa dute. Aldi berean, parte-hartzezko jokabideak gehiagora doazen heinean, gero eta presenteago dago hedabideetan eta produktuetan hizkuntza-aniztasuna. Ikus-entzunezko arloan, aldaketa bat gertatu da praxi elebakarretik diseinu heteroglosikoagora (Elordui, 2016, or. 33). Hizkuntza-tratamendu berri hori oso nabarmena da gazteek erabiltzen dituzten hedabide eta produktuetan. Euskaraz ere, hala gertatzen da, eta hurbilagoko behaketa batek agerian uzten du, gainera, ez dela iritzira jokatzeko (ibid., or. 49): estandarren, bernakularren eta kode-aldaketaren erabilerak generoen eta ahotsen arabeko logika bati jarraitzen dio.

## 2. EUSKARAREN NORMALIZAZIOA

Euskara, bere historian, ez da izan oso hizkuntza handia, ez hiztun-kopuruan, ez hedaduran, eta beraren espazio geografikoak eta sozialak etengabeko murrizketa jasan dute. Galerari aurre egiteko eta euskara suspertzeko kontzientzia eta ahaleginak XVIII. mendean piztu ziren, baina XX. mendearen bigarren erdira arte ez da existitu plangintza antolatuz. Aukera sortu denean, baina, normalizazio-ekimen eta sustapen-proiektu garrantzitsuak eraman dira aurrera; garrantzitsuenetako bat, Euskal Telebista, gure aztergai dena. Kapitulu honen helburua da begirada xehea ematea euskara suspertzeko ahaleginen azken hamarkadetako historiari. 1960ko hamarkadaren amaieran kokaturik, euskararen normalizazioa abiarazi zenean Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa zein zen deskribatu, eta prozesua hastea ahalbidetu zuten faktoreak identifikatuko ditugu. Geroago, normalizazioak egin duen ibilbidea aztertuko dugu, eta ETB testuinguru horretan kokatuko dugu.

Gure begiradak hartu behar duen eremua hain zabala izanda, Ricentok (2000) HPParen historian landu duen aldi-banaketa baliatuko gara berrikuspenera antolatzeko. Aurreko kapituluaren gure marko teorikoaz aritu garenean azaldu dugunez (1.2.1. azpiatalean), mende berriaren hasierara arte, Ricentok hiru aldi bereizi ditu munduko beste mintzaira batzuen normalizazio-prozesuetan, aldi bakoitzean erabili diren ideietan eta ereduetan oinarrituta. Antolamendu hori euskararen kasura egokituz —ideia eta ereduok ez baitira zabaldu Euskal Herrian munduko beste leku batzuetan zabaldu diren denbora eta modu beretan—, guk lau aldi bereizi ditugu, lau mugari identifikatu ondoren.

Lau mugarriok euskararen corpus-plangintzari edo estatus-plangintzari lotutako gertaera nabarmengarriak dira. Lehen mugarría, lehen aldiaren hasiera markatzen duena, Euskaltzaindiak 1968an Arantzazun antolatu zuen biltzarra da, euskara estandarraren jaiotza ekarri zuena. Bigarren mugarría Espainiako 1978ko Konstituzioaren onarpena da, Hego Euskal Herrian lege-marko berri bat ekarri zuena eta, beraren eskutik, ofizialtasuna eta normalizazio-plangintza publikoa euskararentzat. Hirugarren mugarría Euskaltzaindiaren 1994ko Leioako biltzarra da, euskara batuaren kodifikazioari itzulera gabeko bultzada eman ziona. Laugarren mugarría, azkenik, euskararen Interneterako irteera da. Irteera horren aurrekariak 1990eko urteetan kokaturik<sup>5</sup>, euskararen normalizazioaren laugarren aldiaren hasiera 2000ko hamarkadaren bigarren erdian jarriko dugu, orduan egin delako nabarmen Internetek eta IKTek ekarri duten mundu globalizatuak zuzeneko eragina duela euskararen estatusean. Izan ere, mundu horretan, ingelesa eta beste zenbait hizkuntza gehitu dira oraintsu arte euskarak gaztelaniarekin —Hegoaldean— eta frantsesarekin —Iparraldean— partekatzen zuen eremura.

Euskararen normalizazioaren historian ezarri dugun antolamendua azalduta, gure azterketaren arretaguneak esplikatuko ditugu orain. Hornbergerri (2007) jarraiturik, hizkuntza-politika —helburuak— eta hizkuntza-plangintza —ekimenak— bereiziko ditugu lau aldietako bakoitzean. Marko teorikoaz aritu garenean esan bezala (1.2.3.1. puntuan), Hornbergerrek hiru dimentsio bereizten ditu plangintzan: estatusa, corpusa eta jabekuntza. Hortaz, lau arretagune izango ditugu aldi bakoitzaren azterketan: politika, estatusa, corpusa eta jabekuntza.

Politikak eta plangintzak deskribatzeko orduan, hiru erkidego desberdindu beharko ditugu, euskararen lurraldeko hirurak —Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria—, administrazio bakoitzak bere politikak eta bere plangintzak baititu. Deskribapenean, eragile instituzionalen alboan, eragile ez-instituzionalak hartuko ditugu aintzat, funtsezko rola izan baitute euskararen normalizazioan, bai pentsamendu eta ekintza garrantzitsuak bultzatuz, bai hiru erkidegoak uztartuz. Horrez gainera, komunikabideei loturiko datuak azpimarratuko ditugu, eta ETBren sorreraren eta garapenaren testuinguruari nabarmentasuna eman.

---

5 Lehen esperientziak Bubber's Basque Page (1994), Kaixo.com (1997) eta eibartarren posta elektronikoko bidezko foroa (1998) izan ziren.

Horrenbestez, kapitulu honetako 2.1. atalean, euskararen normalizazioaren lehen aldiaz arituko gara. Euskal gizartean 1970. urtearen inguruan egoera soziolinguistikoa zein zen deskribatu ondoren, euskararen suspertze-bidean eman zen lehen pausoan jarriko dugu arreta. Pauso hura idatzirako euskara estandar bat kodifikatzea izan zen. Egun euskara batua deritzogun estandar hori gabe, ezinezkoak edo oso zailak izango ziratekeen atzetik etorri ziren beste urrats batzuk, batik bat, euskara irakaskuntzara eta komunikazio publikora eramatea.

2.2. atalean, euskararen normalizazioaren bigarren aldiaz arituko gara. Lehenik, gainbegiratua emango diogu Hego Euskal Herriaren Frankismoaren osteko egoerari. Jarraian, orduan sortu zen abaguneaz jardungo dugu. Espainiako 1978ko Konstituzioak euskararen ofizialtasuna aitorturik, bidea ireki zitzairen normalizazio-plangintza publikoei EAEn eta Nafarroan eta, horiei lotuta, ekimen garrantzitsuak gauzatu ziren, besteak beste, administrazioa euskalduntzea eta gorago aipaturiko biak, euskara irakaskuntzara eta komunikazio publikora eramatea. Euskal Telebista komunikazioaren arloari dagokion ekimenaren emaitza da.

2.3. atalean, euskararen normalizazioaren hirugarren aldiaz arituko gara. Egoera soziolinguistikotik eta soziopolitikotik hasita, ziklo-aldaketa bat gertatu zela azalduko dugu. Hego Euskal Herrian, alde batetik, bigarren aldiko plangintzetako ekimen nagusiak aurrera eramanez ziren arren, lortu gabe zegoen euskara, erabileraren aldetik eta estatusaren aldetik, gaztelaniaren parera altxatzea. Iparraldean, bestetik, euskara sustatzeko plangintza publiko bat osatzeko eta inplementatzeko aukera sortu zen lehen aldiz. Horrekin batera, euskararen kodifikazioan eta lantze funtzionalean urrats berriak egiteko beharizan handia zegoen. Gauzak horrela, nabarmentzeko modukoa da EAEn normalizazio-plan berri bat diseinatu zela ahaleginak erabileraren sustapenean ipinita, eta Iparraldean euskara bultzatzeko politika publikoak zehaztu eta horiek inplementatzeko planak osatu zirela. Euskaltzaindiak, bere aldetik, XIII. biltzarra antolatu zuen Leioan 1994an, eta euskara batuaren arauari eta lantze funtzionalari bultzada bat emateko funtsak ezarri zituen.

2.4. atalean, euskararen normalizazioaren laugarren aldiaz jardungo dugu. Ricentoren azterketaren arabera, HPParen historiako hirugarren aldian, hizkuntza gutxituei aurrez



aurre jarri zaie globalizazioa eta, testuinguru desfaboragarri horretan irauteko, estrategiak landu behar izan dituzte pentsamendu-ildo berrietatik abiatuta. Hala izan da euskararen kasuan ere baina, globalizazioaz XX. mendeko azken urteetan pentsatzen hasi zen arren, erreakzioa ez da heldu XXI. mendeko lehen hamarkadaren amaiera arte. Azpimarragarria da EAEko erakundeena, Euskara 21 egitasmoa.

## **2.1. EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN LEHEN ALDIA**

Ricentok HPParen eboluzioan bereizi dituen aldiez jardun dugunean esan bezala (1.2.1.1. puntuan), lehen hizkuntza-planifikatzaileen kezka estandarizazioarekin loturik zeuden. Afrikan, deskolonizazioaren garaia zen (1950eko eta 1960ko hamarkadak, gutxi gorabehera), eta nazio berrietako hizkuntza-aniztasuna mundu modernoarekin bat egiteko eragozpen modura ikusten zen. Irtenbidea nazio osoarentzako hizkuntza bat hautatzea eta gaitzea zelakoan zeuden. Europan, mende bat lehenago egin ziren antzeko saioak orduko nazio berrietan, adibidez, Norvegian (Haugen, 1959), eta XX. mendearen hasieran, estaturik gabeko zenbait komunitate etnokultural gutxitutan, adibidez, Katalunian (Bastardas-Boada, 1987).

Euskal Herrian ere, euskara estandarizatzeko lehen saioak XX. mendeko lehen hamarkadetakoak dira, baina bertan behera geratu ziren. Aurrera egiteko aukera ia mende erdi geroago sortu zen, 1968an, Euskaltzaindiak Arantzazun batasunari buruz antolatu zuen biltzarrean. Guk hor jarriko dugu euskararen normalizazioaren lehen aldia markatzen duen mugarria. Ordurako, euskara inoizko egoerarik ahulenean zegoen euskal gizartean, eta iruditzen zaigu euskararen normalizazio-prozesu osoa ulertzeko funtsezkoa dela egoera haren deskribapena egitea (ikus 2.1.1.). Ondoren, gauzak aldatzeko lehen ahaleginez arituko gara, alegia, Arantzazuko biltzarraz: zelan heldu zitzaion euskararen batasunaren xedeari (ikus 2.1.2.) eta, prozesua abian jarrita, zein izan ziren lehen emaitzak (ikus 2.1.3.).

### **2.1.1. Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa 1970 aldera**

Euskara etxeko, familiako eta lagunarteko esparruetara zokoraturik heldu zen XX. mendearen bigarren erdira, bere historiako lur-eremurik txikiena okupatuta, hainbat

faktore soziopolitiko, instituzional, sozioekonomiko eta psikosozialengatik (Euskaltzaindia, 1979a, or. 44–49). Faktore horien eraginpean, euskararen ordezkapena 1970eko hamarkadan heldu zen goreneko puntura. Orduko egoera hura bost ideiatan laburbil daiteke (Ruiz Olabuenaga, 1984, or. 16–17):

- 1) Euskara egitate sozial gutxitua zen Euskal Herrian.
- 2) Egoera gutxitu horren konfigurazioa ez zen espazio geografiko jarraitu bat eta bakarra, hainbat uharte baizik.
- 3) Landa-inguruetan, portzentajeei begiratuta, euskaldunak ziren nagusi baina, hala ere, euskaldun gehienak hiri-inguruetan bizi ziren.
- 4) Herritarren adina jaitsi ahala, murriztuz zihoan euskaldunen portzentajea.
- 5) Immigrazioak are handiago egin zuen zatikatze geografikoa, eta gehiago zokoratu zuen euskara landa-eremurantz.

Euskara gordetzen zeneko espazio geografikoa jarraitua ez bazen ere, Euskal Herriko mapan hiru eremu bereiz zitezkeen, euskararen presentziaren arabera (Euskaltzaindia, 1979a, or. 41–42): 1) eremu euskalduna, euskara gordetzen zuena; 2) eremu erdalduna, euskara galdua zeukana, eta 3) batetik besterako bitarteko eremua, euskara galtzeko bidean zuena. Bitarteko eremua eskualde hauek osatzen zuten: Bizkaian, Enkarterri eta Ezkerraldea; Araban, Aiaraldea, Gorbeialdea eta Arabako Lautada; Nafarroan, Erroibar, Atetz-Odieta, Sakana, Itza, Ultzama, Aezkoa eta Erronkaribar. Eremu euskalduna txikia zen, eta txikituz zihoan etengabe. Eremu horren barruan, euskara ukipen-egoeran baino ez zen bizi —Hegoaldean, gaztelaniarekin; Iparraldean, frantsesarekin—, ia euskaldun guztiak elebidunak baitziren (Rotaetxe, 1987, or. 162–168).

Zenbakitan adierazita, Euskal Herriak 2.800.000 biztanle zituen 1975ean, eta euskaldunak % 23 ziren (Euskaltzaindia, 1979a, or. 63–128). Portzentajerik handienak Gipuzkoan (% 45) eta Iparraldean (% 35) zeuden, eta txikienak, Araban (% 8). Hamar euskaldunetik bederatzik ama-hizkuntza zuten euskara. Euskara ia-ia ahozko erabilerara zegoen mugatuta, eta famili giroan erabiltzen zen nagusiki. Hiztunek, zenbat eta gazteago, orduan eta errazago jotzen zuten erdarara.

Egoera horri diglosikoa esaten zitzaion (Euskaltzaindia, 1979a, or. 18–19), agerian jarriz Euskal Herrian bazirela hizkuntza nagusi bat —espainola edo frantsesa—, eskolan eta

unibertsitatean irakatsia eta administrazioan eta hedabideetan erabilia zena, eta, mintzaira nagusiarekin batera, behe-mailako hizkuntza bat —euskara—, intimitatearen esparrura baztertua zena. Horrek ez du esan nahi Euskal Herrian herritar guztiak zirenik gai hizkuntza biak erabiltzeko; bestela esanda, euskal gizartea ez zen elebiduna, gizabanako batzuk elebidunak izan arren, hizkuntza nagusiaz gainera euskara ere bazekitelako. Aurreko kapituluan ikusi dugunez, euskararen azpikotasun-egoera hori azpimarratu nahi zen diglosia aipatu eta —soziolinguista katalanen terminologiari jarraituta— euskal gizartean hizkuntza-gatazka bat zegoela esaten zenean.

Hala ere, egoera gatazka moduan sentitu arren, euskara-hiztunen % 87,3ri gogobetegarri zitzaien euskaldun izatea (Euskaltzaindia, 1979a, or. 152). Gizartearen parterik handienak balio positiboekin lotzen zuen euskara —batik bat, euskal identitatearekin—, eta biztanleriaren beste parte handi batek kultur herentziazat jotzen zuen (ibid., or. 154, 159). Balioespen positibo horren zuzeneko ondorioa zen herritar gehien-gehienak euskara berreskuratzearen aldekoak zirela, alegia, euskararen gizarte-egoera aldatzeko nahia azaltzen zutela eta, ildo horretatik, ondo zeritzotela euskara berreskuratzea zuzendutako neurriak atontzeari (ibid., or. 156-161).

### **2.1.2. Normalizazioaren abioa. Euskararen corpus-plangintza**

Zuazok (2005, or. 146) 'desegituratu' hitza erabili du euskararen normalizazio aurreko egoera deskribatzeko.

«Gutziz deseginda eta desegituratuta ageri zaigu 1945-1964 garaiko euskara. Zuberotarrak euren euskalkiari begira, lapurtarrak eta behe-nafarrak ere euren oinarri hartuta, Hegoaldean ere hainbat bidetan zatituta eta ahulduta...».

Zuazo ez da ari zatikatze geolektalaz zehazki, zatikatze horrekiko jarrerez eta irtenbideez baizik. Euskara hainbat euskalki eta azpieuskalkitan banatuta heldu zen XX. mendera, eta horrek kezka eragiten zuen garai hartako euskaltzaleen artean. Hala ere, aldi berean, euskara tresna politiko soil modura erabiltzen zuten batzuek; beste batzuek

euren euskalkian aritzeko hautua egin zuten eta, batasunaren debatea areago zailduz, garbizaletasunak jatorrizko euskara usteko batera itzultzeko gaitza zabaldu zuen (Zuazo, 2005, or. 119). Egoera nahasi hartan, gertakari esanguratsua izan zen euskararen akademia eratzea, Hego Euskal Herriko lau aldundien babespean.

Euskararen akademiak, Euskaltzaindiak, sorrerako helburuetan jarri zuen euskalki guztien hiztunentzat balio zezakeen euskara literario bat atontzea (Euskaltzaindia, 1920, or. 3). Helburu horri erantzunez kodifikatu zen 'euskara batua', horrenbestez, literatur aldaera modura asmatu zen, baina berehala abiatu zen beraren lantze funtzionala, beste esparru batzuetara zabaltzeko, batik bat, esparru akademikora. Euskara batu hori gabe, ezinezkoa izango zatekeen hurrengo hogeita bost urteetan euskarak irakaskuntzan, komunikabideetan, administrazioan eta beste hainbat arlotan egin duen bidea (Agirrebaltzategi, 1992, or. 8).

Euskararen normalizazioaren aldiak banatzearen, euskararen kodifikazioari 1968ko data ipini diogu, alegia, Euskaltzaindiak Arantzazun egin zuen biltzarren data, baina ordurako baziren funts batzuk, besteak beste, ortografiaren bizkarrezurra. Lehenik, horrenbestez, aurrekari horietaz jardungo dugu (ikus 2.1.2.1.). Jarraian, euskararen batasunari ikuspegi sozialetik begiratuko diogu, eta prozesuaren beharraz eta garrantziaz eman ziren argudioak zerrendatuko ditugu (ikus 2.1.2.2.). Azkenik, Arantzazuko biltzarrean jarriko dugu arreta, eta hautapenean eta kodifikazioaren lehen urratsetan erabili ziren irizpideak azalduko ditugu (ikus 2.1.2.3.).

#### 2.1.2.1. Euskararen estandarizazioaren aurrekariak

Euskararen estandarizaziorako lehen urratsak XVII. mendean egin ziren, ortografiaren arloan (Zuazo, 1988, or. 411). Bai Ipar Euskal Herrian, bai Hego Euskal Herrian, saioak bat baino gehiago izan ziren XX. mendean hasiera arte. 1901ean, ortografi batasuna bideratzeko asmoz, batzar bat antolatu zen Hendaian Euskal Jaien bezperarako (ibid., or. 261). Orduan abiatu eta, bi urtez, hainbat bilera egin ziren, baina ez zen asmoa bete. Ahaleginak zapuztuta, Iparraldeko idazleek bide bat hautatu zuten, eta Hegoaldekoek, beste bat, hein handi batean Arana Goirik 1901-1902ko batzarretan proposatu zuen sisteman oinarritua (Villasante, 1961, or. 287–288).

Euskara estandarizatzeko saioak bertan behera geratu ziren, harik eta 1910ean *Euzkadi* aldizkariak literatur euskararen auzia berriro ere mahai gainean jarri zuen arte (Zuazo, 1988, or. 277–278). Ondorengo urteetan, batasunari buruzko hainbat artikulu eta txosten argitaratu ziren Euzkadi aldizkarian bertan zein beste euskarri batzuetan, alde nahiz aurka. Txosten garrantzitsuenetako bat, *Metodología para la restauración del euskera*, Luis Elizalde aurkeztu zuen 1918. urtean Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresuan, euskararen akademia sortzeko erabakia hartu zuen kongresuan, hain zuzen (Villasante, 1980, or. 105–106). Akademia —Euskaltzaindia— 1918. urte hartan eratu zen, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako diputazioen babespean, eta estatutuetan bertan jaso zuen euskararen batasuna lantzeko helburua.

«5. Yagokideak berena dute:

Euskera edolako bizipide ta gizartekoetan azkar ta garbi eutsi ta zabaltzea, ta euskal-idazkuntza agerbide orotan pizkortzea.

6. Artarakoxe Sail aunek:

a) ekingo du euskalgi oroen odolez azitako euskal-eredu bat gertutzen, itzez, itz-yoskeeraz ta idazkeraz albait erabatetsuena, euskaldun guziak idatz-irakurketan erabiltzekoa». (Euskaltzaindia, 1920, or. 3)

Batasunaren gaia aztertzea Champion eta Broussain euskaltzainen ardurapean utzi zen, eta oinarritzko txosten bat (Broussain & Champion, 1922) prestatu zuten Euskaltzaindiarentzat, baina akademiak ez zuen aurrerapauso gehiago eman. Azkuek, Euskaltzaindiko burua zenak, bere bidea urratu zuen. Literatur lanetarako, gipuzkera hobetsi zuen, gainerako euskalkien elementuekin aberastuta, eta eleberriren bat eta trataturen bat idatzi zituen berak 'gipuzkera osotua' zeritzon eredia ezagutarazteko (Villasante, 1980, or. 112). Zuazok (1988, or. 340) nabarmendu bezala, Azkueren gipuzkera osotuak zentzuzko oinarriak zituela esan daitekeen arren, ez zuen aurrera egin, besteak beste, autoreak ez zuelako jakin ondorengoei transmititzeko moduan sistematizatzen, eta ez zuelako aintzakotzat hartu euskal literatura zaharra bere neurrian.

Euskararen estandarizazioaren aurrekarietan, Azkueri bere hiztegiagatik ere aitortu behar zaio toki garrantzitsua, bere sasoiko eta ondorengo idazle, hiztegiagile, irakasle eta kazetariengan funtsezko eragina izan baitzuen, bai euskararen corpusaren ikuspegitik,

bai euskararen estatusaren ikuspegitik (M. K. Garmendia, 1988). Azkuek baino lehenago, Larramendik antzeko papera izan zuen. Larramendik ez zuen euskalkien batasuna aldeztu, baizik euskal herrialde bakoitzean bertako euskalkia sustatzea, baina, lexikoari zegokionez, euskalkien arteko mugak desegitea bultzatzen zuen, eta hitzak batetik besteetara zabaltzea (Zuazo, 1988, or. 196). Pentsaera horri jarraitu zion bere hiztegian, funtsezko erreferentzia izan zena euskal idazleentzat XX. mendera arte.

#### 2.1.2.2. Batasunari buruzko gizarte-debatea 1960ko eta 1970eko hamarkadetan

Ricentok (2000, or. 11) azaldu bezala, 1960ko lehen urteetan, deskolonizazioaren osteko nazio berrietan, hizkuntza-plangintzaren arreta estandar nazional baten hautapenera zuzendu zen nagusiki, halako aldaera bat beharrezkoa zelakoan gizartearen modernizatorako eta herrialdearen batasunerako. Euskal gizartean ere, testuingurua hizkuntza gutxitu baten sustapena zen arren, modernizazioa eta nazio-eraikuntza izan ziren euskararen batasuna aldezteko argudio nagusiak. Batasunaren aurkako argudioak ere eman ziren eta, aldi batez, euskara batua polemikaz inguraturik egon zen.

Batasuna defendatzeko eman ziren argudioetatik hasita, Zuazok (1988, or. 351–360) Krutwigen ekarria nabarmendu du. Krutwigek, euskararen batasunean funtsezkoak izan ziren beste ideia batzuekin batera, luze eta sakon jardun zuen bere idatzietan hizkuntza estandarrak batasun nazionalaren eraikuntzan daukan garrantziaz.

«Ahora bien, como el idioma sirve de lazo de unión y es la característica principal, la falta de un dialecto literario, universalmente aceptado, crea una desunión entre los vascos, justamente en el factor primordial de la nacionalidad». (Krutwig, 1963, or. 33)

Batasunaren aldeko beste argudio nagusia —hau ere Krutwigek aldarrikatua— bizitza modernoarekin lotuta zegoen. Hizkuntza estandarra tresna gisa ikusten zen, nahitaezkoa gizarteak zibilizazio modernoarekin bat egin zezan, zentzu askotan. Forma estandarizatu bat landu gabe, ezinezkoa izango zitzaion euskarari iraganeko eta egungo eduki eta

ideiak adieraztea, hasi kulturaren arlokoetatik, eta jarraitu sorkuntzaren, zientziaren, legearen eta administrazioaren arlokoetaraino (Agirrebaltzategi, 1992, or. 10–11). Ezinezkoa izango zitzaion, halaber, erabilera emendatzea (ibid., or. 12-13), zeren forma batu bat landu gabe, zailago egingo zen euskaldunen arteko komunikazioa, eta horrek eragin negatiboa izango zuen erabileran. Eskolan sartzeko ere, nahitaezkoa zen haur eta gazte guztiei euskara bateratsu irakastea.

«Ezin-bestekoa. il-edo-bizikoa, dela uste dugu euskera batasun-bidean jartzea. Haur eta gazteei euskeraz irakasten baldin bazaie, eta euskeraz irakatsi behar euskera biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea. Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da. Eta, euskera, idatziaren barrutian, irakaste-lanean dugu beharrenik batasun hori, irakurlearen atseginerako egiten den literatura "ederrean" baino areago». (Mitxelena, 1968, or. 203)

Modernizazioaren argudioa bultzagile handia izan da euskara batuaren prozesuan, batik bat sortzaileen arlotik. Espainiako Gerra Zibilak isilune bat eragin zuen euskararekin loturiko gaietan baina, 1950. urtearen inguruan, erretze bat egon zen eta, gerra osteko idazleentzat —Aresti, Txillardegia, Mirande, Davant eta beste hainbatentzat—, euskararen estandarizazioa bilakatu zen lehentasunezko kezketako bat, hizkuntza-eredu berri baten beharra sentitzen baitzuten euskal gizarte hiritar eta industrial berrian (Zuazo, 1988, or. 331–334). Belaunaldi zaharragoko hainbat idazlek, ordea, ez zuten hala ikusten. Arana Goirik, XX. mendearen hasieran, ez zuen euskararen batasunaren aldeko jarrera izan, ortografia bateratzeari nahikoa iritzita, eta eragin nabarmena izan zuen idazle askorengan mende horretako lehen urteetan (ibid., or. 281). Gerra ostean, pentsaera berarekin jarraitzen zuten. Euskararen batasunaren beharra ikusi barik, hainbatek greko klasikoa eta beraren lau dialekto literarioak ipintzen zituzten euskararentzako eredu modura, eta euskaldunei egokitzen zieten norberaren euskalkia lantzeko eta gainerakoak ezagutzeko ardura (ibid., or. 335).

Arantzazuko biltzarrak euskara batuari behin betiko izatea eman zionean, aldeko eta aurkako iritziak agertu ziren gizartean, batzuetan oso muturrekoak, eta eztabaida oso

garratzak gertatu ziren. Kontrakoan argudio nagusia zen batasunak heriotza ekarriko ziela euskalkie, euskara bizi eta erreala —antzinako denboretatik euskaldunek gordetzen zutena— hilko zuela euskara batuarentzat erreserbatzen baziren bizitza sozialeko eremu nagusiak, hala nola, bigarren hezkuntza, unibertsitatea, hedabideak eta administrazioa (Latiegi & Onatibia, 1982, or. 93–97). Hainbatetan, batuaren aurkako erreakzioak hizkuntzaren esparrutik kanpo kokatu zuen eztabaida, eta gizarte-egitura, politika eta erlijioa nahasi zituen (Zuazo, 2005, or. 162).

Edozelan ere, batasunaren bidean lehen urratsak egin baino ez, euskal gizartean kontzientzia berri bat eta baikortasun-giro bat piztu ziren (Zarate, 1978, or. 558–559). Euskara batuak arrakasta izan zuen, besteak beste, Mitxelenak berak (Michelena, 1985, or. 226–227) azpimarratu bezala, baserri-mundua krisian sartuta, euskarak beste nonbait bilatu behar izan zuelako babeslekua. Hala, euskararen transmisioa familiaratik kanpoko esparrura jauzi zen haurrentzako eta helduentzako ikastegien bitartez, eta ikastegiotan eredu estandarrean euskalduntutako hiztunak garrantzia irabaziz joan ziren etxe barruko bizitzatik haragoko gizarte-eremuetan.

### 2.1.2.3. Arantzazuko biltzarra

Euskara batua deritzogun aldaera estandarra prozesu biren emaitza da. Marko teorikoan (1.2.3.1. puntuan) jaso dugun lau dimentsioko HPP ereduko terminoekin esanda, lehen prozesua estandarren oinarriko hizkuntza-aldaeraren hautapena izan zen, eta bigarrena, aldaera horren kodifikazioa. Prozesu biak Arantzazuko batzarrean gauzatu ziren —kodifikazioa zirriboratu besterik ez zen egin—, baina lehenago jorratzen hasiak ziren. Atzera gabeko urratsa 1964an egin zen. Txillardegik sustatuta, Baionako Euskal Idazkaritzak batasuna aztertze biltzar batera deitu zituen euskal idazleak eta euskaltzaleak, eta biltzar hartatik irten zen euskara batuaren lehen diseinua (Davant, 2005). Geroago, Idazleen Alkartea sortu eta, berorren bultzadaz, 1968. urtean, Euskaltzaindiak hiru eguneko ekitaldi bat antolatu zuen Arantzazun bere 50. urteurrenean, euskararen estandarizazioaz eztabaidatu eta erabakitzeko (Zuazo, 1988, or. 333). Estandarizazioaren irismena oso mugatuta ikusten zen orduan.



«Bitarte ortan, gure illoroko Batzarretan, gai onen zenbait gauza obeto aztertu dira, eta aien artean au batez ere: batasuna nola "aditu" behar dan: noraño egin bear dan, zertan, zer salletan; eta guztion iritzia izan da, batasuna *idazleen artean, idazleentzat* egin bear dala: idatzietan, ez izketan (itz, orain arte bezela, bakoitzak bere eran); idazleen artean, ez errian (erriak orain barte bezela); eta idazleak berak beren idazti errikoietan, ez goi-idaztietan (ez olerkietan, eta Nobelistikan, adibidez; ortan idazleak azke gelditzen dirala, bakoitza bere eran). Itz bitan: batasuna bi gauza oietan: a) aldizkarietan ("Zeruko Argian", "Anaitasunean", "Yakin'en", "Jaunaren deian", "Laiaketan" etab. etab.); eta b) Ikastoletan, Ikastoletako Liburuetan eta jolasketetan etab. etab.; d) Liturgiaren zenbati zatitan...». (Lekuona, 1968, or. 139–140)

Biltzarrean aztertu behar zen txostena prestatzeko, batzorde bat izendatu zen, Mitxelena buru. Batzordeak hiru aztergai eraman zituen Arantzazuko biltzarrera: deklinabidea (S. Garmendia, 1968), hiztegia (Villasante, 1968; Zatarain, 1968) eta ortografia (Mitxelena, 1968). Ortografiari buruzko txostenean —izena gorabehera—, Mitxelenak euskara batuaren funtsak ezarri zituen. Hautapenerako, irizpide soziolinguistikoak aintzat hartuta, eredu konposizionala hobetsi zuen (Elordui & Zabala, 2009). Honela zioen:

«Ez da nor Euskaltzaindia, oraingoz behintzat, oinharriztat zein euskalki hautatuko den erabakitzeko. Badirudi, halarik ere, euskera idatziaren beharretarako egokiagoak direla, besteak beste (eta Bilbao euskaldun ez delarik), erdi-aldeko dialektuak bazterretakoak baino. Nola-nahi ere amore eman beharrean aurkituko gera guztiok, zeinek gehiago zeinek gutxiago, horretara heldu nahi badugu». (Mitxelena, 1968, or. 204)

XX. mendean euskararen batasunaz arduratu zirenen artean, sei irtenbide bereiz daitezke hautapenerako (Zuazo, 1988, or. 336): a) gipuzkera edo gipuzkera osotua, b) nafar-lapurtera literarioa, c) Ameriketako euskara (Buenos Airesen sortu omen zen euskal koinea), d) lapurtera klasikoa, e) euskara osotua (gipuzkera osotuaren berrikuspen bat), eta f) erdialdeko euskalkiak (gipuzkera, goi nafarrera eta lapurtera)

konbinatuz osaturiko eredu bat. Champion eta Broussain (1922) euskaltzainek prestatu zuten txostenean, azken eredu hori gomendatu zuten batasunerako eta, Arantzazun, Mitxelenak horixe bera bultzatu zuen.

Erdialdeko euskalkietan oinarrituriko hautuak, Zuazoren (1988, or. 412) iritziz, lau indar edo onura izan zituen. Hiztun-kopuruari zegokionez, gipuzkera zen euskalkirik handiena, bizkaierarekin batera. Literaturan, lapurteraz loratu zen aro klasikoa eta, Iparraldean, euskalki horrek zuen prestigioa; Hegoaldean, gipuzkerak. Ulertzeko erraztasunari zegokionez, erdialdeko euskalkiak ziren zailtasun gutxien zituztenak gainerako euskaldunentzat. Hiztunen sentimenduak zirela eta, euskal komunitate osoa atxikitzeko moduko eredua osatu zen, euskara baturako Iparraldeko eta Hegoaldeko euskalkiak aintzat hartzen zirelarik.

Euskararen batasunerako erdialdeko euskalkiak iradoki ondoren, Mitxelenak, bere txostenean, euskara batuaren kodifikaziori heldu zion. Alderdi ortografiko, lexiko, morfologiko eta sintaktikoetarako jarraibideak emateko, hizkuntzaren historian eta tradizioan oinarritu zituen bere irizpideak: idazle zaharren erreferentzia hartzea hots eta hots-legeetarako (Mitxelena, 1968, or. 206–207); aintzat hartzea muga politikoak gero eta gehiago bereizten zituela euskalkiak, hiztegi aldetik batez ere (ibid., or. 214); betidaniko eta alde guztietako bereizkuntzak gorde beharra —mugatua vs mugagabea, adibidez— (ibid., or. 216). Jarraibideok batasunaren aitzindari eta sustatzaileek urraturiko bidetik zetozen, azken batean, Mitxelena haietako bat baitzen. Arantzazuko biltzarren amaieran, Euskaltzaindiak (1968) adierazpen bat argitaratu zuen, Mitxelena buru zuen batzordeak landutako txostena onartuz.

### **2.1.3. 1970eko hamarkadako araugintza eta lantze funtzionala**

Arantzazuko biltzarrean erdialdeko euskalkietan oinarrituriko batasun-eredua gailenduta, alde batera geratu zen lapurtera klasikoan oinarriturikoa, batasunaren aitzindari eta eragile askok defendatzen zutena, besteak beste, Gabriel Arestik eta Luis Villasantek. Hala eta ere, Arantzazu osteko urteetan, Villasanteren lana funtsezkoa izan zen euskara batuaren aurrerabidean (Perez Gaztelu, 2000, or. 18–20). 1970ean,

Euskaltzaindiko zuzendaritza berritzea egokitu zenean, Villasante aukeratu zuten euskaltzainburu, eta akademiaren egitura eta funtzionamendua eguneratzeari ekin zion. Horren emaitza izan zen hurrengo urteetan euskara batuaren kodifikazioak hartu zuen bultzada. 1978ra helduta, Euskaltzaindiaren Bergarako biltzarrean itxi zen euskararen estandarizazioaren lehen epea, oinarrizko arauetara zegoena (Zuazo, 1988, or. 334).

Ortografia Arantzazuko biltzarrean finkatu zen, baina <h> letrari buruz emandako argibideak ez ziren gauzatu zerrenda batean (Euskaltzaindia, 1979c), harik eta Bergaran hainbat txosten aztertu eta ondoren batzorde berezi bat lanean jarri arte. Airean geratu zen, gainera, idatzia zelan ekarri ahozkoa, Arantzazuko txostenek azaldu ziren gogoetak eta oharrak gorabehera. Morfologia lehenago finkatu zen, hari-mutur batzuk izan ezik. Bergarako biltzarrerako, bazeuden erabakita euskara batuko adizki laguntzaileak (Euskaltzaindia, 1973) eta trinkoak (Euskaltzaindia, 1977). Bergarako biltzar hartan, behin betiko zehaztu ziren deklinabidearen paradigmatik (Irigoyen, 1979), Arantzazuko txostenetan aurkezturikoen ildotik.

Euskara batuaren lantze funtzionalari dagokionez, Bergarako biltzarra amaitu baino ez, euskara batua era guztietako gai eta idazlanetara hedatu nahi izan zuten bultzatzaileek. Zabalkunde-kanalak behar zituztenez, argitaletxe berriak —Lur eta Etor— sortu zituzten, eta bultzada eta haize berria eman zizkieten lehenagoko aldizkariei —batik bat *Anaitasunari*—; hizkuntza gaitu eta landu beharra zegoenez, lan ugari prestatu zituzten, esate baterako, filatelia-hiztegia 1973an, merkataritzako izendegia 1974an, munduko estatuen izenatarako gomendioa 1975ean, eta Euskal Herriko udalen izendegia 1979. urtean (Kintana, 1992).

Zientziaren arloan, ekimen erabakigarriak izan ziren (J. R. Etxebarria, 1992). Orduan sortu ziren erakundeetatik, aipagarri dira Elhuyar —1972an—, Udako Euskal Unibertsitatea —1973an—, Euskal Herriko Unibertsitateko hainbat fakultatetako euskal kultur taldeak —1975ean— eta UZEI —1977an—. Betekizun garrantzitsua izan zuten zientziazko gaiak euskarara ekartzeko ahaleginean ari ziren testugile, irakasle eta ikertzaileen lana sustatzen, babesten eta koordinatzen, eta emaitzak berehala ikusi ziren. 1975ean, *Natur zientziak* hiztegia plazaratu zuen Jakin taldeak. Urte berean, *8 urte arteko ikastol hiztegia* eman zuen argitara Euskaltzaindiak. Horren osagarri, UZEIk

*Matematika. Hiztegia, hizkera, irakurbideak* argitaratu zuen 1978an. Hurrengo urtean, *Fisika hiztegia*. Gaikako hiztegi-bilduma mardul baten lehen aleak izan ziren. Erljioari dagokionez, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan euskaratu zen liturgia katolikoa. Euskaratze horretan, uko egin zitzaion euskara batuari —nahiz eta Lekuonak (1968) batasuna liturgiarako ere bazela esan— eta, batuaren ordean, lekuan lekuko euskalkia erabili zen; bateratasun handiarekin, hala ere (Uribarren, 1992, or. 155–156).

## **2.2. EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN BIGARREN ALDIA**

Atal honetan, euskararen normalizazioaren bigarren aldiaz jardungo dugu. Aldi honen hasierako mugari modura Espainiako 1978ko Konstituzioa jarri dugu, berak ekarri baitzuen, Hego Euskal Herrian, gizarteak irrikatzen zuen burujabetza politiko, ekonomiko eta kulturala neurri batean erdiesteko abagunea. Franco diktadorea iragana zen. Etorkizunera begira, konstituzio hark autonomia politiko eta ekonomikorako eskubidea aitortu zien euskal lurraldeei, eta, arlo kulturalan, euskararen mendetako ahultzeari aurre egiteko eta beraren gizarte-egoera aldatzeko oinarria ezarri zuen. Izan ere, Konstituzioan, gaztelania izendatu zen estatuaren hizkuntza ofiziala eta, horrekin batera, Espainiar Estatuan erabiltzen ziren gainerako hizkuntzei ere ofizialtasunaren atea ireki zitzaion, bakoitzari bere erkidegoan, autonomia-estatutuan jaso beharko zen moduan. Oso modu laburrean esanda, euskararen normalizazioaren lehen aldiko ardatza euskararen estandarizazioa izan zen legez, bigarreneko ardatza euskararen estatus ofiziala eta beraren eskutik etorri ziren plangintza instituzionalak izan ziren.

Euskararen normalizazioaren bigarren aldi honek ia hamarkada bateko atzerapena izan zuen Ricentok HPParen historian bereizi zuen bigarren aldiarekiko. Halaz eta ere, testuinguruak desberdinak izanagatik, badira antzekotasunak aldi bien artean, azpimarratzeko modukoak direnak. Estatus berriak Hego Euskal Herrian ahalbidetu zituen normalizazio-plangintzak abiatu zirenerako, munduko beste leku batzuetan, batik bat behinola Europako herrialdeen kolonia izandako estatu berrietan, nabarmena zen hizkuntza baten sustapenean ez zela nahikoa hizkuntza-teknikarien lana; ez zela nahikoa hizkuntza bernakularrak estandarizatzea eta erabilera-eremuen banaketa bat antolatzea hizkuntza bernakularren eta kolonialen artean. 1970eko hamarkadako lehen urteetarako,

agerian zegoen hizkuntza-plangintzan funtsezkoa zela aintzat hartzea, besteak beste, zein zen gizartean hizkuntza-komunitatearen estatusa, eta zein ziren hizkuntza-jarrerak. Euskal Herrian ere, 1980ko hamarkadaren hasieran egin ziren normalizazio-saioen esperientziaren argitan, «komunitatearen egoera soziolinguistikoa sakonki ezagutzea» (I. Larrañaga, Egia, & Amonarriz, 1984, or. 13) nahitaezko abiapuntutzat jo zen edozein plangintza-jardueratan.

Lehen saio haiek Hego Euskal Herriko giro politiko berrian etorri ziren, erakundeek euskararen estatus berria garatzeari ekin ziotenean. Denbora laburrean, 1980ko hamarkadako lehen urteetan, lege-armazioa altxatu, eta normalizazio-plangintzak lantzeko eta inplementatzeko testuingurua eratu zen. Edozelan ere, ikerketa soziolinguistikoak ez ziren urte batzuk geroago arte egin, eta ikerketa horien emaitzetan oinarrituriko plangintzak euskararen normalizazioaren hirugarren aldia etorri ziren. Ipar Euskal Herriari dagokionez, euskara sustatzeko ahaleginak oso testuinguru ezberdinean gertatu ziren. Plangintza ofizial baterako aukerarik ezean, ekimenak eragile ez-instituzionalek bultzatu zituzten 1980ko eta 1990eko hamarkadetan

Atal honetan, hasteko, Frankismoaren osteko Hego Euskal Herrian jarriko gara, eta euskararen ofizialtasuna ahalbidetu zuen gizarte haren deskribapen politikoa eta soziala zirriborratuko dugu, euskararen normalizazioa beraren testuinguruan kokatzeko (ikus 2.2.1.). Testuingurua azaldu ondoren, euskararen ofizialtasunaz baliatuz EAEko eta Nafarroako gobernu-erakundeetan erabaki ziren hizkuntza-politikak deskribatuko ditugu (ikus 2.2.2.). Ikuspegia osatzeko, eragile ez-instituzionalen planteamenduetan ere, arreta ipiniko dugu.

Gorago iragarri dugun eskemari jarraituta, hizkuntza-politikaren ondoren, euskararen normalizazioaren bigarren aldiko hizkuntza-plangintzaz jardungo dugu, hiru azpiatal bereizita. Lehenean, estatusa izango da ardatza, begirada euskara-legeetara zuzendurik (ikus 2.2.3.). Legeok, besteak beste, euskarazko komunikaziorako eskubidea aitortu zieten herritarrei. Eskubidea aitortuta, EiTb izan zen berorren erabilera bermatzeko EAEko administrazioak prestatu zuen tresna. Jarraian, bigarren azpiatalean, jabekuntza izango da interesgunea, eta hezkuntza-ereduez arituko gara (ikus 2.2.4.). Azkenik, hirugarren azpiatalean, estatus ofizial berriak zekartzan hizkuntza-premiei erantzuteko egin behar izan zen corpus-lana berrikusiko dugu (ikus 2.2.5.).

### **2.2.1. Frankismoaren osteko testuingurua Hego Euskal Herrian**

Estatu frankistak goren gradura eramane zuten zentralismoa Espainian, eta 1978ko Konstituzioak, aldiz, estatu deszentralizatu bat diseinatu zuen 2. artikuluan, eskualde eta nazionalitateei autonomia-eskubidea bermatuz. Konstituzioaren laugarren xedapen iragankorrek aukera ematen zuen Nafarroak eta Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak autonomia-erkidego bakarra era zezaten, baina ez zen bide horretatik jo, eta bi eratu ziren: Nafarroako Foru Erkidegoa eta Euskal Autonomia Erkidegoa.

Konstituzioaren 148. artikulua, besteak beste, kultura eta hizkuntza sustatzeko eskumena aitortzen zien autonomia-erkidegoei. 20. artikulua, bestalde, hedabideak izateko eskubidea aitortzen zien estatuari eta erakunde publikoei, eta hedabideotan hizkuntza-pluraltasuna eta gizarteko talde eta alderdi nagusiak aintzat hartzeko betebeharra egozten. Edozelan ere, 149. artikuluan, estatuarentzat erreserbatzen zuten hedabideei buruzko oinarritzko legegintzaren eskumena.

Marko juridiko horren barruan, EAEk eta Nafarroak bazituzten, *a priori*, beharrezko euskarriak euskal gizartetik zetorren kultura eta hizkuntza sustatzeko aldarriari erantzuteko. Izan ere, Franco hil ondoren, galdutako denbora berreskuratzeko premia sentitu zen. Hala, euskal kulturaren, sektorea bultzatzeko, planifikatzeko eta euskararen interesetara biltzeko ideia zabaldu zen, eta kulturgintzako euskal talde gehienak oso aktibo ibili ziren egitasmo horren aldeko lanean (J. Azurmendi, 1984, or. 94). Euskarari dagokionez, hiztunek jarrera aktiboa eta militantea zuten. Ez zuten ulertzen euskara antzinakoengandik zetorkien herentzia zaharkitu gisa, baizik euren ondasun gisa, sustatu eta transmititu nahi zuten ondasun gisa, eta espiritu horren ildotik sortu ziren Korrika eta beste hainbat ekimen 1980. urtearen inguruan (Del Valle, 1988, or. 18–19).

### **2.2.2. Euskal Herriko lehen hizkuntza-politikak**

Euskararen normalizazioaren bigarren aldia inspiratu zuten nahi, itxaropen eta irizpideak aztertzeraz goazela, aintzat hartuko dugu euskara berreskuratzeko prozesuak zabaltasuna izan duela ezaugarri modura hasi zen unetik bertatik (Euskaltzaindia,

1979a, or. 167): prozesuak eremu geografiko zabala hartu du, pertsonen parte-hartze zabala, jardun-esparru zabala, eta finantzazio-ahalegin zabala. Zabaltasun horretan, nekez aurki daiteke asmo-batasunik, hau da, euskararako ez dago hizkuntza-politika bakar bat. Horrenbestez, mota bitako normalizazio-eragileak bereiziko ditugu, instituzio publikoak, batetik, eta norbanakoak eta gizarte-taldeak, bestetik, eta, horren haritik, mota bitako hizkuntza-politikak, publikoak eta gainerakoak.

Interesatzen zaigun informazioa biltzea dela eta, irudi luke 1980. urtearen inguruko denbora haietan, euskararen normalizazioaren arloan, ekintza zela nagusi, ia ez zela astirik hartu orduko legeei eta planei eusten zieten gogoetak, asmoak eta helburuak idatziz jartzeko, baina, gutxi izanik ere, badira dokumentuak. Euskal Autonomia Erkidegoan, oso garrantzitsua izan zen Euskararen Aholku Batzordeak eginiko lana. Nolanahi ere den, geroagoko testuetan, azalpen gehiago eta gogoeta-ildo berriak aurki daitezke euskararen politika publikoei dagokienez. Guk, azpiatal honetan, eragile hauek hartuko ditugu aintzat euskararen normalizazioaren bigarren garaiko hizkuntza-politiken azterketan: EAEko Gobernuak (ikus 2.2.2.1.), Nafarroako Gobernuak (ikus 2.2.2.2.), eta eragile ez-instituzionalak (ikus 2.2.2.3.).

#### 2.2.2.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak

Gernikako estatutuan, modu honetara dago xedatuta euskararen estatusa Euskal Autonomia Erkidegorako (testuan, Euskal Herria deitzen dio erkidegoari):

«6.artikulua

1.- Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea».

Euskararen Aholku Batzordeak (1983, or. 21), testu hori interpretatuz, dio EAEko hizkuntza-politikaren helburua elebitasun osoa dela. Euskararen Aholku Batzordea (EAB) Euskararen Normalizaziorako Legearen 29. kapituluan jasotako organo bat da, zeinaren eskumena baita Jaurlaritzari administrazio publikotik haragoko esparruetan

laguntzea normalizazio-zereginetan. 1980ko hamarkadaren hasierako urteetan, EABk funtsezko lana egin zuen euskararen normalizazioa bideratzen (M. K. Garmendia, 1998, or. 9). Izan ere, elebitasun osoaren esanguraz eta irismenaz prestatu zuen txostena da, oraindino ere, EAEko euskararen politikaren bizkarrezurra.

EABren (1983, or. 17–18) arabera, elebitasun osoko gizarte batean, herritar guztiak dira gai gizarte horretako hizkuntza biak erabiltzeko, maila, arlo eta harreman guztietan, inolako diferentziarik gabe. Txostenak zioenagatik, ordea, une hartan, Euskal Herrian, elebitasun osoa barik, «*elebitasun diglosikoa*» zegoen: herritar guztiak ziren gai hizkuntza bietako bata —gaztelania/frantsesa— erabiltzeko maila eta arlo guztietan, baina beste hizkuntza —euskara—, ordea, batzuek bakarrik erabil zezaketen maila eta arlo guztietan; beste batzuek, maila edo arlo batzuetan bakarrik, eta beste batzuek ezagutu ere ez zuten egiten (ibid., or. 18). Halako egoera baten aurrean, eta aintzat harturik elebitasun osoa munduko leku batean ere ez dela ezagutzen, EABk (ibid., or. 20), EAEko euskara-politikarako, helburu arrazoizkoagotzat jo zuen diglosia apurka-apurka murrizten joatea.

Helburu hori betetzeko, EABren (1983, or. 17) arabera, Eusko Jaurlaritzari zegokion ahalbide efektiboak eskaintzea. Txostenean, hiru esparru aipatu ziren, Jaurlaritzak ahalbidez hornitu beharko zituenak: hezkuntza, kultura —komunikabideak barne—, eta administrazio publikoa. Diglosia murrizteko eginkizunean izango ziren zailtasunak aurreikusita, EABk (ibid., or. 20) ohartarazi zuen irakaskuntza ez zela nahikoa elebitasun osora iristeko; gizarte-giroa ere elebidun bihurtu behar zela. Horrez gainera, erabilera normaldu ez ezik, euskara bera estandarizatu egin behar zen (ibid., or. 21), alegia, aurrera egin behar zen kodifikazioan. Zailtasunak nabarmenduta, txostenean lehentasunak ere aipatu ziren. Hiru esparruetako bakoitzaren barruan lehentasunak ezartzeko, EABk (ibid., or. 23) hiru irizpide zehaztu zituen: euskara nagusi zen tokiak, bizitzarako ezinbestekoak ziren arloak, eta euskara erabilgarri egiten zuten bitartekoak. Kulturaren esparruan, telebista eta irratia arloa jo zen euskararen bizitzarako ezinbestekotzat eta, hortaz, lehentasuntzat (ibid., or. 28-29). Hedabideen arlo horretan, txostenak zioen garrantzi handikoa zela gizarte-bizitzako programak eta haur eta gazteentzako saioak aireratzea, programa horietan parte hartu behar zuten profesionali hizkuntza-trebakuntza eskaintzea, eta telebistako eta irratiko euskara zaintzea.



Txosteneko azken atala ikerketa soziolinguistikoei eskaini zitzaien, hiru arrazoi jasoz halakoen beharra oinarritzeko. Lehena zen ez zela ezagutzen euskararen atzerakadaren gertakizuna behar bezain zehazki eta sakonki, datu batzuk eta interpretazio historiko batzuk gorabehera (Euskararen Aholku Batzordea, 1983, or. 41). Bigarren arrazoia zen ondo ezagutu behar zirela euskararen erabileran eragiten zuten prozesu psikosozialak (ibid., or. 41). Azkenik, hirugarren arrazoia zen nahitaezkoa zela jakitea zein ziren abian jartzen ziren normalizazio-ekimenen emaitzak, batik bat, komunikabideen arloarekin eta irakaskuntzarekin loturiko ekimenenak (ibid., or. 41-42). 1995era arte ez zen izan esku artean halako ikerketa baten daturik (Euskararen Aholku Batzordea, 1998, or. 19).

Lehen txosten hartatik hamar urtera, EABk (1993) beste bat prestatu zuen, euskararen politikari buruz gogoeta berri bat ireki zuena —ia-ia 1983ko txostena existitu izan ez balitz bezala (Marko, 1994, or. 82)—. Bigarren txosten horretan ere, euskararen politikaren helburu modura gizarte elebiduna eraikitzea jarri zen, alegia, euskara eta gaztelania herritar guztien mintzaira erabilgarri eta komun bihurtzea (Euskararen Aholku Batzordea, 1993, or. 10). Normalizazioa, helburu horretara iristeko prozesua, gizarteak eta herri-erakundeek elkarlanean aurrera eraman beharreko eginkizuna zela zioen EABk (ibid., or. 14), hamar urte lehenagoko txostenean osorik Jaurilaritzari egotzitako erantzukizuna partez herritarrei ere bazegokiela agertuz. Normalizazioaren euskarri ideologikoak direla eta, txostenak herritarren hizkuntza-eskubideak aipatzen zituen, gaia artean guztiz zehaztu gabe ikusten zuen arren (ibid., or. 16).

Normalizazioaren lehentasunetan, esparruak lehengo txostenekoak baziren ere, aldaketa nabarmen bat zegoen, zeinetan Fishmanen (1991) belaunaldi arteko etenaren eskalaren pentsamoldea islatzen baitzen. Txosten berrian, lehentasuna euskararen transmisioa zen, eta transmisio horren oinarritzeko gunetzat familia jotzen zen (Euskararen Aholku Batzordea, 1993, or. 21). Txostenaren arabera, familiaren euskalduntasunik gabe, transmisioaren gainerako lagungarriak —irakaskuntza, komunikabideak, administrazioa eta abar— emaitza urriko lan eskeragan arituko lirateke beti.

EAEko hizkuntza-politikan, zeina erabat esplizitatutzat jo baitaiteke 1993ko txostenaz geroztik, hiru ezaugarri azpimarratu dira. Azkaratek (2012, or. 126) progresibotasuna eta malgutasuna nabarmendu ditu. Txostenaren arabera, batetik, ez da nahikoa

normalizazioaren azken helburu nagusia aipatzea; normalizazio-prozesua programatuta egon behar da, eta tarteko helburuak, egutegi batean mailakaturik (Euskararen Aholku Batzordea, 1993, or. 13). Bestetik, prozesua gizartearen borondate, baliabide, oztopo eta ezintasunetara egokitu behar da tokiz toki eta unez unez (ibid., or. 14). Baztarrikak (2009, or. 148), berriz, ikuspegi sustatzailea nabarmendu du EAeko hizkuntza-politikan, funts juridikoa Euskararen Legean duela erantsita. Argudioa da gizarte elebiduna eraikitzeke helburua badago ahalegin ofizialek euskararen aldeko ekintzak sustatu behar dituztela (Euskararen Aholku Batzordea, 1993, or. 10).

Baztarrikaren (2009, or. 59–60) arabera, sustapen-jarreraren aldeko hautua egin duten hizkuntza-politika ofizialek irizpide nagusi bi izan dituzte oinarrian: lurraldetasuna eta gizabanakoaren eskubideak. Euskadiko hizkuntza-politikaz denaz bezainbatean, irizpide biok berretsi zituen Legebiltzarrean egindako agerraldi batean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari Mari Karmen Garmendiak (1994), hainbat argibide erantsita. Lurraldetasunaz ziharduela, euskara Euskal Herriko lurralde guztien lokarria dela azpimarratu zuen (ibid., or. 15) eta, eskubideen bermeaz, berriz, badirela pertsona batzuk, oztopoak ipintzen dizkietenak euskaldunen eta euskaldundu nahi duten herritarren eskubideei (ibid., or. 16). Agerraldi hartan, gainera, Hizkuntza Politikarako idazkariak ideia berri bi plazaratu zituen. Lehena zen hizkuntza-politika demokratikoa, gehiengoaren borondatea aintzat hartzen duena, Eusko Jaurlaritza horren aldekoa dela esanez (ibid., or. 13). Bigarren ideia zen gizarte normalizatuaren deskribapen berri bat, non hizkuntza bakoitzak bere erabilera-eremuak izango bailituzke, hizkuntza bataren eremuak eta bestearenak eremu berak izan beharrik gabe (ibid., or. 16).

#### 2.2.2.2. Nafarroako Gobernua

Nafarroan ez dago Euskararen Aholku Batzordearen organo homologorik, eta erakunde ofizialetatik ez da ekoitzi hizkuntza-politikari buruzko gogoeta edo debatea jaso dezakeen testurik, ez bada legea bera. Legean eta legegintza-prozesuan adierazita utzi diren jarreraren arabera, gizarte elebiduna lortzea ez dago Nafarroako ordezkari politiko askoren asmoetan. Urteetan, berorien ikuspegia izan da nagusi hizkuntza-politika publikoan. Hain zuzen, foruen hobekuntza prestatzen ari ziren garaian Nafarroako

parlamentuaren borondatea eta kontsentsua euskara lurralde osoan ofizial egitea izan zen arren, alderdi nabarristen azpilanaren ondorioz, azkenean, 1982an onartutako Foru Hobekuntzako Legeak behin betiko lotu gabe utzi zuen euskararen ofizialtasuna (Monreal, 2003, or. 10–11).

Handik lau urtera euskararen ofizialtasunari irtenbidea eman zion legeak —Euskararen Foru Legeak— EAEn bezala, hizkuntza-eskubideak aitortzen dizkie herritarrei baina, eremuz eremu, ezberdinak dira eskubide horiek. Nafarroako hizkuntza-politika, beraz, lurraldetasunari dagokionez, murriztailea da. Hala eta guzti, ez da gainditu ezineko mugatzat hartzen. Borondate politikoa egonez gero, Euskararen Foru Legeak berak ematen du —1.2.b artikuluan— lurraldetasun-irizpidearen murrizketa gainditzeko gakoa (Rodríguez Ochoa, 2001, or. 558), bai baitio Euskararen Foru Legearen ezinbesteko helburua dela euskararen berreskurapen eta garapena begiratzea.

Nolanahi ere den, legea bera aztertzen dugunean ikusiko dugunez, aginte publikoen aldetik gutxienekora jo da hiztunen eskubideak bermatzeko orduan. Besteak beste, ez da plangintzarik landu euskara gizartean normalizatzeko, eta administrazio publikoaren erantzukizuna itzulpen-unitate baten bidez eman da betetzat. Nafarroan, nekez esan daiteke aginte publikoek sustapen-jarrera hartu dutela erkidegoko hizkuntza-politika oinarritzeko (Monreal, 2003, or. 9).

### 2.2.2.3. Eragile ez-instituzionalak

Euskararen sustapenean aritzen den edozein norbanako edo gizarte-talde bil dezakegu eragile ez-instituzionalen multzoan. Euskalgintza esan dakioken multzo heterogeneo horretan, hainbat arlo bereiz daitezke —Garabide Elkartearen (2010, or. 45) arabera: kultura, irakaskuntza, administrazio publikoa, hizkuntzaren lantze funtzionala, tokiko gizarte-mugimenduak, lan-mundua, nazio-mailako gizarte-mugimenduak, eta komunikazioa—.

Gobernu eta erakundeetatik harago, eragile ez-instituzionalek funtsezko rola izan dute euskararen normalizazioan. Hasteko, eragileok ikuspegi nazionala izan dute beti; aintzat

hartzen duten eremua Euskal Herri osoa da eta horri esker, esate baterako, Ipar Euskal Herrian orpoz orpo jarraitu zitzairen Hego Euskal Herriko normalizazio-prozesuei —arlotan batzuetan beste batzuetan baino hurbilago—, erakundeen babesak izan barik ere. Halaber, Euskal Herri osoko talde eta elkarteentzako bilguneak eratzen dituzte, hala nola, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua. Esandakoaz gainera, hizkuntza-politikan, eragile ez-instituzionalek ikuspegi propioa izan dute, eta erakundeek ez bezalako ildoak urratu dituzte. Euskalgintzaren ikuspegi propio hori —1960 eta 2010 arteko lana gogoan— esaldi honetan sintetizatu nahi izan da:

«Euskaldunok Euskal Herri euskalduna nahi dugula erakutsi dugu era askotara [...]». (Uribarren, 2010, or. 87)

Garai hartako kroniken arabera —ikus Argia (1985a, or. 216)—, euskalgintzatik kanpoko hainbat gizarte-eragilek esentzialista esan zioten ikuspegi horri, nazionalismo mugatu eta itxi batean oinarriturik zegoelakoan, eta kontzepzio pluralista ipini zioten aurrez aurre. Beste kontzepzio horrek Euskal Herria errealitate plural eta konplexu gisa ikusten zuen, baita hizkuntza-mailan ere. Halako egoera batean, baztertu beharrekotzat jotzen zuen hizkuntza-gatazkaz hitz egitea, eta hizkuntzen berdintasuna proposatzen zuen mugimendu euskaltzalearen oinarritako, euskara identitate nazionalaren funtsezko ezaugarri modura onartu gabe.

Euskalgintzako eragileentzat, ordea, euskara euskaldunen naziotasunaren giltzarria eta haien kontzientziaren euskarria zen, zorigaiztoko historia baten ostean desegituraturik eta irauteko indarririk gabe iritsia 1970eko hamarkadara (Zenbait Egile, 1982, or. 6–8). Aurrera egin zezan, euskararentzat gizarte oso bat irabazi behar zela zeritzoten, txikia izanda ere, gizarte osoa, bere izankizun eta bizikizun guztiekin. Ahalegin horri normalizazioa esaten zioten, eta beraren lehen zutoin modura euskaldunak eurak jartzen zituzten. Geroago, gizarte erdalduna ere batu behar zelakoan zeuden. Izan ere, hain zatikaturik ageri zen herri hartan —Iparralde vs Hegoalde, EAE vs Nafarroa, bertakoak vs etorkinak—, ikusten zuten euskara izan zitekeela gizartearen ahokadura eta mamidura, alegia, euskara izan zitekeela euskal herrialde eta euskal herritar guztien elementu bateratzailea.

### 2.2.3. Euskararen estatus-plangintza: ofizialtasunaren irismena

Euskarak ofizialtasuna lortu eta, 1980ko hamarkadan, lege-garapenari ekin zitzaion Hego Euskal Herrian euskararen estatusa finkatzeko. Bi ziren zehaztu beharreko gaiak. Batetik, estatus ofiziala zein esparruri zegokien eremu publikoan eta, bestetik, administrazioak zer erantzukizun zuen ofizialtasunaren bermean. Azpiatal honetan, horrenbestez, euskararen normalizazioaren lege-euskarria eta euskarri horren garapena aztertuko ditugu. Lehendabizi, normalizazioaren aurreko egoera aztertuko dugu, euskarak, ofizialtasunaren babesa izan barik ere, 1980ko hamarkadara arte eremu publikoan zer aurrerabide egin zuen aztertzeko (ikus 2.2.3.1.). Ondoren, Hego Euskal Herrian ofizialtasunaren babesa eman dioten euskara-legeak aztertuko ditugu: Euskal Autonomia Erkidegokoa (ikus 2.2.3.2.) eta Nafarroakoa (ikus 2.2.3.3.). Azkenik, eragile ez-instituzionalen rola aztertuko dugu, funtsezko bultzada eman zitelako ofizialtasunak euskarari irekitako hainbat esparruri, batik bat, komunikazio publikoari (ikus 2.2.3.4.).

#### 2.2.3.1. Normalizazioaren aurreko egoera

Euskara erabilera ofizialetatik baztertuta egon da Euskal Herriaren historia gehienez, baina marjinazio horren modua, irispena eta ondorioak ez dira berdinak izan ez garai guztietan, ez toki guztietan, ez arlo guztietan. Administrazioari dagokionez, XIII. mendetik —eta lehenagotik— agintarien hizkuntza ezartzen zen euskal lurraldeetan, baina horrek ez zuen eragin handirik izaten herritarren eguneroko bizimoduan, administrazioa hizkuntza agintearekin harremana izateko bitartekoa besterik ez baitzen (Euskaltzaindia, 1979a, or. 29–31). Hiribilduetan, baina, ondorioak nabarmenagoak izan ziren, hiriguneetako harreman sozial, ekonomiko eta juridiko konplexuagoek euskarari atzera eragin baitzioten, desagerrarazi barik, hala ere (ibid., or. 31-32).

Bizirik iraute horrek agerian jartzen du ezagutza sakonagoa behar dela euskararen aldiz aldiko egoera eta erabilera modu zehatzagoan interpretatzeko. Joseba Intxaustik (2007, or. 1249) ohartarazi bezala, XX. mendearen aurretik ere, euskarak ofizialtasuna izan du, ez beste hizkuntza batzuen bezalako, eta ez garai, toki eta eremu guztietan, baina bai erabileraren errealitateak ezarria. «Ofizialtasun hori ez da izan sekula ezer beregain

*isolatua, inguruak baldintzatu eta mugatua baizik»* (ibid.). Aztertu besterik ez dago euskarak mendeetan izan duen eliz erabilpena (ibid., or. 1238-1241).

XIX. mendean, baina, Frantziako Iraultzak eta, batez ere, ostean etorri zen Liberalismoak hizkuntza-politika berria ekarri zuten bai Frantses Estatuan, bai Espainiar Estatuan, herrialdeko aniztasun linguistikoa ezereztatzera heldu nahi zuena (Intxausti, 2007, or. 1243–1244). Politika horren ondorio dira, besteak beste, Frantzian eta Espainian XX. mendea baino lehen eskolak —hurrenez hurren— frantsesera eta espainolera bihurtzeko neurriak, XX. mendearen lehen erdira arte bere horretan iraun zutenak (Garabide Elkarte, 2010, or. 37–38). Aldi berean, euskal gizartean, hizkuntzaren kontzientziak gora egin zuen eta, Hego Euskal Herrian batez ere, hizkuntzaren aldeko asmoak eta ofizialtasunaren erreibindikazioa esparru publikora atera ziren aukera egon zen bakoitzean (Intxausti, 2007, or. 1245–1247).

Ahalegin horren emaitza Espainiako II. Errepublikaren azkenetan etorri zen, Euskadiri autonomia onartu zitzaionean. 1936ko urritik 1937ko ekainera iraun zuen epealdi hartan, autonomia-estatutuaren bertutez, euskarak ofizialtasuna izan zuen, gaztelaniarekin batera. Hala, euskarak bere lekua egin zuen administrazio publikoan. Jaurlaritzaren berriaren aginpidea baliatuz, euskarazko lehen egunkaria ere sortu ahal izan zen, *Eguna*, Francoren bandoak Bilbo mendean hartu zuenean itxia, Hegoaldeko euskarazko agerkari guztiak bezala (Alkorta & Zuberogoitia, 2009, or. 40–41).

Hego Euskal Herrian, Frankismoak isilduta eduki zuen euskara komunikabideetan, eta egoera horretatik irteteko aukera bakarra Eliza Katolikoak eta ordena erlijiosoek eskaini zuten (Díaz Noci, 1998, or. 443–445). Prentsan, aipatzekoak dira *Zeruko Argia*, *Anaitasuna* eta *Jakin* aldizkariak —lehena, kaputxinoena, eta beste biak frantziskotarrena—, Trantsizioan funtsezko zeregina izan zutenak euskararen normalizazioan. Irratigintzan, ez dira ahaztu behar Segura Irratia eta Arrate Irratia parrokiak, ezta Eliza Katolikoaren herri-irratia ere —Donostia, Iruñea, Loiola eta Bilbokoak—. Iparraldean, euskararen aurkako debekurik gabe —ekimen pribaturako, behintzat— *Herria* aldizkaria zen euskarak XX. mendearen lehen erdi luzean komunikazio publikoan zuen leku bakarra, eta gero eta gehiago murriztuz joan zen frantsesezko komunikabideen indarragatik, frantses hutsez ari zen hezkuntza-sistemaren eraginagatik, eta Iparraldeko gizarte-sarearen ahuleziagatik (ibid., or. 443).

### 2.2.3.2. Euskal Autonomia Erkidegoa

Espainiako Konstituzioak euskararentzat jasotzen zuen ofizialtasunaren aukera 1979. urtean gauzatu zen Euskal Autonomia Erkidegoan, Gernikako estatutuaren bidez. Estatutuaren 6. artikuluan, euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasuna ezarrita, euskararen ezagutza eta erabilera Euskadiko herritar guztien eskubide gisa jasota dago, eta aginte publikoei egozten zaie ezagutza ziurtatzeko, erabilera bermatzeko eta ofizialtasuna erregulatzeko neurriak erabakitzea eta baliabideak ezartzea.

Erantzukizun horri helduta, Euskararen Normalizaziorako Legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak 1982an. Aurreko azpiatalean esan dugunez, EAEn, euskara sustatzeko jarrera hautatu du hizkuntza-politika ofizialak. Hala dago jasota Euskararen Normalizaziorako Legearen 26. artikuluan eta, jarrera horren ifrentzu gisa, EAEko herritarrek hizkuntza-arloan dituzten eskubideak arautzen dira 5. artikuluan:

- a) Hizkuntza ofizial biak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.
- b) Administrazio publikoetara euskaraz zein gaztelaniaz jotzeko eskubidea.
- c) Ikasketak hizkuntza ofizial bietan egiteko eskubidea.
- d) Komunikabideak euskaraz hartzeko eskubidea.
- e) Lan-arloko eta politikagintzako jarduerak euskaraz betetzeko eskubidea.
- f) Edozein bilkuratan euskaraz aritzeko eskubidea.

Legearen bigarren idazpuruko lehen kapituluan, administrazio publikoa arautu zen; bigarrenean, hezkuntza; hirugarrenean, komunikazio publikoa, eta laugarrenean, euskararen gizarte-erabilera. Lehenago esan bezala, EABk administrazioan, hezkuntzan eta hedabideetan ezarri zituen hizkuntza-politikaren lehentasunak.

Administrazio publikoari dagokionez, herritarrei euskaraz zein gaztelaniaz aritzeko eskubidea aitortzeak esan nahi du euskarazko dokumentuek eta izapideek balio osoa dutela, are Justizia administrazioaren aurrean ere. Ildo beretik, EAEn ezarrita dauden aginte publikoek euskaraz eta gaztelaniaz erredaktatu behar dituzte araudiak, xedapenak, jakinarazpenak, inprimakiak eta formularioak. Seinaleztapena ere, euskaraz eta gaztelaniaz egin behar da, eta, horrekin lotuta, toki-izenek forma ofizial bat izan behar dute. Hori guztia behar bezala bete dadin, Euskararen Normalizaziorako Legeak dio administrazioko pertsonala euskaldundu egin behar dela. Horretarako lehen urratsa

Funtzio Publikoaren Legea izan zen, 1989an. Bosgarren tituluan, legeak dio euskara eta gaztelania direla Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen hizkuntza ofizialak, bai barneko, bai kanpoko harremanetan, eta, hori bermatzeko, hizkuntza-eskakizunak ezarriko direla lanpostu publikoetan. Hizkuntza-eskakizunen garapenerako, hainbat dekretu onartu ziren hurrengo urteetan.

EABk hizkuntza-politikan ezarri zituen lehentasunetako bat komunikazio publikoa zen. EAEko gizarte-komunikabideak EiTb sortzeko legearen bitartez eratu zituen Eusko Legebiltzarrak 1982. urtean. Legeak, besteak beste, euskal hizkuntza eta euskal kultura sustatzeko betekizuna egotzi zien irrati eta telebista publikoei, bai eta —bion programazioak osatzeko orduan— EAEn euskarazko eskaintza orekatzeko ardura ere. Legea 1982ko maiatzekoa da, Euskara Normalizatzeko Legea baino urte erdi lehenagokoa eta, hortaz, Euskadi Irratiari eta Euskal Telebistari modu generikoan egokitu zien eginkizun bat euskararen normalizazioan. Eginkizun generiko horrek zer inplikatu duen, hurrengo kapituluetan aztertuko dugu. EABk ezarritako hirugarren lehentasuna ere, hezkuntza, aurrerago aztertuko dugu zehazki, jabeakuntza-plangintzaz dihardugunean.

### 2.2.3.3. Nafarroa

Nafarroan, alde batera utzi zuten estatutuaren bidea autogobernua lortzeko eta, horren ordean, Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria —eskubide historikoen aitortzea egiten zuena— baliatuz, foru-erregimena hobetzea eta eguneratzea hautatu zuten. Nafarroako Aldundiak parlamentuari aurkeztu zion zirriborroan, hizkuntzen arazoa aipatu ere ez zen egiten baina, horrek gizartean eta hainbat sektore politikotan eragin zuen erreakzioaren ondorioz, parlamentuak hainbat aldaketa egin, eta azkenean onartu zuen testuak hizkuntzen gaia jaso zuen, euskarari eta gaztelaniari ofizialtasuna aitortuz (Monreal, 2003, or. 10). Espainiako Gobernuarekin eta Parlamentuarekin egin ziren negoziazioetan, ordea, beste interes batzuk gailendu zitzaizkion Nafarroako parlamentuak onartutako testuari eta, Foru Hobekuntzako Legea indarrean sartu zenenean, 1982an, euskararen ofizialtasuna eremu batera murriztuta eta behin betiko zehaztu gabe geratu zen:



«9.artikulua

1. Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala.
2. Euskara ere hizkuntza ofiziala izanen da Nafarroako eremu euskaldunetan.

Foru lege batek eremu horiek zehaztu, euskararen erabilpen ofiziala arautu eta, Estatuko legeria orokorraren xedearen barruan, hizkuntza honen irakaskuntza ordenatuko du».

Nafarroako Hobekuntza nabarmen urundu zen hizkuntzaren gaien Gernikako estatututik eta beste autonomia-estatutu batzuetatik (Monreal, 2003, or. 11):

- a) Ez zuen euskara hizkuntza propiotzat jo.
- b) Euskararen ofizialtasunaren aitortpena eta kudeaketa geroago erredaktatu eta onartu beharreko lege baten pentzudan utzi zuen.
- c) Etorkizun zen ofizialtasun horri lurralde-murrizketak jarri zizkion.

Nafarroan euskararen erabilera ofiziala arautzeko eta eskualde euskaldunak zein ziren zehazteko legea —Euskararen Foru Legea— 1986. urtean onartu zuen Nafarroako parlamentuak. Legearen 2. artikulua dio Nafarroako berezko hizkuntzak gaztelania eta euskara direla, eta herritar guztiek dutela biak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Legean zehar, eskubide horren zehaztapena bi arlotan gauzatzen da, administrazio publikoan eta irakaskuntzan, kasuan-kasuan Nafarroan bereizirik dauden hiru hizkuntza-eremuak aintzat harturik.

Euskararen Foru Legeak, 5. artikuluan, hiru eremu bereizten ditu Nafarroan: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna. Eremu bakoitzeko herritarrei hizkuntza-eskubide ezberdinak aitortzen zaizkie foru-legeak arautzen dituen gaitan. Euskararen Foru Legeak hiru artikulutan arautzen du euskarak zer toki duen administrazio publikoan. Eremu euskalduneko herritarrek administrazio publikoetara euskaraz zein gaztelaniaz jotzeko eskubidea dute, eta administrazio publikoek herritarrek aukeraturiko hizkuntzan erantzun beharko diete. Eremu mistoko eta eremu ez-euskalduneko herritarrek badute administrazio publikoetara euskaraz jotzeko eskubidea, baina administrazio publikoak ez daude euskaraz erantzutera behartuta. Gainera, eremu ez-euskaldunean, euskaraz aurkezten duten dokumentazioaren

gaztelaniazko itzulpena eska diezaiekete herritarrei. Euskararen Foru Legeak aitorturiko eskubide horien erabilera bermatzeko lege-garapena handik hamar urtera egin zen.

Komunikazio publikoaren esparruan, bestalde, Euskararen Foru Legeak bi betebeharrak egozten dizkie administrazio publikoei, honela adierazita 27. artikuluan:

- «1. Administrazio Publikoek bultzatuko dute euskararen mailaz mailako presentzia komunikabide sozial publiko eta pribatuetan. Horretarako, eta komunikabideek euskara gero eta gehiago eta ohiko moduan erabil dezaten, Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko ditu.
2. Foru Komunitateak gestionatzen dituen telebista eta irrati emisora eta gainerako komunikabideetan, Nafarroako Gobernuak euskararen presentzia egokia begiratuko du».

Nafarroan ez da komunikabide publikorik antolatu, eta euskaraz diharduten irrati eta telebista gehien-gehienak proiektu lokalak dira. Gobernuak 27.1. puntuan aipaturiko diru-laguntzen bidea baino ez du erabili euskara hedabideetan sustatzeko, baina Nafarroako euskaldunek sentitzen dute euren erkidegoan euskararen normalizazioak porrot egin duela komunikazio publikoaren arloan (Bidador, 2003, or. 62–63). Hurrengo kapituluan ikusiko dugunez, ETBren harreraren bitartez gainditu nahi izan da porrot hori, ez zailtasunik gabe.

#### 2.2.3.4. Eragile ez-instituzionalak

Euskaingintzako eragileek funtsezko bultzada eman zioten euskarari ofizialtasunak irekitako hainbat esparrutan, hamarkada batzuk lehenagotik euskara biziberritzen egindako lanaren ildotik jarraituta. Euskararen normalizazioaren lehen aldia, euskal kulturaren sustapenak pisu handia izan zuen beraien helburuetan, eta horren emaitza garrantzitsutzat jo daitezke Durangoko Liburu eta Disko Azoka, bertso-eskolak, eta Euskal Kantagintza Berria. Normalizazioaren bigarren aldia, euskaingintzako eragileak ugaritzearekin batera, hizkuntzaren sustapenak erabateko pisua hartu zuen beraien ahaleginetan.

Arloz arloko laburbilpen batean (Garabide Elkartea, 2010, or. 44–56), nabarmena da euskalgintzaren hainbat ekimen funtsezkoak izan zirela euskararen ofizialtasuna kudeatzeko. Aipatzekoa da Itzultzaile Eskola, Donostian 1980an sortua, UPV/EHUK itzulpengintza-ikasketak eskaini arte euskararen estatus berriak hain beharrezko egin zituen itzultzaileak prestatu zituena. Aipatzekoak dira, era berean, euskara-elkartek, euskararen normalizazioa maila lokalean bultzatzeko helburuarekin sortuak. Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) izan zen lehena, 1983an, eta atzetik 90 baino gehiago etorri ziren. 1986an, AEDren eskutik, lan-munduan euskararen erabilera sustatzeko lehen ekimena abiarazi zen, harrezkero enpresetako euskara-planetan eta Elhuyar Aholkularitza gisako zerbitzuetan jarraipena izan duena.

Komunikazioaren esparruan, EiTBren salbuespenarekin, euskarak euskalgintzako eragileen eta —XX. mendearen erdialdean— Eliza Katolikoko instantzia euskaltzaleen ekimenari esker izan du sarbidea komunikabideetan. Euskara hutsezkoegi dagokienez, gogoan hartzeko dira *Argia* astekaria (1921), euskal prentsaren dekanoa, *Eguna* (1937), euskarazko lehen egunkaria, eta Nafarroako eta Iparraldeko irratik lokalak, administrazioak bere gain hartu ez duen eginkizun bat betetzeko ahalegina izan direnak: Xorroxin Irratia (1981), Euskalerrira Irratia (1984), Gure Irratia (1981), Xiberoko Botza (1982) eta Irulegiko Irratia (1982). Bai sortu zituzten denboragatik, bai sortu zituztenen ahaleginaren zentzuagatik, toki-irratiek euskararen normalizazioaren bigarren aldiari dagozkio. Orobat dagozkio herri-aldizkariak eta *Euskaldunon Egunkaria*.

Euskarazko lehen toki-aldizkaria *Arrasate Press* izan zen, 1988an sortua, herriko gaiei eta herriko protagonistei zabalkundea emateko asmoarekin. Lehena izate hutsagatik baino gehiago, *Arrasate Press* kudeaketa-ereduagatik izan zen bidegile, kazetaritza profesionalaren eta publizitate bidezko finantzazioaren alde egin baitzuen (Alkorta & Zuberogoitia, 2009, or. 140–142). Beraren arrakastaren ildotik, urte gutxiren buruan, 30 toki-aldizkari baino gehiago argitaratzen ziren euskaraz Euskal Herrian. Eguneroko prentsari dagokionez, 1980ko hamarkadaren azken urteetan proiektu bi landu ziren. Bata Eusko Jaurlaritzak bultzatzen zuen; bestea, irismen nazionala eman nahi zitzaiona, euskalgintzako hainbat eragilek, besteak beste, *Argiak* eta Euskal Kultur Erakundeak. Lehen proiektua bertan behera geratu zen, eta bigarrena 1990eko abenduan eraman zen burura, *Euskaldunon Egunkaria* argitaratzen hastearekin batera.

## 2.2.4. Euskararen jabekuntza-plangintza: hezkuntza-ereduak

Azpiatal honetan, euskararen normalizazioaren bigarren aldiko jabekuntza-plangintzaz arituko gara, alegia, hezkuntza-sistemaren bidezko euskararen transmisioaz eta helduen euskalduntzeaz. Lehenik, plangintzaren aurreko egoeraren deskribapena egingo dugu, Euskal Herri osoa aintzat hartuta (ikus 2.2.4.1.). Ondoren, sakonago begiratuko diegu Euskal Autonomia Erkidegoko 1980ko hamarkadako plangintzari (ikus 2.2.4.2.) eta Nafarroakoari (ikus 2.2.4.3.). Azkenik, Ipar Euskal Herrian eragile ez-instituzionalen lanari esker egin ziren urratsez jardungo dugu (ikus 2.2.4.4.).

### 2.2.4.1. Plangintza aurreko egoera

Hezkuntzatik, komunikabideetatik eta beste hainbat esparrutatik baztertuta, euskarak familia barruan iraun du mendeetan (Euskaltzaindia, 1979a, or. 75–76), baina horrek ez du esan nahi intimitatetik kanpoko esparruak guztiz arrotzak izan zaizkionik. Euskara hezkuntza-arlora ekartzeko lehen ahaleginak XIX. mendearen amaierakoak dira, baina behin betiko bideari 1950eko hamarkadaren amaieran ekin zitzaion, ikastolen sorrerarekin (G. Agirre, 2003, or. 19). Lehenagoko ekimenen aldean, ikastolek euskara kontserbatzeko funtzioa gainditu, eta euskara berreskuratzeko zeregina ere hartu zuten euren gain. 1977ko maiatzean, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Iparraldeko ikastolen ordezkariak batzarra egin zuten Gasteizen, eta Euskal Herriko Konfederazioa eratzea erabaki zuten. Une hartan Euskal Herrian 189 ikastola zeuden, eta 45.000 haur baino gehiago biltzen zituzten —eskola-umeen % 10 baino gutxiago (Euskaltzaindia, 1979a, or. 175)—.

Ikastolak sortu eta garatu ziren garai bertsuan, euskaldunak alfabetatzeko eta euskararik ez zekiten helduak euskalduntzeko ahaleginak apaltzat jo behar dira 1970eko hamarkadatik aurrera egin zirenekin alderatuta (Iztueta, 1992). Prozesu bietatik, euskalduntzeak izan zuen garrantzirik handiena, baina ez ziren gutxi alfabetatzera zuzendutako ekimenak, besteak beste, Eliza Katolikoaren pastoralarekin loturikoa, Derioko uda-ikastaroak eta Kili-Kili mugimendua. Ekimen horietatik lehena alfabetatze-batzordeak izan ziren, 1966an abiaraziak bereziki Rikardo Arregiren eskutik

eta Euskaltzaindiaren babespean. Apurka-apurka, helduen euskalduntzea bilakatu zen eginkizun nagusia mugimendu horretan, zatiketa ideologikoa gertatuaz batera. Zatiketaren ondorioz, talde batzuk Euskaltzaindiaren babes ofizialetik at geratu ziren eta, 1975ean, bat egin, eta Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea (AEK) sortu zuten. Handik urte bira, koordinakundeak Altsasun egin zuen batzarrean, proiektu nazionalaren izaera eman zion bere alfabetatze- eta euskalduntze-lanari. Beste talde batzuek euren bidetik jarraitu zuten. Hurrengo hamarkadan, goraldia gertatu zen helduen alfabetatze eta euskalduntzean, eta euskaltegiak Euskal Herri osoan ugaritu ziren. Gaur egun, euskaltegi pribatuak 100 baino gehiago dira, federazioetan elkartuta —AEK, IKA, Elkarlanean— zein elkartu gabe (HABE, 2012).

#### 2.2.4.2. Euskal Autonomia Erkidegoa

Euskararen Normalizaziorako Legeak dioenez, ikasleak euskara zein gaztelania erabil dezake irakaskuntzan, eta unibertsitateko mailara heldu arte derrigorrezkoa izango da hizkuntza ofizial biak ikastea. Legeak jasotako eskubide eta eginbehar horiek hainbat eredutan antolatu zituen Euskara EAEko Hezkuntzan Arautzeko Dekretuak 1983an. A ereduan, irakaskuntza-mintzaira gaztelania da, eta euskara beste ikasgai bat baino ez da. B ereduan, euskara eta gaztelania, biak dira ikasgai, eta biak erabiltzen dira irakaskuntzan; gaztelania, idazkuntzan eta matematikan, eta euskara, gainerako ikasgaietan. D ereduan, irakaskuntza-mintzaira euskara da, eta gaztelania beste ikasgai bat baino ez. Euskarazko irakaskuntzan jardun behar duten irakasleek EGA titulua edo baliokidea eduki behar dute, dekretuaren arabera. Helduen alfabetatzeari eta euskalduntzeari dagokienez, Euskararen Normalizaziorako Legean, eginkizunon ardura Eusko Jaurlaritzari egotzi zitzaion eta, ardura horri erantzuteko, berriazko organo bat sortzea aurreikusi zen —egun Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntze Erakundea (HABE) dena—.

Goi-hezkuntzan, euskararen aldeko urrats asko irakasleen militantziari eta ahaleginari esker egin ziren, eta, hein handi batean, ikasleen eskariak bultzatuta ere bai. Gotzon Garate (2006) idazlearen ekimenez, Deustuko Unibertsitateak Euskal Filologiako ikasketak jarri zituen abian 1976an. Urte berean, euskarazko lehen tesia defendatu zuen

Rikardo Arrue sendagileak Medikuntza Fakultatean. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) sortu baino ez, 1977 urtean, hainbat ikasgai euskaraz ematen hasi ziren fakultate batean baino gehiagotan eta, 1979/80 ikasturtean, Biologiako lehen maila osoa euskaraz eskaini zen Leioako Zientzia Fakultatean (Zenbait Egile, 2010). UPV/EHUren 1985eko estatutuetan, Euskararen Normalizaziorako Legearen ildotik, ikasleek aitortua dute ikasketak edozein hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea, eta unibertsitateko komunitatearen kideek, UPV/EHU barruan eta UPV/EHUekin, euren hautazko hizkuntza ofizialean komunikatzeko eskubidea. Bestalde, estatutuetan, euskararen erabilera normalizatzen laguntzeko agintzen zaio Unibertsitateari. Horrek guztiak asko bultzatu du euskalduntzea UPV/EHUen, baina are gehiago bultzatu dute lehen eta bigarren hezkuntza euskaraz egina duten ikasleek. 1995ean heldu zen unibertsitatara aurreko hezkuntza-prozesu osoa euskaraz egina zuen lehen belaunaldia (ibid.).

#### 2.2.4.3. Nafarroa

Hezkuntzaz denaz bezainbatean, Euskararen Foru Legeak dio eremu euskalduneko umeen eskolatzeari gurasoek aukeraturiko hizkuntza ofizialean egingo dela, eta unibertsitateaz azpiko mailetan derrigorrezkoa izango dela bai euskararen, bai gaztelaniaren irakaskuntza, halako moduz non oinarritzko hezkuntza amaitutakoan ikasleek gutxieneko gaitasun-maila izan beharko baitute hizkuntza bietan. Eremu mistoan, gurasoek eskatuz gero, umeak euskaraz eskolatu ahal izango dira, eta, era berean, gurasoek eskatuz gero, umei euskara irakatsiko zaie, halako moduz non oinarritzko hezkuntza amaitutakoan ikasleek euskararen gutxieneko ezagutza-maila izan beharko baitute. Eremu ez-euskaldunetan, agente publikoek eskaeraren arabera babestu eta finantzatzeko dute euskararen irakaskuntza.

Euskara Nafarroako Hezkuntzan Arautzeko Dekretuak, 1988an, hiru eredutan antolatu zuen euskara hezkuntzaren barruan. A ereduan, umeak gaztelaniaz eskolatzen dira, eta euskara ikasgai modura dute maila guztietan. D ereduan, umeak euskaraz eskolatzen dira, eta gaztelania ikasgai modura dute maila guztietan. B eredua erdibidekoa da; umeek ikasgai batzuk euskaraz egiten dituzte eta besteak gaztelaniaz; euskara eta gaztelania ikasgai modura dituzte maila guztietan. Dekretuaren arabera, eremu

euskaldunetik kanpo, bazegoen eskolan batere euskararik ez emateko aukera ere eta, eremu ez-euskaldunean, aukera bakarra euskara ikasgai modura hartzea zen.

Helduen alfabetatze- eta euskalduntze-arloan, zentro publikoak eta pribatuak bereizten dira Nafarroan. Gobernuak bi zentro publiko sortu zituen 1989an foru-dekretu baten bidez: irakasleak birziklatzeko ikastegia, eta Miluze helduentzako euskaltegia. Urte batzuk geroago, ikastegi bi horiek berrantolatu, eta euskara irakasteko baliabide-zentroa eta Zubiarte euskaltegia bihurtu ziren hurrenez hurren. Funtzionarioentzako euskaltegia deritzona 1991n sortu zen, Nafarroako Foru Erkidegoko administrazio publikoetan diharduten langileei euskarako prestakuntza eskaintzeko.

#### 2.2.4.4. Ipar Euskal Herria

Frantziako ordenamendu juridikoak oso modu uzkurrian egin die tokia irakaskuntzan frantsesari ez beste hizkuntzei, eta administrazioak pauso oso geldoak eman ditu bide horretan. Deixonne legeak, 1951n, berariaz baimendu zuen euskara, bretoaia, katalana eta okzitaniara irakastea, bai eta hizkuntza horietako bakoitzari datxekion kultura ere, eta hortik aurrerako irakaskuntza-legeek gauza bera jaso dute. Praktikan, 1975ean Haby legea onartu arte ez zen ezer gauzatu hezkuntza-sistema publikoan. Iparraldean, zentro pribatuetan egin zuen euskarak lehen urratsa, 1960ko hamarkadaren bigarren erdian; lehenengo, haur-eskola katolikoetan, handik gutxira, ikastoletan, eta 1983 arte ez zen zentro publikoetan sartu (Euskal Kultur Erakundea, 2004). 1986an, guraso eta irakasle batzuek Ikas-Bi elkarte sortu zuten, ikastetxe publikoetan irakaskuntza elebiduna (euskara-frantsesa) sustatzeko. Informazio- eta kontzientziazio-ekintzez gainera, elkarteak lan handia egin du ikasmaterialen eta baliabideen sorkuntzan (ibid.).

Helduen alfabetatze eta euskalduntzea, bestalde, 1970eko hamarkadan abiatu zen Ipar Euskal Herrian, Hegoaldean euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimendua piztearekin batera, eta orduan sorturiko talde gehienek AEKrekin egin zuten bat 1980ko hamarkadan (Bortairu, 2007, or. 83).

Unibertsitatearen atea 1951ko Deixonne legeak ireki zion euskararen eta euskal literaturaren irakaskuntzari, baina ez zen aukera baliatu. 1986an sinatu zuten

hitzarmenaren bertutez, Bordele-3 unibertsitateak eta Paueko eta Atturriko Unibertsitateak Euskal Ikasketen Departamentua ezarri zuten Baionan (Euskal Kultur Erakundea, 2004). Elkarlanean kudeatzen duten departamentu horretan, Euskal Ikasketen gradua egin daiteke, eta, ikasketekin jarraitu nahi izanez gero, gradu ondokoa egin daiteke Frantziako Gobernuaren CNRSk 1999an antolatu zuen IKER laborategian. Euskal Ikasketen Departamentuak, bestalde, euskarari dagokion bigarren hezkuntzarako gaitasun agiria (CAPES) prestatzeko ikastaroak ematen ditu, eta Bordele-3ko eta Paueko eta Atturriko Unibertsitateko ikasleei euskal ikasketekin loturiko ikasgaiak hautatzeko aukera eskaintzen die.

### **2.2.5. Estatus berrirako corpus-plangintza**

Euskararen corpus-plangintzak urrats handiak egin zituen 1970eko hamarkadan, baina corpus-premia berriak eta urgenteak sortu ziren 1980ko hamarkadan, ofizialtasunaren bertutez euskara irakaskuntzaren, administrazioaren eta hedabideen hizkuntza bihurtu zenean. Baliabide lexiko eta diskurtsibo berriak landu behar izan ziren erabilera-esparru horietan eta beste askotan aritzeko, eta eginkizunaren parterik handiena esparru bakoitzeko eragileek hartu zuten euren gain. Lau dimentsioko HPP ereduari (1.2.3.1. puntuan) ikusi dugun terminologia erabiliz, esango dugu euskararen normalizazioaren bigarren aldia lantze funtzionalera zuzendu zirela nagusiki corpus-plangintzako ahaleginak.

Euskararen kodifikazioa, hala eta guzti, ez zegoen erabat amaituta. Gramatikalizazioari dagokionez, euskara baturako funtsezko arau morfologikoak eta ortografikoak normalizazioaren aurreneko aldia eman ziren, eta falta zirenak —adizki alokutiboena eta hitz-forma batuen zerrenda— hirugarren aldia etorri ziren. Hemen aztergai dugun bigarren aldia, Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (EGLU) proiektua abiarazi zuen Euskaltzaindiak (1985), sintaxiari eta morfosintaxiari zuzendurik. XIX. eta XX. mendeetako euskal idazleen testuetan oinarrituta, helburua zen euskararen gramatika deskribatzaile bat prestatzea, baina euskararen gramatika arauemaile eta batu baten zain zeuden irakasle, idazle eta gainerako profesional euskaldunak gogoan edukita (ibid., or. XXVIII). Alegia, erabiltzaileen premia euskara estandarizatu eta moderno bat zela



konturatuta, akademiak euskara horren oinarria eta abiapuntua jarri nahi izan zuen EGLU proiektuaren bidez. Aztergai dugun euskararen normalizazioko bigarren aldi honetan, izenari eskainitako lehen liburukiaren ostean, beste hiru etorri ziren: EGLU II —aditza— (Euskaltzaindia, 1987), EGLU III —lokailuak— (Euskaltzaindia, 1990), eta EGLU IV —juntagailuak— (Euskaltzaindia, 1994a).

Euskararen kodifikazioa Euskaltzaindiaren eginkizuna zen, baina lantze funtzionala, berriz, gorago azpimarratu bezala, arloan arloko eragile eta erabiltzaileen ahaleginaren emaitza izan zen, batik bat nabarmendu nahi ditugun hiru esparruetan: administrazioan, hezkuntzan eta hedabideetan. Euskara administrazioko eginkizunetan txertatzeari dagokionez, tradizioz eza izan zen abiapuntua 1980ko hamarkadaren hasieran eta, horrekin batera, administrazioko langileen artean oso-oso gutxik izatea beharrezko hizkuntza-ezagutza euskaraz lan egiteko. Itzulpena izan zen, beraz, normalizatzeko ahaleginen oinarria (Berriozabal, 1992, or. 133). Berasategiren (1989, or. 36–37) iritziz, horrek erabat markatu zuen euskarazko hizkera juridiko-administratiboa, batetik, gaztelania izan zelako euskaraz sortuz joan ziren terminologiaren eta esapideen erreferentzia bakarra eta, bestetik, itzultzaile gehienek, hasierako unean, ez zutelako prestakuntzarik arlo juridiko-administratiboan.

Arlo juridiko-administratiboan ari ziren itzultzaile haien artean, Berasategik (1989, or. 38–39) bi joera, bi hizkuntza-ideologia aipatzen ditu. Lehena tradizio puristan koka zitekeen, eta bigarrena, euskararen normalizazioaren mugimenduan. Joera bi horien ondorioa izan zen hizkuntza-eredu bi agertu zirela administrazioko euskararen, bata, maileguak baztertu eta euskarazko testuari autonomia eman nahi ziona gaztelaniazko testuarekiko, eta bestea, maileguak arazo barik onartzen zituena, eta hizkera hiritarrera hurbiltzen ahalegintzen zena. Esperientzia metatuak eta lantzen joan ziren materialek eredu biak bakarrera ekartzen lagundu zuten. Materialgintzan, IVAP Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak garrantzi handiko lanak prestatu zituen, besteak beste, *Administraziorako Euskal Eskuliburua* (IVAP, 1986) eta *Euskal Herriko Herri Erakundeen Barne Errotulazioa* (IVAP, 1992). Beste erakunde batzuen lanak ere izan ziren: *Zuzenbide Hiztegia* (UZEI, 1985), *Agintaritza-Aldizkarietatikako Hitz-Bilduma* (Eusko Legebiltzarra, 1985a).

Irakaskuntzarekin loturiko corpus-plangintzari dagokionez, 1980tik aurrera, B eta D ereduak hedatu ahala, euskarazko ikasmaterialgintza bere bidea egiten joan zen, bai liburuetan, bai ikus-entzunezkoetan, bai softwarean (Zalbide, 2007, or. 1354). Administrazioan ez bezala, bide hori euskaratik bertatik egitea izan zen askoren nahia eta ahalegina eta, denborarekin, pauso garrantzitsuak eman ziren. Oro har, testuotan, ondo zaintzen zen hizkuntza-zuzentasuna, baina zailtasunak igartzen ziren. Zalbidek (1994, or. 177–178) testuen hizkuntza-kalitateari egotzi dizkio zailtasunak, besteak beste, esamolde traketsak, esaldi-egitura okerrak, eta pasarte lehor eta ilunak aurki daitezkeela argudiatuta. Kalitatearen kezkarri erantzuteko eta, horrekin batera, euskarazko ikasmaterialaren sorkuntza eta zabalkundea bultzatzeko, EAEko Hezkuntza Sailak EIMA programa abiarazi zuen (Zalbide, 2007, or. 1351).

Zalbidek aipatzen dituen zailtasun horien oinarrian, euskara tekniko-zientifikoaren garapen urria zegoen hein handi batean. Garapen horrek aurre egin beharreko arazo gehienak euskararen egoera soziolinguistikoaren ondorioa ziren (Zabala & Elordui, 2005, or. 24): zenbait hiztunek hizkuntza-gaitasun mugatua izatea, euskararen estilo zaindua egonkortze-prozesuan egotea, eredu modura erabil zitekeen testu egokirik ez edukitzea, eta jakintza-arloko hiztunen harreman-sareak geldoak izatea. Hala, oso zail zeukaten aditu euskaldunek euskararen baliabideen artean testuingururako egokiena aukeratzea euren ideiak hitzetan eta enuntziatuetan jartzeko. Baldin egoera ideala bada jakintza espezializatuarekin batera ikastea hizkera espezializatua, euskaraz, oraindino ere, belaunaldiak beharko dira horra heltzeko; behegoko mailan, berriz, testuinguru didaktikoan, euskarazko zientzia-hizkeraren garapena nabarmena izan da (ibid., or. 23).

Nolanahi ere den, normalizazio-bidean dagoen hizkuntza baterako, garrantzi handia dute behegoko espezializazio-mailako testuek, ikasliburuetan, entziklopedietan eta dibulgazioan aurki ditzakegun testuek (Zabala & Elordui, 2005, or. 29). Esan liteke euskalgintzak hala ulertu zuela, hizkuntza-baliabide ugari prestatu baitziren 1980ko hamarkadatik aurrera ikasliburu, entziklopedia eta dibulgazio-lanetara zuzenduta, besteak beste, hiztegi elebakarrak —definizioak (Uribarren et al., 1986), sinonimoak (Uribarren et al., 1988), laburtzapenak (UZEI, 1988), eta errimak (UZEI, 1994a)—, entziklopedia-gaien azterketa sistematikoak —munduko lekuak (Elhuyar, 1990), eta historiako pertsonak (Elhuyar, 1992)—, eta hizkuntzaren azterketak —maileguzko hitzak (UZEI, 1982), eta hitz-elkarketa (LEF Batzordea, 1986, 1990, 1992)—.

Hedabideetan ere, oso erabilgarri izan ziren baliabide horietako gehienak euskaraz ari ziren komunikatzaileentzat eta, horrez gainera, berariazko materialak gertatu ziren, asko lehen urteetako esperientziaren emaitza gisa. Hala dira *Euskara (erabileraz) 1* (Euskal Irrati Telebista, 1989a) eta *Euskara (erabileraz) 2* (Euskal Irrati Telebista, 1989b), Euskaltzaindiak EiTbko informatzaileentzat prestaturiko erabilera eredugarrien bildumak. Urte batzuk geroago, euskarazko hedabideen lehen estilo-liburuak etorri ziren, bai irrati-telebistan (Arrasate, 1992), bai prentsan (Euskaldunon Egunkaria, 1992). Aldi berean, erabilera-esparruak irabazi ahala euskarak aurkituriko zailtasunak gainditzen eta eginiko okerrak zuzentzen laguntzeko materialak ere argitaratu ziren, gehienetan kazetarien testuei begiratzen zietenak berariaz, besteak beste, *Erdarakadak* (Garate, 1988) eta *Idazkera-liburua* (P. Esnal & Zubimendi, 1993). Azpimarratzekoak dira, orobat, hedabideetan leku handia hartzen zuten gaiei buruzko hiztegi espezializatuak, hala nola, futbolekoa (UZEI, 1994c), pilotakoa (UZEI, 1994d) eta atletismokoa (UZEI, 1994b). Informaziorako euskara-ereduaren garapenari berriro helduko diogu, sakonago, hurrengo kapituluetan.

### **2.3. EUSKAREN NORMALIZAZIOAREN HIRUGARREN ALDIA**

Ricentok (2000) azaltzen duenez, 1980ko hamarkadaren erdialdean hirugarren aldi bat zabaldu zen HPParen historian. Migrazioek, Europar Batasunaren eta estatuz gaindiko beste erakunde batzuen eraketak eta, oroz gain, merkataritza- eta komunikazio-bide berriek eragindako globalizazioak ondoz ondo eta elkarren aurkako lehian jarri zituen toki-hizkuntzak eta nazioartekoak. Mundu globalizatuan, HPParen arretaren parte handi bat hizkuntza gutxituen galerara zuzendu zen, eta munduko hizkuntza-aniztasuna iraunarazteko kezkak hizkuntza-ekologiaren paradigma ekarri zuen XX. mendeko azken urteetan, bai eta botere-ideologiaren eta hizkuntza-politiken arteko harreman konplexuak hobeto ulertzeko ikerketak ere.

Euskararen normalizazioan, ordea, urrun zeuden mundu globalizatuagatikoko kezkak. 1980ko hamarkadaren erdialdean, lehen urratsetan baino ez zeuden ofizialtasunaren eskutik etorri ziren sustapen-plangintzak —Hegoaldean, beraz—, eta hamarkada bat geroagora arte ez zen atzeman euskararen normalizazioa aldi berri batean sartzea.

1990eko urteen erdialdean, EAEko Hizkuntza Politikarako idazkari nagusiak (M. K. Garmendia, 1994, or. 19) lau arrazoi eman zituen Eusko Legebiltzarraren aurrean normalizazio-aldi berri bat hastear zegoela azaltzeko. Lehenik, igartzen hasten zirela aurreko urteetako lanaren emaitzak. Bigarrenik, ordezkari politikoen artean oinarrizko akordioa zegoela hizkuntza-politikan. Hirugarrenik, euskararen sustapenera bilduta zeudela lehenago euskarari arrotz izandako hainbat pertsona eta eragile. Laugarrenik, gero eta aukera gehiago zegoela aginte publikoen eta herri-eragileen arteko elkarlanerako. Lehen arrazoiari dagokionez, azpimarratzekoa da 1991n lehen inkesta soziolinguistikoa egin zela Euskal Herri osoan, *Euskararen jarraipena* (Aizpurua, 1995) izenarekin argitaratu zena, eta bigarrena 1996an etorriko zela.

EAEko Hizkuntza Politikarako idazkari nagusiaren agerralditik hilabete batzuetara, Euskaltzaindiak XIII. Biltzarra egin zuen UPV/EHUren Leioako campusean, bere 75. urteurreneko ospakizunekin lotuta. Biltzarrean, bultzada berria eman nahi zitzaion estandarren kodifikazioari, eta hain izan zen erabakigarria euskara batuaren araugintzak bultzada horren ondorioz hurrengo urteetan hartu zuen dimentsioa, ezen 1994ko biltzar hura har baitezakegu euskararen normalizazioaren 3. aldiaren munarriztat. Horrek ez die garrantzirik kentzen orduko giroan aldi-aldaketa agerrarazten zuten gainerako zantzuei, baina agerian jartzen du aldi berrian ez zela pentsaera berririk edo ikuspegi berririk etorri euskararen normalizazioan. 1990eko azken urteetan, euskara sustatzeko plangintzetako diskurtsoa 1980ko lehen urteetakoaren antzekoa zen. EAEn, esaterako, normalizazio-plangintza publikoak 1998ko planera arte ez zituen aintzat hartu datu soziolinguistikoak, ez politiken eraginkortasuna ebaluatzeko, ez ekimenetan lehentasunak ezartzeko. Iparraldean, berriz, lehen aldiz normalizazio-plangintza publiko bat egiteko aukera sortuta, Hegoaldean 1980ko urteetan onartu eta implementatu ziren plangintzen moldeari jarraitu zitzaion, berezitasun juridikoak gorabehera.

Euskararen normalizazioaren hirugarren aldian, hartara, mundu globalizatua ez zen izan plangintzak markatu zituzten faktoreetako bat. Globalizazioaren inpaktuak eta hizkuntza-aniztasunaren kontserbazioak eragindako kezka hamarkada bat geroago egin zen argumentu euskararen normalizazioan, 2007an EAEko aginte publikoek Euskara 21 izeneko plangintza lantzeari ekin ziotenean. Ahots batzuek, Sagarnak (1997), besteak beste, lehenagotik ohartarazi zuten euskarak erronka berriei egin beharko ziela aurre

teknologia digitalaren aroan, baina esan daiteke 2007ko plangintza horretara arte euskararen normalizazioa ez zela Globalizazioari begira jarri. Beraz, une hori euskararen normalizazioko aldi berri baten hasieratzat hartuko dugu, eta horrek esan nahi du hor jarriko dugula 3. aldiaren amaiera.

Atal honetan, horrenbestez, lehenengo, mende-aldaketako hizkuntza-politikez jardungo dugu (ikus 2.3.1.). Ondoren, hizkuntza-plangintza izango da gure arretagunea: estatusa (ikus 2.3.2.), jabekuntza (ikus 2.3.3.) eta, azkenik, corpora (ikus 2.3.4.). Aurreko ataletan bezala, lurralde bakoitza bere aldetik aztertuko dugu. EAEn, azpimarragarriena 1998ko plana da, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN). Ipar Euskal Herrian, euskararen sustapenerako plangintza publikoa prestatzeko aukera lurralde-plangintzari lotuta sortu zen, ingurabide moduko bat aurkituta gai korapilatsu bitan: hizkuntzaren estatusa, eta herritarren hizkuntza-eskubideak. Nafarroan, azkenik, erakunde publikoek euskararen normalizazioan jarrera nabarmenki oztopatzailea edo —onenean— pasiboa hartzea izan daiteke aurreko aldiarekiko aldea.

### **2.3.1. Ziklo-aldaketa hizkuntza-politikan**

Gorago esan bezala, EAEko Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia euskararen normalizazioaren aldi berri batez mintzatu zen 1994an. Berez, hurrengo urteetan EAEko normalizazio-plangintza publikoa bideratu zuten lerroak aurreko aldiaren zehazturiko berak izan ziren, baina zilegi da hizkuntza-politikako ziklo berri batez hitz egitea, lerro haiei ildo bat erantsi zitzaielako: ebaluazioa. Izan ere, beharrezkotzat jotzen zen euskararen sustapenerako erabakien eta ekimenen baliozkotasuna aztertzea. Nafarroan ere, ildo politiko berriak urratu ziren, baina euskararen normalizazioaren aurkako diskurtsoak markaturiko testuinguru batean. Hala, ildo horiek euskara sustatzeko politikak ahultzeko norabidea hartu zuten.

Ipar Euskal Herrian, ziklo berri baten erakusle garbia izan zen lehen aldiz euskara sustatzeko plangintza publiko bat onartzea eta inplementatzea. Hegoaldeko plangintzekin alderatuta, oso ezberdina zen Iparraldekoari eusten zion legaltasuna. Izan ere, Frantzia herritarrei ez zaie hizkuntza-eskubiderik aitortzen eta, hortaz, euskararen

sustapena bestela planteatu behar izan zen; lurralde-plangintzari lotuta, hain zuzen ere. Hau da, hizkuntzari loturiko ekimenak formazioaren, kulturaren eta komunikazioaren sustapenari atxikita ulertu behar izan ziren, lurraldea sozialki eta ekonomikoki garatzeko plangintza baten barruan.

Azpiatal honetan, xeheago aztertuko ditugu ziklo berriko hizkuntza-politika horiek. EAEtik hasiko gara (ikus 2.3.1.1.); Nafarroaz arituko gara ondoren (ikus 2.3.1.2.), eta hirugarrena Ipar Euskal Herrikoa izango da (ikus 2.3.1.3.).

### 2.3.1.1. EAEko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

1990eko hamarkadarako, hainbat urrats eginak ziren euskararen normalizazioaren bidean EAEn, eta Jaurlearitzak erabaki zuen ordura arte eginikoaren baliozkotasuna neurtu beharra zegoela. Alde batetik, erroldako datuen azterketa eta lehen inkesta soziolinguistiko biak —1991koa eta 1996koa— abiarazi zituen. Beste alde batetik, ordu arteko urratsak ebaluatzeko eta, era berean, aurrera begirako plan estrategiko bat zirriboratzeko eginkizuna bere gain har zezan, Euskararen Aholku Batzordea eraberritu egin zuen. Plan estrategiko hari Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) deritzo, eta 1998an onartu zen, sei urterako. Hizkuntza-politikaren ikuspegitik, EBPNren aurrerapauso garrantzitsua ebaluazioaren ideia izan zen: euskararen aldeko politiken eraginkortasun-maila neurtzea (Euskararen Aholku Batzordea, 1998, or. 20).

Ordu arteko normalizazio-plangintza ebaluatzeko, EABk analisi kualitatibo bat egin zuen normalizazioak ukitzen dituen esparru bakoitzean ahuleziak, indarguneak, mehatxuak eta aukerak aztertuz. EBPNn, hiru ildo estrategiko edo ardatz nagusitan elkartuta daude esparruok (Euskararen Aholku Batzordea, 1998, or. 21): transmisioa, erabilera, eta elikadura. EBPNk aintzat hartzen dituen 16 esparruak honela daude banatuta hiru ildo estrategikoetan:

- a) Euskararen transmisioa: hezkuntza, helduen alfabetatze-euskalduntzea, familia bidezko jarraipena, eta corpora eta hizkuntza-kalitatea.
- b) Euskararen erabilera: arlo sozioekonomikoa, IKTak, administrazio publikoa, aisialdia, kirola, eta erlijioa.

- c) Euskararen elikadura: liburugintza, kultur ekoizpenak, irratia, telebista, prentsa, publizitatea.

Aurrera begira, planeko esparru bakoitzari atxikitako helburu zehatzen eta egitasmoen betetze-mailari neurtzeari zegokionez, EPBNk zioen batzorde bat sortu behar zela, ebaluazio-adierazleak finka zitzan eta horien jarraipena egin zezan (ibid., or. 69). Ez da inoiz sortu halako batzorderik EABren barruan.

Ebaluazio-beharrak harago, EBPNn jasota dagoen hizkuntza-politika EAEn ordura arte aurrera eramane zenaren berrespena da. Oso garbiro atzeman daiteke planaren helburu nagusiaren formulazioan (Euskararen Aholku Batzordea, 1998, or. 51): euskaraz bizi nahi duten herritarren eskubidea bermatzea, horretarako norbanakoen, gizarte-eragileen eta erakunde ofizialen ahaleginak batuz, azkenean euskararen iraupena ziurta dadin. Helburu nagusi hori lortzeko hizkuntza-politikak, Euskal Autonomia Erkidegoan, lau zutabe dituela esaten da EBPNn (Euskararen Aholku Batzordea, 1998, or. 24–25):

- a) Printzipio demokratikoa: herritarren gehiengoaren nahi eta beharrezanetara egokitu behar da aldian-aldian hizkuntza-plangintza.
- b) Egoerarik ahulenean dagoen hizkuntzaren aldeko akzio positiboa: herritarren oinarritzko eskubideak zanpatu gabe, egoera ezberdinetan dauden hizkuntzei politika ezberdinak ezarri behar zaizkie, bien arteko aldea orekatzeko.
- c) Hizkuntza propioaren aitorpena.
- d) Aginte publikoak eta gizarte-ekimena elkarren osagarri izatea: administrazio publikoari oinarri demokratikoa jartzea dagokie eta, hortik aurrera, norbanakoek eta gizarte-eragileek egin dezaketena sustatzea eta, behar izanez gero, osatzea.

Lau zutabe horiek EAeko hizkuntza-politikari 1980ko hamarkadatik eusten dioten zutabe berak dira.

### 2.3.1.2. Nafarroako hizkuntza-politikaren ahultzea

Nafarroan, 1986ko Euskararen Foru Legea garatzeko lehen urratsak —70/1994 eta 135/1994 foru-dekretuak— bertan behera geratu ziren, baina normalizazioaren aurkako diskurtsoa irazeki zuten erakundeak zuzentzen zituzten alderdietako ordezkarien artean eta haien inguruko hainbat gizarte-eragileren artean Nafarroako hizkuntza-politika

aldatzeko helburuarekin. Ordezkarri eta eragileok euskaldun ez zirenen iritzian eragiteko argudioak zabaltzen hasi ziren, hala nola, haien eskubideen zapalkuntza, diskriminazioa, muturreko nazionalisten independentismoa, eta euskararen erabilgarritasun urria (Erize, 2003). Diskurtso horren ondorio zuzena izan zen euskara sustatzeko politika ahulduz eta aintzat hartu gabe geratuz joan zela.

Hala, aplikatu gabe geratu ziren dekretu bi haiek ordezkatzeko araudiak —372/2000 dekretua eta horren akatsak zuzentzera etorri zen 29/2003 dekretua— euskara «*arrotz eta gaizki-etorria*» (Epaltza, 2017) bihurtu zuen Nafarroako instituzioetan. Hainbat herritarrek urraturik sentitu zituzten euren hizkuntza-eskubideak, eta Nafarroako arartekoari, 2001 eta 2009 artean 265 kexa helarazi zizkioten (Defensor del Pueblo de Navarra, 2010). Kexetan errepikatzen ziren bost gai nagusiek garbi erakusten dute Nafarroako erakunde publikoetan hizkuntza-politika ahulduz joan zela euskararen kaltetan. Hauek dira bost kexa-gaiok: herritarrekiko harreman idatzietan, euskaraz ez erantzutea; herritarrekiko ahozko harremanetan, euskarazko arretarik ez eskaintzea; inprimaki, liburuxkak eta dokumentuak gaztelania hutsean egotea; administrazio publikoan sartzeko probetan, euskara eskakizunetatik kanpo uztea edo merituetan gutxiestea; seinale eta errotuluetan, euskara kanpo uztea edo irakurtezin bihurtzea.

### 2.3.1.3. Ipar Euskal Herriko lurralde-plangintza eta hizkuntza-normalizazioa

1990eko hamarkadaren erdialdean, euskara normalizatzeko nahiak Ipar Euskal Herrian ere aktibatu zituen gizarte-eragileak. Estatu frantseseko legeak ez dio ofizialtasunik aitortu inoiz euskarari eta, horrez gainera, antolamendu juridikoak itxita dauka Hego Euskal Herrian hizkuntza-politikari eutsi dioten irizpideez baliatzea. Izan ere, hizkuntza-eskubideak, lurraldetasuna eta hizkuntza lokalen erabilera publikoa Frantziako Konstituzioaren aurkako hiru printzipio dira, Frantziako Kontseilu Konstituzionalak 1999an —Frantziak Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna sinatu zuenean— ebatzitakoaren arabera. Hortaz, euskararen sustapenak beste euskarri batzuk baliatu behar izan zituen baina, hala ere, plangintza publiko bat osatzen jakin zen.



Legarra eta Baxokek (2005) bi euskarri aipatzen dituzte: bata, lurralde-plangintza, eta bestea, komunikazio- eta adierazpen-askatasuna. Lehenarekin hasita, Frantziako estatuan, lurralde-plangintzako proiektuak lantzeari ekin zitzaion 1993an, eskualdeen garapen ekonomiko eta kulturalaren helburuarekin. Ipar Euskal Herriari zegokionez, euskara lurralde-kohesioa atxikitzen zuten elementuetako bat zela ulertu zuten eragile instituzionalek eskualderako prestatu zuten plangintzan, *Euskal Herriko Garapen Hitzarmenean* (Frantziako Estatuak, Akitaniako Eskualde Kontseilua, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia, & Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua, 1997) eta, hortaz, euskara sustatu beharra zegoela erabaki zuten. Bigarren euskarriari dagokionez, Frantziako Konstituzioan jasotako komunikazio- eta adierazpen-askatasunaren izenean, euskarak bere lekua izan dezake hezkuntzan, hedabideetan eta administrazioan.

*Euskal Herriko Garapen Hitzarmenean* euskararen sustapenaren aldeko jarrera erabakita, dokumentuaren bosgarren eranskinean zehaztu zen Ipar Euskal Herriko hizkuntza-politika. Lau lehentasun edo helburu finkatu ziren:

- 1) Euskara hezkuntza-sisteman txertatzea, bai ikasgai gisa, bai irakaskuntzako hizkuntza gisa.
- 2) Helduen alfabetatzeari eta euskalduntzeari bultzada ematea.
- 3) Seinaleztapenean euskara erabiltzea eta, horrekin lotuta, euskal toponimia sustatzea.
- 4) Euskarazko hedabideak babestea, bai elkarrean titulartasunekoak, bai publikoak.

### **2.3.2. Menpekotasun-egoera agerian euskararen estatus-plangintzan**

Normalizazioaren ikuspegitik, gertakari garrantzitsua izan zen 1978an Hego Euskal Herrian euskarak estatus koofiziala lortzea gaztelaniaren parean baina, zenbait hamarkada geroago, Iparraldean zein Hegoaldean, euskararen egiazko egoera erdararekiko menpekotasuna zen. Esparru juridiko-politikoan, Hegoaldeko koofizialtasuna mugatua zen, konstituzionalki derrigortasun bakarra gaztelania jakitea baitzen, eta Iparraldean, berriz euskara koofiziala ere ez zen (Martínez de Luna, 2001, or. 60). Gizarteko gainerako esparruetan, hala nola, lan-munduan, aisialdian, erlijioan, komunikabideetan eta kulturean, oso erakunde gutxi egin zuten euskaraz —edo

euskaraz ere— funtzionatzeko hautua, eta horren ondorioa zen gehienez ere euskara toleratua zela erakundeotan (ibid.).

Euskararen menpekotasun-egoera agerian geratu zen XX. mendeko azken urteetan prestatu ziren plangintzetan. Euskal Autonomia Erkidegoan, EBPNk egoera hartatik irteteko bide bat urratu nahi zuen (ikus 2.3.2.1.). Nafarroan, oster, erakunde publikoetatik etorri ziren ekimenak euskararen menpekotasuna areagotu egin zuten (ikus 2.3.2.2.). Ipar Euskal Herrian, inolako aitortpen ofizialik izan gabe ere, euskarari lehen aldiz eman zitzaion gizartean ikusgai egiteko aukera (ikus 2.3.2.3.). Euskalgintzari dagokionez, azkenik, menpekotasun-egoeraren ondorioei aurre egiteko lanean, taldeek elkarre gero eta antolatuago eta egituratuago bihurtzeko bidetik jo zuten (ikus 2.3.2.4.). Horren adibide garbia da komunikazioaren arloa.

### 2.3.2.1. Euskal Autonomia Erkidegoa

EBPNn ordura arteko normalizazio-plangintzaz eginiko ebaluazioan, bazen egitate bat, hizkuntza-politikako helburuak lortzeko oztopotzat jotzen zena. Hain zuzen, erakunde publikoek zein pribatuak erdaren aldeko arau sozialen pean jarraitzeko inertzia zutela (Euskararen Aholku Batzordea, 1998, or. 49). Beste hitz batzuekin esanda, euskararen koofizialtasuna bigarren mailan zegoela gaztelaniaren aldean gizarte-esparruetan. Horri aurre egiteko, EBPNk hiru ildo estrategiko finkatu zituen, euskararen iraupena ziurtatzeko helburu nagusiaren zehaztapena zirenak (ibid., or. 51-52):

- 1) Transmisioa: euskara belaunaldiz belaunaldi eta etenik gabe geroratzea lortu behar zen.
- 2) Erabilera: euskara tresna baliagarria izatea zaindu behar zen familian, eskolan eta bizi-ingurune hurbileko zerbitzuetan (osasuna, aisia, kirola).
- 3) Elikadura: euskararen ezagutza sendotzeko eta harreman-sare euskalduna zabaltzeko, kalitatezko produktuak eskaini beharra zegoen literaturan, prentsan, irratan eta telebistan.

Ildo horietako bakoitzean, EBPNk hainbat ekimen proposatu zituen hurrengo hamar urteetarako, jarduera-esparruen eta lehentasunen arabera antolatuta. Proposamenen bizkarrezurra transmisioa zen, eta gainerako ahaleginak euskara hiztunaren inguru

hurbilean atxikitzen zuzendu behar ziren. Estrategia hori bat zetorren Fishmanek (1991) hizkuntza-ordezkapena itzularazteko landutako ereduarekin, eta bat zetorren *Euskararen Politikarako Oinarrizko Irizpideak* (Euskararen Aholku Batzordea, 1993) txostenetik hautaturiko bidearekin.

Administrazioari dagokionez, 1989ko Funtzio Publikoaren Legeak eman zion bultzada garrantzitsua euskarari, lanpostu publikoetan hizkuntza-eskakizunak ezarriz. Ondorengo urteetan eskakizunen inplementazioari buruz ekoizitako legeria guztia Euskara Administrazioan Normalizatzeko Dekretuan jaso zen, 1997an. Hizkuntza-eskakizunak II. kapituluaren defintitu ziren eta, aurretik, I. kapituluaren, bost urteko plangintzaldia ezarri ziren administrazio publikoetan, euskararen normalizazioa aurrera eramateko. Dekretuak esparru hauek hartzen ditu:

- a) EAEko administrazio orokorra eta horren erakunde autonomoak.
- b) Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
- c) Lan Harremanen Kontseilua.
- d) Foru- eta udal-administrazioak, eta horien erakunde autonomoak.
- e) Lurralde historikoetako batzar nagusiak.
- f) Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako langileak.

Lehenengo plangintzaldia 1995eko uztailean amaitu zen, eta bigarrenak 1997tik 2002ra iraun zuen. Lehenean, ahaleginak langile publikoak alfabetatzera edo euskalduntzera zuzendu ziren, eta bigarrenean, berriz, administrazio publikoetan euskararen erabilera areagotzea (Azkue & Zeberio, 1996, or. 341). Bigarren plangintzaldian, helburu nagusia administrazio publikoetan euskararen erabilera erreala areagotzea izanda, hainbat azpiegitura sortzen joan ziren, besteak beste, administrazio-euskararako terminologia, eta behar bezalako hizkuntza-prestakuntza zuten langileak. Hirugarren plangintzaldia 2003tik 2007ra iraun zuen, eta lehentasuna herritarren arretan ipini zuen. Lehenengo aldiz, hizkuntza-plangintza egiteko metodologia bat proposatu zen, AEBEMET izenekoa, aurretik Euskadiko udalerrri txiki eta ertainetako euskara-planetan erabilia.

#### 2.3.2.2. Nafarroa

Euskararen Foru Legea onartu, eta hamarkada bat atzeratu zen Nafarroan herritarrei aitorturiko hizkuntza-eskubideen erabilera bermatzeko lege-garapena. Prozesuan,

behaztopak izan ziren, eta etekin murrizta atera zitzaion ordenamendu juridikoaren potentzialari (Rodríguez Ochoa, 2001, or. 591). Erakundeei eusten zieten alderdiek euskararen normalizazioaren aurka zerabilten politika inplizituak baldintzatutako giro hartan, Nafarroako administrazio publikoetan euskara arautzeko lehen urratsa 70/1994 Foru-dekretua izan zen. Dekretu moderatua zela eta Nafarroako legediaren murriztapen guztiak —eremu-banaketa eta ofizialtasun-maila ezberdinak— errespetatzen zituela zirudien, baina aplikatu barik geratu zen, gobernuko alderdian bertan Konstituzioaren aurkakotzat zeukatelako hainbat kidek. Haren ordeztuz, 135/1994 Foru-dekretua onartu zen, aurrekoaren ia funtsezko elementu guztiak gordeta, baina euskararen eskakizuna nabarmen jaitsita, batik bat eremu mistoari zegokionez. Ez zen ezertan gauzatu, 1996an gobernu-aldaketa gertatuta.

Gobernu berriak dekretu berria prestatu zuen —372/2000 Foru-dekretua—, eta auzibide luze bati ekin zitzaion. Auzitegiek baliogabetu egin zuten, prozedurazko akatsengatik. Prozedura zuzenduta, hainbat udalek eraman zuten auzitara testu berria, besteak beste, Nafarroako langile publikoen euskararen ezagutza baloratzeko moduagatik. Epaeilek balio gabe utzi zituzten testu berriko hainbat artikulua, eta Nafarroako Gobernuak 55/2009 Foru-dekretuaren bidez ekarri zuen baliogabeturikoa berriro ere ordenamendu juridikora. Laburki azalduta, 1994tik hona hartu diren neurrien ondorioa da Nafarroan seinaleztapena gaztelaniaz egin behar dela —eremu euskaldunean, euskaraz ere bai—, eta herritarrei zor zaien euskarazko arreta itzulpen-unitate batekin ematen dela konpondutzat.

Administrazioetik harago, Nafarroako Gobernuak ez du berriazko egitasmorik landu euskararen gizarte-erabilera normalizatzeko eta sustatzeko helburuarekin (Monreal, 2003, or. 15). Euskararen Foru Legearen inplementazioa foru-dekretuen bidez bakarrik eraman da aurrera, EBPNren antzekorik landu gabe, eta euskararen gizarte-erabilera normalizatzeko eta sustatzeko planak prestatzea, udalerrri bakoitzak hartu du bere gain. Haien arteko koordinazioa eta elkarlana bideratzeko, hainbat elkarte sortu dira, besteak beste, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea eta Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkarte.

Geroago, Euskarabidea sortu da 183/2007 Foru-dekretuaren bidez, Nafarroan euskararen normalizaziorako egitasmo eta plangintza guztiak beraren ardurapean har

ditzan, eta herritarrei euskara ezagutzeko eta erabiltzeko eskubideak berma diezazkien. Institutu berria Hezkuntza Departamentuari atxiki zaio, eta bere egin ditu lehendik euskararen alorrean ari ziren beste organismo eta zerbitzu publikoen eskumenak; besteak beste, 1988an sortutako Hizkuntza Politikarako Idazkaritzarenak. Urteetan, ez da erakunde operatiboa izan (M. Arregi, 2015).

### 2.3.2.3. Ipar Euskal Herria

Frantziako legeak ez dio estatus ofizialik onartzen euskarari baina, Ipar Euskal Herrian, lurralde-plangintzarako egitasmoetan, eskualdearen kohesiorako elementua izatea aitortzen zaio. Horrek eta komunikazio- eta adierazpen-askatasun konstituzionalak hezkuntzaren, administrazioaren eta hedabideen atea ireki diote euskarari.

Frantzian, berez, frantsesak ere ez du estatus ofizialik izan XX. mendeko azken urteetara arte baina, *de facto*, Frantses estatuak frantsesez funtzionatu du Luis XIII.aren erregealditik (XVII. mendea). Frantziako gainerako hizkuntzei zegokienez, jakintzat ematen zen legeak berariaz baimentzen ez zuena debekatuta zegoela (Schiffman, 2007, or. 120). Bas-Lauriol deritzon legeak, 1975ean, frantsesa ezarri zuen ondasunei edo zerbitzuei loturiko hizkuntza-agerpen guztietan (publizitatean, garantietan, fakturretan, jarraibideetan...). 1986an, Léotard legeak urrats bat aurrerago eraman zuen frantsesaren aldeko politika, eta frantsesaren nahitaezkotasuna ezarri zuen ikus-entzunezko erakundeen eta zerbitzuen emisioetan eta publizitate-mezuetan. 1992ko ekainaren 25ean, Frantziako Konstituzioa erreformatu, eta 2. artikulua hasieran esaldi hau erantsi zen: «*Errepublikaren hizkuntza frantsesa da*».

1994an Toubon legeak, urte bi lehenagoko konstituzio-erreforman oinarrituta, testu zabal batean jaso zituen frantsesaren aldeko xedapenak. Frantsesaren derrigortasunak esfera publikoaren esparru guztiak ukitzen zituen: ondasun eta zerbitzuen prestazioa, irrati eta telebista bidezko komunikazioa, lan-harremanak, argitalpenak, idazkunak, seinaleak eta abar. Euskararen eta beste toki-hizkuntzen estatusari dagokionez, Toubon legearen 21. artikulua dio testuan xedatutakoa aplikatzeak ez diela kalterik ekarri behar hizkuntza horien gaineko lege eta araudiei, eta legea ez doala hizkuntza horien

erabileraren aurka. Izan ere, herritarrei adierazpen-askatasuna aitortzen die Konstituzioak, nahi duten hizkuntza erabiltzea barne (Baxok, 2006, or. 933). Errepublikak, gainera, eskualde-hizkuntzak ondare nazionaltzat onartzen dituenek, badu mintzaira horiek zaintzeko eginbeharra. Hortaz, gizabanakoen hautua eta nahimena euskara —edo beste edozein toki-hizkuntza— erabiltzea delarik, estatuaren eginbidea da berori ikasteko eta erabiltzeko zerbitzu publikoak eskaintzea (ibid., or. 934).

Iparraldeko herritarrek, lurralde-plangintzaren markoan, *Euskal Herriko Garapen Hitzarmenean* (Frantziako Estatua et al., 1997) adierazi zuten euren hautu eta nahimena euskara sutatzea zela. Dokumentuan erabakitako hizkuntza-politika ekimen bihurtzeko bi egitura sortu ziren, Euskal Herriko Garapen Kontseilua eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua, eta plan zehatz bat prestatu zuten elkarlanean 2001-2006 epealdirako: *Euskal Herriko Hitzarmen Berezia* (Frantziako Estatua, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia, & Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua, 2000).

Euskal Herriko Hitzarmen Berezian hamar arlo adostu ziren. Hizkuntza-sustapenaren arloan, besteak beste, euskararen kontseilu bat eratzea jaso zen, erakunde horrek har zezan bere gain euskara babesteko eta sustatzeko ardura. Kontseilu hori 2004. urtean sortu zen, Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) izenarekin. EEPri eginkizun nagusi bi egotzi zitzaizkion. Batetik, euskararen aldeko hizkuntza-plangintza publikoa eta hitzartua zehaztea eta aurrera eramatea eta, bestetik, plangintza horri loturiko ekintzetan behar ziren finantza-baliabideak eskuratzea. EEP sei urterako antolatu zen, bazkide guztiak ados egonez gero epea luzatzeko aukerarekin.

#### 2.3.2.4. Eragile ez-instituzionalak

1970eko eta 1980ko hamarkadetan euskalgintzaren esparruan sortu ziren hainbat talde, hala nola, UZEI, Elhuyar eta UEU, apurka antolatuago eta profesionalago eginez joan ziren, eta 1990eko hamarkadarako beste edozein enpresak bezala eskaintzen zituzten euren zerbitzuak merkatuan, irabazi-asmorik gabeko erakundearen nortasun juridikoa hartuta. Euskararen normalizazioaren hirugarren aldian, antolakunde bihurtzeko bidea aukeratu zuten euskara gizarteratzeko ahaleginari heldu zioten taldeek ere. Taldeontzat, ofizialtasunaren onurak gorabehera, agerian zegoen euskarak lan-munduan, kirolean, komunikazioan eta beste edozein esparrutan gaztelaniarekiko / frantsesarekiko

menpekotasun-egoeran segitzen zuela. Errealitate horretan esku hartzeko, egitasmorik berritzaile eta garrantzitsuena Bilboko Zenbat Gara elkartearena da (Garabide Elkarte, 2010, or. 54–55), 1995ean Bilboko Kafe Antzokia ireki zuenetik euskara sustatzeko guztietako ekimenak eraman baititu aurrera, modu guztietakoak, esate baterako, Bilbo Hiria irratia, Gara argitaletxea, Algara konpartsa, eta Ondarroa, Durango, Elgeta eta Donostiako kafe-antzokiak.

Euskarazko komunikabideetan, antzeko bilakabidea gertatu zen, alegia, gero eta egitura sendoagoa eratzearekin batera, euren jarduera-esparrua zabaldu egin zuten. Hala, 1990eko urteen hasieran euskarazko tokiko prentsak izan zuen loraldiaren ondoren, mendearen aldaketarekin, herri-mailatik eskualde-mailara egin ziren urratsak (Tokikom, 2013, or. 12). *Arrasate Press* aitzindaria Debagoieneko beste toki-aldizkari batzuekin batu zen 2000an, eta hortik Goiena Komunikazio Taldea sortu zen, 1990ean abiatutako Arrasate Telebista ere biltzen zuena. Geroago, Goienak Internetarako jauzia ere egin zuen, *Goiena* eta *Sustatu* atariekin. Durangaldean, 2001ean, *Anboto* aldizkaria agertu zen, eta horrek ere webgunea ireki zuen. Nafarroan, 1981ean modu amateurrean sorturiko *Ttipi-Ttapa* aldizkariak Bortzirietatik Nafarroako ipar-ekialde osora zabaldu zuen bere eragin-eremua apurka eta, 1996an, webgune bat ireki zuen bere edukiak eskegitzeko. Euskarazko lehen hedabidea izan zen Interneten. 2006an, *Hamaika Telebista* antolatu zuten Euskal Herriko hainbat komunikazio-enpresak, euskara hutsez emititzeko Euskal Herri osoan LTDz zein kablez.

Sendotze- eta hedatze-prozesu horretan, atzerakadak ere izan ziren, hein batean euskararen menpekotasun-egoeraren ondorioz. Nafarroan, Ttipi-Ttapa telebistak bertan behera utzi zituen emanaldiak 2009an finantzatzeko zailtasunengatik eta, 2013 arte, foru-erkidegoan, euskarazko telebista-emanaldi bakarrak analogikoak izan ziren, Xaloa telebistarena eta ETBrena, Nafarroako Gobernuak ez baitzion LTDko lizentziarik eman euskarazko proiektu bati ere.

Oso atzerapauso latza, euskal gizartea asko asaldatu zuena, *Euskaldunon Egunkariaren* itxiera izan zen, 2003an gauzatu zena Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz. Oso denbora gutxian, 2003an bertan, herri-ekimenak beste proiektu bat abiarazi zuen, Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT). *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta hilabete gutxira, 2003ko ekainean, EKTk *Berria* egunkaria jarri zuen Euskal Herri osoko

kioskoetan. Urte berean, euskal herritarren eta eragileen artean eguneroko prentsa lokalaren beharra eta eskaria bazeudela eta (Alkorta & Zuberogoitia, 2009, or. 147), eskualde-gehiarriak argitaratzen hasi zen *Hitza* izenarekin, urte gutxiren buruan Euskal Herriko zortzi eskualdetan hedatzea lortu arte. *Berriak* webgunea ere izan du lehen unetik eta, horrenbestez, Interneteko bertsioa. Informazio-euskarri horiek guztiak ekoizteko eta ekoizpenari eusten dioten banaketa, publizitate-kontratazioa eta gainerako zerbitzuak emateko, EKT enpresa-talde gisa antolatuta dago, Euskal Herriko beste edozein normalizazio-eragile ez-instituzionalek baino harago eramanez hirugarren aldi honetako profesionalizazioa eta dibertsifikazioa.

### **2.3.3. Normalizazio-abiadura ezberdinak agerian jabetuntza-plangintzan**

Hamar urte ziren euskara hezkuntzan ezarrita zegoela —EAEn, bai, behintzat—, eta gero eta gehiago ziren euskara eskolan ikasitako pertsonak. Zalbideren (1994, or. 183) arabera, euskalduntze-sistema horrek ez zituen hiztunak hizkera formaletik haragoko hizkuntza-baliabideez hornitzen, eta horrek erabateko eragina zuen hiztunok erabiltzen zuten euskararen errepertorioan. Goikoetxearen (2003, or. 234–235) arabera, euskara familia barruan ikasitakoen artean ere, handia zen haurrek malgutasun, aberastasun eta zuzentasun urriko eredu bat bereganatzeko arriskua baldin eskolan ez bazen egiten etxeko euskaratik euskalki literariora eta hortik euskara batura doan bidea.

Euskararen normalizazioaren hirugarren aldian, hartara, jabetuntza-plangintzari dagokionez, kezka handietako bat hiztun-belaunaldi berrien hizkuntza-ezagutzaren kalitatea zen. Beste kezka handia zen jabetuntza-plangintzan lehenetsun ezberdinak zeudela erkidego batetik bestera eta, horren ondorioz, normalizazioa abiadura ezberdinean zihoala erkidego bakoitzean. Jarraian gainbegiratuko dugunez, EAEn, arreta handia ipini zen kalitatearen gaian hirugarren aldi honetan (ikus 2.3.3.1.). Nafarroan, hizkuntzaren kalitatearen kezka bazegoen arren, ardura handiagoa zen euskararen eta euskarazko irakaskuntza erkidego osora zabaltzea (ikus 2.3.3.2.). Iparraldean, 2006ko plangintzaren testuinguruan —zeinak helburu nagusitzat transmisioa baitzeukan—, eskola publikoan euskararen eta euskarazko irakaskuntza ezartzeko ahaleginean ari ziren (ikus 2.3.3.3.).



### 2.3.3.1. Euskal Autonomia Erkidegoa

EBPNk, ordura arte EAEn aurrera eramandako normalizazio-plangintzen arrakasta aitortuta, elkarloturiko hiru ildok zekartzaten arazoetan sakontzean oinarritu zuen hurrengo urteetarako egitasmoa. Hiru ildoak transmisioa, erabilera eta elikadura (sorkuntza eta kontsumoa) ziren, eta hiruren arteko lokarrietako bat, oso garrantzitsua, hiztunen euskararen kalitatea. Euskaldunak bizitzako edozein esparrutan eroso eta egoki moldatzeko moduko euskararen jabe egin ezean, ondorioak euskararen transmisioaren, erabileraren eta elikaduraren kalterako izango ziren.

EBPNk (Euskararen Aholku Batzordea, 1998, or. 41) kausa biri egotzi zien euskararen kalitatearen galera. Bata eskola bidezko euskalduntzea zen. Euskara hezkuntza-sisteman sartzeak igoera handia eragin zuen euskaldunen kopuruan, baina eskolak ez zien eguneroko bizitzarako hizkuntza-baliabiderik eskaintzen horrela euskalduntutako haurrei eta, horrez gainera, gutxi egiten zuen tokian tokiko euskalkia eta ahozko eredia zaintzeko eta zabaltzeko. Beste kausa euskararen lantze funtzionalerako plangintzarik eza zen. Arlo batzuetan, lan handia eginda zegoen terminologia osatzeko, baina ez zegoen lehentasunik finkatuta, eta emaitzak ez zeuden behar bezala gizarteratuta. Aldi berean, oso arreta gutxi jartzen zen beste alor batzuetan; nabarmenki, hizkera kolokialean, eta horrek gazteen euskararen gaztelania erruz sartzea eragiten zuen.

Horren aurrean, besteak beste, jarduera hauek proposatu zituen EBPNk elikaduraren ildoari loturik (Euskararen Aholku Batzordea, 1998, or. 61):

- a) Irakasleak prestatzea euskara batuaren eta tokiko euskalkiaren artean zubiak egiteko gai izan zitezen.
- b) Terminologia-lanaren plangintza egitea.
- c) Hizkuntza-paisaia euskara presentego egitea, eta euskara horren zuzentasuna eta egokitasuna zaintzea.
- d) Hobekuntza-ikastaroak antolatzea komunikabideetako esatari eta kazetarientzat eta euskaltegi-tako irakasleentzat.

Egiantan, elikaduraren ildo osoari ematen zitzaion zentzua zen euskaraz eroso eta erraz hitz egiten trebatzea hiztuna (ibid.). Hala, telebistaz diharduenean, EBPNk euskaldun berriari euskararen ezagutza sendotzen laguntzeko eginkizuna aipatzen du eta, orobat,

euskarazko produktuen ekoizpenaz eta kontsumoaz diharduenean. Telebista —irratia eta prentsa bezala— ez du ikusten herritarra informatzeko, hezteko eta mundura ateratzeko bitarteko gisa, baizik eta euskara hiztunaren inguru hurbilean, alegia, aisialdiko jardueretan atxikitzeko tresna gisa:

#### «VI.3.3.e. Telebista

Aisialdian euskararen erabilera ziurtatzea nahi badugu ezinbestekoa da telebista orokorra egitea: familia osoarentzako programak, irekiak, denontzako modukoak, jende guztiarengana heltzeko modukoak eta arrakastatsuak». (Euskararen Aholku Batzordea, 1998, or. 62)

Euskarazko telebistaren lehentasunezko xede-audientzia gisa, umeak, gazteak eta euskalduntze-alfabetatzeko ikasleak aipatzen ditu EBPNk (Euskararen Aholku Batzordea, 1998, or. 63) eta, programazioa osatzeko, besteak beste, kultur saioak, hizkuntza-ikastaroak, literatur tertuliak eta euskal musika eskatzen dizkio (ibid., or. 62).

#### 2.3.3.2. Nafarroa

Nafarroako Gobernuak ia lehen momentutik hizkuntza-normalizazioan hartu zuen jokabidea oso eragin sakonekoa izan zen hezkuntzaren alorrean. Urteetan, seme-alabek eskola publikoan euskara eta euskaraz ikastea nahi zuten gurasoentzat, zailtasun ia gaindiezinak izan ziren Euskararen Foru Legea eta gobernuari eusten zioten alderdien jarrera immobilista, batik bat eremu mistoan eta erdaldunean (Colomo, 2011). Horren aurrean, hainbat ekimen hasi zituzten guraso haiek 2008. urtean, beraien nahia babes zezakeen lege-aldaketa sustatzera zuzenduta.

Goi hezkuntzari dagokionez, Euskararen Foru Legeak ez zuen aipatu ere egiten baina, 19. artikuluan, atea irekita uzten zion euskarari, bai baitzioen «*herritar guztiek dute hezkuntza mailetan irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz izateko eskubidea*». Hala ere, Legarrak eta Baxokek (2005, or. 28) diote foru-gobernuaren ekimenak euskarari unibertsitatean bigarren mailako lekua uztera zuzendu zirela. Unibertsitate pribatuan, ez zegoen euskarazko eskaintzarik. Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP), egonda ere, euskarazko kredituen eskaintza gaztelaniazkoaren % 5 baino ez zen 1999-2000

ikasturtean (Aldasoro, 2003, or. 50). NUPren estatutuetan (2003), erakundearen barruan euskaraz zein gaztelaniaz komunikatzeko eta ikasteko eskubidea aitortu zitzaien unibertsitateko komunitatearen kideei. Ikasteko eskubide horren zehaztasunak NUPren euskara-planak (2007) jaso zituen, zeinak oso anbizio apala agertu baitzuen euskarazko eskaintzarako asmoetan.

### 2.3.3.3. Ipar Euskal Herria

Normalizazio-plangintza publikoak lehen ekimenak abiarazi zituen arte, ia berrogei urtez, behetik gorako eragintza izan zen Iparraldean euskarak eskolarako bidea urratzeko modu bakarra. Lehen ekimen haiek *Hizkuntza Politikako Proiektuan* (Euskararen Erakunde Publikoa, 2006) adostu ziren eta, ordurako, 2000ko hamarkada bigarren erdian zegoen. Proposatu dugun denbora-antolamenduaren arabera, euskararen normalizazioko laugarren aldia hastear zen, baina Iparraldeko plangintza publikoa 3. aldiari ainguratuta zegoela esan daiteke. Batetik, Hizkuntza Politikako Proiektua kate baten hirugarren begia zen, aurretik *Euskal Herriko Garapen Hitzarmenak* (Frantziako Estatua et al., 1997) eta *Euskal Herriko Hitzarmen Bereziak* (Frantziako Estatua et al., 2000) osaturiko ildoari eransten zitzaiona. Bestetik, ez zuen ageri mundu globalizatuak euskararen normalizazioan izan zezakeen eraginari buruzko kezka, zeina laugarren aldiaren bereizgarritzat jo baitugu.

Esan bezala, hortaz, Hizkuntza Politikako Proiektua izan zen EEPk 2006-2011 epealdirako prestatu zuen normalizazio-plangintza, Euskal Herriko Hitzarmen Berezian jasotakoa betetzera zetorrena. Plangintza hartan, transmisioa zen aintzat hartu ziren hiru esparruetako bat. Zehatzago esanda, hiztun osoen kopurua handitzeko helburu nagusiarekin, hiru esparru landu beharra zehaztu zen: 1) euskararen transmisioa, 2) euskararen gizarte-erabilera, eta 3) euskararen bizkortzea. Euskadiko 1998ko EBPNk bezala, Iparraldeko plangintzak ere Fishmanen (1991) ereduari jarraitu zion eta, hala, beste esparru biak transmisioaren euskarri eta osagarri modura planteatu ziren.

Erabilpenaren esparruan, hiztunek euren hizkuntza-gaitasuna indarrean jar zezaten lortu nahi zen, erabiltzaile aktibo bilaka zitezten, eta horretarako beharrezkoa zen euskarak

bere tokia egitea gizarte-bizitzan, besteak beste, aisialdian, argitalpenetan eta hedabideetan —euskara erabiltzeko espazioa izateaz gainera, euskara ikasteko eta hobetzeko tresna ere izan behar zutenak— (Euskararen Erakunde Publikoa, 2006, or. 42). Bizkortzearen esparruan, euskara transmititzeko gogoia eta posibilitatea sustatzea zen helburua, besteak beste, hizkuntzaren kalitatea zainduz, motibazioa emendatuz eta ikasleen gurasoak euskaldunduz (ibid., or. 70-73). Iparraldeko erakunde ofizialen aldetik, helduen alfabetatze eta euskalduntzearen lehen aitorpena hainbat udalek AEKri emaniko diru-laguntzak izan ziren. *Euskal Herriko Hitzarmen Berezian*, eskola-umeen gurasoen eta helduen euskalduntzea zehaztu zen administrazio publikoek finantzatu beharreko ekimenen artean, eta hala jaso zen 2006-2011ko plangintzan.

#### **2.3.4. Kodifikazioaren hirugarren ekinaldia, eta kezka berriak**

Lehen kapituluan (1.2.3.1. puntuan) ikusi dugun lau dimentsioko HPP eredia gogoan hartuta, euskararen normalizazioaren lehen aldia kodifikazioaren aldia izan zela esan dezakegu nolabait, eta bigarren aldia, inplementazioarena. Hirugarren aldi honetan, Leioako batzarrean, beste bultzada bat eman zitzaion kodifikazioari, gramatikalizazioan eta grafizazioan batez ere. Neurri batean, euskara estandarraren inplementazioaren lehen urratsek izan zuten arrakastaren ondorioa izan zen bultzada horren beharrezana.

Normalizazio-plangintzak, urte gutxiko tartean, 1970eko urteetan imajina ezin zitekeen tamaina eman zion euskarari. EAEn, hezkuntza-sistemari esker, 5 eta 14 urte bitarteko haurren artean, elebidunen kopurua % 40ra iritsi zen 1991an, 1981ean baino bi aldiz gehiago (M. K. Garmendia, 1994, or. 9). 1986tik, euskarazko programazio etengabea zegoen irradian eguneko 24 orduetan (Euskal Irrati Telebista, 1997, or. 55), eta 1997tik, telebistan ere bai (EiTB, 1998, or. 12). 1970ean, 71 liburu argitaratu ziren euskaraz — 22 ikasliburuak ziren—; 1980 urtean, 209 liburu —116, ikasliburuak—, eta 1990ean, 828 liburu —305, ikasliburuak— (Zalbide, 2007, or. 1355). Testu administratiboetan ere, euskarak orrialde asko betetzen zituen urtero; Euskadiko aldizkari ofizialean bakarrik, 6.500 inguru (Berasategi, 1989, or. 32).

Esparru horietan sortuz zihozten hizkuntza-premiei erantzuteko, normalizazioaren bigarren aldia, aurrerapen handia egin zen euskararen lantze funtzionalean ere. Halaz

guztiz, halako hedapen eta produkzioak eredu estandarraren kodifikazio-maila altuagoa eskatzen zuen, zeren 1970eko hamarkadako bi ekinaldiak ia-ia gramatikalizaziora mugatu ziren eta, hor ere, alderdi batzuk normatibizatu barik utzita. Horren ondorioz, euskara-eredu finkatuagoa eskatzen zuten arlo profesionaletatik —hedabideetatik eta testugintzatik—, estilo-liburuak eta antzeko materialak landu ziren 1990eko lehen urteetan, gorago esan dugunez (2.2.5. azpiatalean).

Euskaltzaindiak *Euskera* aldizkarian bertan atzeman zuen euskarazko testugintzak kodifikazioan aurrera segitzea eskatzen zuela, eta arau berriak emateko unea zela erabaki zuen (Zuazo, 2005, or. 183). 1991n, Arantzazuko biltzarraren 25. urteurrena begi bistan, Euskara Batuko Batzordea eratu, eta aholku eta gomendioak lantzeko eginkizuna egotzi zitzaion, hizkuntza-erabiltzaileek ezagutu eta eztabaidatu ondoren arau bihurtzeko asmoarekin. Hala urratzen hasitako bidea Leioako biltzarrerantz zuzendu zen. Azpiatal honetan, Euskaltzaindiaren biltzar hura izango da gure lehen arretagunea (ikus 2.3.4.1.).

Bestalde, hiztunak eta erabilera-esparruak irabazteak hizkuntza-kalitatearen kezka ere ekarri zuen, jabekuntza-plangintzaz aritu garenean azpimarratu dugunez. Horixe izango da gure bigarren arretagunea (ikus 2.3.4.2.). Jarraian, euskara batuak eragin zuen erreakzioaz arituko gara. Izan ere, hizkuntza-kalitatearen kezkaz gainera, hiztunak eta erabilera-esparruak irabaztearen ondorioz, euskara estandarra esparru zainduetatik harago zabaldu zen —batuaren hasierako planteamenduak gorabehera—. Horren aurrez aurre, bernakularizazio-joerak azaldu ziren, batik bat hedabideetan (ikus 2.3.4.3.).

#### 2.3.4.1. Leioako biltzarra eta hurrengo urteetako araugintza

Euskaltzaindiak 1994ko urrian ipini zuen bere XIII. biltzarra, Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako campusean, Arantzazuko Biltzarraren 25. urteurreneko ospakizunen azken ekitaldi gisa, euskara batuaren ibilbidean mugarri garrantzitsua izango zela jakitun (Haritschelhar, 1994). Akademia ohartuta zegoen aurrera egin behar zuela Arantzazuko eta Bergarako biltzarretan abiarazitako kodifikazioan, eta aurreikusten ziren pausoak ez ziren txikiak. Villasantek (1994) ideia nagusi biren bitartez zehaztu zuen pauso horiek hartu behar zuten norabidea. Lehen ideia zen antzina euskara osoarena zena eta artean parte handi batean bizirik zegoena hartu behar zela

euskara batuaren oinarriko, esate baterako, instrumentala eta mugagabea/mugatua bereizketa. Zatiketa dialektalaren aurretik euskara osoarena zer zen neurtzeko, euskal literatura zaharra zen erreferentzia eta, hortaz, nahitaezkoa zen ikerketa egitea euskara baturako arauak onartzerakoan. Bigarren ideia zen euskara idatzia nazioarteko prosaren mailara jaso behar zela, bai sintaxi aldetik, bai lexiko aldetik .

Ematen ziren pausoak ematen zirela, euskararen batasunean aurrera egiteko bost mugarri hauen barruan ibili behar zela pentsatzen zen (Salaburu, 1994, or. 680): lehenik, edozein hiztunek ulertzeko moduko arauak eman behar ziren; bigarrenik, arauok tradizio idatzian eta ahozkoan oinarrituta egon behar zuten; hirugarrenik, eredu batuak bokazio nazionala izan behar zuen, alegia, euskararen eskualde guztietarako balio behar zuen; laugarrenik, Euskaltzaindiari arauak erabakitzeko eta eredia zehazteko zilegitasuna aitortu behar zitzaion eta, azkenik, batasuna hizkera zaindurako baino ez zen planteatuko, batik bat, irakaskuntzarako, administrazioarako eta hedabideetarako.

Gramatika-gai zehatzei dagokienez, arau-premiak lau arlo nagusitan igartzen ziren Leioako biltzarrari begira (Salaburu, 1994, or. 687–693):

- 1) Hiztegi batu bat behar zen, hots, hiztegi ortografiko batu bat, euskal ondareko hitzen zein maileguzko hitzen forma finkatuko zuena.
- 2) Euskaltzaindiak aurreko urteetan zunda gisa zabalduko gomendioak, hala nola, 'bat' eta 'batzuk' zenbatzaileen deklinabidea, eta hitz elkartuen osaera eta idazkera, arau bihurtu behar ziren.
- 3) Exonomastika finkatu beharra zegoen, eta esparru guztiak ziren urgenteak: pertsona-izenak, leku-izenak, artelanen izenburuak, gertakari historikoen deiturak, objektuen izenak, eta beste.
- 4) Hizkuntza mintzatuan ere, batasuna egin beharra zegoen, hau da, ahoskera batu zehaztu behar zen.

Biltzarrean, akademiako, unibertsitateko, hedabideetako eta euskalgintzako 61 adituk hartu zuten parte, eta haien hitzaldiak eta txostenak zazpi bloke tematikotan bereizi ziren (Euskaltzaindia, 1994c): 1) Euskaltzaindiaren gomendio-erabakiak, 2) gramatikari buruzko proposamenak, 3) hitanoa, 4) hiztegi gintza, 5) euskal metrika, 6) exonomastika, eta 7) ahoskera.

Biltzarraren amaierako adierazpenean, Euskaltzaindiak (1994b) hitzeman zuen hurrengo hilabeteetan hasiko zela erabakiak hartzen Leioan aztertutik gaiei buruz, bereziki gramatikari eta exonomastikari buruz, eta ahaleginak egingo zituela ahalik eta lasterren argitaratzeko hiztegi batuari eta ahoskerari zegozkienak. Eginkizuna antolatzeke eta koordinatzeko ardura Euskara Batuko Batzordeari egotzi zitzaion, eta lehen 29 arauak handik hile gutxitara argitaratu ziren, gehienak lehenagoko gomendioetan oinarrituta, karpeta batean bildurik jendeari eskura jartzeko (Salaburu, 1995). Geroago, Euskaltzaindiak berariazko gune bat<sup>6</sup> egokitu die arauari bere atarian. Hedabideetako hizkuntza-erabileraren ikuspegitik, hauek dira urteokaz argitaratu diren baliagarrienak: adizki alokutiboak (14. araua, 1994), hitz elkartuen osaera eta idazkera (25. araua, 1995), neurri-adnominalak (34. araua, 1995), orduak nola esan (35. araua, 1995), munduko estatuak, hiriburuak, herritarrak eta hizkuntzak (38. araua, 1995), munduko mendiak, ibaiak eta itsasoak (52. araua, 1995), munduko uharteak (70. araua, 1997), ahoskera batu zaindua (87. araua, 1998), *Hiztegi Batua* (2000), eta onomastikaren arloko gainerakoak.

Ekoizpen oparo horretan, ezinbestez, eginkizunei ezin izan zitzaien denei batera heldu, eta hutsuneak gertatu ziren. Bi arlotan igarri ziren gehien: ahoskeran eta lexikoan. Ahoskerari dagokionez, 87. arau hura —*Euskara Batua*ren ahoskera zaindua (EBAZ) (Euskaltzaindia, 1998)— oso oinarritzko araua izan zen, fonemak eta erregela morfofonologiko batzuk besterik jaso ez zuena. Edozelan ere, eta izenean maila jakin bati dagokiola aldarrikatu arren, EBAZ arauak hori baino irismen zabalagoa dauka, puntu gehienetan zaindutik beherako hizkuntza-mailei dagozkien ebakerak ere agertzen baititu, bai eta maila bakoitzean euskalkiaren arabera izan litezkeen alternatibak ere. Eredua, oro har, nahiko bat dator EITBren ordura arteko praktikarekin, bestela ezin zenez, EITBk parte-hartze zuzena izan baitzuen hainbeste urtez araua lantzeko prozesua aurrera eramanean zuten Ahoskera Lantaldean (Oñederra, 1998, or. 379). EBAZen osagarri gisa, kanpoko leku-izenak euskaraz ahoskatzeko irizpideak gomendio batean bildu ditu Euskaltzaindiak (2009). Ahoskerako araugintzan, beraz, hutsunea prosodia da, alegia, azentuak, etenak eta doinuera.

---

6 <http://www.euskaltzaindia.eus/arauak>

Lexikoari dagokionez, Euskaltzaindia Leioaz geroztik apailatzen hasitako hiztegiaren lehen bertsio osoa, *Hiztegi Batua* (Euskaltzaindia, 2000), biltzarretik hainbat urtetara argitaratu zen eta, hala eta guztiz ere, grafizazio-fasean geratu zen: «*Argi dago Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua lehen idatzaldi honetan, ortografia hiztegia dela batez ere, hau da, hitzen forma egokiaz ari dena*» (ibid., or. 483). Euskara estandarren kodifikazioan, baina, grafizazioaren lehen urratsak Arantzazuko biltzarrean egin ziren, kapitulu honetako lehen atalean esan dugunez. Denboran hainbeste luzatu den lana izanda, ez da harrigarri egiten *Hiztegi Batuan* lexikalizazio-faseari dagozkion elementuak aurkitzea, esate baterako, euskalkiak, hizkuntza-mailak eta jakintza-alorrak adierazteko ikurrak. Edozein modutara ere, lexikalizazioari ez zaio heldu bete-betean *Euskaltzaindiaren Hiztegia* prestatu den arte, zeina baita «*Hiztegi Batuaren osatze bat, hura definizioz eta erabilera-adibidez hornitze bat*» (Euskaltzaindia, 2012, or. VIII). Aurrerago jardungo dugu fase horretaz (2.4.6. azpiatalean).

Lexikalizazioarekin intrintsekoki loturik dagoen prozesu bat lantze funtzionala da. Kapitulu honetako bigarren atalean, administrazioko, hedabideetako eta esparru akademikoko eragileei aitortu diegu euskararen lantze funtzionala abiaraztea euskarak Hego Euskal Herrian estatus ofiziala lortu berritan eta, ondoren, urrats handiak egitea terminologiaren zein diskurtso-baliabideen sorkuntzan, baita erreferentzia-materialen prestaketan ere. Lantze funtzionalak hein batean euskara batuaren hiztegiari aurrea hartzea *handicap* bat izan da, sasoi batean erabiltzaileek arduratu behar izan zutelako hainbat hitzen forma finkatzeaz, semantika zehazteaz edo erregimena argitzeaz. Lan horren aurrean Euskaltzaindiak zer jarrera hartuko zuen, kezka zen eragile haientzat, orduko testuetan jaso bezala —ikus J. R. Etxebarria (1992, or. 109–110)—. Lehen une hura igarota, Leioako biltzarren ostean batik bat, hizkuntza-erakundeak ere inplikatu ziren komunikazio espezializaturako hizkuntza-baliabideen garapenean, arlo batzuetan —esaterako, Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko gaietan— ardura osoa euren gain hartuta. Erakundeotatik, aipagarri dira Euskaltzaindia, UPV/EHUren Euskara Zerbitzua, EIMA eta Terminologia Batzordea —azken biak, Jaurlaritzarenak—.

Euskararen lantze funtzionalean gertatu den bilakaera horretan, Zabalak (2018) ezaugarri bi nabarmendu ditu. Batetik, erakundeek arreta gehiago zuzentzen dutela hiztegi-sorkuntzara eta estandarizaziora, eta arreta gutxiago diskurtso espezializatuan



txertatzen diren terminoen motibazio semantiko-pragmatikora. Bestetik, euskararen gertatuz joan den terminologi aldakortasuna asistematikoa dela gehiago —hizkuntza gutxituetan ohi den bezala—, eta gutxiago funtzional eta diskurtsiboa. Elordui eta Zabalak (2009) aldakortasun asistematikoa harmonizatzeko aukera modura ikusten dute Euskaltzaindiaren lexikalizazio-lana baina, aukera izan dadin, eta ez oztopo, funtsezkotzat jotzen dute euskara estandarraren arautzeak ikuspegi funtzionala aintzat hartzea, Izan ere, *Hiztegi Batua* prestatzeko prozeduran, irizpide soziopragmatikoen falta hauteman dute, bai corpusen aukeraketan, bai hiztegi-sarreraren, adieren eta erabileren hautapenean eta deskripzioan, bai tradizioaren eta oraingo erabileren azterbideetan —nabarmenki, azken alderdi horri dagokionez, esparru akademikoan egon zen garapenari ezikusia egitea, horretan jardun zuten eragileak beldur ziren bezala—.

#### 2.3.4.2. Euskararen kalitatea

Hizkuntzaren kalitatea ardura gero eta handiago bilakatuz joan da euskararen normalizazioan. Bigarren aldian, euskara esparru berriak konkistatuz joan zen eran, hizkuntzaren lantze funtzionalean zihardutenen artean sortu zen kezka, lehenago esan dugunez (2.2.5. azpiatalean). Hirugarren aldian, euskararen kalitatearen ardura jabekuntzaren arloan piztu zen. Hala, lehenago esan dugunez, EBPn (Euskararen Aholku Batzordea, 1998, or. 41), gaztetxoei hezkuntza-sistemaren bidez eskaintzen zitzaien euskarara zuzendu zen arreta, eta hainbat ekintza proposatu ziren euskara horren kalitatea hobetzeko. Horrez gainera, hirugarren aldi honetan, kalitatearen gaia euskararen batasunaren helburuak lausotzeko kezkarekin ere lotu zen.

Abisua ematen lehenetakoa Salaburu (1994, or. 677) izan zen, Leioako biltzarraren sarrera-ekitaldian, esanez Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaren artean gero eta leize handiagoa zabaltzeko arriskua sumatzen zuela. Gutxira, Sarasolak (1997, or. 7–11) leize hori bazegoela baieztatu, eta batasuna bide okerretik zihoala adierazi zuen, eredu bereizi bi, euskalki bi eratuz zihoazela atzeman baitzuen, Hegoaldekoa eta Iparraldekoa. Hegoaldeko hedabideetan, eskoletan eta esparru teknikoetan nagusi zen euskara-eredua espainolaren mende ikusten zuen; Iparraldekoa, frantsesaren mende, eta biak ere, naturaltasun eta txukuntasun urrikoak, ez kalitate onekoak. Denbora laburrean, hainbat

lanetan (Juan Garzia, 1997; Larringan, 2000; Zubimendi, 1997) erabili zen euskararen kalitatearen gaia eta, EBPNn, konponbidean jartzeko proposamenak ere egin ziren.

Haatik, arazoaz konturatuta eta arduratuta ere, ez zirudien gauza bera ulertzen zuela mundu guztiak «*euskararen kalitatea*» esaten zenean, Euskararen Aholku Batzordeak (2004) ohartarazi bezala, eta kontzeptua zedarrizteko saiakera monografiko bat landu zuen. Saiakera hark hedatu zuen euskara zuzena / jatorra / egokia mailaketa (ibid., or. 24-27). Hiru kategoria horien aurreko jokabidea esparruz esparru aztertuta, zabalkunde nazionaleko hedabideei zegokienez, idatziak eta ikus-entzunezkoak bereizi zituzten:

«Kalitatearekiko ardura handiagoa erakutsi dute orain arte idatzikoek ikus-entzunezkoek baino. Kalitatea zaindu duten kasuetan ere, zuzentasunari —eta, neurri apalagoan, jatortasunari— erreparatu izan diote orain arte hedabideek, eta, salbuespen gutxi batzuk salbu, egokitasuna bermatzea ez da lehenetsun artean agertzen».  
(Euskararen Aholku Batzordea, 2004)

Aurrera begirako proposamenak ere esparruz esparru aurkeztu zituen. Hedabideen atalean, hauek ageri dira (Euskararen Aholku Batzordea, 2004, or. 54–55):

- a) Programa bat edo telesail bat sortzen denean, aldez aurretik zehaztu eta landu dagokion hizkera, batik bat haur eta gazteentzako programazioan.
- b) Hedabide nagusiak, Euskaltzaindia eta sektore profesionalen ordezkariak biltzeko foro bat sortzea, arloz arlo terminologia zehatza lantzeko, haur eta gazteentzako hizkerak lantzeko, eta ekoitziriko materiala sistematizatu, gordailuratu eta zabaltzeko.
- c) Iragarle euskaldunak ohartaraztea publizitatearen prozesuan ezinbestekoa dela euskararen presentzia hasierako unetik bermatzea.

Hedabideei zuzenduriko proposamen horiek zein saiakeran jasotako gainerakoak, funtsean, EBPNko jardueren ildo beretik datoz, non eragileen arteko elkarlana, baliabideen prestaketa eta partekatzea, eta motibazioaren sustapena baitira gakoak.

#### 2.3.4.3. Batuaren kontestazioa eta bernakularren aldarrikapena

Euskara batuari lehen urteetatik egotzi zitzaion graziarik eta estilorik eza, bizitasuna zuzentasunaren mendean jartzea. Izagirrek (1981, or. XXIII), adibidez, «*idazleak*

*idazkari egin dira*» esaldiarekin adierazi zuen batuaz idatzitako liburuetan zer hizkuntza igartzen zuen: literatur konpromisorik gabea sortzaileen aldetik, eta irakurlearen gutizia zapuzten zuena. Hizkera adierazkorrago baten bila, hainbat erabiltzailek euskalkietara itzuli zuten begirada, eta indar handiz aldarrikatu zituzten toki-hizkerak eremu jakin batzuetan, hala nola, herri-aldizkarietan eta telebistako umore-saioetan. Gure marko teorikoa ezarri dugunean (1.4.2.3. puntuan), esan dugu joera bera atzeman dela beste hizkuntza gutxitu batzuetako hedabideetan mende berrian, eta Couplandek 'bernakularizazio' terminoarekin izendatzen duela estandarrak beretzat izan dituen erabilera-eremuetan beste aldaera linguistiko batzuek euren lekua egite hori.

Euskararen kasuan, hedabideei dagokienez batik bat, bernakularren aldarrikapenaren sorburua Eibarren jar daiteke. Eibarko Euskara Batzordeak herriko hizkera jasotzeko eta ezagutarazteko proiektuari ekin zion 1990eko hamarkadaren hasieran (Argoitia, Azkarate, & Gezuraga, 1995). Hitz, lokuzio eta esamoldeen bilduma bat prestatu eta argitaratu ondoren, Eibarko euskara ikertzen jarraitu zuten eta, besteak beste, aditz-taula osoak jaso zituzten eskuliburu batean (Eibarko Euskara Batzordea, 1998). Ordurako jauzi kualitatiboa eginga zuten, eibarreraz idazteko irizpideak (Eibarko Euskara Batzordea, 1997) landuz. Irizpideon funtsa zen idatzian ematea Eibarko euskararen ezaugarri fonologikoak eta morfofonologikoak. Euskara batuak 30 urteko ibilbidea eginga zuen, eta ez zuten uste euren hautuak euskara estandarra atzera egiteko arriskuan jarriko zuenik (Eibarko Euskara Batzordea, 1998, or. 8).

Eibarko Euskara Batzordearen bernakularra itzultze hori beste herri askotan imitatu da, prentsan ez ezik, irratian eta telebistan ere. Zuazo (2000, or. 104–125), mendebaldeko euskararen eremuko hedabideak aintzat hartuta, lau jokabidez mintzo da bernakularren erabilerari dagokionez. Lehena, hizkuntza-elementu bitxiak eta ondo errotu gabeak bultzatu direla. Zuazok aipatzen duen bigarren jokabidea da euskalki osoaren ikuspegia galdu, eta txokoko formak lehenetsi direla. Hirugarrena, euskalkiaren berezko ezaugarriak alde batera utzi, eta horien lekuan euskara estandarrarenak sartu direla dio. Laugarrena eta azkena, helburua euskalkia sustatzea izan den arren, ez dela asmatu euskalkia zelan baliatu eta erdararen erasoari zelan aurre egin.

Hedabideez landa, XX. mendearen amaieran erabiltzen zen euskaraz ari dela, Zuazok (2000, or. 137–155) antzeko lau jokabide aipatzen ditu —berak 'gaitz' esaten die—.

Lehena da hizkuntzaren tradizioetik aldentzea, eta hitz, hitz-erabide eta esamolde arrotzei oztoporik gabeko sarbidea ematea. Bigarrena, hizkera-mailen arteko bereizketa lausotzea eta, horren ondorioz, batik bat hizkuntza jasoko hitzak, esapideak eta egiturak edozein esparrutan eta edozein mailatan erabiltzea. Zuazok aipatzen duen hirugarren jokabidea da nahasketa, euskalki bateko eta besteko elementuak aliritzian elkartzea, testu bakarrean ez ezik, esaldi bakarrean ere. Laugarrena da erdararen eragina pairatzea, eta Zuazok azpimarratzen du erdara ezberdin bi direla eragina dutenak.

Egoera horri nahi ez bezalakoa iritzita, Zuazok (2000, or. 161–213) corpus-plangintza berbideratzea proposatzen du. Hartzen duen abiapuntua da elkarren kontrajarriztat ez ikustea batua eta euskalkiak, elkarren osagarri baizik. Corpus-plangintza berri horretan, euskara batu bi bereizi beharko liratekeela dio: estandar nazionala edo nazioko batua, batetik, eta eskualdeko batua, bestetik. Eskualdeko batua, funtsean, euskara batua da, eskualdeko lexikoa, sintaxia eta zenbait ezaugarri fonologiko eta morfologiko darabiltzana. Euskalkiei dagokienez ere, mota bi bereizi beharko liratekeela dio: jaso eta lagunartekoa. Euskalki jaso horren kodifikazioak, Zuazok proposatutakoaren arabera, euskara batuaren kodifikazioaren ildoari jarraitu beharko lioke; ortografian, zorrotzago; morfologian, sintaxian eta lexikoan, euskalkiaren ezaugarriak errespetatuz, baina euskara batuak eskaintzen dituen alternatibez baliatuz.

Nazioko batua, eskualdeko batua, euskalki jaso eta lagunarteko euskalkia elkarren osagarri izan litezke, Zuazoren planteamenduaren arabera. Hitzunei dagokienez, horrela osaturiko hizkuntza-errepertorioa eremu euskaldunetako hitzun natiboentzat proposatzen du Zuazok (2000, or. 109–213) eta, eremu erdaldunetako euskaldun berrientzat, beste errepertorio bat proposatzen du, nazioko batuak eta herrialdeko batuak osatua. Herrialdeko batuak herrialde osoko lexikoa, sintaxia eta ezaugarri morfologikoak jaso beharko lituzke.

Erabilera-esparruei dagokienez, jardueraren irismenaren arabera zehaztu beharko litzateke noiz erabili nazioko batua, eskualdeko batua, euskalki jaso eta lagunarteko euskalkia. Komunikazioaren arlorako, Zuazoren (2000, or. 176–177) proposamena da euskalki jaso edo, aukeran, eskualdeko batua erabili beharko litzatekeela hedabide lokaletan, eta hedadura nazionala dutenetan, berriz, estandar nazionala. Euskaltzaindiak

(2004) euskalkien erabileraz eginiko adierazpenean, euskalkiak eta euskara batua hedabideetan, irakaskuntzan zein administrazioan elkarren osagarri izan daitezkeelako ideia hori bera darabil. Komunikabideen arlorako, Akademiak erakutsitako ildoak da hedadura orokorrekoetan euskara batua erabiltzea, eta eskualde- eta herri-mailako komunikabideetan, berriz, euskalki landua zein euskara batua, bai eta biak batera ere, atal berean nahasi ezean. Jardueraren irismenean oinarritzen den hizkera-banaketa horrek argudioak kentzen dizkie euskararen estandarizazioak dialektoak desagerraraziko zituela esaten zutenei. Nolanahi ere den, euskalkiek oso bizirik jarraitzen dute 2010eko urteetan, eta euren lekua egin dute hedabideetan, hurrengo atalean ikusiko dugunez.

#### **2.4. EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN LAUGARREN ALDIA**

Ricentok (2000) HPParen historian proposatu duen aldi-banaketa mende berriraino heltzen da, baina tesi honetako behatokia handik hamabost urte baino geroagokoa da. Bitarte horretan, urrats berriak egin dira bai HPPko ikerketetan, bai euskararen normalizazioan. HPPko ikerketei dagokienez, hedabideen rolaz dihardutenak nabarmen daitezke. Euskararen normalizazioari dagokionez, XXI. mendearen hasierako mundu globalizatuan kokatzeko kezka azpimarratu behar da. Euskarak 1990eko urteetan egin zituen lehen urratsak Interneten, baina hamarkada bat behar izan da erakunde publikoek eta euskalgintzako eragileek euren normalizazio-plangintzetan aintzat har dezaten zer eragin izan dezakeen euskararen biziraupenean Internetekin eta IKTekin etorri den mundu globalizatuak.

Globalizazioari eta beraren ondorioei —marko teorikoaren kapituluan (1.2.2. azpiatalean) ikusi dugunez— 1990eko lehen urteetan eman zitzairen arreta HPParen alorrean. Garai hartan, euskararen normalizazioan, lehen plangintzen emaitzak eta berorien arabera urratu beharreko ildo berriak ziren arretaguneak eta, hartara, beste hizkuntza batzuen kasuan baino geroago ipini da ardurak mundu globalak eragindako arazoetan. Erreakzioa, esan dugun legez, 2000ko azken urteetan gertatu da, eta ordutik hona doan hamarkada luze hau euskararen normalizazioaren laugarren aldi modura bereizi dugu.

Laugarren aldi honetan, eragile instituzionalen aldetik, batez ere EAEn, euskara mundu globalarentzako ekarpen edo ondasun modura ikusten da, zaindu behar dena, eta, ikuspegi horretatik datozen hizkuntza-politikan, euskal gizarteko barne arazoak dira nagusi; funtsean, euskarari beraren lekua egitea gaztelaniaren/frantsesaren alboan, transmisioa ziurtatuz eta hedabideetan, teknologia berrietan —IKTetan— eta beste hainbat esparrutan erabiltzeko aukerak sortuz. Gizarte-eragile batzuek, ordea, ohartarazi dute globalizazioak eragin negatiboak izan ditzakeela euskararentzat, beste arrazoi batzuen artean, ingeles ahaltua gehitzen duelako lehiera, eta hizkuntza txikiak suspertzearen aurkako iritzia zabaltzen duelako. Iritzi horretakoek, Artetak (2008, or. 59–60) bezala, globalizazioa darabilte, hain zuzen, argudio modura. Testuinguru berri honetan, euskararen sustapena aldeztu duten eragileek hizkuntza-ekologiaren paradigmaren aurkitu dituzte ingelesaren nagusigoari eta kultur homogeneousazioari aurrez aurre jar dakizkiekeen argudioak lantzeko euskarri ideologikoa.

Euskal gizartearen egoera dela eta, azken hamarkadetako bilakaera soziolinguistikoa arrakastatsua izan da euskararen ezagutzaren datuei begiratuz gero, baina ez horren arrakastatsua erabilera-datuei begiratuz gero. Horregatik, azken urte hauetan, erabileraren bultzadan bildu dira aginte publikoen eta gizarte-eragileen ahaleginak. Izan ere, badira kezkatzeko arrazoiak. Batetik, euskara erabilera-eremu guztietan dago presente neurri batean edo bestean, baina konkista horrek ez du ekarri kaleko erabilera gehitzea. Bestetik, aldaketak gertatu dira ideologia linguistikoetan azken urteetan, eta ondorioak, batzuetan, euskararen erabileraren kalterako izan bide dira.

Bernakularrarekiko atxikimendua da aldaketa horietako bat, euskarazko hedabideetan oso modu berezian errotu dena. 2000ko hamarkadan, programetako pertsonaiak karakterizatzeko erabiltzen hasi ziren euskalkiak, umorean bereziki. Hamarkada horretako azken urteetatik —komunikazioan eta, batik bat, Internet bidezko hedabide berrietan norbanakoen parte-hartzea eta ekimena sendotzearekin batera—, hiztunek euren ahotsak bereizteko jo dute euskalkietara. Praktika hori bat dator Androustopoulosen hedabideetako egungo hizkuntza-erabileraz egin duen deskribapenarekin (1.4.2.3. puntuan ikusi duguna), baina hori ez da polemika pizteko eragozpena izan. Batzuen iritziz, urrunegi heldu da praktika hori, euskara erabiltzera desanimatzeraino. Leonek (2017), esate baterako, honela dio: *«nik zinez eskertuko nuke*

*norbaitek [...] azalduko balit [...] ea estrategia onuragarria den, jendea euskara ikastera ez ezik euskaraz bizitzera ere gonbidatzen ari garen honetan, hainbat euskaltegitan eginahalak ari diren ikasleei erratea ikasten ari diren hori bigarren mailako deusetarako balio ez duen hizkera akademiko porkeria dela».*

Hurrengo lerroetan, zehatzago deskribatuko dugu euskararen normalizazioaren azken urte hauetan gertaturikoa. Lehenengo eta behin, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaz arituko gara, 1980ko hamarkadatik 2016. urtera arteko ezagutza- eta erabilera-datuen bitartez (ikus 2.4.1.). Jarraian, egoera horren ahulguneei —mundu globalizatuak eta euskararen erabilerak eragiten dituztenei— konponbidea ematera zuzendutako hizkuntza-politiketan egin diren azken urratsetan jarriko dugu arreta. Batetik, administrazio publikoen politikez arituko gara, EAeko Euskara 21 egitasmoa nabarmenduta (ikus 2.4.2.). Bestetik, Euskal Herriko gizarte-eragileek euskara sustatzeko hizkuntza-politikei buruz egin dituzten gogoetak, landu dituzten diskurtsoak eta abiarazi dituzten ekimenak bilduko ditugu (ikus 2.4.3.). Ondoren, XXI. mendearen hasieran euskararen sustapenean eman nahi diren pausoak aztertuko ditugu, bi alderdi berezita: euskarak gizartean duen lekua sendotzeko estatus-plangintza (ikus 2.4.4.), eta euskararen transmisioa sendotzeko jabekuntza-plangintza (ikus 2.4.5.). Atala ixteko, corpus-plangintzari begiratuko diogu, globalizazioak hil edo biziko erronka jo baitio euskarari IKTen bitartez (ikus 2.4.6.).

#### **2.4.1. Egoera soziolinguistikoa Euskal Herrian XXI. mendearen hasieran**

XXI. mendeko bigarren hamarkadan gauden honetan, mende erdi da Euskaltzaindiaren Arantzazuko biltzarraren inguruan euskararen normalizaziorako lehen urratsak egin zirela. Ordutik hona indarrean izan diren hizkuntza-politikek, aurrera eramanez diren hizkuntza-plangintzek, erakundeek zein euskalgintzako eragileek egin dituzten ahaleginek euskarari bultzada handi samarra eman diote euskal gizartean, ikerketa soziolinguistikoetako datuen arabera. Euskararen zerbitzura jarritako baliabideei esker, normalizazio-ahaleginen emaitza positiboa da; are positiboagoa munduko beste hizkuntza gutxitu gehienen bilakaerarekin alderatuz gero (Iurrebaso, 2012a, or. 120). Azpiatal honetan, euskal gizartearen azken mende erdiko eboluzio soziolinguistikoaren xehetasunetan murgildu nahi dugu.

Euskal Herrian, ikerketa soziolinguistikoaren oinarria bi ekimen estatistiko dira: Inkesta Soziolinguistikoa (ISL) eta Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren Kale-neurketa (EHKN) (Iurrebaso, 2012b, or. 90). EHKN Siadecok abiatu zuen 1989an, Euskal Herriko kaleetan zenbat euskara entzuten den neurtzeko helburuz. Azken datu-bilketa —zazpigarrena— 2016n egin zen, Soziolinguistika Klusterraren ardurapean. ISL, bestalde, Euskal Herriko hiru erkidegoetako gobernuen arteko lankidetzaren bitartez eramaten du aurrera. Lehen inkesta 1991n egin zen, eta ikerketa honen unera arteko azkena —seigarrena—, 2016an. ISLk Euskal Herri osoa hartzen du, eta ezagutzari, jokabideei eta jarrerei buruzko datuak biltzen ditu.

Datuek diotenaren arabera, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren eboluzio positiboa, batez ere, euskararen ezagutzan gertatu da, eta erabileran, ez hain positiboa. Horrek kezka eragin die normalizazio-eragileei, eta berriro ere pentsarazi die normalizazioaz, zeren ikerketa soziolinguistikoetako datuek ezagutzaren eta erabileraren arteko desfasea baino gehiago erakusten baitute. Izan ere, euskararen erabilerak asko egin du atzera tradizionalki sendo egon den arloetan: adinekoen multzoan, lurralde euskaldunetan, eta eremu ez-formaletan. Euskal gizartearen azken urteetako bilakaera soziolinguistikoa xehekiago aztertzeko, jarraian, euskararen ezagutzaren eboluzioan (ikus 2.4.1.1.) eta erabileraren eboluzioan (ikus 2.4.1.2.) ipiniko dugu arreta.

#### 2.4.1.1. Euskararen ezagutzaren eboluzioa


Azken lau hamarkadetan, euskararen ezagutzak eboluzio positiboa izan du Euskal Herrian (ikus 3. irudia). Euskara ez dakitenak —'erdaldun' deritzenak— gutxituz joan dira, eta gehituz euskara dakitenak, alegia, hizkuntza-trebetasun guztiak dituztenak —'euskaldun' edo 'elebidun' deritzenak— nahiz trebetasun pasiboak bakarrik dituztenak —'elebidun pasibo' edo 'euskaldun hartzaile' deritzenak—.

Erkidegoka, 1991ko eta 2016ko ISLen datuak alderatuz gero, euskaldun-kopuruaren igoerarik handiena EAEn gertatu da. 1991n, euskaldunak % 24,1 ziren eta, 2016an, % 33,9. Nafarroan, askoz txikiagoa izan da euskararen ezagutzaren emendioa. Hogeita bost urteko bilakaeran, tasa % 9,5etik % 12,9ra igo da. Iparraldean, oster, euskaldunak gutxitu egin dira: % 34,2tik % 20,5era.



-----

### 3. irudia: Hamabost urtetik gorakoek hizkuntza-gaitasunaren eboluzioa Euskal Herrian



x ardatza: urteak

y ardatza: biztanleriaren ehunekoak


(Datuak: Euskaltzaindia, 1979a; Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoak)

-----

Datuak adinaren arabera xehatuz gero, ezagutzaren igoera handiagoa izan da belaunaldi gazteetan. 16-24 adin-tartean, % 22,4tik % 55,4ra igo dira euskaldunak eta, 25-34 tartean, % 20,3tik % 39,7ra. Adinaren arabeko joera hori EAEn eta Nafarroan da nabarmena, gazte euskaldunak 2016an % 71,4 eta % 25,8 baitira, hurrenez hurren. Ipar Euskal Herrian, ordea, euskaldun-portzentajerik handiena 64 urtetik gorakoek multzoan dago 2016an. Hala izan da 1991tik honako ISL guztietan (ikus 4. irudia) eta, adinean behera egin ahala, euskaldunen portzentajea txikiagotuz zihoala ikus zitekeen. Joera hori 2006ko ISLan hautsi zen eta, harrezkero, euskaldunen portzentajeak gorantz egin du belaunaldi gazteetan. Hala, 16-24 adin-tartean, 2001ekoa izan zen euskaldunen portzentajerik txikiena, % 11, eta 2016an % 18,9 izateraino hazi da.

-----

#### 4. irudia: Euskararen ezagutzaren eboluzioa Ipar Euskal Herrian adinaren arabera



x ardatza: urtea  
y ardatza: euskaldunen portzentajea adin-tartearen barruan  
(Datuak: Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoak)


-----

#### 2.4.1.2. Euskararen erabileraren eboluzioa

Euskararen erabilerak azken hamarkadetan izan duen eboluzioa aztertzeko, erabilera horretan eragiten duten lau faktore hartuko ditugu aintzat, adierazgarrienak iruditu zaizkigun laurak: adina, sexua, bizi-ingurunea eta erabilera-eremua. Adinari dagokionez (ikus 5. irudia), euskara gehien erabiltzen dutenak haurrak (2-14 urte) dira eta, denboran zehar, gero eta gehiago nabarmenduz joan da adin-tarte hori. Adinekoen multzoan (65 urte edo gehiago), ordea, euskararen erabilera gutxituz joan da eta, 1989an bigarren multzoa izanda, azkena da 2016an. Helduetan (25-64 urte) eta gazteetan (14-24 urte), erabileraren eboluzioa positiboa izan da, 2016an jaitsiera txiki bat gertatu den arren. Sexuari begiratuta, adin-tarte guztietan —adinekoena izan ezik— eta lurralde guztietan, emakumezkoek gehiago erabiltzen dute euskara gizonezkoek baino, eta joera horrek hala iraun du azken hamar urtean (Soziolinguistika Klusterra, 2017, or. 12–13).

-----

### 5. irudia: Euskararen kale-erabileraren eboluzioa Euskal Herrian



Euskararen erabileran eragiten duen beste faktore garrantzitsuenetako bat hiztuna bizi deneko ingurunea da. Hego Euskal Herrian, lau gune soziolinguistiko (GS) bereizten dira euskaldun-dentsitatearen arabera. 1. GSko udalerrietan —Lantaron, adib.—, euskaldunak % 25 baino gutxiago dira. 2. GSko udalerrietan —Pasaia, adib.—, euskaldunak % 25-50 dira. 3. GSko udalerrietan —Deba, adib.—, euskaldunak % 50-75 dira. Azkenik, 4. GSko udalerrietan, —Ispaster, adib.—, euskaldunak % 75 baino gehiago dira. Euskaldun-dentsitate txikieneko inguruneetan —1. eta 2. GSak, aldi berean biztanle-kopuru handienekoak direnak—, euskararen erabilera egonkor dago azken urteetan baina, euskaldun-dentsitate handiagokoetan, ordea, atzera egin du azken hamar urteetan (Soziolinguistika Klusterra, 2017, or. 7). Ipar Euskal Herrian, berriz, euskaldun-dentsitate txikiagoko inguruneetan —Baiona-Angelu-Biarritz konurbazioan eta Lapurdiko barnealdean—, euskararen erabilerak jaitsiera izan du eta, gainerako lurraldean, igoera (ibid., or. 8).


Aztertu nahi dugun azken faktorea erabilera-eremua da. ISLen datuei begiratuta, azken 25 urteotako gorakadarik handiena eremu formalean gertatu da. Esate baterako, 1991n, udal-zerbitzuekin euskaraz erdaraz beste edo gehiago jarduten zuten biztanleak % 11,7 ziren Euskal Herri osoan eta, 2016an, % 20,6ra igo dira. Eremu ez-formaletan, ordea, datuak bestelakoak dira. Etxe barruan, euskararen erabilerak beheranzko joera izan zuen

1991tik 2011ra; txikia, hala eta guzti: % 15,6tik % 14,2ra. 2016ko ISLan, etxean euskaraz erdaraz beste edo gehiago aritzen direnak %15,6ra igo dira berriro ere.

Beste erabilera-eremu informal inportante bat kalea da. Oro har, euskaldunak hizkuntzarekiko fidelak dira, eta euskararen kaleko erabilerak teorikoki espero zitezkeen portzentajea<sup>7</sup> baino altuagoa ematen du (Altuna et al., 2012, or. 35). Azken bi hamarkadetan, edozelan ere, euskararen presentziak bere horretan iraun du Euskal Herriko kaleetan EHKNen datuen arabera (ikus 6. irudia). Igoerarik handiena 1990ko hamarkadan gertatu zen eta, harrezkero, hazkundearen moteltze baten ostean, euskararen erabilera atzerantz egiten hasi da. Azpimarratzekoa da, edozelan ere, hizkuntza batzuek —gaztelania / frantsesa ez direnak— presentzia nabarmena dutela Euskal Herriko kaleetan 2006tik hona. Urte hartan, elkarrizketen % 2,6 beste hizkuntza horietan ziren; 2011n, % 3,7 eta, 2016an, elkarrizketen % 2,7.

.....-

### 6. irudia: Euskararen kale-erabileraren eboluzioa Euskal Herrian



x ardatza: urtea  
y ardatza: kaleko elkarrizketetatik, euskarazkoen portzentajea  
(Datuak: Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren Kale-neurketak)

.....-

7 Altuna eta bestek egindako kalkuluen arabera, Euskal Herriko baldintza soziolinguistikoetan espero daitekeen kale-erabilera % 4,9koa da.

## 2.4.2. Eragile instituzionalen XXI. mendearen hasierarako hizkuntza-politika

XXI. mendearen hasieran eragile instituzional eta ez-instituzional askok euskaragatik sentitzen duten kezka arrazoi nagusiak bi dira: mundu globalizatua eta erabileraren galgatzea. Erakundeen aldetik, kezka horri erantzuteko hizkuntza-politika Euskara 21 deritzon egitasmoaren barruan landu da EAEn (ikus 2.4.2.1.). Nafarroan, 2015eko hauteskundeek ekarri zuten koalizio-gobernu berriak hizkuntza-politika berri bat abiaraztea jaso zuen 2015-2019 epealdirako gobernu-programan, eta erabaki horren emaitza Euskararen Plan Estrategikoa da (ikus 2.4.2.2.). Iparraldean, 2017an abian jarri zen Euskal Hirigune Elkargoak euskara biziberritzeko estrategia berri bat landu eta plazaratu du 2018an (ikus 2.4.2.3.).

### 2.4.2.1. EAE: Euskara 21 egitasmoa

Euskal Autonomia Erkidegoan, EBPn urrats garrantzitsua izan zen euskararen normalizaziorako, plangintza publikoak lehen aldiz hartu baitzuen aintzat bere eraginkortasuna neurtzeko beharra. EBPn, analisi kualitatibo bat egin zen, baina normalizazio-eragileek adierazle kuantitatiboek ere begiratu zieten laster. Aurreko azpiatalean ikusi dugun bezala, adierazle horiek aditzera ematen zutena zen XX. mendean euskara normalizatzeko plangintzak eraginkorrak izan zirela ezagutza hedatzeko, baina ez horren eraginkorrak erabilera sustatzeko. Horren aurrean, beharrezkotzat jo zen hizkuntza-politika berri bat XXI. menderako, euskararen erabilera egiazki indartzera zuzendua. 2007an, EAeko aginte publikoek Euskara 21 deritzon prozesua abiarazi zuten, hizkuntza-politika berri horren funtsak gogoetaren eta debatearen bidez ezartzeko helburuarekin.

Prozesuaren hasiera *Hizkuntza-politika aurrera begira* (Eusko Jaurlaritza, 2005) deritzon dokumentua izan zen, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2009 aldian jorratu nahi zituen ildo, oinarri eta jarraibide nagusiak biltzen zituena. Dokumentuan, azpimarra jartzen zitzaion gizartean hizkuntza-politikaren gaineko gogoeta eta debatea sustatzeko beharrari (ibid., or. 46) eta, behar horri erantzunez, 2008an, EABk *XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak* txostena

prestatu zuen, gogoetaren eta debatearen abiaburu modura balia zedin. Jarrera horretatik ondoriozta daitekeenez, EAeko aginteak ohartuta zeuden igaroa zela normalizazioa erakundeetatik ezartzen eta zabaltzen zen garaia eta gizarte-taldeen eta norbanakoen parte-hartzea behar zutela.

Parte-hartzezko prozesu horretan egin ziren ekarpenetan agertu zen lehen aldiz testu instituzionaletan hizkuntza-politika mundu globalizatuari adi ipintzeko beharra. Ordura arteko testuetan, mundu globalizatuan euskarak berezko tokia izango balu bezala hitz egiten zen, eta ideia Euskara 21eko oinarrizko txostenean errepikatu zen.

«Globalizazioaren munduan gaude, eta badirudi hegemonikoa den guztiak ororen gainera nagusitu nahi duela modernitatearen eta efikaziaren izenean. Baita hizkuntza kontuetan ere. Ezberdinak gara, hizkuntzak ere ezberdin egiten gaitu, eta ezberdinek osaturiko anizkoiztasunaren aberastasunean sinesten dugu. Eleaniztasuna, beraz, mundu globalizatu honetan, zaindu eta sustatu beharreko balio aberats eta aberasgarria delakoan gaude». (Euskararen Aholku Batzordea, 2008a, or. 49)

Oinarrizko txostenaren gainean gizarte-eragileek egin zituzten gogoetetan, Amonarrirek mehatxu gisa aurkeztu zuen globalizazioa, eta ez hizkuntza-aniztasuna eta ezberdintasuna zaintzeko eta sustatzeko aukera gisa.

«Globalizazioak, harreman ekonomikoen mundializazioa, deslokazioa edo inmigratio masiboa bezalako fenomenoak eragin ditu, eta gure gizarteko hizkuntzen arteko harreman eta gatazketan elementu berriak erantsi». (Euskararen Aholku Batzordea, 2008b, or. 17)

Globalizazioak gure gizarteko hizkuntza-ingurunean erantsi dituen elementu berrien artean, Amonarrirek bi aipatu zituen: ingelesa —munduko *lingua franca* bihurtu eta guztiz etxekotuta geneukana—, eta normalizazio-prozesuen aurkako jarrerak. Amonarriren ikuspegi hura berria zen, normalizazio-eragile batzuk fase berri batean zeudela erakusten zuena, baina ez zen bete-betean islatu hizkuntza-politikaren zutabeak

berritzeko kontsentsua jasotzen zuen azken txosten ofizialean, *Itun berritu baterantz* (Euskararen Aholku Batzordea, 2009) izenekoan. Azken batean, kontsentsurako espazioa erakundeetatik zehaztuta zeterren. Halaz ere, ahotsak eta ekarpenak biltzeko ahalegina zinezkoa zen, eta beste bide bat gehiago urratu zuen. Komunikazioaren munduaz ezagutza zuten 17 adituri txosten bana eskatu zitzairen euskarazko hedabideei eta euskarak hedabideetan zuen presentziari buruz, eta haien ekarpenak *Euskara hedabideetan* (Eusko Jaurlaritza, 2008) izeneko bilduman jaso ziren.

Euskara 21 egitasmoaren lantze-prozesua azalduta, hurrengo lerroetan Eusko Jaurlaritzak bildutako gizarte-eragileen gogoeta-prozesua deskribatuko dugu. EABren abiaburuko gogoetak euskararen erabilera areagotzea zuen asmo nagusi modura. Abiaburuko oinarrizko txostenean esaten zenez, euskararen erabilera indartzea eta etengabe areagotzea nahi bazen, beharrezkoa zen herritarrek euskara erabiltzeko gaitasuna, aukerak eta borondatea izatea (Euskararen Aholku Batzordea, 2008a, or. 43). Euskara erabiltzeko gaitasuna izatea, aukerak izatea eta borondatea izatea herritarren eskubideak dira; herri-aginteez eskubide horiek zaindu, eta herritarrek balia ditzaketela bermatzeko neurriak hartu behar dituzte (ibid., or. 30). Euskara-gaitasunari, alegia, euskararen ezagutzari dagokionez, EABren txostenak aitortzen egiten zion eskolaren euskalduntze-lanari, baina beste faktore batzuk bazeudela azpimarratuta.

«Ikasleek eskura dezaketen euskara-gaitasun neurria ez dago bakarrik irakasleen hizkuntza-prestakuntzaren eta hizkuntza ereduaren esku. Faktore ugari dira ikaslearen euskara-gaitasunean eragiten dutenak, eta eskolaren esku ez daudenak: hala nola, esate baterako, gurasoen eta familiako hizkuntza, udalerriko egoera soziolinguistikoa, ikaslearen harreman-sare natural ez formaletako hizkuntza, ikaslearen aisialdirako jarduera eta askotariko baliabideetako hizkuntza, eta abar». (Euskararen Aholku Batzordea, 2008a, or. 35)

Hizkuntza erabiltzeko aukerak bermatzea dela eta, euskara da hizkuntzarik ahulena, egoera gutxituan dagoena, eta horrek esan nahiko luke aginte publikoek euskararentzat sortu beharko lituzketela aukerak (Euskararen Aholku Batzordea, 2008a, or. 48). Nolanahi ere den, horrek ez luke ekarri behar erabilera-eremu guztietan eta lurralde

guztietan berdin ahalegintzea; estrategia egokiagoa litzateke eremu eta lurralde bakoitzean berriazko trataerak diseinatzea eta aurrera eramatea (ibid., or. 53). Gogoetaren azken puntua ebaluazioari zegokion: ezinbestekotzat jo zen unean uneko sustapen-ahaleginak ebaluatzea, ondo egindakoak indartzeko eta areagotzeko, gaizki egindakoak zuzentzeko, eta hiztunen behar berriei antzemateko (ibid., or. 53).

Gogoeta horiek gizarte-eragileen ekarpenekin osatuta, *Itun berritu baterantz* txostenean, alde batetik, komenigarritzat jo zen XXI. mendean euskaldun izatea zer zen zehaztea. Lehen normalizazio-plangintzetako bereizketak alde batera utzita, txosten honetan, euskarara hurbiltzen ziren guztiak hartzen ziren euskalduntzat, hurbiltze horretan ezagutza-maila pasiboraino bakarrik heldu arren, besteak beste maila horretatik ere ekarri handia egiten zitzaiolako bizikidetzari (Euskararen Aholku Batzordea, 2009, or. 26). Beste alde batetik, ikuspegi horren arabera, 25 urteren buruan Euskadiko gizartean herritar gehienak elebidunak izatea aurreikus zitekeen, baina ez denak maila berean eta toki guztietan homogeneouski banatuak. Lortzeko modukoa zen, beraz, gizarte elebidun baten helburua, baina gizartearen elebitasun hori geografikoki eta funtzionalki asimetrikoa izango zela onartuz gero (ibid., or. 28).

*Itun berritu baterantz* txostenean, elebitasun asimetrikoari ez zitzaion irizten euskararen biziberritzearen aurkakoa, baina beharrezkoa ikusten zen euskarari bere espazioak garantizatzea. Bi ahalegin aipatzen ziren (Euskararen Aholku Batzordea, 2009, or. 30):

- a) Ikuspegi geografikotik, arnasmuneak —alegia, euskara nagusi den erabilera- eta transmisio-eremuak— zaindu, sortu eta indartu egin beharko ziren.
- b) Ikuspegi funtzionaletik, euskarari gero eta funtzio gehiagotarako bidea ireki beharko zitzaion.

Halako elebitasun asimetrikoa zelan artikulatu litekeen erakusteko, administrazioaren adibidea erabili da askotan. Euskal administrazioetan, eguneroko errealitatea da gaztelania hutsezko jarduna, besteak beste, bileretan, testu-ekoizpenean eta herritarrentzako ekitaldietan. Jardun hori eragozten ez den bezala, ez litzateke euskara hutsezkoa oztopatu behar. Alegia, ikastaro batera apuntatu diren herritar euskaldunei



euskaraz eman dakieke ikastaroa beste barik edo, 1. gune soziolinguistikoan<sup>8</sup>, ikastaro hori bera euskaraz egin ahal izateko, herritarrak, agian, ondoko herri batera joan beharko du. Horrek esan nahi du behin betiko gainditu behar dela administrazioek euskaraz eman behar duten zerbitzua itzulpen baten bidez konpon daitekeelako ideia, euskararen arnaguneetan batez ere. Arnaguneetan, *Itun berritu baterantz* txosteneko proposamenaren arabera (ibid.), aldez aurretik antolatu eta onartu beharko litzateke hizkuntzen arteko banaketa funtzionala.

Logikoa da txostena hizkuntzen arteko banaketa funtzionalaz mintzatzea, arnaguneen soluzioa —Fishmanek hizkuntza gutxituen iraupenerako proposatua— diglosian oinarritzen baita. Horrek goganbeharra sortu du HPParen arloan, marko teorikoaren atalean nabarmendu dugunez (1.2.3.2. puntuan). Lehenik eta behin, egungo munduan, modernizazioa, hezkuntza eta kultura toki guztietara hedatu diren honetan, ezinezko egiten da esparruen banantze zurrin bat. Beraz, azkenean, gizarte elebidunetan, hizkuntza hegemonikoak etxe barruko esparrua ere irabazten du, hain zuzen, erdietsi nahi denaren kontrara. Egiatan, euskararentzako arnaguneen aldezleak konturatuta daude ezinbestekoa dela konpartimentazioa apur bat malgutzea hizkuntzen arteko esparru-banaketari dagokionez, are arnaguneetako famili giroan ere (Zalbide, 2011, or. 123). Arazo nagusia informazioaren eta komunikazioaren esparrua da. Hedabideek, herritarren jakingura, interes eta zaletasun guztiak euskaraz ase ezinda, arnaguneen indargabetzaile gisa joka dezakete, baina posible da, hala ere, herritarren interes hurbila ukitzen duten gaien esparrua irabaztea, eta gaiok euskaraz lantzea eta zabaltzea (ibid.).

Bigarrenik, konpartimentazioak hizkuntza mehatxatuaren estatusa apal dezake, esparru prestigidunak ixten badizkio. Ez da euskarari esparruak ixtea, baina, *Itun berritu baterantz* txostenean proposatzen dena, baizik eta, esan bezala, gero eta funtzio gehiagotarako bidea irekitzea. Hala, euskararentzako arnaguneen defendatzaileek, konpartimentazioa malgutzeaz dihardutenean, intimitatearen esparrutik gorakoak ere hartzen dituzte aintzat (Zalbide, 2011, or. 123–124). Izan ere, arnaguneen ereduak belaunaldi berrien euskarazko sozializazioari aitortzen dio lehentasuna euskararen sustapenean, baina euskaldun-komunitateak ez dio uko egin nahi goi-mailako irakaskuntza, hedabideak eta zerbitzuak euskaraz edukitzeari (Kasares, 2011, or. 204).

---

8 1. gune soziolinguistikoa: euskaldunak herritarren % 25 baino gutxiago.

Bestalde, Euskara 21 egitasmoaren barruan euskarazko komunikazioaz egindako gogoetari dagokionez, *Euskara hedabideetan* txosten-bilduman garrantzi handia aitortu zitzaien hedabideei euskararen erabilera jardunbide orotan normalizatzeko, hain baitzen handia beraien eragina pertsonen eguneroko bizimoduan (Eusko Jaurlaritza, 2008, or. 17). Gainerakoan, euskararen normalizazioaren testuinguruan, hedabideetara zuzendutako ekintzetan, gazteak jotzen ziren lehentasunezko taldetzat eta, hortaz, gazteentzako edukiak eta kanalak bultzatu behar ziren (ibid., or. 36-37). Kanal horietatik, Interneti arreta berezia eman behar zitzaion. Ikus-entzunezko hedabideei ere, arreta berezia eman behar zitzaien, gizarteak horietan ematen baitzuen aisialdiaren parte handi bat. Horrekin lotuta, EiTBrentzako plan integral eta estrategiko bat landu behar zen. Euskarazko hedabideetan, aniztasun ideologikoa behar zen eta, edukietan, arintasuna. Sektorearen barruan, elkarlana bultzatu behar zen eta, aldi berean, sektorearen eta aginte publikoen artean ere bai. Aginte publikoek, azkenik, komunikabideei emandako laguntzen eraginkortasuna neurtu beharra zuten.

Harrigarriro, *Euskara hedabideetan* txostenean oharkabean pasatzen da konbergentziaren gaia<sup>9</sup>. Aro digitalean, hedabideek konbergentzia-prozesuen bidez erantzuten diete egun lurbira osoa hartzen duen komunikazio-merkatuaren erronkei, aurreko kapituluan esan dugunez (1.4.1. azpitalean). Hala, EiTBn, 1999an hasi zen zuzendaritza berriak konbergentzia jarri zuen bere kudeaketa-ereduaren muinean, nahiz eta, Larrañagaren (J. Larrañaga, Agirreazkuenaga, Larrondo, Martínez, & Meso, 2011, or. 195) arabera, 2007an Taldearen egoitza nagusia Bilbora aldatu zenean, oso urrats gutxi eginak ziren bide horretan. Eragintza ez-instituzionaleko hedabideetan ere, konbergentzia-prozesuak ipini ziren abian kanal digital berriek eta komunikazio-talde handiek egin zezaketen lehiaren aurrean. Goierna taldeak, adibidez, kezka horrengatik ekin zion *Goienkaria* aldizkarian, *Goitb* telebistan, *Arrasate Irratian* eta *Goiena.net*

---

<sup>9</sup> 'Konbergentzia' hitza ez da behin ere aipatzen. Edozelan ere, ideia nolabait presente dagoela uler daiteke. Sintesi txostenean (Eusko Jaurlaritza, 2008, or. 38), euskarazko hedabideek elkarlana eta sareak landu beharra jasotzen da etorkizunari begirako gogoeta modura, baliabideen eta produktuen optimizazioa eta koordinazioa bultzatu behar direla esanez.

Kruzeta (2008, or. 246), bere aldetik, multiplataforma-estrategiaz mintzo da, esanez eduki bat lantzean ahalik eta hedabide gehienetan zabaltzeko ahalegina egin behar litzatekeela. Agerian dago, beraz, EiTBn bazela gaiaren kezka. Kruzetak (ibid., or. 237-238), haatik, EiTBtik kanpo ikusten ditu urrats gehiago konbergentziaren bidean; oso ezbaikoak, hala ere.

webgunean sinergiak aprobetxatzeari eta taldearen barruko antolakuntza eta funtzionamendua egokitzeari (J. Larrañaga, 2008).

#### 2.4.2.2. Nafarroa

Nafarroan, hizkuntza-politika 1986ko Euskararen Foru Legean ezarritakoa da eta, urteetan, administrazio publikoak eraiki duen tresneria juridiko-administratiboak politika hori ahuldu egin du, gizartean euskararen normalizazioari buruzko debaterik sustatu barik. Horren erakusgarria da Nafarroan euskararen normalizazioa jagoteko eginkizunarekin eratu diren erakundeen ibilbidea. EAEko Euskararen Aholku Batzordearen antzera, Nafarroan, 135/1996 Foru Dekretuak Euskararen Nafar Kontseilua sortu zuen, beharrezko ikusi zelako euskararen sustapenean ari ziren pertsonak, taldeak eta erakundeak aginte publikoen partaide izatea zeregin horretan. Kontseiluaren lehen bilera handik hamabi urtera izan zen (Nafarroako Gobernua, 2008), barne-erregelamendua prestatzeko eta Euskarabidearen kudeaketa-plana ezagutzeko. Euskarabidea 183/2007 Foru Dekretuak sortu zuen, Hezkuntza Departamenduari atxikita, beraren barruan bil zitezten lehendik euskararen alorrean ari ziren beste organismo eta zerbitzu publiko guztiak eta haien eskumenak, besteak beste, Euskararen Nafar Kontseilua. Praktikan, Euskarabidea organo aholkulari batera murriztuta egon da 2015eko gobernu-aldaketara arte (M. Arregi, 2015).

Gobernu berriak erakundeetan euskarari bere lekua emateko jarrera ekarri du, eta hala islatu du 2015-2019 aldirako gobernu-programan. Urrats zuhurrak emanez joan nahi dute, gizarteko sektore erdaldunak euskararen aurka ipintzeko beldurrez baina euskaldunak urrunarazteko arriskuarekin (Epaltza, 2017). Lehendabiziko urratsa hizkuntza-politika berria diseinatzea izan zen. Koalizio-gobernuko lau alderdiek adostu zutenaren arabera, ezaugarri hauek izan behar zituen politika berriak (Nafarroako Gobernua, 2017a, or. 8): zeharkakoa, progresiboa, eraginkorra eta parte-hartezkoa; herritarren hizkuntza-eskubideak legez babesten dituen; euskarari gizartean prestigioa ematen diona, eta herritarren askatasuna eta borondatea errespetatzen dituen.

Ezaugarri horiek aintzat hartuta, hainbat ardatz ezarri zituzten hizkuntza-politika berrirako. Nafarroa osoan ziurtatu nahi zen haurrek D ereduan ikasi ahal izatea. Foru

Erkidegoko erakundeetan, euskarari presentzia egokia eman nahi zitzaion. Horrekin lotuta, administrazioaren esparruan, herritarrei euskaraz egiteko eskubidea bermatu nahi zitzaien. Euskara esparru sozioekonomikoan erabiltzea bultzatu nahi zen. Euskarazko hedabideentzako diru-laguntzak hobetu nahi ziren, eta Nafarroako herritar guztiei euskarazko hedabideak erabili ahal izateko neurriak hartu nahi ziren. Politika hori gauzatzeko, plan estrategiko bat lantzea erabaki zen eta, aldez aurretik, egoeraren diagnostiko bat egitea. Behin-behineko idatzaldia 2017ko urtarrilean aurkeztu zitzaion Euskararen Nafar Kontseiluari eta, hark oniritzia emanda, Nafarroako Gobernuak behin betiko onetsi zuen 2016-2019ko Euskararen I. Plan Estrategikoa (Nafarroako Gobernuak, 2017a, or. 13).

#### 2.4.2.3. Ipar Euskal Herria

Ipar Euskal Herriari dagokionez, 2017ko urtarrilean abiatu da erkidego osoa biltzen duen lehen egitura administratiboa, Euskal Hirigune Elkargoa, herritarrei zerbitzuak emateko eta lurraldearen garapena sustatzeko helburuarekin, besteak beste, hizkuntzaren normalizazioaren arloan (Dolosor, 2017). Normalizazio horretarantz eginez, Elkargoak euskara eta gaskoi-okzitania Ipar Euskal Herriko hizkuntza ofizial gisa aitortu ditu frantsesaren ondoan. Aitorpen horretatik hilabete batzuetara, erakundeak *Euskara jalgi hadi plazara* (Euskal Hirigune Elkargoa, 2018) dokumentua argitaratu du, euskara biziberritzeko erabaki duen hizkuntza-politika jasoz.

Politika horren helburu nagusia hiztun osoak sortzea da, eta beraren mugak *Garapen Hitzarmenean* (Frantziako Estatuak et al., 1997) zehaztutako politikaren muga berak dira. Batetik, euskararen ofizialtasunak, Jean-René Etchegaray Elkargoko lehendakariaren hitzetan, ez du «*frantsesari aplikatzen zaizkion preskripzio juridikoen kontra joateko edo haien ahultzeko xederik*» (Euskal Hirigune Elkargoa, 2018, or. 3). Bestetik, Elkargoak hizkuntza-politika bat erabakitzeko duen eskumena ez doa erakundean bildu diren udalerriei dagozkien eskumenetatik harago, alegia, beraren markoa Frantziako lurralde-plangintzako proiektuena da.

### **2.4.3. Gizarte-eragileak eta euskararen sustapena XXI. mendearen hasieran**

Ricento eta Hornbergerren (1996) azterketek agerian ipini dute gizarte-taldeek eta norbanakoek rol garrantzitsua betetzen dutela hizkuntza-normalizaziora zuzendutako ahaleginetan. Euskararen kasuan, norbanakoak eta gizarte-eragileak lehen unetik izan dira funtsezkoak. Hala, nahitaezko eginkizuna bete dute corpus-plangintzan, bai kodifikazioan, bai lantze funtzionalean. Hizkuntzaren estatusari lotuta, euskarazko hedabide asko, ikastolak, Korrika eta beste hainbat ekimen, euskalgintzako eragileek sustatu eta gauzatu dituzte. Euskalgintzan, era berean, ideia eta gogoeta aberasgarriak landu dira euskararen normalizazioari buruz, hizkuntza-politika ofizialetan eragina izatera heldu direnak, batik bat EAEn Euskararen Aholku Batzordearen bitartez.

Norbanakoen eta gizarte-eragileen rol hori —behetik gorako eragintza— ardatz nagusi bat da Ricentoren (2000) arabera Globalizazioaren aldiaren HPParen alorrean sortu den paradigma berrian, hizkuntza-ekologiaren paradigmaren, zeinaren beste bi ardatzak hizkuntza-ekologiaren teoria eta hizkuntza-eskubideen defentsa baitira, gure marko teorikoa osatzean (1.2.2. azpiatalean) ikusi dugunez. Hain zuzen, Marko eta Urangak (2011, or. 109–111) diotenez, azken urteetan euskalgintzako eragileek abiarazi dituzten ekimenetan eta egin dituzten gogoeta eta diskurtsoetan hizkuntza-ekologiaren teoria eta kontzeptuak aplikatu dituzte. Hortik, diskurtso eta argudio interesgarriak ekarri dituzte euskal gizartean euskara sustatzeko politikaz dagoen debatera. Atal honetan, lau multzotan bilduko ditugu diskurtso eta argudio horiek.

Lehen multzoa hizkuntza-eskubideen ingurukoa da (ikus 2.4.3.1.). Normalizazioaren lehen unetik izan dira hizkuntza-politika publikoak zalantzan ipini dituzten eragileak, baina azken hamarkadan ozenago mintzatu dira. Eragileok gogor egin dute Espainiako hainbat erkidegotan erabaki diren hizkuntza-politiken aurka, argudio modura hitzunen eskubideak erabiliz —hizkuntzen hedadurarekin batera—. Hain zuzen, eskubideen argudio horri berari heldu diote beste eragile batzuek euskararen aldeko politikak sostengatzeko. Bigarren argudio-multzoa globalizazioaren ingurukoa da (ikus 2.4.3.2.). Globalizazioak euskararen normalizazioan izan ditzakeen ondorioengatik kezkatuta, eragile batzuk kontsentsu eta gizarte-pertzepzio berriak lantzeko ahaleginean murgildu dira. Helburua da euskararen sustapenaren alde orain arte erabili diren arrazoiketarik gaituzte eta zoru partekatu bat bilatzea.

Hirugarren argudio-multzoa hizkuntzen bizikidetzat da (ikus 2.4.3.3.). Ildo hori jorratzen duten eragileek aldarrikatzen dute posible dela gizartean hizkuntza bat baino gehiago egotea, hots, ez dagoela zertan gatazkatzat hartu euskal gizartean euskararen ondoz ondo erdara bat edo gehiago existitzea. Azkenik, fokua hizkuntza-ohituretan jarri duten argudioez arituko gara (ikus 2.4.3.4.). Ideia nagusia da euskararen erabilerak susperraldi bat behar duela, hizkuntza-ohitura berrien ondorioz bakarrik etor daitekeena. Horregatik, dei egiten zaie norbanakoei, taldeei eta erakundeei, hizkuntza-ohitura zaharrak apurtu eta berriak eratzen laguntzeko giroa sor dezaten.

#### 2.4.3.1. Euskal herritarren hizkuntza-eskubideak

Hego Euskal Herrian, 1980ko hamarkadako euskara-legeetatik aurrera, hiztunen eskubideak izan dira ardatz nagusia euskararen sustapenaren aldeko diskurtsoan —Ipar Euskal Herrian, berriz, herritarren komunikazio- eta adierazpen-askatasuna—. Azken urteetan, eskubideen argudio bera erabili da —hizkuntzen hedadurarekin batera— lege haietatik hona hizkuntza-normalizaziorantz egin den bidea kritikatzeko diskurtsoan. Normalizazioa aldezteko eta kritikatzeko diskurtsoak aztertuz gero, ezberdintasunak igar daitezke hiztunen eskubideak ulertzeko moduan.

Euskal gizartean, sinpatiarekin begiratu izan zaio lehenengotatik euskararen normalizazioari baina, agerpen publikoetan nagusi izan den jarrera horrekin batera, herritar askok jarrera ezaxola edo aurkakoa izan dute, gehiegizkoak eta are alferrekoak iritziz euskara gaztelaniarekin parekatzeko ahaleginei. 1980ko azken urteetan eta 1990ekoetan, alderdi politiko eta gizarte-sektore batzuk euskararen aldeko jarrera eta atxikimendua abandonatzen hasi ziren, 1982ko kontsentsua bera zalantzan ipintzeraino. Ahots kritiko horiek zerabilten ideia-multzoari diskurtso edo *framing* uzkurra esan zaio (Martínez de Luna, 2013, or. 19).

Nafarroan, aginte publikoek eurek izan dute urteetan halako jarrera uzkurra euskararekin, eta ondorioak erkidegoko hizkuntza-politikan antzematen dira (Kasares, Aleman, & Zapata, 2011). Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, ez aginte publikoen aldetik, ez gizarte-eragileen aldetik, ez da euskararen normalizazioaren aurrean kritika ozenik entzun 2000ko azken urteetara arte. Euskara 21 ekimenaren aurrean, eta

Espainiar Estatuko beste erkidego batzuetako hizkuntza-politikak kritikatzeko dituzten ahotsak atxikita —esate baterako, *Manifiesto por la lengua común* (Vargas Llosa et al., 2008) adierazpenaren sinatzaileak—, eragile batzuek auzitan ipini dute EAEko hizkuntza-politika ofiziala, euren burua pentsaera liberalaren etiketarekin aurkeztuta.

Pentsaera liberal horretatik, pertsona bakoitzak bere identitateari —bere hizkuntza eta kulturari— eusteko eskubidea duela ukatu barik, inposiziotzat jotzen dute gizarte osoan hedatzea norberaren hizkuntza gordetzeko eskubidea berma dezakeen antolamendu bat (Ruiz Soroa, 2008). Izan ere, euskara eta euskal kultura gordetzeko nahimenaren atzean arrazoi kulturala baino ez dagoela irizten diote, hots, pertsonen askatasunen aurretik inola ere ezin jar daitekeen arrazoi bat —bide batez, 'kultural' etiketa 'funtzional' etiketaren antonimo dela iradokiz, eta, 'gordetzea', mundutik isolatzearen sinonimo—. Ildo berean, jarrera liberaletatik, sektarismoa eta diskriminazioa (López, 2008, or. 168), eta gaztelaniadun elebakarrak desabantaila-egoeran ipintzea (J. Arregi, 2008, or. 157) egozten diete euskara bultzatzeko ekimenei. Areago, ekimen horietan baliabide publikoak xahutzen direla salatzen dute (Maneiro, 2008, or. 178). Euskal Telebistan gastatzen den diru publikoa, hain zuzen ere, aspalditik dago debate publikoaren mahai gainean (Iglesias-González, 1991).

Euskararekiko posizio uzkur horren ikuspegitik, kontsentsu demokratikoa nekez izan daiteke gizarteko hainbat gatazka konpontzeko bidea, zehazkiago esanda, euskal gizartean euskaldun elebidunen eta gaztelaniadun elebakarren artean gertatzen dena. Hala, kontsentsu demokratikoan oinarrituta egonda ere, uko egiten diote hizkuntza gutxituen sustapenari, eta zorrozki kritikatzeko dituzte sustapen-egitasmoak, besteak beste, Euskara 21. Kritika horretan esaten denez, EAEn, bai herritar elebidun euskaldunen hizkuntza-eskubideak, bai herritar elebakarrenak bermatzeko helburua duen hizkuntza-politika batek aintzat izan beharko luke eskubide guztion baturak % 100 baino gehiago ematen duela. Eskubide-gatazka hori konpontzeko, mailak bereizi behar direla esaten da: elebidunak euskararen bitartez bere identitatea aldarrikatzeko duen eskubidea —euskara erabiltzea hautazkoa zaion aldetik— ezin daiteke egon elebakarrak komunikatzeko duen eskubidearen maila berean, eta, horrenbestez, administrazio publikoek gaztelania hutsean funtzionatzeak ez luke herritarren funtsezko eskubiderik urratuko (J. Arregi, 2008).

Eskubide-gatazkaren argudioa gezurtatuz, lehenago esana dugu (Larrinaga, 2015a) herritarren eskubideak legean zehaztuta daudenak baino ez direla. Edozelan ere, gatazkaren argudioa gezurta daitekeela baino nabarmengarriagoa da badirela beraren aurrez aurre jar daitezkeen beste argudio batzuk, euskararen normalizazioa bermatzen eta aldezen dutenak. Hala, kontsentsua gutxien duen iritziaen aurka, beste posizio ideologiko batzuek diote gizarte demokratiko batean kanal eta prozedura demokratikoak erabiltzeko egiten duela zilegi gizarte osoaren gainean ezartzea hizkuntza mehatxatu baten aldeko politika, eta politika hori aurrera eramateko behar diren baliabide publikoak esleitzea (Laitin & Reich, 2003, or. 93). Euskal gizartean, hain zuzen ere, prozedura demokratikoak baliatu dira euskara berreskuratzeko eta suspertzeko politiken inplementazioan, eta EAEko administrazioak esplizituki aipatu ditu arau demokratikoak bere jardueraren esparruaren muga modura (Euskararen Aholku Batzordea, 1998, or. 25).

Esparru demokratiko horretan kokatuta, legean zehaztu da zein diren herritarren hizkuntza-eskubideak, eta beroriek egin dira normalizazio-plangintzaren oinarri. EAEn eta Nafarroan, garbiro. Iparraldean ere bai, baina, hiztunen eskubideak esplizituki aipatu barik, *«gizarte-eragileen hautu librearen eta hiztunen nahikundearen errespetua»* (Euskararen Erakunde Publikoa, 2006, or. 10–11) aipatuta. Denborarekin, nazioarteko ordenamenduaren berrespena izan dute hiztunen eskubideen defentsan oinarrituriko hizkuntza-politikek. Europan, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Gutunean, hizkuntza gutxituak bizitza pribatuan zein publikoan erabiltzeko eskubidearen aitortzea jasotzen da (Europako Kontseilua, 1992). Eskubide hori, gainera, Nazio Batuek zein Europako Kontseiluak onartu dituzten giza eskubideen adierazpenetan jasotako espirituarekin bat datorrela azpimarratzen da gutunaren hitzaurrean.

Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak 7. artikuluan ezarritako printzipioei jarraituta, Euskal Autonomia Erkidegoko ESEPk irizpide bi finkatu zituen hizkuntza-eskubideen tratamenduan (Euskararen Aholku Batzordea, 2012, or. 16): progresibotasuna eta erritmo-aniztasuna. Progresibotasunak esan nahi du eskubideok ez direla egun batetik bestera gauzatuko, baizik modu mailakatuan, eta erritmo-aniztasunak esan nahi du hizkuntza-plangintzak aintzat hartu beharko duela toki bakoitzeko errealitate soziolinguistikoa hizkuntza ofizial bakoitzari ematen zaion tratamenduan.



Azpmarratzekoa da irizpide horiek ekarri zituen gogoetan aintzat hartu zela herritarren eskubide batzuek eta beste eskubide batzuek elkar baldintzatzen dutela (Euskararen Aholku Batzordea, 2009, or. 39). Gogoeta ideia bitatik abiarazi zen. Batetik, administrazio publikoak eredugarria izan behar duela herritarren hizkuntza-eskubideak defendatzeari dagokionez (ibid., or. 31). Bestetik, hezkuntza-sistemak ekarpen garrantzitsua egin duela irakaskuntzako hizkuntza aukeratzeko eskubidearen eta ikasleei bi hizkuntza ofizialetan gaitasun nahikoa bermatzeko betebeharraren arteko harmonizazioan (ibid., or. 48).

#### 2.4.3.2. Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoak

Eskubideen eta plangintzen gaintik, normalizazio-eragileek gero eta garbiago dute euskararen etorkizuna iritzi publikoaren baitan dagoela eta, Globalizazioak izan dezakeen eragin negatiboaren aurrean, kontsentsu eta gizarte-pertzepzio berriak landu behar direla gizartearen zatirik handiena euskararen normalizazioari buruz parteka dezakeen diskurtso bat osatzeko.

Martínez de Lunak (2013) bi jarrera<sup>10</sup> nagusi atzeman ditu euskarari buruz euskal gizartean, aldarrikatzailea eta uzkurra deitu dituenak. Hizkuntza-politika eraginkor, zilegi eta sustatzaile bat abiarazteko, beharrezkotzat jotzen du jarrera nagusi biok gainditu eta gehiago zabal batek bere egin dezakeen planteamendu berri bat eraikitzea. Planteamendu berria eraikitzeke zutabeak hizkuntza-ekologiaren paradigman aurkitu ditu. Hala, ekosistemako osagai guztiak —hizkuntza guztiak— hartuko dira berdin, baliosu eta zaindu beharrezkotzat. Horretarako, funtzio-banaketa egin beharko da hizkuntzon artean, subsidiaritate-printzipioari jarraituz: hizkuntza txikiak bete ditzakeen funtzioak hizkuntza horretarako gordeko dira.

EAEko eragile instituzionalen aldetik ere, garrantzitsutzat jo da euskararen egungo egoera ulertzeko eta euskararen sustapena babesteko ikuspegi partekatu bat zabalduta egotea euskal gizartean. Hain zuzen, Euskararen Aholku Batzordeak (2016a), 2013-2014 aldirako eginkizunen artean, euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoak aztertzea, kontrastatzea, berritzea eta bateratzeko bidean jartzea onartu zuen. Eginkizuna Euskara

---

<sup>10</sup> Berak '*framing*' terminoa darabil.

21 batzorde-atalaren esku ipini zuen eta, aurrera eramateko, Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen lanketa (EGOD) izeneko egitasmoa abiarazi.

'Diskurtso' terminoaren bidez, mundua irudikatze eta baloratzeko enuntziatu-multzo bat adierazi nahi da (Euskararen Aholku Batzordea, 2016a, or. 18–19). EGOD egitasmoan, euskarari buruz aurki daitezkeen bost diskurtso nagusietako enuntziatuak aztertu dira, euskal gizartean onarpen zabaleko zoru diskurtsibo partekatu bat osatzeko aukera badagoelako hipotesitik abiatuta. Azterketak frogatu du hipotesia zuzena dela, eta badagoela zoru hori, hiru balio edo funts filosofikotan datzana (ibid., or. 134).

Hiru balio edo funts horiek paradigma ekologikoan errotuta ikusten ditugu. Lehena da elkarren arteko errespetua; euskara erabiltzen dutenen eta ez dutenen arteko harremanetan, bizikidetza eta errespetua nagusitu behar dira. Bigarren funtsa da euskararen balio pragmatikoa; euskarari, gizarte osoaren altxorra dela ez ezik, hizkuntza modura balioa duela ere aitortu behar zaio. Hirugarrena da euskaren aldeko jarrera; diskurtso-lanketa honek euskararen sustapenaz dihardu, eta euskararen sustapenak ezagutzan eta erabileran aurrera egitea du helburu modura. Euskararen plangintza zoru partekatutik abiatuta garatzen bada, aukera handiagoa izango du eraginkorra izateko ezagutza eta erabilera emendatzeko helburuari dagokionez.

#### 2.4.3.3. Euskararen eta erdaren arteko bizikidetza

Euskararen normalizazioan lehen urratsak egin zirenean, erakundeetatik kanpoko eragileek Euskal Herri euskalduna jarri zuten azken helburu modura. Hamarkada batzuk geroago, XXI. mendeko lehen urteak igarota, eragileok uste dute une honetan ez dela bideragarria euskara hizkuntza nagusi den Euskal Herri bat (Sarasua, 2011, or. 135–136). Alternatiba bat hizkuntza-ekologiaren diskurtsoan aurkitu dute (Marko & Uranga, 2011). Ikuspegi ekologikotik, ez dago zertan gatazkatzat hartu gure gizartean hizkuntza bat baino gehiago existitzea, alegia, ez dago zertan bakarra aukeratu etorkizuna berarena izan dadin. Hizkuntza-politikaren helburua euskararen eta erdaren bizikidetza izan daiteke, hots, etorkizun partekatu bat, non euskarak beste hizkuntza batzuekin batera iraun baitezake gizarte-ekosisteman.

Hein handi batean, Euskal Autonomia Erkidegoko normalizazio-eragile instituzionalek ere partekatzen dute hiztunen eta hizkuntzen bizikidetzaren diskurtsoa, XXI. menderako hizkuntza-politikari dagokionez (Euskararen Aholku Batzordea, 2009, or. 29). Euren lehentasunetan, euskararentzako arnaguneak ipini dituzte baina, guneok funtsezkotzat emanda ere, euskara biziberritzeko estrategia ez dute horietara mugatzen. Horrekin batera, espazio publikoan euskararen eta erdararen erabilera arautu beharra aldarrikatzen dute, arautze horretan ahulenaren alde egin beharra dagoela azpimarratuta.

Ikuspegi ekologikotik, urrats bat aurrerago egin da. Espazio publikoan, hizkuntzen arteko bizikidetzaz horretan, euskarari gune batzuk —'habitat' batzuk— bermatu behar zaizkiola diote, hor hizkuntza hegemonikoa izan dadin. Euskarak bizirik irauteko, funtsezkotzat jotzen dira 'hegemonia-gune' deritzen horiek (Garabide Elkarte, 2010). Halako guneetan, euskarak izan behar du hizkuntza nagusia, baina guneok esparru ireki modura ulertzen dira, beste hizkuntza batzuek ere lekua izan baitezakete. Ikuspegi ekologikoaren aldezean arabera, euskararentzat erreserbatu beharko litzatekeen hegemonia-gunerik garrantzitsuena hezkuntza izan beharko litzateke. Izan ere, hezkuntza hizkuntza gutxituan jasotzea ia ezinbestekoa da hizkuntza horretan hiztun osoa izatera iristeko. Hezkuntzak euskaraz izan beharko luke, beraz, baina, hegemonia irekian ulertzen denez gero, gaztelania/frantsesa lantzeari uko egin gabe. Hala jokatzuz gero, ikasleak hizkuntza hegemonikoan ere hiztun osoak izatera iritsiko dira.

Hezkuntzatik harago, euskararentzako beste hegemonia-gune batzuk webgune bat, telebista bat edo unibertsitateko fakultate bat izan daitezke. Horrelako guneetan euskaraz bizitzeko hautua egitea zeharo bateragarria da beste hizkuntza batzuk erabiltzen segitzearekin eta, horrez gainera, euskaldunei aukera bat ematen die momentu honetan, komunitate saretu gisa bada ere, komunitate bat izaten jarrai dezaten euskarak lurralde-hegemoniarik izan gabe (Sarasua, 2011, or. 135–137).

#### 2.4.3.4. Hizkuntza-ohituren aldaketa

Kike Amonarriz soziolinguista eta showmanak (2018ko udazkenean Euskal Herri osora eramanez duen *Euskaraldia orain, zergatik eta zertarako* tituluko motibazio-saioan)

bidegurutzearen irudia erabili du euskara 2010eko hamarkadaren amaieran zein egoeratan dagoen adierazteko. Oraingo belaunaldi gazteek, gizartearen inertziak bultzatuta, esandako bidegurutze horretan euskara ez erabiltzeko zidorretik jarrai dezakete eta, hamarkada gutxiren buruan, Euskal Herrian, Irlandako historia errepikatuko da: hizkuntza gutxituaren ezagutza unibertsala izango da, baina erabilera, hondarrekoa. Kontrara, euskal gizartean indarrean dauden hizkuntza-ohiturak hausten badira, ezagutzagatik eta baliabideengatik euskara erabiltzea erraza duten belaunaldi gazteak euskara normalizatzeko zidorretik abia daitezke. 2010eko hamarkadaren bigarren erdian, euskalgintzako eragileak halako diskurtsoa zabaltzen hasi dira, eta hizkuntza-ohiturak aldatzen laguntzeko saiakeretan murgildu dira.

Saiakera horietan, aitzindaria da Aldahitz ikerketa. Jauregi eta Suberbiolak (2017) 'egitasmu' kontzeptua darabilte Aldahitz kalifikatzeko, urte gutxiren buruan asko ugaltu direlako ekimenak eta jarduerak 2010ean Soziolinguistika Klusterrak abiarazi zuen ikerketa haren inguruan. Beraren helburua zen EAEko zortzi enpresa publiko zein pribatutako langileen harremanetan euskara erabiltzen hasteko gakoa non zegoen aztertzea. Bi baldintza identifikatu ziren: euskararik ez zekiten lankideak euskalduntzea, eta, horien oniritziarekin, lankide euskaldunek beti euskarari eusteko konpromisoa hartzea. Batzuen eta besteen arteko elkarrizketetan, euskalduntzen hasitakoek erdarara jo zezaketen zailtasunen aurrean, baina horrek elkarrizketa elebakarretara heltzeko bidea urratzen laguntzen zuen.

Ikerketaren emaitzetan oinarrituta, Eusle metodologia landu zen eta, 2013an, lantokietan aplikatzen hasi zen. Metodologiaren helburua hizkuntza-ohiturak aldatzea da, eta taldea du oinarri. Taldea lan-jarduerengatik harreman estuan egoten diren hamabost bat langilek osatzen dute eta, denen artean, eusle bat aukeratzen dute. Esperientziak irauten duen bi hileko epean, eusleak talde horren barruan euskaldun elebakar gisa jokatzeko konpromisoa hartzen du, eta gainerakoek —nahitaezkoa da denak euskara ulertzeko gai izatea— euren adostasuna agertu behar dute. Hainbat esperientziaren azterketak erakutsi du «*metodologia horrek baduela ahalmena lankide horien arteko hizkuntza ohiturak gaztelaniatik euskarara aldatzeko*» (P. Jauregi & Suberbiola, 2017, or. 50).

Hizkuntza-aholkularitzako enpresen bitartez Eusle metodologia Euskal Herri osoko lantokietara zabalduz zihoala, hizkuntza-ohiturak aldatzeko beste esperientzia bat abiatu

zen herri eta auzoetan, 2018an Euskaraldia ekarri duena. Esperientzia berriaren aurrekaria 2015ean dago, Lutxo Egia idazleak bere buruari *performance* eran Bilbon 30 egun gaztelaniarik gabe igarotzeko erronka planteatu zionean (Erostarbe, 2015). Ideia horri jarraituta, Donostiako Egia auzoko pertsona-talde batek astebete euskaraz bizitzeko konpromisoa hartu zuen hilabete batzuk geroago (argia.eus, 2015). Ariketa Irurtzunen, Basaurin, Altzan eta beste hainbat herri eta auzotan errepikatu ostean, 2018an ahalik eta leku gehienetan aldi berean gauzatzea nahi izan da, Euskaraldia izenaren pean. Sustatzaileak, besteak beste, Euskal Herri osoko administrazio publikoak, hedabideak eta euskalgintzako elkarteak dira, eta asmoa izan da azaroaren 23an hasi eta abenduaren 3an amaitzea, alegia, Euskararen Nazioarteko Egunean.

Euskaraldiaren helburu nagusia euskararen erabilera suspertzea da eta, horretarako, euskaldunek eguneroko jardunean hizkuntza-ohiturak eta inertziak apurtu beharra dutela aldarrikatzen da. Parte hartzeko, nahitaezkoa izan da euskara ulertzea, eta 16 urtetik gorakoa izatea, ariketa sozial honetan parte hartzea hautu kontziente bat izan behar delako, pertsonak gutxieneko heldutasuna behar duelako bere eguneroko bizitzan harrapatzen duten hizkuntza-ohiturez konturatzeko eta horiek aldatu nahi izateko. Euskaraldiaren hamaika egunetan erabiliko den dinamika, bestalde, Eusle metodologian datza. Zehatzago esanda, parte-hartzaileek rol bi hauetako bat bete dezakete: a) ahobizi: lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu behar du, eta b) belarriprest: euskara dakitenei berarekin euskaraz egitera gonbidatzeko konpromisoa hartu behar du.

Eusle metodologiak, Euskaraldiak eta azken urteetan izan diren ildo bereko beste ekimen batzuek dimentsio berri bat ekarri dute euskara sustatzeko hizkuntza-politikara. Euskal gizartean euskararen ezagutza hedatzeko helburua alde batera utzi barik, orain helburu berri bati ematen zaio lehentasuna: indarrean dauden hizkuntza-ohituretan aldaketa eragin eta euskaraz dakitenak euskararen erabileran aktibatzea norbanako bakoitzaren konpromisoari dei eginez.

#### **2.4.4. Euskararen lekua sendotzeko estatus-plangintza**

Euskarak toki garrantzitsua egin du euskal gizartean azken hamarkadetan —Iparraldean, gainera, ofizialtasunaren babesik gabe— baina, oraindik ere, toki hori irmoago eta zabalago egiteko beharra sentitzen da. Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskara 21

egitasmoaren markoan, motibazioan eta euskaren proiektzioan ipini da enfasia (ikus 2.4.4.1.). Nafarroan ere, lauko gobernu berriaren plangintzan, atal garrantzitsua da euskararen aldeko jarreraren lanketa (ikus 2.4.4.2.) Ipar Euskal Herrian, Elkargoak ofizialtasuna aitortu dio euskarari, baina beraren eskumenen esparruan (ikus 2.4.4.3.).

#### 2.4.4.1. Euskal Autonomia Erkidegoa

Euskara 21 egitasmoak txosten bi utzi zituen EAEko XXI. mendeko hizkuntza-politika oinarritzeko: *Itun berri baterantz* eta *Euskara hedabideetan*. Txosten biotan zehaztu ziren ildoetatik abiatuta, EABk hizkuntza-plangintza zehatz bat prestatu zuen 2013 eta 2023 arteko epealdirako: *Euskara sustatzeko ekintza plana* (ESEP) (Euskararen Aholku Batzordea, 2012). Plangintza horren giltza euskararen bilakaeraren indarguneak bilatzea eta ahuleziak zuzentzea da (ibid., or. 10). Horretarako, ESEPre lehen atalean, diagnostiko bat dator, egoeraren azterketa egiten duena planeko hamasei esparruetako bakoitzerako eta, ostean, hobetzeko erronkak gehitzen dituena.

Diagnostiko horretatik ondoriozta daiteke euskara isolatuta hautematen dela EAEko gizartean. Batetik, diagnostikoaren arabera, ezagutza asko zabaldu den arren, erabileran ez da gauza bera gertatu, zeren oraindino ere, euskaraz egiten dutenak, kalean, lantokian, kartel eta seinaleetan, bezeroekiko harremanean, aisialdian zein administrazioaren aurrean, euskara familia barruan jaso dutenak baitira. Bestetik, diagnostikoak azpimarratzen duenez, euskarazko sorkuntza eta produkzioa gizarte-talde jakin batzuei zuzentzen zaizkie —haurrei eta gaztetxoei, nagusiki—, esparru jakin batzuetara mugatzen dira —literaturara eta kulturgintzara, batez ere—, eta oso zabalkunde txikia dute.

Diagnostikoaren ostean, ESEPk hainbat ekintza proposatzen ditu esparruz esparru. Azken esparru biak motibazioa eta euskararen zabalkundea dira, zehar-lerro gisa planteatuta daudenak nahitaezkozat jotzen direlako gainerako esparruetako helburu estrategikoak lortzeko orduan. ESEPN, euskara erabiltzeko motibazioa lantzerako eta euskarari barruko zein kanpoko proiektzioa ematera zuzenduta dauden ekintzak alde batera utzita, gainerako gehien arreta baliabideen kudeaketan ipinita dago. Ekintza bakar batek hartzen du aintzat legegintza: 4.5.3. zenbakikoa, prozedura judizialak

euskaraz ere egin ahal izateko lege-aldaketak egitea jasotzen duena. EAEn, baina, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko helburuz aurrera atera den azken legegintza-ekimena duela hamarkada batekoa da, 123/2008 Dekretua, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzkoa.

Administrazio publikoei dagokienez, alde batetik, Jaurlaritzak bost urteko plangintzekin jarraitu du. Laugarren plangintzaldiak 2008tik 2012ra iraun zuen, helburu nagusi honekin: EAEko administrazio orokorreko beharginen artean euskara laneko hizkuntza normal bihurtzea eta, batik bat, euskaraz sortzeko jokabidea sustatzea. Bosgarren plangintzaldian, lehen aldiz bildu da Euskal Irrati Telebista Euskadiko gainerako erakunde eta sozietate publikoekin batera. 2013tik 2017ra iraun du, eta euskara administrazio publikoetan ohiko lan-hizkuntza bihurtzeko helburua izan du. Seigarren plangintzaldia 2018an hasi, eta 2022ra arte zabalduko da. Helburu nagusia, 2010eko azken urteetan indartuz doan joerarekin bat, euskararen erabilera suspertzea da, eta urrats bat egitea aurrera, euskaraz ere lan egiten eta produzitzen duen administrazioa bilakatzea ez dadin izan «*kasuan kasuko langilearen borondatearen ondorio, erakundearen gogoetaren ondorio baizik*» (Eusko Jaurlaritza, 2018, or. 20).

Beste alde batetik, 2013-2016 epealdirako, Eusko Jaurlaritzak (2014a) *Euskararen Agenda Estrategikoa* onartu du, ESEPko proposamenak garatuz eta ekintza berriak gehituz. EAEko administrazioari dagokionez, sail bakoitzean erabilera-plana prestatzea erabaki da, euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza gisa bultzatzeko neurriak zehatz daitezen. Osakidetzan, Euskal Herriko Unibertsitatean, Ertzaintzan eta Justizia Administrazioan gauza bera egin dadila esaten da. EiTBn, ordurako, onartua zen lehen euskara-plana, eta inplementatzen hasia zen. Administrazio publikoari dagozkion asmoekin batera, *Euskararen Agenda Estrategikoa* hedabideetan, kulturean, arlo sozioekonomikoan eta irakaskuntzan herritarrak nahi duen hizkuntza ofizialean aritzeko eskubidea babestea eta sendotzea jasotzen du. 2018-2021 epealdirako, Jaurlaritzak euskararen bigarren agenda estrategikoa osatzea erabaki du.

#### 2.4.4.2. Nafarroa

Nafarroan, itxaropenez begiratu diote 2015eko gobernu-aldaketari euskararen sustapenean ari diren gizarte-eragileek, bai eta gainerako arloetakoek ere, baina

aurrerapauso gehiago eta arinagoak nahiko lituzkete gobernuaren aldetik (Letona, 2016). Koalizio-gobernu berriak bere denbora behar izan du gobernu-programan zehazturiko hizkuntza-politika aurrera eramateko planaren prestaketan, eta Nafarroako gizarte-eragileen babesa bilatu du Euskararen Kontseiluaren bidez. Planari *Euskararen I. Plan Estrategikoa* (Nafarroako Gobernua, 2017a) deritzo, 2019. urtera arteko indarraldiarekin, eta hiru bloke estrategiko ditu.

Lehen bloke estrategikoa gizarteari zerbitzuak ematea da, hiru helburu nagusirekin: 1) euskara bizitzako arlo guztietan erabiltzeko modua erraztea hiztunei; 2) hiztunak irabaztea, Nafarroa osoan bermatuz haurrak nahiz helduak euskalduntzeko prozesua, eta 3) administrazio publikoak zerbitzua euskaraz emateko gaitzea eta zerbitzu publikoetan euskararen eskaintza handitzea. Bigarren blokea euskararen ikuskera berri bat zabaltzea da, bi helbururekin: 1) euskara balio positiboekin lotzea gizartean, eta 2) euskara balio erantsi gisa lotzea industriarekin, teknologiarekin eta berrikuntzarekin. Hirugarren blokea planari —eta, beraren bidez, herritarren hizkuntza-eskubideei eta adostutako hizkuntza-politikari— estaldura ematea da, batetik, datu soziolinguistikoak bilduz eta, bestetik, behar diren lege eta araudiak indarrean jarriz.

Estaldura hori ematera dator 9/2017 Foru Legea, Euskararen Foru Lege berria, 1986koan aldaketa esanguratsuak ezarri dituen. Lehena sinbolikoa da, zeinaren bidez 'vascuence' terminoaren ordez 'eusker' jarri baita legearen gaztelaniazko testuan. Gainerako aldaketek herritarren hizkuntza-eskubideak ukitzen dituzte. Batetik, udalerrri gehiago jaso dira eremu euskaldunetan eta eremu mistoan eta, bestetik, toki-entitateei eskumena aitortu zaie euren esparruan euskararen erabilera sustatzeko eta arautzeko ordenantzak onar ditzaten.

Horrez gainera, Nafarroako Gobernuak beste legegintza-proiektu bi dauzka tramitazioan 2017ko udan euskararen normalizazioaren arloan. Lehena Nafarroako administrazioan euskararen erabilera arautzeko foru-dekretua da, herritarrek administrazioarekiko harremanetan euskara erabili ahal izatea bermatzeko helburua duena. Horretarako, departamentu bakoitzak lanpostu eta zirkuitu elebidunen planifikazioa egin beharko du (Gobierno de Navarra, 2017b). Bigarren proiektua herriguneeen izen elebidunei buruzko foru-dekretua da, besteak beste, Euskaltzaindiak normalizaturiko euskal izenak ofizial egiteko prozeduraz diharduena (Nafarroako Gobernua, 2017b).



#### 2.4.4.3. Ipar Euskal Herria

Ipar Euskal Herrian 2017an hasi den aldi berrian, Euskal Elkargoak ofizialtasuna aitortu dio euskarari —baita gaskoi-okzitanierari ere— bere eskumenen esparruan, eta frantsesa ukatzeko asmorik gabe. Estatus berri hori gauza dadin, Elkargoak bi lan-ildo zehaztu ditu, bere euskararen aldeko proiektuko esku-hartzeetan jarraitu beharrekoak: «*biztanleendako zerbitzuetan eskaintza elebiduna egituratzea*», eta «*biztanleen informatzea eta sentsibilizatzea*» (Euskal Hirigune Elkargoa, 2018, or. 15). Hala, bada betebeharrak bat, ia esku-hartze guztietan errepikatzen dena: «*komunikazio-euskarrietan elebitasuna bermatzea*». Adibide modura, Elkargoaren eta beraren egituren bizitza eta funtzionamenduari dagokionez, betebeharrak horrek dakar, besteak beste, «*behar diren baliabideak mobilizatzea protokolozko eta hedabideekiko gertakarietan euskarazko hitz hartzeak izan daitezzen*» (ibid., or. 63).

#### 2.4.5. Euskararen transmisioa sendotzeko jabeakuntza-plangintza

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskara 21 egitasmoaren bitartez, helburu zehatza jarri zaio XXI. mendearen hasierarako normalizazio-plangintzari: euskararen erabilera gehitzea mundu globalizatuaren testuinguruan. Hirugarren aldian bezala, laugarren aldiko normalizazio-plangintza horrek Fishmanen (1991) ereduari jarraitzen dio, non transmisioa baita giltzarria. Hala, Euskara Sustatzeko Ekintza Planean, giltzarri horrek eusten dio euskararen erabilera areagotzeko helburu nagusira zuzendutako estrategia guztiari (ikus 2.3.5.1.). Nafarroan, 2016-2019rako Euskararen Plan Estrategikoa onetsita, helburu nagusien artean ipini dute hurren eta helduen euskalduntzea (ikus 2.3.5.2.). Iparraldean, aurreko epealdiko planteamenduari jarraituta, eta Euskadin bezala, 2011-2016ko normalizazio-plangintza eta 2018ko proiektuko esku-hartzea Fishmanen ereduaren arabera osatu dira (ikus 2.3.5.3.).

##### 2.4.5.1. Euskal Autonomia Erkidegoa

Euskara 21 egitasmoan, hizkuntza-politika zehaztuta, hurrengo urratsa 2013-2023 epealdirako hizkuntza-plangintza lantzea izan da, eta horren emaitza, ESEP (Euskararen Aholku Batzordea, 2012). ESEPeK helburu nagusi bat du, euskararen erabilera

sustatzea, eta hiru helburu estrategiko hauek:

- 1) Euskararen jabekuntza: herritarrek euskara eskuratzea jotzen zen estrategia guztien oinarritzat, eta aintzat hartzen ziren hizkuntza eskuratzeko hiru esparruak —familia, eskola, euskaltegia—.
- 2) Euskararen erabilera: eskuraturiko hizkuntza erabiltzea sustatzeko, baldintza batzuk ziurtatu behar ziren, besteak beste, euskaraz egin ahal izatea zerbitzuetan eta gizarteko jarduera- eta harreman-esparruetan.
- 3) Euskararen elikadura: hiztunari, euskara eroso eta erraz erabiltzeko gai izan zedin, euskarazko edukiak eskaini behar zitzaizkion kulturaren, argitalpenetan eta hedabideetan. Eduki horietako euskarari zegokionez, zuzentasunetik harago, arreta komunikagarritasunean eta adierazkortasunean ipintzeko garaia zela aldarrikatzen zen.

Helburu estrategikoez gainera, ESEPk bi zehar-lerro ditu:

- a) Euskararen aldeko mobilizazioa: funtsezkotzat jotzen zen, batetik, euskara familian jaso ez zuten herritarrak euskalduntzera animatzea eta, bestetik, euskara erabiltzeko argudioak eta estrategiak lantzea eta zabaltzea.
- b) Euskararen zabalkundea: beharrezkotzat jotzen zen euskararen irudiari prestigioa ematea, bai euskal gizartean, bai kanpoan.

Helburu horietarako, ESEPk hainbat neurri eta ekintza proposatu ditu eta, aurrera eramanez beharrezko neurri eta ekintzokin batera, adierazle-sistema bat dakar, jardueren eraginkortasuna neurtzeko eta planaren ebaluazioa egin ahal izateko. Lehenago EBPNn izan zen bezala, ESEPk (Euskararen Aholku Batzordea, 2012, or. 13) hizkuntzaren geroratzea (transmisioa) jartzen du gainerako helburu estrategikoen oinarrian. Horrekin batera, hiztun-kopurua eta hiztunon gaitasuna emendatzearen garrantziarekin batera, ESEPk (ibid.) funtsezkotzat jotzen du euskara hiztunaren hurbileko harreman-sarean atxikitzea, besteak beste, familian, lagunartean eta auzoan. Alegia, berriro ere, EAEko hizkuntza-plangintzaren giltza Fishmanek (1991) hizkuntza-ordezkapena itzularazteko landutako eredu da.

ESEPN, jabekuntzarekin loturiko neurriak eta ekintzak antolatzeko, hiru esparru bereizten dira: familia bidezko transmisioa, irakaskuntza, eta euskalduntzea eta

alfabetatzea. Hiru esparru horietan, motibaziora eta baliabideen antolakuntzara zuzendutako neurriekin batera, badira jabekuntza bera mugarriztatzera zuzendutakoak ere. Hiru hauek (Euskararen Aholku Batzordea, 2012, or. 40):

- a) Egungo euskalduntze curriculumak Europako Erreferentzia Marko Bateria egokitzeko eta Marko Bateria bera euskarara egokitzeko bideak aztertu eta garatzea.
- b) Euskara gaitasuna egiaztatzeke azterketa-sistemaren inguruko hausnarketa egin eta hobekuntzak praktikara eramatea.
- c) Helduen euskalduntzearen kalitate-irizpideak adostu eta finkatzea.

Euskara 21 egitasmo elebitasun asimetrikoaren ideien testuinguruan kokatzen bagara, neurri on atzean, hiztunei —bakoitzari bere mailan— hizkuntza-eragutza bermatzeko ahalegin bat atzematen dugu.

ESEPk gainerako esparruetan ere, badira elebitasun asimetrikoaren ideien testuinguruan ulertu behar diren neurriak, hain zuzen, hizkuntzak erabiltzeko irizpideei dagozkienak.

- a) Administrazioaren esparruan, hizkuntza ofizial biak erabiltzeko irizpideak finkatzea proposatzen da (Euskararen Aholku Batzordea, 2012, or. 45).
- b) Esparru sozioekonomikoan, enpresen jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzeko pausoak ematea proposatzen da (ibid., or. 53).
- c) Aisiaren eta kirolaren esparruan, gazteei zuzendutako modako ekimen guztietan euskara lehenestea proposatzen da (ibid., or. 59).

Hortaz, hainbat esparrutan, elebitasun asimetrikoa antolatzearen alde egiten du ESEPk, edo euskararen presentzia bermatzeko, edo euskara lehenesteko.

Aurreko lerroetara aldatu ditugun neurriak, ESEPN proposatzen diren gainerako neurri eta ekintzak bezala, plangintzarekin bat egiten duen erakunde eta enpresa bakoitzak bere errealitatera egokitu beharko ditu lehentasunei, epeei, adierazleei eta partaide izan ditzakeen erailei dagokienez (Euskararen Aholku Batzordea, 2012, or. 31). Eragile horietako bat EITB da, honako neurri hauetan aintzat hartua.

- a) Liburugintzaren esparruan, irakurzaletasuna bultzatzea (ibid., or. 63).
- b) Kulturgintzaren esparruan, euskarazko kultur produktuen zabalkundea egitea.
- c) Hedabideen esparruan, komunikabide publikoen hizkuntza-betekizunei buruzko gogoeta bideratzea.

- d) IKTen esparruan, Interneten euskarazko edukiak sustatzea.
- e) Euskararen barruko proiektioan, erakundeen arteko elkarlanean aritzea.
- f) Euskararen kanpoko proiektioan, horretan diharduten eragileekin elkarlana areagotzea.

EiTBk oso presentzia txikia du ESEPN. gehien-gehienetan euskararen eta euskarazko produktuen zabalkundearekin lotuta. Oro har, hedabideek presentzia txikia dute, nahiz eta Euskara 21 egitasmoaren barruan berariazko arreta eskaini zitzaien.

ESEPN, hedabideen esparrua elikaduraren helburu estrategikoari atxikita ageri da, zazpi neurri hauekin (Euskararen Aholku Batzordea, 2012, or. 73–76):

- 1) Erakundeen artean, euskarazko hedabideei zuzendutako laguntzen irizpideak adostu eta finkatzea.
- 2) Euskarazko hedabideen garapen iraunkorra ahalbidetzeko neurriak hartzea.
- 3) Hausnarketa bideratzea hedabide publikoen hizkuntzarekiko betekizunei buruz.
- 4) Euskarazko hedabideen garapen industrial eta teknologikoa bultzatzea.
- 5) Hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatzea.
- 6) Erdal hedabide publiko zein pribatuetan, euskarazko edukiak areagotzea.
- 7) Hedabideetako hizkuntzaren kalitatea bermatzea.

Zail egiten da zazpi neurri horietan *Euskara hedabideetan* txosteneko gogoetei antzematea. ESEPko zazpi neurrietatik, lau euskarazko hedabideen finantzazioaz eta alderdi enpresarialez ari dira; bat, hedabide publikoen eginkizunez; beste bat, euskara erdarazko hedabideetan ikusgai egiteaz, eta azkena, hedabideetako hizkuntzaren kalitateaz. Urte batzuk lehenagoko *Euskara hedabideetan* (Eusko Jaurlaritzak, 2008, or. 38) txostenean, berriz, adostasun handieneko ideiak beste ildo batetik zihoazen: gazteentzako kanalak eta edukiak bultzatu behar zirela, arreta berezia ikus-entzunezko hedabideei eta Interneti eskaini behar zitzaiela eta, oro har, euskarazko hedabideen eskaintzan eduki arinagoak eta pluralagoak behar zirela.

#### 2.4.5.2. Nafarroa

Nafarroan, gizartearen zati baten aspaldiko nahia zen seme-alabak hezkuntza-sare publikoan euskaldundu ahal izatea, bizi ziren eremuan bizi zirela, baina, urteetan, zailtasun ia gaindiezinak izan ziren Euskararen Foru Legea eta gobernuari eusten zioten

alderdien jarrera. Horren aurrean, gurasoek hainbat ekimen hasi zituzten 2008. urtean, beraien nahia babes zezakeen lege-aldaketa sustatzera zuzenduta. Azkenean, 2015ean lortu zuten Nafarroako legebiltzarrak aldaketa onartzea. 4/2015 Foru-legean jasotakoaren arabera, Nafarroako Gobernuak bere ardurapean hartu behar du eremu erdaldunean ere ikastetxe publikoetan euskarazko eredia ezartzea, eskabideen arabera. Nafarroako Gobernu berriak legezko betebeharrak horretan urrats bat gehiago egin du, eta *Euskararen I. Plan Estrategikoan* (Nafarroako Gobernuak, 2017a, or. 44) helburu zehatz modura jarri du Nafarroa osora zabaltzea euskaraz eskolatzeko aukera.

Gai honek segitzen du, edozelan ere, istiluak eragiten nafar gizartean. Iruñeko udalak, esate baterako, haur-eskoletan euskarazko eskaintza handitzeko erabakia hartu zuen 2016an, hogeitaz hiriko 17 eskoletatik bitan baino ez baitzen egon euskararen aukera, eta, hartara, beste bitan ireki zuen euskarazko lerroa (Euskalerrria Irratia, 2016). Herritar batzuek, bat etorri ez, eta auzitara jo zuten, sektore batzuek euskararen ezarpenaz ulertu zuten erabaki haren aurka: «*Un juez suspende la imposición del euskera en las escuelas infantiles de Pamplona*» (Ojer, 2016). Azkenean, epaitegiek udalaren erabakia ezereztatzeko erabili zituzten oinarri juridikoen ildoari jarraituz, Nafarroako Gobernuak hartu zuen Iruñeko haur-eskoletan euskararen eskaintza handitzeko erabakia (Gobierno de Navarra, 2017a).

Euskararen Plan Estrategikoak, hiztun berriak irabazteko helburu nagusira zuzenduta, garrantzi handia ematen dio haurren eta helduen euskalduntzeari baina, horrekin batera, ezinbestekotzat dauzka euskararen familia barruko transmisioa eta sozializazioa. Hortaz, helburu zehatzen artean, batetik, udalerrri euskaldunetan euskararen erabilera indartzea jasotzen du (Nafarroako Gobernuak, 2017a, or. 41). Bestetik, euskara erabiltzeko aukerak, espazioak, baliabideak eta produktuak erraztea nafar guztiei. Planean, honelako ekintzak proposatzen dira (ibid., or. 38-40):

- a) Administrazioak antolatzen dituen kultura- eta kirol-jardueretan, euskarazko eskaintza handitzea.
- b) Eskolaz kanpoko eta aisialdiko jardueretan euskarari lekua egiteko estrategiak lantzea arloko eragileekin.
- c) Saltokietan, zerbitzu profesionaletan eta enpresetan euskararen erabilera areagotzeko planak abian jartzen laguntzea.
- d) Euskarazko kultur sormena sustatzeko diru-laguntzak ematea.

Ildo beretik, euskarazko komunikazio-eskaintza zabaltzeko helburuz, euskarazko hedabideen finantzazioa hobetzeko formulak bilatzea proposatzen da eta, horrekin batera, Foru Administrazioaren eta sektorearen arteko lankidetzak sustatzea. Bestalde, euskarazko hedabideen zabalkundearen oztopoak daudela ohartuta, euskarazko eskaintza herritar guztiengana heltzeko ekimenak abiaraztea proposatzen da, beren beregi, ETB3 haur eta gazteentzako kanal tematikoa Nafarroa osoan hartzeko ekimenak.

#### 2.4.5.3. Ipar Euskal Herria

Ipar Euskal Herrian, 2006-2010 epealdirako plangintzaren emaitzetako bat EiTBBren Iparraldeko hedapen digitala izan zen (EiTB, 2011, or. 36). Beste bat, gazteen euskararen ezagutzan inflexio-puntu bat gertatzea. Hurrengo plana, *2011-2016rako Jokabide Esparrua* (Euskararen Erakunde Publikoa, 2010), aurrekoaren jarraipena zen eta, beraz, Fishmanen 1991ko ereduan oinarritua. Helburu nagusi modura hiztun osoen kopurua emendatzea jarrita, horrek sortzen zituen erronkak hiru esparrutan bilduta ageri dira planean: 1) euskaren transmisioa, 2) euskararen erabilera, eta 3) zeharkako jarduerak, hala nola, helduen euskalduntzea, hizkuntzaren kalitatea eta motibazioa. Aurreko plangintzaren aldean, 2011-2016koan, aintzat hartu zen euskara unibertsitatean eta lanbide-heziketan sartu beharra (ibid., or. 23). Ildo horretan, 2017-2018 ikasturtean eraikin berria estreinatu zuen Seaskaren Baionako Etxepare Lizeoak lehenengo aldiz eskaini zuen lanbide-heziketa euskaraz (Etxegarai, 2017).

*Jokabide Esparruaren* ondotik, Euskal Hirigune Elkargoak (2018) prestatu duen proiektua sartu da indarrean. Berrito ere hiztun osoak sortzea helburu, 21 eremutan esku hartzea aurreikusten du oraingo proiektuak. 2006-2010eko eta 2011-2016ko planetan bezala, hiru multzotan bildu dira oraingo 21 eremuak: 1) euskararen transmisioa, 2) euskararen erabilpena, eta 3) sostenguko eta zeharkako funtzioak. Aurreko planen aldean, 2018koan ez dira hedabideak aintzat hartzen.

#### 2.4.6. Corpus-plangintza eta teknologia berriak

Leioako biltzarraz geroztiko araugintzan, hutsune bi aipatu ditugu gorago (2.3.4.1. puntuan): hiztegia eta ahoskera. 2010eko hamarkadan, arlo bietan eman dira pausoak,

hein handi batean aro digitaleko teknologiek ahalbidetu dituzten lan-metodoei eta ezagutzei esker. Hiztegiaren arloan, euskara batuaren lexikalizazioak aurrerapauso handia egin du. Ahoskeran, aurrerapausoa txikiagoa izan da, baina oso esangarria, euskararen aldagarritasunaren kezka izan baitu ardaztat. Izan ere, normalizazioaren laugarren aldi honetan, euskara era askotako hiztunen ahotan eta denetariko esparruetan dabil. Ildo horretatik, nabarmentzekoa da hiztunari hizkuntzaren erabilera errazten dioten baliabideak garatu ahal izatea ekarri dutela teknologia digital berriek, besteak beste, hiztegi elektronikoak eta zuzentzaile ortografikoak.

Teknologia berriak —komunikazio- eta informazio-teknologiak (IKTak), zehatzago esanda— elementu bereizgarria dira hizkuntzalarien azken urteetako lanean. Izan ere, informazioa sortzen, manipulatzeko, biltegitzen eta zabaltzen laguntzen duten teknologietan, badira batzuk, hizkuntza-teknologia deritzenak, hizkuntzaren tratamendura zuzentzen direnak: ahotsaren edo hizketaren ezagutza, ahotsaren edo hizketaren sintesia, karaktereen ezagutze optikoa, itzulpen automatikoa, ahozko datuen ulertzea, eta audio-datuen meatzaritza (Diez de Lezana, 2008, or. 28).

Halako teknologiak funtsezkoak dira gaur egun hizkuntza baten iraupenerako, eta arloan lanean zihardutenek garbi ikusi zuten lehen urratsetatik euskarak hor egon beharra zuela. Teknologia berrien garapenarekin bat eginez gero, euskarak erabilgarritasuna, prestigioa eta erakarpena irabaziko zituen; kanpoan geratuz gero, euskara promozio profesional eta sozialerako oztopo bihurtuko zen (Sagarna, 2008, or. 18). Urteotako ibilbidea ikusita, esan liteke euskaldun-komunitateak kanpoan ez geratzeko borondatea izan duela. Interneten —ahaleginaren neurri bat ematearren—, euskaldun-komunitatea aktiboa eta saiatua da. Hizkuntza handiagoen aldean, blog eta Wikipediako artikulu gehiago ekoizten du hiztun bakoitzeko, baina komunitatearen tamainak muga garbiak jartzen ditu, hizkuntza txiki baten produkzio absolutua ez baita hizkuntza handi batenera hurbildu ere egiten (Sagarna, 2008, or. 21).

Euskarazko softwarearen ekoizpena ere ez da txikia baina, hein handi batean, Interneteko presentzia bezala, ahalegin boluntarista baten emaitza da, eta horrek ez du urruntzen euskara IKTen erronkatik kanpo geratzeko arriskua (Sagarna, 2008, or. 22–23). Arazoaz jabetuta, EAEn, Eusko Jaurlaritzak hainbat ekimen eta plangintza eraman ditu aurrera urteokaz IKTen arloan eta, EBPN-n, esplizituki lotu du eginkizun hori

euskararen normalizazioarekin (Diez de Lezana, 2008, or. 29). Ekimenetako bat euskarazko baliabide guztiak inbentario batean jasotzea izan da, dagoeneko Interneten<sup>11</sup> erabilgarri dagoena (ibid., or. 32-34). Besteak beste, sistema eragileak, hiztegi elektronikoak, bulegotika-paketeak, zuzentzaile ortografikoak, hizketa sintetizatzeke aplikazioak, hizkuntza-corpusak, itzulpen-memoriak, lematizatzaileak, itzulpen automatikorako tresnak, eta abar aurki daitezke.

Erakunde akademikoetan ere, badago euskara eta IKTak uztartzeko kezka, euskararen normalizaziorako funtsezkoa dela jakitun. Kezka horretatik sortu zen IXA taldea Euskal Herriko Unibertsitatearen barruan (Alegria, Artola, Diaz de Ilarraza, & Sarasola, 2008, or. 45). IKTen erronkak boluntarismoa eta ahalegina baino gehiago behar zuela jabetuta, estrategia bat diseinatu zuen, eta beraren emaitza dira, besteak beste, Xuxen zuzentzaile ortografikoa eta Euslem lematizatzaile-etiketatzailea. Estrategia horren ideia nagusiak dira hasieran oinarrizko baliabide eta tresna sendoak sortzea, formatu estandarrez baliatzea, ahal den guztietan software librea erabiltzea eta sortzea eta, horrez gainera, lankidetzaren sareak antolatzea Euskal Herriko eta atzerriko enpresekin, erakunde publikoekin, eta beste ikerketa-zentro batzuekin (ibid., or. 53-54).

Hain zuzen, teknologiak partekatzearen eta lankidetzaren aldeko estrategiatik jo ezean, nekez izan dezake euskarak bere lekua egungo Europa eleaniztunean behar diren zerbitzu eta produktuetan, esate baterako, itzulpen-aplikazioetan, bilaketa-sistema eleaniztunetan, e. a. (Sagarna, 2008, or. 24). Euskararentzako produktu espezifikoak ere nekez presta daitezke arlo askotako erakundeen lankidetzarik gabe, eta hori arazo larria da, zeren halako produkturik ezean arriskuan jar baitaiteke euskararen estandarizazioa eta lantze funtzionala bide egokitik eramatea. Izan ere, egun, hizkuntzaren estandarizaziorako eta lantze funtzionalerako erabakiek hizkuntza-corpusen euskarria behar dute, ikerketa linguistikoak, hizkuntzen irakaskuntzak eta beste hainbat arlok bezala (Areta, Gurrutxaga, & Leturia, 2008, or. 73).

Hizkuntza-teknologiaren garapenean, oinarrizko baliabideak dira hizkuntza-corpus handiak —hamarka milioi hitzekoak— eta, euskaraz, ia-ia iritsi ezinezko bolumena litzateke digitalean argitaratzen den guztia sistematikoki bildu ezean (Alegria et al.,

---

<sup>11</sup> [www.euskara.euskadi.eus/ikt\\_inbentarioa](http://www.euskara.euskadi.eus/ikt_inbentarioa)



2008, or. 56–57). Gainera, bolumena ez ezik, finantzazioa, ikuspegi-aniztasuna eta tresnak ere behar dira corpusak osatzen direnean (Areta et al., 2008, or. 87). Hala, Euskaltzaindiak oso corpus xumea —*XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa*— baliatu zuen 1990eko hamarkadan hiztegi batuaren lanak aurrera eramateko (Oyharçabal, 2004, or. 49–50). Hamarkada bat geroago, euskara batuko lexikoaren erabilera aztertzeko eta hiztegi-arau berriak emateko helburuarekin, Lexikoaren Behatokia deritzon egitasmoa onartu zuen, corpus monitore baten diseinuan zetzana, eta lehen unetik bertatik beharrezkotzat jo zuen lankidetzat, IXA taldearena, UZEIrena eta Elhuyarrena (Urrutia & Kintana, 2009, or. 375). EiTbrena ere gutxira bildu zuen.

Urteokaz, corpusetan oinarrituriko hizkuntzalaritzak garrantzi handia hartu du euskaraz osatuz joan diren bildumei esker. Aipagarri dira UPV/EHUko Euskara Institutuaren ardurapeko corpusak, hala nola, Egungo Testuen Corpora, Ereduzko Prosa Gaur eta Euskal Klasikoen Corpora, eta, horiekin batera, Elhuyarren corpus elebakarra eta corpus paraleloa, eta, halaber, Eroski Consumer Corpora.

Lexikoaren Behatokiari, gainerako corpus horiei eta beste baliabide batzuei esker, jauzi handi bat gertatu da euskara estandarraren hiztegi arauemailean. 2000ko *Hiztegi Batua* —funtsean ortografi hiztegi bat zena— *Euskaltzaindiaren Hiztegia* (Euskaltzaindia, 2012) bihurtu da, milaka hitz berri gehituta, eta adierak eta adibideak erantsita. Adieren eta adibideen eransketak lexikalizazio-fasea osatu du euskararen kodifikazioan baina, hori baino garrantzitsuago dena, pentsaera-aldaketa baten berri ematen du. Akademia jabetuta dago hiztegi arauemaileak, edizioz edizio, hizkuntzaren bilakaerara egokitzen joan beharko duela (ibid., or. VII) eta, erabiltzailearentzat, esangurak zehatz-mehatz argitzea baino, garrantzitsuagoa dela hitzaren erabilera erakustea: «*Beste hitz batzuekin esateko, hitzaren definizioa, eduki semantikoa baino areago, hitz hori ager daitekeen testuinguruen multzotzat hartzen da gaur egun*» (ibid.).

Hiztegi-arloa bideratuta, kodifikazioan dagoen azken hutsunea ahoskerakoa da, prosodia landu barik baitago oraindino. Lanketa hori orientatzeko, funtsezko ekarpena izan da *Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen txostena (Ahoskerak axola du)* (Oñederra et al., 2015). Txosteneko ideia nagusia da euskararen ahozko erabileraren normalizazioan estandarraren ahoskera arautzea bezain garrantzitsua dela aldaera estilistikoena eta dialektalena garatzea. Garapen horretarako, txostenak azpimarratzen du EBAZ arauko

irizpide fonemikoak behar bezain malguak direla. Prosodiari helduta, alde batetik, txostenak nahitaezkozat jotzen du euskalkietara begiratzea eredu bila eta, euskara batuan, eredu prosodikoak askotarikoak izan daitezkeela defendatzen du; tokiz toki ezberdinak, eta baita erregistroz erregistro ere ezberdinak. Beste aldetik, eredu prosodikoen irakaskuntza dela eta, esaldi osoen azentuak eta doinuak irakastea proposatzen du, berbaka jardun barik.



### **3. EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOAREN HASTAPENAK. ZERBITZU ALDIA ETA EUSKAL TELEBISTAREN SORRERA**

Aurreko kapituluan ikusi dugunez, Frankismoaren osteko urteetan, Hego Euskal Herrian, abagune historikoa izan zuen euskarak, desagerpenerantz zeraman bidetik irten zedin. Abagune horren gakoa ofizialtasuna izan zen, aurretik inoiz ezagutu gabeko estatusa, Espainiako 1978ko Konstituzioak aitortu ziona. Ofizialtasunak euskararen normalizazioari modu antolatuan ekiteko aukera ekarri zuen 1980ko hamarkadako lehen urteetatik, baina euskalgintza Franco hil orduko hasi zen hizkuntza sustatzeko ahaleginetan. Lehenagotik ere, pauso garrantzitsuak emanak zituen, estandarizazioan eta euskara gizarteratzeko ekimenetan batik bat.

Euskalgintzaren lehen ekimen haietan, arreta gehiena gizarte-esparru bitan ipini zen, hezkuntzan eta komunikazioan, eta, geroago ere, administrazioarekin batera, esparru biok hartu ziren estrategikotzat euskara normalizatzeko plangintzetan. 1980ko hamarkadaren hasieran, Euskal Telebistaren bidez garatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko eragile instituzionalek iritzi hura. ETB, beraz, euskararen sustapenaren testuinguruan sortu zen —ez horretarako bakarrik, halaz guztiz ere— eta, ahalegin horrekin lot daitezkeen proiektuetatik, garrantzitsuenetako bat da. Kapitulu honetan eta hurrengoan, garrantzi hori agerian jartzea izango da gure helburua. Horretarako, alde batetik, ETBren sorrera eta garapena deskribatuko ditugu eta, beste alde batetik, ETBk

aurrera eraman dituen ekimen eta jardueretatik euskararen normalizazioarekin lot daitezkeenak identifikatuko ditugu.

Azterketa antolatzeke, aintzat hartuko dugu Pietikäinen eta Kelly-Holmesek (2011) hizkuntza gutxituko hedabideen garapenean HPParen ikuspegitik proposatu duten aldi-banaketa. Ikerketa honen marko teorikoaz aritu garenean azaldu dugun bezala (1.3. atalean), Pietikäinen eta Kelly-Holmesek hiru aldi bereizi dituzte: dohaintza aldia, zerbitzu aldia eta performantzia aldia. Dohaintza aldia hizkuntza gutxituek komunikabideetan egin zituzten lehen agerpenei dagokie. Agerpen haiek hizkuntza gutxituari estatuaren hedabideetan utzitako tarte testimonialak baino ez ziren. Pauso garrantzitsua izan zen, geroago, komunitate gutxituek euren hedabideak sortzea, euren hizkuntzan eta euren gizarte-bizitza ardazteko helburuz. Pauso horrek zerbitzu aldia ekarri zuen. Mende berriarekin, azken aldia etorri da. IKTak bitarteko direlarik, estatuaz eta komunitateaz gainera, beste eragile batzuk hasi dira parte hartzen hedabideen arloan eta, hizkuntza gutxituei dagokienez, beraien praktikek erronka jo diete HPPan ezarritzat jotzen ziren ideia eta jokabideei; oso modu nabarmenean, hizkuntza estandarraren ideologiari. Azken aldi honi performantzia aldia deritzo.

Euskarazko ikus-entzunezko hedabideen kasuan, ibilbide berdina egin dela igar daiteke eta, hortaz, hiru aldiok bereiziko ditugu gure ikerketan. Euskarazko ikus-entzunezko komunikazioan, dohaintza aldia 1970eko hamarkadaren bigarren erdian kokatuko dugu nagusiki, euskarak telebistan lehen agerraldiak egin zituenetik 1982. urtean ETB sortu zen arte. Guk hor jarri dugu zerbitzu aldiaren hasiera. Izan ere, ETBren sorrera enpresa bat ezartzea baino gehiago izan zen. Euskarazko komunikazioari dagokionez, guztizkotasun funtzionala lortzeko zinezko lehen urratsa izan zen. Hizkuntzari dagokionez, dohaintza aldiko emanaldien funtzio sinbolikotik ETBren funtzio pragmatikora jauzi egitea izan zen, alegia, telebista-zerbitzu bat euskaraz eskaintzera jauzi egitea. Gizartearen begietara, euskara inguruko hizkuntza handien parean ipintzea izan zen, modernotasunaren ikurra baitzen une hartan telebista.

Euskarazko ikus-entzunezko komunikazioan, performantzia aldiaren hasiera 2000. urtean jarriko dugu, urte hartan abiarazi zuelako EiTbK bere plangintza estrategikoa, zeinak mende berrian bera bezalako hizkuntza gutxituko hedabide bati agertuko

zitzaizkion erronkei erantzuteko prestatu behar baitzuen. Gure ikergaia ETB izanda, kapitulu bana eskainiko diegu ETB protagonista duten aldi biei. Kapitulu honetan, dohaintza eta zerbitzu aldiak bilduko ditugu, dohaintza aldia kapituluaren sarrera modura planteatuta, eta hurrengo kapitulurako utziko dugu performantzia aldia.

Zerbitzu aldiak denaz bezainbatean, euskarazko telebista-eskaintza bat aurrera ateratzeak erronka handiak ekarri zizkion ETBri. Lehenengo eta behin, artean hizkuntza kodifikazio-fasean egoteak zalantza prosodiko, ortografiko, lexiko, morfologiko eta sintaktiko eragozgarriak sortzen zizkien komunikazioaren profesionalei eta, horrez gainera, ez zuen behar bezalako oinarria eskaintzen telebista-programetan behar ziren hizkera ezberdinak garatzeko. Bigarrenik, ETBren euskarazko zerbitzutik kanpo geratuko zen EAEko biztanleriaren portzentaje handi bat, zeren, alde batetik, euskara zekiten herritarrak gutxiengoa baitziren eta, beste alde batetik, euskaldunen artean ere, euskaraz alfabetatuta zeudenek multzo txikia osatzen baitzuten. Erakunde berriak, hortaz, bere zerbitzu publikoa gizarte osoari zabaltzeko modua aurkitu behar zuen. Hirugarrenik, beste edozein hizkuntzatan aurki zitekeen bezalako programazioa euskaraz osatu nahi bazen, industri azpiegitura bat antolatu beharko zen saioak ekoizteko edo kanpoan erositakoak euskaraz jartzeko. Hizkuntza zuzen-zuzenean ukitzen duten erronka horiek izango ditugu hizpide kapitulu honetan.

3.1. atalean, euskarazko hedabideen dohaintza aldiak arituko gara. Sarrera orokor modura, euskarazko lehen komunikabideen gainbegiratua egingo dugu eta, ostean, euskarazko telebistagintzaren aurrekarietan jarriko dugu arreta. Ez aurrekari horiek, ez —oro har— euskarazko komunikabideek egindako bidea, ez ziren izan euskara eta euskaldun profesionalak 1980ko hamarkadan sortuko zen ETBren beharrianetarako prestatzeko modukoak. Hartara, kapitulu honetako 3.2. atalean ikusiko dugunez, lehenago ez bezalako azpiegiturak eta giza baliabideak atondu ziren, aldeaz aurretik berriazko lege-euskarria onartzeaz gainera. Legeak zerbitzuaren logikan txertatu zuen hedabide berria. ETBk eman beharreko zerbitzuaren definizioan, euskararekin batera, legeak beste elementu batzuk aipatzen zituen, eta beraren interpretazioa eztabaidarako gaia da, oraindino ere, ETB euskararen sustapenerako tresna baino ez dela diotenen eta gehiago ere badela defendatzen dutenen artean.

Nolanahi ere den, batzuentzat zein besteentzat, ETB euskararen estatus berri baten sinboloa izan zen. 3.3. atalean arituko gara horretaz, esanez ETBk, euskarazko hedabide bat zen aldetik, euskara garaiko bizimoduan txertatua erakutsi zuela mundu osoaren aurrean eta, aldi berean, euskarari eta euskaldunei buruzko estereotipoak gainditzen lagundu zuela. Hedabide-funtzio hori betetzeko, euskarriak behar izan zituen. Hasteko, industria bat antolatu zen ETBren inguruan, pantaila euskarazko ikus-entzunezko produktuz hornitu ahal izateko. Horrekin batera, euskarak bere komunikazio-esparrua garatzen jarraitu behar izan zuen, geldi geratzeak atzera egitea esan nahi baitu hain lehia handikoa den hedabideen arloan.

3.4. atalean, EAEko hizkuntza-politiketan jarriko dugu arreta, ETB airera irteteko zela hizkuntzarekin loturiko hainbat erabaki hartu behar izan baitziren. Batetik, gizarte elebiduna lortzeko helburua pantailara zelan eraman erabaki behar izan zen eta, bestetik, euskara —pantailan ematen zitzaion tokia ematen zitzaiola— zer euskara-mota izango zen ebatzi beharra ere egon zen. Lehen unean, behintzat, ETB kanal elebiduna izango zela erabaki zen, eta beraren euskara, berriz, estandarra edo batua izango zela.

Erabaki bion inplementazioaz, ondorengo atal bietan arituko gara. 3.5. atalean, euskara izango da gure arretagunea, erronka handia izan baitzen estandarizazioa hasi berritan euskaraz orotariko programazio bat prestatzea. Pantailarako aukeratu zen euskara batua guztiz finkatu barik egoteaz gainera, pauso bat ere ez zegoen emanda programa-mota bakoitzerako behar ziren hizkuntza-erregistroen garapenean. Hedabide berriko komunikatzaileek, horrenbestez, era guztietako zailtasunak aurkitu zituzten, hasi ortografia eta ahoskeratik, askotariko esapide eta terminoetaraino eta, besterik ezean, ETBko profesionalek eurek eman zituzten lehendabiziko irtenbideak. Zailtasunez jabetuta, ETBk hizkuntzalariak kontratatu zituen albistegien eta programa bikoiztuen hizkuntza-kalitatea zain zezaten eta, atzetik etorri zen arlo biotarako euskararen lantze funtzionalean inplikatzeari.

3.6. atalean, ETBn emisio elebiduna eta euskara batua inplementatzeko antolatu behar izan ziren bitartekoekin jarraituta, telebista-zerbitzua izango da gure arretagunea. Beharrezko euskara-maila ez zeukaten herritarrengan pentsatuta, ETBk gaztelaniazko azpidatzen bitartez eskaini zizkien ele bitan lehenengo urteetako emanaldiak, eta

berariazko saioen bitartez erraztu ziren euskaldun egiteko aukera. Bestalde, euskara batuan izan behar zuten emanaldietako hizkuntza-kalitatea zaindu beharra zegoela igarrita, hizkuntzalariak kontratatu ziren.

Euskararen kalitatea zaintzeko eginkizunari, laster, hizkuntzalariok telebistarako euskararen lanketa ere hartu behar izan zuten euren gain eta, orduan, beharrezko egin zen haien arteko koordinazioa bermatzea, bai eta haien betekizunari aitorpena egitea ere enpresaren barruan. Egitura berria, Euskara Saila deritzona, harrezkero, tresna garrantzitsuenetako bat da ETBren hizkuntza-hautuen inplementazioan, programen hizkuntza-kalitatea zainduz, telebistarako euskara landuz, hizkuntza-irizpideak eskainiz, eta profesionalei hizkuntza-prestakuntza emanez.

### **3.1. DOHAINTZA ALDIA EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKOETAN**

Atal honetan, gainbegiratu emango diogu plangintza ofizial bat osatu eta indarrean jarri aurretik euskarazko komunikazioak egindako ibilbideari. Ikus-entzunezkoei dagokienez, plangintza ofizialarekin loturiko lehen ekimena Euskal Telebista izan zen, eta bera baino lehenagoko ibilbidea oso laburra izan zen zentzu guztietan. Denboran, 1970eko hamarkadaren erdialdetik 1980ko lehen urteetara doan tarte hartu zuen nagusiki, baina hasierako unea 1950eko hamarkadaren bigarren erdian ezarri behar dugu, euskarari Eliza Katolikoaren irratietan lehen tarteak egin zitzaizkionean. Denbora horri dohaintza aldia esango diogu Pietikäinen eta Kelly-Holmesen aldi-banaketa euskarazko hedabideen kasura egokituta.

Gure gainbegiratu honen helburua bikoitza da. Batetik, euskararentzat komunikazioaren esparrua irabazteko prozesuak zer ahalegin eskatu zuen agerraraztea. Bestetik, prozesu horretan, ETBren egitasmoa zer testuinguru mediatikotan landu zen ezagutzea. Izan ere, orduko egoeraren ondorio izan ziren hedabide berriari hurrengo urteetan —eta geroago ere— aurrez aurre jarri zitzaizkion erronketako asko, hala nola, profesional prestatuen falta, azpiegiturarik eza, eta euskara ikus-entzunezkoetarako landu beharra.

Lehenik, euskarazko komunikazioaren aitzindarietan ipiniko dugu arreta (ikus 3.1.1.). Euskal Irrati Telebistaren aurretik, garrantzitsuenak komunikabide idatziak izan ziren,



1950eko hamarkadan hasitako euskarazko irrati-emanaldiek oso irismen eta helburu lokalak izan baitzituzten. Ondoren, 1970ko hamarkadaren erdialdean jarrita, euskarak telebistan eginiko lehen urratsak deskribatuko ditugu (ikus 3.1.2.). Espainiako eta Frantziako hedabide publikoetan utzitako tarte batzuk baino ez ziren, hiztunen interesei baino gehiago agintarien interesei erantzuten zietenak.

### 3.1.1. Euskarazko lehen komunikabideak

Euskarak komunikabideetan egin zituen lehen urratsen bila, XVIII. menderaino egin dezakegu denboran atzerantz, baina horrek ez du esan nahi kate bat osa dezakegunik orduetik hona euskara hedabideetara eraman duten ekimen guztiekin. XX. mendera arte, banakako ekimenak izan ziren eta, euskarazko komunikazioan, ez zuten urratu inongo ildorik, geroagoko euskarazko komunikabideren batek jarraituko zionik. Iparraldeko eta Hegoaldeko ekimenak, gainera, kontaktu gabeko errealitate paralelo bi izan dira XX. mendearen erdialdera arte. Nolanahi ere den, gure helburuetarako, nahikoa da gaingiroki berrikustea euskarazko kazetaritzaren historia, 1970eko hamarkadan euskarazko komunikazioa zein egoeratan zegoen jakitun ipintzeko.

Díaz Nocik (2007) eginiko azterketari jarraituz, euskarazko hedabide aitzindari guztietan aipagarriena *Escualduna* da, Baionan argitaratua 1887 eta 1944 artean. Díaz Nocik kaskartzat dauka *Escualdunaren* kazetaritza-eredua eta, batik bat, hizkuntzaren aldetik iruditzen zaio aipagarri —nafar-lapurtera literarioa haren orrialdeetan oratu baitzen—. Gainerakoan, XX. mendeko lehen lau hamarkadetan, euskal kazetaritzaren panorama ordena erlijiosoan aldizkariak eta talde politikoaren prentsak osatu zuten. Agerkari haieetatik, bazen euskara hutsezkoen bat. *Argia* astekaria 1921 eta 1936 urteen artean argitaratu zen, Donostian, euskarazko kazetaritza sendotzeko zinezko ahaleaginean. Euskarazko lehen irratsaioak ere *Argia* hartako bi kazetarik egin zituzten, 1925 urtean, Radio San Sebastián irrati sortu berrian (M. A. Gutiérrez, 2002, or. 26). *Eguna* euskara hutsezko lehen egunkaria, berriz, Bilbon argitaratu zen, 1937ko urtarriletik ekainera, Estepan Urkiaga *Lauxetaren* ekimenez (Díaz Noci, 2007, or. 6).

Horren ondoren, berrogeita hamar urtez —1940ko hamarkadatik 1980kora, biak barne— euskarazko kazetaritza idatziak ez zuen aldizkari formatutik aurrerago egin

(Sarasua, 1996, or. 109–114). Iparraldean *Herria* astekariak bete zuen *Escualdunak* utzitako hutsunea 1944an bertan, eta gaur egun arte iraun du. Hegoaldean, gerraostea igarota, 1954an berriro irten zen plazara *Zeruko Argia*. 1980an jabetza aldatu, eta handik aurrerako ibilbidea *Argia* izenarekin egin du. *Zeruko Argiaren* garai bertsuan, 1953 eta 1982 artean, beste aldizkari bat plazaratzen zen, *Anaitasuna*. Biak argitaratu ziren erlijiosoan lanari eta babesari esker, eta biek jasan zituzten euskal gizartea asaldatu zuten arazoak, besteak beste, agintarien debekuak eta euskara batuaren gatazka.

Euskarazko komunikabide guztien artetik, *Anaitasuna* izan zen euskara batuaren aldeko hauturik garbiena egin zuena (Díaz Noci, 1998, or. 456). Batuko lehen testuak 1970ean argitaratu zituen eta, aurrera egiteko jarrera hartuta, Xabier Kintanaren eta Gabriel Arestiren lanak ezagutarazi zituen, ortografia berria bere egitearekin batera. *Jakin* ere batasunaren bultzatzaile irmoa izan zen eta, 1970eko lehen urteetan, aro emankorra bizi izan zuen (Kintana, 1992, or. 34). 1975erako, Hego Euskal Herriko komunikabide idatzi guztiak euskara batuan ari ziren, baina askok ez zuten modua aurkitu ez elebakartasunaren alde egiteko, ez militantismoaren euskarria alde batera uzteko, eta ez zuten 1980ko lehen urteetatik harago iraun (Díaz Noci, 1998, or. 446). Euskara hutsez, egunero eta Euskal Herri osora heltzen zen lehen kazeta profesionala 1990eko abenduan sortu zen: *Euskaldunon Egunkaria*.

Irratiari dagokionez, Radio San Sebastiáneko irratsaio hari bere lekua aitortuta, euskarazko irrati-tarte aurrendariak 1950eko hamarkadakoak dira, Hego Euskal Herrikoak. Gutiérrezek (2002, or. 54–56) egin duen azterketari jarraituz, tarte aurrendari haiek potentzia txikiko eta estaldura oso mugatuko irrati parroquialetan eskaintzen ziren —ezagunenak, Segura Irratia eta Arrate Irratia—, baserritarrei zuzenduak, haien beharrian erlijioso eta kulturalak asetzeko. Irrati parrokialek bizitza laburra izan zuten eta, haien ordeztu, Eliza Katolikoak COPE katea sortu zuen 1959an. Hego Euskal Herrian, lau irrati atxiki zitzaizkion COPEri: Iruñeko herri-irratia, Bilbokoa, Donostiakoa eta Loiolakoa. 1976ko martxoaren 27an, lau irratiok euskarazko 24 orduko baterako programazioa eskaini zuten, *24 Orduak Euskaraz*, José Ramón Belokik zuzenduta, hainbat kazetari, kultur-eragile eta gizarte-ordezkariren parte-hartzearekin, beste nazio-eskakizun batzuekin batera euskarazko komunikazioa aldarrikatzeko helburuarekin (ibid., or. 70-73).

1970eko eta 1980ko hamarkadetan, euskarazko irratigintzari loturiko ekimen gehienak nekez heldu ziren herri-irratiek urraturiko bidea baino harago. Lehenik, irradi libreak aipatu behar dira, normalean pirata modura hasi zirenak (M. A. Gutiérrez, 2002, or. 104–116). Oso gutxik iraun zuten 1980ko hamarkada baino harago, baina iraun zutenen artean Ipar Euskal Herrian sorturikoak daude, Gure Irratia, Xiberoko Botza eta Irulegiko Irratia, alegia, 1982an Fillioud legeak ekarri zuen egoera berriaz baliatuta agertu zirenak (ibid., or. 120-122). Nafarroakoek ere iraun zuten, baina denek legez kanpo, Nafarroako Gobernuak urteetan behin eta berriro utzi baitzituen maiztasun-banaketetatik kanpo euskaraz emititzeko asmoz aurkezten ziren irradi-proiektuak, Euskal Herria irratia, besteak beste (ibid., or. 132-135). Bigarrenik, irradi komertzialak aipatu behar dira. Ahalegin sinbolikoren bat egin zuten 1980 inguruan, baina laster egin zioten muzin euskarari diru-laguntza publikorik ezean (M. A. Gutiérrez, 2002, or. 72). Gauzak hala, euskarazko irratigintzan aldi berri bat ireki zuen ekimena erakunde publikoen eskutik etorri zen, 1982an, Eusko Jaurlaritzak Euskal Irrati Telebista komunikazio-talde publikoa sortu zuenean.

### **3.1.2. Euskarazko ikus-entzunezko komunikazioaren lehen urratsak**

Euskarazko komunikazioan, 1970eko hamarkadan, borborkada moduko bat bizi izan zen. Euskararen komunikazio-esparrua konfiguratzeko hasia zen, batik bat aldizkarietara esker, eta Hego Euskal Herrikoek —*Zeruko Argia*, *Anaitasuna* eta *Jakinek*—, euskara batuaren hautua eginda, dimentsio nazionalagoa hartu zuten. Uhinetan, Eliza Katolikoak lehendik zeuzkan irratiei estazio libreak gaineratu zitzaizkienean, aukera gehiago izan zituzten entzuleek, eta Euskal Herriko leku gehiagotan. Telebistan ere, orduan izan ziren euskarazko lehen emanaldiak.

Pietikäinen eta Kelly-Holmesek (2011, or. 57–58) Dohaintza aldia deritzote hizkuntza gutxituek irradi-telebistetan egin zituzten lehen agerpenen aldiari, agerpenok estatuaren dohaintza moduko bat izan zirelako. Estatuak, herrialdeko hizkuntza-aniztasuna kudeatzeko beharrari erantzuteko keinu gisa, tarte bat uzten zien hizkuntza gutxituei bere titulartasuneko hedabideetan, eta hizkuntza gutxituek aitorpena eta ikusgaitasuna lortzen zituzten horrela. Euskarazko ikus-entzunezko komunikazioaren aurrekariak

ondo laburbil daitezke deskribapen horren bidez eta, horrenbestez, aurrekari horien denborari —ETBren sorrerak gauzak aldatu zituen arte iraun zuena— dohaintza aldia esango diogu.

Euskarazko ikus-entzunezko komunikazioan, edozelan ere, dohaintza aldiak ezaugarri berezi bat izan zuen beste hizkuntza batzuen kasuaren aldean, alegia, euskarari bi estatutako telebista publikoetan utzi zitzaizkiola tartea. Hauek dira euskarazko lehenengo telebista-emankizunik aipagarrienak (Torrealdai, 1985, or. 12–14):

- 1) 1975eko abendutik 1977ko abuztura, TVEren Euskadiko eskualde-zentroak *Euskalerrria* programa eman zuen; astean behin, ordu erdi. Erreportaje bi eta haurrentzako *Pinpilinpauxa* saiotxoak eskaintzen zituen.
- 2) 1977ko urritik 1983ko martxora, *Al fondo el hombre* asteroko elkarriketa-saioa euskaraz eskaini zuen TVEren Euskadiko eskualde-zentroak hiru asterik behin.
- 3) 1976an, FR3 magazin bat emititzen hasi zen Bordeletik; hamabostean behin, ordu laurden. 1984an, astean behin izatera igaro zuten, eta ordu laurden gehitu zioten euskara irakasteko.
- 4) 1981ean, TVEren Nafarroako eskualde-zentro ireki berriak minutu bateko emanaldia jarri zuen euskaraz egunero.

Halako saioek ez zieten erantzun euskaldun-komunitatearen behar eta nahiei, lehenengo eta behin, oso koiunturalak izan zirelako. TVEren kasuan, keinu moduko bat egin zitzaion euskarari Franco hil ondoren, baina proiektuari profesionalik, azpiegiturarik, hizkuntza-eredurik eta, oroz gain, gogoetarik eskaini barik (Torrealdai, 1985, or. 13–14). Hizkuntza-ereduari dagokionez, azpimarratu behar da TVEko zein FR3ko euskarazko emanaldi haietan euskalkia hautatu zela, alde batera utzita kodifikatzen hasi berria zen euskara batua. Pietikäinen eta Kelly-Holmesek (2011) dohaintza aldian identifikatu duten jarreraren aurka, hortaz, euskarazko lehenengo telebista-emanaldi haiek ez zuten komunitate oso bat —euskaldun-komunitate osoa— ikuspegian.

Bigarrenik, edukiak bigarren mailakoak ziren, besteak beste, haurrentzako entretenigarriak, eta ohitura eta bizimoduei buruzko erreportajeak. FR3k, esaterako, ez zuen aktualitatea lantzen bere magazinean (Torrealdai, 1985, or. 12). Hirugarrenik, gutxieneko duintasuna ere ez zitzaion ematen produktuari hainbat kasutan, ikusleek

isekatzat hartzeraino, TVEk Nafarroan euskaraz eskaintzen zuen minutu hura bezala (ibid.). Urte asko joan dira eta, egun, Nafarroako minutu bateko eredu horretara murriztu ditu TVEk bere emanaldiak Euskadin (Díaz Noci, 1998, or. 446), eta FR3k Iparraldean (Frantziako Estatua et al., 2000, or. 20). Frantziako eta Espainiako telebista estatalek oraindino ere euskarari ematen dioten tratamendua ez doa dohaintza aldiarekin lotzen diren tarte sinbolikoetatik harago.

### **3.2. ZERBITZU ALDIA EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKOETAN**

Legeak ofizialtasuna aitortuta, Hego Euskal Herrian, euskalgintzako eta euskal erakundeetako eragileek estatus berria baliatu, eta euskararen erabilera-esparruak gehitzera eta zabaltzera zuzendu zuten euren ahalegina. Telebistaren arloan, Jose Mari Iriondo, Jose Mari Otermin, Xabier Kintana eta beste euskaltzale batzuen ekinari esker, TVEk *Euskalerrria* saioa aiereratu zuen bi urtez, baina hura ez zen izan euskararentzat ezin esparru irabazteko edo sendotzeko moduko urratsa. Pauso hori estatuaren aldetik etorriko ez zelakoan, bide berriak urratu ziren. Iñaki Beobide kultur eragilea, adibidez, telebista pirata bat antolatzekotan ibili zen, eta EAEko instituzioek, hainbat negoziazio eta aurreproiekturen ondoren, telebista propio bat sortzea erabaki zuten.

Euskal Telebistaren sorrerak, 1982. urtean, munarri bat ezarri zuen ordura arte euskarak ikus-entzunezko komunikazioan egindako ibilbidean, bi arrazoirengatik. Batetik, halako hedabide bat sortzeko bultzada euskal gizartetik zetorren, *24 Orduak Euskaraz* enblematiko hark frogatzen duenez, eta hedabidea sortzeko erabakia eta bitartekoak ere euskal gizartearenak izan ziren, ez estatu batenak edo enpresa batenak. Bestetik, hedabide berriari esleitzen zitzaizkion eginkizunak funtzio sinbolikotik baino askoz harago zihoazen; hedabide berria, EITB sortzeko 5/1982 Legean jaso bezala, informazioaren, hezkuntzaren, kultur sustapenaren eta hizkuntza-normalizazioaren zerbitzura ipini behar zen. Esan dezakegu, hortaz, 1982 hartan aldi berri bat hasi zela euskarazko ikus-entzunezko komunikazioan, ezaugarrietan bat zetorrena hizkuntza gutxituko hedabideen bilakaeran Pietikäinen eta Kelly-Holmesek (2011) bereizten duten zerbitzu aldiaren ezaugarriekin.

ETBrekin batera hasitako zerbitzu aldi hori 2000. urtean amaitu zela esan daiteke, EiTBrren lehen plan estrategikoa indarrean sartu zenean. 2000ko plan estrategiko hark —hurrengo hamarkadetan ikus-entzunezko komunikazioaren esparruan aurreikusten zen testuinguru berrirako prestatua— EiTBr ulertzeko pentsamolde berri bat ekarri zuen, apurka azaleratzen joan zena, askotan pentsamolde zaharraren aurka lehian eta beste askotan nolabaiteko elkarbizitzan. Hori dela eta, zerbitzu aldiari eskainitako atal honetan eta hurrengoetan aztertuko ditugun hainbat gai, hala nola, EiTBr eman beharreko zerbitzuaren zehaztapena, edo ETBrren jardunak behar dituen azpiegituren ezarpena eta garapena, 2000. urte horretatik harago doaz.

Atal honetan, gure arretagune nagusia zerbitzu aldiaren hasiera izango da. Lehenik, euskararen normalizazioaren testuinguruan kokaturik, 1970eko eta 1980ko hamarkaden arteko urteetan euskara komunikabideetara eramateko nahia zertan zen aztertuko dugu (ikus 3.2.1.). Izan ere, Frantziako eta Espainiako hedabide estataletan euskarari eskaintzen zitzaizkion tartek ez ziren euskal gizartearen gogobetegarri. Ondoren, ETBr sortzeko prozesu konplexua deskribatuko dugu, EiTBr osoaren ikuspegia hartuta (ikus 3.2.2.). Komunikabide berria ezerezetik altxatu zen, esan nahi baita berariaz prestatu behar izan zela dena, hasi legeditik eta talde profesionaleraino.

### **3.2.1. Dohaintzatik zerbitzura**

Euskal gizarte eleaniztunean, 1970eko hamarkadaren azken urteetan, telebista estatalek ez zuten behar bezalako erantzuna ematen herritarren premien eta nahien aurrean. Euskararen normalizazioaren lehen aldiari egin zen ikerketa baten arabera, Euskal Herriko familia euskaldunetan, hamar pertsonatik bederatzik telebistan euskarari tokia egitearen aldeko jarrera zuten (Euskaltzaindia, 1979a, or. 132). Toki hori egiteko moduez itaunduta, % 77,3k zioten euskarari eta erdarari tarte berdina eman behar zitzaizela hedabideetan, eta % 6,5ek zioten euskarak bere hedabideak izan behar zituela, eta erdarak, bereak (ibid., or. 133). Familia erdaldunetan, proportzioak aldatu egiten ziren, baina nagusi zen euskarari hedabideetan tokia egitearen aldeko jarrera. Hamar pertsonatik zortziri ondo iruditzen zitzairen telebistan euskarari tokia egitea eta, tokia egiteko moduez itaunduta, % 43,5ek uste zuten hedabideetan tarte berdina eman behar

zitzaiera hizkuntza bie, eta % 23,7k uste zuten egokiagoa zela hizkuntza bakoitzak bere hedabideak izatea (ibid., or. 139).

Ikerketa hartan, balio sinbolikoari loturiko diskurtsoa nabari daiteke euskararentzat nahi ziren hedabideez aritzean: «*hizkuntzaren zabalkunderako garrantzia*» (Euskaltzaindia, 1979a, or. 132), «*euskara ez-euskaldunen aurrean ikusgai egitea, eta euskara berreskuratzeko prozesua azkartzea*» (ibid., or. 139), «*hedabide batzuk euskaraz soilik eta beste batzuk gaztelaniaz soilik izateak euskara behin betiko kondenatuko luke ghettorra eta egoera diglosikora, guztiz desagerrarazteraino*» (ibid., or. 140). Urte gutxiren buruan, berriz, ETB abian zela, euskarazko telebistaren balio pragmatikoaren diskurtsoa zebilen euskaltzaleen artean (Torrealdai, 1985, or. 187–190). Ideia nagusia zen ETBk komunikazio-hizkuntza bihurtzen zuela euskara.

Diskurtso berria bat zetorren 1970eko eta 1980ko hamarkadetan beste komunitate gutxitu batzuetan hedabide propioen sorrera bultzatu zuten eragileen eta erabiltzaileen pentsaerarekin. Pietikäinen eta Kelly-Holmesek (2011, or. 59–60) deskribatu bezala, komunitateak sortutako hedabideok komunitatearentzat ziren, eguneroko bizitza beraren mintzairan egin ahal izateko zerbitzu bat, komunitatea munduan txertatzeko bide bat. Horrez gainera, aldi berean, hedabideok erronka handia ziren hizkuntzarentzat berarentzat, eguneratzea eta terminologia eta adierazpide berriak lantzea exijitzen baitzieten eurek eraturiko ingurune berrian baliagarria izan zedin.

Hortaz, lehenago esan dugunez, ETBren sorrera mugarri bat izan zen, euskarazko komunikazioan zerbitzu aldiaren hasiera formalki markatu zuena; ETB sortuta, posible egin zen guztizkotasun funtzionalaren erronkari erantzuteko urratsak ematen hastea. Erantsi behar dugu, denbora berean, gizartean errotuz zihoan euskarazko zerbitzuen beharraren pentsaera izan zela ETB sortzea ekarri zuena. Pentsaera horrek arrastoa du, oraindino, XXI. mendean euskarazko komunikazioaz erabiltzen den diskurtsoan, Zerbitzu aldia igarotzat eman daitekeen arren. Izan ere, Pietikäinen eta Kelly-Holmesek (ibid., or. 62) ohartarazi bezala, hizkuntza gutxituko ikus-entzunezko hedabideekin loturiko prozesu, eragile eta ideietan, eboluzioak ez ditu beti aurreko urratsak ixten eta, hortaz, gainezartzeak gertatzen dira.

### 3.2.2. ETBren sorrera

1980ko hamarkadaren hasieran, euskara normalizatzeko plangintza antolatuaren lehen urratsetan, nabarmentzekoa da Euskal Telebista oso proiektu konplexua izan zela, eta ez da harrizkoa, hortaz, beraren sorrerari buruzko kontakizunean kutsu epikoa atzematea<sup>12</sup>. Egiatan, zailtasun askori egin behar izan zitzaion aurre, ETB —Euskal Irrati Telebista osoa— ezerezetik sortu baitzen, lehenago ere esan dugunez (Larrinaga, 2007b, or. 84): egoera legala badaezpadakoa zen; erabili nahi zen hizkuntzak hamabost urte ere ez zituen eginda batasunaren eta kodifikazioaren bidean, ikus-entzunezko hedabideetan esperientzia zuten euskaldun profesionalak urriak ziren, eta azpiegiturak berriren berri jarri beharra zegoen. Azpiatal honetan, enpresa eratzeko prozesuan ipiniko dugu arreta.

Lehenik, EAEn euskarazko komunikabide publikoak eratzeko aukera eskaini zuen legeriaz arituko gara (ikus 3.2.2.1.). Legeria horren euskarri nagusia Gernikako Estatutua izan zen; berari esker lortu zuen EAeko administrazioak Estatuko administrazioaren pasibotasuna saihestea euskara hedabideetan bultzatzeari zegokionez. Jarraian, EiTB sortzeko legeak erakunde berriari atxiki zion zerbitzu publikoaren betebeharrak jardungo dugu (ikus 3.2.2.1.). Betebehar horren deskribapenean, euskara sustatzeko eginkizuna ageri da, batzuek lehentasunezkatzat daukatena, eta beste batzuek gainerako eginkizunen mailan ipintzen dutena. Azkenik, EiTBren lehen urteetako garapena deskribatuko dugu (ikus 3.2.2.3.). Enpresa gisa, azpiegiturak eta langile-talde bat prestatu behar izan zituen eta, komunikazio-talde gisa, hainbat kanal abiarazi behar izan zituen irradian, telebistan eta, geroago, Interneten.

#### 3.2.2.1. Lege-euskarria

Euskararen Normalizaziorako Legean xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek aitortua dute informazioa euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea, eta Euskadiko erakundeek, 22, 23 eta 24. artikuluetan, bere egina dute

---

<sup>12</sup> Ikus, esate baterako, Díez Urrestarazuk (2003) edo Otermin eta Díez Unzuetak (2006) zelan azaltzen duten.



EAEko hedabideetan —prentsan, irratian, telebistan, zineman, antzerkian eta ikuskizunetan— euskara sustatzeko erantzukizuna, hizkuntza ofizial bien erabilera parekatu arte. Erantzukizun horri aurre egiteko, Euskal Autonomia Erkidego sortu berrian, hiru aukera jarri ziren mahai gainean telebistari dagokionez (Torrealdai, 1985, or. 21). Lehen aukera Televisión Españolaz baliatzea zen, Madrileko emisio-zentroan prestatuturiko programazioaren hutsarteak euskarazko saioetarako utzita. Bigarren aukera Televisión Españolak hirugarren kanal bat sortzea zen, programazioa euskaraz izan zedin oso-osorik. Hirugarren aukera, telebista arras propioa eratzea.

Gernikako Estatutuak bazeuzkan aurreikusita bigarren eta hirugarren aukerak. Bigarrenari zegokionez, Estatutuaren 19.2 artikulua eta bigarren xedapen iragankorrak ziotenaren arabera, Estatuak EAEko esparrurako hirugarren kanal bat sortuz gero, EAEko erakundeen esku utz zezakeen kontzesio-erregimenean, alde bien akordio baten bitartez. Hirugarren aukerari dagokionez, Gernikako estatutuaren 19.3 artikulua eskumen osoa aitortzen zion erkidegoari bere irrati, telebista, prentsa eta beste edozelako komunikabide propioak arautzeko, sortzeko eta mantentzeko. EAEko agintariek bigarren epealdi baterako pentsatua zuten telebista propio bat antolatzea, lehen epealdian TVEren kanal bien eta abiaraztekoa zen hirugarrenaren bidetik igaro ondoren, baina 1980an negoziazioei ekin zitzaizanean ez TVEk, ez Espainiako Gobernuak aurrera egiteko jarrerarik ez zutela jabetuta, Eusko Jaurlaritzak komunikazio-talde propioa edukitzea erabaki zuen (Torrealdai, 1985, or. 27).

Lehen urratsa, 1981ean, Radio Vitoria erostea izan zen, Estatuaren hertsidura hausteko helburuz (Ibáñez Serna, 1995, or. 48). Izan ere, Gernikako Estatutuak Eusko Jaurlaritzari aitortzen zizkion eskumenak, praktikan, irratiaren kasuan, erabat mugatuta zeuden maiztasun ertainean, Espainiako Gobernuaren ordezkariak esaten baitzuten banda komertzial horretan ez zegoela toki librerik Jaurlaritzari sintonia bat esleitzeko. Radio Vitoria erosi eta hurrengo urtean, Eusko Legebiltzarraren 5/1982 legearen bitartez, Euskal Irrati Telebista herri-erakundea eratu zen, Kultura Sailari atxikia, eta Radio Vitoria bertan integraturik utzi zuen lehen xedapen gehigarriak. Hilabete batzuk geroago, 1982ko uztailean, 157/1982 dekretuaren bidez, Kultura Sailak Euskal Telebista SA sortu zuen eta, 158/1982 dekretuaren bidez, Eusko Irratia SA. Enpresa berri bion akziodun bakarra EITB herri-erakundea zen. Radio Vitoria ere akziodun bakarreko sozietate anonimo gisa antolatua zuen 77/1984 dekretuak.

### 3.2.2.2. Zerbitzu publikoa helburu

Eusko Legebiltzarraren 5/1982 Legeak zerbitzu publikoaren esparruan kokatu zituen beraren bitartez sortzen zen Euskal Irrati Telebista herri-erakundearen eginkizunak. Kontzepzio hori bat zetorren beste komunitate gutxitu batzuek euren hedabide propioak eratzea ekarri zuten ideiekin —zeintzuengatik Pietikäinen eta Kelly-Holmesek 'zerbitzu aldia' izena proposatu baitute—, baina beraren gaineko gogoeta hamarkada bat geroago hasi zen. 2010eko urteetan —euskarazko ikus-entzunezko komunikazioa performantzia aldian dagoela—, EiTbk eman beharreko zerbitzu publikoaren ideiak segitu du gizartean debatea pizten. 5/1982 Legeak honela zioen atarikoan:

«Eskumen hori erabiliz, eta zerbitzu publikoaren funtsezko kontzeptua errespetatuz, lege honen gai diren gizarte-komunikabideak tresna gisa eratzen dira, nahitaezkoak Euskadiko herritarren informaziorako eta parte-hartze politikorako, gure hezkuntza-sistemearekin kooperatzeko, euskal kulturaren sustapen eta zabalkunderako eta, oso aintzat hartzekoa dena, euskararen sustapen eta garapenerako [...]».

EiTb, beraz, EAEko aginte publikoen esku ipintzen zen tresna bat zen, zerbitzu publikoa emateko helburuz. Legeak hiru esparru bereizten zituen zerbitzu publiko horretan: herritarren informazioa eta parte-hartzea, hezkuntza, eta euskal hizkuntza eta kultura. Legearen testu horren interpretazioak, baina, eztabaida bi eragin zituen ia lehen unetik, oraindino itzali ez direnak. Bata zen ea hiru esparruko zerrendatze hura exhaustiboa zen, ala EiTbren zerbitzu publikoak beste esparru batzuk ere uki zitzakeen. Beste eztabaida lehentasunei zegokien: esparru guztiak maila berean zeuden, ala horietako bat, euskararen sustapena, hain zuzen, beste guztien aurretik jarri behar zen?

Euskal Telebistaren hasierako urteetan, emanaldi elebidunek eragin zuten debate publikoan, iritzi-emaile askok euskararen sustapena azpimarratu zuten hedabide berriaren berezko helburutzat, eta ETBren bultzatzaileen asmoei eta legearen letrari aurka egiten zien ezbehartzat jo zuten gaztelaniaren presentzia, Joan Mari Torrealldai (1993, or. 154–155) euskarazko komunikazioaren eragileak bezala:

«Azpimarra dezagun euskararen promozioa eta euskararen erabilpena, biak printzipio-mailan dauzkagula hemen [5/1982 Legean] emanik. Maila bera du, baita ere, gero ikusiko dugun eskaintza orokorra orekatu beharrak. Oso inportantea.

Printzipio fundazional honen izpirituari telebista-sortzaileen gogo eta borondate politikoa erantsi behar zaio. Euskara hutsezko telebista arrunt eta osoa izan behar zuen ETBk, hauen ustetan, sekula lortu ez bazuen ere lortu osoki euskarazkoa izatea, nahiz eta beti izan den antidiglosikoa. (Borondate politiko horren frogak eta testigantzak mila dira)».

Hortaz, hala pentsatzen zutenek zioten euskararen normalizaziorako tresna bat sortzea izan zela euskarazko telebistaren alde jardun zuten bultzatzaileen eta proiektua aurrera atera zuten ordezkari politikoen lehendabiziko asmoa. Iritzi hori zutenen arabera, enpresaren arduradunek bestelako interesak bide zituzten, jatorrizko espirtu hartatik aldentzea ekarri zutenak. Interes haiek gaztelaniazko kanalaren sorrerak atera zituen agerira, Hasier Etxeberria (2000, or. 119) idazlea eta ETBko lehenetako kazetaria izan zenaren iritziz:

«1986garren urtean, Jose Maria Gorordok, orduan Euzko Alderdi Jeltzaleko esperantza zuria zenak, ETB2 sortu zuenetik, ez gara sekula gehiago Euskal Telebista izan. Euskal Telebista Bat izatera pasatu ginen. [...]

Anaia txikia bihurtu ginen. Azpiegitura eta dirua banatu behar izan zen bi kateen artean [...].

Aldaketa kualitatibo handia izan zen hura. Sortze helburu zehatzak zituen Telebisio Publiko izatetik, inguruko telekatea pribatuekin lehiatzera sartu ginen. Ohi denez, txikienak galdu zuen, ETB1ek: ia mutu bihurtu zen gure katea».

Beste jarrera baten arabera, Euskal Telebista eredu jakinik gabe sortu zen, EAEko gizarteak komunikabide propioak edukitzeko zuen eskubidean oinarrituta. Hala defendatzen du Bingen Zupiria (2002, or. 2) kazetaria eta ETBren zuzendari ohia denak:

«Sortu orduko aginte publikoak euskarazko programazio horretan gaztelaniazko albistegi batzuk txertatzeko beharra ikusi zuten. Gero etorri zen bigarren katea sortzeko erabakia eta hizkuntza bakoitzari kate bat ematea. Sorreran gizarte honek komunikabide batzuk edukitzeko zuen eskubidea zegoen, baina eredu jakinik ez».

Kontakizun hori darabiltenen arabera, proiektuari helduleku politiko bat emateko erabili zen euskara, nahiz telebista hark elebiduna izan behar zuela erabakita egon hasieratik, aurrerago azalduko dugunez (3.4.1. azpiatalean). Argudio hori darabil Martin Ibarbia (2002, or. 3) ETBko lehen Programazio zuzendariak:

«Proiektua politikoki jantzi behar zen eta euskarak presentzia handia hartu zuen hura justifikatzeko, nahiz eta euskaraz eta gaztelaniaz izan behar zuela ere esaten zen».

ETBren sorrera hedabide propioak izateko nahiarekin lotzen dutenek bigarren mailakotzat dauzkate informatzea ez diren eginkizunak.

«Gizarte honi lotutako komunikazio taldea behar du [izan EiTbK]. Ez luke inola ere alde batera utzi beharko, beraz, bere helburu nagusia komunikazioa dela, hedabide izatea, alegia; eta bere eginkizun nagusiak informazioa eskaintzea, entretenitzea, gizartean txertatuta egotea eta ahalik eta tokirik gehienetara iristea —Euskal Herri osora, jakina, eta ahal den neurrian mundura—. Zilegi izan liteke, horretarako adostasuna lortuz gero, beste eginkizun batzuk ere eman nahi izatea [...]». (Zupiria, 2013, or. 14)

Hala pentsatzen dutenek komunikazioari ematen diote lehentasun osoa, eta hizkuntza komunikaziorako bitartekotzat baino ez dute.

«Hedabideak ez ditugu ikusi behar —nahiz eta funtzio hori ere bete dezaketen— hizkuntza-normalizaziorako tresna gisara. Komunikazioa dute helburu, eta hizkuntza bitartekoa da». (Zupiria, 2008, or. 330)

Pentsamolde horren arabera, komunikazioan hizkuntza zaintzearen ardurak ikusleengana iristeko arazoak ere sor litzake. Honela zioen Jaime Otamendi (2002, or. 21) Zupiriaren garaian ETBko Albistegi zuzendari aritu zenak:

«KOMUNIKAZIOAREN aldeko apustu garbia egingo nuke. Hizkuntzaren zuzentasunari ez nioke begirik kenduko, baina ez pauso bat besteren atzetik ematea eragozteko puntuan egoteraino [...]. Beharbada oso erratuta nago, baina azken urteotan hizkuntzalariak asko ugarritu direla iruditzen zait, eta hauek hizkuntza lanabes baino gehiago, produktu modura hartzen dutela. Eta nire apustua, hizkuntza lanabes hartuta sortutako PRODUKTUA da».

Zerbitzu publikoaren debatean, euskararen sustapenetik eta komunikabide propioak izateko beharretik haragoko elementuak ere sartu dira. Emilio Guevara (2010) legebiltzarkidea oihartzun handiko batez aritu da, ETBren politizazioaz:

«[...] los nacionalistas, los únicos responsables de que hoy tengamos una televisión vasca politizada, plagada de militantes y activistas del nacionalismo, muy poco competitiva y carísima.

Ahora bien, al hilo de esta pelea política en torno a ETB surge una cuestión de mayor interés: ¿ETB es un servicio público o más bien un ejemplo de intervencionismo público prescindible?».

ETBren lehentasuna komunikazioan jartzen dutenen iritziaren aurka, politizazioaren elementua darabiltenen iritziak, euskal telebista publikoa justifika dezakeen betekizun bakarra euskarari loturikoa da.

«En mi opinión, solo hay un ámbito en el que ETB es necesaria: el euskera». (Guevara, 2010)

Euskal Telebistan gaztelaniarentzako lekua ere badagoela iritzita, batzuek informatzeko helburuan jartzen dute azpimarra, debatea euskaldun-komunitatearen zein euskaldun

erabiltzailearen interesez haraindi eramanda. Ikuspegi horretatik aritu zen Alberto Surio (2011) 2009tik 2013ra EiTbko zuzendari nagusia izan zen bitartean:

«Por eso EiTb tiene pleno sentido como servicio público y [...] su dirección asume una gran responsabilidad: impulsar una radiotelevisión pública de todos, hecha para garantizar el derecho a una información independiente y veraz».

Informazioa kalifikatzen duten hitz horien atzean, EiTbren zerbitzu publikoa birdefinitzeko eta euskaratik deslotzeko programa oso bat atzeman daiteke.

«EiTb ofrece un servicio público a la comunidad que es determinante para asentar en Euskadi un relato de pluralidad democrática tras años de una endogamia cerrada y patrimonialista». (Surio, 2011)

Bizikidetzaren eraikitzen lagunduko lukeen kontakizun plurala osatzeko eta zabaltzeko zerbitzu hori bete dezan, nahitaezkoztat dute EiTbren hedabideek nabarmentasuna izatea gizartean, ez geratzea gutxiengo baten aukera modura.

«El servicio público no puede circunscribirse a contenidos puramente culturales y formativos, si al menos quiere tener influencia social».  
(Surio, 2011)

Euskarazko ikus-entzunezko arloaren eboluzioak zerbitzu aldia gainditu eta beste aldi bati —performantzia aldiari— ekin zion XXI. mendea hastearekin batera, baina, gorago erreproduzitu ditugun iritziak lekuko, EiTbk eman beharreko zerbitzuari buruzko debate publikoa ez zen amaitu. Erakunde-mailan, ordea, Jaurlaritzak eta EiTbk programa-kontratuan aurkitu zuten jarrera ezberdinak uztartzeko tresna (4.2.1. azpiatalean azalduko dugunez): kontratu baten bidez hitzartuko zuten zer zerbitzu emango zuen komunikazio-taldeak indarraldian, eta gobernuak zenbateko finantzazioa bideratuko zuen zerbitzu horretara. Ereduak gorabeherak izan dituen arren, azken konpromisoa 2016-2019 epealdirako da. Baliteke 2017an Eusko Legebiltzarrean EiTbren legea erreformatzeko abiarazi den prozesuak zerbitzu publikoari buruzko kontzeptu eta tresna berriak ekartzea.

### 3.2.2.3. Antolaketa eta azpiegiturak

EiTB sortzea erabakita, erakunde berriak azpiegitura eta instalazio handiak behar zituen, baina beharrezkoagoa zitzaien profesional-talde egoki bat, ondo prestatua alderdi guztietan: hizkuntzan, gorputz-adierazpenean, idazketan eta esataritzan. Egoitza nagusiko obrak egiten ziren bitartean, irrati eta telebista publikoetan arituko ziren aurkezle, antzezle, esatari, erredaktore eta bestelako profesionalei prestakuntza ematea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak eta, helburu horrekin, Irrati eta Telebista Eskola sortu zuen 1980ko udazkenean, Donostian (Larrinaga, 2007b, or. 85). Ikastaroak emateko, aditu-talde zabala bildu zuten, eta, besteak beste, albiste-idazketa, kazetaritzako testuen euskaratzea, lokuzioa eta ahotsaren erabilera landu zituzten. Prestakuntza teknikoari dagokionez, berariazko ikastaroa antolatu zen kazetari, kamerari eta operadoreentzat Jaurlaritzaren Lakuako egoitzan eta, ondoren, Euskal Telebistako lehen langileak izango zirenak Hanburgora bidali zituzten, hamar astez ikasketak osatzera Studio Hamburg-en instalazioetan.

EiTBren egoitza nagusia Durangon altxatu zen, desanexioaren ondoren egun Iurretakoa den Gaztañatza auzoan, Oiz mendiaren magalean, tontor hartan aurkitu baitzuten erdigunerik egokiena EAE osoa estali behar zuen mikrouhin-sarerako (Díez Urrestarazu, 2003, or. 34). Egoitza nagusia —aldi berean emisio-zentroa eta telebistako albistegiaren zentroa ere bazena— 1982ko udazkenean ireki zen, eta Euskal Telebistaren produkzio-zentroa, 1987ko otsailean, Donostiako Miramon auzoan, programagintzarako behar zen azpiegitura guztiarekin (Euskal Irrati Telebista, 1997, or. 80). Euskadi Irratia (EI) eta orduan Euskadi Gaztea zena 1996ko udaberrian ezarri ziren Miramongo zentroan, Donostiako hirigunea utzita (ibid., or. 133).

Euskadi Irratia —Eusko Irratiak ekoitziriko euskarazko lehen irrati-kanala— 1982ko azaroaren 23an hasi zen emititzen, eta ETBk —EiTBren orduko telebista-kanal bakarrak— 1982ko Gabon Zaharrean egin zuen lehen emanaldia. ETBren emisio erregularrak 1983ko abendura hasi ziren eta, 1986ko maiatzean, emanaldiak bikoiztu egin ziren, euskarazko kanal bat —ETB1— eta gaztelaniazko kanal bat —ETB2— bereizita (Ibáñez Serna, 1995, or. 206). Gaztea, gazteentzako irrati-formula musikala, 1990eko martxoan abiarazi zen Euskadi Gaztea izenarekin eta, 1994ko Urteberritatik,

euskara hutsean emititzen du (Euskal Irrati Telebista, 1997, or. 117). Nazioarteko emisioaren lehen esperientzia Galeusca TV izan zen, satellite bidezko kanal bat, 1996ko azken egunean emititzen hasi zena ETBren, TVCren eta TVGren elkarlanaren emaitza gisa (Euskal Irrati Telebista, 1997, or. 135). Galeuskak handik urte eta erdira amaitu zuen emisioa, telebista bakoitzak bere nazioarteko kanala abiarazi zuenean. Interneti dagokionez, EiTbK 1996ko abenduan erregistratu zuen bere lehen domeinua, eitb.com.

Nazioarteko hedapena garrantzitsua izanda ere, are garrantzitsuagotzat jo behar da EiTbren emanaldiek euskararen komunikazio-eremu osoa hartu zutela aireratu eta urte gutxira. ETBri dagokionez, beraren emisioa 1988an heldu zen Nafarroara eta Ipar Euskal Herrira, Iruñeko eta Baionako ordezkariak ireki ziren aldi berean (Díez Urrestarazu, 2003, or. 100–101). Horretarako, beharrezkoa izan zen errepikagailuak ezartzea eta, Nafarroan bereziki, erakundeek jarritako zailtasunak eta agerturiko aurkakotasuna gainditzea. Eragozpenei aurre egiteko eta eginbeharrak betetzeko eginkizuna euskararen eta euskal kulturaren arloko hainbat elkartek hartu zuten euren gain, Nafarroan argudio biri eutsita, Nafarroa osorako telebista bat behar zela, eta Nafarroan euskarazko telebista bat behar zela (Torrealdai, 1985, or. 152–156).

### **3.3. EUSKARAREN ESTATUS-PLANGINTZA ETA ETB ZERBITZU ALDIAN**

1980ko urteetan, euskarak Hego Euskal Herrian lortutako ofizialtasunari esker, eta EAEko aginte publikoek estatus berri horretan pausoak emateko agertu zuten borondateari esker, euskara presenteago egin zen euskal gizarte osoan, eta transmititzeko eta erabiltzeko aukerak ugartu egin ziren. Hamarkada batzuk lehenago ezkutuan iraun behar izan zuen euskaldun-komunitateak beretzako zerbitzu-eskaintza bat aurkitu zuen hezkuntzan, aisialdian, osasun-arretan eta komunikazioan, eta euskara, Espainiako Gerra Zibilaren ondorengo garaian hiztun askorentzat estigma izan zena, harrotasunez erabiltzen hasi ziren herritar asko. Euskararen estatusaren bilakaera horretan, Euskal Telebista izan zen elementu esanguratsuenetako bat, atal honetan ikusiko dugunez.



Hasteko, ETB sinbolo bat izan zela esango dugu, gizarte osoaren aurrean ikusgai egin zuena euskararen estatus berria (ikus 3.3.1.). ETBren emanaldiek euskara garaiko bizimoduan txertatuta zegoela irudikatu zuten, eta aldaketa garrantzitsua eragin zuten euskarari eta euskaldunei buruzko estereotipoetan. Estatus-plangintzaren ikuspegitik, nabarmendu beharra dugu, halaber, ETB sortzea urrats erabakigarria izan zela euskarak komunikazio-arloa irabaz zezan. Pantailara eramanez, euskaldunei erakutsi zien beraien hizkuntza baliagarri izan zitekeela hedabideetan informatzeko, entretenitzeko, lan egiteko eta eguneroko bizitzako beste hainbat helburutarako. Telebistako pantailatik harago ere, ETB eragile eta bultzatzaile garrantzitsua izan zen euskarazko komunikazioa sendotzeko. Batetik, industria bat sorrarazi zuen bere inguruan, euskal ikus-entzunezko industria (ikus 3.3.2.). Bestetik, ETB —Euskadi Irratiarekin batera— funtsezkoa izan zen euskararen komunikazio-esparruak guztizkotasuna, irismen nazionala eta izaera profesionala lortzeko prozesuan (ikus 3.3.3.).

Azken azpiatal bi horietan, Euskadiko ikus-entzunezko industriari eta euskararen komunikazio-esparruari buruzko kontakizunean, 2010eko hamarkadaren erdialdera arte helduko gara, baina ikuspegia berbera izango da denbora guztian, alegia, zer zerbitzu eskaintzen zaion komunitateari komunikazioaren esparruan. Izan ere, XXI. mendean euskarazko komunikazioan beste kezka eta pentsaera batzuk aurki daitezkeen arren, hala nola, parte-hartzea eta interakzioa, instituzioetan —enpresa, elkarte eta erakundeetan—, oraindino ere, komunitateari zerbitzua ematea da beraien helburu eta eginkizun nagusia.

### **3.3.1. ETBren balio sinbolikoa**

Euskararen historian, Euskal Telebistaren agerpena balio sinboliko handiko ekimena izan zen, bertakoen eta kanpokoek hizkuntza-jarrerak aldatzen lagundu zuena. Euskaraz ziharduen telebista baten sorrera ez ezik, ETBk lehen garaian aurrera eramandako hainbat ekimen ere oso lagungarriak izan ziren jarrerak eta iritziak gainditzeko, euskaldunei buruzko estereotipoak batik bat. ETBk berak eragindako inpaktutik hasita, euskara bizitza modernoan txertaturik zegoela irudikatzen zuen.

«Telebistari esker, Marconi Galaxian, oraingo modernitatean, eskubide osoz eta ate handitik sartzen da euskara. "Orain dute phorogatu / engainatu zirela" euskara mundu modernorako ez zela gai uste zutenek. Zeren eta "orai ezta edireiten / heuskararen parerik".

Inprimategiak 1545ean eta Telebistak 1983an, bitarteko tekniko hutsak izanik ere, lehen mailako garrantzia hartzen dute hizkuntza minorizatu eta "atzeratu" baten bizit[z]an. Bai, telebistak "heuskarari eman dio / behar duen thornuya"». (Torrealdai, 1985, or. 187)

Modernotasun-irudia erakusteko aukera (*tornu*) horretaz gainera, ETBk mundu osoaren bistan ipini zuen euskara komunikazio-tresna baliagarria zela, estereotipo asko gezurtatuz:

«Gaur normaltzat dauzkagun bi gauza horien argazki normaldua ematen, euskara izan badela eta gainera zernahitarakoa dela, asko lagundu du ETBren jarduerak». (Etxeberria, 2000, or. 118)

Hizkuntza-jarrerak aldatzeko, oso garrantzitsua izan zen euskara zernahitarako hizkuntza zela frogatzea, baina ez garrantzi txikiagokoa euskararen alderdi soziala agerraraztea. Euskal herrietako festak, bertsolari-saioak, ikastolen aldeko jaialdiak edo pastoralen emanaldiak pantailaratuz, euskara denbora-pasa izan zitekeela erakusten zen, euskararen inguruan lagunak eta ezezagunak elkartzen zirela, eta euskarak edozein espazio publiko okupa zezakeela. Aldi berean, telebistan, euskal kulturaren espresioek gizar-tean erreproduzitzen jarraitzeko mekanismo bat gehiago aurkitu zuten. *Hitzetik Hortzera* saioa, adibidez, bertsolaritzaren bultzagarri garrantzitsua izan da azken hogeitun urtean, nahiz eta, Siadecok (1995a) nabarmendu bezala, telebistak bere "morrontzak" ezartzen dituen (esate baterako, bertso onak bakarrik aireratzen dira).

ETBren lehen garaian hizkuntza-jarreraren aldaketan eragin zuten faktoreen artean, azpimarragarria izan zen, halaber, pertsona ezagunak pantailan euskaraz berbetan agertzea, esaterako, *Firin Faran* debate-saioan. Programa hasi zenean, zailtasun handia izaten zen astero politikaz eta aktualitateaz ondo argudia zezaketen solaskideak programara joateko prest aurkitzea, baina *Firin Faranen* biltzen ziren aitzindari apur

haiek, euskaldun isilkor eta *showrik* ez egiteko zalearen irudia suntsitu, eta bidea urratu zieten ondoren etorri diren beste eztabaida-saio askotako iritzi-emaile eta adituei, Aldamiz-Etxebarria saioaren zuzendari eta aurkezleak baieztatu bezala (2015ean komunikazio pertsonal batean).

ETBk ekoizitako telesailetan ere, euskaldunen eta euskal komunitatearen gaineko hainbat estereotipo atera ziren agerira, ez istilu barik. Esate baterako, *Benta Berri* umorezko telesailean Euskaltzaindiaren batzarrei buruzko esamesa baten oihartzuna gag batera eramateagatik, hainbat euskaltzainek kritika oso saminduak eta latzak egin zituzten ETBren aurka (Artime & Portell, 1997): ETBko langile askok gaizki hitz egiten zutela euskaraz; ez zutela ezer irakurtzen; ETBren programazio gehiena telezaborra zela, eta ia-ia euskaldun izateari traizio egin zitzaiola. Beste gizarte-eragile batzuek, ordea, euskal komunitateak behar zuen normalizazioaren seinale moduan ulertu zuten telesailarekin gertatutakoa. Honela zioen Mikel Elorza (1997) *Euskaldunon Egunkariako* iritzi-emaileak:

«Umorea gauza sanoa da, eta adar jotzea are sanoagoa. Beharrezkoa. Gainera, ukiezinik ez dago; denek merezi dugu bizitzan gutxienik txiste edo bertso-ziri bat. Euskaltzainek ere bai».

Izan dira, edozelan ere, ETBri estereotipoetan eta aurreiritzietan jaustea egotzi diotenak. Fermin Etxegoien (1996) telebista-kritikariaren arabera, ETBk ikusle-mota jakin bat («*Arralde bezalako herri bateko biztanlea*») zuen gogoan ETB1eko programazioa prestatzeko orduan, eta beste mota jakin bat («*euskalduntasun izpirik ere ez duen erdaldun hutsa*»), ETB2koa prestatzeko orduan. ETBren arduradunek, ordea, bestelako kategoriak erabiltzen izan dituzte programazioaren analisisetan. *Goenkale*-z mintzatzean, esate baterako, «*senideren bat euskalduna ez den familiak*» eta «*euskaldun berriak*» aipatzen zituzten (Ordóñez, 1998).

### **3.3.2. Euskadiko ikus-entzunezko industria**

1980ko hamarkadaren hasieran, ETBk inguruko hizkuntza handien mailarantz jaso zuen euskara komunikazioari zegokionez baina, telebista-zerbitzu hura eskaintzen segitzeko, eta beste batzuk agertzea eta garatzea ahalbidetzeko, beharrezkoa zen ikus-entzunezko

sektore baten euskarria. Sektore hori ETBri esker sortu zen. Hasteko, ETBk altxatu eta antolatu zuen lehen azpiegitura, eta beste azpiegitura batzuk era zitezen arduratu zen, bultzagile-rola jokatzuz eta finantzazioa bideratuz. Horrez gainera, talentuaren, hau da, giza baliabideen prestakuntza eta garapena sustatu zuen, euskarak ikus-entzunezkoetan irauteko berme gisa.

Euskadiko ikus-entzunezko sektorea aztertu zuen liburu zurian (Eusko Jaurlaritza, 2003, or. 58–60) jasota dagoenez, 1960ko hamarkadan, euskal kultur sortzaileak jabetu ziren euren ekoizpena industria —kultur industria— bihurtu behar zutela, nazioartetik eta estatutik zetozen fluxuen aurrean iraun ahal izateko, eta arlo batzuetan, hala nola, arte plastikoetan eta pop musikan, arrakasta lortu zen. Edozelan ere, musikagintza kenduta, nekez lortu zen kultur industria horretan euskarari eta euskal kultur elementuei lekua egitea, eta kontsumitzaileek eurek, gainera, alde batera utzi zuten euskara, oso nabarmenki masa-komunikazioan. Testuinguru horretan, euskal zinemagintzak loraldi moduko bat izan zuen Franco hil osteko urteetan baina, esandakoaren haritik, ia-ia gaztelaniaz baino ez zuen produzitu eta, edozelan ere, urte oparo haietako ekoizpena ez zen nahikoa izan Euskal Herrian ikus-entzunezko industriarik finka zedin.

EiTBk harro baina kezka ohartarazi bezala —ikus nola kontatzen den lehen plan estrategikoan (EiTB, 2000, or. 60)—, ikus-entzunezko sektorea berari lotuta eratu zen Euskadin; berak egin zuen produkzio guztiaren «*indar zentripetoa*». Lehen azpiegitura ETBrena izan zen, eta ETBtik kanpo altxatu zena ETBk sustatu zuen. Hala, komunikazio-taldea sortu zenean, besterik ezean, EiTBk berak bete behar izan zituen industria horretako balio-katearen maila guztiak (sorkuntza, ekoizpena eta banaketa) (Zallo, 2003, or. 23). EiTBtik kanpo, bikoizketa izan zen bidea urratu zuen jarduera. Euskarazko bikoizketaren historian (Larrinaga, 2007b) jaso dugunez, lehen estudioa, Eresoinka, 1982an ireki zen, Donostiako Irrati eta Telebista Eskolaren barruan taxutzen hasia zen bikoizketa-azpiegituraren garapena Eusko Jaurlaritzak ekimen pribatuaren eskuetara igarotzea bultzatu zuenean.

Urte hartan bertan, Galdakaon beste estudio bat sortu zen eta, 1986an, K2000 izena hartuta, produkzio-etxe ere bihurtu zen. Enpresan ziharduten hainbat profesionalak nahiago izan zuten bikoizketaren arloan bakarrik jarraitu eta, 1985ean, Edertrak

estudioa sortu zuten Bilbon. K2000k krisian murgildu zen 1992an, eta enpresa uztea erabaki zuten langile batzuek Tinko elkarte sortu zuten, euskara zinema-aretoetan sustatzeko helburuarekin. Behar zituzten bikoizketak egiteko, REC estudioa antolatu zuten 1996an. ETBk bikoizketa-zerbitzua kontratatzeke lizitazioa atera zuenean, 2004an, Irusoinen bikoizketa-atalak eta Edertrackek bat egin zuten, Mixer izenarekin, eta lizitazioa euren estudio berriari esleitzea lortu zuten. Harrezkero izan diren beste hiru lizitazioak ere Mixerrek irabazi ditu; azkena, 2018an.

Lehen aldi hartan, EiTBk bere beharrizan gero eta handiagoak esternalizatzeak industri sare gero eta handiagoa eratuz joatea ekarri zuen. Horri esker, ETBn ez ezik, ETBren inguruko produkzio-etxeetan ere, profesional euskaldun askok euskaraz lan egiteko aukera aurkitu dute. Hain zuzen ere, profesionalek —euskaldunak eta euskaldunak ez direnak— osatzen dute Euskadiko ikus-entzunezko industriaren indargunea, EiTBk (2000, or. 61) bere lehen plan estrategikoan azpimarratu bezala. ETBren historiako programa ikur asko Euskadiko profesionalen irudimen eta jakintzak sortuak dira. Euskarazkoetan, aipagarri dira *Goenkale*, *Euskal Herria lau haizeetara*, *Betizu* edo *Martin*. Euskal talentuaren erakusgarri, programa horietako batzuen formatuak beste telebista batzuei saltzea lortu da, esate baterako, *Mihiluze* eta *Oh happy day*. Nolanahi ere den, aintzat hartu behar da saio horiek sortu dituen talentuaz —profesionalerik— ari garenean, aurkezleak, aktoreak eta gidoilariak baino gehiago ditugula gogoan, Odile Kruzeta (2008, or. 250) EiTBko zuzendaritzan hainbeste arduratzen izan dituenak azpimarratu bezala:

«Euskarazko ikus-entzunezko erakargarriak lortzeko, batik bat telebistako fikzioaren munduan, haren oinarritzko industriak ere sendo egon beharko du: gidoigileak, aktoreak, zuzendariak, musikariak, showman-showomanak, bikoiztaileak. Beraz, ikus-entzunezkoen aldeko apustua egiterakoan, estrategia integral bat pentsatu eta prestatu behar da inguruko industria aintzakotzat hartuta».

Estrategia integral horren parte bat formazioa izan behar zela ulertu zen eta, hala, EiTBk (2007) bere bigarren plan estrategikoan prestakuntzara zuzendutako ekintzen beharra jaso zuen. Talentua formatu beharra azpimarratzen zen eta, horrekin batera, ekipoen

arduradunek pertsonen eta baliabideen kudeaketan prestakuntza behar zutela. Plan estrategikoak, enpresako talentuaz gainera, euskal ikus-entzunezko sektore osoko profesionalak hartzen zituen aintzat, horientzako ikasketa- eta formazio-programetan kolaboratzaile-eginkizuna egotziz EiTBri. Eginkizun hori, neurri batean, sektoreko klusterraren bitartez eraman da aurrera urteokaz.

Kluster horren premia 2000ko hamarkadaren hasieran atzeman zen. Alde batetik, Euskadiko ikus-entzunezko industriaren fakturazioak inflexio-puntua izan zuen 1993an (Eusko Jaularitza, 2003, or. 73). Urte hartan, telebista pribatuak agertu ziren, eta ETB produktu lehiakorragoak eskatzen hasi zitzaion Euskadiko ikus-entzunezko industriari. Halako produktuetarako zeukan aurrekontua, ordea, murriztuz zihoan aldi berean. Beste alde batetik, Euskadin, ikus-entzunezko industria oso atomizatuta zegoen eta enpresa gehienek EiTB zuten bezero bakartzat; etorkizunari begira, enpresek kudeaketa-eredu lehiakorragoa ezarri behar zuten, eta kanpora zabaltzeko estrategiak zehaztu (ibid., or. 71). Aginte publikoen aldetik, EiTB izango zen sektorea berrantolatzen laguntzeko bitartekoa. Horretarako, esternalizatzen segitzea eskatzen zitzaion, jarduera pribatuari behar bezalako bolumena emateko, eta, horrez gainera, azpiegiturak eta ekipamendua partekatzea, Euskadiko produkzioen barruko zein kanpoko banaketa erraztea, eta formatu eta proiektu berrien garapenean laguntzea (ibid., or. 126-127).

Sektorearen berrantolaketan urrats gehiago emateko, 2004. urtean, EIKEN Euskadiko ikus-entzunezkoen klusterra eratu zen, foro bakarrean bil zitezten produkzio-enpresak, balio-kateko beste eragile batzuk —hala nola Euskaltel— eta EiTB bera (EIKEN, 2014). Berrantolaketaren ardatz nagusi modura, nazioarteko zabalkundea, berrikuntza eta kooperazioa ipini ziren eta, horiekin batera, talentuaren formazioa. Interes enpresarialak babesteko helburuarekin, euskal ikus-entzunezko sektorean, beste elkarte batzuk sortu dira. Aipagarrienak, EPE/APV eta IBAIA produktore-elkartek, zeintzuekin ETBk hitzarmena sinaturik baitauka zinemagintzan inbertitu behar duen dirua zelan banatu adosteko (A.E., 2013).

Neurri batean, ETBren bokazioa euskal ikus-entzunezko industria sustatzea da baina, zinemari gagozkiola, ezin utzizko eginbeharra da Europar Batasuneko legeriak telebistei ezartzen dizkien produkzio-kuotak errespetatzea. Euskadiko produktoreek auzitara

eraman nahi izan zuten ETB 2004an kuota horiek ez betetzeagatik, eta konponbidea hitzarmena sinatzea izan zen, lehena 2005ean. Funtsean, kontratu hartan eta hurrengoetan, ETBri dagokion partea finantzazioa da, zeren proiektuak onartzeko edo errefusatzeko irizpideak teknikoak baitira soilik —hala nola, aurrekontuaren ehuneko jakin bat EAEko ekipoen kontrataziora bideratzea, Gizarte Segurantzako ordainketak egunean eramatea, edo produkzio-enpresa ondo tinkatuta egotea (ETB, IBAIA, & EPE/APV, 2008)—, aintzat hartu barik ETBren estrategiak edo programazio-beharrak. Euskara ikus-entzunezko arloan normalizatzearen argudioarekin, pelikulen gutxieneko kuota bat euskaraz sortu beharra ezarri da hitzarmen guztietan. Horri esker, 1980ko urteetan euskarazko zinemagintza abiarazteko eta 1990eko urteetan berori iraunarazteko izan ziren saiakera hutseginen ondoren, euskarazko produkzioak jarraipena lortu du eta, hori baino garrantzitsuagoa, inpaktua ere bai, *Loreak*, *Handia* eta beste hainbat lanekin (filmen datu zehatzak 2. taulan kontsulta daitezke).

Euskarazko bikoizketa, ordea, gainbehera etorri da. Batetik, Euskal Telebistak enkargatutako bikoizketa-orduetan, murrizketa zorrotza gertatu da (M. Aranburu, 2013). 1980ko hamarkadan, ETBk 1.800 ordu bikoizten zituen euskarara urtean. 1990eko hamarkadaren erdialdean, urteko 1.000 ordura jaitsi zen bolumena. 2009-2012 artean, 450 ordu bikoiztu ziren urtean, eta 2013an, 100 ordu baino ez. Bestetik, ETBtik kanpo, murrizketa hein berekoa izan da. Bikoizketaren hasierako urteetan, Euskal Telebista zen bezero bakarra baina, geroago, beste batzuk agertu ziren (Larrinaga, 2007b): Eusko Jaurlaritza, zinema-banatzaileak, elkarte pribatuak eta Donostiako Zinemaldia. Horietatik guztietatik, egun, Jaurlaritzaren Zinema Euskaraz programak baino ez dirau: 2014an, 4 filmen eta 8 marrazki-film luzeren bikoizketa lagundu zuen diruz, alegia, 20 ordu baino gutxiago (Zineuskadi, 2014a, 2014b, 2014c).

### **3.3.3. ETB eta euskararen komunikazio-esparrua**

Aurreko azpiatalean azaldutakotik ondoriozta daitekeenez, Euskal Telebista barik ez zatekeen ikus-entzunezko industriarik izango Euskal Herrian —ez euskaraz, ez beste hizkuntza batean—; gehienez ere, Madrilerako edo beste produkzio-gune handi batera begirako ekoizpen-etxeren bat edo bikoizketa-estudioren bat sortuko zen. Modu berean,

Euskal Irrati Telebista barik, nekez izango zukeen euskarak komunikazio-esparrurik, ez, behintzat, idatzitik harago. ETB, Euskadi Irratiarekin eta Gaztearekin batera, berealdiko elementua da euskaldunen komunitateari informazioa, ezagutza, norbere ahotsaren oihartzuna eta entretenimendua eskaintzen dizkioten hedabideen artean. Horrez gainera, euskararen komunikazio-esparru osoari eusten laguntzen du, besteak beste, azpiegiturak eta giza baliabideak profesionalizazioaren ildorantz eramanez, eta herritarrak euskarazko produktuen kontsumora erakarriz.

Jarduera horien zehaztasunak jasotzeko helburuz, euskararen komunikazio-esparruaren deskribapena egingo dugu. Lehenik, komunikazioaren alorrean euskaraz egiten den eskaintzan jarriko dugu arreta (3.3.3.1.), eta ETBk —EiTBk, oro har— zer parte duen aztertuko dugu, guztizkotasunaren baldintza aintzat hartuta. Bigarrenik, euskarazko esparruaren ezaugarri nagusiez arituko gara (3.3.3.2.), eta ETBk esparrua bilbatzeko eta sendotzeko zer garrantzi duen aztertuko dugu. Azkenik, euskarazko hedabideak zenbat erabiltzailerengana heltzen diren jakiteko datuak bilduko ditugu (3.3.3.3.) eta, berriro ere, Euskal Telebistak euskarazko komunikazioaren bizindarrari egiten dion ekarpenean jarriko dugu arreta.

#### 3.3.3.1. Guztizkotasuna euskararen komunikazio-esparruan

Ikerketa honetako marko teorikoaren deskribapenean agertu genuenez, Moringek (2007) nahitaezkoztat jotzen du komunikazio-eskaintzak guztizkotasun instituzionalaren eta genero-guztizkotasunaren baldintzak betetzea, komunikabideek komunitate gutxituari eguneroko bizitza bere hizkuntzan egitea ahalbide diezaioten eta, horrenbestez, hizkuntza gutxituaren normalizazioan baliagarri izan daitezen. Baldintza bietako lehena betetzeko, mota guztietako hedabideak eta plataformak izan behar ditu eskura hizkuntza-komunitateak. Hedabide-mota bakoitzean, gainera, genero-guztizkotasunaren baldintza beteko bada, formatu eta genero guztiak eskaini beharko dira.

Azken hogeita hamar urteetan euskarazko komunikazioaren arloan egin diren ahaleginak guztizkotasun hori lortzera eta zaintzera zuzendu dira. Mende berrian, hedabideen erabiltzaileek ikuspegi eta beharrian berriak dituzte, zerbitzuaren eta



gutzikotasunaren ideietatik oso aldenduak, baina euskaldun-komunitateak, horretan salbuespena ez delarik, ahalegin handia egiten du oraindino era guztietako komunikabideak eta generoak ziurtatzeko. Euskararen komunikazio-esparruan guztikotasuna lortzeko eta zaintzeko ahaleginei kanpotik ipini zaizkien oztopoek agerian uzten dute ideia onartua dela komunitate gutxitu batentzat funtsezkoa dela beraren komunikazio-esparrua edukitzea eta esparru hori behar bezala hornituta egotea. *Euskaldunon Egunkaria* itxiarazi zuen auzibidea, esate baterako, gako horrekin interpretatu zuten Euskal Herrian Euskararen Aholku Batzordeak (Deia, 2003), Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak (M. Jauregi, 2003), *Egunkariako* langileek euren (Gara, 2003) eta beste hainbat gizarte-eragilek.

Euskararen iraupenerako beraren komunikazio-esparruan guztikotasunaren baldintza betetzea funtsezkotzat hartzen dela ezarrita, deskribapena egiteko, guztikotasun instituzionalari helduko diogu lehendabizi. 2010eko hamarkadan kokatuko gara, eta lau arlo bereiziko ditugu: prentsa, irratia, telebista eta Internet. Lauretan, pisu handia dute hedabide lokalek (arloan bakoitzeko kopuru zehatzak 3. taulan kontsulta daitezke).

Prentsari dagokionez, Euskal Herrian, hamar egunkari argitaratzen dira guztira, frantsesez, gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzen direnak batuta, eta, horiekin batera, hamarkadaren hasieran, kanpoko egunkari batzuek bazuten berariazko euskal edizioa. Egunkari guztion artean, bakarra da Euskal Herri guztirako eta osorik euskaraz: *Berria*, 2003an sortua herri-ekimenez, urte berean itxiarazi zuten *Euskaldunon Egunkariaren* oinordekotzat jo daitekeena. *Berriak* kazeta lokalak ateratzen ditu egunero Euskal Herriko hainbat eskualdetan, *Hitza* izen generikoarekin. Euskal Herrian zabaltzen diren erdarazko egunkarrietan, euskara ez da heltzen % 20ko presentziara eta, horrez gainera, gai eta sekzio jakinekin lotuta agertu ohi da (Arana et al., 2010, or. 35). Asteroko gehigarrietan, ordea, badira batzuk oso-osorik euskaraz direnak, esate baterako, *Ortzadar* —*Deia*-k eta *Noticias* taldeak 2007tik ateratzen dutena— eta *Zabalik* —Vocentok 1999tik 2005era atera zuena—.

Euskarazko astekariak bi dira, *Argia* (euskarazko prentsaren dekanoa, 1919an sortua) eta *Herria* (Iparraldeko hiru herrialdeetan zabaltzen dena). Orotariko informazioa jorratzen dute biek, euskaraz kaleratzen diren toki-kazetek bezala. Euskarazko aldizkari

espezializatueta, ehun bat izen aurki daitezke, gai oso ezberdinetara zuzenduta, hala nola, gazteak, zientzi dibulgazioa, hezkuntza, erlijioa eta literatura. Euskal Herrian erdaraz argitaratzen diren aldizkarietan, euskarari egiten zaion lekua anekdotikoa da, erakunde publikoek argitaratzen dituzten agerkari ofizial elebidunak alde batera utzita (Arana et al., 2010, or. 35).

Irratira aldatuta, Ipar Euskal Herrian, Frantziako hiru irrati-talde publikoak sintoniza daitezke —*Radio France, RFO* eta *Radio France Internationale*—, hiru irrati-talde pribatuak —*Europe1, RTL* eta *NRJ*—, eta hainbat eta hainbat elkarte-irradi. Hego Euskal Herrian, alde batetik, irrati publikoak daude: EiTbren bost kanalak —*Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria, Gaztea* eta *EiTB Musika*— eta RTVEren beste bostak. Beste alde batetik, eskaintza komertzialean, talde multimedia handien irrati-kateak dira nagusi —*SER, Onda Cero* eta *COPE*—, eta badira, horrez gainera, irrati lokalak. EiTB Taldea salbuetsita, irrati publikoek eta irrati komertzial handiek ez diote euskarari lekuri uzten. Horrenbestez, oso esparru murrizta geratu da euskararentzat: irrati lokalak —batzuk publikoak, beste batzuk komertzialak, eta beste batzuk elkarteetakoak—, irrati komertzial txikiak —besteak beste, *Bizkaia Irratia* eta *Euskalerrria Irratia*— eta EiTBren irratiak —*Gaztea* eta *Euskadi Irratia*—. Euskaraz, guztira, 20 bat kanal dira, baina Euskal Herri osora heltzen diren bakarrak, *Gaztea* eta *Euskadi Irratia*.

Telebistaren panoramak irratienaren antza du. Alde batetik, telebista-talde publikoak daude, bai Iparraldean —*RTF*—, bai Hegoaldean —*TVE* eta *ETB*—. Bestetik, telebista komertzialak daude, audientziarik handienekoak direnak bai Iparraldean —besteak beste, *TF1* eta *M6*—, bai Hegoaldean —besteak beste, *Tele5* eta *Antena3*—. Telebista lokalak, azkenik, publikoak, pribatuak edo elkarteetakoak izan daitezke. Guztira 60 bat izatera heldu dira Euskal Herrian eta, Arana, Amezaga & Azpillagak (2010, or. 21) diotenez, ETBrekin batera, eginkizun garrantzitsua dute ikus-entzunezko eskaintza Madriletik eta Parisetik heltzen diren emankizunen menpekotasunetik askatzen, batik bat mende berriak satelitearen eta kablearen bidez har daitezkeen kanalen kopurua hainbeste handitzea ekarri duenetik. Hizkuntzaren arloan ere, ETBri eta telebista lokalei esker hausten da frantsesaren eta gaztelaniaren erabateko nagusitasuna, Parisetik eta Madriletik heltzen diren kanalek ia ez baitiote lekuri egiten euskarari. ETBk kanal bi ditu oso-osorik euskaraz —*ETB1* eta *ETB3*— eta, euskarazko eskaintza lokalean, aipagarri dira *Goiena Telebista, Xaloa Telebista, Kanaldude* eta *Hamaika Telebista*.

Azkenerako geratu dira Interneteko hedabideak. Egun, Euskal Herrian ekoizten diren hedabide guztiek gune bat dute sarean, baina gehienek leku marjinala baino ez diote eskaintzen euskarari, lekurik eskaintzekotan. Komunikabide publikoen webguneetan euskarazko bertsio bat egon daiteke —*eitb.eus/eu*—, erakunde eta organismo publikoen guneetan ohi denez. Euskara hutseko informazio-webguneei dagokienez, badira hedabide konbentzionalen atariak —*berria.eus, goiena.eus*—, paperezko aldizkarien edizio elektronikoak —*Elhuyar, Argia, Hitza*—, onlineko albistariak —*Sustatu, Erabili, ZuZeu*—, era guztietako blogak, eta Interneteko hedabide lokalak.

Azpiatal honetan eman ditugun kopuru guztiak batuz gero, guztira, euskarazko hedabideak ia berrehun dira, eta mota guztietakoak aurki daitezke. Jauzi kuantitatibo eta kualitatibo handia dago Euskal Telebista sortu zen garaitik hona. Azpimarratzekoa da jauzi horretan komunikazio publikoaren sektore guztietara heldu direla hedabide nagusiak —*major media* deritzenak, eduki orokorrak, zabalkunde orokorra, eta eguneroko edo asteroko maiztasuna dutenak—, eta, Fernandez-Astobiza eta Zabaletak (2017) diotenez, horrek esan nahi du euskarazko komunikazio-esparruak baduela gutxieneko egitura, eta egitura horrek egonkor iraun duela azken urteetan. Edozelan ere, inguruko hizkuntzen komunikazio-esparruekin konparatuz gero, urriagoa da, aukera bakarreko eskaintza egiten baitie euskaldunei toki-hedabideen mailatik gora (Larrarte, 2005, or. 129). Interneten nonahikotasuna aintzat hartu gabe, gutxieneko egitura osatzen duten hedabide nagusiak lau dira: prentsan, *Berria* egunkaria eta *Argia* astekaria; irratian *Euskadi Irratia*, eta telebistan, *ETB*, azken biak EiTb Taldearenak.

Euskaraz aurki daitezkeen komunikabideak deskribatuta, genero-guztizkotasunari helduko diogu orain, baina telebistaren arloa eta, zehatzago esanda, Euskal Telebista bakarrik aintzat hartuta. ETBk orotariko eskaintza egiten du bere kanal nagusi bietan, ETB1en eta ETB2n, eta, bakoitza genero jakin batzuetan espezializatuz joan dela egozten zaien arren, euskarazko programazioan era guztietako saioak emititu dira lehen urteetatik, hala nola, lehiaketak, gastronomia, magazinak eta erreportaje-saioak (A. Aranburu, 1998). Euskal hiztunak ziurtaturik dauzka ETB1en informazioa, entretenimendua, dibulgazioa eta parte hartzeko tartearak. Euskarazko telebista ez da izan aitzindaria, ez formatuetan, ez argumentuetan, baina ez dago telebistagintzaren korrante eta joera nagusietatik bazter, lehenago esana dugunez (Larrinaga, 2013c). Adibidez,

ETB1ek era askotako telerrealitate-saioak eskaini ditu, batzuk arrakasta handikoak, besteak beste, *Basetxea*, *Oh, happy day*, *Hamaika korapilo*, *Egun bete* eta *Bost txakur*.

Genero-eskaintza zabala osatzeko ahaleginarekin batera, 1990eko hamarkadan, estrategikotzat jo zen Euskadiko produkzio-industriari bultzada ematea, eta *Jaun ta jabe*, *Bi eta bat*, *Benta Berri* eta beste hainbat telesail mitiko sortu eta emititu ziren. 2000ko urteetan, telesailen ekoizpenak nerabeengan jarri zuen arreta eta, esaterako, *Hasiberriak* eta *Go!azen* eskaini ziren. Euskararen gizarte-prestigioa emendatzeari dagokionez, normalean, hizkuntza gutxituko telebista existitze hutsak ematen dio prestigioa hizkuntza gutxituari baina, ETBren kasuan, gainera, izan dira euskararen eta euskarazko telebistaren gaineko jarrera eta uste negatiboak aldarazten lagundu duten programak, hala nola, *Dallas* (Otermin & Díez Unzueta, 2006, or. 63) eta *Tribuaren berbak* (Amonarriz, 2014). Ahalegin hori guztia gorabehera, ETBren eskaintza desorekatuta atzeman du Josu Barambones (2009, or. 532) UPV/EHUko ikertzaileak euskarazko bikoizketaz egin duen tesian:

«Llama la atención el hecho de que, por lo que a ETB-1 y ETB-2 se refiere, sea el propio ente de Radio-Televisión Vasca la institución que ha generado el desequilibrio existente en las programaciones de ambos canales, a pesar de la cantidad ingente de recursos personales y económicos que tiene a su disposición. [...] Sin embargo, a la vista de los datos, es evidente que ETB ha renunciado a ofrecer un servicio global en euskera».

Kirolean eta haurrentzako saioetan oinarrituriko programazio batek ikusle-kopuru adierazgarria erakar dezake, baina kolektibo euskaldun zabalak kanpoan utz ditzake, batik bat kultur kezka dutenak eta informazioan sakontzea eta gizarte-arazoez eztabaidatzea interesatzen zaienak.

«Gainera, ezin dut esan gabe utzi, kirolaren bidez ETB-1eko audientzia gehitzea erraza bezain ustela da. Ez da batere esanguratsua euskararen normalizaziorako. Horixe baita telebistak euskararen premia gutxien duen programa». (Torrealdei, 1993, or. 157)

ETBren euskarazko eskaintzan ez da falta ez entretenimendurik, ez film edo telesailik, ez informaziorik, ez eta publizitaterik ere; alegia, telebista-programazioaren lau osagai nagusiak aurki daitezke. Lau multzo handi horien barruan, arreta berezia ematen zaie gizarte-sektore zabalen gustuko saioei, adibidez, kirol-probei eta marrazki bizidunei, eta ahalegin handia egiten da uneko modako programak ere parrillara ekartzeko, direla lehiaketak, direla *realityak*. Euskal hizkuntzaren eta kulturaren sustapenak, gainera, tokia du beti berariazko programen bidez. Ezin daiteke esan, beraz, euskarazko telebistan ez denik genero-gutzizkotasunaren baldintza betetzen.

### 3.3.3.2. Komunikazio-arloaren egitura euskararen esparruan

Hizkuntza da euskararen komunikazio-esparruaren ezaugarri definitzailea (Basterretxea & Zuberogoitia, 2005, or. 32). Hizkuntzak konektatzen ditu, alde batean, informazioa eta entretenimendua euskaraz jaso nahi dituzten herritarrak eta, beste aldean, informazioa eta entretenimendua euskaraz ekoizten dituzten enpresak. Loturak iraun dezan, nahitaezkoa da alde bien inplikazioa; herritarren aldetik, euskarazko eskaintza kontsumituz, enpresen aldetik, euskarazko produkzioa industria bihurtuz. Herritarren kontsumoaz, hurrengo azpiatalean jardungo dugu eta, honetan, euskararen esparruko komunikazio-enpresak aztertuko ditugu.

Azteketa hori egiteko, enpresen funtzionamenduari begiratuko diogu. Gutiérrez eta besteri (2005) jarraiturik, bost arlo edo ardatz hauek hartuko ditugu aintzat:

- 1) Insituzionalizazioa: enpresaren jabetza eta kudeaketa-mota.
- 2) Profesionaltasuna: kazetaritzaren eta edukien kalitatea.
- 3) Militantzia: enpresarekiko eta kazetaritzarekiko jarrera eta konpromisoa.
- 4) Komertzialtasuna: komunikazio-enpresen finantzazio-bideak.
- 5) Multimediatasuna: edukien lanketarako eta banaketarako plataformak.

Euskarazko komunikazioaren sektorea industria bilakatzeko ahaleginean, ETB izan da bide-urratzailea eta, bilakaera horren berri ematen duten azterketa-ardatzetan, ETBk markatzen du gainerako enpresak erdiestera lehiatzen diren posizioa.

Instituzionalizazioaren ardatzari dagokionez, euskarazko komunikabideak sortzeko indar nagusia herri-ekimena izan da, instituzioen ekintzaren aurretik. Herri-ekimenaren adibide nabarmenak toki-hedabideak eta *Euskaldunon Egunkaria* dira. Ardatzaren beste

muturrean, Euskal Irrati Telebista dago, erakunde publikoen ekimenez eratua. Bigarren ardatza, profesionaltasuna, aurretiazko baldintza da ETBn eta Euskadi Irratian. Profesionaltasunak esan nahi du langileek komunikaziorako ikasketa espezifikokoak izatea eta lanaldi osoan komunikazio-arloan jardutea, eta nahitaezkozat jotzen da kalitatezko eskaintza ekoizteko. Herri-ekimenetik sortutako komunikabideetan, borondatezko lana izan da nagusi hasieran eta, denboragarrenean, EiTBraren bidetik, profesionalizatzerara jo dute. Agertzen azkenak, *Euskaldunon Egunkaria / Berria* bereziki, ia osorik plantilla profesional batekin sortu dira.

Militantziaren ardatzean, nahiko bat datoz euskaraz diharduten komunikabide guztiak. Neurri handiagoan edo txikiagoan, euskararen normalizazioaren aldeko betekizuna hartzen dute denek euren gain. Hala ere, herri-ekimeneko komunikabideetan gerta litekeenaren aurka, EiTBrn, enpresaren idearioak ez dio ildo bereko militantzia eskatzen langileari. Komertzialtasunaren ardatzean ere, mutur berean daude guztiak, denek behar baitute diru-laguntza publikoa. Oraindino ez dago publizitatearen bidez soilik finantzatzen den euskarazko hedabiderik baina, edozelan ere, EiTBraren kasuan, badago diferentzia kualitatiboa.

EiTBraren kontabilitate-datuen arabera, 2017. urtean, ETB1ek eta ETB3k elkarrekin erakarri zuten publizitatea ETB2k erakarri zuenaren heren bat izatera heldu zen. ETBren euskarazko emisioek, oro har, diru-sarrera esanguratsuak lortzen dituzte publizitate komertzialaren bidez, batik bat, programazio-atal jakin batzuetan, hala nola, haurrentzako saioetan eta kirol-emankizunetan. Inflexio-puntua 1989-1990 denboraldia izan zen, FORTAk Espainiako Futbol Ligaren telebista-eskubideak eskuratu zituenean, partiduekin batera publizitatea ere etorri baitzen. Irratian, EiTBraren euskarazko kanalek (Euskadi Irratiak eta Gazteak) elkarrekin erakarri zuten publizitatea erdarazko kanalek (Radio Euskadik eta Radio Vitoriak) elkarrekin erakarri zutenaren erdia izatera heldu zen, urteko aurrekontuaren ia % 20 estaltzeko beste. EiTBraren irratiek, oro har, oso dirubide garrantzitsuak izan dira komunikazio-talde osoarentzat hasieratik, krisiaren urteak —2007 eta 2014 arteko epealdia— kenduta. 2015etik, Euskadi Irratian batez ere, goranzko joera adierazgarria izan dute publizitatearen bidezko diru-sarrerek.

Multimediatasunari begiratuta, azkenik, lau eredu daude euskararen esparruan (A. Gutiérrez et al., 2005, or. 100). Lehenik, hedabide bakarra kudeatzen duten

komunikazio-enpresak daude. Duela denbora gutxi arte, hori izan da eredu bakarra eta, oraindino ere, indar handia du hedabide lokaletan. Horrekin batera, gero eta zabalduago dago kate-eredua hedabide lokaletan. Multimedia-eredua Euskal Irrati Telebistarekin ezagutu zen euskararen esparruan eta, harrezkero, ugarituz joan dira mota bi edo gehiagoko hedabideak kudeatzen dituzten komunikazio-enpresak, besteak beste, Goiena, Euskarazko Komunikazio Taldea, Ttipi-ttapa Fundazioa eta EiTB, denbora honetan bere hedabide-eskaintza zabaldu egin duena. Laugarrenik, multizerbitzu-eredua dago. Kasu honetan, enpresa batek, hedabideak kudeatzeaz gainera, bestelako zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu (hala nola, euskaltegia, taberna eta kulturunea). Era horretakoa da Bilboko *Zenbat gara?* enpresa, *Bilbo Hiria Irratia* ekoizten duena.

Azken hamarkadetan, beraz, euskarazko hedabideetan, EiTBren eredu industrialera jo da. Lehenengo eta behin, instituzionalizazioa gertatu da, euskalgintzaren beste sektore batzuetan bezala. Azpiegitura sendoko komunikazio-enpresak agertu dira, soldatapeko langileak dituztenak, eta, ingurune horretan, norbanakoaren ahalegin militantea enpresa horien esku uztea etorri da (Landa, 2005, or. 411). Azpiegitura sendotzearekin batera, enpresek hedabide-eskaintza zabaldu egin dute, eta gero eta ohikoagoa da EiTBk hasieratik izan duen eredu multimedia. Finantzazioari dagokionez, euskarazko hedabideetan, erabatekoa da aurrekontu publikoen menpekotasuna, hiztun gero eta gehiago izateak ez baitu kontsumoa handitzea ekarri, eta, ondorioz, arriskuan dago une oro euskarazko komunikazio-proiektuen iraupena (Elosegi, 2005, or. 190). EiTB Taldeak, edozelan ere, erakutsi du publizitatea erakartzea eragozten edo zailtzen duena ez dela euskara.

Finantzazio-zailtasunez eta gizarte-inpaktu txikiaz gainera, beste alderdi negatibo bat azpimarratu behar da euskararen komunikazio-esparruan: lankidetzarik eza. Oro har, euskarazko hedabideak elkarri bizkarra emanda aritu dira beti, bata bestea kompetentzia gisa ikusiko balute bezala. Irizarren (2005, or. 45) ustez, EiTB taldea izan litekeela beharrezko lankidetzaren horren lidergoa har lezakeena, sektorearen profesionalizazioan giltzarria bera izan den bezala. Bide horretan lehen urratsa, hurrengo kapituluan ikusiko dugunez (4.3.3. azpiatalean), 2010eko hasierako urteetan gertatu da, EiTBren eta Tokikomen eskutik gertatu ere, baina beharrezkoa izan da mundu globalizatuak agerian jartzea lankidetzaren horren beharrezkoa.

### 3.3.3.3. Irismena eta kontsumoa

Euskararen komunikazio-esparruaren deskribapena osatzeko, funtsezkotzat jotzen dugu zenbat erabiltzaile dituen jakitea. Kontsumo-datu zehatzak eman aurretik, berorien inguruan dagoen debateaz arituko gara, inoiz argudio modura erabili baitira diru publikoarekin finantzatzen den ETB zalantzan ipintzeko. Ondoren, euskarazko komunikabideen audientzia-datueta eurretan jarriko dugu arreta, informazio jakingarria eman dezaketelakoan euskararen komunikazio-esparruaz, hala nola, zein diren kontsumo-joerak, eta zein EiTb Taldearen posizioa. Horretaz diharduten ikerketetan, komunitateari bere hizkuntzan eskaintzen zaion zerbitzuaren ebaluazio modura interpretatzen dira audientzia-datuak, hots, zerbitzu aldiko pentsaeran txertatuta daude. Hortaz, kapitulu honetan berrikusiko ditugu, eta hurrengorako utziko dugu komunikazio-enpresek audientzia-datuez egiten duten irakurketa berria, performantzia aldiko pentsaeran txertatuta baitago.

Euskal Telebistaren audientziari buruzko debatearen eragilea finantzazio publikoa da. Euskalgintzatik, aspaldi ohartarazi zen ETBren aurka egiteko argudio modura erabil zitezkeela gizartearen zati esanguratsu batera ez iristea, zeren, zerbitzu aldiko logikan, audientzia-datuak apalak izateak esan nahiko luke komunitateari ez zaiola ematen eskatzen duen zerbitzua eta, hortaz, gastua ez dagoela justifikatuta.

«[...] gurean audientziaren arazoa gehiegitan hizkuntz arazo bilakatu da, lehentxeago aipatu dudana bezala. Hau da, euskarazko telebista ukatzeko bide berri bat. Euskarazko telebistaren markoa, horientzat, gizarte osoa da, eta ez euskaldungoa, bere marko naturala. Horrela bada, ikusentzulegorik handiena harturik ere, eta programazio bikainenarekin ere, audientzi-neurketaren arabera ezingo luke bere burua justifikatu ETB euskaldunak». (Torrealdai, 1993, or. 158)

ETBren iraupena mehatxatuta egon den arren, esan daiteke zerbitzu publikoaren kontzeptuak audientziaren debatetik eta, ondorioz, deslegitimazio-arriskutik kanpo utzi duela euskarazko telebista publikoa.



«En una sociedad bilingüe, con dos lenguas propias, una televisión en euskera es imprescindible, tanto para hacer efectivo el derecho a elegir la lengua de acceso a este medio como para la promoción de la propia lengua». (Guevara, 2010)

Zerbitzu publikoaren kontzeptuak, hala ere, ez ditu audientziaren kezkatik salbuetsita uzten diru publikoz finantzaturako hedabideak. Ez zaie eskatzen datu altuengatik lehiatzea, baina gizartean nolabaiteko irismena izatea bai. Hori adierazteko, «*ikusleria potentzialaren parte adierazgarri batekin konektatzea*» (Albornoz, 2002, or. 13) eta halako kontzeptuak erabiltzen dira. Ildo horretatik dator 2000ko hamarkadan ETBren zuzendari izan zenaren gogoeta:

«Norentzat ari garen jakitea oso garrantzitsua da. Gure ikusle potentzialak 1.000.000 pertsona dira, euskara hitz egiteko edo ulertzeko gai direnak. Oso zaila da etxeko berezko hizkuntza euskara ez den familia batean lehenengo aukera ETB-1 izatea. Etxean euskara erabiltzen dutenen kopura 500.000koa da, azkenean EAEn. [...] Ez dut uste inoiz ezerk, Goenkalek egin duen bezala, bildu duenik 100.000 euskaldun une berean gauza bera ikusten euskaraz. Agian ETB-1en neurria % 6-7koa da». (Zupiria, 2002, or. 7)

Kalkulu horiek egin zireneko testuinguruan, telebista-erabiltzaileen jokabidea zerbitzu aldiko logikan koka zitekeen eta, egungo egunerako baliozkoak ez diren bezala, beste hedabide mota batzuetarako ere ez dira. Hala eta guzti, aipagarria da zein alde handia zegoen ETB1en ikusleria potentzialetik (milioi bat pertsona) benetakora (ehun mila pertsona, kasurik onenean). Zerbitzu aldikotzat jo dezakegun ikuspegitik, Zupiriak hiru faktoreri egozten zien alde hori: hizkuntza-gaitasuna, familiako hizkuntza-erabilera, eta eskaintzaren erakargarritasuna. Jarraian egingo dugun berrikusketan, beste bat azalduko da: eskaintzaren tamaina.

CIESen datuen arabera, euskarazko hedabideak erabiltzen dituzten pertsonak, Hego Euskal Herrian, edozein urtetan, hamar eta are hogeit bider gutxiago dira gaztelaniazkoak erabiltzen dituztenak baino (zenbaki zehatzak 4. taulan kontsulta

daitezke). Denboran zehar, komunikabideetan gero eta euskara gehiago erabiltzera jo da baina, edozelan ere, euskarazko hedabideen kontsumo-datuak urrun daude euskararen ezagutza-datuetatik, eta agerian jartzen dute herritarren zati handi batek ez daukala ohiturarik euskarazko hedabideetara jotzeko. Euskarazkoetara jotzen dutenean —taulan bilduta dauden datuek erakusten dutenez—, nahiago dituzte irratia eta telebista; komunikabide idatziak (prentsa eta Internet) baino bi eta hiru aldiz nahiago. EiTBrren ikuspegitik, azpimarratzekoa da ETBk, Euskadi Irratiak eta Gazteak euskarazko beste edozein hedabidek baino hainbat aldiz audientzia handiagoa dutela. Hots, kontsumoaren aldetik, EiTb da euskararen komunikazio-esparruan erreferentzia nagusia.

CIESen datuek euskarazko komunikabideen erabiltzaileak kopuru absolutuetan gutxi direla erakutsita ere, irakurketa positiboak egin dira. Hala, Iurrebasok (2008) eginiko azterketaren arabera, euskararen komunikazio-esparruaren hornidura handitzeak igoera ekarri du hedabideen euskarazko kontsumoan. Hori bat dator beste hizkuntza gutxitu batzuetako hedabideen erabilerari buruzko ikerketetan (Moring, Lojander-Visapää, Nordqvist, Vincze, & Mänty, 2011, or. 297–298) aurkitu den joerarekin. Nolanahi ere den, Iurrebasok dioenez, hizkuntzaren ezagutza faktore baldintzatzailea da: hiztunek euskaraz zenbat eta gaitasun handiagoa izan, orduan eta gehiago kontsumitzen dituzte euskarazko komunikabideak.

Adinari dagokionez, ikerketa egin zuen garaian, Iurrebasok aurkitu zuen hamabost urtetik beherako haurren artean euskarazko telebistaren kontsumoa ia gaztelaniazkoaren parekoa zela. Proporzioa gorabehera, umetako jokabidea euskarari leku zabala egitea dela esan daiteke. Gogoan izan behar da, horrekin batera, euskal gizartean euskararen ezagutza gero eta handiagoa dela. Leize bat igartzen da, beraz, gorago aurkeztu diren kontsumo-datuekin. Leize hori azaltzeko, Iurrebasok dio nerabezeroan atzeraldi bat gertatzen dela euskararen aldeko jokabidean; erdalzaletze bat izaten dela. Pavón eta Zuberogoiak (2011), Leintz bailarako nerabeen artean eginiko ikerketa batean, haurrentzako euskarazko programa-eskaintza zabala dela diote, baina koskortzen direnean nekez aurki dezaketela euskaraz euren gustukorik. Esate baterako, nerabeek atsegin dituzten saioak aipatzean, zerrendan ageri den euskarazko lehena *Kirolez kirol* da —gaztetxoek % 3,4k aipatua—, eta bigarrena, *Goenkale* —% 2,9k aipatua—.

Bada hirugarren azalpen bat, leizearen ikusalde zeharo ezberdina eman dezakeena: euskarazko eta erdarazko eskaintzen arteko desoreka. Euskarazko hedabideen kopurua oso-oso gutxi handitu da azken urteetan; erdarazkoena, ostera, biderkatu egin da (zenbaki zehatzak 5. taulan kontsulta daitezke). 1980ko hamarkadaren bigarren erdian, euskarazko eta gaztelaniazko hedabideen arteko proportzioa 1:4 zen; 2010eko hamarkadaren erdialdean, berriz, 1:10. Hala ere, Hego Euskal Herrian, euskarazko hedabideen audientzia ez da murriztu —ez, behintzat, hein horretan—. Horrek euskarazko hedabideen kontsumitzaileen leialtasuna erakusten bide du.

Hego Euskal Herriko telebista-kontsumoen azterketatik, antzeko ondorioa atera daiteke, hots, 2010eko hamarkadan ETBren euskarazko emanaldiek 1990eko hamarkadan baino bost aldiz gaztelaniazko lehiakide gehiago izan arren (hala ikusten da 5. taulan), euskarazko emanaldi horien erabiltzaileak erdira ere ez dira jaitسي (4. taulak dioenaren arabera). Kantar Media merkatu-ikerketako agentziak emandako audientzia-datuen bidez, azterketa zehatzagoa egin daiteke 2010eko urteetan EAeko telebista-kontsumoan izan diren joerei buruz:

- a) Kanalik indartsuenen audientzia-kuota (*sharea*) % 10 inguruan dago, Tele5ren salbuespenarekin.
- b) Urtetik urtera, kuota-datuen aldaketak hamarren gutxikoak dira.
- c) ETB1en kuota % 2 ingurukoa da, kanal tematikoena baino bi aldiz handiagoa.
- d) ETB3ren audientzia-kuota kanal tematikoen datuetara heltzen da.
- e) ETB1en eta ETB2ren kuotarik altuenak albistegiek lortzen dituzte, eta *Teleberrik*, gainera, beste kanaletako albistegiek baino altuagoak.
- f) Urteko audientzia metatuetan ere, gorabehera oso txikiak daude. ETB1ek 300.000 ikusle ditu egunero, eta ETB3k, 140.000 inguru.

Espainiar estatuko kanal autonomikoen audientziei begiratuta, ETB lau handietako bat da, Kataluniako, Galiziako eta Andaluziako telebisten pareko datuekin.

### **3.4. EAeko HIZKUNTZA-POLITIKA ETA ETB ZERBITZU ALDIAN**

Atal honetan, Euskal Telebistaren lehen urratsekin jarraituta, EAeko 1980ko urteetako hizkuntza-politikak zelan ukitu zuen aztertuko dugu. Euskal gizartearen orduko egoera

soziolinguistikoa deskribatzean esan dugunez (2.1.1. azpiatalean), euskara zekiten herritarrak ez ziren biztanleriaren laudenera ere heltzen, eta euskaldun gehienek, bestalde, euskara ahozko erabilerara mugatzen zuten, intimitatearen esparruan. EAEko aginte publikoek egoera hura aldatzea erabakita, ikusi dugu (2.2.2.1. puntuan) gizarte osoa elebidun bihurtzea jarri zutela helburu nagusi modura euren hizkuntza-politikan eta, horretara iristeko prozesuan, hiru eremuri aitortu zieten lehentasuna: hezkuntzari, administrazioari, eta kulturari —hedabideak barne—.

ETB politika haren emaitza izan zen eta, aldi berean, politika hark zehazturiko ildotik zuzendu zuen bere jarduera hizkuntzari zegozkion gaietan. Jonesek (2013b) hizkuntza gutxituko hedabideetan identifikatu dituen hizkuntza-praktikez aritu garenean (1.3.2.2. puntuan), zortzi gai aipatu ditugu. ETBren hasierako urteetan, arretarik gehiena gai haietako bik hartu zuten. Lehena zen euskal gizarterako nahi zen elebitasuna ETBn ere kudeatzea, eta bigarrena, ETBn ere ezartzea hezkuntza, administrazioa eta kultur arloa irabaziz zihoan euskara-eredua. Elebitasunaren kudeaketa diogunean, hedabideak hartzaileei zuzentzeko komunitateak darabiltzan hizkuntzetatik zein eta nola hautatzen duen adierazi nahi dugu. ETBk, lehenengotatik, EAEko hizkuntza ofizial biak hautatu zituen bere emanaldietarako, baina bien arteko banaketa arian-arian zehazten joan zen (ikus 3.4.1.). Hizkuntza-ereduaz ari garenean, bestalde, emanaldietako euskararen kanona zein den adierazi nahi dugu. ETBk —Euskadi Irratiak bezala—, *Zeruko Argiak*, *Anaitasunak* eta Jaurlaritzak berak urraturiko bideari jarraituta, euskara batua hautatu zuen (ikus 3.4.2.).

### **3.4.1. Elebitasunaren kudeaketa**

Pentsa zitekeenaren aurka, oso konplexua izan da ETBren emanaldien hizkuntza zehazteko prozesua, EiTb sortzeko legean ez baita ezer zehazten horretaz, eta, ondorioz, denboran zehar, eredu bat baino gehiago egon da indarrean hedabide publikoan gizarteko elebitasuna kudeatzeko. Bat baino gehiago izanda ere, eredu guztiek hartu dute aintzat EAEn 1980ko lehen urteetatik hizkuntza-politikan finkatu zen asmo nagusia, zeina baita elebitasun osoko gizartea eratzea, euskararen normalizazioaren bigarren aldiaz aritu garenean esan bezala (2.2.2.1. puntuan). Gizarte elebidunaren asmo horrek eragin zuzena izan du ETB antolatzeko moduan.

Hala, Eusko Jaurlaritzako hainbat arduradunek egin zituzten adierazpen maximalistak gorabehera, ETBren emisio erregularrak hasi zirenean, 1983ko abenduan, agerian geratu zen ETBrentzat eredu elebiduna nahi zela (Torrealdai, 1985, or. 48–50): egunean albistegi oso bat egiten zen gaztelaniaz, eta beste bat euskaraz; hizkuntzak ez zuen ezelan ere mugatzen albistegietarako adierazpenen erabilera; publizitatean, gaztelaniari ez zitzaion oztoporik jartzen, eta filmak eta telesailak euskaraz bikoiztuta eta gaztelaniaz azpidatzita ematen ziren. Zerbitzu aldiaz aritu garenean (1.3.2. azpiatalean), elebakartasun paralelo gisa ezagutu dugu praktika hori. Horrek protestak eragin zituen berehala euskal gizarteko sektore batzuetan. Honela zioen Xabier Kintana (1984a) euskaltzainak:

«Herriak nahi eta behar duen telebista omen da, zuen hitzez, gurea. Bai ote? Nahi, agian bai, herriak euskarazko telebista gura duela bistan baitago, erdara sartzeagatiko protestak lekuko. Baina horrela ari den telebista hori behar ote du gure herriak?».

Hiru argudio nagusi erabili ziren emanaldien elebitasunaren aldeko hautu hori justifikatzeko (Torrealdai, 1985, or. 44–47):

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko herritar elebatarrek ere, bazutela eskubidea EAETik informatuta egoteko.
- b) Orobat, bazutela eskubidea ETB kontsumitzeko.
- c) Azpidatziak euskara ikasteko baliabide bat izan zitezkeela.

Neurri oso handian, zerbitzu publikoaren definizioan erabiltzen ziren ideiekin lotuta zeuden hirurok.

Emanaldi erregularrak egiten hasi eta hiru urtera, 1986ko maiatzaren 31n, Euskal Telebistak kanal bitan banandu zuen emisioa: ETB1, euskara hutsez, eta ETB2, gaztelaniaz. Bigarren kanala sortuta, Euskal Telebistak bazeuzkan herritar guztiengana heltzeko bitartekoak —ETB2, alegia—, eta ETB1 elebidunak zentzua galdu zuen. Publizitatea gaztelaniaz sartzen jarraitu zen, eta adierazpenen interes informatiboak lehentasuna izaten segitu zuen hizkuntzaren aurretik baina, horren guztiaren gainetik, ETB1i kanal elebidunaren irudia ematen ziona gaztelaniazko azpidatziak ziren. Haur eta gazteentzako programetan, ETB2 sortutakoan kendu ziren, EAEko haur eta gazteek bai

baitzuten euskararen ezagutza —handiagoa edo txikiagoa— irakaskuntzaren bitartez baina, gainerako azpidatziak erabat kendu arteko bidean, ETB1en audientzia jaitsiko ote zen beldurra markatu zuen debatea.

Azpidatziak 1993an kendu ziren behin betiko, aurrerago azalduko dugunez (3.6.2. azpiatalean), eta ETB1ek kanal elebakar baten itxura hartu zuen, ETB2 bezain elebakarra. Hala eta ere, ezin daiteke esan, beste barik, harrezkero Euskal Telebistan gizarteko elebitasuna kudeatzeko modua kanal elebakar bi ekoiztea izan denik. Ibáñez Sernak (1995, or. 248) dioenez, bigarren kanala sortu zuen zuzendaritzak (1985-1986 epealdia bete zuena) filosofia berri bat ekarri zuen ETBra, ardaztat enpresaren lehiakortasuna eta errentagarritasuna zeuzkana. Filosofia hark ondorioak izan zituen elebitasunaren kudeaketan, eredu berri bat ezarri baitzen, lehenengotan *de facto*. Edorta Arana (2002, or. 4) UPV/EHUko irakasleak jakinarazi bezala, urte gutxiren buruan idatziz formalizatu zen:

«92an, Joseba Arregi Kultur sailburu zela, Eusko Jaurlaritzak txosten mardul bat egin zuen. Hor aipatzen zen lehenengoz zeintzuk izan behar duten sorrera legetik aparteko bidean telebistak eman beharreko pausoak».

Txosten hori Euskal Irrati Telebistaren Legebiltzar Kontrolerako Batzordeak landu zuen eta, berorretan oinarrituta, Eusko Legebiltzarrak ebazpen bat onartu zuen 1993ko uztailaren 22an, eredu berria formalizatu zuena. Ebazpenak dikotomia moduko bat ezarri zuen: EiTBk euskaraz eskaini behar zuen telebista-programazio bat, euskararen gizarte erabilera normalizatzeko helburuarekin, eta, horrez gainera, EiTBk gaztelaniaz ere izango zuen telebista-programazio bat, euskararik ez zekiten herritarrei zerbitzua emateko. Eredu horri Amezagak (2013, or. 27) duala esaten dio, bana-banako erlazioa ezartzea ekarri duelakoan kanalen eta EiTB sortzeko legean herri-erakundeari egozten zaizkion zerbitzu publikoko eginkizunen artean, modu honetara: euskarazko kanalarik hizkuntza-normalizazioko eginkizuna lotu zaio, eta gaztelaniazkoari, parte-hartze politiko eta sozialeko eginkizuna.

Hainbeste urteren buruan, eredu dualak programazio osoa baldintzatu du. Lehenago ere deskribatu dugunez (Larrinaga, 2014b), gaztelaniazko kanalera zuzendu dira nagusiki

informazioa, analisi politikoa, debatea eta kanpo-produkzioko fikzioa, eta ETB1era kultura, kirola, umorea, barne-produkzioko telesailak eta umeentzako saioak batez ere. Amezagaren (2013, or. 30–34) iritziz, hiru ondorio azpimarragarri izan ditu programazio-eredu dualak:

- a) ETB2k, euskararen normalizazioa ez ezik, euskararen unibertsoaren zabalkundea ere utzi du bertan behera.
- b) Bai ETB1, bai ETB2 orotariko kanalak izanda, audientzia natural berbera dute, eta ETBren audientzia-igoera ETB1en kostura gertatu da.
- c) Euskarari, bigarren mailako eginkizunekin lotuz, prestigio soziala galarazi zaio.

Beste ahots batzuen arabera, ordea, lehen mailako eta prestigio handiko edukiak dira banaketa horretan ETB1erako lehenetsi zirenak. ETBren zuzendari izandako L. A. Aranberri (1995, or. 84–85) honela mintzo zen ETB1en 1990eko lehen urteetako eskaintzaz: kirola, partikulariki Espainiako futbol-liga, «*merkatuan zegoen (eta dagoen) kirol-emanaldirik erakargarriena, preziatuena, estimatuena eta ikusiena*»; haurrentzako saioak, «*ikus-entzulerik esker onekoenak*»; ETBren telesailak, «*euskal produkzioaren sustapena (aktore-aktoreak, gidoigintza, errealizazioa etab.) inork zalantzan jartzen ez duen bokazioa*». Programazio hori osatzeko euskarazko informazioaren aldeko apustu ageria zegoela gaineratuta, Aranberrik (ibid.) honela kalifikatu zuen eskaintza:

«Zeharo oker ari da, bestalde, ETB1en albistegiak testimonio samarrak direla uste duena. Gauza bat da gaztelaniazkoen ondoan euskarazko albistegien gizarte-eragina bigarren mailan gelditzen dela aitortu beharra, eta beste bat, guztiz ezberdina, euren garrantzia gutxiestea».

Horrekin batera, nabarmendu beharra dago ETB2ren sorreraz geroztik hizkuntza bietan ekoizten direla —ETB1erako euskaraz, eta ETB2rako gaztelaniaz— informazio-saio asko, hala nola, *Egunbete / Cámara 24, Hemen eta munduan / Informe 2* eta *Sustraia*, bai eta barne-produkzioko dokumentalak ere, adibidez, *Gerra Zibila Euskadin / La Guerra Civil en Euskadi, Gure lanbide zaharrak / Oficios tradicionales, Zinea Euskadin / El cine en Euskadi* Gehienetan, albistegien ereduari jarraituta, lantalde berak egiten ditu bertsio biak, euskarazkoa eta gaztelaniazkoa. ETBk, 2005ean Euskadiko

produktore-elkartekin sinaturiko hitzarmenetik, zinema ere ekoizten du. Pelikulak bertsio bakarrean filmatzen dira, euskaraz edo gaztelaniaz, baina, pantailarako, bigarren bertsioa ere prestatzen da, gaztelaniaz azpidatziz —euskarazkoak— edo euskaraz bikoiztuz —gaztelaniazkoak—.

### 3.4.2. Hizkuntza-eredua

EiTB sortzeko legeak, herri-erakundearen elebitasuna kudeatzeko modua zehaztu gabe utzi zuen bezala, hizkuntza-ereduaz ere ez zuen ezer jaso, baina gizarte-eragile gehienek jakintzat ematen zuten, euskaldun guztiarentzat izanda, Euskadi Irratian eta ETBn euskara batua erabili behar zela, Jaurilaritzak administraziorako eta hezkuntza-sistamarako erabaki zuen bezala. Edozelan ere, bokazio nazionalerako komunikabideentzat, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkariak erakutsi zuten bidea 1970eko hamarkadan, euskara batuaren hautua eginda. Hautu hura bat zetorren komunitate bat hizkuntza bat aldarrikatzen zuen pentsaerarekin.

Euskara batuaren hautua eginda, lau erronka aurreikus zitezkeen EiTBrentzat: euskalkieiei zegokien lekua, ahozotasuna, ulergarritasuna eta hizkeren bereizketa. Lau erronka horiek zer esan asko eman zuten, komunikazio-taldearen barruan ez ezik, debate publikoan ere. Batik bat, debate publikoan. Euskalkieiei zegokien lekutik hasita, euskara batuaren hautuaren aurkako kritikak Bizkai aldetik eta partidu espainolisten aldetik entzun ziren batez ere (Torrealdai, 1985, or. 141–144). Aldi batez, eztabaida oso bizia izan zen. Izan ere, sektore politiko batzuen eta euskaldun multzo batzuen iritzia zen ETBk baztertu egin nahi zituela euren arrotz eta ulergaitz omen zitzaizkien euskara baten bidez, eta polemika ETBren beraren pantailetaraino eramane zuten (Argia, 1985b). Hedabideetan ez ezik, eztabaidak Eusko Legebiltzarrean ere izan zuen bere lekua. Jaime Mayor (1984) legebiltzarkideak legez besteko proposamena aurkeztu zuen:

«En atención a lo hasta aquí expuesto, en el deseo de contribuir a la mejora y mayor difusión de los servicios de ETB, el Grupo Popular somete a la consideración de la Cámara la siguiente PROPOSICION NO DE LEY:



[...]

2.- El Parlamento Vasco acuerda manifestar que la introducción de un más extenso uso del Castellano, especialmente en programas que por su contenido o actualidad sean de interés general, y de los diversos dialectos euskéricos en la programación de ETB, supondría un más adecuado cumplimiento de las finalidades de tal servicio público, fomentaría su enraizamiento social y permitiría el seguimiento de sus emisiones a sectores ampliamente mayoritarios del pueblo vasco, hoy marginados por el masivo uso del "euskara batua"».

Polemikak ez zuen luzaro iraun, eta euskara batuaren hautuak aurrera egin zuen; dena dela, inon espresuki jasota utzi barik. Ez zuen ekarri, gainera, euskalkiei atea ixtea, batik bat programa jakin batzuetan, baina arazoak, euskalkien presentziatik harago, ertz gehiago zituen, besteak beste, zelan ulertzen zen batua zer zen, komunikatzaileek zer ekarri egin zezaketen euren euskaratik hedabideetako euskara batura, eta zelan erantzun unean uneko komunikazio-egoeraren beharrei euskara batu horren bidez (I. Etxebarria, 1996, or. 550–555). Beste zailtasun bat bazegoen: idatzirako pentsatuta zegoen eredu estandar hura ahozko erabilerara ekartzea, ETB —eta Euskadi Irratia— ahozko hedabidea izanik. Hala nabarmendu zuen Joxe Lizarralde (1984b) 1980ko hamarkadan HABEko hizkuntza-arduraduna izan zenak:

«[...] nik neuk arazorik larrienak eta delikatuenak honako puntu honetan ikusten ditut gaurregun: euskara idatziaren eta euskara mintzatuaren arteko harreman eta dialektikan. Hauxe dela uste dut oso bereziki landu eta argitu beharko litzatekeen auzia, batez ere komunikabideetako euskarari gagozkiolarik».

Euskara mintzatuaren eta euskara idatziaren arteko harremanari buruzko ikerketa asko herri-literaturaren eta bertsolaritzaren arloan eginak ziren batasunaren aurretik, Manuel Lekuona aitzindari, eta, batasunaren ostean ere, ekarpen oso baliagarriak egin zaizkio arlo horretatik euskararen ahozkotasanari<sup>13</sup>. Irrati eta telebistako euskarari dagokionez,

---

13 Ikus, adibidez, III Herri-Literatura Jardunaldietako txostenak *Euskara* aldizkariaren 40. alean, 1995. urtean argitaratu zena.

Pello Esnalek (1991) ahozko kazetaritzaz eginiko lana aipatu behar da. Edozelan ere, euskara batuaren kodifikazioan, ahozkotasunari beste alderdi batzuei baino geroago heldu zitzaion —ahoskeraren araua 1998koa da—. Horren ondorioa izan zen irratiko eta telebistako euskararen hizkuntza irakurria nagusitu zela, bazter utzita ahozko erabilera tradizional asko. Honela zioen Patxi Perurena (1984) idazleak:

«Azken bolada honetan franko mintzatzen ari da jendea euskararen aferaz: gaizki erabiltzen diren azepzioetaz, garbizalekeriaz, Euskal Telebistan erabiltzen den euskaraz, irratikoaz, eta azkenik baita euskaraz idatzia eta mintzatuaren arteko gorabeheretaz ere. Guzti hau ezin gustorago irakurri dut, baina halere gauza batek harritu nau, alegia, inork ez duela hitz erdi bat ere esan gaur egun ahozko komunikabideetan erabiltzen den fonologiaz.

[...] euskara idatzi batua euskararen fonologi usario tradizionalaren aurkako gertatu zaigu.

[...] bada garaia, euskara mintzatuari buruz zerbait esaten hasteko eta egiteko ere, Euskararen normalizazioari begira, euskara mintzatua nagusitzen ari baitzaio euskara idatziari, telebista, irradi eta beste eguneroko komunikabide publikoek direla medio».

Hedabideetan, ahozkotasunaren arazoa txikia ez eta, gainera, euskal hiztunengana heltzeko erronka zegoen, euskara ulergarria erabiltzeko erronka. Aintzat hartu behar da euskararen estandarizazioari ekin berritan euskaraz irakurtzeko eta idazteko gai ziren euskaldunak gehienez ere % 25 zirela (Euskaltzaindia, 1979a, or. 75), eta euskara hedabideetan (aldizkarietan) kontsumitzen zuten euskaldunak % 15 ere ez zirela (ibid., or. 107). ETBk ahalegina egin beharko zuen euskararen ohiturarik ez zuten euskaldunen gehiengo horretara heltzeko, Rosa Miren Pagola (1984a) Deustuko Unibertsitateko irakasleak azpimarratu bezala:

«Euskara hizkuntza idatzira iritsi zen une beretik azaleratu zen hizkuntzek bere berea duten arazoa: ulerkerarena, Leizarragak zioen bezala, hainbeste aldatzen zirelarik mintzatzeko manierak. Ez da hizkuntzaren batasun arazo hutsa [...]. Orain euskara ikusentzunezko

komunikabideetan sartu da, eta hemen ere arazo berbera geratzen da, hizkuntza mintzatuari dagokiolarik bada ere».

Ulergarritasuna lantzeko ahaleginean, euskararen txukuntasuna izan zen ETBko profesionalei azpimarratu zitzaien gakoetako bat. Beste gako batzuk —ez hain begi bistakoak, beharbada, eta interesgarriagoak horregatik— euskara batua ulertzeko moduarekin lotuta zeuden.

«Lokutoreek eta periodistek erabiltzen duten euskarak landua eta txukuna izan behar du, eta guri hori eskatzea dagokigu. Baina landuak ez du esan nahi mota edo era konkreto batekoa. Kanean egiten diren erreportaietan, edo baserritar bati entrebista egiteko, edo arrantzaleei beren arazoez galdetzeko, ez al da egokiago, eta legezkoago, entrebistatuaren euskalkira hurbiltzea?». (Pagola, 1984b)

Hurbiltzeko ahalegin hori egin beharra onartuta, eta euskara batuan batez ere Gipuzkoa aldeko hizkuntza-formak nagusituz zihoazela konturatuta, EiTbN, kazetari eta esatariak euren euskarako hitz, esamolde eta joskerak erabiltzera animatu ziren, «*deklinabidea, aditza eta ortografia batukoa eginez gero, gainerakoan zabal jokatu*» zitekeelakoan (I. Etxebarria, 1996, or. 555). Edozelan ere, urte batzuk igarota, esan zitekeen euskara ulergarriaren erronka gaindituta zegoela, eta ETBk —Euskadi Irratiak bezala— euskaldunei erraza zitzaien euskara-eredua zerabilela. Albiste-testuetan, bai, behintzat, Gorka Palazio (1991, or. 106) UPV/EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio arloko katedradunaren iritziz:.

«EITB erakundeak erroak bota ditu ikusentzule-kopuru dexente batengan eta hasierako zalantzak eta beldurrak (zein lexiko izango ote, euskalkiak erabiltzea zilegi ote, adizki batuak erabili behar ote...) desagertuz joan dira eta hainbat kazetari alfabetaturi esker, bai telebistaz, bai irratis, gehienentzat ulergarriak diren albistegiak egitea lortu da».

ETBren euskarari, gainera, jatorri dialektal ezberdinetako hitzak eta esamoldeak integratzen jakitea aitortu zitzaion eta, ahalegin horretan, programa batzuk eredugarritzat jotzen ziren. Kintanak (1999) *Goenkale*. nabarmendu zuen:

«*Goenkale*-n euskalki desberdinak tartekatuz maiz egiten den ahalegin hori, ene ustez, txalogarria dela eta, oreka mantentzen den artean, eredugarria ere bai, geroko euskara, koine guztien antzera, euskaldun guztion artean eginiko hibridoa izango baita, nahitaez».

Herritarren aldetik, Euskal Telebistaren euskarak laster erdietsi zuen oniritzia, ziurrenik herritarrek ETBren euskararen balio identitarioa lehenesten zutelako ulergarritasunaren, sinesgarritasunaren eta beste faktore batzuen aurretik. Hala ondoriozta daiteke Siadecok (1991, or. 23–24) ETBren enkarguz bikoizketako euskarari buruz egindako ikerketatik.

Aipatu dugun azken erronkari dagokionez, telebista batentzat, nahitaezkoa da programetan edukiaren eta egoeraren arabera hizkerak baliatu ahal izatea. Euskararen kasuan, ordea, ETB aireratu zen garaian, kodifikazioa estandarraren bizkarrezurra osatzera iritsia besterik ez zen, eta lantze funtzionalaren lehen ahaleginak hezkuntzara eta administraziora zuzendu ziren nagusiki. Hortaz, ETBk bere gain hartu zuen saioetarako behar zituen hizkeren garapena, ez gizarteko sektore guztien oniritziarekin. Euskarazko telebistarako hizkeren lanketak eragin zuen debateaz, debate horretan azaldu ziren jarrerez, bai eta ETBn lehen urte haietan arlo horretan egin zen lanaz ere, aurrerago arituko gara zehatzago (3.5.2.1. puntuan).

### **3.5. EUSKARAREN CORPUS-PLANGINTZA ETA ETB ZERBITZU ALDIAN**

Zaratek (1978, or. 559) 'bozkario' eta 'zoragarritasun' hitzekin deskribatu zuen euskara batuak 1970eko urteetan euskaldun gazteen artean piztu zuen kontzientzia, zeinak norberaren «*euskaratxo*a» gainditzeko eta euskara batu hura alde guztietara zabaltzeko nahia eragin baitzien; elkarrizketa, kantu zein idazkietara. Euskarak telebistan egin zituen lehen agerraldietan, ordea, batua kanpoan utzi zen. Gorago jaso dugunez (3.1.2. azpiatalean), agerraldion sustatzaileen interesa politikoa zen, eta proiektuari ez zioten

eskaini nahiko ardura eta baliabiderik. Nekez kezkatuko ziren hizkuntza-ereduaz. Pantailaratu ere, saio arinak pantailaratu zituzten, konplexutasun linguistiko txikikoak. Horrenbestez, 1980ko hamarkadan Euskal Telebista emititzen hasi zenean, euskara zaildu barik zegoen ikus-entzunezko ingurunean, eta —hori baino kontu handiagoan hartzekoa zena— estandarizazioa abiatu berria zen.

Hala eta guzti, ez ETBren proiektua aurrera atera zuten arduradun politikoen artean, ez euskalgintzako eragileen artean, ez ziren asko izan euskarazko telebista bat edukitzeak hizkuntzaren corpusaren arloan planteatzen zituen erronkez jabetu zirenak. Horren ondorioa izan zen ETBn bertan atondu behar izan zirela irtenbideak erronka haietako askorentzat. Atal honetan, ETBren ekimen zehatzak aztertuko ditugu baina, lehenago, gizartean ekimenon zilegitasunaz piztu zen debatean jarriko dugu arreta (ikus 3.5.1.). Izan ere, Euskaltzaindiarekin loturiko hainbat gizarte-eragilek ez zioten ETBri inongo zilegitasunik aitortzen euskararen lanketari heltzeko, ezta telebistako erregistroetarako euskararen lanketara mugatzen bazen ere. ETB ez zen debatean murgildu. Beraren ardura euskarazko programazio bat osatzea zen, egunero, gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean osa zitekeenaren parekoa dibertsitatean eta kalitatean.

Lau telebista-genero nagusietatik (entretanimendua, informazioa, drama —fikzioa ere esaten zaiona— eta publizitatea), zerbitzu aldian, informazioa eta drama izan ziren ETBren hizkuntza-lanketaren arretagune behinenak. Informazioa egunero azaltzen da ETBren pantailan, eta ahaleginik handiena barne-produkzioko informazioan egiten da. Arlo horrek dauka lantalderik zehaztuena eta finkatuena, hizkuntzalariak barne. Horri esker, arreta handiagoa eman ahal izan zaio genero honen lanketari, eta bera da ETBn egiten den hizkuntza-lanketa guztiaren oinarria. Lehen pausoak 1980ko azken urteetan eman ziren (ikus 3.5.2.).

Dramatikoetan, filmak eta telesailak biltzen dira. Lehen garaian, kanpo-produkziokoak baino ez ziren eskaintzen ETBn eta, euskarara ekartzeko, bikoizketa hobetsi zen lehenengo unetik. Aho-sinkronizazioaren teknika eta antzezpena berehala menperatu ziren arren, ez zen berdin gertatu jatorrizko gidaien itzulpen-egokitzapenarekin (ikus 3.5.3.). Atalaren amaieran, modu bereizian aztertuko dugu kanpo-produkzioko entretanimendua (ikus 3.5.4.). Beraren kasuan ere, bikoizketa aukeratu zen euskarara

ekartzeko eta, jarduera horretan, dramatikoen bikoizketako zailtasun berak aurkitu ziren. Hala ere, berariazko arreta eskaintzea erabaki dugu, dibulgazio-programa baten euskarapenak agerian jarri zuelako ETBk eta estudioek oso ezberdinki ulertzen zutela bikoizketarako euskararen lanketa.

### 3.5.1. Corpus-plangintzaren eskumena eta irismena

Euskal Telebista emititzen hasi eta gutxira, kritika latzak egin zitzaizkion pantailan azaltzen ziren hizkuntza-akatsengatik, kontrol bat ezar zedin eskatzeraino. Baziren hizkuntza-aditu batzuk —Pagola (1984a, 1984b) eta, berarekin bat etorritz Lizarralde (1984a)— aldarrikatzen zutenak hedabideetako euskararen auzian ikuspegia komunikazio-prozesu osora zabaldu beharra zegoela, gramatika-arazoetara mugatu barik, baina, euskara estandarraren kodifikazioa hasi berria zeneko garai haietan, kezka handia zegoen euskalgintzan hizkuntzaren zuzentasunarekin. Euskaltzaindiak berak (Euskal Irrati Telebista, 1989a, or. 3), EiTbko arduradunen laguntza-eskakizunari erantzunez, «*esaldi gaiztoen zuzenketak*» eskaintzea lehenetsi zuen, estandarrerako arau gehiago ematen hasi aurretik.

Euskara-erabiltzaile askok —tarteetan, euskarazko hedabideetako komunikatzaileak—, horrekin nahikoa ez, eta estandar finkatuago bat erreklamatzeko zuten. Beraz, Euskaltzaindiak arautu barik zeuzkan hizkuntza-gaietan, beste erreferentzia batzuetara jo behar izan zuten, hala nola, *Oinarri bila* (Txillardegui, 1977) eta *Euskara hobean hobe* (Salaburu & Kintana, 1982). Horiek baino jarraibide-bilduma informalagoak ere ibili ziren sasoi batean eskuz esku EiTbko erredakzioetan. Aurrez aurre aurkitu zituzten Euskaltzaindiarekin loturiko eragileak, batuaren arauak erabakitzeko eskumen eskusiboa Akademiari aitortzen ziotenak.

«Euskara batuan mintzatzea Euskaltzaindiak ematen dituen normetara lotuta mintzatzea dela ulertzen dut nik, normak emateko erakunde bakarra Euskaltzaindia bait da. [...] Txit harriturik gelditzen naiz euskara batuaren izenean hauen antzerakoak irakurtzen ditudanean: 'Lokutoreak honela esan du eta horrela ahoskatu du, eta beste honetara ahoskatu edo esan beharko luke'». (Pagola, 1984a)

Edozelan ere, kodifikazioaren eskumena zuen erakundea —Euskaltzaindia— eta erabiltzaileak beste arazo batek jarri zituen aurrez aurre modu latzagoan: lantze funtzionalak. Euskara telebistarako lantzea premia larria eta urgentea zen ETB hasi berrian. Komunikatzaileentzat, ortografia edo morfologia ardua handiak izanda, ardua handiagoak ziren ekonomiako terminologia eta esamoldeak, mundu osoko toponimia, edo haurrentzako hizkera. Askotan, komunikazioaren negozioak ez baitu geroraterik onartzen, komunikatzaileok euren gain hartu behar izan zuten erantzunak eta irtenbideak ematea eta, hor, Euskaltzaindiari loturiko eragileen jarrerarekin egin zuten topo. ETBn egin zitekeen hizkuntza-lanaren aurrean, oso jarrera mesfidatia zen, ETBko hizkuntza-erabiltzaileei hiztun arrunten sormena ere ukatzen ziena, eta laneko prozesuak kolapsatuko lituzketen irtenbideak proposatzen zituena. Pello Salaburu (1984a) euskaltzainak honela agertu zuen bere jarrera:

«Askotan, ETBko arduradunak, ez dagozkien kontuetan sartu zaizkigula ematen du: telefilme bat itzultzerakoan hitz berriak asmatzeko premia aurkitzen dutenean bere burua, ez da beraien lana hitz horiek asmatzea. Horretarako espezialistak egoten dira eta badaude, ez ETBn baizik eta Filologiako Fakultateetan, Euskaltzaindian edo gure artean dauden hiztegiileen inguruan».

Ahozko komunikazioaren profesionalen literatura eta ikasliburuak aurkeztu zitzaizkien hizkuntza-lanketarako jarraibide gisa.

«Ene ustez, euskal telebistaren akats handienetako bat honetan datza. Bertako aurkezle-informatzaileen zerrendari begiratu gero, laster asko ikusiko dugu —orain arte euskal kultur munduan erabat ezezagun direnez aparte— gehientsuenak komunikabide *ezidatzietatik* etorriak direla, hau da, idazteko eta irakurtzeko hainbeste *beharrik* eta *ohiturarik* ez omen duten irrati giroetatik. [...] Gure literaturan eta textuliburuetan egiaz idazten denaz ongi jabetu eta informaturik egon beharrean (horrexi esaten omen zaio profesionaltasuna, ez da?) hortxe ari zaizkigu hiztegi-kolpez nola edo hala gauzak asmatzen, aurreko urteetan hainbat kazetari eta idazleren ahalegin *ezordainduei esker* finkaturiko lexikoa eta esaerak jakin gabe». (Kintana, 1984c)

Beste aldean, berriz, ETBn edo ETBrako lanean ziharduten profesionalen artean ez ziren falta izan telebistarako euskararen garapenean Euskaltzaindiak zer esana izatea zalantzan ipini zutenak, adibidez, bikoizketako euskararen egokitasuna debatera atera zenean —aurrerago ikusiko dugunez—. ETBko kazetariak ere kezka zuten, ez ote zitzaion garatzeko aukera zapuztuko telebista-kazetaritzarako euskarari arreta gehiena zuzentasunean eta zuzenketan jarrita

«Neurri handi batean, beraz, nola-halako euskara erabiltzen duten kazetari, aurkezle eta bikoiztaileen bizkarretik hazitako euskara da eta izango da etorkizunean gurea. Adierazteko gaitasunean eta ñabarduren aberastasunean baino gehiago, zuzentasun aseptiko eta akademikoan oinarritzen dena; akats edo hanka sartzearen beldurrez adierazpide berrien sorkuntzatik urruntzen gaituena». (Etxeberria, 2000, or. 118)

Hasierako garai haietako adierazpenak hain gogorrak izan ziren arren, eta pertsona batzuen jarrerek bere horretan iraun duten arren, erakunde-mailan, EiTbK Euskaltzaindiarekin kolaboratzeko ildo urratu du lehen urteetatik eta, hala, oinarri sendoagoen gainean bermatu ahal izan da Euskal Telebistak corpusaren arloan egin duen lana, esate baterako, albistegietarako euskararen garapena, Euskaltzaindiak 1989an prestatuturiko hizkuntza-gomendioei asko zor diena.

### **3.5.2. Barne-produkzioko informazioa**

ETBren eskaintzan, atal garrantzitsua izan dira lehen emanaldietatik barne-produkzioko informazio- eta aktualitate-programak, besteak beste, *Gaur Egun* albistegi orokorra, *Hemen eta munduan* erreportaje-saioa, *Euskadi zuzenean* eta *Euskal Herria zuzenean* albistegi lokalak, edo *Egun on Euskadi* eguneko lehen kronika. Nahi eta nahi ez, beraz, ETBko profesionalek hasieratik moldatu behar izan zuten eguneroko informazioak eragiten zituen hizkuntza-zailtasunei erantzuteko, helburua baitzen euskaraz ere eskaintzea beste edozein hizkuntzatarako produktu informatiboetan aurki zitekeen kalitatea. Une haietan inprobisazio hutsa zen lana antolatuago eta planifikatuago bihurtuz joan zen ETBk hizkuntzalariak kontratatu zituenean. Albistegietarako



hizkuntza-lanketa antolatzearen emaitza modura, baliabideak sortu ziren, azpiatal honetan aztertuko ditugunak:

1. *Euskara (erabileraz)* liburuxkak (1989), Euskaltzaindiarekin elkarlanean
2. Kazetarietzako eskuorriak
3. *Euskarazko albistegietarako esku-liburua* (1992)

Euskal Telebistaren plantillako lehen hizkuntzalariak 1987. urtean hasi ziren lanean, Albistegi eta Kirol Sailean, produktu informatiboen hizkuntza-kalitatea kontrolatzeko eta hobetzen laguntzeko. Hizkuntza-irizpideetan Euskaltzaindiaren babes bilatu zuten, eta horren emaitza liburuxka bi dira: *Euskara (erabileraz) 1* (Euskal Irrati Telebista, 1989a), apirilekoa, eta *Euskara (erabileraz) 2* (Euskal Irrati Telebista, 1989b), uztailera. Jean Haritschelhar, Patxi Altuna, Joan Mari Lekuona eta Miren Azkarate euskaltzain eta hizkuntzalarien aholku eta begirapean eginak, liburuxka bietan jasota dauden euskara-ereduaren eta jarraibideen gakoak —aurreko azpiatalean esan dugun bezala— akatsen zuzenketa da, euskaraz itzulpen-bikoizketak egiteko eta informazioa lantzeko tradizio murrizaren aurrean lanabesa zaindu eta eguneratu beharra zegoela argudiatuta.

«Egunero, behin eta berriz errepikatzen diren esaldi gaiztoek kalte larria ekar diezaiokete euskerari. Eta hori gertatu baino lehen zuzenketak egitea ezinbestekotzat jo dugu. Hurrengo batean -laster-EITBko profesionaleri eta bertarako lan egiten dutenei hizkuntza arau eta ereduak ematen ahaleginduko gara zehatz-mehatz bete daitezene».

(Euskal Irrati Telebista, 1989b, or. I)

Lehen liburuxkan 86 puntu daude, bakoitza hitz bati edo morfema bati buruzkoa. Gehienetan, albiste-testu batetik jasotako esaldi erreal akastun bat dator, eta azpian, berorren zuzenketa. Gainerako puntuetan, gramatika-azalpen moduko bat ematen da. Bigarren liburuxka lehenaren jarraipena da asmoan eta egituran, eta puntuak 101.etik 143.era doaz. Liburuxka bietan jasotako gaietatik, gehienak gaztelaniaren interferentziekin lotuta daude. Solezismoak ere hainbestetan ageri dira, besteak beste, postposizioen eta aditzen erregimena, neurri-sintagmak, perpaus osagarri izenlagunak, eta adierazpen-perpaus osagarriak ukitzen dituztenak.

1992an, zuzendari nagusiaren eskariz, Manu Arrasatek *Euskarazko albistegietarako esku-liburua* prestatu zuen. Testuan, egileak, ETBko albistegietan zuzentzaile modura lortutako esperientziaz gainera, Ibon Sarasola euskaltzainaren eta ETBko zein kanpoko hainbat hizkuntzalari, zuzentzaile eta kazetariren esperientzia eta aholkuak jaso zituen (Arrasate, 1992, or. 21–22), estilo-liburu baten formatuan. Ez zen, hala ere, hedabideen ohiko estilo-liburuen erakoa, eduki bakarra hizkuntza baitzen, alderdi ideologikoa eta editoriala ukitu gabe. Eskuliburua zati bitan banatuta zegoen, "Gramatikari buruzko zenbait ohar" eta "Hiztegia". Lana kazetariei eta, batez ere, Euskal Telebistako kazetariei lagungarri izateko asmoarekin osatu zen baina, testua antolatzeke orduan, kontzeptu linguistikoei jarraitu zitzaien.

«Gaietik begiratuta, bi zati nagusi bereiz daitezke liburuxka honetan. Lehendabizikoan, bost atal ditugu, gramatiketan ohizkoak diren atalak, alegia: lexikoa, deklinabidea, joskera, aditza eta ahozkerak. Bigarren zati nagusia berriz, hiztegi antzekoa dugu. [...] Zenbaitetan, hitzari buruzko azalpena ematen da, bestetan sinonimoak, egiturak edo arlo bereko hitzak gogorarazten dira». (Arrasate, 1992, or. 23)

Arrasateren eskuliburua munarri bat izan zen, baita aurrera egiteko bultzagarri bat ere. Hala, ETBko Euskara Sailak hizkuntza-zailtasunen bilketa sistematiko bati ekin zion informazio-saioetan, eta irtenbideak prestatzeko eta jakinarazteko eginkizunean murgildu zen. Hiztegiari zegokionez, premia lexiko eta terminologikoak detektatu, eta glosarioak eta zerrendak prestatzen hasi zen, albistegietan gaiak agertu ahala. 1990eko hamarkadaren bigarren erdian, hitz-zerrenda hauek ekoitzi ziren: Gerrak eta gatazkak, Hauteskundeak, Burtsa, eta Zuzenbidea. Glosario haiek Word formatuko taula sinpleak ziren, gaztelaniari eta euskarari zegozkien zutabeekin, eta jakingarrien zutabearekin, adiera zehaztu behar zenerako, erabilera adibideen bitartez erakutsi behar zenerako, edo bestelako datuak jaso behar zirenerako. Euskal Telebistako eta Euskadi Irratiko erredakzioetan, fotokopia bidez zabaltzen ziren.

Morfologiari, fraseologiari, egitura sintaktikoei eta testugintzako baliabideei zegokienez, ETBko hizkuntzalariak kazetarien zalantzak eta zailtasunak biltzen hasi ziren 1993an eta, gaiak aztertutakoan, kazetariei azalpenak eta argibideak eskuorri

formatuan jakinaraztea erabaki zuten, 'zabalkunde-orri' izen generikoa erabiliz (Larrinaga, 2012, or. 7). Eskuorrietan, ETBko testuetatik jasotako esaldi errealak ziren abiapuntua. Esaldi mordoxka batez ilustratzen zen okertzat edo zalantzagarriztat jotzen zen egitura eta, zegokion gramatika-azalpenaren ondoren, esaldien bertsio berriak eskaintzen ziren, gehienetan hobekuntza moduan, zuzenketa hitza saihestearren.

Orriotan, gaiak informazioaren edukiekin estuki lotuta egoten ziren, adibidez, susmoak eta hipotesiak adierazteko modalizazioak («bihar erabaki dezakete»), gertakarien denbora zehazteko aditz-baliabideak (esate baterako, etorkizunaz aritzeko, *-ko*, *-tze*ko *izan* eta *behar*), edo bikote-elkarteak («*seme-alabak*»). Horrez gainera, oroigarri modura, behin baino gehiagotan jaso ziren Euskaltzaindiak prestaturiko liburuxketan eta Arrasateren eskuliburuan landuta zeuden gaiak, esate baterako, neurri-sintagmak («*21 tantora jokatu*»), *ere* eta beste lokailu batzuen posizioa, eta perpaus osagarri izenlagunak («*zerbait gertatu den susmoa*»).

ETBko hizkuntzalariak eskuorriak prestatzen hasi ziren sasoiari, zalantzak kontsultatzeko eta hizkuntza-ikerketak egiteko erreferentziak gutxi ziren; baliagarriena, *Orotariko Euskal Hiztegia*. Paperezko edizioaren kontsulta nahiko nekeza izanda, corpus osoaren kopia elektronikoa bat eskatu zion ETBren zuzendariak (Zupiria, 2001) Euskaltzaindiari 2001. urtean, bai eta lortu ere. Euskaltzaindiak hiztegi osoa 'pdf' formatuan zabaldu duen arte, corpusaren kopia bat Euskara Zerbitzuko ordenagailuetan instalatuta egon da.

Edozelan ere, *Orotariko Euskal Hiztegia* hizkuntza-ikerketak egiteko funtsezko erreferentzia izan arren, ez da ETBko hizkuntzalariak esku artean izan duten bakarra. Horrez gainera, eskuorrietan jasota dauden beste gai batzuetan igar daitekeenez, beste hedabide batzuetan eta beste erakunde batzuetan lantzen ari ziren ereduak jakitun zegoen Euskara Saila, eta EiTbko kazetariak jakitun ipintzen zituen. Perpausetan aditza azken-azken posizioan ez uzteko gomendioa, mugagabeari buruzko oharrak, adizkien denbora- eta aspektu-balioei buruzko jarraibideak orduko beste eskuliburu batzuetan lantzen zirenen ildotik zetozen. Eskuliburu haien artetik, aipagarri dira Euskaltzaindiaren lehen lau EGLU liburukiak (1985, 1987, 1990, 1994a), Garateren

*Erdarakadak* (1988), *Euskaldunon Egunkaria*-ren *Estilo-liburua* (1992), eta *Esna* eta *Zubimendiren Idazkera-liburua* (1993).

Zabalkunde-orriak lantzeari 1996an utzi zion Euskara Sailak, gaiak agortutzat emanda, baina laster ikusi zuen orri haietako gramatika-azalpenak gogorarazteko premia zegoela, bai eta beste hizkuntza-gai batzuk ikuspegi ez hain gramatikaetik lantzeko beharrezana ere. Horrenbestez, 1999an *Euskara tantaka* izeneko proiektuari ekin zion. Asmoa zen gai bakoitzaren alderdi guztiei heltzea era praktikoa, azalpen eta argibide gehiagorekin, batetik besterako tartea aurreko orrietan baino luzeagoa izan arren, eta emaitza asmoarekin bat zetorrela esan daiteke. Orriak —egiata, liburuxkak— ez ziren asko izan, hiru baino ez, 1999 eta 2000 artean ekoitziak, baina hor esandakoak soka luzea ekarri du ETBko hizkera informatiboan, eta zuzentasunetik harago joateko lehen saiakera izan da.

Hiruretako lehenean (Euskara Saila, 1999a), trafikoaren berri emateko hizkuntza-alderdi guztiak aztertu ziren: errepide motak eta nomenklatura, zirkulazioa, istripuak, eta zaurituak eta hilak. Orri hark, geroztik, hainbat bertsio izan zituen, bai telebistan, bai irratan, trafikoaren gaineko informazioak tarte handia hartzen du eta. Bigarren orrian (Euskara Saila, 1999b), albisteetako protagonisten adierazpenen berri emateko modua aztertu zen: estilo zuzena eta zehar-estiloa, adierazpen-aditzak, eta adierazpenak pilatzen diren testuen estiloa txukuntzeko eta arintzeko gomendioak. Bigarren orri hark ere hainbat bertsio izan ditu.

Hirugarren orrian (Euskara Saila, 2000), kirol-taldeak —funtsean, futboleko ekipoak— euskaraz aipatzeko jarraibide batzuk jaso ziren: esateko modua, taula eta grafikoetan jartzeko modua, izenetan azaltzen diren toponimoak tratatzeko modua, eta beste gorabehera batzuk. Jarraibideok *Euskaldunon Egunkariako* hizkuntzalari-taldearekin adostu ziren, eta oraindino aplikatzen dira, bai ETBn eta Euskadi Irratian, bai euskarazko egunkarian —*Berrian*—. Ordukoak dira, besteak beste, 'Real Madril' eta 'Atletico Madril'. Ikusle arrunten batek batzuetan bestela pentsatu duen arren, azaldua dugu (Larrinaga, 2009) jarraibideok kirol-taldeen jatorrizko izena bere horretan errespetatzea gomendatzen dutela baina, horrekin batera, gure inguruko hizkuntzetako hedabideetan ohi denez, euskaratik moldaturiko deitura bat proposatzen dela ahozko zein idatzizko aipamenetan erabilgarriago izan daitekeena.

### 3.5.3. Kanpo-produkzioko dramatikoak

Euskal Telebistak 1980ko eta 1990eko hamarkadetan hizkuntzaren lanketaren arloan aurrera eramán zituen ekimenen bigarren multzo handia kanpo-produkzioko saio dramatikoek dagokie. Ikuspegi linguistikotik, kanpo-produkzioko film, telesail eta animazioek lehenago ezagutu gabeko ahots-mota, gizarte-maila, giro eta egoeretara eramán zuten euskara, eta bikoizketaren ardura izan zen presentzia berri hori sinesgarri egitea (I. Etxebarria, 1994, or. 52). Euskaraz, berehala menperatu zen bikoizketaren teknika, baina huts handiak egin ziren bikoizketa-politikan edo, Eguskizaren (2017) hitzekin esanda, metodologian. Arazo nagusi bi aztertuko ditugu. Lehena da zehaztu barik zegoela zer programa-mota bikoiztu euskarara. Bigarrena, zehaztu barik zegoela bikoizketarako euskara-eredua. Azpialal honen ardatz nagusia bigarren hori izango da.

Hasteko, esan beharra dago euskarazko bikoizketan jardun duten profesionalek garbi daukatela lotura dagoela arazo bien artean, hau da, programa arin eta tribialagoek euskara-eredua lantzen joatea erraztuko zuketela (Larrinaga, 2013d). ETBk, baina, ez zuen aukerarik izan zein programa-mota bikoiztu nahi zuen erabakitzeko, lehenengo urteetan zailtasun handiak izan zituelako nazioarteko telebista-merkatuetan interesatzen zitzaizkion programak erosteko. Díez Urrestarazuk (2003, or. 26–27) dio ETBk bere aurkako debekuren bat atzeman zuela garai hartan, eta saldu nahi izan ziotena erostea beste irtenbiderik ez zuela izan. Berdin zion marrazki bizidun bulgariarrak izan (ibid.) edo Shakespeareren antzerkia izan (Eguskiza, 2017).

ETBren proiektuan zihardutenek nekez aurreikus zezaketen halako zailtasunak izango zirela produktu egokiak eskuratzeko. Bikoizketarako euskara-eredua ere, batzuentzat baino ez zen izan arduratzeko gaia. Hala, 1981ean, Ramon Labaien Kultura sailburuak Martin Ibarbia kultur sustatzailea aukeratu zuen euskarazko lehen telebista izango zenaren Programazio zuzendarirako, eta Ibarbiak, oso garbi izanik ETBren programazioan bikoizketak tarte handia izango zuela, funtsezkotzat jo zuen berak 'euskarazko hizkera dramatiko estandarra' zeritzona sortzea. Ibarbiak Xabier Mendiguren Bereziartu itzultzaileari eman zion eginkizunaren ardura eta, lehen urratsak Irrati eta Telebista Eskolan egin ziren, 1981-82 ikasturtean (Larrinaga, 2007b).

Irrati eta Telebista Eskolan bikoizketa-ikastaro bat antolatu zen, bikoizle jardungo zuten profesionalak prestatzeko. Bikoizketarako testuei dagokienez, 1981-82 ikasturtearen hasieran Mendigurenek Filmen Bikoizketarako Zentroa (FIBIZE) antolatu zuen eskolan bertan, eta bulego horren ardurapean geratu zen gidoiak euskaratzea eta egokitzea. Ibiliaren ibiliaz, Ibarbiak nahitaezkoztat jotzen zuen hizkera dramatikoa osatzeko lehen urratsak egin ziren. Orduan finkatu ziren, esate baterako, 'txanda' eta 'kito' pelikuletako polizien irrati-komunikazioetarako, ingelesezko *over* eta *out* hitzen ordainez.

Irrati eta Telebista Eskolan itzultzaileentzat prestatu ziren hizkuntza-jarraibideetan, bi azpimarratu ditu Mendigurenek berak (1983). Lehen jarraibidea zen Euskaltzaindiaren arauak eta gomendioak maila guztietan betetzea. Bigarrena, itzulpenean audientzia euskaldunaren baldintzetara egokitzea, honela:

- a) euskara mintzatua eta idatzia hurbiltzen ahaleginduz;
- b) bizkaieraren eta gipuzkeraren artean zubia egiten ahaleginduz;
- c) «*lokalismo nabariak*», «*mordoilokeria nabariak*» eta «*hitz puristak*» baztertuz,
- d) itzulpen literalak baztertuz.

Jarraibide horiek gorabehera, euskarazko bikoizketaren lehen urte haietan ez zegoen inolako koordinazio edo baterakuntzarik itzultzaileen lanean.

Bakoitza bere aldetik ari zela, zazpi urteko ibilbidea egin zuen ETBrentzako euskarazko bikoizketak eta, hala, euskara-ereduari zegokionez, irizpideak eta baliabideak zehaztuz joan ordez, kezka handitu egin ziren. Agirrek (1989a, 1989b, 1989c, 1989d, 1989e) *Argia* aldizkarian euskarazko bikoizketari buruz argitaratu zuen seriean, langintzarekin loturiko protagonista guztien ahotik jaso zituen kezka haiek, bat zetozenak zerbitzu aldian ikus-entzunezkoetarako gaitu eta eguneratu beharra izan zezakeen edozein hizkuntza gutxitutan sor zitezkeenekin:

- a) ETBn erabiltzen zen euskara-eredua filmetako egoerei behar bezala egokitzen ote zitzaien.
- b) Eredu haren emaitza produktu ulergaitz, ezeroso, sinesgaitz eta euskara bizitik urrundua ote zen.
- c) Bikoizketako hizkuntza euskara batu idatziari lotuegia ote zen.
- d) Bikoizketarako euskararen lanketan, ez ote zituzten erakundeek euren gain hartu behar koordinazioa eta kalitatearen kontrola.

ETB jabetuta zegoen kezka horietaz eta, ordurako, bazuen abian ekimen bat.

Ekimenari *Control de calidad lingüístico-artístico* (A. Aranburu, 1988) esan zitzaion, eta Aurkezpen eta Emisio Sailak eraman zuen aurrera. Sail horri atxikita, ETBk bi hizkuntzalari kontratatu zituen, eta ekintza-plan bat prestatu zuen. Lehenik, astero heltzen ziren programa bikoiztuen kalitate linguistikoaren eta artistikoaren kontrola egiteko ardura eman zitzaien bi hizkuntzalariei eta, handik bi hilera, txosten bat eskatu zitzaien. Ondorio nagusia zen alderdi teknikoan ez zela arazo berezirik igartzen baina alderdi linguistikoan, ordea, nahiz eta programa gehienek gutxieneko maila eman, bide luzea zegoela kalitate gogobetegarri batera iristeko. Hortaz, bigarrenik, hiru ekimen prestatu ziren bide horretan laguntzeko. Hasteko, harreman zuzen eta etengabea ezarri behar zen estudioekin, irizpide linguistikoetan, bai eta tekniko-artistikoetan ere, adostasuna lantzen joateko. Bigarrenik, hizkuntza-irizpideetan behar zen adostasun horretara euskara-aditu prestigiodunen iritzia bildu behar zen. Azkenik, Aurkezpen eta Emisio Saileko hizkuntzalariei berariazko formazioa eskaini behar zitzaien.

Formazio modura, ETBk Bartzelonara bidali zituen hizkuntzalari biak, Kataluniako telebista autonomikoa (TVC) eta hango bikoizketa-estudio bat bisitatzera (I. Etxebarria & Kalzakorta, 1988). Bidaian ikasi zutenaren arabera, Kataluniako estudio bakoitzean, TVCk homologaturiko hizkuntzalari batek egiten zuen produkzio osoaren kontrol linguistiko-artistikoa, eta TVCk, estudioetatik hartzen zituen bikoizketen gutxieneko kalitate-maila ziurtatutzat emanda, lagin baten azterketa baino ez zuen egiten. TVCk, ordurako, bazeuzkan hainbat hizkuntza-irizpide finkatuta, hizkuntza-normalizazioaren eta telebistako hizkuntzaren uztarketa gidatzeko. Horrez gainera, TVCko Hizkuntza Normalizaziorako Taldea aldizkari bat kaleratzen hasia zen egituretan, erabileretan eta esapideetan izan zitezkeen zalantzak argitzeko.

Euskarazko bikoizketan, nekez inporta zitekeen Kataluniako eredua, besteak beste, estudio bakoitzak bere egitura antolatua zuelako, baina agerian geratu zen ETBekin koordinatzeko eta irizpideak bateratzeko beharra. Erabakia izan zen 1988an hasitako kontrolekin segitzea. Aurkezpen eta Emisio Sailera atxikitako hizkuntzalariek programa bikoiztu bakoitzaren azterketa linguistiko-artistikoa egin behar zuten eta, aurkituriko arazoak eta proposaturiko irtenbideak ebaluazio-txosten batean jasota, estudio bakoitzarekin bi edo hiru jarraipen-bilera egiten ziren urtean. Bilera haietako ebaluazioa ETBk erreferentziatzat hartzen zuen hurrengo epealdiko lanak estudioen artean banatzeko orduan.

Jarraipen-bileren sistema oso aukerakoa izan zen ETBren eta estudioen artean beharrezkoa zen irizpideak bateratuz joateko. Alderdi tekniko-artistikoan, irizpide hauek izan ziren lehenak (A. Aranburu & Lejarza, 1991):

- a) Programari jatorrizkoaren ordezkari euskarazko izenburu bat jartzen bazitzaion, pantailan idatzita eta/edo soinu-bandan lokutatuta eskaini behar zen jatorrizkoa izenburua agertzean.
- b) Lokuzioan hizkuntza arrotz bat agertuz gero, hizketa gisa zein kanta gisa, pantailan euskarazko azpidatziak jarri behar ziren argumentuaren hariari jarraitzeko garrantzitsua zenean.

Apur bat aurrerago, abestiak euskaraz berriz sortzeko irizpidea eman zen, marrazki bizidunetako kareketan eta azken kredituetan ia salbuespenik gabe bete behar zena (Kalitate Kontrola, 1992).

Hizkuntza-irizpideak bateratzeko beharra zela eta, 1990. urtean, bikoizketaren ordura arteko emari lexiko-terminologikoa aztertzea erabaki zen (A. Aranburu, 1990). Egitasmoa Hizkuntza Politikarako idazkariari aurkeztu zitzaion, Jaurlearitzatik babesa eta finantzazioa jasotzeko helburuarekin (Anasagasti, 1990). Aurkezpen-txostenak (Kanpo Produksioa, 1990) zioen ETBk 8.000 ordu inguru edukiko zituela euskarara bikoiztuta baina, material horretan azaltzen ziren zailtasun lexiko, fraseologiko eta terminologikoak handiak izan arren, bikoizketa-estudio bakoitza bere aldetik ari zela, eta estudio bakoitzaren eta beraren itzultzaile-egokitzailen artean ere koordinazioa oso apala zela. Egitasmoaren ardatzak, beraz, bateraketa eta gordailuratzeko ziren. Ordura arteko bikoizketen lagin bat osatu, hustuketa egin, eta erabilgarri ziruditen hitzak eta esapideak datu-base batean bildu behar ziren, ikus-entzunezkoak euskaratzen zihardutenen esku jartzeko. Lana 1993an amaitu zen, eta paperean inprimatuta zabaldu zen, gaika antolatuta —legea, armada, polizia, medikuntza, *to miss*, hitz-jokoak, eta beste hogeita bost gai— (Kalitate Kontrola, 1993). Bilduma zabaldu zenerako, material gehiena zaharkituta zegoen.

Euskara-adituei kontsultatzeko asmoa zela eta, panel bat osatu zen 1990ean, eta inkesta bat banatu zitzaion, *Ron eta Ron, abenturak eta kalenturak* eta *Ederra eta piztia* telesailletako kapitulu banatan oinarritua (Kalitate Kontrola, 1990b). Euskarazko bikoizketetan igartzen ziren arazoak hiru hitzekin laburbil zitezkeen: sinesgarritasuna,



egokitasuna eta adierazkortasuna. Kapitulu haiek bikoizteko, hortaz, eredu berri bat probatu zen, ahoskeran oinarritzen zena —laburdurak, bokal arteko kontsonanteen galera, aditz nagusiaren eta laguntzailearen amalgama—. Adituen erantzun gehienak bat zetozen eredu berriak ez zituela konpontzen sinesgarritasun- eta egokitasun-arazoak (ibid.). Herri-hizkerara hurbiltzeko modu hura adierazkortasuna hobetzeko baliabide bat izan zitekeela onartu zuten adituek, baina bikoizketako eredua Gipuzkoako euskararantz makurtuko zuela zeritzoten. Haien ustez, gainera, beste baliabide batzuk erabil zitezkeen ulergarritasuna, sinesgarritasuna eta hurbiltasuna lortzeko, hala nola, erritmoa, doinuera, sintaxia, testuaren egokitzapena, dramatizazioa, eta ahotsen aukera.

Saiakera hura, horrela itxi ordez, harago eraman nahi izan zen eta, adituen iritzia biltzeko inkestaz gain, ikusleen erreakzioak jasotzeko ikerketa bat antolatu zen (Kalitate Kontrola, 1990a). Ikerketa hura Siadeco enpresari agindu zitzaion (Kalitate Kontrola, 1991). Hiru eszena prestatu ziren ikerketarako, eta hamar talde antolatu 1991n Euskal Herri osoan, bi adin-tartetan banatuak —20-35 urte artekoak eta 35-60 artekoak—, eta homogeenak hizkuntza-gaitasunean —euskaldun zahar alfabetatu gabeak, euskaldun zahar alfabetatuak eta euskaldun berriak—. Eszenetako bat *Bagdad kafe* telesailekoa zen; beste bat, *Cagney eta Lacey* telesailekoa, eta azkena, *Bikote xelebrea* filmekoa. Hiru eredu erabili ziren eszena bakoitza bikoizteko:

- a) Eredu estandarra edo ohikoa: idatziari jarraitzen zion ahoskera, euskara batuko lexikoa eta morfologia, eta, kolokialtasun-ezaugarri modura, hikako tratamendua hala zegokionean.
- b) Laburduraduna: laburdurak eginez, 1990ean *Ederra eta piztian* bezala.
- c) Kolokiala: itzulpen askeagoa eginez eta gipuzkera kolokiala sartuz.

*Bikote xelebrea*ren eszena laugarren modu batean ere bikoiztu zen, zuka eta laburdurarik gabe, modu estandarrean hika jarri baitziren elkarrizketak.

Iritzi-emaielen artean, multzo bi bereizi ziren oso garbiro (Siadeco, 1991, or. 4–6). Lehen multzoan, euskaldun zahar alfabetatuak eta euskaldun berri natibizatuak zeuden, eredu kolokiala nahiago izan zutenak. Bigarren multzoan, euskaldun zahar alfabetatu gabeak eta euskalduntzea burutu gabeko euskara-hiztunak zeuden, eredu estandarra nahiago izan zutenak. Aukerak aukera, batzuek eta besteek eragozpenak topatu zituzten eredu bietan. Estandarrari naturaltasuna falta zitzaion. Eredu kolokiala ez zen ulertzen

erraza, eta erabilitako euskalkiaren hiztunei bakarrik iruditzen zitzaien naturala. Horren aurrean, bikoizketetan eredu estandarra erabiltzea proposatu zitzaion ETBri, baina ohar batzuk erantsita (ibid., or. 19-21). Lehena, hiztegia erraztea, berba jasoak eta gizartean hedadura txikia zutenak baztertuta. Egiturak erraztu beharra ere bazegoen, esaldi ez hain luzeak eginez eta subjuntiboa gutxiago erabiliz. Hitanoa testuinguru jakinetarako uztea gomendatu zen, eta, azkenik, adierazkortasuna eta doinuera lantzea. Itzulpenak zirela eta, aipamen berezia zegoen, literaltasuna alde batera utzi eta egokitzapenera jo zedin.

Ikerketako emaitzetatik harago, Siadecok ohar soziolinguistiko bi erantsi zituen txostenean, bata telebista-ereduari buruzkoa, eta bestea euskara-ereduari buruzkoa (Siadeco, 1991, or. 23–26). Siadecoren arabera, ikerketa egin zen denboran, Euskal Telebista bere balio erantsiengatik aukeratzen zuten ikusleek, baina hori fase iragankor bat zen eta, etorkizunari begira, euskara-ereduaren eztabaida baino lehenago, hedabidearen beraren nortasuna eta irudia jarri behar ziren mahai gainean. Erabiltzen zen euskararen, bestalde, aniztasuna behar zen, baina kontrolpeko aniztasuna, eredu erreferentzial batean oinarritua. Euskara-eredu erreferentzial horren lekua, gutxienez, albistegiak, barneko eta kanpoko produkzioa, kirol-saioak, eta haur eta gazteentzako saioak izango ziren eta, linguistikoki, parametro hauek definituko zuten: indarreko hizkuntza-arauak, artikulazio argia, intonazio naturala, batasun fonikoa.

Bikoizketako euskara lantzeko hainbeste saiakera eginda ere, Euskal Telebistan kezka zegoen bikoizketaren irudi txarragatik eta, 1990eko hamarkadaren erdialdean, telebista pribatu hasi berrien lehiak eta euskarazko bikoizketa-orduen murrizketarako planek handiago egin zuten kezka, ETB1en kanpo-produkzioko fikzioan audientzia-galera larria gerta zitekeelakoan. Horren aurrean, 1996an, ekimen berezi bat abiarazi zen *Zine Oro* saioaren barruan, ordura arteko ikusleak fidelizatzeko eta berriak erakartzeko helburuz, arreta euskalduntze-prozesuan ari ziren helduengan jarrita (Aurkezpen Saila, 1996). Kanpainarako sei pelikula hautatu ziren. Bikoizketa osoa ardura handiz zaindu zen, ETBko hizkuntzalarien kontrol handiagoarekin, eta material berezia prestatu zen euskaltegietan zabaltzeko (Euskara Saila, 1996b): film bakoitzari buruzko liburuxka bat, eta inkesta bat —filmari berari, emanaldiari eta bikoizketari buruzko galderekin—. Ekimenak ez zuen emaitza garbirik izan euskarazko bikoizketaren promozioaren ikuspegitik, ezta jarraipenik ere.

EiTBren ekimenetatik guztiz bereiz, 1990eko hamarkadaren hasieran, Iñaki Zubizarreta Irusoin bikoizketa-estudioko euskara-arduradun eta EIZIE itzultzaile-elkarteko zuzendaritza-kide zenak antolatuta, mintegi bat sortu zen EIZIEren egoitzan Irusoineko itzultzaile-egokitzailentzat (Larrinaga, 2007b, or. 93). Mintegia EIZIEko Komunikabide Saila bihurtu zen eta, 1992ko martxoan, solasaldiak egiten hasi ziren hilero Ibon Sarasolarekin, bikoizketako zalantzak argitzeko helburuz. Zalantzak morfologikoak ('galderak erantzun' / 'galderei erantzun', 'milana' / 'mila bana', 'balitz bezala' / 'bailitzan'...), lexikoak ('kontzentratu', 'obulu', 'neuro', 'kontsulta'...) zein bestelakoak ('astotik jaitsi' / 'asto gaineratik jaitsi', 'mundu-gerra' / 'gerra mundial'...) izaten ziren (Zulueta, 1992). Solasaldi haietan *a posteriori* lan egiteak —batzuetan, programa bikoiztu eta denbora luzera, gainera— ez zuen gauza handirik konpontzen ordurako emititua zen materialean, baina funtsezkoagoa zen solasaldi haietan ez zuela bikoizketaren sektoreak parte hartzen, Komunikabide Sail hartan ez baitzen inor ari, ez ETBren izenean, ez bikoizketa-estudioen izenean (Larrinaga, 2007b, or. 94).

### 3.5.4. Kanpo-produkzioko entretenimendua

Kanpo-produkzioko entretenimendua sail txikia osatu du beti ETBren programazioan, eta programa-motak ere ez dira asko izan, besteak beste, dibulgazioa —*Beakmanen mundua*—, zirkua —*Solstrom*— eta kontzertuak —*Abbey Road zuzenean*—. Dibulgazioa kenduta, hitz gutxiko programak izan dira eta, beraz, bikoiztu edo azpidatzi beharrekoa ere, gutxi. Kanpo-produkzioko entretenigarrien hizkuntza-eredua filmak eta serieak bikoizteko erabiltzen den bera da eta, alde horretatik, ez luke merezi berezko azpiatal bat egitea. Halaz guztiz, sail honek badu interesa bikoizketarako euskararen lanketaz dihardugula, 1994ko gertakari batek ondo erakusten duelako zein zen zailtasun handienetako bat: eragile ezberdinek zein ezberdinki ulertzen zuten lanketa hori.

1994ko azaroan, *Beakmanen mundua* dibulgazio-saioaren bikoizketak aurrez aurre jarri zituen ETB eta K2000. ETBk saioaren hizkuntza-zuzentasuna zaintzea eskatzen zion K2000ri, eta horrek zuzentasuna gainditu beharra zegoela erantzuten zion. Sánchez (1994) K2000ko bikoizketa-zuzendari zenaren iritziz, eurek hautaturiko bikoizle-taldea ezin hobea zen; itzulpenak, onak, txiste eta hitz-joko guztiak errespetatzen zituztenak,

eta postprodukzioa, garbia eta dotorea. Horrez gainera, ez zion inola ere lagungarria irizten ETBk egiten zuen kontrolari. Batetik, Sánchezek ez zuen akatsik aurkitzen ETBk zuzentzera bidaltzen zituen esaldi gehienetan. Bestetik, ETBk proposatzen zituen hobekuntzei Sánchezek programaren kalterako irizten zien. K2000koek zioten ETBkoek istorioak ulertu ere ez zituztela egiten, eta gehiegizko arduraren ipintzen zutela hizkuntzaren zuzentasunean, kalitate artistikoan ipini beharrean.

K2000ren eta ETBren arteko tentsioak hilabeteak iraun zuen. ETB —harreman hartako bezeroa— denboraren eta baliabideen inbertsioa egiten ari zen pantailaratu nahi zuen euskararen lanketan eta, beraren iritziz, *Beakmanen mundua* bakarrik ez, K2000ren bikoizketa guztiak ez ziren zuzentasunera ere heltzen. K2000ko bikoizketa-taldeak, berriz, lan bikainak egiten zituela aldarrikatu eta, hornitzailea izanda ere, ez zituen aintzat hartu nahi ETBk helarazten zizkion ohar eta irizpideak. Harreman hura normalizatzeko lehen urrats gisa, González (1996) K2000ko gerente berriak lan-sistema aldatzeko agindu zuen, eta kalitatearen kontrolerako lan-eskema berri bat ezarri zuen. Bigarrenik, telebistako euskarari buruzko mintegiak antolatu zituzten K2000n bikoizketa-arloan ari ziren langile guztientzat eta itzultzaile-egokitzatzaile autonomoentzat, Xabier Amuritza, Andu Lertxundi, Miren Azkarate eta Andoni Aranburu hizlari zirela, eta bikoizleei foniatría ikastaroa eman zieten. Edozelan ere, alde handia zegoen hizkuntza-irizpideetan ETBko eta K2000ko euskara-arduradunaren artean, eta tentsioa ez zen erabat lasaitu 1997an K2000k arduradun berria jarri zuen arte (Zulueta ETBko hizkuntzalariak 2015ean komunikazio pertsonal batean kontatu bezala).

### **3.6. ETBren HIZKUNTZA-HAUTUEN INPLEMENTAZIOA ZERBITZU**

#### **ALDIAN**

Kapitulu honetan dagoeneko azpimarratu dugunez, Euskal Autonomi Erkidegoko gobernuak 1982an telebista-zerbitzua euskaraz eskaintzeko erabakia hartu zuenean, agertu ziren zailtasunen artean, hizkuntzarekin loturikoak handiak ziren. Euskara hainbat dialektotan zatituriko hizkuntza zen, hamarkada bat egina zuena estandarizazioaren bidean. Telebista ez zitzaion guztiz arrotza —komunikazioa are gutxiago—, ezta irakaskuntza edo beste gizarte-eremu batzuk ere, baina ezin zitekeen

esan eremu horietan ez hedatuta zegoenik, ez egokiro aritzeko bezain landuta zegoenik. Horretaz guztiaz gainera, 1980ko urteen hasieran, euskara hizkuntza gutxitua zen euskal gizartean eta, hortaz, ETB atzitzeko langa bat izan zitekeen herritar askorentzat, ez zekitenentzat zein intimitaterako bakarrik erabiltzen zutenentzat.

Atal honetan, zailtasun horiek kudeatzeko hartu ziren erabakiez jardungo dugu. Aurreko atalean ere, horretaz aritu gara, arretagunea euskarari jarrita. Batetik, egoera soziologikoari erantzunez, ETB elebidun egitea erabaki zela esan dugu eta, bestetik, euskara batua aukeratu zela emanaldietarako, urte haietan euskarazko komunikazioan eta euskararentzat irabazi nahi ziren gainerako erabilera-esparru estrategikoetan urratzen hasia zen bidetik jarraituta. Orain, telebista-zerbitzuan bertan ipiniko dugu arretagunea, eta ETBn emisio elebiduna eta euskara batua inplementatzeko antolatu behar izan ziren bitarteko eta egiturez arituko gara.

Hurrengo lerroetan, ETBn hizkuntza-zailtasunei aurre egiteko antolatu ziren bitartekoen gainbegiratua egingo dugu. Lehenengo eta behin, euskara oztopo izan zekiekeen ikusleentzat ipini ziren gaztelaniazko azpidatziez arituko gara (ikus 3.6.1.). Azpidazketa izan zen, hain zuzen, ETBren emanaldiak elebidun egiteko baliatu zen bitarteko nagusia. Horrez gainera, ikusle beroriengan pentsatuz, euskara irakasteko saioak ekoitzi ziren (ikus 3.6.2.). Halako saioak ekoizten segitu duen aldetik, ETBk eginkizun garrantzitsua bete du elebitasuna —pantailatik harago— gizarte osoan hedatzen. Amaitzeko, ETBko profesionalentzat eratu zen hizkuntza-zaintzako egituraz jardungo dugu (ikus 3.6.3.). Aurreko atalean ikusi dugu hizkuntzalarien kontratazioak albistegien eta programa bikoiztuen hizkuntza-kalitatearen kontrola izan zuela helburutzat eta eginkizun horri erantzuteak, ondorio gisa, euskararen lanketari ekitea ekarri zuela. Atal honetan azalduko dugunez, hurrengo urratsa hizkuntzalariak egitura bakarrean biltzea izan zen, irizpideak koordinatu beharra zegoelako, eta enpresaren funtzionamenduan berezko tokia izatea komeni zelako. Hala eratu zen Euskara Sailak beste eginkizun garrantzitsu bat hartu zuen bere gain: komunikatzaileen hizkuntza-prestakuntza.

### **3.6.1. Gaztelaniazko azpidazketa**

Euskal Telebistaren lehen urteetako emanaldietan eredu elebiduna inplementatzeko, azpidazketa izan zen gakoa. Albistegi oso bat egiten zen egunero gaztelaniaz, eta beste

albistegi bat, arratsaldekoa, euskaraz, eta gainerako programak —kanpo-produkzio guztia eta barne-produkzioko dokumentalak eta bestelakoak— euskarazko lokuzioarekin eta gaztelaniazko azpidatziekin eskaini ziren hasierako unetik. Horretarako, orduko bitarteko teknikorik onenak nahi izan ziren. Lehendabiziko azpidazketak Madrilen egin ziren, Atanor enpresan, Chyron markako idazkun-makina berriekin, zinez berriak, Televisión Españolaentzat ere lehen probak izan baitziren (Larrinaga, 2007b, or. 86). Azpidatziak programaren euskarri fisikoan bertan ezartzen ziren gaininpresio gisa, eta horren ondorioa da orduko materialak ez daudela berriz erabiliak izateko moduan<sup>14</sup>.

Haur eta gazteentzako programetan, ETB2 sortutakoan kendu ziren gaztelaniazko azpidatziak, EAEko haur eta gazteek bai baitzuten euskararen ezagutza —handiagoa edo txikiagoa— irakaskuntzaren bitartez baina, gainerako programetan erabat kendu arteko bidean, ETB1en audientzia jaitsiko ote zen beldurak markatu zuen debatea. Azken erabakia hartzeko, ikerketa bat baliatu zen. Berez, ikerketa hura, 1991n Siadeco enpresari enkargatu zitzaiona, bikoizketako euskarari buruzkoa zen (3.5.3. azpiatalean ikusi dugunez), alegia, haren helburua zen ETBk eskaintzen zituen film eta telesailetan erabiltzen zen euskararen gainean ikusleek zer iritzi zuten aztertzea. Ikerketan (Siadeco, 1991, or. 17) bildutako datuen arabera, ikusleen iritzia, nagusiki, gaztelaniazko azpidatziaren aurkakoa zen eta, euskara ikasten laguntzeko funtzioa izan zezaketela defendatzen zuten apurren aldean, ikusle gehienek uste zuten azpidatziak oztopo zirela, begirada erakartzen zutelako lokuzioa ulertu zein ulertu ez.

Siadecok (1991, or. 17–18) ETB1en euskarazkoak ez ziren azpidatziak kentzea gomendatu zuen, arrazoi hauengatik:

- a) Ikuslearen arreta galarazten zuten.
- b) Ikusle euskaldunek telebistako euskararen ulermena lantzeko eta garatzeko eragozpen bat ziren.
- c) Euskararen mendekotasun-irudia indartzen zuten.

Azpidatziak kentzen baziren, erabaki atzeraezina izan behar zela ulertu zen, eta arazoa ondo pentsatzeko denbora hartu zuen ETBk. Azkenean, 1993. urtearen hasieran, behin betiko kendu ziren gaztelaniazko azpidatziak ETB1etik.

---

<sup>14</sup> Tamalgarria da, esate baterako, Aita Barandiarani egindako elkarrizketa interesgarri batzuetan ez dagoela irudi garbirik, artxiboan gordeta dagoen materiala gaztelaniazko azpidatziekin ageri baita.

Inoiz, ordea, frantsesezko azpidatziak erabili dira, Ipar Euskal Herriari begira, baina ez, inola ere, ETBren hasierako urteetan erabili zen eredu elebiduna berreskuratzeko edo errepikatzeko asmoarekin. Frantsesezko azpidatziak erabili zituen programa *Ipparaldea* izan zen, 1998-1999 aldian. Saioa euskaraz eskaintzen zen, eta lokuzioa eta txertatzen ziren euskarazko adierazpenak frantsesez azpidatzen ziren; frantsesezko adierazpenak, berriz, euskaraz azpidatzen ziren.

### 3.6.2. Euskararen ezagutzaren sustapena

EAEko hizkuntza-politikak 1980ko urteetan helburutzat jarri zuen gizarte elebiduna emisio elebidun gisa inplementatu zen ETBren pantailan. Horren parez pare, ETB baliabide garrantzitsu bat izan zen hasieratik euskal gizartean elebitasuna hedatzeko. Telebistak hainbat erataria lagundu zuen elebitasunaren hedapenean: euskara ikasteko giroa faboratuz, euskara arrotz zitzaien herritar askori lehen kontaktua erraztuz, eta euskararen irakaskuntzarako berariazko programak ekoitziz. Euskalduntzea bultzatzeko eginkizunean, beraz, ETBk rol garrantzitsua izan zuen eta, estandarraren ezagutza zabaltzen ere, asko lagundu zuen, euskaldun natibo askorentzat telebista eta, berarekin, irratia izan baitziren euskara batura iristeko modua.

Euskarazko telebista bat agertze hutsa bultzagarri bat izan zen jende asko euskara ikastera anima zedin, eta euskaldun profesional askok euren hizkuntza-maila jaso zezaten —telebistako pantailan aditu modura agertzeko edo enpresa barruan lan egiteko aukeraren aurrean—. Horrez gainera, ETBk rol aktiboa ere jokatu zuen gizartean euskararen ezagutza sustatzen, lehenengo eta behin, bere programazio-politikaren bitartez. Haurrei eta kirolzaleei zuzenduriko programak ingurune euskaldunean murgiltzeko aukera bat izan ziren xede-multzo horientzat —haurrentzat, batez ere—. Bigarrenik, ETBk euskara ikasteko zein hobetzeko programak ekoitzi zituen. Euskalduntzen ari ziren ikasleengan pentsatuta, *Bai horixe!* telesaila pantailaratu zuen HABErekin elkarlanean, ondoren euskaltegietan erabiliko baitzen material didaktiko gisa<sup>15</sup>. *Balinda* saioak, berriz, euskararekin jolastu bitartean hizkuntza-ezagutza emendatzeko aukera eskaintzen zien ikusle euskaldunei.

---

15 Programa, 1980ko hamarkadan produzitu zen arren, oraindik aurki daiteke euskaltegietan eta telebista lokalen baten emanaldietan. ETBren euskarazko telesailetan ezagun egin diren hainbat aktorerentzat, gainera, berealdiko antzerki-eskola izan zen

Eskola-garaian euskara ikasteko aukerarik izan ez zuten euskaldun askorentzat, telebista eta irratia izan ziren eredu estandarra ezagutzeko aukera bakarra. Bada aldea, dena dela, eredia ezagutaraztetik funtzio didaktikoa betetzera, beharbada orduan ulertzen ez zena, Salaburu (1984b) euskaltzainaren hitz hauetatik ondoriozta daitekeenez:

«Aurkeztaileek, nire ustez, batuaren formak zaindu beharko lituzkete, orain arte egiten duten baino neurri handiago batean. Ulegarritasunari ez lioke inolako kalterik egingo horrek. [...]

Euskara batuaren arau urri horiek zainduko balituzte gure komunikabideek hain beharrezkoa dugun funtzio didaktikoa ere beteko lukete bide batez [...].».

Telebistaren ahalmena ulertzeko modu horrek —berak bakarrik ez, dena dela— kritika gogorak eragin zituen lehen garaian ETBren aurka, hurrengo azpiatalean ikusiko dugunez. Beharbada, euskarazko hedabideetan ipinitako itxaropenak ez ziren errealistak. Urte batzuk geroagoko ikerketen berrikuspena egin dugunean esan bezala (1.3.4.3. puntuan), funtsezkoa da hiztunaren motibazioa telebistak eragina izan dezan hizkuntzaren jabekuntzan.

### **3.6.3. Hizkuntza-zaintza ETBn**

Euskal Telebista abian jartzea ez zen izan askok espero zuten panazea. Hizkuntzari zegokionez, TVEren euskarazko bertsio moduko bat aurkituko zutelakoan zeuden gizarte-eragile ez gutxi, baina euskara ez zegoen gaztelaniaren pareko egoeran. Euskararen estandarizazioa hasi berria izanda, pantailara irteten ziren euskarazko produktuek nekez izan zezaketen beste hizkuntza batzuetako produktuen kalitate linguistikoa. Kalitate horren kaltetan, gainera, ETBren lehen garaiko komunikatzaileen artean baziren euskaraz alfabetatu gabe edo ia alfabetatu gabe zeudenak, eta are euskara trakeski zekitenak edo batere ez zekitenak ere. Itxaropenak zapuzturik ikusi zituztenek kritika gogorak egin zizkioten ETBri.

Kritika haien aurrean, ETBk hizkuntzalariak kontratatu zituen, albistegien eta programa bikoiztuen hizkuntza-kalitatearen kontrola egin zezaten. Hizkuntzalariok, urte batzuk



igarota, egitura bakarrean bildu ziren, Euskara Saila izenarekin (ikus 3.6.3.1.). Izan ere, kontrol hark zer esparru hartu behar zuen zehaztu zenean, eta berarekin beste ardurabatzuk zekartzala ikusi zenean, besteak beste, irizpideak bateratzea, beharrezko egin zen hizkuntzalariei euren zeregina eta euren tokia aitortzea enpresaren jardueraren barruan. Ia aldi berean, Euskara Sailak ETBko profesionalen premietan ipini zuen arreta, eta garrantzia eman zion komunikatzaileen etengabeko hizkuntza-formazioari (ikus 3.6.3.2.). Bada, telebistarako euskararen lanketa arrakastatsua izango bazen, kazetariak eta aurkezleak funtsezko katebegia ziren: landuz zihoazen hitz, termino, esamolde eta hizkuntza-jarraibide berrien jakitun egon behar zuten, baliagarri eta egoki iritzi behar zieten, eta, azkenean, aplikatzeko urratsa egin behar zuten.

### 3.6.3.1. Euskara Sailaren sorrera

ETBk lehen urratsak egin baino ez, agerian geratu zen euskara zailtasun bat zela, pantailara irteten zen produktua ez baitzen inguruko hizkuntzetan eskaintzen zen produktuaren mailakoa zuzentasun, jatorritasun eta adierazkortasun linguistikoari zegokienez. ETBk ekoiztako albistegietan, are kritikoagoa zen zailtasuna, lantalde berak egiten baitzituen euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak —zeina baita gaur egun ere indarrean jarraitzen duen produkzio-eredua—. Komunikatzaileek, beraz, euren lanean egiaztatzen eta pairatzen zuten hizkuntza bien arteko aldea eta, besterik ezean, bakoitza ahal zuen bezala moldatzen zen euskara estandarizatzen eta garatzen hasi berri harekin. Hurrengo lerroetan azalduko dugunez, ETBk egoera horretan pantailaritzen zituen programen hizkuntza-kalitateak kritikak eragin zituen, eta zuzendaritzaren erantzuna hizkuntzalariak kontratatzea izan zen. Hizkuntzalariok programazio-arlo bakoitzaren premien arabera hartu ziren baina, urte batzuen buruan, beraien lanaren berezitasunak komenigarri egin zuen berariazko sail batean biltzea denak.

Lehen emanaldietatik, ETBk aireratzen zuen euskarak kezka eta kritikak eragin zituen. Hala, Euskararen Aholku Batzordeak (1983, or. 29), eratu baino ez, irritati eta telebista sortu berrietan erabiltzen zen euskararekin kontuz ibili behar zela ohartarazi zuen eta, batzordea berriztatu zenean, 1984ko otsailean, arazo nagusitzat jo zen telebistako euskara (Eusko Legebiltzarra, 1985b, or. 14). Gaia debate publikoan ere bazegoen.

«Askori kondatu diedan sasisekretua da EGINeko *Hobeki euskara hobean* atalerako oker eta akats gehienak euskal telebista-irratietatik biltzen ditudala, baina ez, tamalez, bertakoek esanik, beraiei mintzaten entzunez baizik. Azpimarratzekoa ere ba da, seinaturiko oker horietatik batto ere ez dutela orain arte zuzendu, gure informatzaile profesional bikainek zenbat irakurtzen duten argiro erakutsiz». (Kintana, 1984b)

Batzuen iritziz, gainera, ETBren euskara horren errua zen beste esparru batzuetako euskaran atzematen zuten kalitate txarra. José Basterrechea (1989) *Oskillaso* ezizeneko euskal idazleak hala zeritzon:

«Lejos de sospechar que Euskal Telebista es uno de los sitios en los que peor se habla nuestra lengua, son muchos los que escuchan sus emisiones con objeto de practicar y mejorar su euskara, los euskaldunberris porque no saben distinguir el euskara bueno del malo y algunos euskaldunes porque, siendo el euskara batua diferente del que ellos hablan, llegan a creer que lo que oyen es euskara batua. Para comprobar el daño que esto ha hecho ya, basta echar una ojeada a lo que viene publicando hoy en euskara».

Giro horretan, Andoni Areizaga EiTbko zuzendari nagusiak, EABren gomendioz, ETBko Euskara arduradun izendatu zuen Gabino Murua. Muruak, 1985eko otsailean, txosten bat aurkeztu zion Areizagari ETBren euskararen gainean. Muruak (1985) nabarmendu zituen arazoak, hein handi batean, estandarizazio bukatu gabearen ondorio ziren —hiztegiko hutsuneak, doinuera arrotzak, erdarakada gordinak, gramatikazko zalantzak— baina, horrez gainera, zenbait kazetariren hizkuntza-erabilpen kaskarra azpimarratu zuen. Horren aurrean, urte hartako martxoan, HABEren kolaborazioarekin, ikastaroak antolatu zituzten Hondarribiko barnetegian euskarako prestakuntza behar zuten kazetariarentzat.

Ikastaro batek ez zituen konponduko arazoak. 1985eko udazkenean, Zuzendaritzak Lurdes Otaegi izendatu zuen ETBko Euskara arduradun, eta txosten bat eskatu zion

ETBren hizkuntza-egoerari buruz. Otaegik (1985), albistegi eta programei zegokienez, Muruak lehenago seinalaturiko gaitzak aipatu zituen berriro, eta epe laburrerako hiru ekintza proposatu zituen: zuzentzaileak jartzea, testuak orrazteko; esatariak aukeratzea, testuak behar bezala irakurtzeko, eta kazetariak prestatzen segitzea. Bikoizketari zegokionez, egokitzapenean aurkitu zituen arazoak: itzulpenetan, egitura ez oso jatorrak, esamolde bortxatuak, eta jatorrizkoari lotuegiak; hiztegian, garbizalekeria; eta dramatizazioan, doinuera ezegokiak. Txostenak larrizat jotzen zuen, halaber, ETBren eta estudioen artean hizkuntza-koordinaziorik ez egotea. Otaegiren proposamenaren ardatza ETBren barruan Hizkuntza Arduralaritza sortzea zen<sup>16</sup>, bere gain har zitzan hizkuntzarekin lotutako alderdi guztiak: normalizazioa, hizkuntza-koordinazioa, zuzentzaile-zerbitzua eta prestakuntza-ikastaroak.

Otaegi 1986. urtearen amaieran irten zen Euskal Telebistatik, eta handik hilabete gutxitara hasi zen ETB hizkuntza-teknikariak kontratatzen, lehenengo Albistegi eta Kirol Sailean, eta geroago kanpo-produkzioan eta programaren batean, baina bakoitza bere arlorako, berariazko sailik eratu gabe. Hizkuntzalarien lanak, gainera, mesfidantza piztu zuen batzuegan. ETBko albistegietako erredakzioari zegokionez, mesfidatien iritzia zen hizkuntzalarien kezka oso urrun zeudela komunikatzaileen premietatik. Iritzi horren oihartzuna da Arrasatek (1992, or. 22) EiTBrako lehen eskuliburuaren sarreran emandako azalpena:

«Albistegien barneko antolamendua eta funtzionamendua ezagutu ezean, erraz gerta liteke oharra, teorikoegiak edo zehaztasunik gabeak izatea edo orohar, besterik gabe, euskal albistegietako euskara ona ez dela edo txarra dela esatea. Honelako kritika zabal-orokorregiak baina, ez dira gehinetan lagungarri izaten, errazagoa baita, teoriak hizkuntzak nolakoa izan behar lukeen adieraztea, akats konkretuak zeintzuk diren eta nola konpon daitezkeen zehaztea baino».

Bikoizketa-arloko hizkuntzalariek, bi, 1988an kontratatu ziren. Aurkezpen eta Emisio Sailera atxikita, hizkuntzalarion ardurapean geratu zen programa bikoiztuetan ahotsak,

---

<sup>16</sup> Otaegik Kataluniako TVC erakundearen 1980ko urteetan antolatu zen hizkuntza-zaintza hartu bide zuen eredutzat bere proposamenerako. Alderaketa egin nahi izanez gero, irakur bedi Faura (1997).

dramatizazioa, soinu-nahasketak, jatorrizkoaren fideltasuna eta sinesgarritasuna egiaztatzea, labur esanda, kalitate linguistiko-artistikoaren kontrola egitea. Prozedura berriak —Kalitate Kontrola izenez ezagunak— tentsioa eragin zuen ETBren eta bikoizketa-estudioen artean abian ipini baino ez. Begoña del Teso (1988) *Egunako* telebista-kritikariak eman zuen tentsio horren berri:

«Euskararen kalitate kontrola dela eta... txarraskiloa kontatuko dizuet. Ni ez naiz "omenka" arituko baina zuek, bada ezpada ere, nahi duzuen adina ezarri. Ba, zera, euskararen kontrola daramatenek "*Magnum*" telesail osoa atzera bota nahi izan zuten. Enpresa bikoizleak su ta gar, borroka egin ondoren, atal bakarren bat bidali diete berregiteko. Atal hori herrialde honetako itzultzailek onenetako batek egina zegoen».

Euskarazko bikoizketan ziharduten itzultzaileek ez zuten nahi kontrolik, bikoizketako euskara asmatzeko askatasuna baizik, eta mesfidati hartu zituzten ETBren aldetik heltzen hasi zitzaizkien jarraibideak, besteak beste, Euskaltzaindiak 1989an ETBren eskariz prestatu zituen *Euskara (erabileraz)* liburuxketan jasota zeudenak. Txiliku (1989) K2000rako ari zen itzultzaileak honela zioen:

«Ni filme itzultzaile-egokitzailea naiz, lan horretan urte batzuk daramatzana, eta ez zait iruditzen asmatu beharra daukagun hizkuntza modu bati laguntzeko modurik egokiena martxa eman beharrean fretoa jartzea denik [...].

Euskal idazleak —gure kasuan itzultzaile-egokitzaileak— beti izan ditu burutik behera mokoka gaizki esaleak, eta orain ere ezin falta. Lanaren kalitatea neurtuko duten "etsai" berriak jarri dizkigute. Jatorzaleak deituko nieke nik, guztiz beharrezkoak direnak, nahiz eta zalantzan jartzen dudana hartu duten bidearen zuzentasuna.

[...] Errespetagarriak iruditzen zaizkit artikulua hasieran aipatu lau pertsonaiak [Altuna, Lekuona, Azkarate eta Haritschelhar euskaltzainak], eta oso kontutan hartu beharrekoa heuren iritzia, baina ez dut uste lauretako inork inoiz filmeren bat itzuli eta egokituko zuenik».

Giro horretan, Iñaki Zarrakoak EiTBko zuzendari nagusiren kargua hartu eta gutxira, ETBko hizkuntza-jarraipenaren gaineko txostena eskatu zitzaion Andoni Aranburu Emisio arduradunari. Aranburuk (1991) etorkizunerako proposamen bat landu zuen bere txostenean, hiru puntutan banatuta. Lehenik, Euskara Saila sortu behar zen Euskal Telebistaren barruan, arduradun batekin eta beste zortzi hizkuntzalarirekin: bi bikoizketarako, hiru albistegi eta kiroleterako, eta beste hiru barne-produkziorako. Bigarrenik, estilo-liburu bat behar zen albistegi, kirol-saio eta barne-produkzioko programetarako. Bikoizketan, oinarri moduko bat izango zen liburu hori, baina, horrez gainera, berariazko gidaliburu bat beharko zen. Izan ere, hirugarrenik, bikoizketak azterketa xehe bat behar zuen hizkuntzarekin zerikusia zuten alderdi guztietan: ahotsetan, euskara-ereduan, hizkeretan eta gidoien itzulpenetan.

Hizkuntzalarirako oposizioak 1991ko udan deitu ziren, eta deialdi gehiago izan dira handik aurrera, baina langile-kopuruak ez dira inoiz Aranbururen txostenean jarritakoetara heldu. ETBko Euskara Sailaren antolaketak, ordea, Aranbururen txostenari jarraitzen dio. Hizkuntzalari batzuk kanpo-produkzioan (bikoizketan) ari dira; beste batzuk, albistegietan, eta beste batzuk, barne-produkzioan (programagintzan). 1993an, EiTBko zuzendari nagusiak Euskara Saileko lehen burua izendatu zuen, Igone Etxebarria, hizkuntza-zaintza koordinatzeko, irizpideak bateratzeko, hizkuntza-gaien azterketa eta ikerketa ahalbidetzeko, eta gai horiei zabalkundea emateko ardura izan zezan ETBn, bai eta EiTB osoan ere (I. Etxebarria, 1996).

Estilo-liburuari zegokionez, Manu Arrasate ETBn ibilitako lehen hizkuntzalarietako bati eman zitzaion prestatzeko eginkizuna. *Euskarazko Albistegietarako Esku-liburua* (Arrasate, 1992) zeritzon liburu hark okerrak zuzentzeko irtenbideak eskaintzea zuen helburu nagusizat. Arrasate jakitun zen zuzentze-soluzioak emateko orduan iritzi bat baino gehiago izan zitezkeela —batik bat, estandarizazioaren une hartan—, eta zer esana zuten guztienak jasotzen saiatu zen. Zerrenda luzea da: Euskaltzaindiko kideak, Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko arduradunak, Hezkuntza Saileko eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritzako ordezkariak, ETBko hizkuntzalariak, komunikazioan eta beste arlo batzuetan ziharduten hizkuntzalari eta filologoak, EiTBko kazetariak eta, horrekin batera, euskal gramatika, hiztegi eta eskuliburuaren autoreen ekarria.

Bikoizketaren arlorako, Aranbururen 1991ko txostenak berariazko gidaliburu bat prestatzea proposatzen zuen, oinarri birekin: bata, estilo-liburu orokorra, 1993an Arrasatek apailatu zuena; bestea, bikoizketako euskararen azterketa xehea, ordurako abian zena, gorago azaldu dugunez (3.5.3. azpiatalean). Gidaliburua egin barik geratu zen, baina beraren oinarrirako eskuliburu eta ikerketak eta Euskara Saila bera babes handia izan ziren bikoizketa-arloko hizkuntzalarientzat, mesfidantzen eta tentsioen artean bermea ematen zitelako beraien irizpideei, eta ETBko zuzendaritzaren ahotsarekin hitz egin zezaketelako estudioekiko harremanetan. Albistegietako eta programetako hizkuntzalarientzat ere, onuragarria izan zen Euskara Saila eratzea, telebistako euskara aztertzen eta lantzen jarraitzeko azpiegitura eskaini zielako, eta zuzendaritzak euskara-eredu jakin bat ezarri nahi zuela irudikatzen zuelako ETBko komunikatzaileen aurrean. Zalantzarako tarterik ez uzteko, 1994an, Albistegi zuzendariak batzar batera deitu zuen ETBko erredakzioa, eta jakinarazi zion Euskara Saila zela informazio-saiotako euskara lantzeko eta kontrolatzeko arduraduna.

ETBtik kanpo, Euskara Sailaren sorrerak ez zuen ekarri ETBren euskararen kritiken amaiera. Denen artetik, aipagarri da Xabier Amuriza bertsolariak argitaratu zuen artikulu-saila, ETBren euskararen zuzentasuna behar bezalakoa ez zela salatuz. Hasteko, ez zuen gutxieneko zuzentasun-maila ere hautematen *Firin Faran*-en erako saiotako solaskideen artean zein kirol-emankizunetako hainbat adituren artean (Amuriza, 1996a). Programetan azaltzen ziren ETBtik kanpoko aurkezleen euskara ere jasanezin egiten zitzaion (Amuriza, 1996b). Ezin jakin, ordea, nor ziren aurkezle haiek baina, programa bakoitzean bi edo gehiago zirela zioenez, pentsatzekoa da, saioaren aurkezleak barik, adituak edo gonbidatu bereziak izango zirela. Enpresa barruko aurkezle eta kazetariei zegokienez, euskara-maila hobea zutela onartu arren, akatsak erraz eta oharkabean zabaltzen zirela ikusten zuen (Amuriza, 1996c). Horren aurrean, kontrolaren beharra aldarrikatu zuen.

«Badakit oso programa ezberdinak daudela eta denak zaku berean sartzerik ez dagoela, baina, oro har, euskara txarreko programek besteek baino eragin handiagoa daukate. Eta horren guztiaren barruan ez da ikusten kontrolik. Kontrola esatean, ez da akatsak moztea bakarrik, batez ere soluzioak eskaintzea baizik. Zergatik ez dago Euskal Telebistan euskararen kontrolik?». (Amuriza, 1996d)

Itauna erretorikoa zen, eta Amurizak bazekien kontrola bazegoela, bikoizketako itzultzaile ibilia zelako. Artikuluotan, baina, agerian jarri zuen ez zetorrela bat kontrol horren irizpideekin. Lehenik eta behin, euskara-maila baztergarria izatea eskatzen zuen saioetara eramaten ziren aditu, gonbidatu, solaskide eta esatari-laguntzaileak hautatzeko orduan. ETBren arduradunek, ordea, euren eskumenetik kanpo ikusten zuten euskara-eredu jakin bat ezartzea ETBkoak ez ziren pertsoneri eta, areago, urte batzuk geroago, hurrengo kapituluan ikusiko dugunez (4.4.3. azpiatalean), EiTbK aurkako irizpidea hobetsi zuen *EiTBrako hizkuntza-funtsak* izeneko dokumentuan.

Bigarrenik, akatsaren aurrean, okerraren hedapena moztea eta soluzioak eskaintzea eskatzen zuen. Hain zuzen, okerrak zuzentzeko irtenbideak eskaintzea izan zen helburua Arrasatek *Euskarazko Albistegietarako Esku-liburua* osatu zuenean. Liburu horren ostean Euskara Saila prestatzen hasi zen eskuorrietan ere, gramatika eta zuzentasuna izan ziren lehen leitmotiva, baina egokitasunari gero eta arreta handiagoa emanez joan zen, performantzia aldiaren ardura nagusia izateraino, hurrengo kapituluan esango dugunez (4.5.1. azpiatalean).

### 3.6.3.2. Profesionalen etengabeko hizkuntza-formazioa

Lehen urteetan ETBren euskarak debate publikoan eragin zituen arduetan, arretagune nagusia hizkuntza bera izan zen, besteak beste, euskaldunen artean eredu okerra zabal zitekeela, edo akademiaren arauak bete beharra zegoela, baina ez zen kezka berezirik nabaritu, ordea, komunikatzaileek zailtasunik izango ote zuten euren eginkizunean euskara estandarizatzen eta ikus-entzunezko hedabideetara egokitzen hasi berria izateagatik. ETBren proiektua aurrera zeramaten arduradunen artean ere, euskararen egoeraz jabetuta egon arren, zailtasunei ez zitzairen euren neurri osoan antzeman eta, hortaz, aurkezle, esatari eta kazetariak ETBrako erabaki zen euskara-ereduan trebatzeko prestatu zen ekimen bakarra —Irrati eta Telebista Eskola— eznahikoa izan zen. Handik aurrera, ETBn komunikatzaileentzat abiarazi ziren inplementazio-ekimenak beharrianak agertu ahalako erantzunak izan ziren. Haien berrikusketa egiteko, multzo bi bereiziko ditugu; batetik, formazioarekin loturiko ekimenak eta, bestetik, euskararen kodifikazioaren eta lantze funtzionalaren zabalkundearekin loturikoak.

Jaurlearitzak euskarazko telebista bat eratzea erabaki zuenean, kazetari euskaldunen artean, oso apala zen euskara-gaitasun profesionala. Karrera erdaraz egina zuten denek; lana ere erdaraz egiten zuten gehien-gehienek, eta irratian edo telebistan esperientziaren bat zutenak gutxienak ziren. Egoera hartan, ekimen bakarra eraman zen aurrera, Irrati eta Telebista Eskola sortzea, 1980ko udazkenean ireki eta EiTbren emanaldiak hasi ziren urtean —1982an— itxi zena. Iraupenez laburra, eta irismenez ere laburra izan zen, batetik, hasiera-hasierako komunikatzaileak baino ez zirelako aritu eta, bestetik, hizkuntza-ikasgaiak —esataritza eta teletipoen itzulpena— ez zeudelako orientaturik normalizazio-prozesua burutu gabe zuen hizkuntza baten zailtasunetara.

Egoera prekario hartan, ETB kanal elebidun moduan abiatzeak beste zailtasun bat gaineratu zuen, lehen garai haietan egin ziren kontratazio askotan ez zitzaiolako begiratu kazetariaren euskara-mailari. Beraz, haien artean, baziren behar bezala alfabetaturik ez zeudenak, euskaraz inoiz ezer idatzi gabeak, eta euskaraz ezer ez zekitenak ere bai. Garai hartan Zuzendaritzari aurkeztu zitzaizkion txostenak zein egunkarietan argitaratu ziren iritzi-artikuluak bat zetozen ETBko kazetariak ez zutela, oro har, ETBrako espero zen maila ematen, eta batzuei neurri drastikoak hartzeko moduko egora iruditzen zitzaien.

*«Erdaraz estuvistes, me se ha caído, para que haiga más, es por eso que, bezalakoak irakurriz barra-barra esango lituzkeen aurkezlea, besterik gabe kaleratuko litzatekeen bitartean, euskal telebistan, aldiz, datozte, aste honetan, ditzazkezue, duzute, degu, ohituratuta, heriotzea ospatu, ikasketak jarraitu (eta ez dut bat ere asmatu) lasaitasunik handienaz esan eta errepika daitezke, interesatuari horregatik, inork, dirudienez, deus esan beharrik gabe».* (Kintana, 1984b)

Egoera hura bideratzeko asmoz, euskara-ikastaroak antolatu ziren ETBko kazetariarentzat 1985eko martxoan HABEren Hondarribiko barnetegian. Helburua zen euskara batuaren arauak irakastea. Urte apur batzuk geroago, lehen hizkuntzalariak kontratatu zirenean, estandarraren inplementazioa izan zen atzera ere erakundearen ardura: profesional batzuen gabeziak beste profesional batzuek konpentsatuko zituzten. Euskara Sailaren sorrerak nahiko aldatu zituen gauzak, arreta ETBko komunikatzaileengan eta haien



premietan ipini baitzen. Hala, kazetariak euren testuak sortzeko zituzten zalantza eta zailtasun lexiko eta terminologikoak, morfologikoak, fraseologikoak eta sintaktikoak zein Euskaltzaindiaren araei buruz izaten zituzten hutsuneak aztertzeari eta irtenbideak bilatzeari ekin zion Euskara Sailak, gorago azaldu dugunez (3.5.2. azpiatalean). Helburua zen komunikatzaileen esku ipintzea irtenbide horiek, eta bitarteko baliagarria eskuorri-formatua izan zen.

Lehen eskuorriak —'zabalkunde-orriak' zeritzenak— 1993an banatzen hasi ziren ikasturteko aste guztietan, bai Euskal Telebistan, bai Euskadi Irratian, bai beste erakunde eta komunikazio-enpresa batzuetan ere. Ikasturtearen amaieran, bilduma prestatzen zen: *Zabalkunde orria* (Euskara Saila, 1994), *Zabalkunde orria-2* (Euskara Saila, 1995a), eta *Zabalkunde orria-3* (Euskara Saila, 1996a). Azken kurtso horretan, hainbat egunetako mintegi bat antolatu zen, parte-hartze librekoa, kazetariekin batera aztertzeko eta eztabaidatzeko albistegietarako landuz zihoan euskara-ereduari buruz. Eskuorrietan oinarrituriko bigarren ekimena *Euskara tantaka* izenekoak izan zen, 1999 eta 2000 artekoa. Orri soilak barik, liburuxkak ziren, baina logistika aurreko ekimenekoaren berdina izan zen.

## **4. EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA MUNDU GLOBALIZATUAN. PERFORMANTZIA ALDIA ETA EUSKAL TELEBISTAREN HELDUAROA**

XX. mendearen amaieran, teknologia digitalaren garapenak aldaketa handiak iragarri zituen ikus-entzunezkoen sektorean, eta enpresak eta administrazio publikoak prestakizunak egiten hasi ziren aurreikusten zen testuinguru berrira egokitzeko. EiTBen kasuan, prestakizunak lehen plan estrategikoan (EiTb, 2000) jaso ziren. Planak, hurrengo urteetan osatu beharreko ibilbidea zehazteaz gainera, ikuspegi eta jarduteko modu berriak ekarri zituen Euskal Herriko komunikazio-talderik garrantzitsuenera eta, horregatik, euskarazko ikus-entzunezko komunikazioan aldi berri baten hasiera markatu zuen, hain zuzen, mende berria ere hasten zen unean. Aldi horri performantzia aldia deritzogu, Pietikäinen eta Kelly-Holmesen (2011) denbora-banaketari jarraituta.

Aldi berri honetan, errealitateak gainez egin die ikus-entzunezko komunikazioaren eboluzioaz egin ziren aurreikuspen guztiei. Teknologia berriei esker, suntsitu egin dira kontsumorako denbora- eta espazio-mugak. Teknologiek, horrez gainera, funtsezkoak izan dira ikus-entzunezkoen produkzioan behetik gorako eragintzak hain indar handia har zezan, esate baterako, Youtube bezalako plataformekin, baina, aldi berean, industria inoiz baino sendoago dago. Netflix plataformak, adibidez, mundu osoko ikusleengana heltzen asmatu du eta, Espainiar Estatuan, Atresmedia eta Mediaset taldeek eguneko telebista kontsumoaren erdia baino gehiago bereganatzen dute. Testuinguru horretan,

zelan molda daiteke hizkuntza gutxituko hedabide (HGH) bat ikus-entzuleengana heltzeko? Zelan egin diezaioke aurre hizkuntza-normalizazioan laguntzeko erronkari?

Euskal Telebistari dagokionez, galdera horiei erantzutea da gure helburua kapitulu honetan. Aurreko kapituluan, ETBren sorrera eta bilakaera aztertu ditugu, eta ikusi dugu nahitaezko faktorea izan zela euskararen zerbitzurako ikus-entzunezko industria bat erne zedin eta euskarazko komunikazio-eremua osa zedin. Herritarrei beste edozein hizkuntzatan aurki zitekeen bezalako programazioa eskaini zien euskaraz eta, ahalegin horretan, euskara eta euskaldunak prestigiatu, eta hizkuntzaren lantze funtzionalean lagundu zuen, euskara —estandarizazioan abiatu berria zena— zaildu barik baitzegoen telebistan. XXI. mendean, horiek dira abiapuntuak ETBk aurrera eraman dituen ekimen eta jardueretatik euskararen normalizazioarekin lot daitezkeenak aztertzeko.

Lehenik eta behin, gure azterketa euskarazko komunikazioan kokatuko dugu. Horretarako, kapitulu honen 4.1. atalean, euskarazko ikus-entzunezkoen XXI. mendeko testuingurua deskribatuko dugu, batetik, sektorea nola dagoen osatuta eta zer ezaugarri dituen eta, bestetik, euskal erakunde publikoek zelan esku hartzen duten arloan. Euskarazko hedabideei kanpotik datorkien lehia gogorra izan arren, sektoreak aurrera jarraitzea lortu du, euskara bultzatzeko konpromisoari atxikita. Politika publikoek euren ekarpena egin dute euskarazko ikus-entzunezkoen sustapenean, baina ez beti sektorearekiko sintonia bilatuta. Euskal Telebista bera ere alboratuta hautematen da zenbaitetan politika horietan, batik bat teknologia digitalek ekarri dituzten hedabide berriei dagokienez.

ETBri, baina, ezin dakioke egotzi berrikuntza horietarako prest ez egotea. Izan ere, dagoeneko esan dugunez, Euskal Irrati Telebistak plangintza estrategiko bat abiarazi du mende-aldaketarekin batera aldi berriko erronkei aurre egiteko helburuz. Plangintza horretan, aurrekontuez, teknologiaz, kanalen edukiez eta beste alderdi batzuez gainera, euskara eta euskararen normalizazioa hartzen dira aintzat, eta Eusko Jaurlaritza ere inplikaturik dago EiTBrakin sinatzen duen programa-kontratuaren bitartez. 4.2. atalean, batetik, plangintza estrategikoa osatzen duten egitamu guztiak ezagutuko ditugu, EiTBrako zuzendaritza bakoitzarenak epealdi batean banatuz, eta, bestetik, planak gauzatzuz joan diren heinean ETBk zer bilakaera izan duen aztertuko dugu. Ohartarazi

behar dugu EiTbren plangintza estrategikoaz mintzatzeak EiTbren eta ETBren arteko muga lausotzea dakarrela —paragrafo honetan bertan legez— eta, agian, nahasgarri gerta daitekeela kapitulu honetako testuan orain ETB orain EiTb esatea.

ETBren bilakaeran, eragile nagusi bat dago, teknologia digitalera egokitu beharra, lehenik eta behin, egoitzen birmoldaketa ekarri duena, egoitza nagusiaren Bilborako lekualdaketa barne. Teknologia digitalak, aldi berean, plataforma gehiagotan eta kanal gehiagotan jardutea ahalbidetu dio EiTbri, eta komunikazio-talde multimedia bihurtu du. EiTbk bezala, beste komunikazio-talde batzuek antzeko bilakaera izan dute, eta horrek oso lehia gogorra piztu du ikus-entzunezkoen arloan. Testuinguru horretan, audientziek eta ikusle-kopuruek baliagarritasuna galdu dute telebista baten emaitzak neurtzeko orduan, eta beste adierazle batzuekin osatu behar izan dira. EiTbn, inpaktuari ematen zaio garrantzia, hots, gizarte-prestigioari, eta programazio-estragiek inpaktu hori handitzea hartzen dute aintzat. EiTbren beste estrategia batzuk —hauek ere digitalizazioak behartuak— taldearen antolakuntza eta prozesuak optimizatzerazuzendu dira. Hortik etorri da EiTb guztirako euskara-zerbitzu bat eratzeko erabakia. Hala, ETBko hizkuntzalari-taldearen arduraz EiTb osora zabaldu, eta baliabide digitalak integratu behar izan ditu eskaintzen duen zerbitzuan.

Edozelan ere, teknologia digitalak ekarri duen mundu globalizatuan, komunikazioa esparru oso zaila bilakatu da hizkuntza gutxituentzat. Euskararen normalizazioaren ikuspegitik, ordea, nahitaezkoztat jotzen da euskara hedabideetan indartzea. 4.3. atalean aztertuko dugu XXI. mendearen hasierako aldi honetan EiTbk zer egiten duen euskara hedabideen arloan indartzeko. Hiru arretagune izango ditugu. Lehendabizikoa, euskal ikus-entzunezko industria eta ingurune digitala. Bigarren arretagunea, euskararen komunikazio-esparrua, eta berari eusteko hurbiltasunaren eta lankidetzaren strategiak. Hirugarrena, interes-talde jakinentzako produktu espezializatuen euskarazko eskaintza.

4.4. atalean, normalizazio-plangintza publikoetan zehazturiko politikak EiTbn zelan implementatu diren aztertuko dugu. EAEn, azken urteetako hizkuntza-politika publikoek ideia zentral bat dute, elebitasun asimetrikoa, alegia, gizarte osoan hedatutako elebitasuna, baina ez homogeneoki toki guztietan eta esparru funtzional guztietan (2.4.2.1. puntuan ikusi dugunez). Ideia horren haritik, eguneraketak behar izan dira

EiTBk lehendik zehaztuta zeuzkan hizkuntza-hautuetan. Hala, 2013ko plan estrategikoan, hasteko, telebistako kanaletan hautematen zen hizkuntza-muga hautsi, eta euskara denetan ikusgai egitea erabaki da. EiTBn erabili beharreko hizkuntza-ereduan ere, euskara ezberdinak eta komunikazio-interes ezberdinak dituzten pertsonak aintzat hartu, eta euskara batua ez diren beste mintzamolde batzuei eman zaie euren tokia genero eta programa jakinetan. Euskara-maila ezberdinak dituzten hiztunei ere egin nahi izan zaie tokia, pantailaren alde bietan, programetako gonbidatu eta elkarrizketatu gisa, eta ikusle gisa. EiTBren barruan, azkenik, laneko jarduera eta harremanetan euskararen erabilera bermatzearen alde egin da, eta berriazko plangintza prestatu.

4.5. atalean, ETBren euskararen jarriko dugu arreta. Lehen urteetan zuzentasunak eragin zuen kezka gaindituta, eta albistegietan eta bikoizketan kalitatearen bidean lehen urratsak eginda, ETBk euskara lantzen eta hizkuntza-baliabideak sortzen jarraitu du mende berrian. Informazioa eta bikoizketa alde batera utzi barik, ahalegin handia egin da gainerako programa-motetan ere, eta eboluzio bat egon da hizkuntza-kalitatea ulertzeko moduan, zuzentasunetik egokitasunera. 4.6. atalean, ETBn lantzen den euskara-eredua, sortzen diren hizkuntza-baliabideak eta, oro har, euskararen erabileran hobesten diren hautuak enpresan inplementatzeko zer egitura eta zer bitarteko dauden aztertuko dugu. Euskarazko emanaldietara iristeko zailtasuna izan dezaketen ikusleengan pentsatuta, ETBk euskarazko azpidatziak eskaintzen ditu, bai eta euskararen ezagutza hobetzeko motibazioa eta materialak ere. Lanean euskaraz ari diren komunikatzaileengan pentsatuta, euskara-zerbitzu bat dago, hizkuntzaren arloan formazioa, baliabideak eta irizpideak eskaintzen dituena.

#### **4.1. PERFORMANTZIA ALDIA EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKOETAN**

Pietikäinen eta Kelly-Holmesek proposaturiko aldi-banaketaren deskribapena egin dugunean esan bezala (ikus 1.3.3.), performantzia aldia mundu globalizatuaren aroa da, non teknologia digitalek denboraren eta distantziaren hesiak suntsitu baitituzte informazioaren zirkulazioan eta pertsonen arteko harremanetan. Testuinguru horretan, ideia, eragile eta jokabide berriak agertu dira komunikazioaren arloan, askotariko ondorioekin, besteak beste, debatea piztea hizkuntza gutxituko hedabideen (HGHen)

betekizunaz. Izan ere, dohaintza alditik performantzia aldira, ez da eboluzio artez eta etengabe bat gertatu HGHei buruzko ikuspegi eta ideietan (1.4.2. azpiatalean ikusi dugunez). Bestela esanda, aldi berriko ikuspegi eta ideiek ez dituzte lehenagokoak ordezkatu edo bazterrarazi, eta hala gertatu da komunitatearen barruan eragile ezberdinek iritzi ezberdinak izatea HGHei euren gain hartu beharreko eginkizunez.

Teknologia digitalek, bestalde, ikus-entzunezko hedabideetan parte hartzeko modu berriak ekarri dituzte, sektorean inpaktu handia izan dutenak, baita HGHetan ere. Parte hartzeko modu berrietan, azpimarratzekoa da edukien hornitzaile berriak azaldu direla ekoizpen-zirkuitu tradizionaletik kanpo: eduki horien kontsumitzaileak eurak, zeintzuek edukiak ez ezik kanalak ere sortzen baitituzte. Kontsumitzaile-hornitzaileok ohitura berriak ekarri dituzte ikus-entzunezko produktuen kontsumo eta ekoizpenean. Lehenik, hiztunaren hizkuntza-errepertorio osoa baliatzen dela edukietan. Bigarrenik, bakarka kontsumitzera jotzen dela eta, gailu berriei esker, edozein momentutan eta edozein lekutan egin daitekeela, telebistaren pantailari atxikita egon barik. Hirugarrenik, interakzioan eta parte-hartzean oinarritzen diren formatu berriak esploratzen direla etengabe, esate baterako, tutorialak, zuzeneko galde-erantzun saioak, joko-streamingak, bideoegunkariak edo webserieak. Formatu berriok —gazteen gustu eta estiloekin lerrotuagoak— lekua kendu diete pelikulei eta ikus-entzunezko beste formatu klasikoago batzuei aisialdiko kontsumoan.

Performantzia aldiko mundu globalizatu eta digitalizatua, beraz, erronka handia da euskarazko komunikazioarentzat. Lehenik eta behin, euskaraz diharduten hedabideek testuinguru berrira egokitzeko erronka dute, bizirik jarraitu nahi badute. Bigarrenik, hizkuntzaren normalizazioan baliagarri izaten segitu nahi badute, erronka da aro berriko baldintza eta betekizunen sintonian jartzea beraien normalizazio-helburuak. Hedabide publikoen kasuan, sintonia hori lortzeko, lagungarritzat jotzen da administrazioak ildo batera ekartzea bere hizkuntza-politikak eta hedabide-politikak.

Atal honetan, euskarazko hedabideen XXI. mendearen hasierako arloaz arituko gara, testuinguru berrira zelan egokitzen den aztertzeko helburuz. Lehendabizi, euskararen komunikazio-esparru osoaren gainbegiratu egingo dugu (ikus 4.1.1). Oro har, aurrera segitzeko moldatzen da, eta euskara bultzatzeko konpromisoari eusten dio, nahiz

finantzazioa eta audientzia ez diren zailtasun txikiak. Ondoren, Euskal Herriko erakunde publikoek jokatzeko duten rolean ipiniko dugu arreta (ikus 4.1.2.). Denek eskaintzen dizkiete diru-laguntzak eta babesak euskararen sustapenarekin konpromisoa duten hedabideei baina, hortik aurrera, Eusko Jaurlaritzak baino ez dauka berariazko politika bat inplementatzeko aukera, EiTb talde publikoaren bitartez. Nabarmentzekoa da, ordea, EAEko hizkuntza-politika eta hedabide-politika elkarrengandik nahiko aldenduriko ildoetatik doazela eta, areago, Eusko Jaurlaritzak hainbat ekimen daramatzala aurrera hedabideetan euskara sustatzeko, EiTb partaide egin barik.

#### **4.1.1. Euskararen komunikazio-esparrua XXI. mendearen hasieran**

Mende berri baten hasieran gauden honetan, euskarazko komunikazioaren sektoreak dinamikoa izaten jarraitzen du: komunikabide berriak sortzen dira, ekimen berriak gauzatzen dira, eta gogoeta egiten da sektorearen izatasunaz eta etorkizunaz. Euskararen normalizazioari dagokionez, gogoeta horretan, funtsezkoa da oraindino lehenagoko garaietako pentsaera eta, hala, garrantzia ematen zaio euskaldun-komunitatearen zerbitzura egoteari eta, zerbitzu hori betetzeko, modu guztietako komunikabideak eta aukerak eskaintzeari. Ondo ondo, kezka berriak ere badira, globalizazioak euskara sustatzeko eginkizunean izan dezakeen eraginarekin lotuak.

Kezka horietatik, garrantzitsuena da mundu globalizatuak ez ote dituen larrituko euskarazko komunikabideen arazo nagusiak: euskararen presentzia mediatiko txikia, eta euskarazko hedabideen audientzia txikia. Euskararen komunikazio-eremuan ari diren eragileek uste dute autozentramendua izan daitekeela irtenbidea. Basterretxea eta Zuberogoiaren (2005, or. 40–41) arabera, autozentramendua da euskaldunen komunitatea jartzea euskarazko hedabideek erabiltzen dituzten erreferentzien erdigunean eta sorburuan. Euskaldunen komunitateari begiratu eta beraren egoeraz jabetuz gero, prestatzen den eskaintza mediatikoak balio gehigarriak izan ditzake hartzailearentzat —adibidez, identitatea, munduari begiratzeko ikuskera berezi bat, edo produktu originalak—.

Autozentratzeko saiaketari errazago eta hobeto ekin dakioke sistema integratu batean, eta ez hedabide bakoitza, katebegi bakartu gisa, bere aldetik ibilita (Basterretxea &

Zuberogoitia, 2005, or. 40). Euskarazko hedabideek estrategia bi erabili dituzte integrazioari begira: multimediatasuna eta lankidetzak. Multimediatasunak esan nahi du eduki bera ahalik eta hedabide gehienen bidez zabaltzea, eta gakoa teknologia digitala da, hedabideen konbergentzia ahalbidetu baitu, mende berriko komunikazio-sektorearen deskribapena egitean esan dugunez (ikus 1.4.1.). Goienera taldeak, adibidez, telebista digital berriek eta komunikazio-talde handiek egin zezaketen lehiaren aurrean, sinergiak aprobetxatzeari ekin zion *Goienkaria* aldizkarian, *Goitb* telebistan, *Arrasate Irratian* eta *Goiena.net* webgunean eta, horrekin batera, taldearen barruko antolakuntza eta funtzionamendua egokitzeari (J. Larrañaga, 2008). Konbergentzia, gehienetan, paperetik Internetera joan den prozesu bat izan da. Hala, Goienera taldea *Arrasate Press* aldizkaritik abiatu zen bezala, Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT), *Berriatik*, eta Erran Prentsa, *Ttapi-ttapa* aldizkaritik. Edozelan ere, esperientziak askotarikoak dira.

Lankidetzak-esperientziak ere, askotarikoak dira. Euskarazko hedabide lokalek Topagunean dute plan eta zerbitzu komunak antolatu, arautu eta garatzeko elkartokia, enpresa bakoitzak bere autonomiari uko egin barik (Mendizabal, 2005, or. 141). Topagunea, euskara-elkarteen federazioa, 1996an sortu zen, bazkideei promozioa, administrazioa eta kudeaketa, informazio-azpiegiturak, prestakuntza eta zabalkundea eskaintzeko helburuarekin, eta toki-hedabideen sektorea da federazioan biltzen diren bazkideen bost jarduerak-arloetako bat. Sektoreak mundu globalizatuan iraungo badu, nahitaezkoztat jotzen da Topaguneak hedabide lokalei eskaintzen dien partekatze-aukera hori eta, halaber, ahal den guztietan, egitasmoetan lankidetzak sustatzea, bai beraien artean, bai komunikabide publikoekin, tokiko beste erakunde eta enpresa batzuekin, hedabide nazionalekin, zein euskalgintzako beste elkarteekin.

Antzeko gogoeta batean oinarrituta, Ipar eta Hego Euskal Herriko hainbat irrati lokalek koordinazio- eta produkzio-zentro bat ireki zuten Arrosan 2001. urtean, edukiak eta formatuak trukatzeko eta euren emanaldiak osatzeko helburuarekin. Iparraldeko hiru irratiak —*Gure Irratia*, *Irulegiko Irratia* eta *Xiberuko Botza*—, 2001-2006rako Euskal Herriko Hitzarmen Berezian proposaturiko ekimenari jarraituta, harago joan dira, bakoitzak bere izena erabiltzeaz gainera *Euskal Irratiak* izen generikoa erabiltzen baitute, frantsesezko irrati-eskaintza zeharo zabal baten erdian marka modura nabarmentzeko (Arana et al., 2010, or. 28).



Urte batzuk geroago, 2012an, euskarazko toki-hedabideek Tokikom elkarteak sortu zuten, hiru helbururekin, hirurak lankidetzan zeutzanak (Tokikom, 2013, or. 18):

- 1) Esparru komunak zehaztea eta kudeatzea.
- 2) Solaskidetza bakarra izatea sektorearekin eta erakundeekin.
- 3) Integrazio funtzionala lantzea.

2010eko hamarkadaren erdialderako, euskarazko komunikabide lokalen sektorean, Tokikomek 30 bat bazkide biltzen zituen. Topaguneko hedabide gehienak Tokikomen barnean ere baziren, 10 bat argitalpen izan ezik, eta, horrez gainera, EKTren sei Hitzak, hainbat udal-aldizkari eta udal-irriti, eta bestelako elkarten hedabideak zeuden.

Euskarazko herri-ekimeneko hedabideek Hekimen elkarteak sortu zuten 2012an, euskarazko hedabideen sektorean ikuspegi orokorragoa hartzeko eta Tokikomen helburu berak aurrera eramateko (Tokikom, 2013, or. 18). Ikuspegi orokorrago horretatik, euskarazko hedabideen sektorea solairu biko etxe baten antzera ikusten zen (ibid., or. 28). Lehen solairuan, hedabide lokalak zeuden; bigarreanean, hedabide nazionalak. Solairu bien artean, "igogailuak" jarri beharra zegoen, lankidetzan eta bateragarritasun teknologikoan oinarrituta. Lankidetzak horretarako lehen urratsak 2013an eta 2014an egin zituzten EiTBk eta Tokikomek, ahotsak eta informazioen jarraipena trukatzeko hitzarmenen bitartez (Komunikazio Saila, 2014).

Euskarazko komunikazio-sektoreak, beraz, XXI. mendearen hasierako globalizazioak eragindako kezken aurrean, lehenagoko pentsaeran errotuta dauden erantzunak eskaintzen ditu neurri handi batean. Enfasia hedabideen indarrean jartzen du, eta ez du horren aintzat hartzen ez euskarazko komunikazio-eskaintza, ez komunikazioaren kontsumitzaile aktiboa —*prosumitzailea*, marko teorikoa landu dugunean (1.4.2.1. puntuan) azaldu den terminoarekin esanda—. Azken urteetan, ordea, beste hizkuntza askotan gertatzen den bezala, euskarazko komunikazioari —ikus-entzunezkoari batik bat— bizirik eta dinamiko eusten dioten ekimen asko ez dituzte ekartzen hedabideen arloko enpresek edo eragileek, baizik kontsumitzaile aktiboek. Beroriei zor zaie euskarazko eskaintzaren zati garrantzitsu bat, bai eta eskaintza horretarako irispidea ere.

Hala, bada, Youtuben sortu diren euskarazko kanalekin batera, aipagarri dira Interneteko gordailuak, adibidez, *marrazkiak.euskal-encodings.com*, ETBn ematen diren marrazki

bizidunak, filmak eta dokumentalak —barneko zein kanpoko produkziokoak— grabatu eta eskuragarri jartzen dituen, edo *azpituduak.com* gunea, euskarazko azpidatziak eskaintzen dituen beste hizkuntzetako film eta telesailarako<sup>17</sup>. Antzeko ildotik dator CodeSyntax IKTen arloko enpresakoek 2018ko urtarrilerako iragarri duten JarriOn aplikazioa, telefono mugikorrean zein tabletan eskuragarri jarriko dituen euskarazko hainbat telebista lokalen edukiak, Berria TBrenak, eta euskarazko zenbait webgune eta atarirenak (Urkizu, 2017).

#### **4.1.2. Eragintza publikoa euskarazko komunikazioan XXI. mendearen hasieran**

Euskararen komunikazio-esparrua osatzen duten hedabideek bezala, Euskal Herriko erakunde publikoek ere kezka dute aldi berri bat ekarri duen mundu globalizatuak euskarazko komunikazioan izan dezakeen eraginagatik baina, oraindino ere, beraien politikak komunikabideetako euskararentzako diru-laguntzetan dautza nagusiki. EAEn izan ezik, ez dago alde handirik performantzia aldiko eta zerbitzu aldiko politiken artean. EAEn, 2013-2023 epealdirako normalizazio-plangintza publikoak hainbat ekintza proposatzen ditu euskarazko hedabideekin loturik eta, horrekin batera, Jaurlearitzak beste hainbat egitasmo abiarazten edo babesten ditu komunikazioaren arloan euskara normalizatzerazuzenduta. EAEn, gainera, elementu bereizgarri bat ere badago, EITB, titulartasun publikoko komunikazio-taldea, 2000. urtean aldi berriko erronken aurrean plangintza estrategiko bat lantzeari ekin ziona. Edozelan ere, EAEn, hizkuntza-politika eta hedabide-politika publikoak harremanetan jartzen dituzten ekintzak eta egitasmoak hainbeste izan arren, politika biak ez doaz ildo beretik, hurrengo paragrafoetan azalduko dugunez.

Deskribapen zehatzagoa egiten hasita, Ipar Euskal Herrian, XXI. mendearen hasierako hizkuntza-politikaren ardatzetako bat euskarazko hedabideak babestea da, hizkuntzaren erabilerari eusteko funtsezko esparru bat osatzen dutela ulertuta. Babes hori, azterketez

---

<sup>17</sup> Prosumitzaileen entusiasmo eta bultzadak badu beste aurpegi bat: proiektuak bertan behera uzten direla gutxien espero den unean. Hori da *azpituduak.com* ekimenaren kasua. Berorren arduradunak (Fernandez, 2018), 2018a hastearekin batera, jakinarazi du 1.000 izenburuko katalogoa osatzen duenean izoztu egingo duela webgunea, nekeagatik.

eta jarraipenez harago, ETBrentzako eta gainerako komunikabideentzako diru-laguntza gisa gauzatzen da nagusiki, esate baterako, 2017ko jarduera-programan (Euskararen Erakunde Publikoa, 2017, or. 13–14). Nafarroan, antzera. Euskararen Lehen Plan Estrategikoan (Nafarroako Gobernua, 2017a, or. 39–40), euskararen erabilera gizarteko esparru guztietan errazteko helburu nagusiaren barruan, hedabideen arloan proposatzen diren ekintza nagusiak diru-laguntzekin loturikoak dira: euskarazko komunikabideen finantzazioa hobetzea, eta finantzazio publikoa jasotzen duten gaztelaniazko komunikabideetan euskara-kuota bat ezartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan ere, euskarazko komunikaziorako diru-laguntzak oso elementu garrantzitsua dira normalizazio-plangintza publikoan. Hala eta guzti, eredia berriztatu beharra aldarrikatu zen, are krisi ekonomikoak astindu aurretik ere. Honela zioen Gotzon Loberak (2005, or. 334–335), Bizkaiko Foru Aldundian Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia zenak:

«[...] Administrazioaren barrutik erauzi behar dugu ikusmolde jakin bat, hau da, euskara agertzen denetan, halako egitasmoak nahitaez euskararen arlora bidaltzekoa, eta hori ez da erraza, baina ikuspegi horretarantz lan egin behar da; bestetik, euskarazko hedabideetan diharduzuenok jabetu behar duzue, eta ozen aldarrikatu, zenbateko aberastasuna sortzen duen Euskadirentzat zuen eguneango lanak, eta [...] hitz egin behar duzue sortzen dituzuen lanpostuen gainean, zuen izakundeetan erabiltzen dituzuen teknologia berrien inguruan, Herri Ogasunari ordaintzen zaizkion zergei buruz, gizarteak berak jasotzen duen aberastasunaz... Horretara, bada, diru-laguntzen politika aldatu behar da: [...] industri arloko beste edozein enpresak jasotzen dituen diru-laguntzak jasotzeko eskubide bera izan behar dute euskarazko hedabideek, eta eurek bete beharko dituzte besteek betetzen dituzten baldintza berak [...].»

Diru-laguntzen politikaren aldaketa ESEPrekin (Euskararen Aholku Batzordea, 2012) etorri da. 2013-2023 epealdirako plangintza horretan, ardatzetako bat euskarazko komunikazio-sektorea sendo zaintzea da eta, besteak beste, euskarazko hedabideen

behatokia sortzea proposatzen da, administrazioaren eta sektorearen arteko lankidetzaren eta akordioaren oinarriak finkatzea, beste bi erkidegoetako administrazioekin koordinatzea, euskarazko hedabideen eta produktuen ezagutza sustatzea, eta euskarazko hedabideentzako diru-laguntzen irizpideak zehaztea. Sektoreak salatu duenez (Hekimen, 2015), Jaurlaritzak ez du akordioaren bidetik jo euskarazko hedabideei zuzendutako diru-laguntzen irizpideak zehazteko eta, 2014tik, hedabidearen irismenaren irizpidea lehenesten du diru-laguntzak banatzeko, aintzat hartu barik euskara hutsezko hedabideek nagusiki gaztelaniazkoak direnek baino publiko potentzial txikiagoa dutela.

Euskarazko komunikazio-sektorearen sendotasunari dagokion ardatzaz gainera, ESEPn, proposamen bi gehiago baino ez daude. Bata komunikabideetako euskararen kalitatea zaintzea da, eta bestea, hedabide publikoen hizkuntzarekiko betekizunen gaineko gogoeta bultzatzea. Gastu publikoa hainbeste neurtzen den garai honetan, gogoeta horrek hartu beharko lukeen ildoak sintonian jarri beharko lituzke EiTbK hedabide modura eta normalizazio-tresna modura dituen helburuak, Elorduik (2013, or. 255) HGH publikoei buruz ohartarazi bezala. Amonarriek (2008, or. 61) ez du igartzen EiTbn ildo horretako gogoetarik egin denik:

«Alde honetatik, oso faltan sumatzen dut, hedabideek oro har, eta medio publikoek (EITBk, batez ere) hizkuntza-normalizazio prozesuan betetzen duten funtzioaren inguruko hausnarketa eta eztabaida. Ikuspegi hori ez da lantzen, horretaz ez da hitz egiten eta, salbuespenak salbuespen, ez dago barneratuta (ez behintzat EITBn edo EITBrentzat lan egiten duten profesionalen artean)».

Kapitulu honetako hurrengo ataletan ikusiko dugunez, ordea, EiTb 2000. urtetik dabil murgilduta komunikazioan eta euskararen normalizazioan dagozkion helburuen gaineko gogoetan bere plangintza estrategikoaren barruan. EiTbren plangintza estrategikoan, preskriptore nagusia Eusko Jaurlaritza da eta, horrenbestez, administrazioa ere inplikaturik dago komunikazio-talde publikoak euskararen normalizazioan izan behar lukeen eginkizunari buruzko gogoetan. Edozelan ere, Jaurlaritzak euskara sustatzeko estrategia paralelo bat daroma hedabideen arloan EiTbtik aparte. Horregatik esaten

dugu EAEn hizkuntza-politika eta hedabide-politika ez doazela ildo beretik. Jaurlaritzak bai sustatzen du euskara hedabideetan normalizatzea, baina aro berriko erronkei erantzuteko ekimenak EiTb ez beste eragile batzuekin eramaten ditu aurrera.

Halako ekimena da Zinema Euskaraz programa. Programaren helburua da zinematik uztartzen dituen bi arlotan normalizatzea euskararen erabilera, kultur produkzioan eta aisialdian (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2016). Horretarako, denboraldi bakoitzean EAetik kanpo ekoiztako hainbat film bikoizten dira —egun, denak haurrentzako pelikulak—, areto komertzialetan estreina daitezten. Era berean, areto komertzialetara bideratzen dira ETBren eta EPE/APV eta IBAIA produktore-elkarteen arteko hitzarmenaren bidez finantzatzen diren pelikulak. Geroago, finantzazio publikoa izan duten film horiek emanaldi-zirkuitua osa dezaten sustatzen da: DVD formatuan merkaturatzea, udal aretoetan edo ikastetxeetan antolatzen diren ekitaldietan eskaintzea, eta Interneteko plataformetan zintzilikatzea. Orduan gertatzen da ETBren parte-hartze bakarra —EAEko zinema-produkzioa finantzatzera lotzen duen hitzarmenetik harago—, plataforma horiek EiTbren webgunea eta EiTb Nahieran dira eta.

ETBk are parte-hartze hutsalagoa du 2014. urtean Eusko Jaurlaritzak Canal Plus satellite eta kable bidezko telebista-hornitzailearekin sinatu zuen hitzarmenean. Helburua zen plataforma horretako filmen eta serieen estreinaldietan euskarazko azpidatziak ere eskain zitezten 2014 hartako azken hilabeteetatik 2016aren amaiera arte (Azpituduluak Euskaraz, 2017). Hitzarmenaren klausuletako bat zen azpidatziok jabetza publikokoak izango zirela epe baten ondoren, eta akordioaren berri ematean esan zen egitasmo osoa pauso garrantzitsua zela euskararen normalizazioan (Eusko Jaurlaritza, 2014b).

Egitasmoak ez du jarraipenik izan 2017. urtean eta, boladan zeuden filmak eta telesailak euskaratu ziren arren, produkzioen aukeraketa Canal Plusen programazio-interesen arabera izan zen. Hala, ez dago denboraldi bat baino gehiagoko serie osorik (*Game of thrones*-en kasuan, adibidez, 5. denboraldia baino ez). ETBk, bestalde, ezin dezake azpidatzion erabilerarik egin, ez baitauzka dagozkien produkzioen emisio-eskubideak. Oraingoz, *azpituduluak.com* plataforman baino ez dute tokia izango, zeren zirkuitu komertzialeko beste etapa batzuetan ere —zinema-aretoetan eta DVDan— produkzioen eskubideen arazo bera gertatzen baita.

2Deo egitasmoan ere, ETBk ez du inolako parte-hartzerik. Egitasmoa Gipuzkoako Aldundiak bultzatu, eta Mondragon Unibertsitateak eta Goiena komunikazio-taldeak landu dute, Donostiako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin (Sustatu, 2017). 2Deo euskarazko ikus-entzunezkoen laborategi bat izango da, Donostiako Tabakalera eraikinean kokatua, eta hainbat esparru jorratu nahi dira hurrengo urteetarako aurreikusi diren proiektuetan: azpidatziak, animazioa, bideojokoak, webserieen produkzioa eta zabalkunde-plataformak.

Eusko Jaurlaritzak EiTBTik bereizitako estrategia horretan bultzatu dituen egitasmoek euskarazko ikus-entzunezko produktuen eskaintza ugartzea eta plataforma digitaletan eskuragarri jartzea dakarte. Egitasmo horiek performantzia aldiko kontsumo eta erabilpen berriei erantzuten diete, beraz, eta, alde horretatik, Jaurlaritza Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (Euskararen Aholku Batzordea, 2012) baino zenbait urrats aurrerago dabil, Euskadiko normalizazio-plangintza publikoak zerbitzu aldian ainguraturik ematen baitu. Izan ere, alde batetik, ESEPren 12. esparruan komunikazioaren arlorako egiten diren proposamen gehienak hedabideak indartzera eta guztizkotasun instituzionala bermatzera zuzenduta daude. Beste aldetik, ESEPren 13. esparrua euskarak ingurune digital berriarekin bat egiteaz ari denean, jasotzen diren proposamen gehienetan ez dira hedabideak funtsezko eragiletzat hartzen.

## **4.2. EUSKAL TELEBISTA PERFORMANTZIA ALDIAN**

Euskarazko komunikazioaren performantzia aldiko egoera orokorra deskribatuta, atal honetan, Euskal Telebistara zuzenduko dugu arreta. ETBren mende berriko ibilbidez aritu nahi dugu, hurrengo ataletarako ezaguna izan dadin ETBk aldi honetan euskararen arloan aurrera eramaten dituen ekimenen eta betetzen dituen jardueren testuingurua. Deskribatzera goazen ibilbide hori ideia bakarrean laburtu behar izanez gero, esan daiteke ETBk etengabeko ahalegina egin behar duela lehiatik kanpo eta tokirik gabe ez geratzeko Euskadiko ikus-entzunezko komunikazioan.

Lehendabizi, ahalegina zelan planifikatzen den aztertuko dugu (ikus 4.2.1.). Illoak zehazteko eta ekimenak erabakitzeke orduan, komunikazio-talde osoaren ikuspegia

hartzen da eta, hortaz, gu ere EiTbren plangintza estrategikoaz arituko gara, alegia, ETB baino esparru zabalagoa hartuko dugu aintzat. Ondoren, ikuspegi zabal berarekin jarraituta, EiTbren azken urteetako garapenaz jardungo dugu (ikus 4.2.2.). Lehian jarraitzeko plangintzaren ondorioz, komunikazio-taldea haziz joan da, kanalak gehitu ditu, eta egokitzapen eta berrikuntzak egin ditu azpiegiturretan eta ikus-entzuleekin harremana sustatzeko sistemetan. Atalaren amaieran, arreta berezia emango diogu ETBren erreferentzia-esparruari (ikus 4.2.3.). Izan ere, euskararekin erabat loturik dagoen gai hori izan da ETBren garapenaren ibilbidean orientazio-aldaketarik garrantzitsuena eragin duena.

#### **4.2.1. EiTbren plangintza estrategikoa**

Euskal Irrati Telebistan, zuzendaritza berri bat sartu zen 1999. urtean eta, EiTbren ardura hartu baino ez, plan estrategiko bat lantzeko prozesua abiarazi zuen, Eusko Jaurlaritzaren burubideari jarraiturik. Urte gutxiren buruan testuinguru berri bat sortuko zela aurreikusten zen ikus-entzunezkoen arloan, non euskarrien, kanalen eta edukien ugaltzea eta ikus-entzuleen parte-hartze aktiboa izango baitziren alde nagusiak aurreko testuinguruarekiko. Eszenatoki horretan, EiTbk protagonismoa izan nahi zuen, aktore soil modura geratu barik. Hortaz, gogoeta egin behar zen hedabide modura eta euskararen normalizaziorako tresna modura zegozkion helburuei buruz, eta strategiak erabaki behar ziren helburuok eszenatoki berrian aurrera eramateko. EiTbren Plan Estrategikoa (2000), lehena izango zena, Zuzendaritza Nagusiak koordinatu zuen, Administrazio Kontseiluaren jarraipenarekin, eta erakunde barneko zein kanpoko eragile, aditu eta profesionalen ideiak, gogoetak eta ekarpenak bildu zituen.

Lehen plan estrategiko hark 2007. urtera arteko indarraldia izan zuen eta, atzetik, plan estrategiko berriak etorri dira; orain arteko azkena, 2017-2020 epealdiari dagokiona. Urteokaz, plan estrategikoetan jasotakoaz gainera, EiTb beste dokumentu batzuetan landuz eta zehaztuz joan da aldian aldiko bere helburuak, ildoak eta jardunbidea. Lantze horrek EiTbren plangintza estrategikoa osatzen du, eta hiru hanka nagusi ditu: 1) plan estrategikoa, 2) programa-kontratua, eta 3) EiTbren gizarte-erantzukizuna. Atal honetan, plan eta dokumentu guztiak ezagutzea eta nondik nora sortu ziren azaltzea da

gure asmoa, funtsezko erreferentziak izango baitira aurrerago jasoko dugun informaziorako, bereziki, EiTBn performantzia aldiaren hizkuntzaren arloan hartu diren erabakiak, eman diren jarraibideak eta abiarazi diren ekimenak dokumentatzeko.

Plan estrategikoan, epealdi jakin batean EiTBk bere buruari ezarritako helburu estrategikoak jasotzen dira, esaterako, informazioan liderrak izatea edo ikus-entzunezko sektorearen garapena bultzatzea (EiTB, 2009b, or. 12). Programa-kontratua Eusko Jaurlaritzaren eta EiTBren arteko akordio bat da, erakunde biek euren gain hartzen dituzten konpromisoak jasotzen dituen (ibid., or. 13): Jaurlaritzaren konpromisoa finantzazioarekin egoten da lotuta, eta Euskal Irrati Telebistarena, zerbitzu publiko gisa atxikitzen zaizkion betebeharrekin. EiTBren gizarte-erantzukizuna gizarteko eragileekin eta interes-taldeekin komunikatzeko esparru bat da, EiTBko beste prozesu guztiek bezala bere ekintza-plana izaten duena (ibid., or. 18).

Planen eta beraien testuinguruen aurkezpena errazteko, 2000. urtetik honako denboran lau epealdi bereizi ditugu, planen eta zuzendaritza-taldearen indarraldiak aintzat hartuta: a) 2000-2007 epealdia (ikus 4.2.1.1.); b) 2007-2009 epealdia (ikus 4.2.1.2.); c) 2009-2013 epealdia (ikus 4.2.1.3.); d) 2013-2019 epealdia (ikus 4.2.1.4.).

#### 4.2.1.1. 2000-2007 epealdia

EiTBren lehen plan estrategikoa Andoni Ortuzar buru zuen zuzendaritzak onartu zuen 2000. urtean, eta zazpi urte egon zen indarrean. Planean, bederatzi lerro estrategiko zehaztu ziren, eta lerro bakoitzean, helburu nagusi bat. Hauek ziren lerroak eta helburu nagusiak (EiTB, 2000, or. 94–99):

- 1) Plataforma eta eduki berriak. Berrikuntza teknologikoak zekarren aro berrian, EiTB komunikazio-taldeak kanal berriak sortu behar zituen plataforma digital berrietan, eta kanalok edukiz eta programazioz hornitzeko prestatu behar zuen.
- 2) Nazioarteko zabalkundea. EiTBk mundu zabaleko euskaldunei arreta eskaini beharko zien, hurbileneko komunitate kultural eta linguistikotik hasita.
- 3) Giza baliabideak. Komunikazio-taldeko langileen funtzionamenduari eta prestakuntzari buruzko diagnostikoa egingo zen.



- 4) Ebaluazio-eredua. EiTBren jarduera kontrolatzeko ebaluazio-sistema bat ezarriko zen, bai ikuspegi kuantitatiboa, bai kualitatiboa erabiliz.
- 5) Euskadiko ikus-entzunezko produkzioa. EiTBk industria horren bultzagile izaten segitu beharko zuen, baina alde bien arteko harremana berriro aztertu ondoren.
- 6) Euskadiko irratigintza publikoa. Aro berriaren aurrean, bultzada bat eman behar zitzaien EiTBren irratiei, formatu eta edukiak bateratuz, kanal berriak sortuz, eta telebistarekin lankidetzan arituz.
- 7) EiTBren kudeaketa. Sistema bateratua ezarriko zen komunikazio-talde osoan.
- 8) Finantzazioa. Erakundearen eginkizunei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikoak lortu beharko ziren.
- 9) Euskara. Lerro honetako helburua euskara ikus-entzunezkoen arloan normalizatzea zen.

Euskara ikus-entzunezkoetan normalizatzeko helburu hori Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren enborretik zetorren adar gisa ulertu behar zen (EiTB, 2000, or. 214) eta, EiTBren plan estrategikoan, bost helburu xehetan zehaztu zen (ibid., or. 220-223):

- 1) EiTBn erabiltzen zen euskararen kalitatea hobetzea, eta hedabide baten premietarako aberastea.
- 2) Herritar guztiei irekita egotea, euskaraz jakin zein ez, baina batik bat haurrak eta gazteak aintzat hartuta.
- 3) Euskarazko produkzioa gehitzea eta zabalkunde-plataforma guztietara eramatea, batez ere Internetera.
- 4) Euskarazko programen produkzioa eta zabalkunde errazteko lankidetzaren bultzatzea.
- 5) EiTBn euskaraz jardun ahal izateko proiektu bat prestatzea.

Helburu horiek bete zitezten, zazpi ekintza aurreikusi ziren (EiTB, 2000, or. 223–225):

- a) Hizkuntza-kontrolerako taldea EiTBren Kalitate Sailaren barruan kokatzea, eta beraren zerbitzua —profesionalen prestakuntzan eta bakarkako arretan oinarrituta— EiTB talde osora zabaltzea.
- b) Kanpo-produkzioaren bikoizketa zaintzea.
- c) Telebistan eta Interneten, haur eta gazteei zuzendutako edukiak lehenestea.
- d) Euskarazko informazioa eta entretenimendua gehitzea telebistan, irrastian eta Interneten.

- e) Lankidetzaren eremu bat sortzea irrati eta telebista lokalekin.
- f) Euskaltzaindiarekin eta euskarari lotutako gainerako erakundeekin harremanak estutzea.
- g) Prestakuntza-programa bat garatzea, bosgarren helburuarekin lotuta.

Plan estrategikoa abian jarri eta bi urtera, EiTbK eta Jaurlaritzak *Euskal Irrati Telebista herri erakundearen 2002-2005 aldirako programa-kontratua* (Eusko Jaurlaritzak & EiTb, 2002) sinatu zuten, esandako epealdian gobernuaren eta irrati-telebista publikoaren arteko harremanak zehazteko helburuz. Harreman horretan, Jaurlaritzak bere gain hartu zuen konpromisoa finantzazioa zen, diru-ekarpenak egitea EiTbren ustiapen-gastuak, azpiegitura- eta teknologia-inbertsioak, inbertsio finantzarioak, eta euskal ikus-entzunezko sektorean egindako inbertsioak berdintzeko (ibid., or. 9-10).

EiTbK, bere aldetik, irrati-telebistako zerbitzuarekin eta zerbitzu horren kudeaketarekin loturiko konpromisoak hartu zituen bere gain (Eusko Jaurlaritzak & EiTb, 2002, or. 6-9). Irrati-telebistako zerbitzuarekin loturik, EiTbK bere programazioaren edukari buruzko betekizunak hitzartu zituen Jaurlaritzarekin. Batzuek euskararen normalizazioa ukitzen zuten: gutxienez telebista-kanal bat eta irrati-kanal bat euskara hutsez ekoiztea, ohiko programazioan euskalkien erabilera bultzatzea, euskarazko bikoizketen kalitatea hobetzea, euskararen ulermena hobetzen lagun zezaketen programak ekoiztea, eta euskarari eta euskal gaiei buruzko programak ekoiztea. Zabalkundea zela eta, EiTbri ezartzen zitzaion bere emanaldiek Nafarroara eta Ipar Euskal Herrira heldu behar zutela, bai eta diasporako euskal komunitatera ere. Programazioaren edukari buruzko beste betekizun batzuek emanaldien herritarren ezagutza eta formazioa ukitzen zituzten, eta beste batzuek EiTbren audientzia eta irudia.

Horrez gainera, irrati-telebistako zerbitzuarekin loturik, EiTbK euskal ikus-entzunezko sektoreari eta informazioaren gizarteari buruzko betekizunak hitzartu zituen Jaurlaritzarekin. Zerbitzuaren kudeaketari loturik, bestalde, EiTbK bere gain hartu zuen betekizunik garrantzitsuena izan zen EFQM europar eredura aldatzea enpresa kudeatzeko sistema, eta bide berri horretan bikaintasun-ziurtagiria lortzea. Kudeatzeko modu berri hori eta EiTbK bere gain harturiko gainerako eginkizunak 2000ko plan estrategikoaren ildotik zetozen. Programa-kontratuan, betebeharrak ekintzatan zehaztu,

eta aldian-aldian beraien jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazleak ezarri ziren. Ordutik aurrera, horrela funtzionatu du EiTBk.

EiTBren plangintza estrategikoak agerian jarri zuen ordura arteko hainbat prozedura eta jokabide berrikusi eta eguneratu beharra zegoela, finantzazioan eta kudeaketan bezala, beste arlo batzuetan ere. Horietako bat EiTBren hizkuntza-eredua zen. Jaurlaritzarekin hitzarturiko programa-kontratuan euskalkiak bultzatzeko konpromisoa hartuta, ordura arte baino are nabarmenago egin zen euskara batuaren aldeko hautuak airean uzten zituela arazo garrantzitsuak. Horiei irtenbide bat eskaintzeko ahaleaginean, *EiTBko hizkuntza-funtsak* (Euskal Irrati Telebista, 2005b) deritzon dokumentua aurkeztu zuen EiTBko Zuzendaritzak Administrazio Kontseiluan, ordura arte Euskal Telebistan eta Euskadi Irratian euskara-ereduaz eginak ziren gogoetak jasota.

#### 4.2.1.2. 2007-2009 epealdia

EiTBren lehen plan estrategikoaren indarraldia amaitzeko zela, Ortuzarren zuzendaritzak bigarrena onartu zuen: *EiTBko Estrategia-gestiorako Plana 2008-2011* (EiTB, 2007). Bigarren plan hartan, asmo nagusia zen 2010ean EiTB informazio-talde liderra izatea Euskadin eta, beraren eskaintza multimediararen bidez, euskal herritarrak txunditzeaz eta atsegintzeaz gainera, entretenimendua euskararen garapenerako oinarri bihurtzea (ibid., or. 4). EiTBren lehen plan estrategikoaren aldean, 2008koak kalitatezko kudeaketaren arloko txostenen ereduari jarraitzen zien: sarrera labur bat EiTBren misioa, ikuspegia eta ildo estrategikoak azaltzeko eta, ondoren, estrategia bakoitzeko atal bat, abiapuntuak, helburu zehatzak, adierazleak eta aurrera eraman beharreko ekintzak jasoz. Egitura bera izan dute hurrengo plan estrategiko guztiek.

Bigarren plan hark bost ildo estrategiko nagusi zituen, eta lau euskarri; euskara lauretako bat, helburu xehe hauekin (EiTB, 2007, or. 21):

- a) Euskararen bitartez audientzia biltzeko eta fidelizatzeko aukera ematen zuten nitxoak identifikatu egin behar ziren.
- b) Umeak eta gazteak euskaraz dibertitzeko eskaintza osatu behar zen.
- c) 30-45 urteko ikus-entzuleei EiTBko euskara eskuragarri egin behar zitzaien.

- d) Interneten, gazteei informazioa eta formatu berritzaileak eskaini behar zitzaizkien euskaraz.
- e) EiTbren webguneek gazteentzako erreferentzia izan behar zuten parte-hartzean, harremanetan eta interes-komunitateetan.
- f) Gazteari bultzada bat eman behar zitzaion.
- g) EiTb Taldea goreneko posizioan jarri behar zen euskarazko komunikazioan eta, horretarako, euskarazko ikus-entzunezko edukien sorkuntzan partaide bihurtu.
- h) Euskadiko erakundeekin elkarlanean, erantzuna eman behar zitzaien euskararen inguruan agertutako erronka berriei —nazioarteko interesari, immigrazioari eta abarri— eta, horrekin batera, euskararen erabilera indartu egin behar zen komunikazio-taldearen barruan.

Asmo horiek aurrera eramateko, hainbat proiektu zehaztu ziren, batzuk beren beregi telebistari zegozkionak (EiTb, 2007, or. 22):

- 1) Gaztea irratia izen berria ezagutarazteko promozioa egitea, beraren webgunea prestatzea, eta Gazte Kluba sortzea.
- 2) Gazteentzako ekitaldi bat antolatzea EiTb markaren pean.
- 3) EiTbren webguneetan euskara ikasteko eta lantzeko baliabideak txertatzea.
- 4) ETB3 kanal berrian gazteentzako programazioa eskaintzea.
- 5) EiTbren egoitzetan, hizkuntza-paisaia euskaraz agerraraztea.
- 6) ETBren euskara informaziorako euskara-eredu bihurtzea, BBCren ingelesa eredu den bezala.
- 7) HIKEA hizkuntza-kontsultetarako aplikazioa Interneten jartzea.

EiTbren Zuzendaritzak plan estrategiko berria aurkeztu zuen hile berean, *Kontratu Programa Euskal Irrati Telebista herri erakundearekin 2007-2010 aldirako* (Eusko Jaurlaritza & EiTb, 2007) sinatu zuen Jaurlaritzarekin, lehen programa-kontratuaren indarraldia 2006 urtera luzatu ondoren. Bigarren horretan, aurrekoaren egiturari jarraituta, EiTbk irradi-telebistako zerbitzuarekin eta zerbitzu horren kudeaketarekin loturiko konpromisoak hartu zituen bere gain. Irrati-telebistako zerbitzuarekin loturik, hauek nabarmen daitezke hizkuntza-normalizazioaren ikuspegitik (ibid., or. 6-12):

- a) Nafarroako eta Iparraldeko zabalkundea maximizatzea.
- b) Nazioarteko emisioen bitartez, euskal kultura eta aktualitatea ezagutaraztea munduan, eta euskarari eta euskarazko edukiei zabalkundea ematea.

- c) Irrati eta telebistako eskaintzan, euskarari toki handiagoa egitea.
- d) Haur eta gazteei zuzendutako edukietan, euskara lehenestea.
- e) Hizkera eta estereotipo sexistak baztertzea.

Bestalde, kontratuko zazpigarren atarikoan zioenez, epealdi horretako gertakaririk garrantzitsuena lurreko emisio analogikoen itzalketa izango zen, 2010eko apirilerako aurreikusita zegoena, eta, haien lekuan, emisio digitalak hasiko ziren. Ikus-entzunezko panorama berri horretan, EiTbK bere kanal digitalak ekoizteko konpromisoa hartu zuen bere gain eta, programa-kontratuan, definituta utzi ziren (Eusko Jurlaritzak & EiTb, 2007, or. 10–11). ETBk lau kanal izango zituen lurreko telebista digitalean (LTDean):

- 1) ETB1, orotariko telebista euskaraz. Informazio-eskaintza eta gazteentzako pelikula bikoiztuak gehitu egin beharko zituen, eta euskara lantzeko saioak eskaini beharko zituen.
- 2) ETB2, orotariko telebista gaztelaniaz. Albistegietan euskara ikusgai egin beharko zuen protagonisten adierazpenen bidez, eta euskarazko mundua gaztelaniazkoa eramateko zubi modura lan egin behar zuen.
- 3) ETB3, euskara hutsean. 30 urtez azpikoentzako programazioa izango zuen.
- 4) ETB4, informaziorako kanal elebiduna. Albistegi bereziei, dokumental eta erreportajeei, interakzioari, kultur programazioari eta formatu berriei eman beharko zien arreta, euskaraz eta gaztelaniaz proportzio berean.

Irratian, bost kanal ekoiztiko ziren:

- 1) Euskadi Irratia: orotariko irratia, euskaraz.
- 2) Radio Euskadi: orotariko irratia, gaztelaniaz.
- 3) Radio Vitoria: orotariko irratia, gaztelaniaz, Arabara zuzenduta.
- 4) Gaztea: gazteentzako irradi-formula, euskaraz.
- 5) EiTb Musika: irradi-formula tematikoa, elebiduna.

Interneten, orotariko kanalak eta kanal tematikoak eskaini behar ziren:

- 1) eitb24.com: etengabeko informazio-kanala, lau bertsiotan —euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez—.
- 2) eitb.com: komunikazio-taldeko irratien eta telebisten programazioa azaltzeko kanala, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioarekin.

- 3) betizu.com: haurrentzako kanala, euskaraz.
- 4) gaztea.com: gazteentzako kanala, euskaraz, baina gaztelaniazko eta ingelesezko edukiekin.

Horrez gainera, lehen programa-kontratuan bezala, EiTBk euskal ikus-entzunezko sektoreari eta informazioaren gizarteari buruzko betekizunak hitzartu zituen Jaurlaritzarekin, bai eta zerbitzuaren kudeaketari zegozkion betekizunak ere. Jaurlaritzaren konpromisoa, berriro ere, finantzazioa zen, EiTBren konpromisoen betetze-mailaren arabera gauzatuko zena. Horrenbestez, kontratuaren eranskinean, kontrolerako eta jarraipenerako adierazleak zehaztu ziren.

EiTBren kudeaketa-sisteman aipatu dugun hirugarren hanka, gizarte-erantzukizunari dagokiona, 2007-2010eko epealdi honetan abiarazi zen. Halako kudeaketa-erremintetan ohi denez, EiTBk gizartearen aurrean jasangarri izateko konpromisoa hartu zuen, hiru arlotan: enpresaren kudeaketan, pertsonen kudeaketan eta ingurugiroaren kudeaketan. Horrez gainera, beste erakunde batzuen aldean, EiTBk beste konpromiso batzuk hartu nahi izan zituen euskal gizartearen aurrean. Beste horiek zehazteko lehen urratsa *world cafe* bat antolatzea izan zen, 2008ko udaberrian, 120 gizarte-ordezkarirekin, EiTBren Bilboko egoitzan (EiTB, 2009a, or. 4). Ekimen haren emaitza modura, EiTBk euskararekin, euskal gizartearen garapenarekin, eta euskal gizartearen nazioarteko proiektzioarekin hartu zuen konpromisoa (A. Aranburu, Agirre, & Castilla, 2008).

EiTBren gizarte-erantzukizunak, hortaz, sei dimentsio ditu guztira. Euskara da horietako bat, non EiTBk ahalegin-plus hauek egin baitzuen 2007-2008 epealdian (EiTB, 2009a, or. 29): 1) Olentzeroren irudia gaurkotzea, 2) euskara entretenimendurekin eta aisialdiarekin elkartzea, 3) euskarazko komunikatzaile berriak prestatzea, eta 4) euskararentzat espazio berriak sortzea. 2009-2010 epealdian, ahalegin bat gehiago egin zuen: 5) euskarazko musika bultzatzea (EiTB, 2011, or. 32). EiTBk urte birik behin prestatzen duen gizarte-erantzukizuneko memoriak, euskarari dagokion atalean, erregistratzeko eta nabarmentzeko plataforma bat eskaintzen die EiTBk aurrera eramaten dituen ekimenetatik euskararen sustapenarekin loturaren bat izan dezaketenei.

#### 4.2.1.3. 2009-2013 epealdia

EAEko hauteskondeek kolore berri bateko gobernua ekarri zuten 2009an eta, EiTBra, zuzendaritzaren aldaketa, Alberto Surio buru. Europan, sistema digitalera igarota zegoen lurreko telebista ia gehiena; gero eta ohikoagoa zen ikus-entzunezkoak Interneten eta gailu eramangarrietan kontsumitzea; bereizmen handia (HD) ezartzen hasia zen; komunikazio-talde handiak edukien ekoizpen multimediarantz jotzen hasiak ziren, negozioak, erredakzioak eta prozesuak integratuz; kontzentrazio-eragiketen ondorioz, operadore pribatuen kopurua murriztuz joango zela antzematen zen ikus-entzunezkoen mapan eta, eszenatoki berri horretan, EiTBk eragile-rola nahi zuen. Horretarako, *EiTB 2010-2013 estrategia* (EiTB, 2010) zeritzon plana landu eta onartu zuen zuzendaritza berriak, zortzi helbururekin. Aipagarri dira informazio-liderrak izatea telebistan, irratian eta Interneten; sinergiak lortzea EiTBko lantaldeetan eta prozesuetan, eta teknologiaren abangoardian joatea, besteak beste, ikus-entzunezko edukien kudeaketari, HDari eta Interneteko telebistari dagokienez.

Laugarren helburu estrategikoa telebistako, irratiko eta Interneteko euskarazko eskaintza birdiseinatzea zen (EiTB, 2010, or. 8). Hauek ziren estrategia horren ildoak:

- a) Euskarazko telebista erakargarri bihurtu behar zen euskaldunentzat, gero eta hiritarrago, dinamikoago eta mundura irekiago zirela aintzat hartuta.
- b) Programazioa ondo antolatu behar zen, ordutegiak behin eta berriro aldatzen ibili barik.
- c) Audentzia gehiago erakarri behar zen, ondo landutako produktuekin, eta sinesgarritasuna eta hurbiltasuna eskainiz.
- d) Euskaldun-komunitate guztien arteko lotura egin behar zen, *«errealitate ezberdinak errespetuz eta adeitasunez hartuta»*.
- e) Hizkuntza erraza eta kalitatezkoa erabili behar zen.
- f) Euskararen erabilera normalizatu egin behar zen, bai pantailan, bai enpresa barruan, enpresako profesionalekin eta kanpoko kolaboratzaileekin elkarlana bultzatuz eta erakundeekin akordioak eginez.

Estrategia hori aurrera eramateko, proiektu hauek pentsatu ziren (EiTB, 2010, or. 13).

- a) Euskarazko telebista-kanalak birdefinitu egingo ziren: ETB1, orotarikoa; ETB3,

haurrentzat eguneko ordu-tarteetan eta gazteentzat iluntze-gauetan; ETB4, kirolean espezializatua eta eleaniztuna.

- b) Radio Euskadin eta ETB2n, euskarazko kanaletara hurbiltzera gonbidatuko ziren herritarrak.
- c) Nahierako telebista-zerbitzua ezarriko zen.
- d) Bikain ziurtagiriarekin loturiko egitasmo bat landu beharko zen 2011-12rako.

Euskararen normalizazioaren ikuspegitik begiratuta, 2010-2013 epealdiko planean, egitasmo interesgarri bat jaso zen Euskadin plataforma guztietan informazio-liderrak izateko helburu estrategikoarekin lotuta, zeina baitzen beste hedabide batzuetan ohi den bezalako irizpide-liburu bat prestatzea. Estilo-liburu hark EiTBren lerro editorialari gizartearekin sintonizatzen lagundu behar zion. Proiektuak polemika eta errefusa eragin zituen EiTBren barruan, Zuzendaritza Nagusiak UPV/EHUko irakasle-talde bati enkargatu baitzion testua prestatzea. Aurrera egiteko, nahitaezkoa izan zuen EiTBko profesionalen ekarpena atal guztietan, batik bat, komunikazio-taldearen izaerari eta eginkizunei buruzkoetan. Eranskinak EiTBko profesionalek prestatu zituzten oso-osorik. Euskal gizarteko eragileei ere aukera eman zitzairen euren ekarpenak egin zitzaizkien, besteak beste, Emakunderi, Ihoberi eta giza eskubideen arloan ari diren hainbat norbanakori. Estilo-liburua lantzeko prozesua zailtasunez beteta egon zen, baina emaitza kontsentsuzko testu bat izan zen.

*EiTBren Estilo Liburua. Informazioa eta Aktualitatea* (Martin, Cantalapiedra, & Zalbidea, 2013) agintaldiaren amaierarako burutu zen, baina egitasmoaren sustatzaileak berak —Zuzendaritza Nagusiak— kendu zion zilegitasuna, «proiektua» etiketarekin argitaratzea agindu baitzuen. Estilo-liburuak zortzi kapitulu zituen: 1. EiTB Taldearen aurkezpena, 2. EiTBren informazio-misioa, 3. Etika, deontologia eta jardunbide profesionala, 4. Legezko erantzukizuna, 5. Informazioa lantzeko irizpideak, 6. Jardunbide profesionalerako jarraibideak, 7. EiTBren Erredakzio Estatutua, eta 8. Eranskinak. Kapitulu gehienetan jasotzen ziren irizpide eta jarraibideak EiTBren normalizazio-eginkizunari, hizkuntza-ereduari eta euskara-ereduari buruz, ia denak lehenagoko dokumentuetatik jasoak. Xehetasunak aurrerago emango ditugu.

EiTBren finantzazioari zegokionez, aurreko epealdiko programa-kontratua urtebete luzatu zen eta, krisi ekonomiko sakonak EAEko diru-sarreraren gaineko ziurgabetasuna



eragiten zuenez gero, Eusko Jaurlaritzak eta EiTBk 2012rako baino ez zuten hitzartu programa-kontratu berria, 2012-2015 epealdi osorako sinatzeari zail irizita (Irekia, 2012). Urtebeteko programa-kontratu horrek. Surioren agintaldian sinaturiko bakarra izan zenak, aurrekoen egitura bera zuen, EiTBk bere gain hartu beharreko konpromisoak aurrekoen errepikapena ziren, baina baziren berritasunak. Zerbitzu publikoaren definizioan, espresuki aipatu ziren biktimak, balio demokratikoak, eta Euskadiren azken urteetako historiari buruzko kontakizuna eraiki beharra eta, programazioarekin eta Euskadiko ikus-entzunezko industriaren sustapenarekin loturiko konpromisoen deskribapenean, 'euskal kultura' kontzeptuak errealitate plural bat biltzen zuela ematen zen aditzera.

EiTBren gizarte-erantzukizunaren esparruan, 2011 eta 2012 urteetako plangintzan, aurreko plangintzetako sei dimentsio berak hartu ziren aintzat. Euskararekin loturik, EiTBk sei ahalegin egin zituen (EiTB, 2013a, or. 31): 1) gazte-aisialdia, 2) komunikatzaile-eskola, 3) publizitatea, 4) euskal musika, 5) ikasmateriala, eta 6) euskararen kodifikazioa eta lantze funtzionala. Berez, aurreko urteetako ahaleginen jarraipena ziren baina, sailkapenean eta izendapenean, presenteago daude hizkuntzaren normalizazioan erabiltzen diren kontzeptuak.

#### 4.2.1.4. 2013-2020 epealdia

EAEko hauteskundeek kolore-aldaketa eragin zuten Eusko Jaurlaritzan atzera ere 2012an, eta horren ondorioa izan zen 2013an zuzendaritza berri bat sartu zela EiTBn. Maite Iturbe zuzendari nagusi berriak, bere taldea osatzeko, enpresa barruko pertsonak deitu zituen, denak lehenagoko zuzendaritzetan ardura-postuetan arituak, bera bezala. Zuzendaritza berriak *Plan estrategikoa 2013-2016* (EiTB, 2013b) onartu zuen bere agintaldirako. Planak zortzi lerro estrategiko zituen, besteak beste, informazioan eta aktualitatean Euskadiko komunikazio-talde liderra izatea, EiTBko lan-ekipoen konbergentzian urratsak egitea, eta enpresaren iraunkortasuna ziurtatzea. Horrek esan nahi zuen, batetik, antolaketa profesionala modernizatzea eta langileak beharrian funtzional eta teknologiko berrietarako prestatzea eta, bestetik, kudeaketan, finantzen oreka bermatzea eta eraginkortasunez, gardentasunez eta kalitatez jardutea.

Hirugarren lerro estrategikoa euskarari zegokion, eta horren helburua zen euskal herritar eleaniztunen artean hedabideetan euskara kontsumitzeko jarrera sustatzea eta normalizatzea eta, hala, EiTBren audientzia euskalduna sendotzea. Helburu horretara heltzeko, ETB1en egunero hamar orduko eduki-ekoizpen berria eskaintzeko konpromisoaz gainera, bi proiektu zehaztu ziren (EiTB, 2013b, or. 21):

- 1) EiTBren kanaletan erabiltzen zen euskararen gaineko gogobetetasuna handitzea, euskaldun berriei eta erdi euskaldunei parte hartzeko aukera emanez.
- 2) EiTBren erdal kanaletan euskara txertatzea eta ikusgai egitea.

Euskara EiTB osoan ikusgai egiteak komunikazio-taldearen hizkuntza-eredua berritzea esan nahi zuen. Berritze horretan, kontsentsu zabala bildu nahi zen EiTBren barruan eta, hartara, lehenetsunak ezarri ziren identifikatu ziren ekimen posibleetan. Abian jarri zen lehen ekimena herritarren adierazpenen erabilerari zegokion. Zuzendaritzak oinarrizko dokumentu bat prestatu zuen, eta EiTBko Erredakzio Kontseiluaren ekarriekin osatu. Asmoa zen dokumentu horrek EiTBren estilo-liburuko 20. kapitulua ("Adierazpenen hizkuntza-tratamendua") ordezkatzeko enpresa barruko erabileran. 20. kapitulu horren bertsio zaharra eta berria oso ezberdinak ziren, baina pentsaera bakarra zetzan bietan: elkarriketatuen hizkuntza-hautuak errespetatuz, EiTBren kanal guztiak baliatzea euskarari prestigioa eta ikusgaitasuna emateko. Aldea zen bertsio berrian askoz zehatzago azaltzen zitzaizela kazetariei zelan bildu adierazpenak egoeraz egoera, eta zer tratamendu eman bildutakoari kanal bakoitzean. Dokumentu berria 2015ean adostu zen eta, ondoren, komunikazio-taldearen barruan ezagutarazteko eta praktikan jartzeko prozesu luze eta konplexu bat abiarazi zen, euskalgintzako eragile batzuen aldetik jarraipen oso zorrotza eta kritikoa izan zuena (4.3.1. azpiatalean ikusiko dugunez).

2013-2016rako plan estrategikoaren indarraldia amaituta, EiTBko Zuzendaritzak hainbat proiektu prestatu ditu 2017-2020 epealdirako, zortzi lerrotan elkartuta (EiTB, 2018). Zortzi lerroen bildumari ez dio 'plan estrategiko' izena eman, ezelan ere ez baldintzatzearen Legebiltzarrean EiTBren erreforma aztertzen ari den lantaldearen eginkizuna<sup>18</sup>. Edozelan ere, zortzi lerro horiek azken plan estrategikoan jasotako zortzi

---

<sup>18</sup> Azkenean, Eusko Legebiltzarrearen eskariz, EiTBko Zuzendaritzak plan estrategiko oso bat idatzi du 2017-2020 epealdirako —zortzi lerroen bildumatik abiatuta— eta EiTBren Administrazio Kontseiluari aurkeztu dio 2018ko abenduaren 18ko batzarrean.

lerroen jarraipena dira, eta —idazpuruen literaltasunari dagokionez, behintzat— 2008az geroztiko plan guztietako bertsuak. Euskarari dagokionez, ikus-entzunezko edukiak euskaraz kontsumitzeko ohitura sustatzearen helburuari lotuta (3. lerroa), azpimarragarria da Euskaraldiarekin, Gipuzkoa Labekin eta euskararen normalizazioan sortzen diren ekimen berritzaileekin konpromisoa hartzeko proiektua.

2017-2020rako proiektu-bilduma hori abian ipintzerako, EiTBko Zuzendaritzak eta Eusko Jaurlaritzak sinatua zuten *Programa-kontratua Euskal Irrati Telebista herri erakundearekin 2016-2019 aldirako* (Eusko Jaurlaritza & EiTB, 2016). Aurreko plan estrategikoaren zikloa, 2013-2016 epealdikoa, finantzazioari loturiko arazoek baldintzatu zuten, urtez urte luzatuz joan behar izan baitzen 2012an sinaturiko programa-kontratua krisi ekonomikoaren ondorioz. Hainbat urtetan izoztuta egon ziren finantza-baliabide haiekin, Zuzendaritzak komunikazio-taldearen iraupena eta beraren informazio-eskaintza bermatzea lehenetsi zuen (EiTB, 2017a, or. 3).

Programa-kontratu berrian, aurrekoen ereduari jarraituta, EiTBk hamaika konpromiso hartu ditu bere gain (Eusko Jaurlaritza & EiTB, 2016, or. 12–34):

- 1) Irratiko, telebistako eta Interneteko kanalen profilak zehaztea.
- 2) Aro digitalean EiTBren zerbitzu publikoa Internetera zabaltzea.
- 3) Kalitatezko informazioa eskaintzea
- 4) Euskararen eta euskal gizarte elebidunaren normalizazioa sustatzea.
- 5) Euskal kultura zabaltzea.
- 6) Euskal kirola sustatzea.
- 7) Gizarte-normalizazioko plangintza instituzionalekin bat egitea.
- 8) Euskal erakundeen Bake eta Bizikidetzaren Planarekin bat egitea.
- 9) Euskadiko ikus-entzunezko industria bultzatzea.
- 10) Ekoizpen- eta banaketa-teknologiak berritzea.
- 11) Kudeaketa aurreratu, arduratsu eta gardenaren printzipioak aplikatzea.

Eginkizun horiei aurre egiteak EiTBri dakarzkion gastuak konpentsatzeko, Jaurlaritzak EAEko aurrekontuetatik EiTBri ekarpen hauek egiteko konpromisoa hartu du: 2016an, 122 milioi euro; 2017an, 124 milioi euro; 2018an, 125 milioi euro, eta 2019an, 131 milioi euro. 2012ko programa-kontratuan, aurreikusitako ekarpena 132 milioi eurokoa zen. Publizitatearen eta produktu-salmentaren bidezko diru-sarreretan ere, EiTBk

jaitsiera izan du, 2012. urtean zenbatu zituen 22 milioi euroetatik 2016an zenbatu zituen 14 milioi euroetara. Lau urte behar izan dira Jaurlaritzak EiTbren finantzazioa segurtatzeko, baina lau urte horien ondoren egin diren murrizketek oso egoera prekarioan jartzen dute EiTb, bete beharreko konpromisoak lehenagoko bertsuak eta gehiago baitira.

Konpromiso horietatik, laugarrena euskararen normalizazioari dagokio. Jaurlaritzarekin sinaturiko programa-kontratuan jasotzen denez, EiTb euskaldunen hedabide erreferentzial bihurtzen saiatuko da, lehenetsia haur eta gazteei emanda. Euskarazko albistegiei balio erantsia ematen saiatuko da, edukietan globaltasuna hurbiltasunarekin eta berehalakotasunarekin bateratuz, eta testuetan ikusle ororentzako hizkera egokia landuz eta erabiliz. EiTbren gaztelaniazko kanaletan, euskara eta euskal gizarte eleaniztuna ikusgai egingo dira. Kanpo-produkzioan, gazteentzako film eta telesailak jatorrizko bertsioan eta euskaraz azpidatuz eskaintzea aztertuko da. Horrez gainera, berrikuntza teknologikoaren ostean, kanalen profilak zehazteko konpromisoari dagokionez, ETB1 eta ETB2 bereizmen handira pasatuko dira, hots, ETB1HD eta ETB2HD izatera. EiTbren zerbitzu publikoa Internetera zabaltzeko konpromisoa dela eta, eitb.eus atariarekin eta Nahieran gordailuarekin batera, euskara hutsezko kanal bi ekoitziko dira: Hiru3, haurrentzat, eta Gaztea, gazteentzat.

Gaingiroki aztertu dugun 2013-2019ko plangintza estrategikoan, badira euskararen normalizazioa ukitzen duten egitasmo bi, arreta apur bat gehiago eskaini nahi diegunak. Lehen proiektua, informazio-lidertzarako estrategiari lotua, estilo-liburua eguneratzea eta inplementatzea da (EiTb, 2013b, or. 20). Bigarrena, enpresaren iraunkortasunerako strategiari atxikia, euskara-plana egitea da (ibid., or. 33). EiTbren estilo-liburua eguneratzeko lehen urratsa adierazpenen hizkuntza-tratamenduari buruzko dokumentua lantzea izan zen, gorago esan bezala, estilo-liburuko 20. kapitulua ordezkatzeko zuena. Dokumentu horren lanketan, EiTbren Zuzendaritzak eta Erredakzio Kontseiluak hartu zuten parte. Gainerako liburuaren berrikusketan, jatorrizko enkargua jaso zuen UPV/EHUKo irakasle-taldeak ere jardun zuen. *EiTbren estilo-liburua. Informazioa eta aktualitatea* (Martin, Cantalapiedra, & Zalbidea, 2016) lehen erreferentzia bilakatu da EiTbren hizkuntza-ereduari dagokionez.

Bigarren egitasmoa, euskara-plana, EiTBren barruan laneko harreman eta jardueretan euskara erabiltzea sustatzeko ekimen bat da. Aspaldi entzuten ziren kexak langile erdaldunek euskarazko lan-katea hautsi egiten zutelako (Aranberri, 1995, or. 85–86), baina, hala eta guzti, esana dugunez (Larrinaga, 2005b), politika eta plan zehatzik egon gabe ere, EiTB beste enpresa asko baino hainbat urrats aurrerago joan da euskarazko kudeaketan, bai ezagutzari dagokionez, bai laneko zereginei dagokienez, bai beharginen arteko harremanei dagokienez. EiTBko langileen artean ere, hori zen hautemana eta, 2008an enpresako hizkuntza-politikari buruzko inkesta egiten zaienetik, haien gogobetetasuna nahiko handia da (Hauteman eta Informazio Saila, 2014). Eusko Jaurlaritzarentzat, horrenbestez, EiTB ez da lehentasuna izan euskara administrazioan normalizatzeko ahaleginetan baina, lehen lau plangintzaldietan pauso handiak eman eta gero, Jaurlaritzaren 1/2014 Ebazpenak V. plangintzaldiarekin bat egitea eta euskara-plan bat prestatzea ezarri zion EiTBri. Ordurako, plana eginda zegoen.

EiTBren euskara-planak 2008 urtean du sorburua. ETBko lan-hitzarmenean, Zuzendaritzak eta sindikatuek euskalduntze-plan bat prestatzea adostu zuten, Prestakuntza Batzordearen bitartez aurrera eraman behar zena (M. Agirre et al., 2008). Batzordeak 2010ean ekin zion planari, hurrengo urtean osatu, eta EiTBko Zuzendaritzak oniritzia eman zion. Planaren helburu nagusi modura, hauxe jarri zen:

«Euskarak Euskal Irrati Telebistan lan eta betekizunen arloan orain arte izan duen posizioa bermatzea, sendotzea eta areagotzea».  
(Prestakuntza Batzordea, 2011)

Hartara, planaren esparrua ETBtik EiTB osora zabaldu zen. Beraren izaera ere, zabaldu egin zen, euskalduntze-plan soiletik guztizko euskara-planera. Plana garatzeko, Prestakuntza Batzordeak hainbat lan-ildo erabaki zituen; lehena, enpresaren egoeraren diagnostikoa egitea. Diagnostikoa egiteko, kanpoko enpresa bat kontratatu zen eta, aldi berean, Prestakuntza Batzordean adostutako planaren jarraipena egiteko, EiTBko Euskara Batzordea eratzea adostu zen (Euskara Batzordea, 2011). Diagnostikoa 2012ko lehen hilabeteetan egin zen eta, haren emaitzak eta Prestakuntza Batzordean erabakitako lan-ildoak aintzat hartuta, euskara-planaren ildo estrategikoak eta helburu zehatzak finkatu ziren, Euskara Batzordeak 2012ko apirilean onartuak. Ondorengo urratsa,

2012ko maiatzean, 2013-2016 epealdirako ekintza-plana osatzea izan zen eta, azkenik, EiTbren Zuzendaritzak 2013ko apirilean abiarazi zuen euskara-plana (Euskara Batzordea, 2013b). Beraren indarraldia amaituta, *EiTbren 2017-2020ko euskara-plana* (Euskara Batzordea, 2017a) prestatu eta abiarazi da.

#### **4.2.2. EiTbren garapena**

Euskararen komunikazio-esparruaren egitura aztertu dugunean esan bezala (3.3.3.2. puntuan), euskarazko hedabideek euren enpresa-eredua EiTbren eredu industrialerantz eraman dute azken hamarkadetan, besteak beste, langileak profesionalizatuz, azpiegiturak sendotuz eta komunikazio-talde multimedia bihurtuz. EiTbk berak ere, 2000. urtetik aurrera, plangintza estrategikoan jasotako proiektuak gauzatu eta ekimenak aurrera eraman diren heinean, urrats gehiago egin ditu bide beretik.

Alde batetik, XXI. mendearen hasieran, EiTbk egoitza berriak ezarri, eta zaharrak birmoldatu egin ditu, eta kanal-eskaintza ugartu egin du (ikus 4.2.2.1.). Aro digitalera egokitu beharrak ekarri duen garapen horretan, nabarmengarri dira Interneterako jauzia, egoitza nagusi berria, eta bereizmen handiko telebista-kanalak. Beste alde batetik, aro digitalak audientziarekin konektatzeko bide berriak saiatu beharra ere ekarri du (ikus 4.2.2.2.). Saiakera horretan, audientzia-datuak irakurtzeko modu berriak landu dira eta, horrekin batera, ikusleak erakartzeko modu berriak, pantailatik harago dozenak. XXI. mende honek ekarri duen testuinguruak, azkenik, EiTbren barne-antolakuntza ere ukitu du. Ikerketa honetan, hizkuntza-zaintzako egiturak izan duen bilakaeraz arituko gara (ikus 4.2.2.3.). Hizkuntzalari-taldeak bere lekua zehaztu behar izan du EiTbren produkzio-prozesuetan, eta berak ere IKTak txertatu behar izan ditu bere jardunean. Azkenik, EiTbren barruan laneko jarduera eta harremanetan euskararen erabilera sustatzeko erabakiaz arituko gara (ikus 4.2.2.4.). Erabaki horrek euskara-plan bat lantzea eta inplementatzea ekarri zuen.

##### **4.2.2.1. Antolamendua eta azpiegiturak**

Euskarazko komunikazioan, EiTbk markatu zuen gainerako hedabideek 1980ko eta 1990eko hamarkadetan euren enpresa-ereduetan izango zuten bilakaera eta, mende

berrian, ostera ere, EiTb hainbat urrats aurrerago doa bere enpresa-eredua egokitzeko eginkizunean. 2010eko hamarkadako azken urteetara arte gertatu den prozesua 2000ko plan estrategikoan zirriboratu zen, teknologia digitalak beste testuinguru bat zekarrela ikusita. Laburki azalduta, plataforma digital berrietan —Interneten eta LTDan— kanalak sortzea eta berariazko edukiak ekoiztea izango zen EiTbren ardura eta, horretarako, teknologia digitalez hornitu behar zituen bere egoitzak.

Gizarte-erantzukizuneko azken memorian (EiTb, 2017b, or. 8) jasota dagoenez, EiTb Euskadiko komunikazio-talde publiko multimedia da. Juridikoki, Eusko Jaurlaritzaren mendeko sozietate publiko bat da eta, gizarteari ematen dion ikus-entzunezko zerbitzurako, EiTbk lau sozietate anonimo unipersonalen bidez jarduten du, hiru plataformatan —telebistan, irratan eta Interneten—, euskaraz eta gaztelaniaz. Telebistako eskaintza Euskal Telebista SAUren ardura da. Irratan, Radio Vitoria SAUk kanal bat ekoizten du, Radio Vitoria, gaztelaniaz, eta EiTbren gainerako eskaintza guztia Eusko Irratia SAUren ardura da. Interneti dagokionez, 2003an, Jaurlaritzaren 100/2003 Dekretuaren bidez, baimena eman zitzaion EiTb herri-erakundeari Eitbnet sozietate filiala sor zezan beraren ardurapean uzteko plataforma digital berrietarako ikus-entzunezko eskaintza (6. taulan ikus daiteke EiTb Taldearen hedabide eta kanal guztiek denboran zehar izan duten eboluzioa). Zerbitzu korporatiboak herri-erakundeetan bilduta daude, hala nola, Aholkularitza Juridikoa, Administrazioa eta Pertsonal Saila.

Multimedia kontzeptua EiTbk eta Jaurlaritzak 2007-2010 aldirako sinatu zuten programa-kontratuan agertu zen lehen aldiz, esanez edukiak eta komunikazio-zerbitzuak sortzeko eta emateko orduan EiTbk plataforma multimediak ere hartu behar zituela aintzat, hots, irrati eta telebista digitalak, Internet, eta telefonia-euskarriak. Geroago, 2008-2011 aldirako landu zuen plan estrategikoan, EiTbk komunikazio-talde multimedia gisa definitu zuen bere burua, eta beraren eskaintza multimedia izan zedila jarri zuen helburu modura. Horrek esan nahi zuen —programa-kontratuak zioenaren arabera— berariazko programazioa prestatu behar zuela irratan, telebistan eta Interneten zeuzkan edo sortu behar zituen kanaletarako. Plan estrategikoak ñabardura bat eransten zuen: ikuspegi multimedia hartu behar zela, alegia, edukiak edozein unetan, edozein lekutan eta edozein plataformatan zabaltzeko modua esploratu behar zela.

Plataforma multimedietan kanalak sortu eta berariazko produktuak ekoitzi ahal izateko, EiTbK teknologia digitala inplementatu behar zuen bere zentroetan baina, hasteko, Iurretako egoitza nagusia ez zen egokia halako egitasmo baterako. Egoera haren adierazlea da Eitbeneten lehendabiziko lantokia Zamudioko parke teknologikoan instalatu izana. Hortaz, EiTbK teknologia digitalera jauzi egiteko proiektu bat diseinatu zuen, DIGIBat izenekoa, non ekimenik garrantzitsuena komunikazio-taldearen egoitza nagusiaren lekualdaketa izan baitzen, Iurretatik Bilbora, 2007an gauzatua, hiru helburu nagusirekin: azpiegiturak digitalizatzea, EiTbren hedabide guztiak zentro bakarrean biltzea, eta sailak harreman funtzionalen arabera kokatzea (Otermin & Díez Unzueta, 2006, or. 259–260).

DIGIBat proiektu horren barruan, egoitza berri bat eraiki zen Gasteizen, Radio Vitoria eta EiTbK hiriburuan zeuzkan gainerako zerbitzuak hartzeko. EiTbK, beraz, hiru egoitza ditu —Bilboko, Donostiako eta Gasteizkoa— eta, horiekin batera, zentro bana Iruñean eta Baionan —EiTbren hedabide guztiak erabiltzen dituztenak—, eta zortzi berriemaile-bulego iraunkor —Madril,artzelona, Paris, Brusela, Londres, Beijing, New York eta Hego Amerika—.

Aro digitalak halako sarearen eraketari mesede egin dion bezala, hedapen-arazoak ere eragin ditu. ETBren emisio analogikoak 1988tik heltzen ziren Nafarroara eta Ipar Euskal Herrira, baina egoera hori 2010ean amaituko zen, urte hori ipini baitzuen Espainiako Gobernuak epemugatzat emisio analogikoak itzali eta lurreko telebista digitala (LTD) ezar zedin. LTDak, erronka teknologikoz gainera, mugak zekartzan EiTbren emanaldietarako, hedapen-sistema berriak oztopoa ipintzen baitzion seinaleari erkidegotik kanpo banatzeko. Digitalizazioaren ondorioak aurreikusita, 2007ko programa-kontratuan, EiTbK eman beharreko zerbitzu publikoaren zehaztapenean, emisioak Nafarroara eta Ipar Euskal Herrira heldu beharra ezarri zen.

Bide horretan lehen urratsa 2009an eman zen, Euskadiko gobernu sozialistak eta Nafarroako gobernu erregionalistak protokolo bat sinatuz ETBk zerbitzua ematen jarrai zezan foru-erkidegoan. Protokolo hura ez zen ezertan gauzatu, egitasmoari oztopo ugari jarri baitzizkioten Nafarroako Gobernuaren ezbetetzeek eta alderdi erregionalisten helegiteek (Arnedo, 2016). Azkenean, Nafarroako Gobernuaren zeinu politikoa aldatuta,



erkidego bietako agintarien borondateak bat etorrira, eta Espainiako Gobernuak ipini zituen zailtasun guztiak gainditzeko modua aurkituta, ETB LTDko kanal lokalen bidez hasi zen emititzen Nafarroan, 2016ko uztailean (ibid.). Ipar Euskal Herrian, bestalde Hizkuntza Politika Proiektuak (Euskararen Erakunde Publikoa, 2006, or. 43) jasotakoa betez, 2006-2010 aldian eraman zen aurrera ETBren seinale digitala hedatzeko ekimena.

Bien bitartean, DIGIBat proiektuaren bidez erronka teknologikoari erantzun eta gero, EiTbren hurrengo erronka konbergentzia-prozesuetan murgiltzea izan da. Aro digitaleko mundu globalizatuan, hedabideek konbergentziaren bidez egiten diete aurre lurbira osoa hartzen duen komunikazio-merkatuaren erronkei. EiTbko egoitza nagusia Bilbora aldatu zuen urtean, konbergentziaren bidean eginiko urratsik gehienak alderdi teknologikoari zegozkion; oso gutxi zegoen aurreratuta edukien plangintzan eta langileen antolaketa eta profesionalizazioan (J. Larrañaga et al., 2011, or. 195–196).

Azken urteetan, mila pertsona inguruko langile-taldea ari da EiTbn, enpresa guztiak batuta (7. taulan, EiTbko langileen 2017ko erretratua ageri da, hedabideen arabera antolatuta eta hizkuntza-gaitasunaren datua gehituta). Langile horien antolakuntzan zegoen hutsuneari aurre egiteko, 2010eko plan estrategikoak EiTbko lantalde eta prozesuetan sinergiak lortzea jarri zuen helburu modura. 2013ko plan estrategikoak helburu esplizituagoa ipini zuen: konbergentzian lider izatea. Asmoa zen informazio-agenda partekatzerara heltzea EiTb Talde osoan, baliabide informatiko bateragarriak erabiltzea, lantaldeak berrantolatzea ekoizpen multimediarara jotzeko, eta sistema profesionalak hedabidearen ikuspegitik produktuaren ikuspegira aldatzea. Plan estrategikoaren indarraldia amaituta, alderdi horietako gehienez eginiko aurrerapena ez da oso handia izan (EiTb, 2017a, or. 35).

#### 4.2.2.2. Irismena eta kontsumoa

Performantzia aldiaren, hedabideen erabiltzaileak euren identitate-sentimendu, interes eta zaletasunen arabera biltzen dira eskaintza batera eta, aitzitik, audimetrician aintzat hartzen diren beste aldagai batzuk —hala nola, sexua eta adina— ez dira lehenago bezain erabakigarriak. Aldi berean, gero eta aukera zabalagoa aurkitzen dute, hedabide-motak,

kanalak eta kontsumitzeko gailuak ugaritu egin direlako, Horrek guztiak audientziak zatitzea eta eskaintza bakoitzaren erabiltzaileak gutxitzea eragin du, hedabide batzuen etorkizuna zalantzan uzteraino. Hedabide baten audientzia eta etorkizuna lotzen dituen arazoiketaren ildotik dator Rosa M. Martin (2017) UPV/EHUko Komunikazio arloko irakasleak EiTBz eginiko gogoeta:

«Oraingoan, ikusle datuak izan duten malda-behera etengabeak eragin du [EiTBren] eredia birplanteatu beharra. Baina sinplekeria litzateke pentsatzea eredia aldatzeak berez ekarriko dituela ikus-entzuleak. Eta sinplekeria ikus-entzule asko izatea EiTB ondo ari delako seinaleztat hartzea. Hala izan liteke. Edo ez».

Performantzia aldian, audientzia zatituen testuinguruan, audientzia-datuak modu berri batean irakurtzen hasi dira. Martinek dioenaren ildotik, datuok ez dira hartzen bere horretan eskaintza baten arrakastaren edo onarpenaren neurritzat, zerbitzu aldian izaten bezala. Hala hartu ordez, eskaintza batera biltzea hautatzen duten ikusleekin izaten den elkarrizketa gisa ulertzen dira. Beraz, audientzia-datuen bidez izaten den *feedback* hori hedabideek beste ebidentzia batzuekin osatu beharra dute, euren irismena ebaluatzeko. Horrekin batera, euren irismena handitzeko eta ikusle gehiago erakartzeko jarrera aktiboa hartu dute azken urteetan, promozio-jarduerak estrategiko bihurtzeraino. Berdin gertatzen da ETBn ere.

ETBn, *Goenkalek* ilustratu ditzake hedabidearen eta ikus-entzunezkoen kontsumitzaileen artean audientzia-datuen bidez izaten diren elkarrizketak. Datu jakingarri asko Anjel Lertxundi gidoilari-buruak eman ditu, Mario Esnal (2010) gaitzizenarekin sinaturiko artikuluan. *Goenkale* 1994ko urrian hasi zen, eta 1994ko Gabonak arte iraun behar zuen. Kontratuan aurreikusita zegoen 1995eko ekainera arte luzatzea audientzia-datuak aldekoak izanez gero. Hain izan ziren aldekoak, ezen azken kapitulua 2015ean emititu baitzen. Tarte horretan lan-gatazkak izan ziren aktoreekin eta, inoiz, irtenbidea kontratua ez berriztatzea izan zen arren, beste inoiz, pertsonaia —hain zen ikusleen kutuna— ospitalean eduki zuten aktorearekin adostasunera heldu arte. Hainbeste urtetan, beherakadak ere izan ziren audientzietan, eta lehen erantzuna gidoi-mailan eman zen, istorioak birplanteatuz, sorpresa berriak pentsatuz, pertsonaien profilak korapilatuz, luze zihozan argumentuak laburtuz, eta proposamen ausartagoak bideratuz.

Sortzailearen ikuspegitik mintzatuz, Lertxundik 'tirania' hitza darabil audientzien eragina aipatzeko. Egiatan, ikusleen fideltasuna zama bat izan liteke, alde bientzat, ordea. *Goenkalek* astegun guztietako *prime timea* bete —eta "bahitu"— egin zuen urteetan, beste era bateko programei tokirik utzi gabe, 2006an astean birritan eskaintzen hasi zen arte (egunean bina kapitulu). 2015eko urtarriletik aurrera, aurrekontuekin loturiko arazoak tarteko, baina kanalaren batez besteko audientziatik nahiko gorago ari zen telesailari uko egin gabe, ekoizpen-erritmoa jaitsi, eta astean behin emititzera igaro zen (astelehenetan, kapitulu bi).

Pentsa liteke zerbitzu publikoak ez lituzkeela horren aintzat hartu behar audientziak. Hain zuzen, EiTbren betekizuna zerbitzu publiko gisa definitzen da dokumentu estrategiko guztietan, hala nola, azken programa-kontratuan (Eusko Jaurlaritza & EiTb, 2016) eta azken plan estrategikoan (EiTb, 2013b). Dokumentuotan, lehenagoko beste hainbatetan esan denaren haritik, EiTbri herritar guztientzako zerbitzua ematea eskatzen zaio, irratan, telebistan eta Interneten, euskaraz eta gaztelaniaz, kalitatezko programazio batekin, eta informazio independente eta sinesgarriarekin. Horrekin batera, performantzia aldiko ikus-entzunezkoen kontsumo-era berriei erantzutea ere eskatzen zaio, besteak beste, sarean aktibo diren pertsonekin konektatuz, Internetarako produktuak ekoitziz, edukiak nahierako plataformetan jarriz, eta sarean sortzen diren eduki-proposamenak jasoz. Eginkizun horiek zenbateraino betetzen diren egiaztatzeko eta ebaluatzeko, adierazle-sistema bat adosten da, non, datu ekonomikoekin batera, audientziak izaten baitira neurgailurik garrantzitsuenak.

Ebaluazio-beharrak dakar, horrenbestez, audientzien ardura, ETBk sinatzen dituen kontratuetaraino heltzen dena. EiTbren plangintza estrategikoan audientziarekin loturiko adierazleak jasotzen hasi zirenetik, ikusle-kopuru jakina eskatzen zaio telebistarako programa berri bakoitzari kontratuz. Azkenaldian, kontratu horietako eskakizunak malgutu egin dira, adierazle estrategikoetan audientzia-eskakizunak malgutu diren heinean. Hala, lehen programa-kontratuan (Eusko Jaurlaritza & EiTb, 2002, or. 7), ETBren audientzia-emaitzak hobetzea jarri zen helburutzat, neurgailu jakinik edo gutxieneko zifrarik aipatu barik. Hurrengo programa-kontratuan (Eusko Jaurlaritza & EiTb, 2007, or. 27), eguneko audientzia metatua erabili zen neurgailu modura, eta helburua zen 2010ean 500.000 ikuslerra iristea. Une honetan indarrean

dagoen programa-kontratuan (Eusko Jaurlaritza & EiTb, 2016, or. 16), are neurgailu malguago bat erabili da, urteko audientzia metatua, eta helburutzat ipini da 1.250.000 ikuslera iristea ETBren kanal guztiak batuta.

Audientzia-helburu horietan gertatu den malgutzeak performantzia aldiko kopuruen jaitsiera du atzean. EiTb eta Jaurlaritza jakitun daude digitalizazioaz geroztik audientziak ezin daitezkeela 1990eko hamarkadan bezala interpretatu. Oraindino ere, adierazle baliagarriak izan daitezke EiTbk gizartean duen irismena aztertzeko, baina adierazle osagarrien beharra igartzen da. Osagarri horietako bat inpaktua izan daiteke, Grin eta Vaillancourtek proposatu bezala (ikus 1.3.2.1.). EiTbk gizarte-prestigioa esaten dio inpaktuari, eta oraingo zuzendaritzak lehentasun estrategikoen artean ezarri du bera sendotzea (EiTb, 2013b). Zuzendari nagusiak EiTbren Kontrolerako Legebiltzar Batzordean azaldu bezala, «gizarte-prestigioaren bidez, ageriko egiten da gizartearen onespina» (Iturbe, 2018, or. 3).

EiTbrentzat, hartara, ikus-entzuleen onespina ez da audientzia-datu kuantitatiboek erakusten dutena soilik. Inpaktuari —izen onari— ere garrantzi handia ematen dio eta, hori neurtzeko, azterketa kualitatiboak enkargatzen ditu. Urteak dira OCA Audientzia Behatoki Kualitatiboa deritzon azterketa egiten duela, eztabaida-taldeek teknika erabiliz (R. Garai & Arana, 2013, or. 28). Datu kualitatiboek erakusten dutenez, ikusleen gogoko kanalen sailkapenean, ETB2 lehen postuan dago, eta ETB1, bigarreanean (Gizaker, 2014). Balorazio horretan EAEn zabaltzen diren telebisten ezaugarriak konparatzen dituztenean, ikusleek gainerakoek aurretik jartzen dute ETB objektibotasunean, informazioan, profesionaltasunean eta sinesgarritasunean. Antzeko ideiak aurki daitezke EiTbri buruzko diskurtso espontaneoan Kualitatek (2018) EAeko herritarren artean egin berri duen ikerketa kualitatiboan<sup>19</sup>: 1) EiTbk hurbiltasuna transmititzen du; 2) komunikazio-talde erreferentziala da; 3) informazio sinesgarria eskaintzen du; 4) denborarekin, jakin du mundu globalera irekitzen eta teknologia berrietara egokitzen, eta —hau du ahulgunea— 5) telebistaren merkatuan lehiatzeko zailtasuna du.

---

19 Ikerketa hori 67. Euskal Soziometroaren osagarri modura enkargatu du Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak, EiTbren erreformarako legebiltzar-lantaldeari bere lanean baliagarri izan dakion.

EiTBk, bere inpaktu edo izen ona zaintzeko eta hobetzeko helburuz, jarrera aktiboa hartzen du. Ahalegin horretan, promozio-jarduerak eta programazioarekin loturiko ekimenak bereiz daitezke. Promozio-jarduerarik nabarienak promozio-kanpainak dira, baina EiTBk bestelako ekimenak ere eramaten ditu aurrera, askotan beraren izena euskararekin eta euskal kulturarekin lotzen dutenak: informatzaile-guneak ikastolen jaietan, Durangoko Azokan eta halako gertakizunetan; ekitaldi sozialak —adibidez, Iparragirre sariak, 1995 eta 2007 artean ikus-entzuleen gogoko saioak bereizi zituztenak, edo *Zu zara EiTB* galak, 2016 eta 2017 artean Hego Euskal Herriko hainbat hiri garrantzitsutan egin zirenak—, eta ate irekiko jardunaldiak.

Programazioaren arloan, hainbat ekimen lot daitezke EiTBren prestigioa edo inpaktua handitzeko ahaleginarekin. Multzo batean, erabiltzaileen interes espezifikoek erantzuten dieten ekimenak daude. Beste multzo batean, ikus-entzunezko eskaintzari elementu bereizgarriren bat eransten diotenak. EiTBren kasuan, elementu bereizgarria edukien bertako nortasuna da, hots, komunitatearen kulturaren, izaeran eta ikuspegietan erroturiko osagaia. Honela dio Martin Ibarbia (2002) euskal produktoreak:

«Azken urte eta erdian ahalegin nabarmena egin da [ETBn], esaterako, kanpoko korrespontsalek nortasun propioarekin informazioa garatzeko. Lehenago ez zegoen horrelakorik eta gaur asko eskertzen da New Yorketik, Paristik eta beste hainbat lekutatik egiten ari den ahalegin hori».

Ibarbiak gaineratzen du informazioan ez ezik, nortasun propioa osterantzeko generoetan ere agerraraz daitekeela. Izan ere, elementu bereizgarriak eransteak ez du esan nahi originala izatea eta, esate baterako, ETBren barne-produkzioko telesailek, Estatu Batuetako edo Espainiako telebistetan egiten dituztenen imitazioa izan arren, euskal kulturaren eta izaeran aurkitu dute arrakastaren gakoa. Azkenik, erabiltzaileen interes espezifikoetara zuzendutako ekimenez, aurrerago jardungo dugu (4.3.3. azpiatalean).

#### 4.2.2.3. Euskara Zerbitzuaren sorrera

Euskal Telebistan, 1986an kontratatu ziren lehen hizkuntzalariak eta, 1993an, EiTBko zuzendari nagusiak haietako bat buru izendatuta, ETBko Euskara Saila eratu zen. 2000.

urtean, sail horren erantzukizuna EiTb osora zabaldu zen, Euskara Zerbitzua izenarekin, eta, aldi batez, hizkuntza-aholkulari baten gidaritza izan zuen. Hurrengo paragrafoetan, egitura horren ibilbideaz arituko gara, digitalizazioak komunikazio-talde osoaren antolakuntzan eragin dituen aldaketen testuinguruan kokatuta. Batetik, euskara-zerbitzu bat eratzeko erabakia EiTbko produkzio-prozesuetan izandako berregituratzearen parte bat izan zen. Bestetik, zerbitzu berriak baliabide digitaletara egokitu behar izan du bere jardueran, erabiltzaileen beharrian eta eskakizun berriei erantzuteko, HIKEA aplikazioaz dihardugunean zehazkiago ikusiko dugunez (4.6.3.3. puntuan).

Hasteko, baina, EiTbko hizkuntza-erabileraren kontrolak eragiten duen debatean jarriko dugu arreta. Izan ere, kontrol horren preskriptore guztiek eta erabiltzaile potentzial guztiek ez dituzte beharrian, eskakizun eta helburu berdinak. Ez dago iritzi-batasunik, ezta komunikatzaileak aukeratzeko orduan ezarri beharreko kontrolari buruz ere. Honela dio Ibon Gaztañazpi (2013) ETBko kazetariak:

«Nire ustez, euskarazko komunikabideetan, oro har anabasa, dezentea dago egin behar den euskararen inguruan. Uste dut ahal duenak ahal duena egiten duela. Badira, noski, hizkuntza zaindu eta hizkuntzaren kezka duten kazetariak. Euskara landu eta ekarpenak egiten dituztenak. baina uste dut gutxiengoa direla; oro har, euskara gero eta gutxiago zaintzen dela, ez dela estimatzen, ez dela lantzen, ez dela exijitzen. Zer hobesten da euskarazko telebista edo irrati batean euskaraz jardun behar duen kazetari bat hautatzean? Ibilbide profesionala, ezagutzak, kontaktuak, adina, itxura fisikoa eta edertasuna; edo komunikatzeko eta ikuslearengana heltzeko gaitasuna?».

Lanean diharduten komunikatzaileei egiten zaien kontrola dela eta, batzuek zorrotzagoa izatea nahi lukete, euskaraz zein gaztelaniaz. Iritzi horretakoa zen Henrike Knorr (2007) UPV/EHUko Euskal Filologiako katedraduna:

«EITB ha demostrado durante años que no se toma en serio, o que no da la importancia debida, al buen uso de las dos lenguas oficiales. Ha

sido imposible establecer un verdadero servicio lingüístico en esa casa (que es un ente público, no lo olvidemos), y lo único que se ha hecho es poner algunos parches, echando mano de algunas personas y tres o cuatro cursillos. Muy, pero que muy lejos, de lo que se necesita».

«*Egiazko hizkuntza-zerbitzua*» zer den zehazteak, beharbada, amairik gabeko eztabaida ekarriko luke, iritzi batzuk zein aldenduta dauden ikusita. Xabier Euzkitze (2013) bertsolari eta komunikatzaileak, adibidez, telebistaren beraren esparrutik kanpora ere zabalduko luke hizkuntza-kontrola:

«Galdu dudan borroka izan da, Euskal Telebistak pilotari bakoitzari nahi duen bezala jartzen utzi diolako abizena gure errotulazioan. Baina tira, inork ezin nau pilotarien abizenak gaizki ahoskatzera derrigortu, eta horretan behintzat eusten diot neure horri».

Luis Alberto Aranberri (1995, or. 87) ETBren zuzendari izandakoaren iritziak, ostera, hizkuntza-zaintza oztopo bat da kazetariak euren lanaren ardura har dezaten:

«Nik neuk, behintzat, betidanik defendatu izan dut Unibertsitatean bost urtez aritu eta Administrazio Publikoan sartzeko azterketa gainditu duen profesionalak ezein zuzentzailearen laguntzarik gabe lan egiteko beste euskara —eta erdara— jakin beharko lukeela. Nire esperientziaren arabera, bere burua zuzentzaileen laguntzaz babesturik sumatzen duen kazetariak ardurabako galanta izaten amaitzeko arrisku handia du, bere erantzukizunari uko eginez eta bere erruak inoren bizkar jaurtiz».

Horrela mintzatzen direnek kazetari beregainaren figura defendatzen dute —beregaina hizkuntzaren arloan, ez beste arlo batzuetan—, argudio bi erabiliz. Batetik, ETBk egin dituen urteetan, behin eta berriro errepikatzen eta zuzendu behar izaten direla hutsegite berberak. Bestetik, hutsegiterik handienak, edozelan ere, ez direla ez morfologian, ez lexikoan egiten, komunikazio-estrategietan baizik. Ideia horiek eragina izan dute EiTBoan. Euskadi Irratian, kazetari beregainaren figura gailendu zen hasieratik, eta

erredakzioan ez da inoiz hizkuntzalaririk aritu; bai egon zen, 1990 ingurutik 2010eko lehen urteetara, euskararen erabileraren jarraipena egiten zuen pertsona bat, kazetari bat zena. Eitbneten ere, euskara zaintzearen ardura hartu duten pertsonak edukien arloko profesionalak dira, testuak sortzen dituzten kazetariak bezala. ETBko erredakzioari dagokionez, kazetari beregaina egunen baterako asmo gisa aipatzen da *EiTBko hizkuntza-funtsak (zabalkundea)* (Zupiria, 2005) dokumentuan.

Asmoak asmo, 2000ko plan estrategikoan, oso ibilbide zehatza marraztu zitzaion EiTBren barruan hizkuntza-zaintzari hurrengo hamarkadarako. Ikus-entzunezkoen merkatuan digitalizazioak eragingo zuen eszenatoki berrian, komunikabide bakoitzak bere estrategiak eta jarduketa-lerroak diseinatu behar zituen, eta EiTBk, besteak beste, «*barne-egituraren kudeaketa bateratua lortzea*» (EiTB, 2000, or. 99) jarri zuen helburu modura. Bateratasun horren ildotik, ETBko hizkuntzalari-taldea EiTBko Euskara Zerbitzuan biltzea eta haien eginkizunak eta ardurak komunikazio-talde osora zabaltzea erabaki zen<sup>20</sup>, ETBren Zuzendaritzaren mendean ipinita. Estrategia berri horren xedea zen «*komunikazioan prestakuntza bultzatzea, bai eta Taldeko profesionalen beharrezkoen modu espezializatuagoan erantzutea*» (EiTB, 2000, or. 223). Komunikatzaileei eskaini beharreko prestakuntza eta arreta espezializatu horietaz gainera, produktuaren hizkuntza-kalitatearen arloan, haur eta gazteentzako programak eta kanpo-produkzioaren bikoizketa ezarri ziren lehentasun modura, ordurako informazio orokorrean, kirol-informazioan, fikzioan eta entretenimenduan euskara normaltasunez erabiltzen zela iritzita

Euskara-zaintzaren berrantolakuntza horri lotuta, EiTBk aholkulari baten laguntza nahi izan zuen hizkuntza-arlo osorako. *Zerbitzu tekniko errepikatuak egiteko kontratua* (EiTB & EHU, 2000) sinatuta, Miren Azkarate UPV/EHUko irakaslea hasi zen EiTBko hizkuntza-aholkulariaren zereginean, bai euskarazko, bai gaztelaniazko saioretarako. Urteagarrenean, Lourdes Oñederrak ordezkatu zuen Azkarate hizkuntza-aholkularitzan EiTB eta EHUK (2001) kontratuari gehituriko eranskin baten bidez. Kontratua

---

20 Euskara Zerbitzuan, hizkuntza-teknikari kategoria duten pertsonak baino ez daude. Irratian eta Eitbneten euskararen zaintzan aritu diren edo ari diren pertsonak Euskara Zerbitzuaren irizpide eta jarraibideak betetzen dituzte, eta irizpide eta jarraibide horien lanketan har dezakete parte, baina ez dute Euskara Zerbitzua osatzen.



lankidetzaren hitzarmen gisa berri zuten EITB eta EHUK (2003), eta bertan zehatzago deskribatu ziren hizkuntza-aholkulariaren eginkizunak. Euskararen arloan, funtsezko egitekoa ikerkuntza izango zen, Euskaltzaindiaren arauak EITBren irrati eta telebistetan zenbateraino betetzen ziren jakiteko, betetzea eragozten zuten zailtasunen diagnostika egiteko, eta konponbiderako irizpide teknikoak garatzeko. Lehenik, hiru urterako hizkuntza-normalizazioko plangintza bat prestatuko zuen EITB osorako. Hiruhileko bakoitzaren hasieran, EITBko hizkuntzalari-taldearen egitasmoek aholkulariaren oniritzia beharko zuten aurrera egiteko, eta hizkuntzalarion proposamenek aholkulariaren irizkidetza beharko zuten EITB osorako erabaki bihurtzeko.

EITBko hizkuntza-aholkulari berriak prestatuak lehen txostenetan —*ETBI-eko albistegiaren hizkuntzaren inguruko gogoetak* (Oñederra, 2002) eta *Euskadi Irratiko albistegiaren hizkuntzaren inguruko gogoetak* (Oñederra, 2003c)—, funtsezko ideia beregaintasun linguistikoa zen: ez zen hautematen euskara beregaina zenik, albistegietan behintzat, eduki asko hizkuntza nagusiago batean kodeturik heltzen zirelako eta, gainera, hainbatetan, beste hizkuntza batek iragazita. Txostenon arabera, euskararen beregaintasunik ezak irtenbide bi izan zitzaizkeen albistegietan: 1) Iparraldeko euskara aintzat hartzea, bai ahoskeran, bai hiztegiaren —Sarasolak (1997) urraturiko bidetik—, 2) hizkera zaindua erabiltzea, beraren berezko homogeneousutasuna gordeta. Irtenbide horiek muga bi izango lituzkete: erakargarritasuna, testuak ulertzen errazak izatea, eta aberastasuna, euskalkietako formak eta esamoldeak jasotzea. Diagnostiko gisa, ez zen egoera txarrik aurkitu, kazetariz kazetari alde garrantzitsuak bazeuden ere, bai telebistan, bai irratan.

Lankidetzaren hitzarmenean zehaztutakoa betez, aholkulariak *2003-2004 ikasturterako gaiak eta lehentasunak* (Oñederra, 2003a) aurkeztu zuen, albistegiei buruzko txostenetan oinarritua. EITBn, hizkuntza-arloan, albistegiak izango ziren lehentasuna fikzioaren aurretik, eta betekizun nagusiak, hiru. Lehenik, *bait-* morfemaren, "z" eta "j" letren, eta 'joan' aditzaren "h"-dun flexioen ahoskera zaindu behar zen. Bigarrenik, kazetarien banan-banako jarraipena egin behar zen, ereduaren onarpen-maila ezagutzeko. Azkenik, jarraipenetatik sortutako corpusaren arabera zehaztu behar zen zein gramatika-egitura eta hiztegi-elementu zaindu behar ziren hurrengo. EITBko hizkuntzalariek prestatu behar zituzten kazetariarentzat ahoskerari buruzko jakingarriak.

Kazetarien jarraipen pertsonala egitea eta gramatika-egituren eta hiztegi-elementuen gaineko azalpenak prestatzea ere, ohiko eskuorrien formatuan, beraiei egotzi zitzairen, aholkulariak gainbegiratuta. Hizkuntza-aholkulariak 2006an egin zuen azken urtea EiTBn, baina jarraipen pertsonalaren dinamika 2007-2008 ikasturtera arte bete zen.

Digitalizazioak EiTBren antolakuntzan eragindako aldaketen testuinguruan, jarraipen pertsonalak komunikatzaileen beharrian eta eskakizun berriei erantzutea zuen helburu modura, baina ez zen ekimen bakarra izan, ezta garrantzitsuena ere. 2004an, EiTBren 2000ko plan estrategikoari jarraituta, euskara-arloa ere heldu zen enpresa osora zabalduz zihoan kalitatezko kudeaketaren dinamika eta, ekainean, Euskara Zerbitzuaren PDCA<sup>21</sup> bilera antolatu zen. EiTBren barnean arlo horrekin loturaren bat izan zezaketen sail guztietako ordezkariak deitu ziren eta, bileran, euskara arloaren jarduera hobetzeko eta enpresaren barruan zeuden beharrianetara egokitzeko gogoeta egin zen. Gogoetarekin batera, hainbat helburu eta ekintza adostu ziren, eta honela zehaztu zen Euskara Zerbitzuaren betekizuna:

«EiTBren euskarazko emanaldiak jasotzen dituzten ikus-entzuleentzako produktu egokiak egiten laguntzea hizkuntzaren ikuspegitik, aholkua eta jarraipena emanez». (EiTBko Kalitate Zuzendaritza, 2004b)

Laguntza horren hartzaileak —Euskara Zerbitzuaren bezeroak— EiTB osoan identifikatu ziren: Eusko Irratia, Euskal Telebista eta Eitbnet; Salmenta Saila eta Publizitate Saila; Albistegiak, Barne-produkzioa eta Kanpo-produkzioa. PDCA batzarrak 2004tik 2009ra egin ziren, eta Euskara Zerbitzuari ezarri zitzaizkion ekintzen artetik, bost azpimarratuko ditugu, hurrengo ataletan —corpus-plangintzari buruzkoan batez ere— erreferentzia garrantzitsuak direlako. Lehenengo, Euskaltzaindiarekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlana abiaraztea euskararen arloan. Bigarren, aplikazio bat diseinatzea hizkuntza-kontsultak egiteko. Hirugarren, ordura arteko hizkuntza-orriak bildu eta eskuliburu bat prestatzea. Laugarren, EiTBren intranetean,

---

21 PDCA deritzo prozesuen hobekuntzan eta arazoan ebazpenean erabiltzen den dinamika bati, lau urratsetan —*plan* (planifikatu), *do* (egin), *check* (aztertu) eta *act* (zuzendu)— banaturiko zikloak osatzean datzana.

Euskara Zerbitzuaren atala sortzea. Bosgarren, lantalde mistoak abian jartzea. Urteokaz, denak bete dira eta, gehiago edo gutxiago, denetan egon dira inplikaturik IKTak.

Euskaltzaindiarekiko elkarlana 2003an sinaturiko hitzarmen baten markoan eramaten da aurrera (4.6.3.4. puntuan ikusiko dugunez). Euskal Herriko Unibertsitatearekin, ikerketa-proiektu bi egin dira, Kalkoen Behatokia, 2011. urtean unibertsitatearen webgunean kontsultagai ipini dena (EiTB, 2013a, or. 35), eta Euskarazko Diskurtso Markatzaileen Hiztegia, 2010 eta 2012 bitartean. Aplikazioari dagokionez, HIKEA deritzo, eta 2005ean sortu zen EiTBko Sistema Sailaren laguntzarekin (4.6.3.3. puntuan azalduko dugunez). Hizkuntza-kontsultak egiteko aplikazio horren osagarri garrantzitsua *Euskarazko albistegiatarako esku-liburua II* (Larrinaga, 2007a) izan zen, urte batzuk geroago beste edizio bat izan zuena *Albiste testu bikainak* (Larrinaga, 2012) izenarekin. Eskuliburuaren oinarria osatu zuten eskuorriak eguneratzeko eta berriak zabaltzeko, Euskara Zerbitzuaren gunea sortu zen 2010ean Tortolikan, EiTBren intranetean. Lantalde mistoak, azkenik, Euskara Zerbitzuaren erabiltzaileak beraren jardueran inplikatuzeko ekimen interesgarri bat izan zen, 2008an saiatu zena (4.5.2. azpiatalean arituko gara haietaz eta eskuliburu eta eskuorriez).

EiTBren berrantolakuntza bideratutzat emanda, 2008ko plan estrategikoak beste dinamika batzuk ezarri zituen komunikazio-taldean eta, besteak beste, ez zen beharrezkotzat jo PDCA batzar gehiago egitea. Euskara Zerbitzuak, harrezkero, EiTBren barruan bere lekua eginda, aldaketa gutxirekin jarraitu du. Aldaketarik aipagarriena EiTBren organigramarekin dago lotuta. Euskara Zerbitzua, 2004an sortu zenetik 2007ra arte, EiTBren Zuzendaritzaren menpe egon zen. 2008an, EiTBko Irratien Zuzendaritzaren menpera igaro zen eta, 2011. urtean, Estrategia Zuzendaritzara. Toki batean zein bestean, Euskara Zerbitzuak komunikazio-taldeko beste arloen onespena du, 19tik gorako balorazioa jartzen baitiote urtez urte 0-25 eskalan, 17 puntu ingurukoa izanda batezbestekoa EiTBko arlo eta sailek bata besteari buruz egiten dituzten ebaluazioetan (EiTB, 2014, or. 5).

#### 4.2.2.4. Enpresako lan-hizkuntza

Harrigarria dirudi baina, EiTB sortu zenean, euskarazko produktuak ekoitzi behar zituen lantegia izanda ere, jakintzat eman bide zen gaztelaniaz funtzionatuko zuela. Hala

ondorioztatu behar da langileei ezarri zitzaizkien hizkuntza-eskakizunetatik. Gauzak urte gutxiren buruan aldatu ziren ETBn eta, aurrerago, komunikazio-talde osoan. Esan liteke 1990eko eta 2000ko hamarkadetan EiTB enpresa eredugarria izan zela euskara barne-kudeaketan erabiltzeari zegokionez eta, euskara-planen bitartez, ez du egoera horretan atzera egin nahi izan 2010eko hamarkadan. Asmo horretan, bat egiten du EAEko bosgarren eta seigarren plangintzaldiek administrazio eta erakunde publikoetan euskara lan-hizkuntza efektibo bihurtzeko ezarri duten betebeharrarekin (2.2.3.2. puntuan ikusia).

EiTBko lanpostuak betetzeko egin ziren lehen deialdi publikoetan, irizpide ezberdinak erabili ziren aldi batetik bestera eta lanpostu batetik bestera euskararen eskakizunean. Oro har, eskakizun-maila ez zen oso altua eta, halaz guztiz, 1983an, Administrazio Kontseiluak are gehiago jaitsi zuen, euskararen ezagutza baldintzatik meritura aldatuta. Torrealdaik (1985, or. 69) dio erabaki horren atzean euskara beti pertsegitu duen mamu bat egon zela: euskara vs profesionaltasuna dikotomia. Kontseilari batzuen iritziz, gero eta zailtasun handiagoa zegoen deialdi publikoetan gaitasun profesional oneko langile euskaldunak aurkitzeko. Iritzi hori eta 1983ko erabakia, edozelan ere, ez ziren islatu EiTBk 1986ko abuztuan langileekin sinatu zituen lehen lan-hitzarmenetan, eranskinetan kategoria profesional guztiei atxiki baitzitzaien euskararen ezagutza, handiagoa edo txikiagoa funtzioen arabera. Honela adierazi zen:

«En los puestos señalados con (\*) se exige dominio oral y escrito de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, graduándose dicho dominio en virtud de la especificidad del puesto. En el resto de los puestos se exige dominio oral».

Hain adierazpen lausoak arazoak sortzen zituen langile berrientzako hautaprobetan; lanpostu batzuetan, ez zegoelako garbi nahitaezkoa ote zen euskara eskatzea; beste lanpostu batzuetan, ez zegoelako irizpiderik euskara-maila ebaluatzeko. Urte batzuen buruan, ETBko sindikatuek (ez beste enpresetakoek) kategoria profesional bakoitzaren hizkuntza-eskakizuna hobeto zehazteko eskatu zioten Zuzendaritzari, sistema berria jasotzen zuen dokumentuan bertan Teresa Elizari Giza Baliabideen Zuzendariak (2000) azaldu bezala. Lau mailako sistema ezarri zen, administrazioan erabiltzen zenaren antzekoa, eta, handik aurrera, ETBk deitutako oposizio guztietan erabili zen.

Gorabehera horien guztien ondorioa da 2000ko hamarkadaren hasieran EiTB osoan langileen % 8k lanposturako espero izatekoa zen hizkuntza-maila baino baxuagoa edukitzea, beste % 5ek euskaraz ez jakitea eta, zehazkiago, Radio Euskadin eta Radio Vitorian euskaraz ez zekitenen kopurua % 40raino heltzea (Larrinaga, 2005b, or. 36). Erabilerari zegokionez, euskara ohiko hizkuntza zen lan-harremanetan EiTB osoan eta, Radio Euskadin eta Radio Vitorian ere, behargin euskaldunek sarri erabiltzen zuten euskara euren lankideekin (ibid.). Alde horretatik, EiTB enpresa eredugarri modura ageri zen aipatu dugun garaian. Horrek ez du kentzen langile euskaldunen artean kezarik ez egotea. Honela agertu zuen bera Hasier Etxeberria (2000, or. 118) idazle eta ETBko kazetariak:

«Alabaina, handik hona, ederki ikasi behar izan dugu zenbait kazetari euskaldunek erdaraz. Ez dut alderantzizkorik ikusi: beti bezala euskaldunoi egokitu zaigu elebidunak izatea eta gainera bi hizkuntzetan artez ibiltzea».

Enpresaren aldetik ere, bazegoen posizio eredugarri horretan atzera ez egiteko kezka eta, 2008-2011ko plan estrategikoan, EiTB Taldearen barruan euskararen erabilera sendotzeko egitasmoa jaso zen. Bestalde, 2008ko urte hartan ETBko Zuzendaritzak eta sindikatuek sinatu zuten lan-hitzarmenean euskalduntze-plan bat lantzea hitzartu zuten. Formazio Batzordeak heldu behar zion eginkizunari, baina 2010eko urrira arte gauzak geldi egon ziren. ETBko euskalduntze-plana osatu zenean, egitasmoari dimentsio handiagoa ematea izan zen erabakitako neurririk garrantzitsuena. 2008ko egitasmo estrategikoarekin bat egin, eta plana EiTB osora zabaldu nahi izan zen, helburu nagusia euskalduntzetik erabilerara aldatuta, hots, euskara-plan bilakatuta.

Beraren ardura har zezan, EiTBko Euskara Batzordea eratu zen, 2011ko urrian, eta, urtebeteren buruan, prest egon zen EiTBren lehenengo euskara-plana. Euskara Batzordeak (2015) bere dokumentazioan jaso bezala, orduko zuzendaritzak ez zuen onartu, eta 2013ko apirilera arte itxaron behar izan zen zuzendaritza berriak plana bere egin, onartu eta indarrean ipini arte. Horixe egitea eskatzen zuen, gainera, urte hartan bertan Euskadiko erakunde eta sozietate publikoetan abiatu zen euskararen normalizaziorako V. plangintzaldia, zeinak EiTB ere biltzen baitzuen lehen aldiz.

EiTBren lehen euskara-planak ildo estrategiko bi zituen, eta bakoitzean hainbat helburu ezarri ziren, guztira hamar. Hauek ziren ildo estrategiko biak:

- «1. Euskal Irrati Telebistak euskaraz funtziona dezake.
  2. Euskal Irrati Telebistak euskaldun irudia zabaltzen du kanpoan».
- (Euskara Batzordea, 2013a)

Hamar helburuetatik, nabarmendu beharrekoa da Euskal Irrati Telebistaren enpresa guztietako lanpostu guztietan ezarri behar zela euskara-eskakizuna, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia-Esparru Bateratuaren arabera definituta. Oinarri modura ETBn erabiltzen zen sistema hartu zen, eta gainerako enpresetara egokitu, kategoria profesionalen eta hizkuntza-eskakizunen taulak lan-hitzarmenetan ofizializatuta uzteko asmoarekin. Zuzendaritzaren eta sindikatuen arteko gatazkak zail egin du lerro hauek idatzi diren unera arte lan-hitzarmenak berriztatzea, baina hizkuntza-eskakizun berriak *de facto* egin ziren ofizial Eusko Irratiaren 2014ko lan-eskaintza publikoan aplikatu zirenean. Langile batzuen aldetik, ezadostasun handia egon zen<sup>22</sup>.

«Pero lo más grave es que nunca en estos años un directivo de EITB ha exigido euskera a los periodistas o técnicos que trabajan en las emisoras en castellano. En las mal llamadas “OPEs” siempre se ha valorado como mérito nunca como requisito para optar a trabajar en una emisora de EITB en castellano». (DespidosRadioEuskadiIrratia, 2014)

Lehen euskara-planaren balantzea egitean, Euskara Batzordeak (2017a) azpimarratu du EiTBko lanpostu guztiek daukatela hizkuntza-eskakizuna esleituta eta, sistema indarrean dagoenetik, EiTBra lan egitera joan diren pertsona berrien % 100ek bete dutela zegokiena. Azpikontratetan ere, kopuru hori % 60ra heldu da. Langile guztiak batera hartuta, EiTBn, euskararen ezagutza handia da. Lanpostuaren araberako eskakizunak alde batera utzita, EiTBko langileen erdiek daukate EGA titulu ofiziala (C1) edo goragokoa (C2). Hala ere, oraindino % 20 ez dira heltzen euren kategoria

---

<sup>22</sup> Argitu beharra dago lan-eskaintza publiko hura lan-erregulazio bati lotuta joan zela, eta plaza atera ez zuten behargin ez-finkoak lan-posturik gabe geratu zirela.

profesionalaren eskakizunera gorago zirriboratu dugun historiaren ondorioz. Hutsunerik handienak ETBko errealizadore, operadore eta ingeniari postuetan eta Radio Euskadiko eta Radio Vitoriako kategoria guztietan daude.

EiTBren bigarren euskara-planaren indarraldia 2017tik 2020ra doa, eta aurrekoaren ereduari jarraitzen dio. Hauek dira ildo estrategikoak:

- «1. Euskal Irrati Telebistak euskaraz funtziona dezake.
  2. Euskal Irrati Telebistako langileak euskara enpresan normalizatzeko prozesuan inplikatzeko dira.
  3. Euskal Irrati Telebistak euskaldun irudia zabaltzen du kanpoan».
- (Euskara Batzordea, 2017a)

Bigarren euskara-planean, garrantzitsu iritzi zaio langileen inplikazioari, ildo estrategiko bihurtzeraino. Erabaki horren atzean euskararen erabileraren kezka dago: «*EiTBren bigarren euskara-planean, helburu garrantzitsu bat da euskararen erabilera suspertzea, bai laneko jarduerak egiteko eta idatziak sortzeko orduan, bai lankideekin erlazionatzeko orduan*» (Euskara Batzordea, 2017b). Erabilera areagotzeko, euskararen normalizazioan 2010eko azken urteetan indartuz doazen pentsaerarekin eta praktikarekin bat eginda, nahitaezkoa iritzi zaio enpresaren barruan hizkuntza-ohitura berriak sustatzeari, eta horretarako Eusle metodologian oinarrituriko dinamika probatu da 2017. urtean. Jarraipen gisa, 2018an, EiTBk Euskaraldiarekin bat egin du: «*Euskaraldiaren hamaika egunetan erabiliko den dinamika, gainera, ezaguna da EiTBn. 'Eusle dinamika' deritzo eta, funtsean, ariketak irauten duen denboran euskara erabiltzeko konpromisoan datza*» (Euskara Batzordea, 2018).

#### **4.2.3. ETBren erreferentzia-esparrua**

Euskal Telebista euskarari lotuta sortu zen eta, euskal gizartearen begietara, beste barik esplikatzen zuen horrek ETBk euskara egitea bere erreferentzien ardatza. Pantailan agertzen zen lurraldea euskararen lurraldea zen —Euskal Herria, alegia—, eta albistegietako eta saioetako gai nagusiak Euskal Herri osoan biltzen ziren. 1980ko eta

1990eko urteetan, ez zen ahotsik ozendu ETBren erreferentzia-esparrua zedarritzeko irizpide horren aurka. Mende-aldaketako urteetan, ordea, tentsioa sortu zen, ETBk pantailaratzen zuen Euskal Herri hark herritar asko kanpoan uzten zituelakoan. 2009an sartu zen zuzendaritzak orientazio-aldaketa ezarri zuen lerro editorialean, hedabidearen erreferentzia-esparrua Euskal Autonomia Erkidegora mugatuta. Hala ere, ETBren ibilbidean inoiz gertatu den orientazio-aldaketarik garrantzitsuena izan zenak ez zuen arazoa konpondu. Irtenbidea 2013. urtean etorri zen, EiTbren estilo-liburuarekin.

ETBren erreferentzia-esparruaz esan behar den lehen gauza da hasieratik Euskal Telebistak alde batera utzi zuela irizpide politiko-administratibo soila bere erreferentzia informatibo eta soziokulturalak bilatzeko orduan. Alde horretatik, Espainiar Estatuko beste telebista autonomiko batzuek bezala jokatu du, Luis A. Albornoz (2002, or. 9) Madriliko Universidad Complutenseko ikertzaileak azaldu duenez:

«Asimismo, verificamos en las coberturas respectivas de las televisiones públicas autonómicas una apuesta por marcos de referencia territorial ajenos a los límites geográficos de cada comunidad autónoma. Las fronteras geográfico-políticas son desbordadas y reformuladas a partir de territorios lingüísticos diferenciados».

Hamarkada bian, irizpide horrek ez zuen ia eztabaidarik eragin, nahiz ETB bera lehenengotatik polemika-iturri izan. Hala, hasierako urteetan, alderdi ez-abertzaleek diskriminazioa, pluralismorik eza eta errealitatea ez islatzea egozten zioten ETBri gaztelaniaren tratamenduagatik, Joan Mari Torrealdai (1993, or. 129–138) EiTbko Administrazio Batzordearen bileren aktetatik jasotako adierazpenen arabera. Adierazpen horietan, hala ere, ez zuen ezerk zalantzan jartzen euskara izatea ETBren erreferentzien ardatza. Urteetan, ETBren sektarismoa eta partidismoa aipatzen zirenean, alderdi politikoei pantailan eskaintzen zitzaizkien denboraren banaketa izaten zen gaitzespenaren eragilea, adibidez, Carlos Urquijo PPko legebiltzarkideak ETBren albistegiei buruzko azterketa bat aurkeztu zuenean bezala (Martín, 1999). Ez bide zuen hein bereko ardura sortzen pantailan islatzen zen mundu-ikuskera partidu abertzaleena izatea. Del Burgo politikari nabarristak, esate baterako, ETB proiektu abertzale bat zela salatuta ere,



EAEko telebista publikoa Nafarroan hedatzea<sup>23</sup> zuen kezka (Parlamento de Navarra, 1985, or. 5–6); ez zioen ezer Nafarroa telebista horren iruditeriaren parte izateaz. Hala ere, luze barik, Del Burgok berak (1992) ekin zion iruditeria horren kontra:

«En su momento yo planteé la constitución de un órgano de cooperación con Euskadi [...]. Eso sí, una cooperación que prescindiera de los actos inamistosos con que nos obsequian a los navarros, al incluir, por ejemplo, nuestro territorio en el mapa del tiempo de ETB o en el de las noticias políticas».

Geroago, Euskal Autonomia Erkidegoan ere, aurkako ahotsak entzun ziren. Ramón Etxezarreta (1999) idazle eta politikariak ondo aritu izana aitortzen zion Euskal Telebistari euskaldunen komunitatea batzeko eta komunitate hori kulturaz janzteko eginkizunean, baina gehiago eskatzen zion: «*herri honen aniztasuna eta anitzaletasuna*» pantailaratzeko inplikatzeko. Etxezarretaren iritzia zen ETBk kanpoan uzten z(it)uela beste komunitate bat(zu)k lurraldetasunaren ideia jakin bati lotzeagatik eta, areago, horrek kalte egiten ziola ETBk euskararen normalizazioan bete behar zuen eginkizunari. Hainbat gizarte-eragilek, ordea, ETB nazio-erakuntzarako tresna izatea defendatzen zuten eta, hortaz, beraren erreferentzia-eremuak Euskal Herri osoa hartzea. Ikuspuntu hori zuten Joxerra Garzia (1999) eta Josu Amezaga (1999) UPV/EHUko Komunikazio eta Publizitate arloko irakasleak.

Debateak debate, Patxi López lehendakariaren agintaldian eraman ziren aurrera EiTbren lerro editoriala aldatu eta komunikazio-taldearen erreferentzia-eremua EAEko errealitate politiko-administratibora egokitzeko lehen ekimenak. Hasteko, informazio politikoaren tratamenduan. Pastorrek (2014) egindako ikerketa baten arabera, Ibarretxe eta López lehendakarien sasoietan, ETBren informazio politikoan, bi ikuspegi eta bi identitate islatu ziren euskal komunitateaz, elkarren aurkakoak zirenak. Ibarretxeren sasoiaren, euskal komunitate hori zazpi herrialdeek osatzen zuten. Lópezen sasoiaren, berriz, Euskal Autonomia Erkidegora mugatu zen eta, horrekin batera, Pastorrek

---

23 Nafarroako Parlamentuan 1984tik 1989ra eztabaidatu zen ETBren Nafarroako hedapenez baina, bilkura-egunkarian irakur daitezkeenez, aurka zeudenen argudio nagusia zen Nafarroak telebista-kanal propio bat izateko eskubidea defendatzea.

hauteman duenagatik, ahalegina egin zen albistegian politikari pisua kentzeko: funts gutxiko informazioak, atzeko blokeetara urrundak, eta EAEn zentratuak.

Edonola ere, Lópezen sasoiko lerro editorialaren elementurik agerikoena eguraldi-mapa izan zen. Ordura arteko mapan, euskararen lurraldea zen erreferentzia, ideologia abertzalearekin bat zetorrena, Ramon Labaien (1992) ETB sortu zen aldian Kultura sailburu zenak baieztatu bezala:

«Nazioen ekintzan, sinboloak ere ingrediente dira. Herriek, bere barne-dinamikan sinboloak osatzen dituzte, ezaugarri bezala, bakoitzak jakin dezan nor den nor... Eta abar. Hortan gabiltza. Eta nola ez, hortan dabil Eusko Telebista. Zenbaitzuen amorroarekin dirudienez, eta dudarik gabe euskaldun gehien txaloarekin. Noiztik da kaltegarria eguraldi programetan Euzkadi osoaren karta azaltzea? Ez al da Donibane-Garazi Bilbo bezain gurea?».

Tonia Etxarri (2009) Vocento taldeari lotutako kazetariak, kontu ideologikotzat barik, kontu identitariotzat jo zuen ETBko eguraldi-mapan erakusten zen geografia, eta autonomia-estatutuak zehaztutako mugak aintzat hartzeko eskatu zion Lopezen legegintzaldian EiTbren ardura hartu behar zuen zuzendaritza berriari. Zuzendaritza hark eskakizuna beteko zuelakoan zeuden PSEk eta PPk sostengaturiko gobernuaren orbita ideologikoko iritzi-emaileak. *El Mundo* egunkarian, honela esplikatu zen:

«El mapa que aparecerá ahora en pantalla refleja la adecuación de los contenidos informativos a la realidad jurídica existente y no a la ambicionada por el nacionalismo, que reivindica un Estado independiente con siete territorios, incluida Navarra y las provincias vasco-francesas». (Ilundáin, 2009)

Euskara arazo identitarioekin uztartuta, Euskal Telebista EAEkoa izatea eta publikoa izatea azpimarratu nahi izan zuten erakundearen arduradun berriek, alegia, ez zela euskaldunen telebista. Horretarako —*El Mundo* egunkariak jasotako adierazpenen arabera—, «(ETB) apostará por llegar a aquellos sectores de la sociedad que hubieran

*podido sentirse excluidos hasta ahora de la cadena pública»* (Rucabado, 2009). Asmo horrek ekarri zuen programazio berrian, gaztelaniazko emisioan zentratu ziren ahaleginak<sup>24</sup>. Mapari dagokionez, azkenean, Nafarroa eta Iparraldea ere jarri ziren, bai eta Kantabria, Errioxa eta inguruko beste erkidego batzuk ere, Euskadirekiko mugak ondo markatuta. EiTbren orduko arduradunen arabera, mapa horren helburua herritarrentzako informazio baliagarria jasotzea baino ez zen, posible zelakoan komunikazio-taldea arazo identitarioetatik bazter uztea. Alberto Surio (2009) EiTbren zuzendari nagusiak berak honela azaldu zuen:

«El mapa pretende primero ser útil, y después, no herir sentimientos y ser respetuoso con el marco legal».

EiTbN, zuzendaritza berri bat sartu zen 2013an, eta Euskal Herri osoa jarri zuen ETBko mapan atzera ere, euskal erkidego bakoitza kolore batez bereiziz, eta gaitzespenak batetik eta bestetik etorri ziren, hots, alderdi konstituzionalistetatik eta ezker abertzaletik, argudio bera erabiliz: mapa hark beste aldearen ikusmolde politikoari erantzuten ziola. *El Correo* egunkarian, honela esplikatu zen:

«Unos reproches que [...] la directora de EiTb despejó asegurando que el criterio que se ha seguido para el nuevo diseño obedece a razones "culturales y lingüísticas" -de ahí la silueta de los siete herrialdes- y también a la "realidad política", en referencia a la inclusión de las fronteras». (Santos, 2013)

Zuzendari nagusiak aipaturiko irizpide kultural eta linguistikoa EiTbren estilo-liburuan jasota dagoena da. Urteetan ETBk bere erreferentziatarako *de facto* erabili duen irizpidea, azkenean, estilo-liburuan idatziz ipini da, honela: «*Euskal Irrati Telebistaren komunikazio-esparrua euskal herritarren eremu kultural, ekonomiko, sozial eta instituzional bera da*» (Martin et al., 2016, or. 158). Estilo-liburuak aurrerago azaltzen du euskal herritarren lurraldea zein den: «*Euskaltzaindiaren 2004ko uztailaren 23ko 139. arauari jarraiki, Euskal Herria izenak euskaraz hitz egiten den herrialdeak biltzen*

---

24 Ahaleginak zelan zuzendu ziren eta zer emaitza izan zuten ilustra dezake Lakunzak (2011) *Aspaldiko* saioaren amaieraz eginiko kronikak.

*ditu: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa (EAE); Nafarroa (NFE); eta Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa (Ipar Euskal Herria)» (ibid., or. 159). EiTbren estilo-liburua kontsentsu askoren emaitza izateak indargabetu bide du erreferentzia-esparruaren gaineko debatea.*

### **4.3. EUSKARAREN ESTATUS-PLANGINTZA ETA ETB PERFORMANTZIA ALDIAN**

Euskal Herriaren XXI. mendearen hasierako egoera soziolinguistikoaz mintzatu garenean (2.4.1. azpiatalean), 1980ko urteetatik hona euskararen ezagutzaren etengabeko emendioa gertatu dela nabarmendu dugu, eta erabileran, ordea, hasierako igoera apal baten ostean, geldialdia dagoela. Horregatik, erabilera ere sustatzeko helburuz, euskararen estatusa sendotzea izan da ardatzetako bat erakunde publikoek mende honen hasieran prestatu dituzten normalizazio-plangintzetan eta euskalgintzako eragileek landu dituzten diskurtsoetan. Lehentasunen artean, hedabideen esparruan lan egin beharra nabarmendu da. Izan ere, hedabideek eragina dute hizkuntza-jarreretan eta, aldi berean, hizkuntza erabiltzeko esparru zabal bat eskaintzen dute, eguneroko bizimodua, aisialdia eta arlo profesionala uztartzeko bezain zabala. EITBk hala egiten zuela erakutsi zuen zerbitzu aldian, eta hala egiten segitu nahi du performantzia aldian.

Mundu globalizatuaren testuinguruan, ordea, komunikazioa esparru oso zaila bilakatu da hizkuntza gutxituentzat. Batetik, ingelesa nagusitu da mundu osorako *lingua franca* modura eta, horrekin batera, normalizazio-prozesuen aurkako jarrerak zabaldu dira. Komunikazio-taldeak gero eta handiagoak dira, gero eta gutxiago, gero eta multimedialagoak —digitalizazioak ahalbidetu dituen konbergentzia-prozesuei esker—, eta erabiltzaile globala hartzen dute aintzat. Bestetik, HGHen arduradunek txikitasunaren bertigoari aurre egiten jakin behar dute<sup>25</sup>, beraien hizkuntzek eta

---

25 EITBren arduradunek ez dute hala egiten jakin une historiko bitan, eta kaltea egin diote euskararen estatusari Komunikazioaren arloan. 2001eko irailaren 11n, New Yorkeko Dorre Bikietan Al-Qaidaren eraso terrorista izan zenean, EITBko Zuzendaritzak uko egin zion EITBlen eguerdiko *Bertatik Bertara* saioa luzatu eta gertakizunen jarraipena egiteari, eta ordu-tarte horretan ohikoa zen dokumentala sartu zuten. 2016ko martxoaren 22an, Bruselan tren-geltokiko eraso jihadistak izan zenean, EITBko

hedabideek mundu globalizatuko komunikazioan tokia izaten jarri dezaten. Erronkak handiak dira, hortaz, euskara normalizatzeko plangintzetarako.

Mende berri honetan, EAEko normalizazio-plangintza publikoak, ordea, ez du islatzen hizkuntza gutxituko hedabideei euren hizkuntzaren estatusa sendotzeko aitortzen zaien garrantzia. ESEPN (Euskararen Aholku Batzordea, 2012), komunikazioaren arlorako proposatzen diren ekintzetatik, lau euskarazko hedabideen finantzazioaz eta alderdi enpresarialez ari dira; bat, EiTBen hizkuntzarekiko betekizunei buruz gogoeta egin beharraz; beste bat, euskara erdarazko hedabideetan ikusgai egiteaz, eta azkena, hedabideetako hizkuntzaren kalitateaz. Euskararekiko jarrerak eta motibazioa hobetzeko ekintzen atalean ere, hedabideekin loturiko proposamen guztiak —hala nola, euskarazko ekitaldien informazioa ematea, edo publizitatea euskaraz eskaintzea— berdin-berdin egin daitezke gaztelaniazko irrati-telebistetan.

EiTB, ordea, jabetuta dago funtsezko betekizuna dagokiola euskara komunikazioaren arloan sendotzeko eta, performantzia aldian, aintzat hartzen du bere plangintza estrategikoan. EiTBren 2013-2016ko plan estrategikoan, adibidez, zortzi helburuetatik, hau da hirugarrena: «*Euskarazko audientzia indartzea, euskararen gizarte-prestigia eta erabilera sendotzeko*». Euskara hedabideetan indartzeko eginkizun hori izango da atal honetako aztergaia. Lehenik, EiTBk euskal ikus-entzunezko industria bultzatzen du baina, kapitulu honetako ikuspegitik, 2000ko eta 2010eko hamarkadetan ahaleginak ingurune digitalera zabaldu direla azpimarratu nahi dugu (ikus 4.3.1.). Bigarrenik, euskararen komunikazio-esparruari eusten jarraitzen du EiTBk. Kanpotik iristen zaigun ikus-entzunezko eskaintzaren aurrean, EiTBk hurbiltasunaren eta lankidetzaren estrategiak urratzen ditu, bertoko eskaintzari balio erantsia emateko (ikus 4.3.2.). Horrez gainera, espezializazioaren strategiaren bidez, egiazko alternatiba bat eskaintzen die euskaraz interes-komunitate jakin batzuei ikus-entzunezko aisialdian (ikus 4.4.3.).

---

Zuzendaritzak uko egin zion ETB1en goizeko *Egun on Euskadi* saioa luzatu eta gertakizunen jarraipena egiteari, eta ordu-tarte horretan ohikoak ziren errepikapenak sartu zituen. Kasu bietan, berehala aktibatu ziren mekanismo guztiak ETB2n gertakizunen jarraipen zabala egiteko zuzenean.

### 4.3.1. Euskadiko ikus-entzunezko industria

Euskal Telebista funtsezko sustatzaile eta euskarri izan da euskal ikus-entzunezko sektorearentzat 1980ko hamarkadatik. Berak antolatu zuen lehen azpiegitura, eta beste azpiegitura batzuen eraketa bultzatu eta finantzatu zuen. Modu berean, talentuaren garapenari lagundu zion, talentua zelakoan euskarak ikus-entzunezkoetan irauteko bermea. 2010eko urteetan, euskarri eta sustatzaile garrantzitsua izaten segitzen du baina, telebistako atzerapausoagatik paralizatuta gelditu barik, eremu zabalagoa hartuta, Internetera eta komunikazio digitaletara ere jauzi egin baitu. Eremu zabalago horretan, EiTbK produktuen ekoizpenean eta zabalkundean jarri du ardura, zeintzuk baitira egungo munduan hizkuntza gutxituek komunikazioaren arloan dituzten erronkei aurre egiteko aipatzen diren gakoak (1.4.3. azpiatalean ikusiak). Edukien ekoizpenarekin eta zabalkundearekin estuki lotuta, IKTen garapenari heldu dio EiTbK performantzia aldi honetan. Aurreko zerbitzu aldian bezala, arretagune garrantzitsua da oraindino ere talentuaren prestakuntza, bai ikus-entzunezko industrian pentsatuta, bai industriatik kanpo euskal ikus-entzunezkoei euren ekarpena egiten dieten eragileengan pentsatuta.

Egun, ikus-entzunezkoen produkzioan norbanakoen ekimena gero eta garrantzitsuagoa den honetan, EiTbK (2011, or. 54) gizartearen aurrean duen erantzukizunaren partetzat jotzen du talentu hori sustatzen laguntzea. Horretara zuzendutako ekintzarik esanguratsuenetako bat 2009an abiarazi zuen EIKEN klusterrarekin batera: Gidoi Faktoria. Helburua zen telebistarako gidoilarien harrobi bat prestatzea, euskal industrian pentsatuta. Hiru edizio izan zituen eta, 2012an, ikuspegi zabalagoa eman zitzaion, esku artean proiektu interesgarriak zituzten bertako talentu gazteak erakarriz eta berariazko prestakuntza eskainiz, profesionalen tutoretzaren bidez eta ikastaro espezializatuen bidez (EiTb, 2013a, or. 48). EIKENek eta EiTbK talentuaren alorrean aurrera daramaten elkarlan horrek eboluzionatuz jarraitu du eta, 2015ean, EIKEN Talent eta Next Station programak abiarazi dituzte, ikus-entzunezko proiektu original bat eduki bai baina edukien sektoreko enpresaren batean ari ez diren gazte sortzaileei zuzenduak (EiTb, 2017b, or. 72). Programa horien emaitzetako bat da *Puntu koma*, 4K teknologia erabiliz euskaraz eginiko lehen telesaila, Interneten eskainiko dena (Vélez, 2018).

Modu berean, ikus-entzunezkoen produkzioan talentu berriak eta ekoizpen-sistema berriak sustatzeko asmoz, EITBk SmartBerri lehiaketaren lehen deialdia egin du 2017an (Gandul, 2017). SmartBerri oso-osorik telefono adimenduz sortu eta ekoizteriko erreportajeen lehiaketa bat da, Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Mondragon Unibertsitatearekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Nafarroako Unibertsitatearekin lankidetzan antolatua. Diruzko sariaz gainera, erreportaje irabazleari EITBren plataformetan emango zaio zabalkundea.

Talentu lokala prestatzearekin batera, ETBk ekoizpen lokala sustatzea lehenetsi du. Horrela eginez, produktu lehiakorrak sortzeaz gainera, gizartera itzultzen dira eskuratzen dituen finantza-baliabideak. Honela esplikatu zuen Pello Sarasola (2013, or. 7) ETBren zuzendari izendatu berriak:

«Zinemaz eta kirolaz ari naiz. Horien nazioarteko eskubideetan gutxiago gastatu behar da, eta gehiago barne-produkzioan. EITBk diru-laguntza bidez 100 euro jasotzen baldin baditu, 100 euro horiek baino gehiago inbertitu ditzake herri honetan [...] publizitatearekin jasotakoaren zati bat gehitzen zaiolako. Eta horiek %100 hemen geratzeko barne-produkzioa da aukera».

Kirolaren, zinemaren eta ikuskizun handien eskubideetan gastatzen denean, euskal ekonomiak ez du onurarik hartzen, baina ezta euskarazko ikus-entzunezko eskaintzak ere. Horren adibide bat ikusi dugu Canal Plusen euskaraz azpidatzitako film eta serieez aritu garenean (4.1.2. azpiatalean), eta antzeko arazoa gertatzen da euskaraz bikoizten diren filmen banaketa-zirkuituarekin. Zirkuituak gero eta kate-begi gutxiago ditu eta, dagoeneko, nekez heltzen dira gai interesgarriko film bikoiztuak ikastetxeetara, duela urte batzuk Belokik (2008, or. 152) lehentasuntzat jo zuen arren.

Halako zailtasunen atzean, ez dago eskubideen prezioa bakarrik; eskubideen kudeaketaren konplexutasunak ere asko zailtzen ditu programen banaketa eta zabalkundea. Horregatik, Erresuma Batuko telebista publikoak 2000ko hamarkadan bere ikus-entzunezko edukiak Interneten libreki partekatzeko abiarazi zuen ekimena bertan behera utzi zuen urte gutxira (BBC, 2014). Euskararen Aholku Batzordeak (2012,

or. 77, 2016b, or. 74) ekimen hura izan du eredu modura euskarazko edukiak Interneten bidez libre eta eskuragarri jartzeko gomendioa egin duenean, baina EiTbK aspaldi saiatu eta baztertu zuen, eskubideen arazoagatik ez ezik, baita edukiak bilatzaileetan ondo kokatuta eta eskuragai edukitzeko egin behar diren etengabeko jarraipen eta egokitzapenengatik ere.

Azken urteetan, eskubideen kudeaketak korapilatzen dituen jardunbideak eta/edo norbere edukien eskuragaitasuna zailtzen duten bitartekoak baztertu, eta EiTbK (2010, or. 29) beste bide batetik zuzendu du bere estrategia: euskal ikus-entzunezko sektorean *broadcaster* rola betetzea. Horrek esan nahi du EiTbK edukiak sortzea sustatu eta eduki horien zabalkundea egiten duela. Informazioaren lanketaren salbuespenarekin, EiTbren eduki-ekoizpena euskal ikus-entzunezko sektorearekiko elkarlanean datza, bai irratirako eta telebistarako, bai hedabide berrietarako (*new medietarako*). Estrategiaren bigarren adarra eduki horiek kontsumitzaileei eskueran jartzea da, estrategia krosmediei eta transmediei jarraituz. Horretarako, EiTbK bere plataforma propioak ditu: irratia, telebista eta ingurune digitala —webguneak, EiTb Nahieran eta gailu adimendunetarako *appak* (beherago aipatuko ditugunak)—.

Zabalkunde-eginkizun horren barruan, eta bere gizarte-erantzukizunarekin lotuta, EiTbK (2013a, or. 23–28) hainbat esperientzia abiarazi ditu 2010eko urteetan Euskadin ekoiztako ikus-entzunezkoei nazioarteko ikusgaitasuna emateko. Produkzio horiei bere Interneteko, sateliteko eta kableko kanalak eskaintzeaz gainera, beste hainbat aukera ematen die Euskal Herriko mugez harago egin dezaten euren bidea. Helburu horren ildotik, lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuen Etxepare Institutuarekin 2010ean. Ildo beretik, Europako zein Amerikako zinema-jaialdirik garrantzitsuenetara eramaten ditu EPE/APV eta IBAIA produktore-elkarteekin sinaturiko hitzarmenaren bitartez ekoiztako filmak. 2018an, Zineuskadi elkartearen bazkide gisa, stand bat jarri du Cannesko zinemaldiko merkatuan azken euskal produkzioentzat (Zorita, 2018).

Aipagarria da, era berean, ETBren bi zinema-produkzio, *Handia* eta *Errementari*, Netflix plataforma bidez banatu direla mundu osoan, euskaraz eta beste hizkuntza batzuetan (Urkizu, 2018b). Nolanahi ere den, euskarazko produktuen kontsumitzaileei askotan entzun dakieke Mejutoren (2018) salaketa bera: ikus-entzunezko plataforma



multinazionalek ez dutela ezer egiten euskarazko eskaintza bat osatzeko. Film bakanen bat gorabehera, euskarak ez du sarbiderik halako plataformetan, eta ez dirudi konponbidea hizkuntza-eskubideen erreibindikaziotik etorriko denik.

EiTBk euskal ikus-entzunezko sektorean bete duen bultzatzaile-lanaren deskribapena amaitzeko, esan behar da garapen teknologikoa helburu nagusietako bat izan dela EiTBren plan estrategiko guztietan 2008tik aurrera. Lehenago ere, EiTB jakitun zegoen aro digitalean ikus-entzunezko edukien diseinuan, garapenean eta kontsumoan IKTak nahitaezko baliabidea zirela eta erronka horri heldu behar ziola (Euskal Irrati Telebista, 2005a, or. 29–31). Ikus-entzunezkoen sektorea, beraz, osatu beharra zegoen, edukien sorkuntza eta ekoizpenaren arloko industriara mugatu barik. Hortik etorri zen, bestek beste, EiTB Vicomtech teknologia-zentroaren sorreran bultzatzaile eta bazkideetako bat izatea 2001ean. Vicomtechek EiTBrentzat interesgarri diren hainbat proiektu eraman ditu aurrera, esate baterako, euskararako eta beste hizkuntza batzuetarako baliagarri izan daitekeen azpidazketa-sistema automatiko baten garapena (Del Pozo, 2008).

Azken urteetan, EiTBk telefono mugikorrerako eta telebista adimendunerako aplikazioen garapena bultzatu du, euskarazko ikus-entzunezkoak eskuragarri egiteko kontsumo-modu berrietan. Lehenasuna haur eta gazteen arloan jarri du, eta horren emaitza dira Hiru3, Gaztea eta Go!azen appak, Akting ingeniari-taldea enpresarekin batera garatuak (EiTB, 2017b, or. 24). EiTBk Tokikomekin duen lankidetzaren markoan, Hiru3 aplikazioaren teknologia Goiena komunikazio-taldearen esku jarri da, beraren nahierako aplikazioa gara zezan (Goiena, 2018). EiTBk garapen teknologikoan egiten duen ahaleginak, beraz, sektore osoari ematen dio bultzada. Beste adibide bat da bereizmen handiaren implementazioa. EiTBk jauzi hori egin duenean, nahitaezko egin da ekoizpen-kate osoa sistema berrira migratzea (Eusko Jaurlaritza & EiTB, 2016, or. 32).

#### **4.3.2. ETB eta euskararen komunikazio-esparrua**

XXI. mendearen hasieran, komunikazioaren merkatuan ingelesez eta mundu osorako ekoizten duten enpresak nagusi direla, funtsezkoa da euskararen komunikazio-esparrua iraunaraztea eta sendotzea. Horretarako egin diren proposamen batzuk finantzazio

publikoa gehitzean dautza, baina krisialdi ekonomikoak gastu neurtuaren kultura ekarri du eta, oraingoz, behintzat, bide hori itxita dago. EiTBk beste estrategia bi urratu ditu: hurbiltasuna eta lankidetzak. Performantzia aldiaren, kanpotik datorren eskaintzaren aurrean, hurbiltasunak eta lankidetzak balio erantsia eman diezaiokete bertan sortzen den eskaintzari.

HGHei mundu globalizatuan azaldu zaizkien konplexutasunez aritu garenean ikusi bezala (1.4.2.2. puntuan), baliabide digitalek audientziaren konfigurazio berria ekarri dute. Kontsumitzaileak sakabanatuago daude geografikoki, eta zatikatuago zaletasunengatik, adinagatik, bizimoduagatik eta beste ezaugarri batzuegatik. Euskalgintzako ahots batzuen iritziz, ETB ezin daiteke izan audientzia zatikatu horren premiei erantzuteko modu bakarra eta, beraz, euskarazko telebista-kanal gehiago erreibindikatzeko dituzte. Jon Sarasua (2013, or. 93) Mondragon Unibertsitateko irakaslea «*eredu monista*» gainditu beharraz mintzo da:

«Euskarazko telebista esparruaren matrizea bera birpentsatu behar dugu: eredu monista batetik eredu konbinatu batera pasatzeko abagunea dator. Hori baliabide publikoak gehitu eta modu konbinatuan banatzetik hasten da. Horretarako arrazoirik sakonena euskal hiztun komunitatearen ehun-egiturari erantzutea izan liteke. Baina bada xumeago azaldu litekeen arrazoi bat: eredu monistak jadanik ez du irtenbide onik gure kasuan. ETB bost aukeratik bat zenean, inbertsio handia eginda audientzia txukun xamarrak lor zitezkeen. Gaur egun dozenaka aukerako menu zabal batean euskarazko ikusle potentzial fragmentatua ukitzeko beste bide batzuk behar dira, arazoa ez da kate baten programazioan asmatzea bakarrik».

Finantzazio publikoa gehitzea eta beste barik hainbat hedabideren artean banatzea ez dator bat ESEPk zehaztu dituen irizpideekin (4.1.2. azpiatalean aipatu ditugunak). Edozelan ere, egun, baliabide publikoak modu eraginkorrean kudeatzeko kezka piztu zuen krisialdiaren ostean, badirudi euskarazko komunikazioan estrategiarik onena ez

dela kanal-ugaritasunean oinarrituriko telebista-eskaintza profesionala<sup>26</sup>. ETBk, behinik behin, gorago esan dugunez, beste estrategia bi urratu ditu, hurbiltasuna eta lankidetzaren. Biek ematen diote balio erantsia euskarazko komunikazio-eskaintzari.

Hurbiltasuna EiTbren aktibo nagusietako bat izatea nahi da lehen programa-kontratutik (Eusko Jaurlaritza & EiTb, 2002, or. 5) eta, horretarako, parte-hartzea eta elkarriketa soziala sustatzea eskatzen zaio komunikazio-taldeari. EiTbren egoitza nagusia Bilbora aldatu osteko plan estrategikoan (EiTb, 2007), berriro ere, ideia nagusietako bat da hurbiltasuna, presente egotea, herritarrei irispidea eta arreta eskaintzea, lurraldean zabaldua egotea. Hain zuzen, horixe izan zen egoitzaren lekualdaketarako erabili zen diskurtsoa, aro digitalak ezartzen zituen baldintza teknologikoetara egokitu beharraz gainera. Hari horretatik, Ascorbebeitiak (2013) honelako azalpenak bildu ditu: EAEko informazio gehiena Bilbon sortzen dela, egoitza berria gonbidatuentzat iristen errazagoa dela, eta erdigune mediatikoan dagoela (produkzio-guneen eta beste hedabide batzuen ondoan). Euskararen komunikazio-esparruaren ikuspegitik, gainera, agerian geratu da Bilbon eta Bilbo Handian nahi beste aukera dagoela informazioa euskaraz lantzeko, Durangaldera edo beste eskualde landatarrago batera jo beharrik gabe.

EiTbren egoitza nagusia lekualdatzeak Bilbon ipini du euskarazko komunikazioaren epizentroa eta, EiTbrentzat, gastu txikiagoarekin gehiago eta komunitatean errotuagoa egiteko aukera izan da. Baliabideak modu eraginkorrean kudeatzeko eta produktuak kontsumitzaileen nahi eta gustuetara egokitzeko beste aukera bat lankidetzaren da. EiTb euskararen komunikazio-esparruan bilatu duen lankidetzaren *new medietan* gauzatu da bereziki, agerian jarritz oso arlo dinamikoa direla —non irudimena finantzazioari gailen baitakioke etekinetan—, eta indar handia dutela euskararen komunikazio-esparruko eragileak elkarretartzeko.

Euskarazko komunikabide publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren ESEPN (Euskararen Aholku Batzordea, 2012, or. 74) proposatu zen lehen aldiz eta, asmo horrekin bat

---

26 LTDaren inplementazioaren ostean, euskarazko telebista lokalek —eskualdeko gehienez ere bat bakarra dagoen arren— kate-eredura eta behin eta berriroko berremanaldietara jotzea beste irtenbiderik ez dute. Alegia, nekez iristen dira denen artean parrilla bat osatzera. Beharbada, Goierna Telebista izango da bere kabuz gutxieneko programazio bat taxutzea lortzen duen bakarra.

eginez, EiTBren 2013-2016ko plan estrategikoak euskarazko komunikabideekin lankidetzaren egitasmoak aurrera eramateko proiektua jaso zuen. Lehen urratsak 2013an eta 2014an egin ziren, EiTBk eta Tokikomerek solaskideak eta informazioak trukatzeko hitzarmena sinatuta (Komunikazio Saila, 2014). Hitzarmen berorren barruan, aurreko azpiatalean aipatu dugunez, EiTBk Goiena komunikazio-taldearen esku jarri du Hiru3 aplikaziorako garatu duen teknologia, Debagoienekoek euren nahierako zerbitzua eskain dezaten.

EiTBk bestelako lankidetzaren modu batzuk ere esploratu ditu. 2009tik, deialdia zabaltzen ziren euskal blogariei Bilboko egoitzan elkar zitezten hauteskunde-gauaren jarraipena egitera eta euren postak eta txioak bertatik sareratzera. 2012ko udal-hauteskundeetan, dei berezia egin zitzairen blogari euskaldunei (Sustatu, 2012). Lankidetzaren modu berri bat da, era berean, 2015etik euskararen komunikazio-esparru ia osoa Korrikaren inguruan biltzen duena. Urte hartako edizioan, 19.ean, egunez eguneko jarraipena egin zuten besteak beste, ETBk, Kanaldudek, Argiak, Berriak, Goienak eta Hamaikak ekipo bakar batek prestatzen zituen albiste, argazki, zuzeneko *streaming* eta infografien bidez (EiTB, 2017b, or. 37). Elkarlaneko jarraipen horrek Internet eta hedabide berriak izan zituen batik bat iturri modura, eta beraren arrakastaren berri ematen duen datua da 150.000 erabiltzaile izan zituela eitb.eus-en. 2017ko edizioan, berriro errepikatu da esperientzia.

#### **4.3.3. Orotariko eskaintza bakarretik espezializaziora**

Aro digitalak ekarri duen ikus-entzunezko eskaintza ugari eta zabalaren testuinguruan, zaharkituta geratu dira lehenagoko programazio-ereduak, esate baterako, familia osoari zuzentzea. Euskararen Aholku Batzordeak (1998, or. 62) halako proposamena egin zuen urte batzuk lehenago, euskarak errazago egingo zuelakoan bere tokia Euskal Herriko etxeen telebista-kontsumoan. Egun, komunikazio-enpresek ez dute helburu modura etxe guztietara eta pertsona guztiengana heltzea. Audentzia-datuak erlatibizatu, eta hedabide batzuek espezializaziora jo dute gizartean duten irismena sendotzeko estrategia gisa.

EiTBk 2008-2011ko plan estrategikoan jaso zuen lehen aldiz interes-komunitateak aintzat hartzea, batik bat, haurrena eta gazteena. Funtsean, asmoa zen orotariko

programazioa baztertu barik berariazko programazioa prestatzea haurrentzat eta gazteentzat, euskaraz, eta ikuspegi multimediarekin, alegia, EiTbren hedabide ezberdinak bateratuz. Euskararen normalizaziotik begiratuta, EiTbren erabiltzaileei arreta ezberdina eskaintzeak bat egiten du Euskadiko hizkuntza-politika publikoak mende berrirako ezarri duen elebitasun asimetrikoaren ideiarekin. Zentzu horretan, Zupiriak (2008, or. 330) dio egun publiko guztiei zuzendutako produktuek ez dutela funtzionatzen eta, baliabide mugatuekin merkatu osora eta talde guztietara iritsi ezinda, haur eta gazteentzako eskaintzan ipini behar direla ahaleginik handienak, beraiengan baitago euskararen biziraupenaren giltzarria.

Ohartarazi behar da, edozelan ere, ume-programazioak tarte zabala izan duela lehenengo momentutik ETBren euskarazko emanaldietan. Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoek, esate baterako, hogeitun urtetik gora egin zituzten euren saioekin: *Don Don Kikilikon*, *Barre Busa*, *Alzaporru* eta *Trikitraka Trikitron*. 2000ko urteen hasieran, *Betizu* kutxa-programak haurren parte-hartzean oinarrituta zeuden saioak ekarri zituen, besteak beste, *Euskaraokea*, *Betizuzenean*, *Betishowa* eta *Betizu Arena*. Haur eta nerabeentzako magazinak eta programa hezigarriak ere ez dira falta izan, adibidez, *Ikusgela*, *KTM* eta *Beakmanen mundua*.

Gazteentzako programazioan, kanpo-produkzioko serieak izaten ziren edukirik ohikoenak, hala nola, *Lehenengo musuak*, *Parker Lewisek ez du sekula galtzen*, *Bosteko familia* eta, geroago, *Madison*, *Powder park*, *Sheena* edo *Dr. Who*. Umeentzat, telesail bakan batzuk baino ez ziren bikoiztu; aipagarriena, *Pippi Galtzaluze*. Gazteentzat, berriz, gutxiago izaten ziren barne-produkzioko saioak. Zupiriaren (2008, or. 334–335) arabera, 15-24 urte artekoetan, telebistaren kontsumoa beste adin batzuetan baino baxuagoa da, eta gustuak, nahiko zehatzak: lehen mailako kirola, *realityak*, eta fikzioa —umorea—. Hala, bera zuzendari zen garaian, futboleko eta saskibaloiko emanaldiak, *Basetxea* eta *Bost txakur realityak* eta *Wazemank* umorezko saioa izaten ziren ETB1en gazteen gogokoenak.

Espezializatzeko eta interes-komunitateak aintzat hartzeko saiakerak ere ez dira 2008ko plan estrategikoaren ostekoak. Umeen arloan, fidelizazio-klubak izan ziren aitzindariak. Lehen kluba *Superbat* kutxa-programari lotuta jaio zen, 1993an, Kataluniako

telebistaren *Super3* klubaren ideia eta kontzeptua inportatuta (Erasun, 1995). Lekukoa *Betizu* kutxa-programak hartu zuen 2000. urtean eta, berarekin batera, Betizu Kluba jaio zen, 70.000 bazkide baino gehiago izatera heldu zena (Zupiria, 2008, or. 339). ETBren lehen kanal tematikoa Betizu klubari lotuta egon zen: Betizu kanala, 2002an sortua Euskaltelen kable bidezko telebista-plataforman. Programazioa marrazki bizidunetz osatuta zegoen, eta 2011an ETB3 eraberrituak ordezkatu arte iraun zuen.

Telebistako programaziotik harago, Betizu klubak hainbat euskarri antolatu zituen, neska-mutilen artean irismena handitzeko ahaleginez.

- a) Urteroko jaia egiten hasi zen 2002an.
- b) 2005. urtean, "Karramarro" aldizkaria banatzen hasi zen, hiru hilean behin, edizio birekin: bata, 4-7 urtekoentzat, eta bestea 8-14 urtekoentzat.
- c) Interneten, betizu.com webgunea ireki zuen 2006an, euskara hutsez, haurrentzako edukiekin.
- d) Urteetan zehar, Betizuk hainbat produktu merkaturatu zituen bere logoarekin, esaterako, musika CDak, DVDak eta ipuin-liburuak.

*Betizu* saioa 2011n amaitu zen, eta klubaren lekukoa Hiru3 Komunitateak hartu zuen (Hiru3 Komunitatea, 2011). Komunitate berriak hurrekin konektatzeko baliabideak antolatzen segitu du —azkena eta aipagarriena, Hiru3 appa— baina, osterantzean, Betizu Klubak urraturiko bide berdinetik jarraitu du.

2008ko interes-komunitateen estrategiak, ordea, bazuen berrikuntza bat, programazio berezia eta beraren inguruko osagarriak prestatzea baino harago zihoana: ikuspegi multimedia, alegia, plataforma guztietan aritzea. Telebistan, irratian zein Interneten, komunitate bientzako kanalak sortzea zen EiTbren proiektua, 2007-2010 aldirako Eusko Jaurlaritzarekin sinatu zuen programa-kontratuan hartutako konpromisoa gauzatzera zetorrena. Telebistan, 30 urtetik beherakoentzako edukiz hornitu behar zuen kanal berria —ETB3—, euskara hutsez. Irratian, gazteentzako irrati-formula musikal bat ekoitzi behar zuen —Gaztea— eta, Interneten, kanal bat ekoitzi behar zuen haurrentzat, euskaraz, eta beste bat gazteentzat, euskaraz nagusiki.

EiTbn, ahalegin gehiago egon dira interes-komunitateei kanal tematikoak eskaintzeko, baina ez dute irautea lortu, eta ez dute hain konpromiso garbia izan euskararen

normalizazioarekin. 2008ko plan estrategikoan, umeekin eta gazteekin batera, gastronomia izan zen hirugarren arretagunea. Kanal bi eratu ziren —bata euskaraz, bestea gaztelaniaz— EiTbren Interneteko atarian, baina ez zuten luzaro jarraitu.

2011. urtean, kirolari lotutako ekimen bat egon zen. Asmoa zen 2009an aineraturiko ETB4 kanal elebiduna ETBK/Sat bihurtzea eta egunean hamasei orduz kirola eskaintzea, nagusiki euskaraz. Momentu hartan, ETBk kirol-eskaintza zabala eta kalitatekoa zuen: Espainiako Futbol Liga eta ACB saskibaloiliga, Europako Txapeldunen Liga, pilota, arrauna, boxeo, herri-kirolak eta txirrindularitza. Eta eskaintza horrek audientzia-datu onak ematen zituen. EiTbk (2006, or. 51–52) bere memorian jaso bezala, kirol-programazioaren *shareak* bikoiztu egiten zuen ETB1en batez besteko *sharea* 2000ko lehen urteetan, eta hori futbolaren audientzian 10 puntuko beherakada gertatu ondoren ordainpeko telebistengatik. Audientzia on hark esan nahi du kirol-emanaldiek euskaldun ez zirenak ere erakartzen zituztela euskarara. Urte batzuk geroago, baina, ordainpeko telebistek kirolaren emisio-eskubideengatik piztutako lehiak kirol-kanal tematikoa ezinezko bihurtu zuen, eta ETB4 izatera itzuli zen 2014an.

Gazteentzako ahaleginak ere gorabeherak izan ditu, batez ere telebistan. ETB3n, 2008an kanal tematiko modura sortu zenean, eskaintzak ordutegiaren arabera banatzen ziren: egunez, haurrentzako saioak, eta iluntzetik aurrera, gazteentzako programazioa. Bigarren ordu-tarte horretan, formatu berritzaileko saioak eskaintzen ziren, hala nola, *Martina*, *Nick dut Nik* eta *Burp*. 2010-2011 kurtsoan, beste telebista batzuen estrategiari jarraituta, Euskal Telebistak ETB3ra eraman zuen haurrentzako programazio osoa, eta gazteentzako saioak kentzen joan zen. Pavón eta Zuberogoiak (2011, or. 46) aipatzen duten arrazoia da 14-25eko adin-tartea ez dela errentagarria telebista batentzat. Handik aurrera, ETB3ren eskaintza, nagusiki, marrazki bizidunek osatzen dute, baina badira bestelako osagaiak ere —2016tik *3txulo* izen generikoa daramatenak—, adibidez, erreportajeak, lehiaketak, irudi errealeko pertsonaien abenturak eta eskulanak.

Gazteentzako saioak telebistatik desagertuta, 2012tik, EiTbren gazte-eskaintza irratira eta Internetera mugatu zen, Gaztea markaren pean. Gizarte-erantzukizuneko memorietan jasotzen denez, EiTbrentzat, konpromiso bat da gazteen aisialdian presente egotea euskarazko eskaintza batekin. Hala, telebistako programaziorik gabe ere, hainbat

ekimen eraman ditu aurrera azken urteetan musika, gau-giroa eta IKTak uztartuz, esaterako baterako, "Gaztea Dantzan" bideoklip-lehiaketa, "Behobia Gaztea" 14-18 urtekoentzako ibilbidea Donostia-Behobia lasterketan, "Disco Festa" DJ saio ibiltaria, Maketa Lehiaketa edo beldurrezko film laburren lehiaketa. Ekimen horietako askok Interneteko plataformak<sup>27</sup> elikatzen dituzte, parte-hartzaileek eurek sortzen dituzten euskarazko edukiekin.

2013an hasi zen zuzendaritzak berriz heldu zion gazteentzako programazioari ETB1en, eskaintza osatzeko umorea —*Zuek hor eta gu hemen*— eta telerealitatea —*Gu ta Gutarrak*— hautatuz (Lakunza, 2014). Aurrerago, *Go!azen* nerabeentzako telesailaren denboraldi berria grabatzeari ekin zion. *Gu ta Gutarrak* programa, lehenengo unetik, ikus-entzunezkoen kontsumitzaile berrien ohiturek markatu zuten. *Reality show* baten formatua hartuta, ikusleak eurak bihurtu ziren saioko partaide eta protagonista. Komunikazio-kanalak ireki ziren EiTBreren webgunean, Youtuben eta sare sozial nagusietan. Gaztea irratiko hainbat saio edukiz eta solaskidez hornitu ziren estrategia transmedia baten bidez. Oroz gain, azpimarratu nahi dugu ETBn lehen aldiz jatorri soziolinguistiko oso ezberdinetako hiztunak biltzen zirela saioan, bakoitza bere nortasunarekin eta bere bizipenekin, eta testuinguru horretan oso urrats serioa egin zela egun —HGHetan diren joerak deskribatu ditugunean esan bezala— gazteentzako saioetan nabari den praktika heteroglosikoaren bidean. 2017ko udazkenean beraren lekua hartu duen *Gure kasa* saioak bide beretik jarraitzen du.

Horrenbestez, EiTBrerentzat, gorago (4.2.2.2. puntuan) genioenaren haritik, orotariko programazioaren ondoz ondo interes-komunitateentzako eskaintza multimedia prestatzeko ideiak atarramendu ona izan du beraren irismena handitzeko estrategia gisa. Historia dira ume euskaldunek ETBren lehen kanaletik begirada kentzen ez zuteneko sasoiak —Erasunek (1995) bezala adierazita— baina, 2010eko hamarkadaren bigarren erdialdean, oraindino ere, ETB erreferentzia garrantzitsua da haur eta nerabe euskaldunentzat, Urkizuk (2018a) *Go!azen* seriearen 4. denboraldiko audientzia-datuez eginiko azterketatik ondoriozta daitekeenez.

---

27 Nagusiki, EiTBreren webguneko Gaztea kanala, EiTBr Nahieran, EiTBreren Youtubeko kanala eta sare sozialak.



Gazteen artean ere, audientzia absolutuetan datu ikusgarririk lortu ez arren, *Gu ta Gutarrak* saioak % 15etik gorako pantaila-kuota lortzen zuen EAEn bere xede-taldean, 14-25 urtekoen artean. Datu garrantzitsua da, baina egiatan garrantzitsua programaren inpaktua izan zen. *Gu ta Gutarrak* saioa, besteak beste, nerabe eta gazte askoren aisialdiko solasgai eta interesgune bihurtu zen, eta parte hartzera erakarri zituen telebistan interesik ez zuten profilak, esate baterako, 19-20 urteko mutilak (Akuilua, 2015). Sare sozialetan, oihartzun handia izan zuen, eta Gaztea irratia edukiz eta partaidez hornitu zuen. *Gure kasa* saioak, bere aurrekoaren estiloari eta ereduari eutsita, audientziaren igoera ekarri du, datu absolutuetan zein xede-taldean.

Halako emaitzen aurrean, hizkuntzaren normalizazioaren ikuspegitik nabarmendu daitekeena da espezializazioaren estrategiari esker euskarak sendoki eusten diola bere estatusari EAEko haur eta nerabeen ikus-entzunezko entretenimenduan. Ez da gauza bera lortu kirol-emankizunen kasuan emisio-eskubideen auziagatik. Tamalgarria da horren ondorioz euskara euskal esparru tradizionalarekin identifikatzea eragin dezakeela pilotaz, arraunaz eta herri-kirolez osatutako ETBren egungo kirol-eskaintzak. Tamalgarria da, era berean, espezializazioaren eta kanal tematikoen estrategia esandako hiru esparruetan —haurrak, gazteak eta kirola— besterik ez dela saiatu. Aukera garbi bat euskal gizartean erroturiko fikzioa zen, baina azken urteetako ekoizpena hain izan da urria —produktiorik aipagarrienak, *Eskamak kentzen* telesaila, eta *Loreak*, *Handia* eta *Errementari* filmak—, ezen ETB1eko *prime timean* tarte finko bat betetzeko ere ez baitu ematen. Dena dela, badirudi EiTbK ildo berri bat esploratu nahi duela fikzioaren ekoizpenean, webserieena, Interneten kanal tematiko bat sortzea ekar dezakeena. Oraingoz, 2018an, bi ekoitzi dira: *Puntu koma* eta *Gutuberrak*.

#### **4.4. EAEko HIZKUNTZA-POLITIKA ETA ETB PERFORMANTZIA ALDIAN**

Euskal Autonomia Erkidegoan, XX. mendeko normalizazio-plangintzak nahiko zabaldu zuen gizartean euskararen ezagutza, baina ez horrenbeste erabilera eta, horren aurrean, beharrezkotzat jo zen XXI. menderako berriazko hizkuntza-politika bat zehaztea. Ikusi dugunez (2.4.2.1. puntuan), 2007an, EAEko aginte publikoek Euskara 21 deritzon gogoeta-prozesua abiarazi zuten, eta handik atera zen ondorioa izan zen lortzeko

modukoa zela gizarte elebidunaren helburua, baldin eta asimetria geografiko eta funtzionala onartzen bazen. Egoerarik ahulenean zegoena euskara izanda, zilegi irizten zitzaion aginte publikoek euskara sustatzeko ahalegina egiteari. Ahalegin horretan, estrategia egokitzen zen lurralde bakoitzean eta erabilera-eremu bakoitzean asimetrikoki jokatzeko eta berariazko planak inplementatzea. Hitzunen gaitasunean ere, egokitzen ematen zen asimetria. Euskara 21 prozesuan, euskaldun izatea zer zen birpentsatu zen eta, lehenagoko bereizketak alde batera utzirik, irizpide berri bat ateratu zen, zeinaren arabera euskarara hurbiltzen ziren guztiak baitziren euskaldunak, hurbiltze horretan ezagutza-maila pasiboraino bakarrik iritsita ere.

Atal honetan, asimetrian oinarrituriko politika horrek EiTbren hizkuntza-hautuetan zer isla izan zuen aztertuko dugu eta, horretarako, gainbegiratu bat emango diegu Jonesek (2013b) HGHen hizkuntza-praktiken gaineko debateetan identifikatu dituen gaiei. Gai horietatik, hiruk izan dute berariazko arreta EiTbren plangintza estrategikoan azken hamarkada eta erdian: gizarteko elebitasunaren kudeaketa, EiTbren hedabideetarako hizkuntza-eredua, eta EiTbn erabiltzen den euskararen kalitatea zaindu beharra.

Performantzia aldiaren, asimetriaren politikarekin bat eginda, EiTbk hizkuntzen eta kanalen banan-banako erlazioa gaiztoatu nahi izan du, eta euskara kanal guztietan bultzatu, baita gaztelaniazkoetan ere. Horretarako ekimenik garrantzitsuenetako bat informazioetako protagonisten adierazpenen hizkuntza-tratamenduekin lotuta dago (ikus 4.4.1.). EiTbn erabili beharreko hizkuntza-ereduan ere, eboluzio handi bat gertatu da. Zerbitzu aldiaren, euskara batua egin zen orotarako eredua EiTbren euskarazko hedabideetan. Performantzia aldiaren, lehenik, aditu, herritar eta gainerako gonbidatuei euren hautuko euskararen mintzatzeko eskubidea aitortu zitzaizkien eta, aurrerago, EiTbko komunikatzaileei ere beste euskara-mota batzuk erabiltzeko aukera ireki zaie, programa eta tarte jakinetan (ikus 4.4.2.). Hizkuntza-kalitatea zaintzeko politikan, bestalde, aldaketak nabarmenak dira. Lehen aldaketa da egokitzen joan dela hizkuntza-gaitasun apaleko hitzunek ere parte hartzea EiTbren euskarazko kanaletan. Bigarrena da azken programa-kontratuaren bitartez Jaurilaritzak euskaldun berriak aintzat hartzeko eta beraienezko moduko hizkera komunikatiboa eta ulerterraza erabiltzeko eginkizuna ezarri diola EiTbri (ikus 4.4.3.).

#### 4.4.1. Elebitasunaren kudeaketa

Euskarazko ikus-entzunezko komunikazioan zerbitzu aldi modura bereizi dugun denboran, EiTbK telebista-kanal bi eratu zituen, ETB1 euskaraz eta ETB2 gaztelaniaz, horrela erantzunez gizarteko elebitasunari. Amezagak (2013) eginiko azterketaren arabera, kanal-banaketa hori berak dual deritzon eredurantz lerratuz joan zen, hizkuntza bakoitzari eduki jakinak elkartzearen ondorioz: euskaraz, haur eta gazteentzako edukiak, kirola, kultura eta barne-produkzioko telesailak; gaztelaniaz, debatea, analisi sozial eta politikoa, eta kanpo-produkzioko fikzioa. Amezagak aurkezturiko ereduari ñabardurak egin dakizkioke (3.4.1. azpiatalean aritu gara horretaz). Edonola ere, performantzia aldi, EiTbren eskaintzan ETB3 eta ETB4 gehitzearekin batera, modu berri batean kudeatu nahi izan dira euskal gizarteko hizkuntzak EiTbn, euskarari gaztelaniazko kanaletan sarbidea emanez. Proiekturik garrantzitsuena 2013-2016ko plan estrategikoan abiarazi da baina, lehenago ere, urrats garrantzitsuak egin dira *EiTBra*ko *hizkuntza-funtsak* dokumentuan, testimonio eta adierazpenen eta Euskal Herriko toponimoen tratamendurako jarraibideekin.

Euskal gizartean errealitate bat izanda, euskarak beti izan du presentzia naturala ETB2n eta Radio Euskadin, baina idatzizko lehen jarraibideak *EiTBra*ko *hizkuntza-funtsak* (Euskal Irrati Telebista, 2005b) deritzon dokumentuan eman ziren. Testua EiTbko Zuzendaritzak prestatu zuen, eta Administrazio Kontseiluari aurkeztu, ordura arte Euskal Telebistan eta Euskadi Irratian euskara-ereduaz eginak ziren gogoetak jaso eta komunikazio-talde osorako irizpideak zehazteko asmoz. Dokumentuan ez zen berriaz aipatzen gizarteko elebitasuna baina, albistegi eta kirol-saioetarako EiTbtik kanpoko pertsoneri eskatzen zaizkien adierazpenak direla eta, jarraibide hau eman zen:

«V. Albistegietako kazetariak euskarazko albiste-saioetarako euskarazko adierazpenak lortzen ahaleginduko dira beti.

Euskal Irrati Telebistak ez du inor derrigortuko nahi ez duen hizkuntzan hitz egitera. Kazetariak hainbat baliabide ditu —azalpena, bikoizketa, azpidazketa— albistegiko hizkuntzan ez dauden adierazpenez baliatzeko».

EiTBko erredakzioetan, dokumentuaren berariazko bertsio bat zabaldu zen, *EiTBra*ko *hizkuntza-funtsak (zabalkundea)* (Zupiria, 2005), fikzioari eta bikoizketari buruzko atalak gabe. Administrazio Kontseiluan aurkezturiko dokumentuari fidela bazitzaion ere, luzeago ari zen albistegiko hizkuntzan ez dauden adierazpenen tratamenduaz. ETB1en, gaztelaniazko edo beste hizkuntza bateko adierazpenak bikoiztu egin behar ziren edo, osterantzean, kazetariak bere hitzez azaldu behar zuen eledunak esandakoa. Protagonista eta haren hitzak garrantzi berezikoak izanez gero, beste barik txerta zitezkeen gaztelaniazko adierazpen laburrak; beste hizkuntzetakoak, euskaraz azpidatziko ziren. ETB2n, euskarazko adierazpenak gaztelaniaz azpidatzita pantailaratu beharko ziren.

Gaiari EiTBren estilo-liburuan heldu zitzaion berriro, 20. fitxa eskainiz adierazpenen hizkuntza-tratamenduari. Estilo-liburuan, lehendabiziko aldiz aipatu zen euskararen ikusgaitasunaren kontzeptua, honelako esaldiekin: «*Gaztelaniazko kanaletako kazetari, aurkezle, gidari eta esatariak ikusgai egingo dute euskara, modu naturalean*» (Martin et al., 2013, or. 21). Ildo beretik, 20. fitxan honela esaten zen euskarazko adierazpenak zirela eta: «*Erdarazko hedabideetan euskara ikusgai egin behar da*» (ibid., or. 82). Horrekin batera, kazetarietako jarraibideak zetozen, adierazpenak biltzeko orduan zelan jokatu jakin zezaten.

Euskararen ikusgaitasunaren kontzeptuari 2013-2019 epealdiko plangintza estrategikoan eman zaio arreta, gogoeta baten ondorioz: euskal gizartean eboluzioa gertatu dela egoera soziolinguistikoan. Izan ere, 2010eko hamarkadaren erdialdean, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren zati handi batek badaki euskaraz, batik bat 45 urtetik beherakoen artean (2.4.1.1. puntuan ikusi dugunez). Horren aurrean, EiTB komunikazio-taldea jabetu zen berari interesatzen zitzaion audientzia-multzoa nagusiki euskaldunez osaturik zegoela eta, hartara, euskarazko audientzia sendotzea erabaki zuen 3. lerro modura plan estrategikoan (EiTB, 2013b, or. 21). Helburua zen herritarren artean hedabideak euskaraz kontsumitzeko ohitura sustatzea eta normalizatzea, eta horra iristeko proiektuetako bat diziplina arteko lantalde bat eratzea izan zen, gaztelaniazko kanaletan euskarari gero eta ikusgaitasun handiagoa emateko modua azter zezan. Lantalde haren emaitza nabarmenetako bat estilo-liburuko 20. fitxa berriztatzea izan da,

hizkuntza-adierazpenen tratamenduari buruzkoa, alegia. Fitxan bertan, honela dago azalduta ematen diren jarraibideen testuingurua:

«1.1. Hizkuntza bat baino gehiago dituen gure gizarte honetan, EiT Brentzat ildo estrategiko bat da hedabideetan euskara kontsumitzeko jarrera sustatzea eta normalizatzea.

1.2. Normalizazio horretan, urrats garrantzitsua da euskarari gaztelaniazko kanaletan ere toki bat egitea. Helburua da euskal gizartearen errealitate elebiduna ikusgai egitea eta euskara prestigiatzea, betiere interes informatiboaren eta audientzien kaltetan izan gabe». (Martin et al., 2016, or. 82)

Foro publikoan, ordea, iritzi zabaldua da EiT Bk euskara ezkutatu egiten duela gaztelaniazko kanaletan. Hala dela uste du Ander Gortazar (2015) arkitekto eta hirigintza-aholkulariak:

«Halaber, simulakroa da ETB2 ere, ikusle erdaldunari existitzen ez den errealitate elebatar bat erakusten diolako, eroso senti dadin bere baskotasunean, euskaldunon kontu linguistiko ziztrin horietaz arduratu beharrik gabe».

Iritzi zabaldu horren arabera, ETBk erdaraz eginarazten die euskaldunei ETB2n ateratzeko, eta horrek euskal gizartearen eta, batez ere, euskara hizkuntza nagusi den eskualdeen errealitate linguistikoa desitxuratu egiten du (Lartzanguren, 2014). Euskal Herriko hainbat gizarte-eragileren aldetik bazegoen horren gaineko kezka, eta bilerak egin zituzten EiT Bko Zuzendaritzarekin euren kezka helarazteko eta ekimenak eskatzeko (Deogracias, 2014). Ordurako, azaldu bezala, EiT Bk abian zuen euskara kanal guztietan ikusgai egiteko proiektu estrategikoa, eta beraren bitartez urrats interesgarriak egin direla egiaztatu ahal izan da (Larrinaga, 2015b).

Adierazpenen tratamendutik harago, EiT Bren gaztelaniazko kanaletan euskara ikusgai egiteko proiektuan, beste aukera batzuk aztertu ziren. Izan ere, ordurako bide bat bazegoen eginda, Radio Vitoriaren euskarazko programekin, adibidez. Ez zen igarri ETB2n edo Radio Euskadin gauza bera egiteko beharra zegoenik, baina bai autopromozioa euskaraz eman zitekeela, edo publizitate komertziala euskaraz eskain

zitekeela (3.2. Diziplina Arteko Lantaldea, 2014). Proiektuaren beste ondorio bat izan da ETB2ko programetan euskarari bidea egiten uztea. Tertulietan eta analisi-saioretan, nahi duten iritzi-emaileak euskaraz sartzen dira, eta aurkezlearen ardura izaten da euskara ez dakiten ikusleei gonbidatuak zer esan duen jakinaraztea<sup>28</sup>; *realityetan* bere horretan pantailaratzen dira —azpidatzen laguntzarekin— parte-hartzaileek euskaraz izaten dituzten elkarrizketak; Ander Gonzalez sukaldariak eta beste aurkezle euskaldun askok naturaltasun osoz tartekatzen dute euskara euren programetan. Dagoeneko, nekez esan daiteke ETBk eredu dual baten bidez kudeatzen duela gizarteko elebitasuna, baina euskara kanal guztietan ikusgai egiteak ez du ekarri euskara nagusi den telebista-eredua, Amezagak (2013, or. 43) proposatzen zuen bezala.

Gorago aipatuenez, Euskal Herriko toponimia da EiTbren gaztelaniazko kanaletan euskarari sarbidea emateko beste modu bat, performantzia aldia baino lehenagotik landu dena. Berez, toki-izenen gaia konplexua da, arau-emaile bat baino gehiago daudelako, interes ezberdinekin. 1990eko hamarkadan EiTbko Euskara Saileko buru izan zen Igone Etxebarriak (komunikazio pertsonal batean, 2015ean) azaldu bezala, EiTbn lehen urteetan ezarri zen praktika izan zen euskarazko kanaletan Euskaltzaindiak erabakitako izena erabiltzea eta, gaztelaniazko kanaletan, Jaurlearitzak, foru-aldundiak, udalak edo organo eskumendunak erabakitako izen ofiziala<sup>29</sup>. 2005ean, EiTbko Zuzendaritzak irizpide berri bat eman zuen, Lourdes Oñederra EiTbko hizkuntza-aholkulari izendatu berriak prestatu zuen *EiTb - Euskal Herriko leku izenak* (Oñederra, 2003b) txostenean oinarrituta. Irizpide berriak polemika piztu zuen EiTbren barruan eta, Urkizuk (2003) argitara aterata, publiko egin zen EiTbko hizkuntza-aholkulariaren eta Euskara Zerbitzuko hizkuntzalarien artean desadostasuna zegoela gai horretan. Euskal Herriko toponimoen tratamendua ez zen formalki itxi EiTbren estilo-liburu landu zen arte.

---

28 Urkizuk (2014) dakar adibide zehatzen bat.

29 Euskaltzaindiak eskainitako lehen erreferentzia ETB sortu baino lehenagokoa da: *Euskal Herriko udalen izendegia* (Euskaltzaindia, 1979b). Horko hainbat forma zaharkituak, desegokiak eta geroago finkaturiko euskararen kontrakoak zirela aitortuta, akademiak Euskal Herriko udal-izendegi osoa berriztatzeari ekin zion, hamar arau emanaz. Lehena, 92.a, irizpideen berrikuntzaz mintzatzen zena, *Zuberoako herri izendegia* (Euskaltzaindia, 1999) izan zen. Gainerakoen zenbakiak, hauek: 99, 108, 122, 128, 133, 140, 145, 150, 155.

Estilo-liburuaren bertsio bietan, 37. fitxa Euskal Herriko toki-izenei eskainita dago, eta lehen jarraibidea da EiTBn toponimoak forma bakarrean erabiliko direla. Forma ezberdin bi daudenean —'Pamplona' eta 'Iruñea', kasu—, euskarazko kanaletan euskarazkoa erabiliko da, eta gaztelaniazkoetan, bestea. Horren ondorioa da, esate baterako, Ipar Euskal Herriko herrietan euskarazko formari ematen zaiola ikusgaitasuna EiTBren gaztelaniazko kanaletan, hizkuntza horretan forma errotua dutenak ('San Juan de Luz') salbuetsita. Jarraibide horiek aplikatuz, eranskin bi eskaintzen dira. Lehenean, Euskal Herrian bereiz daitezkeen egitura politiko-administratiboen deiturak jasotzen dira, besteak beste, 'Euskal Herria', 'Euskadi' eta 'País Vasco'. VII. eranskinean, Euskal Herriko udalerriz-zerrenda dator.

#### **4.4.2. Hizkuntza-eredua**

ETBk euskara batua egin zuen bere hizkuntza-eredua hasieratik, Eusko Jaurlaritzaren hautuarekin bat etorritik, eta bokazio nazionalako komunikabideek hamarkada bat lehenagotik urraturiko bidetik jarraituz. Zerbitzu aldian, ahots batzuek euskalkiak (bizkaiera) baztertzea egotzi zioten ETBri; beste ahots batzuek, berriz, euskalkiak (gipuzkera) erabiltzea proposatu zuten telebistako fikzioan behar ziren hizkerak lantzeko, baina ez batzuek, ez besteek, ez zuten ETBren hizkuntza-ereduan aldaketarik gertarazi. Performantzia aldian, osteraz, aldaketak izan dira, ez programa guztietan, entretenimenduarekin eta herritarren parte-hartzearekin lotura handiagoa dutenetan baizik, eta ez gizarte-eragileen kritika edo proposamenengatik, ideologia linguistiko berriek eraginda baizik.

Albistegietan eta tonu formaleko saioetan, ez da aldaketarik gertatu hizkuntza-ereduan eta, nolabait, beroriek dira ETBren euskararen gordailuak. Alde horretatik esan behar da hemen ere betetzen dela Bellek (1983) deskribatutako dinamikaren antzekoa (1.3.4.2. puntuan aztertu duguna): Euskal Telebistak eta Euskadi Irratiak gizarteko goi instantzietan prestigiozkotzat zeukaten hizkera —euskara batua— hartu zuten euren hizkuntza-eredurako eta, gorpilaren bira batean legez, EiTBren emankizunetan agertzeagatik, batuak prestigioa irabazi du gizarteko instantzia guztietan eta, euskaldunentzat, EiTB bilakatu da euskara estandarraren erreferentziarik

garrantzitsuena, izan diren gorabeherak eta zailtasunak izan direla. Batetik, gizartearen aurrean —Begiristaintzat (2010), esate baterako— euskara-erabiltzaile eredugarri bihurtu diren komunikatzaileak daude, hala nola, Andoni Aizpuru eta Euzkitze. Bestetik, programak eurak daude. Adibide modura, Lizartzak (2009) *Goenkale* telesaila aipatzen du, zeinari esker hitanoko flexio estandarrek onarpena irabazi baitute hiztunen artean.

Erreferentzialtasun horren erakusgarri da, halaber, Euskal Telebistaren —eta Euskadi Irratiaren— testuak corpusak osatzeko baliatzen direla, besteak beste, Euskaltzaindiaren Lexikoaren Behatokirako, UPV/EHUko Euskara Institutuaren Kalkoen Behatokirako, eta UPV/EHUko Euskara Institutuaren Egungo Testuen Corpora (ETC) delakorako. Era berean, EiTBko Euskara Zerbitzuaren buruak Eusko Jaurlaritzaren Terminologia Batzordean hartzen du parte 2006. urtetik aditu modura, EiTBren ezagutzaren eta esperientziaren ekarria eginez. EIMArek estilo-liburuaren lanketan ere, iritzi-emaile gisa jardun du, horra ere EiTBren ezagutza eta esperientzia biltzeko.

Nolanahi ere den, azpiatal honetan azpimarratu nahi duguna da, ETBren programa formalagoetan hizkuntza-ereduan jarraitutasuna egon den bezala, entretenigarrietan eta herritarrek parte-hartzaile diren programetan aldaketak gertatuz joan direla euskaldunen artean hizkuntzari inguruan pentsaera berri bat zabaldu ahala. Hizkuntza gutxituko komunikabideen egungo testuinguruaz aritu garenean (1.4.2. azpiatalean), pentsaera berri horren ondorioztat eman dugu aldaera bernakularrek era guztietako hedabideetan irabazi duten presentzia. Bernakularizazioa genero jakin batzuekin lotuta agertu da hasieran, batik bat umorearekin. ETBn ere, hala gertatu da, *Sorginen laratza* izanik aitzindaria. Saioan Anjel Alkainek gauero egiten zituen karikaturen funtsezko osagaia erabiltzen zuten euskara zen (30. oin-oharrean dihardugu apur bat luzeago *Sorginen laratza*-ren hizkuntza-ereduaz). Gaur egun, aldaera bernakularrak, gero eta gehiago, karikaturak egiteko ez, baizik parte-hartzaileek euren ahotsak bereizteko modu bat dira. Praktika heteroglosiko horrek berariazko ingurunea aurkitu du gazteek erabiltzen dituzten hedabideetan, eta EiTBn ere hala dela egiaztatu du Elorduik (2016) Gaztea irratiaz egindako ikerketan.

Hizkuntza-ideologia berriek eragindako praktika horiek errotzen hasita zeudela, EiTBk bere hizkuntza-eredua lehen aldiz idatziz zehaztea erabaki zuen, aurreko azpiatalean



aipatu dugun *EiTB*ako hizkuntza-funtsak deritzon dokumentuan, hain zuzen. Lau funts edo oinarri finkatu ziren:

- «1. Euskal Irrati Telebistak, komunikazio-talde bakarra izanda, hizkuntza-eredu bakarra izango du bere euskarazko kanal guztietan —irratian, telebistan eta Interneten—.
2. Telebistagile bakoitzak, irratigile bakoitzak eta webgile bakoitzak euskara normalizatzeko eta sustatzeko betekizuna bere eginda, egokiro jarduteko gaitasuna eta erantzukizuna landu behar dituzte.
3. Euskal Irrati Telebistaren hedabideak herritarren zerbitzurako tresna direnez, irratigileek, telebistagileek eta webgileek darabilten euskarak ahalik eta euskaldun gehiengana heldu behar du, oinarria zuzentasuna izanda, eta nahitaezko baldintza, komunikazioa.
4. Euskal Irrati Telebistaren euskara-eredua euskara batua da, Euskaltzaindiak bere arau eta gomendioetan zehaztu eran». (Euskal Irrati Telebista, 2005b)

Oro har, funtsetan esaten zena bat zetorren euskalgintzako eragileek euskararen eremu osora iristen diren hedabideei dagokien hizkuntza-ereduaz pentsatzen zutenarekin. Jean Haritschelhar (2007, or. 368) euskaltzainburuak honela esplikatu zuen hedabideetan euskara batuari eta euskalkiei egokitu behar litzaiekeen tokia:

«Gauza berbera gertatzen zaie bertze komunikabideei, irrati edo telebistei. Bakoitzak ukanen du bere hizkuntza politika ikusiz nori mintzatzen zaion eta nor mintzo den. Zazpi eremuetara bota behar den mezua euskara batuan joanen da, mugatua den mezuak, aldiz, euskalkia baliatuko du».

Funtsek, edozelan ere, ez zieten lekua ukatzen euskalkiei. Hasteko, zerbitzu alditik zetorren ildoari jarraituz, euskara batuari buruzko ikuskera zabal bat ematen zen: «*Euskara batua ez da hizkera itxia eta zurruna. Hiztun bakoitzak bere hizkerako hitz, lokuzio, esapide eta egiturekin aberats dezake*». Gaztea irratitari eta ETBk ekoizitako

fikzioari zegokien atalean, dokumentuak berriro zioen aurkezleek, programa-gidariak, musika-animatzaileak, esatariek eta kontalariak batuan mintzatu behar zutela ikusle eta entzuleentzako jardunean, euren arteko hizketaldietan eta elkarrizketetan, baina bazirela beste egoera batzuk batuan zertan bideratu ez zutenak: «*Egungo edo garai bateko Euskal Herri erreala erakutsi nahi duten saioak. -EiTBren izenean ez, baizik eurenean agertzen diren kolaboratzaileak. -Esketxak eta pertsonaiak*».

Hiru irizpideok markatu zuten «*ohiko programazioan euskalkien erabilera bultzatzea*» esaldiarekin deskribaturiko ekintza aurrera eramateko bidea. Ekintza hori 2002-2007ko programa-kontratuan jaso zen, euskararen normalizazioan laguntzeko konpromisoarekin loturik, baina, ordurako, ETBk baziharduen horretan. Gorago esan bezala, programetan, *Sorginen laratza*-n egin ziren lehen urratsak. Oro har, ekimena arrakastatsua izan zela esan daiteke. Xabier Kintana (1999) euskaltzainak, hala eta guzti, euskalkien erabilera urrunegi eraman zela zeritzon.

«Oso ondo iruditzen zait, horrelako elkarrizketa biziak darabiltzaten programetan, euskalkiei lekua ematea, euskara on eta argia izanez gero. Besterik da, ordea, euskalkien aitzakian euskara lokalistegiak, laburdura eta fonetismo pitxienekin aseak, barra-barra zabaltzea, ikus-entzuleen ulermenaren kaltetan».

*EiTB* *Brako hizkuntza-funtsetan*, beste toki garrantzitsu bat aitortzen zitzaien euskalkiei: herritar arrunten parte-hartzeetan.

«Euskal Irrati Telebistak begirunez errespetatu behar du herritar bakoitzak bere hizkera erabiltzea hedabide publikoetan. Areago, EITBk erraztasunak eman behar ditu, herritarrak bere buruarengan konfiantza izan dezan, bere hizkera balioets dezan, eta komunikazio-arazorik izan ez dezan».

Bazegoen lehendik kezka, ETBk egiten zuen telebistak ez ote zituen herritarrak modu jakin batean hitz egitera behartzen. Honela zioen Bingen Zupiria (2002, or. 15) ETBren zuzendariak:

«Bestalde, oso jende gutxi ateratzen da telebistan euskaraz hitz egiten. Egiten dugun telebistan presentzia handia dute aurkezle eta aktore profesionalek, baina oso gutxitan ateratzen dugu kaleko jendea bere modura hitz egiten».

Hitza ikusleei eman zaien programetan —aspaldiko *Bakarrik* zein oraintsuko *Gu ta Gutarrak*, bi aipatzearen—, bakoitzak bere euskalkia erabiltzea ez da izan elkar ulertzeko oztopoa eta, *Bakarrik*-en zuzendari izan zen Estepan Aldamiz-Etxebarriakoeñ (2015ean, komunikazio pertsonal batean) nabarmendu bezala, hiztunek badakite komunikazio-estrategiak erabiltzen, euskalkia urruntzeko faktorea izan beharrean hurbiltzeko faktorea izan dadin. Komunikatzaileek jakinaren gainean erabiltzen dituzte halako estrategiak. Ilaski Serrano (2011) Euskadi Irratian esatari eta ETBn aurkezle ibili denak honela deskribatu du berea:

«Nire berba egiteko era bizkaiera da [...]. Harreman pertsonaletan batuaz egiten badut, ez naiz neu, ezta erdaraz egiten badut ere, baina zerbait aurkezten banabil, formatuaren arabera, batua erabiliko dut. Lanean beti egon naiz harremanetan jendearekin, eta irratian telefonoa hartzen nuenean norbaitek Gipuzkoatik deitzen bazuen, nik berak ulertzeko moduan erantzuten nion. Baina ondoren Gernikako batek deitzen bazuen bizkaieraz egiten nion».

Dagoeneko, gaindituta dago telebistako —eta irratico— lehen garaiko hizkuntza-eredu uniformeak. Hala eta guztiz, debatea eragiten du oraindino ere komunikatzaile profesionalek euskalkia erabiltzeak, egoera zeinahi dela ere, eta beste aukera batzuk proposatzen dira. Zabaleta (2007, or. 348), adibidez, 'euskara batu bertaratu'-az mintzo da, euskararen normalizazioaz jardun dugunean (2.3.4.3. puntuan) aipatu dugun 'eskualdeko batu'-aren parekoa bide dena.

#### **4.4.3. Hizkuntzaren kalitatea**

Jonesek (2013b) hizkuntza gutxituko hedabideen praktika linguistikoei buruzko debateetan identifikatu dituen gaietatik, emanaldietako hizkuntzaren kalitatea —alegia, zuzentasun gramatikala— izango da EiTbn politikarik konstanteena atxikita eduki

duena. Lehendabiziko momentutik, kalitate oneko euskara hobetsi zen eta, hain zuzen, arazoak atzemateak ekarri zuen ETBko Euskara Sailaren sorrera (3.6.3. azpiatalean ikusi dugunez). Iritzi publikoak, oro har, babestu du politika hori, egun ere indarrean dagoena, baina kritikak ere izan dira, esanez oso hizkuntza zainduak euskara-gaitasun apaleko hiztunei EiTBraren atea ixtea ekar lezakeela ondorio modura. Azpiatal honetan aztertuko dugu zelan kudeatu den arazoa.

Euskal Irrati Telebistan, 2000ko plan estrategikoak aldi berri baten hasiera markatu zuen, neurri handi batean politika eta eginkizunak erabakitzeke moduagatik, eta neurri txikiagoan politika eta eginkizunon edukiagatik. Programetan erabili beharreko euskararen kalitateari dagokionez, behitzat, ez zen etenik gertatu lehenagoko politikekin. Hala, lehen plan estrategiko hartan (EiTB, 2000, or. 220–223), euskararen arloan, helburuetako bat euskararen kalitatea hobetzea izan zen, lehendik zetorren ildotik jarraituta. Jaurlaritzak eta EiTBk 2002an sinatu zuten programa-kontratuan, berriro errepikatu zen EiTBk bere ekoizpenetan zein kanpokoan bikoizketan zerabilen euskararen kalitatea zaintzeko helburua. Harrezkero, ideia plan estrategiko eta programa-kontratu guztietan egon da presente; azkenengoetan, ikuspegi helduago batekin, euskara egokia, irisgarria, komunikagarria nahiz gogobetegarria aipatu baita. Estilo-liburuan ere, jasota dago: «*EiTBko Zuzendaritzak eta profesionalek hizkuntzaren kalitatea bermatuko dute zerbitzu eta saio guztietan*» (Martin et al., 2013, or. 19).

Ildo horretatik, euskara normalizatzeko plangintza publikoan —ESEPn (Euskararen Aholku Batzordea, 2012, or. 76), adibidez—, euskararen kalitatea bermatzea jasotzen da hedabideentzako helburu modura. Alabaina, ez normalizazio-plangintza publikoan, ez EiTBraren plangintza estrategikoan, ez da aintzat hartzen irrati eta telebistako programetan hizkuntza zaindua erabiltzea oztopo bat izan litekeela euskara-ezagutza apaleko ikusleentzat eta, ondorioz, neurriak hartu beharko liratekeela halako pertsonen euskarazko kanalen kontsumoa errazteko. ETBk norabide horretan egin dituen urratsak txikiak dira oraindino ere (4.6.1. azpiatalean ikusiko dugunez), baina bai egin du, ordea, gogoeta interesgarria euskararen kalitatearen zainketan dagozkion ardurei buruz. *EiTBra*ko hizkuntza-funtsetan (Euskal Irrati Telebista, 2005b), bi ardura bereizi ziren.

Batetik, EiTBko komunikatzaileek euskara zuzena erabili behar zuten eta, horrez gainera, egokia eta komunikagarria, alegia, komunikazio-egoeraren arabera eta

euskaldun gehienengana heltzeko modukoa. Bestetik, gonbidatu, elkarrizketatu, inkestatu eta gainerako herritarrei hedabide publikoetan euren hizkera erabiltzeko eskubidea aitortzen zitzaien, eta EiTBren erantzukizuna zen erraztasunak ematea euren buruarengan konfiantza izan zezaten komunikazioan oztoporik gertatu gabe. Praktikan, politika horrek, euskalkian mintzo ziren pertsoneri ez ezik, euskara-maila apalekoei ere ireki zizkien EiTBko mikrofonoak. Aurrerago, Jaurlaritzak eta EiTBk 2016an sinatu duten programa-kontratuan, aintzat hartu da euskaldun-komunitatean aldaketa gertatu dela hitzunen gaitasunari dagokionez, euskaldun natiboen ondoan beste hitzun-multzo handi bat dagoelako, euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi duten belaunaldi gazteek osatzen dutena. Horren aurrean, EiTBri informazio- eta dibulgazio-saioetan hitzun horiei egokituriko hizkera erabiltzea ezartzen zaio.

#### **4.5. EUSKARAREN CORPUS-PLANGINTZA ETA ETB PERFORMANTZIA ALDIAN**

Euskararen normalizazioaren hirugarren aldian (2.3.4. azpiatalean ikusi dugunez), euskararen kalitatearen kezka piztu zen. Euskara batuaren kodifikazioan eta lantze funtzionalean aurrerapauso esanguratsuak eginak izanik, erabiltzaile askok euskara zuzena baino gehiago espero zuten kontsumitzen zituzten testu eta produktuetan. Testuaren edo produktuaren ezaugarriei egokiro erantzungo zien euskara espero zuten, eta gertatu zena izan zen testu- eta produktu-ekoizle asko ere euskara egokiaren ahaleginean murgildu zirela. 1990eko hamarkadan, hizkuntza-erakundeak inplikatu ziren eginkizunean eta, 2000ko urteetan, IKTak aplikatu ziren. ETBn bertan, albistegiek eta bikoizketak lehenengotan izan zuten zuzentasun-arazoa bideratuta utzi zen zerbitzu aldian. Performantzia aldian, aurrerapausoak egin, eta genero bakoitzerako behar diren erregistroak eta hizkuntza-baliabideak garatzera zuzendu da corpus-arloko lanen ardura.

Atal honetan, garatze hori izango da arretagunea baina, aurretik, gizartean egon den debatego iritziak laburbilduko ditugu, ikusleek ETBren aldetik zer espero izan duten ezagutzeko helburuarekin (ikus 4.5.1.). Moduren batean, euskaraz guztiz garatu barik zegoena eskatzen zioten: kasuan kasurako hizkuntza-erregistroa. Euskal Telebistako komunikatzaileentzat ere, berariazko erregistroak gero eta beharrian handiagoa izan

dira telebistako programazioan genero berriak eta joera berriak agertu ahala. Beharrian horri ETBren barruan erantzun zaio, baina Euskaltzaindiaren arauak mugaturiko esparrua aintzat hartzeko eta euskalgintzako beste erakunde batzuek landutako hizkuntza-baliabideetan ekarpenak gehitzeko jarrerarekin.

ETBren performantzia aldiko hizkuntza-lanketa aztertzeko, lau genero bereiziko ditugu, telebistako lau genero nagusiak direnak, horrela ETBren lanaren ikuspegi osoa eman baitezakegu eta, aurreko kapituluan planteatu dugun eskemari jarraituta, barneko eta kanpoko produkzioak bereiziko ditugu. Barne-produkzioko informazioa: albistegiak eta erreportajeak (ikus 4.5.2.). Kanpo-produkzioko informazioa: dokumentalak (ikus 4.5.3.). Barne-produkzioko dramatikoak: telesailak (ikus 4.5.4.). Kanpo-produkzioko dramatikoak: filmak eta telesailak (ikus 4.5.5.). Barne-produkzioko entretenigarriak: magazinak, umorezko saioak, kirol-emankizunak, lehiaketak eta telerrealitatea (ikus 4.5.6.). Kanpo-produkzioko entretenigarriak: telerrealitatea eta ikuskizunak (ikus 4.5.7.). Kanpo-produkzioko publizitatea: iragarkiak (ikus 4.5.8.). Horrez gainera, berriazko arreta emango diogu ETBren eredu prosodikoaren lanketari (ikus 4.5.9.).

#### **4.5.1. Egokitasunaren erronka**

Hizkuntza-egokitasunaren ideia 1990eko azken urteetatik dago presente euskararen normalizazioarekin loturiko testuetan. EBPNk (Euskararen Aholku Batzordea, 1998, or. 41) normalizazioaren menpe jartzen du «*zuzentasun-egokitasun-jatortasun auzia*». ETBri dagokionez, gaia mahai gainean jarri zen unean bertan heldu zion egokitasunaren erronkari eta, 2001ean, Euskaltzaindiaren XV. nazioarteko biltzarrean, txosten bat aurkeztu genuen (Larrinaga, 2008), ordura arte ETBn eginiko bidearen berri emanez. ETBrentzat, zuzentasuna «*gramatikaren arauak betetzea*» da (Larrinaga, 2004a, or. 65), eta egokitasuna, «*komunikazio-egoeraren eskakizunei ondo erantzutea*» (ibid.), eta horrek dakar programa-mota bakoitzean sortzen diren komunikazio-egoeren arabeko hizkuntza-aldaerak lantzea. Egokitasunaren kezkan bide-urratzailea izanda ere, ETBri kritikak zuzendu zaizkio debate publikoan.

Telebista eta hizkuntza-egokitasunaren gaiari buruzko debatean, sustatzaile bi egon dira. Bata, telebistaren eredugarritasuna. Marko teorikoa landu dugunean (1.3.4.3. puntuan) ikusi bezala, hiztunek hedabideen bitartez ezagut ditzakete hizkuntza-elementu berriak,

eta eredutzat hartu. Euskalgintzako eragileen aldetik, ETBk horretarako balio zezala espero izan da hasieratik. Beste sustatzailea telebistako komunikatzaileen premiak izan dira. Beraiek jabetu ziren, inor baino lehenago eta argiago, ETBren lehen denboretan nagusitu zen euskara uniforme ez zela nahikoa. Debatean azaldu diren iritziek ez dute beti berdin ikusi telebistan erregistroak eta hizkerak zelan kudeatu behar diren, baina bultzagarri bat izan dira ETBk egokitasunaren erronkari hel ziezaion.

Euskalgintzako eragileen iritziei dagokienez, zuzentasuna eta egokitasuna nahasita agertu dira hasieratik debate berean eta, ondorioz, bestela zentzurik izango ez luketen iruzkinak egin dira, esaterako, Kintanak (1984c) ETBren akats handienetakotzat jotzea aurkezle eta informatzaile gehienak «*komunikabide ezidatzietatik*» zetozela eta, haientzat, euskal literaturan eta ikasliburuetan idazten zena proposatzea euskara-eredu modura. Kontrara, ETBko komunikatzaileen artean nagusi zen iritziaren arabera, hizkuntzaren adierazkortasunean eta, beraz, funtzionaltasunean ondorio negatiboak izan zitzakeen ETBko euskara —eredugarria izan behar zuelako aitzakian— idatzirako arau akademikoen ildo estutik sartzeak. Hasier Etxeberria (2000, or. 118) idazle eta ETBko kazetariak honela azaldu zuen:

«Neurri handi batean, beraz, nola-halako euskara erabiltzen duten kazetari, aurkezle eta bikoiztaileen bizkarretik hazitako euskara da eta izango da etorkizunean gurea. Adierazteko gaitasunean eta ñabarduren aberastasunean baino gehiago, zuzentasun aseptiko eta akademikoan oinarritzen dena; akats edo hanka sartzearen beldurrez adierazpide berrien sorkuntzatik urruntzen gaituena».

Horregatik, lerro batzuk aurrerago, telebistarako euskararen egokitasunaren alorrean ahalegin handiagoa egiteko beharra aldarrikatu zuen, baina jabetzen zen zelako gurrpil zoroa sortzen zen:

«Hizkuntzaren aldetiko gurari batzuk aipatuak ditugu lehenagotik: errejistro ugaritasuna, euskalkien presentzia, argot ezberdinen beharra... zailak dira konpontzen horiek guztiak. Ezin eska dakioke ETBri gizarteak berak sortzen ez duen eredurik eskeintzeko. Artifizio

hutsean oinarritzeko, alegia. Gehienez ere hitz bat edo beste jar dezake modan, *puztarriak*, esaterako, baina hortik hizketa eredu osoak proposatzera badago tartea. Gizarteak berak sortu behar du hori lehenik. Baina, nola sortuko du gizarteak halakorik iturri nagusienetakoa duen telebisioak ez badio eskeintzen zer kopiaturik?».

(Etxeberria, 2000, or. 118)

ETBk, jarrera pragmatikoa hartuta, 1990eko urteetan heldu zion, esan bezala, bere programetarako behar zituen erregistroak eta hizkerak garatzeari eta, hurrengo azpiataletan zehatzago ikusiko dugunez, albistegietan eta bikoizketan hasitako lana beste genero batzuetara zabaldu zuen 2000ko hamarkada hasi baino ez. ETBtik kanpo, ordea, ez bide zen ahalegina igarri; Euskararen Aholku Batzordeak (2004), behintzat, ikus-entzunezko hedabideen hizkuntzarekiko ardura, gehienez ere, zuzentasunean ipinita atzeman zuen. Pantailan, ordea, agerikoa zen ETBn ahalegina egiten zela genero bakoitzari bere hizkera egokitzeko, emaitza denen gustukoa izan ez arren. Andres Urrutia (2005) euskaltzainburua honela kexatu zen:

«Beharbada batez besteko ikuslea ohitu egingo zen eta eroso ere sentituko da akaso, esate baterako *Sorginen Laratza* ikusita, baina euskararekin lan egiten duenak belarria minduta amaitzen du ETB-1eko butaka-saio baten ostean. Kiroletan, adibidez, maila ona lortu da urteekin, eta kirol bakoitzerako terminologia ere sortu da. Umeen saioetan ere (marraski bizidunetan eta) esango nuke euskara bizia eta egokia dela. Dokumentaletan ere bai. Baina, hain zuzen ere, horixe da tristeena: ze programa salbatzen den aukeratzen ibiltzea, eta beste guztietan belarria minduta ibili beharra».

*Sorginen laratza*-z esaten dena irakurri eta, saioko hizkuntza-eredua<sup>30</sup> jakinaren gainean erabaki zela aintzat harturik, ondorioztatu behar da Euskaltzaindikoko preskriptoreen

---

30 Saiok gidari bi zituen, nolabait pailazo-rol ezberdinak esleituta zeuzkatenak: Xabier Euzkitze, aurpegizuria, eta Klaudio Landa, agostoak. Rolak hizkuntzaren bidez ere markatzen ziren: Euzkitzek euskara batu jaso, oparoa, jario arinekoa erabiltzen zuen, eta Landak, euskara batu narrasa, lotsarik gabea eta erdaraz kutsatua. Saioko aktoreek antzeztzen zituzten pertsonaiak ere hizkuntzaren bidez markatzen diren, besteak beste, gudari zaharra, euskara aranatarrekin, eta platoaren garbitzailea, Goierriko euskararekin —biak Anjel Alkainek antzezturiko karikaturak—.



hizkuntza-kezkak ez direla telebistagileenak. EiTbN, corpusaren arloan, programetako komunikazio-egoerek ezartzen dituzten hizkuntza-beharrei erantzutea izan da kezka nagusia. Hala agertu dugu hainbatetan (Larrinaga, 2008, 2011b, 2011d, 2013e, 2014a) debate publikoan. Hurrengo azpiataletan aztertuko dugu zelan landu den erantzun hori programa-mota bakoitzean, besteak beste, literatur tradizioetik baliagarri zirudiena jasoz, komunikatzaile bakoitza bere euskarako hitz, esamolde eta joskeretan bere ahotsa aurkitzera animatuz, eta ikusleek espero dituzten erreferentziak aintzat hartuz.

#### **4.5.2. Barne-produkzioko informazioa**

Zerbitzu aldian, informazioaren lanketari dagokionez, hizkuntza-eredu homologagarri bat osatu zen Euskal Telebistan, eta baliabideak ekoitzi ziren enpresako zein kanpoko komunikatzaileengan pentsatuta. Eredu hartan, ardura zuzentasunean ipini zen nagusiki eta, hala, prestatu ziren baliabideetan, esaldi edo egitura okerren gaineko azalpen gramatikalak ziren funtsa eta edukia. 1990eko azken urteetan, era horretako materialak prestatzeari utzi zitzaion, eman zezaketena emana zutelakoan, eta albistegietarako interesgarri ziren gaiak modu osoagoan lantzeari ekin zitzaion. Informazio-saiotetarako hizkuntza-ereduaren garapenean, hura izan zen lehen urratsa egokitasunaren bidean. Performantzia aldian, bide horretatik jarraitu da eta, aurreko esperientzian oinarrituta, baliabide iraunkorragoak eta eskuragarriagoak sortzeko ahalegina egin da. Ekimen eta emaitza guztien kontakizuna egiteko, lau atal bereiziko ditugu: komunikabideen lantaldea, eskuorriak, eskuliburuak, eta ETBko komunikatzaileekiko elkarlana.

Komunikabideen lantaldea Miren Azkarate Euskaltzaindiko Corpus batzordeburuaren ekimen bat izan zen, 1999ko otsailean aurkeztua. Lantaldea Corpus Batzordearen menpe antolatuko zen, Euskaltzaindiko ordezkariak eta Euskal Herriko hedabideetako euskara-arduradunak bilduta, eta hizkera informatiboarekin loturiko helburuak izango zituen. Komunikabideen lantaldeak 2000ko ekainean ekin zion lanari. EiTbK eta Euskaldunon Egunkariak landutako eta ekoiztutako materialetan oinarrituta, eguneroko informazioan beharrezko iruditzen zitzaizkien hitzen eta esamoldeen zerrenda prestatzeko eginkizuna hartu zuen bere gain, Hiztegi Batua osatzeko helburuarekin (Euskaltzaindia, 2001). Lantaldeari, funtsean, materiala biltzeko, sistematizatzeke eta

glosario gisara atontzeko lan neketsua egotzi zitzaion, beste batzorde batzuen esku utzi baitzen zerrendak osatzeko irizpideak zehaztea eta hitz eta esamoldeei Hiztegi Baturako onespina ematea. Honela azaldu zuen Miren Azkarate (2001, or. 315) euskaltzain eta lantaldeko buruak:

«Lantalde horretatik datozen proposamenak Euskara Batuko batzordeak eta euskaltzain osoek aztertu ondoren, argibide gehiagoren beharra ikusiko balitz, lantaldeari eskatuko litzaioke informazioa osatzea (nahiz honek ez duen baztertzen Hiztegi Batuko lantaldeari ere argibiderik eman dezakeen galdetzea)».

Lana antolatzen hasi baino ez, 2001ean, Azkaratek Corpus batzordeburu izateari utzi, eta komunikabideen lantaldeak ez zuen asko gehiago iraun (Iñigo, 2012, or. 468). Euskaldunon Egunkaria ere orduantxe itxi zuten. EiTBk, lehenago bezala, bere aldetik segitu du albistegietarako hizkeraren garapenean, batik bat eskuorrien bitartez. Serierik osatu barik, EiTBko hizkuntzalari-taldeak berariazko eskuorria prestatzen du gairen bat aztertzeko beharrezana atzematen duenean. Aldi honetako orriotan, gorago azpimarratu bezala, ardura ez da erabilera eta egitura okerrak zuzentzea, baizik informazio-saioretan egokitasunez aritzeko hizkuntza-baliabideak eskaintzea komunikatzaileei. Horren adibidea da *Zelan prestatu esateko diren albisteak* (Euskara Saila, 2005a, 2005b) orri bikoitza, honelako jarraibideak jasotzen zituena: «*Tartekirik ez. Entzuleek hobeto aditzen dituzte errenkadan esandakoak*». «*Ahozko katean, erosoago aditzen dira deklinatutako osagaiak, zehatzagoak dira eta*». «*Hobe da entzuleari kontzeptuak errepikatuta esatea, izenorde, sinonimo eta ordain ilunagoetara jo beharrean*». «*Aditza atzeregi botaz gero, haria galtzeko arriskua dago*».

Lehen eskuorriak, 1990eko urteetan, fotokopia bidez zabaldu ziren EiTBko erredakzioetan. Geroago, posta elektronikoa baliatu zen orriak banatzeko eta, 2010tik, orriak EiTBren intranetean —Tortolika izenekoan— eskegita uzten dira, Euskara Zerbitzuaren gunean, noiznahi kontsultatzeko moduan. Aldian-aldean, lehenagoko gairen bat gogorarazteko, finkatzeko edo sakontzeko premia atzematen bada, mezu laburrak bidaltzen dira posta elektronikoz, behar diren argibideekin eta dagokion orria erantsita. Horrez gainera, EiTBko komunikatzaileei beste erreferentziako lan batzuetatik jasotako ereduak eta ezagutzak jakinarazteko baliatu dira eskuorriak.

Lan horietako hainbatetan, EiTBko hizkuntzalariak aholkulari eta berrikusle moduan jardun dute eta, hala, EiTBren eskuorrietan artikularen eta 'bat' zenbatzailearen arteko lehia, gaztelaniaren kalkoez, mintzagaiaren eta galdegaiaren garrantziaz, hainbat lokailu eta menderagailuren erabilera desegokiez, erlatibo hautsiez eta beste hainbat hizkuntza-arazoz ematen diren argibideak bat datoz Garziaren (1997) *Joskera lantegi*, Alberdi eta Sarasolaren (2001) *Euskal estilo libururantz*, Garziaren (2005) *Kalko okerrak* eta Petrirenaren (2011) *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak* lanetan ematen direnekin.

EiTBn ere, halako erreferentziazko lan bat gertatzeko proiektua sortu zen 2002an. Ordura arteko eskuorri guztiak bilduz, asmoa zen, ohiko estilo-liburu bat baino gehiago, kazetarietzako idazkuntza-liburu bat osatzea. Testu hartan, Euskal Telebistan landutako hizkuntza-gaiak sistematizatzeko eta atontzeko ahaleginaz gainera, bazegoen ekarpen inportante bat: albistegietako hizkera definitzeko ahalegina. Larrinagak (2008) Euskaltzaindiaren XV. biltzarrean<sup>31</sup> aurkeztutako komunikazioaren haritik, albistegiei hizkera zaindua zegokiela esaten zen, hizkera jasora edo goi mailakora heldu gabe; estilo neutrokoa, ez kolokiala, ez adeitasunezkoa, eta erregistro mistokoa, idatziz prestatua ahoz erabiltzeko. Ezaugarri bakoitzak zer esan nahi zuen argitzeko, euskarazko hitz eta egituren bidez ematen ziren adibideak. Azalpen haiek guztiak ordenagailuan gordeta geratu ziren, argitara irten gabe.

Euskal Irrati Telebistaren egoitza nagusia Bilbora aldatu zen urtean, 2007an, ordenagailuan gordeta zegoen material hari etekina ateratzeko aukera sortu zen. Izan ere, Zuzendaritza Nagusiaren ekimenez, etapa berria Arrasateren 1992ko eskuliburu eguneratzeko egokiera zela pentsatu zen. *Euskarazko albistegietarako esku-liburu II* (Larrinaga, 2007a) titulupean, lehen eskuliburuaren emaria eta ordura arte landutako eskuorrietako ezaguera jaso ziren. Berme akademikoa biltzeko asmoz, Juan Garzia (Euskal Herriko Unibertsitatea), Beñat Oyharçabal (Paueko Unibertsitatea), Rosa Miren Pagola (Deustuko Unibertsitatea) eta Beatriz Zabalondo (Mondragon Unibertsitatea) adituei testua berrikusten eta orrazten laguntzeko eskatu zitzairen.

---

<sup>31</sup> Biltzarra 2001eko irailean egin zen, baina komunikazioak ez ziren zazpi urte geroagora arte argitaratu.

Bigarren eskuliburuak asko zor dio 2002ko estilo-liburu abandonatuari kontzeptuan eta antolamenduan. Hura bezala, hedabideetan ohi diren estilo-liburuaren kutsua barik, idazkuntza-liburu baten taxua du. Bost kapitulutan antolatuta dago, eta komunikatzeko estrategia nagusietako bat albiste testu bikainak prestatzea dela baieztatzen abiatzen da: «*Irratian edo telebistan ari den kazetariak komunikatzeko darabilen estrategia nagusietako bat albiste-testu bikainak prestatzea da*» (Larrinaga, 2007a, or. 11). Baieztapen horren ondoren, aurkibidea dator, kazetariari albiste-testu bikainak zelan prestatu behar dituen erakusteko gida bat izango balitz bezala.

Gida moduko horrek bost alderdi hartzen ditu aintzat, eskuliburuko bost kapituluak direnak: albiste-testuen ezaugarriak; antolamendua eta egitura; bost arretaguneak (nor, zer, noiz, non eta zergatik); albisteen ohiko beste osagai batzuk (informazio-iturriak, zenbakiak, hipotesiak eta inguruabarrak), eta ahoskera eta intonazioa. Urte batzuk geroago, edizio berrikusi, eguneratu eta emendatua argitaratu da bikaintasunaren ideia nabarmenduta, *Albiste testu bikainak* (Larrinaga, 2012), urteokaz EiTbko Euskara Zerbitzuan landu diren hizkuntza-gaien ekarpenarekin eta adibide berriekin.

Albistegietarako euskararen garapenean, laugarren ekimen-multzo bat aipatu dugu, hizkuntzalarien eta komunikatzaileen arteko elkarlana. 2008an, lantalde ireki edo misto batzuk antolatzea pentsatu zen Euskara Zerbitzuaren PDCA bileran, informaziorako hizkuntza lantzeko helburuarekin. Lau lantalde aurreikusi ziren: 1) bizkaiera, 2) Gaztea, 3) saskibaloia, 4) jakingarriak. Lantaldeak mistoak izateak esan nahi zuen interesa zeukaten guztiek har zezaketela parte, hizkuntzalari zein kazetari, dena delako hizkera erabili behar zuen programan jardun, zein beste programa batean jardun. Lan-prozedura ahalik eta arinena eta dinamikoena izan zedin, lantaldearen ekimena hizkuntzalariak hartu zuten, euren ohiko jardueren barruan. Hizkuntzalarien eginkizuna izango zen datuak biltzea, eta materialak prestatzea eta zabaltzea. Gainerako partaideei iritzia eta ikuspegia eskatuko zitzaien: zein arlo edo ildo landu behar zen esatea, prestatutako materialaz iritzia ematea, proposamenak helaraztea, eta ikus-entzuleen eta beste lankideen iritzia jasotzea.

Bizkaieraren lantaldeari zegokionez, detektatuta zegoen albistegietako eta kiroletako profesionalen artean bazirela bizkaieraren eremukoak, baina euskara batuaren ideia

jakin bategatik, euren hizkera baztertu eta beste batzuen euskara-ereduari jarraitzen ziotenak (Euskara Zerbitzua, 2008a). Horrek kolorea eta freskotasuna kentzen zien komunikazioan eta, hortaz, lantaldearen helburua zen mendebaldeko euskaratik abiatutako jardunez profesional haiek erosoago sentiaraztea eta, horrekin batera, EiTbko ikus-entzuleen zati handi batetik hurbilago egotea. Lantaldeak hainbat eginkizun hartu zituen bere gain. Lexikoan, hedabideetako euskara batuan baztertuta edo ahaztuta geratu diren Bizkaiko berben eta esapideen zerrenda osatzea. Sintaxian, Bizkaieraz ideiak elkartzeko ohikoak diren lokailuak eta joskerak biltzea eta gogoraraztea. Eginkizun horien emaitza hainbat zerrenda izan ziren, kazetarien artean banatu zirenak.

Gaztea lantaldeari zegokionez, irratiforbularen entzuleek, webgunearen erabiltzaileek eta telebista-saioaren ikusleek atsegin eta erraztat jotzen zuten esatarien hizkera, baina esatariek euren hizkera hori landu beharra igartzen zuten, batetik, beste hizkuntza batzuetako irratiforbulan eta gazte-kanaletan hizkerari atzematen zitzaizkion kolore kolokiala, indarra eta gazte-ukitua euskaraz ere lortzeko eta, bestetik, erabiliaren erabiliaz higatuta eta zaharkituta geratzen ziren esamoldeak berrizatzeko (Euskara Zerbitzua, 2008b). Egin beharreko lehen urratsa bilketa zen. Alde batetik, *Los 40 Principales* kanalak erabiltzen zuen gaztelaniaren hustuketa egingo zen, erreferentzia gisa erabiltzeko. Bestetik, Gazteako esatarien testuak hustuko ziren, eguneroko jardunean asmatzen eta sortzen zituzten hitz eta adierazpide baliagarriak jasotzeko. Horrekin batera, irratiforbulako diskurtsoan gako ziren hitzak identifikatu behar ziren, horietan gertatzen baitzen nagusiki higatzea eta zaharkituta geratzea. Hurrengo urratsak material guztia zerrenda gisa antolatzea, eta euskararen hutsuneak betetzeko proposamenak lantzea izango ziren. Lantaldeak emaitza urria utzi zuen; abiapuntu modura nahi zen zerrendaren zirriborroa baino ez.

Saskibaloia lantaldeari zegokionez, kirol arloko komunikatzaileek ontzat ematen zuten ETBren 25 urteko bizitzan hizkera eroso eta komunikatiborantz egindako bidea, baina eguneroko zereginak eta programazioa aurrera atera beharrak ez zieten gogoeta egiteko aukerarik ematen. Kirol-kazetariak sentitzen zuten, beraz, bai saskibaloian, bai gainerako kirolean, urrats gehiago egin behar zirela hizkera zehatzagoa, oparago eta ikus-entzuleentzat gozagarriagoa izan zitekeena lantzeko (Euskara Zerbitzua, 2008d).

Lantaldeak hiru arlo jorratu zituen. Lehen a saskibaloiko hiztegi teknikoa izan zen. Bigarrena, EiTBko esatariek saskibaloipartiduen kontaezan erabiltzen zituzten eta behar zituzten hitzak eta esapideak. Azken arloa onomastika zen, alegia saskibaloiko taldeak izendatzeko eta aipatzeko modua —*Euskara tantakaren* 2000ko orrian futbolerako egin zen lanketaren ildotik joan zena—. Saskibaloiaz lantaldeak prestatu zuen material guztia HIKEA EiTBren datu-base lexiko eta terminologikoan kargatu zen (4.6.3.4. puntuari arituko gara datu-baseaz).

Jakingarrien lantaldeari zegokionez, hizkuntzaren ikuspegitik egin nahi izan zen gogoeta albistegietan urte guztietan finakoak izaten ziren zenbait gairi buruz —hala nola, festak, azokak, egun izendatuak, eta eguraldiak markaturiko gertaerak—, albistearen egikeran eta hizkeran behin eta berriro errepikatzen baitziren topiko berak eta adierazpide berak (Euskara Zerbitzua, 2008c). Lantaldearen helburua bikoitza zen: lehenik, gai horiekin erabiltzen ziren esamoldeak landu eta aberastea eta, bigarrenik, albiste horiei, betikoak izanda ere, freskotasuna eta berritasuna ematea. Emaizta modura, 'giro aparta', 'jendea erruz', 'eguraldia lagun', 'txikiek ederki gozaten dute' eta klize bihurturiko beste esamolde batzuk berriztatzeko ahalegina egin zen. Horrekin batera, halako gaiei heltzeko sistemaren ganean gogoeta egin zen, eta hiru dokumentu idatzi ziren, EiTBko kazetariengan pentsatuak, tratamendu berriak, ikuspegi berriak, eduki berriak eta kontaera berriak proposatzeko.

Lantalde horien esperientziak kurtso bat baino ez zuen iraun, eta ez zuen jarraipenik izan. Horrek ez du esan nahi gainerakoan euskarazko hizkera informatiboaren lanketan EiTBko kazetarien parte-hartzea ezdeusa izan denik. Gertatzen dena da, eguneroko albiste-erredakziotik eta -kontakizunetik harago, ez dagoela espresuki jasota EiTBk prestatu dituen eskuorri eta osterantzeko materialetan. Bada salbuespen aipagarri bat, eguraldiaren iragarpeneko hizkeraren garapena. Aipagarri da eguraldiaren tarreak berezko entitatea duelako barne-produkzioako informazioaren barruan, eta aipagarri da pantailan bertan atzeman ahal izan delako berriemaile bakoitzak hizkeraren garapenari egin dion ekarpena.

Ikuspegi linguistikotik ere, aldeak daude. Izan ere, albistegietarako hizkeraren garapenean, arretaguneak hiru izan dira: hizkeraren maila (zaindua vs arrunta), estiloa

(formala vs kolokiala), eta erregistroa (idatzia vs ahozkoa). Eguraldiaren iragarpenak beste arretagune bat jarri du agerian, espezializazioa. Espezializazioa ardatz gisa irudikatuta, mutur banatan, hizkera tekniko eta hizkera arrunta daude eta, eguraldiaren tarterako testuetan, ardatzaren erdialdean ibiltzeko ahalegina igartzen da. Beste arlo batzuetako berriemaileek ere, antzera jarduten dute, oso nabarmenki ekonomiarekin edo zuzenbidearekin lotutako albisteak jorratzen direnean, baina eguraldi-aurkezleek jakinaren gaineko hautu bat eta lanketa bat egiten dute euren testuetan, EiTbko hizkuntzalariek lagunduta.

Gaur egun eguraldiaren iragarpenean erabiltzen den hizkera garatzeko prozesuan, lau une bereizi ditugu (Larrinaga, 2013a) espezializazioari dagokionez. Lehen unean, EiTbren hastapenetan, eguraldiaren iragarpenaren hizkera Pello Zabalak moldatu zuen Euskadi Irratitik. Telebistan, lehen eguraldi-aurkezleak Zabalaren hitz egiteko modu herrikoari jarraitzen zion, meteorologo batek gaztelaniaz prestatzen zuen iragarpena euskaraz azaltzen zuenean. Bigarren unea UZEIren *Meteorologia hiztegia* argitaratzeak markatu zuen, 1988an. Hiztegiak proposatzen zituen 'brisa', 'itsaskirri' eta beste termino asko betiko itsatsi ziren eguraldiaren iragarpenean, eta bereizketa garbi bat egiten hasi zen herri-hizkera soilaren eta eguraldiko aurkezleen mintzamoldearen artean. Bereizketa horrek ekarri zuen, esate baterako, behar bezalako bermea zuen terminologia eskatzea eski-estazioen berri ematen hasi zenean, 1992-93ko neguan. Hartara, ETBko Meteorologi Zerbitzuak eta Euskara Zerbitzuak Euskaltzaindiraino helarazi zuten 'udaberri-elur', 'elur-hauts' eta gainerako elur motei zegozkien terminoen kontsulta.

Hirugarren unea 1990eko hamarkadaren erdialdean etorri zen. Euskal Telebistak lehen aldiz izan zituen meteorologo euskaldunak iragarpena euskaraz prestatzeko, eta eguraldiaren tartea kontzeptu meteorologikoen azalpenekin hornitzen hasi ziren. Iragarpena teknikoago bihurtu zen edukiz, baina aurkezleek jakin zuten azalpenak zelan eman diskurtso iritsi-erraz baten bidez, Andoni Aizpuruk herri-hizkeraren ildotik oratu zuen ereduari jarraituta. Laugarren unea hizkuntza-baliabideak bildu eta sortzeko unea izan zen. Eguraldiko berriemaile-taldea handituz zihoan, eta Euskara Zerbitzuak, berriei laguntzeko eta pantailako eredia aberatsago egiteko helburuz, herri-hizkeran eguraldiaz mintzatzeko erabiltzen diren hitz eta esamoldeak biltzeari ekin zion. Eraitza EiTbren datu-basean kargatu zen, 'Eguraldia' azpigaian. Geroago, 2000ko hamarkadaren

erdialdean, EiTBk iragarpena prestatzeko eta pantailaratzeko Euskalmetekin hitzarmena egin zuenean, hango meteorologoei komunikatzaile-prestakuntza ematea hitzartu zuten erakunde biek. Prestakuntza-saioak 2008-2009 epealdian eraman ziren aurrera, eta emaitza interesgarri bat utzi zuten: Euskaltermen euskarazko terminologia finkatzea.

Saio haien aitzakian, Euskalmeteko meteorologoen, EiTBko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin, euren terminologia guztia bildu, sistematizatu, eta definitu egin zuten. Ehun erregistrotik gorako taula bat osatu zuten, euskarazko terminoen ondoan gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko ordainak zituena. Taula, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko lantaldeari aurkeztu zitzaion 2008an EiTBren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren markoan, eta akademiak hainbat ohar eta iradokizun egin zituen. Taularen behin betiko bertsioa HIKEA datu-basean kargatu zen, 'Meteorologia' azpigaian. HIKEAk garbi islatzen du, beraz, zein diren eguraldiaren iragarpenerako hizkeraren mutur biak, herri-hizkera ('Eguraldia') eta hizkera teknikoa ('Meteorologia').

#### **4.5.3. Kanpo-produkzioko informazioa**

Euskal Telebistaren eskaintzan, kanpo-produkzioko genero informatiborik garrantzitsuena dokumentalak dira, gainerako generoak —erreportajea eta elkarrizketa, besteak beste— ETBn bertan ekoitziak izaten baitira. Badira barne-produkzioko dokumentalak ere, ETBren finantzazioarekin eta, hainbatetan, ETBren baliabideekin ekoizten direlako, baina, dokumental horiek ere, kanpo-produkziokoen sail honetan bil daitezke hizkuntza-tratamenduari dagokionez, gehien-gehienetan gaztelaniaz sortzen delako jatorrizko bertsioa, eta itzulpen bidez, geroago, euskarazko bertsioa. Hortaz, Euskal Telebistan, dokumentaletarako euskararen lanketa bikoizketako euskararen garapenari lotuta joan da nagusiki.

Edozelan ere, hizkuntza-ezaugarri jakin batzuk berariaz aztertu eta landu behar izan dira kanpo-produkzioko informaziorako. Hiru ezaugarri hauek, nagusiki: kontakizunaren tankera, lexikoa, eta kultur transferentziak. Kontakizunaren tankerari dagokionez, Euskara Sailak (1995b, 1995c) albistegietarako landutako erduan, iraganeko gertaerak



iraganaldiko aditz-flexioen bidez kontatzea gomendatu zuen baina, dokumentaletarako, orainaldian oinarrituriko kontara bat landu du, bigarren eskuliburuan (Larrinaga, 2007a, or. 71) jasota dagoena. Dokumentaletako kontakizunaren tankerarekin loturiko beste gogoeta bat hizkuntza-mailak eragin du. Izan ere, Larrinagak (2001, or. 118) dioenez, dokumentalen bikoizketan, ingeleseko hitz arrunten ordainez euskaraz teknizismoetara jo behar izaten da askotan eta, hortaz, konpentsazioak egin behar izaten dira euskarazko bertsioren hizkuntza-maila ez dadin gera jatorrizko testua baino askoz gorago.

Lexikoari dagokionez, Euskal Telebistak urteetan naturari buruzko dokumentalak eskaini baitzituen ia egunero, lan handia egin behar izan zen dokumentalotan azaltzen ziren bizidunak —animaliak zein landareak— euskaraz izendatzeko. ETBko eta bikoizketa-estudioetako hizkuntza-arduradunek (ETB, Edertrack, Irusoin, & K2000, 2004b) irizpide zehatz batzuk eman zituzten izenak sortzeko, eta denborarekin osatuz joan ziren zerrendak HIKEAn kargatu ziren, biologiari dagokion atalean. Horrez gainera, bizidunen taxonomia ere aztertu behar izan zen, dokumentaletan ohikoak ziren taxonak euskaraz egokiro aipatzeko. Hala, primateak (ETB, Edertrack, Irusoin, & K2000, 2004a), *Camelus* generoa eta Alligatoridae familia (ETB & Mixer, 2007b) aztertu ziren, besteak beste.

Kultur transferentziei dagokienez, dokumentalen euskarapenak erabaki jakin batzuk harrarazi zizkien ETBko eta estudioetako hizkuntza-arduradunei, kontakizunean, edukiaz harago, jatorrizko testuaren hizkuntzarekin eta gizarte-usadioekin loturiko arazoak sortzen zirelako, eta, hortaz, jarraibideak behar ziren euskarara eta euskal gizartera egokitzeko. Esaterako, bihurtze-taula batzuk osatu ziren Estatu Batuetatik eta Erresuma Batutik heltzen ziren gidoietako neurri-unitateak euskaraz emateko (ETB, Edertrack, Irusoin, & K2000, 2003), edo ideia batzuk proposatu ziren jatorrizko gidoietan agertzen ziren hitz markatuen gainean jatorrizko hizkuntzan eskaintzen ziren azalpenak euskarara moldatzeko (ETB & Mixer, 2006).

#### **4.5.4. Barne-produkzioko dramatikoak**

Sail honetan, Euskal Telebistak produzitzen dituen teleserieak, filmak eta —2018an hasita— webserieak biltzen dira. Hizkuntza egokiaren lanketari dagokionez, ahaleginik

handiena barne-produkzioko teleserieetan egiten da, filmetan erabakitzeko oso ahalmen mugatua uzten baitio —hizkuntza-tratamenduaz zein bestelako alderdiez— EPE/APV eta IBAIA produktore-elkarteekin sinatzen duen hitzarmenak. Egiten den ahalegin horren helburua da fikzioan agertzen diren pertsonaiak hizkuntzaren bidez karakterizatu ahal izateko irizpideak lantzea eta baliabideak garatzea, batik bat arlo bitan, euskalkien erabileran eta hizkera kolokialean.

Barne-produkzioko telesailetan, oinarria euskara batua izaten da, eta pertsonaien karakterizaziorako hitz egiteko modu ezberdinak batu horren gainean eraikitzen dira. *Goenkale* telesaila izan daiteke eredu horren paradigma. Oinarria euskara batua izanda, Otermin eta Díez Unzuetak (2006, or. 209–211) diotenez, elkarrizketak biziak dira, pertsonaia bakoitzak bere gizarte-mailaren eta jatorriaren arabera hizkera dauka eta, behar denean, euskal hitz eta esapide zaharrak erabiltzen dira eta, behar denean, hitz eta esapide modernoak. Seriearen arrakasta eta iraupena euskara-eredu horri egotz dakioke hein handi batean, telesaila kontsumitzeko eta balioesteko faktore nagusietako bat beraren euskara izan baita lehen unetik, aktoreekin eta gaiekin batera (Siadeco, 1995b, or. 24). Nolanahi ere den, esana dugu (Larrinaga, 2011b, or. 41) pertsonaia bakoitzaren hizkera aktorearen usadio eta ezintasunetara egokitzeko joera egon dela ETBk ekoiztiriko lehen telesailetik<sup>32</sup>, serie batzuetan ia-ia aktorearen euskalkia izateraino.

Ikusleek nahiko erraztat jotzen zuten *Goenkale*-ko euskara-eredu horretatik aldentzen lehena *Ertzainak* telesaila izan zen, 1999an. Serie hark berrikuntza asko ekarri zituen Euskal Herriko telebistagintzara. Alde batetik, generoa —polizi generoa— inoiz erabili gabea zen eta, bestetik, fikzioa errealitatetik gertu ibiltzea nahi zuten sortzaileek. Hizkuntzari dagokionez, Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoaren ispilu ona izango zelakoan, gidoilariak Bergara aukeratu zuten gertalekutzat, bizkaieraren eta gipuzkeraren arteko mugan (Tentazioak, 1999, or. 2). Pantailara era guztietako hitzunak ateratzen ziren, euskal gizartean aurki zitezkeen pertsona errealen ispilu modura: bizkaieradunak, gipuzkeradunak, euskaldun berriak, euskaldun zaharrak, jario onekoak, traketsak. Berdin jokatu da geroago beste serie batzuetan, adibidez, *Brinkola* eta *Mugaldekoak* entzutetsuetan, eta serieetako pertsonaien hizkeretan euskalkiak erabili

---

32 Telesail hura *Hau da A. U.* izan zen, 1990ean.

ahal izateko irizpidea *EiTBra*ko *hizkuntza-funtsak* dokumentuan jasota geratu zen 2005ean, lehenago ere aipatu dugun bezala (4.4.2. azpiatalean).

Hizkera kolokialari dagokionez, esan beharra dago ETBren serieetan garapen urria izan duela. Normalean, erregistro informala, kolokiala edo lagunartekoa (hiru moduetan izenda baitaiteke) euskalkietara joz konpondu da eta, horrez gainera, hitanoa erabili da, osagarri modura batzuetan, alternatiba modura beste batzuetan. *Martin* telesailean hala jokatu zen, eta eredu bera erabili da ETBren barne-produkzioko hainbat programatan, *Wazemank* sagan, adibidez. Gazte-giroko serieetan, ordea, ez da eredu hori baliatu, elkarrizketa errealistagoak lortzen baitziren lokuzio eta esapide jakin batzuk tartekatuz *Goenkale*-n erabiltzen zen bezalako euskara batuan. Izan ere, telebistan ez da derrigorrezkotzat jotzen pantailan erabiltzen diren hizkerak mintzamolde errealean erreproduzio fidelak izatea; lehenago ere azaldu dugunez (Larrinaga, 2005c, or. 49), nahikotzat jotzen da hiztegiko eta sintaxiko ezaugarri batzuk agertzea hizkera karakterizatzen. Hala eta guzti, gazteen arteko hizkerari dagokionez, gutxieneko hori ere landu barik zegoen 2001ean *Hasiberriak* ekoiztea erabaki zenean.

Horren aurrean, preproduzio fasean, ETBko hizkuntzalariek ekimen bi abiarazi zituzten gidoilariari laguntzeko helburuz (Larrinaga, 2008, or. 45–46). Lehen ekimen gisa, hiztegi-inkesta bi prestatu zituzten, bata sexuari buruzkoa eta bestea drogari buruzkoa, eta haien bitartez hainbat hitz eta esamolde jaso zituzten euskal hiztunengandik. Geroago, HIKEA datu-basean kargatu ziren denak, hizkera kolokialaren atalean. Bigarren ekimen gisa, gidoilariarentzako gida moduko batean jaso zituen gazte-hizkerak edozein hizkuntzatan dituen ezaugarri diskurtsiboak.

«[Gazte-hizkera] estilo kolokialekoa da, eta erdiko mailatik goragokoa inoiz ez. Sintaxian, esate baterako, ezaugarri hauetan gauzatuta dago izaera hori.

- Gazte hizkeran hitzen ekonomia da lege: berba egitean adierazteko modu motz eta bizietara jotzen da.
- Perpasa osatzen duten elementuak ordenatzeko, ahozko erabilera izan behar da gogoan eta informazioa helaraztea jarri behar da lehentasuntzat». (Larrinaga, 2008, or. 46)

ETBren serieetan, berriro ez da azaldu halako gazte-hizkera kolokialaren premiarik eta, oro har, kanpo-produkzioaren bikoizketarekin loturik egon da beroren garapena.

#### **4.5.5. Kanpo-produkzioko dramatikoak**

Zerbitzu aldian, lorpen bi nabarmendu behar dira ETBk erosten dituen film eta telesailen bikoizketa-prozesuari dagokionez: hizkuntza-eredua finkatu zela, eta ETBren eta estudioen arteko elkarlanaren oinarriak ezarri zirela. Hortik abiatuta, aurrerapausoak egiten hasi ziren 2004an, Euskal Telebistak bikoizketa-zerbitzuaren lizitazioa atera eta kontratua Mixer estudioari esleitu zitzaionean. Mixer ETBren hornitzaile estrategiko bihurtuta, Euskara Zerbitzuak bere kalitate-dinamikan txertatu zuen (Larrinaga, 2007b, or. 101). Hala, 2004ko abenduan, Euskal Telebistak estrategia-batzar batera deitu zituen ETBn eta Mixerren bikoizketa-prozesuarekin lotura zeukaten arduradun guztiak. Bileran egon zen iritzi-truketik, aurrera begirako ekintza batzuk erabaki ziren (EiTBko Kalitate Zuzendaritza, 2004a): a) euskarazko bikoizketarako hizkuntza-irizpideak lantzen jarraitu behar zen, ikusleei produktu gero eta erosoagoak eskaintzeko helburuz; b) ETBren eta Mixerren arteko elkarlanean sakontzen jarraitu behar zen, bikoizketen kalitatea hobetzeko helburuz, eta c) negozioaren etorkizuna planifikatu behar zen. Laburbilduz, aldi berri honetan, hizkuntza-ereduaren egokitasunean eta ikus-entzunezko industriaren antolakuntzan egin nahi ziren aurrerapausoak.

Hizkuntza-ereduaren egokitasunari dagokionez, lanketak ildo bi izan ditu. Lehenean, ardura nagusia gramatikako eta hiztegiko gaiak izan dira eta, lanketa horretatik, itzulpenaren zailtasunak gainditzeko argibideak zein baliabideak sortu dira. Bigarren ildoan, berriz, eredia bera definitzera eta zedarriztatzerazuzendu da eta, emaitza modura, hizkuntza-hautuak egiteko irizpideak eskaini dira. Bigarren ildo honen barruan, azpidatziak prestatzeko irizpideak bilduko ditugu. ETB1en kanpo-produkzioko film eta telesailak bikoiztuta eskaintzea erabaki zen lehen unetik baina, hala eta guzti, euskaraz azpidatziriko jatorrizko bertsioen lehen eskaintza ere hasierako urteetakoa da, *Buster Keaton* programan (Larrinaga, 2007b, or. 98). Eskaintza horrek tamaina garrantzitsua hartu zuenean, azpidazteko irizpide batzuk eman behar izan ziren.

Gramatikako gaien lanketatik hasita, ETBk eta hiru estudioek baterako saiakera bat egin zuten 2001ean, eta film eta telesail bikoiztuetan hitanoa zelan erabili adostu zuten *Tratamenduak ETBko fikzioan* (Euskal Telebista, Edertrack, Irusoin, & K2000, 2001) izeneko dokumentuan. Hurrengo saiakera 2003an abiarazi zuten, *Bikoizketan elkarlanean* zeritzen orriak prestatzen hasi zirenean. Urtean bi edo hiru ale ateratzea zen asmoa, euskarazko bikoizketan arazoa ematen zuten hizkuntza-gaiak landuz, hala nola, Estatu Batuetako epaiketetako esapideak, *any* ingeles determinatzailearen euskarazko ordainak, filmetan errepikatzen diren esaldi eginen euskarazko bertsioa, eta dardarkarien ahoskera. 2004ko hobekuntza-batzarraren ostean, Mixerrek eta ETBk erabaki zuten biak bietara arituko zirela hizkuntza-ereduaren lanketan. Beste sei urtez atera zuten *Bikoizketan elkarlanean*, gai berriekin, hala nola, 'g' eta 'j' letren ahoskera, iragarkietako prezio-esapideak, ingelesez *never* aditzondoaren bidez osatzen diren ezezko perpausak, eta interjekzioak.

Adibide moduan ipini diren gai horiek eta gainerakoek euskarazko itzulpengintza osoa uki dezakete, baina batzuek garrantzi berezia dute bikoizketan. Gai horietako bat ingeleseko *past simple* eta frantseseko *passé composé* aditz-aldiei euskaraz dagozkien ordainen gainekoa da, *Bikoizketan elkarlanean (XIII)* (ETB & Mixer, 2008) orrian aztertua. Oso itzulgai garrantzitsua da, denboran behar bezala kokatzeko film eta telesailetan kontatzen diren gertakizunak. Halako beste gai bat esaldi amaierako galdegaien gainekoa da, *Bikoizketan elkarlanean (XVII)* (ETB & Mixer, 2010) orrian aztertua. Hori ere oso itzulgai garrantzitsua da, diskurtso-baliabide ahaltsua delako filmen eta telesailen gidoietan, besteak beste, ezusteko informazioa emateko, jakin-mina sortzeko, zein datu igartzen errazak isiltzeko.

Marrazki bizidunen salbuespenarekin, euskarazko bikoizketa 2010eko lehen urteetan amaitu zen eta, hortaz, hizkuntza egokia lantzeko ahalegina ere bai. Tesi honen egileak eskura dituen datuen arabera, ETBk euskarara bikoizteko enkargatu zuen azken filma *Gran Torino* izan zen, 2011ko urrian. Azken dokumental-saila, *Good Morning Kalimatan*, 2012ko otsailean. Azken teleseriea, *Chuck*. Lehendabiziko denboraldia 2011ko ekainean eman zen, ETB3n, eta bigarrena —2012ko abenduan bikoizten amaitu zena— ez zen emititu 2014ra arte, ETB1en.

2017-2018 denboraldian —aspaldiko partez— *Merli* telesail katalana euskarara ekartzeko aukera sortu dela eta, bikoizketako euskara lantzeko beste saiakera bat egin behar izan da, hizkuntza-ezaugarri oso bereziak baititu. *Merli (pilotua)* (ETB & Mixer, 2017) txostenean aztertu bezala, pertsonaia gazteek euren garaiko hizkera informala darabilte, eta horrek berriro ekarri du ETBra gazteen arteko euskara kolokialaren erronka. 2001ean *Hasiberriak* ekoitzi zenetik, ETBko hizkuntzalariek inkestak eta arakatzeak egiten segitu dute, gazteek euskaraz erabiltzen dituzten lokuzioak eta esamoldeak jasoz. Helburua da saioetan eta bikoizketan euskara kolokial kaletarragoa eta garaikideagoa erabili ahal izatea. Behar izan denean, *Merli*-ren kasuan bezala, asmatu ere egin da —adibidez, «*mola dit*» (atsegin dut), «*behingo puta batean*» (behingoz), «*begikarratu*» (ikastuna)—. Ohi denez, HIKEAn gorde da guztia.

Horrez gainera, pertsonaiek hitz egiteko modu desberdinak dituztela igartzen da jatorrizko bertsioan eta, euskarazko bertsioan ere, ugaritasuna erakutsi nahi izan da. Alde batetik, pertsonaiaetako batzuen hizkerak mendebaldeko euskara du abiapuntu modura. Beste alde batetik, tratamendu berezia eman zaie birao eta gordinkeriei. *Bikoizketan elkarlanean (XI)* (ETB & Mixer, 2007a) egin zen lehen lanketa film eta serieetako hizkera gordina euskarara ekartzeko eta, 2017an, *Merli*-ren bikoizketarako, gordinkerien graduazioak proposatu dira, adibidez, «*ostia!*» eta «*ostra!*» haserrea adierazteko biraoetan, edo «*alua*», «*lerdoa*» eta «*tontoa*» iraintzeko kalifikatzaileetan. Kalifikazioak gordinki botatzeko moduak ere landu dira, esate baterako, «*aspergarri mortala da*» edo «*zabor totala zara*».

Hizkuntza egokiaren lanketarekin lotuta, baina gramatikako eta hiztegiko gaiak alde batera utzita, ETBk eta Mixerrek *ETB-Ientzat bikoizteko irizpide nagusiak* (Zulueta & Eguskiza, 2005) izeneko dokumentua sortu zuten. Bertan, euskarazko bikoizketarako hizkuntza-eredua deskribatu zen, helburua izanik ikusle euskaldunari beste edozein hizkuntzatan aurki zitezkeen bezain bikoizketa kontsumierrazak eskaintzea. Irizpide nagusia zen euskara batua erabiltzea. Batua eredu behar bezain zabal eta aberastzat jotzen zen jatorriko programaren hizkuntza-ugaritasunari erantzuteko. Eredu batu horren barruan, gainera, itzultzaileak ez zeukan zertan uko egin bere hizkuntza-usadioei. Filmetan, irakaskuntzako, literaturako eta hedabideetako testuetan toki egindako hitzak eta egiturak hobetsiko ziren eta, hizkuntza-aldaeretako hutsuneen aurrean, unean uneko

irtenbideetatik harago, bilketa eta luzera begirako lanketa egin behar zen. Lehenbait modura, publizitateko, umoreko eta lagunarteko hizkerak landuko ziren.

Azpidatziak prestatzeko irizpideei dagokienez, bestalde, beharrezana *Klasikoak jatorriz* zinema-zikloak ekarri zuen 2000. urtean. Zikloaren barruan, hogeita hamar film baino gehiago eskaini ziren. Azpidatziatarako jarraibideak —hala nola, lerroen neurria, justifikazioa, eta pantailan utzi beharreko denbora— ETBko eta bikoizketa-etxeetako euskara-arduradunek landu zituzten, Ivarssonek (1992) azpidazketaz egindako estudioa aintzat hartuta. Lehen jarraibide haiek urteetako esperientziarekin aberastu ziren, eta *Bikoizketan elkarlanean (XVIII)* (ETB & Mixer, 2011) orrian jaso ziren, gorrentzako azpidazketa egokituan bete beharreko arauak eta prozedurak gehituta. Arau eta prozedura horiek AENOR-ek 2003an eman zuen UNE 153010 arauari jarraitzen zioten.

ETBk eta Mixerrek 2004an egin zuten estrategia-batzarrean, hizkuntza-eredua lantzen jarraitzeaz gainera, ikus-entzunezko industriaren antolakuntzan aurrerapausoak egitea erabaki zuten, bikoizketen kalitatearen hobekuntza helburu. Guztira, zortzi bat urteko epean, hiru ekintza abiarazi ziren. Lehen ekintza, 2005ean, aginte-koadro bat prestatzea izan zen, hainbat adierazlerekin. Hizkuntza-arlokoak bi ziren: euskarazko gidoiaren hizkuntza-kalitatea eta euskarazko audioaren kalitate prosodiko-artistikoa (Higuera & Gurrutxaga, 2005). Programa bikoiztuetan, laginketa bat egiten zen, eta lagin bakoitzari 0 eta 5 arteko puntuazioa jartzen zion ETBk adierazle bakoitzean, erakunde biek adostutako irizpideen arabera. Urtea amaitutakoan, lagin guztien batezbestekoa egiten zen generoka —filmak eta serieak; dokumentalak; marrazki bizidunak—, eta urtearen hasieran jarritako helburuak betetzen ote ziren aztertzen zen. Aginte-koadroan (Marcos, 2008, 2011) jasotako datuen arabera, hobekuntza esangarria gertatu zen 2005 eta 2011 urteen bitartean euskarazko bikoizketan.

Elkarlanean sakontzeko bigarren ekintza modura, Euskara Zerbitzuak eta Mixerrek (2007) 'pilotu' zeritzen txostenetan oinarrituriko prozedura bat onartu zuten, telesailen eta animazio-serieen bikoizketa prestatzen eta bideratzen laguntzeko. Programa berri bat etortzen zenean, Mixerrek txosten bat landu behar zuen bikoizketarako irizpide eta jarraibideen aplikazioa azalduz: izenburua euskaratuko zen ala ez; pertsonaia bakoitzari zer izen ipiniko zitzaion euskaraz; zer berezitasun zeukan pertsonaia bakoitzaren jatorrizko hizkerak, eta zelan emango zen euskaraz; nor izango ziren bikoizleak;

pantailan zer idatzi agertuko ziren; abestiak euskaraz berregingo ziren ala ez. Pilotua dokumentu irekia zen Euskara Zerbitzuak bere iradokizunak egin zitzaizkien. Prozeduraren osagarri modura, urtean bi edo hiru aldiz, jarraipen-batzar batean biltzen ziren ETBko euskara-arduradunak eta Mixerreko euskara-arduradunak, areto-zuzendariak eta itzultzaile-egokitzaileak, bikoizketako zailtasunak eta gorabehera aztertzeko.

Hirugarren ekintza bikoizketaren negozioa planifikatzera egon zen zuzenduta. Lehenik eta behin, 2000ko hamarkadaren erdialdean, Mixerrek itzultzaile-egokitzaileen eta bikoizleen merkatuaren datuak jaso zituen. Datuek erakutsi zuten gabezia zegoela bikoizketarako ahotsetan, eta estudioak ETBri ekintza-plan bat aurkeztea erabaki zuen: *Reflexión estratégica: El doblaje al euskara en Euskadi* (Mixer, 2008). Plan haren abiapuntua zen bikoizketaren negozioak erreferentziazko bezero bat zuela, Euskal Telebista, eta lan-bolumen apala, itzultzaile zein bikoizle profesional gehienei bizibidea bermatzeko bestekoa ez, behintzat. Euskal Telebistak jarraipen eta ebaluazio zorrotza egiten zion bikoizketako profesionalen lanari baina, edozelan ere, euskarazko bikoizketa ez zen ikusleengana heltzen.

Horren aurrean, etorkizunari begira, sei lan-ildo proposatu ziren Mixerren planean. Beharrezkotzat jotzen zen administrazio publikoek ikus-entzunezkoen euskarazko eskaintza sendotzeko ekimenak sustatzea. Telebistan, serie eta filmen programazioa gehitu egin behar zen. Mixerren planean, lan-ildo garrantzitsua zen bikoizle berrien prestakuntza. Itzultzaile-egokitzaile berrien prestakuntza ere bai. Sektorereko enpresetan, kalitatea eta lehiakortasuna bilatu behar ziren. Publikoa, azkenik, euskarazko bikoizketara erakartzeko ahalegina egin behar zen.

Bikoizketaren gaineko gogoeta estrategiko hori eta bertan jasotako lan-ildoak Jaurlaritzaraino heldu ziren. Hala eta guzti, administrazio publikoei eskatzen zitzaizkien rolari zegokionez, Jaurlaritzaren Euskara Sustatzeko Ekintza Planak, 2012an, ez zuen ekimenik proposatu ikus-entzunezkoen euskarazko eskaintza sendotzera zuzenduta. ETBren aldetik, kanpo-produkzioako film eta telesailen eskaintza, gehituz joan beharrean, urrituz joan zen 2010eko lehen urteetan, eta guztiaren ondorio da, gorago esan bezala, hamarkadaren erdialderako euskarazko bikoizketa ia-ia desagertu dela. Bikoizketarako euskara egokiaren lanketa ere, beraz, neurri handi batean, bertan behera geldituta dago, *Merli*-rekin abiatu bezalako ekimen puntualak salbuetsita.



#### 4.5.6. Barne-produkzioko entretenimendua

Askotariko programak biltzen dira sail honen barruan, besteak beste, magazinak (*Bertatik Bertara*, *Sautrela*, *Hitzetik Hortzera*), kirol-emankizunak, lehiaketak (*Axut*, *Mihiluze*), telerealitatea (*Basetxea*, *Barnetegia*) eta oholtzako ikuskizunak (*Funtzioa*, *Barre busa*, *Euskaraokea*), ohikoenak aipatzearen. Horietako batzuk 1980ko hamarkadatik egiten ziren ETBn, eta hainbati hizkuntzalari bat atxiki zitzaien 1990eko urteetan, baina hizkuntza-zaintzaren arreta zuzentasunean jarrita zegoen. Hortaz, ia 2000ko hamarkadaren erdialdera arte, oso gutxi aurreratu zen hizkuntza-ereduaren egokitasunean. Euskararen lanketari ekin zaionean, arazo jakin batzuk atzeman dira programa-mota bakoitzean, baina multzo bitan bil ditzakegu gehienak: hiztegi-premiak, eta kolokialtasunarekin loturiko zailtasunak.

Hiztegi-lanketarekin hasita, kirol-emankizunetan beharrezkoak ziren hitz eta esamolde asko informazio-saioetan ere behar ziren eta, hala, premiei erantzuna emateko lehen saiakera albistegietarako beste glosario batzuen prestaketarekin batera etorri zen 1990eko azken urteetan. Lehen gaiak automobilismoa, atletismoa eta igeriketa izan ziren. Saskibaloiko glosarioa 2008ko lantalde mistoetan osatu zen eta, aurrerago, beste zenbait egin dira. Bestelako saioetan, premiak sortu ahala gertatu dira hitz-zerrendak, esate baterako, jantziei eta modari buruzkoa *Itxuroso* saiorako, edo sukaldaritzari buruzkoa *Otorduan*, *Karlos Arguiñano* programarako. Halako glosario eta zerrendak komunikatzaileen lana errazteko helburuz osatzen dira gehien bat, eta ez euskaraz landu barik egon daitekeen arlo batean terminologia finkatzeko asmoz.

Kolokialtasuna dela eta, harira dator euskara estandarra literaturarako sortu zela gogoraraztea, edo, Salaburuk (2.3.4.1. puntuan ikusi dugunez) Leioako biltzarraren atarian esan zuen bezala, hizkera zaindurako. Errealitateak erakutsi du, ordea, euskara batuak erregistro guztietan funtzionatu behar duela eta funtziona dezakeela, idatzian zein ahozkoan, zainduan zein bat-batekoan, formalean zein kolokialean, eta euskarazko telebista da frogia. Horrek ez du esan nahi hiztun guztien komunikazio-premia guztiak betetzen dituenik. Euren premiak betetzeko modua euskara batutik kanpo bilatzen duten hiztunak debate publikoan mintzaten direnean, argudio nagusia izaten da batuak ez duela malgutasunik, kolore bakarrekoa dela. Beste hiztun batzuentzat, berriz,

gaitzesgarriak dira batuan aurkitzen ez den malgutasunaren bila egiten diren hautuak. Azken iritzi horretakoa da Anjel Lertxundi (2015) idazle eta gidoilaria:

«Eta malgutasunik ez duenez, *qué subidón!* bezalako haize biguinak hauspotzen dizkiogu barra-barra irrati-telebistatik, gure solasetatik. Nekez ezer malgu esker onekoagorik haize hegoaren gau epela baino.

Dakiena mintza bedi, baina ni nago batuaren noranahikoa ukatzen duenak ez duela tutik, izpirik, mistik, fisik ulertu zer den batua. Ez du zipitzik aditu, piperrik konprenitu, koskorrik jaso, zakilik usaindu zer den estandarra».

ETBn eskaintzen diren programen kasuan, umorezkoetan geratu da agerien hiztun batzuentzat euskara batua hankamotz geratzen dela informaltasun eta kolokialtasunaren esparruan. Iritzia, hala eta ere, ez da aho batekoa. Xabier Euzkitze (2012) bertsolariak, telebistan *Sorginen laratza* eta beste saio asko aurkeztu dituenak, uste du batua oinarri baliagarria izan daitekeela umorean:

«EITBko euskal kateetako umore saioetan ere joera horren aldeko apustua egin zuten. Euskara batuan grazia aparta leukaketen umorista bikainak gipuzkera itxi eta presakakoan aritzen dira etengabe. [...] Niri tristura eragiten dit, moztasun eta estrategia erabat okerra adierazten duela iruditzen baitzait. Euskara batua, graziaz erabiltzeko gai ez direnen ahotan bakarrik da lotua eta artifiziala».

Nekez uka daiteke, edozelan ere, ETBren telesailetarako eta bikoizketarako landu den euskara kolokiala —hitz- eta esamolde-zerrenda batzuk, sintaxiari buruzko gomendio batzuk— oso urrun dagoela umorezko programetan izaten diren hizkuntza-premietatik. Esketxak, monologoak, txistek eta imitazioak eskaintzen dituzten programetan, hizkerak adierazkortasuna behar du. Hizkera adierazkorra, nagusiki, lagunarteko egoerekin eta kolokialtasunarekin lotzen da —hain zuzen, umorean ohi diren bezalako egoerekin— baina, egokitasunetik urrats bat aurrerago eginda, hizkuntza-baliabide markatuak<sup>33</sup> erabiltzea eskatzen du (Larrinaga, 2014c).

---

33 'Hesteak bota' (*barrez lehertu*) esapidea edo hitanoa [+ informal] ezaugarriarekin markatuta dauden bezala.

Baliabide markatu horien bila, ETBren umorezko programetako aktore, zuzendari, gidoilari eta elkarrizketalariek bide propioa urratu dute, EiTbko Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean aritzea baztertuta. *Txiskola* eta —hein apalagoan— *Irrikitown* saioak salbuetsita, bide propio horrek euskalkietara eta gaztelaniara eraman ditu. Umorean euskalkiak ustiatzen, aitzindaria *Sorginen laratza* izan zen eta, atzetik, *Wazemank* programa-saga etorri zen. *Wazemank* sagan, asmatze ontzat eta arrakastaren gakotzat jo daiteke pertsonaiak eta egoerak euskalkien eta euskararen beste aldaera batzuen bidez karakterizatzeko saiakera baina, aldi berean, lehenago esana dugunez (Larrinaga, 2014c), sagako euskararen ez da igartzen euskal ikusle guztiengana heltzeko kezkarik, ezta beste programa edo egoera batzuetan erabilgarri izan daitezkeen adierazkortasun-baliabideak lantzeko kezkarik ere.

#### **4.5.7. Kanpo-produkzioko entretenimendua**

Kanpo-produkzioko entretenimenduak oso tarte txikia hartzen du egun ETBren euskarazko programazioan —bikoizketa guztiaren tarte bera oso txikia baita—, eta saio gehienak telerealitatearen esparrukoak dira; beste hainbat, zirkuko ikuskizunak. Lehenago bezala, zerbitzu aldian ez da hizkuntza-lanketa berezirik egin entretenigarriak bikoizteko, baina euskaratzeko formula berri bat probatu da.

ETBk *Supernanny*-ren eskubideak erosi eta euskaraz emititzea erabaki zuenean, 2006. urtean, Euskara Zerbitzuak pentsatu zuen produktuak berriazko hizkuntza-tratamendua behar zuela, euskal ikusleei jatorrizko ikusle britainiarren emozio bertsua sentiarazteko helburuz. ETBko hizkuntzalariek proposamen bat landu zuten eta, bikoizketa-estudioko arduradunekin eta ETBko programazio-buruekin aztertu ondoren, tratamendu horretan bikoizketa eta azpidazketa konbinatzea adostu zen (Larrinaga, 2013c, or. 196–197). Bikoizketa deskribapenetan, kontakizunetan eta azalpen-egoeretan baliatuko zen, eta azpidazketa, egoera emozionalagoetan. Irudiak hitzak baino adierazkorragoak zirenean, bere horretan utziko ziren, euskarazko inolako bertsiorik gabe. Bikoizketa eta azpidazketa txandakatzeko teknika hori, harrezkero, kanpo-produkzioko telerealitatean eta dokumentaletan erabili da.

#### 4.5.8. Kanpo-produkzioko publizitatea

Hizkuntza-lanketaren ikuspegitik, ETBk euskaraz emititzen duen publizitatea bikoizketaren arloari dagokio, hutsaren hurrengoia baita euskaraz sortzen diren iragarkien edo kanpainen kopurua. Euskaraz lokutaturiko iragarkiak 1990eko lehen urteetan heldu ziren ETB1era modu esanguratsuan baina, EiTbko Euskara Zerbitzuaren aldetik, hamarkada horren amaieran ekin zitzaion iragarkietako euskara zaintze eta lantzeari, bikoizketa-estudioekiko harremanak normalizatzen hasi zirenean. Azken urteetan, arreta handia eskaintzen zaio zaintze eta lantze horri, EiTb Talde osoarentzat konpromiso bat baita gizarteak axolazkotzat dauzkan esparruekin elkartzea euskara.

Debate publikoan, ideia onartua da euskarazko publizitate-sorkuntzak ekarri garrantzitsua egin diezaiokeela euskararen sustapenari. Errealitatea da, ordea, ETBn nahiz gainerako hedabideetan euskaraz zabaltzen diren publizitate-testuak arakatzuz gero ia guztiak itzulpenak direla. Kasurik onenean ere, alegia, euskararekin konpromisoa duten iragarleen kasuan ere, erdaraz egiten da sormen-prozesu guztia. Hala salatu du Iñigo Fernández (2009) publizistak:

«Euskaltelen “*publizitate-kanpainek elebidunak izan behar dute*”, hala dio enpresak berak bere webgunean, “*hizkuntza-politika*” atalean. Baina hori ez da nahikoa, jarri ditugun adibideek argi erakusten dutenez. Euskaltelek jakin behar luke bi hizkuntzetan sinatu eta zabalduko dituen publizitate kanpainak, **ele bietan “egon” ez ezik, ele bietan “funtzionatu” ere** egin behar dutela».

Etorkizunera begiratuta, badirudi euskarazko publizitateak itzulpenaren morroi izaten jarraituko duela. Estitxu Garai (2013) UPV/EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakasleak publizitate-agentzietan egindako ikerketaren arabera, kanpaina elebidunak egiten dituzten publizitate-agentziek gaztelaniaz eramaten dute sortze-prozesu osoa, eta euskarazko bertsioa azken unean eta itzulpen bidez prestatzen da. Hori baino gehiago:

«Publizitate agentzien sormen prozeduran urrats orokor batzuk zehaztu daitezkeen arren, publizitate elebiduna sortzeko eredu estandarrik ez dago, lan egiteko era aldatu egiten baita agentziaz

agentzia. Are gehiago, publizitate-agentzia bat beraren baitan ere kanpainaz kanpaina lan egiteko modu ezberdinak daude, unerik une sortutako beharizan edo arazoak tarteko. Horrek adierazten du elebitasunari eta hizkuntzaren gaiari garrantzia handirik ez zaiola ematen». (E. Garai, 2013, or. 148)

Garaik egindako inkestetan agerturikoaren arabera, gainera, publizisten artean, ideia zabaldua da euskarazko publizitate-mezuak gaztelaniazkoak baino makalagoak direla hizkuntzaren egitura eta baliabideak direla kausa. Publizitatea euskaratzen aritzen diren itzultzaileen iritziz, ordea, makaltasun hori gaztelaniaren menpekotasunaren ondorioa da. Fernándezek (2010a) ohartarazi bezala, erdararen hitz-joko edo esamoldeetan oinarritzen diren kanpainak nekez funtziona dezakete euskaraz ere. Alde horretatik, pentsa daiteke itzulpenaren bidez zail egiten dela publizitate-testuak zuzenak eta jatorrak baino gehiago izatea, alegia, eraginkorrak izatea Fernándezek berak (2010b) aipatzen duen ikuspegi komunikatibotik. Zailtasunak zailtasun, gure ustea (Larrinaga, 2007b, or. 99) da ETBn zalantzatik kanpo utzi dela bikoizketa bidez behar bezalako publizitate-testuak ekoitz daitezkeela euskaraz. Gauza bera esan behar da Euskadi Irratiari buruz. Horren frogatzat har daitezke EiTbK euskarazko kanaletara doan publizitatearen bidez lortzen dituen diru-sarrerak (3.3.3.2. puntuan aztertu ditugunak).

ETB2 sortu zen arte, Euskal Telebistara oso publizitate gutxi heltzen zen, eta euskaraz, ia iragarki bat ere ez. ETB1entzat, 1989-90 denboraldia izan zen inflexioaren unea. Denboraldi hartan, FORTAk Espainiako futbol-ligaren telebista-eskubideak eskuratu zituen eta, futbolarekin batera, publizitate-pakete garrantzitsua. ETBk euskarazko kanalera zuzendu zituen partiduen emankizunak, gainerako kirol-emankizunak bezala, eta futbolari atxikita zetorren publizitateak ETB1en gaztelania sartzea ekarri zuen. 1991n, EiTbK euskarari publizitatearen arloan bultzada bat emateko konpromisoa hartu zuen bere gain, eta ETBra zihoazen iragarkiok euskaratuta emititzea erabaki zuen, bikoizketa bidez euskaratzeko kostua bere gain hartuta.

Futbolak urratu zuen bidetik, beste kanpaina batzuk etorri ziren geroago ETB1era. Erakunde publikoek eta enpresa batzuek —hala nola, Baqué, Kaiku, Euskaltel eta Codorníu— euskaraz ekarri dituzte euren iragarkiak hasieratik, euren kontura

bikoiztuta. ETBk doan eskaintzen die hizkuntza-aholkularitza. Gainerakoen iragarkien itzulpena eta bikoizketa, esan bezala, ETBk bere diruarekin ordaintzea erabaki zuen, eta lana bikoizketa-estudioei agintzea. Gehienetan, ETB1era doan iragarkiaren euskarazko bertsioa nekez izaten da lokuzioa euskaraz berregitea baino gehiago. EiTbko Zuzendaritzak, edozelan ere, irmoki eusten dio euskara publizitatean sustatzeko konpromisoari eta, 2000. urtetik, publizitate-kanpaina gaztelaniazko kanalean sartu nahi duten enpresei euskarazko kanalean ere sartzeko gonbita egiten zaie negoziazioetan. EiTbren konpromiso horrek helburu bikoitza du (EiTb, 2011, or. 33). Lehenengo, euskarak emaitza komertzial onak izan ditzakeela erakustea, eta gure hizkuntza beti baliorik gabeko esparruekin lotzen duen irudia gezurtatzea. Bigarren, iragarleei ikusaraztea badutela beste bide bat euskal gizartera iristeko.

Enpresak bere gain hartu duen arduraren aurrean, Euskara Zerbitzuak publizitateari eta publizitateko hizkerari berariazko arreta emanez erantzun du, bikoizketa-estudioekin elkarlanean. Hiru izan dira arretaguneak. Lehen, iragarkietan agertzen diren hainbat produktu euskaraz nola izendatu, esate baterako, panpinen objektu eta osagarriak, edo bizarra kentzeko tresna. Bigarren arretagunea publizitatean ohikoak diren esaldi eta esapide eginak euskaraz emateko formulak finkatzea izan da, adibidez, produktuak erakunde baten edo enpresa baten bermea duela adierazteko. Hirugarren arretagunea erdarazko publizitate-testuetan ohikoak diren zenbait gramatika-egitura euskarazko testuetara ekartzeko modua izan da, adibidez, ondorio-perpausak, edo prezioei dagozkien egiturak. Aipaturiko hizkuntza-gai horiek guztiak *Bikoizketan elkarlanean* orrietan jaso ziren. Egun, ez da orririk ateratzen, baina Euskara Zerbitzuak segitzen du hizkera publizitarioa lantzen. Besteak beste, iragarkietan informazio osagarria emateko formulei eman zaie arreta (Euskara Zerbitzua, 2016).

#### **4.5.9. ETBren eredu prosodikoa**

Euskal Telebistak euskararen corpusaren arloan egin duen lanaren azterketa osatu eta biribiltzeko, pantailarako eredu prosodikoaren garapenean ipiniko dugu arreta. Azterketaren lehenengo ideia aipagarria da euskara batuari, zeina idatzirako pentsatua baitzen, Euskal Telebistan eta Euskadi Irratian eman zitzaizola ahotsa hein handi batean.

EiTBren lehendabiziko unetik, jarraibide prosodiko batzuk prestatu ziren, oso sinpleak, eta beste hizkuntza batzuen eredu estandarrerako ematen direnen oso parekoak. Euskaltzaindiak hainbat urte geroago eman zuen ahoskeraren araua jarraibide haien ildotik etorri zen, EiTBk parte-hartze zuzena izan baitzuen beraren prestaketan (2.3.4.1. puntuan esan dugunez).

EiTBk bere emanaldietarako aukeratu zuen euskara estandarra ahoskatzeko lehen gomendioak Donostiako Irrati eta Telebista Eskolan landu ziren, esatari eta aktoreak euskarazko ahoskeran, azentuan eta intonazioan trebatzeko (Mendiguren Bereziartu, 2012, or. 499). Estandarretan ohi denez, idatziari hurbiletik jarraitzea zen ereduaren muina eta, banakako hotsei dagokienez, txistukariak ondo bereiztea azpimarratzen zen, harmonia bokalikoak eta sinkopak baztertu egiten ziren, eta —irizpide zorrotz bat ezarri ezinda— nahiko libre uzten zen “j” letraren eta “il” eta “in” digrafoen ebakera (Larrinaga, 2011b, or. 44–45). Prosodiari dagokionez, EiTBraiko hobetsi zen irizpidea izan zen euskararen berezko eredutzat har zitezkeen guztiak ontzat ematea (Larrinaga, 1998, or. 465). Horretan, Vallverdú (1986, or. 323) dioenaren arabera, berdin jokatu zuen TVC telebista katalanak. Jarraibide prosodiko zehatzagoak, esate baterako, berbaldiko etenei, hitz-andanei, edo galdegaiaren eta mintzagaiaren doinuerei buruzkoak, askoz urte geroago eman dira, *Euskarazko albistegietarako esku-liburua II* (Larrinaga, 2007a, or. 118–120) prestatu zenean.

#### **4.6. ETBren HIZKUNTZA-HAUTUEN INPLEMENTAZIOA PERFORMANTZIA ALDIAN**

Aurreko kapituluan bezala honetan ere, azken atalean aztertuko dugu ETBk —EiTBk, oro har— zer egitura eta zer bitarteko antolatu dituen bai profesionalengan, bai ikusleengan pentsatuta, performantzia aldian egin dituen hizkuntza-hautuak erakundean inplementatu eta euskarazko emanaldiak aurrera atera ahal izateko. Hautu horiek honela laburbil daitezke: gizarte elebidun bati ikus-entzunezko zerbitzua ematea; zerbitzu horretan euskararen kalitatea zaintzea, eta zerbitzu horretarako euskara lantzea. ETBren lehen aldiko hautu berak dira, baina, jakina, arlo bakoitzean aurkitzen diren zailtasunak, inplementatu behar diren neurriak, eta intereseko diren arretaguneak ez dira lehengoak, eboluzio bat egon delako euskararen normalizazioan eta ETBren HPPan.

Euskal gizartean, euskararen ezagutza —oinarrizkoa, behintzat— asko zabaldu da, eta herritar askoren interesa ezagutza hori hobetzea da. Orain, herritar gehienentzat, duten ezagutza-maila dutela, hizkuntza ez da ETBren euskarazko emanaldiak kontsumitzeko muga bat, eta ETBk, irismenaren kezkarik gabe, arreta bere produktuen kalitatean jar dezake. Kalitate orokorraren osagai garrantzitsu bat hizkuntza-kalitatea da, baina ez orain urte batzuk bezala ulertuta, hizkuntza-kalitatearen ideian ere eboluzioa gertatu baita. XXI. mende honetan, komunikatzaileei ez zaie bakarrik eskatzen zuzen aritzea; egoki ere jardun behar dute (zuzentasuna eta egokitasuna 4.5.1. azpiatalean azaldu dugun bezala ulertuta), eta EiTbren beste politika batzuk —generoaren arlokoa, adibidez— hizkuntzaren erabileran integratzeko ardurarekin.

Interes, arretagune eta ardura horiei zuzenduta dauden bitartekoen gainbegiratuan, lehenik, azpidazketaz arituko gara (ikus 4.6.1.). ETBren lehenengo azpidatziaren aldean, oraingoak euskarazkoak dira, eta beraien helburua ez da EAEn telebista publikoa euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzea, baizik ekarpen bat egitea euskal gizartean gero eta pertsona elebidun gehiago egon dadin. Jarraian, ETBk helburu berarekin egiten duen beste ekarpen batez jardungo dugu (ikus 4.6.2.). ETBk euskara ikasten laguntzen du, bi erataria lagundu ere: motibazioan eraginez, eta ikasteko materialen ekoizpenean parte hartuz. Azkenik, ETBko euskara-zaintzaz arituko gara (ikus 4.6.3.). Izan ere, ETBn, hizkuntzalari-talde bat dago, komunikatzaileei hizkuntzaren arloan formazioa, baliabideak eta irizpideak eskaintzen dizkiena.

#### **4.6.1. Euskarazko azpidazketa**

ETBren lehen urteetan, emisioak gizarteko ele bietan eskaintzeko bitarteko modura ezarri ziren azpidatziak, gaztelaniaz, baina, 1986an ETB1 euskara hutsezko kanal bihurtuta, azpidatzi haiek erabat desagertu ziren urte batzuen buruan. Harrezkero, ETB1en, euskarazko azpidatziak baino ez dira erabili; hala eta guzti, gutxitan. Alde batetik, pastoraletan eta gorrentzako zerbitzuan. Euskarazko azpidatziok irispidea errazten diete euskarazko emanaldietara ikusle-talde jakinei eta, gaztelaniazko haiek bezala, hizkuntza bi darabiltzan gizarte baten testuinguruan ulertu behar dira. Beste aldetik, bikoizketaren alternatiba diren euskarazko azpidatziak ere badaude. Ia ez dute



lekurik izan eta, dagoeneko, saiorik gogoangarriena aipatu dugu (4.5.5. azpiatalean), *Klasikoak jatorriz*. ETBren historian beste bat baino ez da egon 2010-2011 kurtsoan: *Zinemateka*. Gorabehera politikoak tarteko, ETBri osorik eginda eman zitzaion programa bat izan zen, ekoizpen prozesuan parte-hartzeko aukerarik eskaini gabe; beraz, ez gara honetaz gehiago luzatuko.

Gizarteko elebitasuna kudeatzeko azpidatzietara itzulita, beraz, hizkuntza gutxituko telebista batzuek azpidatziak zabalkiro erabiltzeko jarrera izan dute. TG4 irlandarrak, esate baterako, estandarrean azpidatzi dituzte hainbat programa, terminologia berria arrotz zaien ikusleei, etxeko dialektoa bakarrik ezagutzen dutenei edo hizkuntzan ikasten ari direnei laguntzeko (O’Connell, 2007, or. 259). Euskal Telebistari, antzera ez jokatzeagatik, kritika egin dio Josu Amezaga (2013, or. 38–39) UPV/EHUko irakasleak:

«ETBren joera nagusia honakoa izan da: euskaraz ondo ulertzen dutenentzako programazioa egitea, kontuan hartu gabe euskara ikasten ari direnen edo ulermen mugatua dutenen beharrak, erraz erabil litezkeen baliabideak (soinuzkoak zein idatziak) profitatu gabe».

Pastoralen kasuan, ETBren ohiko ikusleak ere ulermen-arazoak izango zituela pentsaturik, lehenengotatik ezarri ziren euskarazko azpidatziak. ETB1 1995eko Aste Santuko programazioan hasi zen emititzen aurreko urteko udan Zuberoan grabaturiko pastorala, euskara batuan azpidatzita (Larrinaga, 2011c). Lehenengo garaian, errespetu gutxi izaten zitzaion jatorrizko testuari, baina ordutik hona azpidatziak prestatzeko irizpideak asko aldatu dira, helburu bikoitz batekin: jatorrizko hitzei leial izatea eta ikusleari ulertzen laguntzea. Leial izateko asmoa errazago eraman ahal izan da aurrera 2002az geroztik, urte horretan hasita EiTbren webgunean jartzen baita pastoralaren testua formatu paraleloan —zubereraz eta batuan— telebistako emankizuna baino egun batzuk lehenago.

Pastoraletako azpidatziak irekiak dira, hots, irudiekin bat eginda pantailaratzen diren gaininpresioak dira. Badaude azpidatzi itxiak ere, ikusleak berak bere aparatuan aktibatu behar dituenak. Azpidatzi itxiak gorrei zuzendutako zerbitzu bat izaten dira printzipioz baina, gizarte elebidunean, hizkuntza-ezagutza mugatua duten ikusleei ere izaten zaizkie

lagungarriak. ETBn, albistegietako azpidatzi itxiek «*informazioa eskuratzeko aukera bermatzen diete pertsona gorrei edo entzumen urrikoei*» (Martin et al., 2013, or. 56). Halakoen eskaintza 1996an hasi zen, gaueko *Teleberri* albistegian, alegia, gaztelaniaz. *Gaur Egun* euskarazko albistegia 2009an hasi zen gorrentzat azpidazten.

2010ean, Espainiako Parlamentuak 7/2010 Lege Orokorra onartu zuen, ikus-entzunezko komunikazioari buruzkoa, zeinak 8.2. artikuluan programen % 75 gorrentzat azpidaztea ezartzen baitzien estaldura estatala edo autonomikoa zuten telebistei. Legea betez, Euskal Telebista hainbat film, telesail eta saio azpidatzita aireratzen hasi zen euskarazko zein gaztelaniazko kanaletan. Euskaraz, 2012an iritsi zen eskaintza mailarik gorenera (emisioen % 23 ETB1en, eta % 51 ETB3n), tartean zirelarik *Gaur Egun* albistegia, bikoiztutako pelikula, dokumental eta marrazki bizidunak, eta *Teknopolis*, *Mihiluze* eta beste hainbat programa. Aurrekontuetako zailtasunen ondorioz, 2012an zehar, bertan behera utzi ziren azpidatziak barne-produkzioan eta *Gaur Egun* albistegian. Ordutik, ETB2ko albistegia da gorrentzat azpidazten den programa bakarra. Hala ere, azpidatzi berririk ez egiteak ez du esan nahi eginda dagoena edo eginda datorrena ez denik aprobetxatzen. ETBren asmoa, edozelan ere, berriro azpidatziak gehitzen joatea da. Euskarari dagokionez, *Go!azen* telesailaren laugarren denboraldia (2017-2018ko neguan emititu dena) azpidatzita eskaini da ETB1en eta ETB3ko berremanaldietan.

#### **4.6.2. Euskararen ezagutzaren sustapena**

Aurreko aldi urratzen hasitako ildotik, performantzia aldi honetan ere, EiTb euskararen ezagutzaren bultzatzaile garrantzitsua da. Euskaldun natibo askorentzat, oraindino, eredu estandarra eta beste euskalki batzuk ezagutzeko bidea da. Horrez gainera, euskal gizartean elebitasuna hedatzen laguntzen du, atal honetan aztertuko dugunez. Lehenik, ikusleak euskara ikastera eta hobetzera motibatzen ditu. Bigarrenik, euskara ikasteko euskarri eta materialen lanketan hartzen du parte, zuzenean edo beste erakunde batzuekin kolaboratuz. Hirugarrenik, Komunikazioaren arloko ikasleei euskararen trebatzeko aukera eskaintzen die formazio-jarduera praktikoen bitartez.

Motibaziotik hasita, hedabideetan zabal daitezkeen mezuez gainera, hedabideak eurak eta, areago, egungo hedabide elektronikoak izan daitezke euskara ikasteko eta

hobetzeko motibazioa, gazteentzat batez ere. Hala uste du Aingeru Epaltza (2008, or. 181) idazle eta kazetariak:

«Argi eta garbi erratera, gure nerabeek Euskal Hizkuntza eta Literatura klasean Izen Sintagmarekin eta idazle klasikoekin borrokan egin beharrean, denbora webgunez webgune pasatuko balute (Euskadi Gaztea, Sustatu, rock taldeak, Berria, ETB, Literaturaren Zubitegia...), guztiz bertzelako emaitzak izan genitzake epe ez luzeegian».

Euskararen ikaskuntzan laguntzea dela eta, alde batetik, ETBk berariazko programa bat ekoitzi zuen 2010eko lehen urteetan, *Kerman mintzalagun bila*. HABErekin elkarlanean, saioz saio, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluko edukiak telesail gisa landu ziren, euskaltegietako ikasleentzat klasearen indargarri edo osagarria izan zedin. Beste alde batetik, EiTBren programak, telebistakoak zein irratikoak, ikasmateriala prestatzeko erabili dira. 2007-2008 ikasturtean, orduan ere HABErekin elkarlanean, EiTBk ikus-entzunezko material ugari jarri zuen euskara-ikasleen eskura Ikasbil webgunean. 2010. urtean, *Ele-alea* irratsaioaren grabazioak Gasteizko IKA euskaltegiari utzi zitzaizkion, ikasmaterialaren sorkuntzan erabil zitzan. 2015. urtean, *Tribuaren berbak* saioa oinarri hartuta, euskarari eta Euskal Herriko eleaniztasunari buruzko oinarrizko ezagutza soziolinguistikoa lantzeko material didaktikoa sortu da, Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioaren ekimenez. EiTBk euskararen ikaskuntzan egiten dituen ekarpen horiek gizarte-erantzukizuneko memorian jasotzen dira.

Euskara ikasteko baliabideak sortzen laguntzeaz gainera, EiTBk Komunikadore Eskola deritzon ekimena dauka abian bere gizarte-erantzukizunarekin lotuta. Komunikadore Eskolak ikasketa teorikoak jarduera praktikoekin osatzeko aukera ematen die karrera profesionala euskaraz egin nahi duten komunikatzaileei (EiTB, 2011, or. 33). Aukera horretan, euskara beti da lantzen den gaietako bat eta, ekintza zehatzen artean, bi aipatu behar dira. Lehenengoa graduiko ikasleentzako praktika-aldia da, 1980ko hamarkadarik urtero eskaintzen dena, eta egun ETBko albistegietan eta programetan diharduten profesional askoren lehen sarbidea izan dena. Bigarren ekimena Multimedia Komunikazioa masterra da, graduondoko ikasleei zuzendua, eta 2009-2010 ikasturtetik UPV/EHUrekin batera antolatzen duena.

### 4.6.3. Hizkuntza-zaintza ETBn

Euskal Telebistan, hizkuntza-zaintzako talde profesional bat dago, 2000. urtean EiTBko Euskara Zerbitzua izatera igaro zena. Euskara Zerbitzuak funtsezko zeregina betetzen du ikus-entzunezko hedabideetarako euskara egokiaren lanketan, baina beraren lehen eginkizuna komunikatzaileei zerbitzua ematea da, eta zerbitzu horren gakoa, EiTBren hizkuntza-politikako lerro nagusi bat: emanaldietako euskararen kalitatea zaintzea.

EiTBk euskararen kalitatearekin daukan konpromisoari erantzuteko Euskara Zerbitzuak ematen duen zerbitzuaren berrikusketan, lehenik eta behin, EiTBko komunikatzaileei eskaintzen dien hizkuntza-formazioan jarriko dugu arreta (ikus 4.6.3.1.). Batzuetan, Euskara Zerbitzuak berak hartu du bere gain formazioaren ardura eta, beste batzuetan, Prestakuntza Sailarekin batera antolatu ditu ekimenak. Bigarrenik, Euskara Zerbitzuak EiTBren euskara-eredua kanpoan ezagutarazteko egiten duen lanaz arituko gara (ikus 4.6.3.2.). Izan ere, kanpoko komunikatzaileei begirako lan hori eragin positibo modura itzultzen da EiTBn erabiltzen den euskarara. Ondoren, Euskara Zerbitzuak aurrera atera duen HIKEA aplikazioaz arituko gara (ikus 4.6.3.3.). Komunikazio-taldeko erabiltzaileei hiztegi-kontsultak errazteko proiektu gisa sortu zena, azkenean, EiTBren hedabideetan hautu lexiko eta terminologikoak bateratzeko eta kanpoan ezagutarazteko tresna bilakatu da. Azkenik, EiTBko hizkuntzalari-taldearen eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzan jarriko dugu arreta (ikus 4.6.3.4.). Lankidetzaren tresnarik garrantzitsuenak EiTBk eta Euskaltzaindiak 2003tik daukaten hitzarmena da.

#### 4.6.3.1. Hizkuntza-prestakuntza

ETB sortu eta gutxira, agerian geratu zen zailtasunak zeudela pantailara ateratzen zuen produktua inguruko hizkuntzetan eskaintzen zituztenak bezain linguistikoki zuzena eta adierazkorra izateko. Euskarak berak eragiten zituen zailtasun batzuk —bere zinezko lehen urratsak egin behar baitzituen telebistan, hain zuzen, estandarizazioa hasi berria zen unean—, eta beste zailtasun batzuk komunikatzaileen hizkuntza-prestakuntzatik zetozen. Azken horiek konpontzeko, besteak beste, ikastaroak antolatu ziren HABEren eskutik. Urteak dira berriro ere ETBko komunikatzaileei hizkuntza-prestakuntza

eskaintzen zaiela baina, oraingoan, EiTbK emanaldietako euskararen kalitatearekin daukan konpromisoari erantzuteko. Prestakuntza horren barruan, hiru eratako ekintzak bereiz daitezke. Multzo nagusi bat Euskaltzaindiaren arauak ezagutaraztera zuzenduta dago, eta beste multzo nagusi batek EiTbren barruan landutako euskara-eredua eta hizkuntza-baliabideak jakinaraztea du helburutzat. Hirugarren multzokoak, azkenik, EiTb Taldearen beste politika batzuk hizkuntzaren erabileran integratzeko irizpideen eta baliabideen lanketa eta zabalkundera zuzendutako ekintzak dira.

Euskaltzaindiaren arauak ezagutarazteko ikastaro eta ekintza aipagarrietatik hasita, *Euskara Batuaren ahoskera zaindua* argitaratu eta hilabete gutxira, 1999-2000 kurtsoan, berriazko ikastaroa antolatu zen EiTb osoko esatari eta kazetariarentzat. 2003. urtean, EiTbko hizkuntza-aholkulariak saio bat gertatu zuen EiTbko kazetariarentzat Hiztegi Batuari buruzkoa, non Euskal Telebistako eta Euskadi Irratiko albistegietako euskararen gaineko txostenetan adierazita zeukan ikuspegia azaldu baitzuen, alegia, Iparraldeko euskara aintzat hartzea eta hizkera zaindua erabiltzea zirela euskararen beregaintasunik eza konpontzeko irtenbideak —albistegietan, behintzat—. 2005-2006 kurtsoan, ikastaro osagarri bat atondu zen, ahoskeraren gaineko arauak gogorarazteko, eta testugintzaren eta intonazioaren arteko konexioa aztertzeko. 2010etik, Tortolika EiTbren intranetean, komunikatzaileei interesgarri izan dakizkiekeen arauen azalpenak zintzilikatzen dira, hala nola, zenbakiak nola esaten diren (Euskaltzaindiaren 7. araua), astroen izenak (173. araua), edo atzerriko-pertsona izenak euskaraz nola eman (186. araua).

Komunikatzaileak EiTbren barruan landutako hizkuntza-jarraibideen jakitun ipintzeko ere, hainbat ikastaro eta ekintza eraman dira aurrera. Esan gabe doa ekintza garrantzitsuenetako bat komunikatzaileentzat prestatzen diren eskuorriak direla, egun posta elektronikoz eta Tortolikan zabaltzen direnak. Horrez gainera, Tortolikan bertan, Prestakuntza atalean, hizkuntza-ikastaro elektronikoak eskaintzeko esperientzia abiarazi zen 2016an. Oraingoan, bi daude —hitz-amaiera ezberdinen deklinazioa, 2016koa, eta toponimoen deklinazioa, 2017koa—, gaiari buruzko azalpenekin eta ariketekin. HIKEA aplikazio lexiko eta terminologikoa erabat inplementatuta zegoela, 2008an, bera ezagutarazteko eta erabiltzen irakasteko saioak antolatu ziren EiTbko erredakzio guztietan. Eusko Jaurlaritzako EIMA programak bere estilo-liburuen bilduman puntuazioari buruzkoa argitaratu zuenean, 2013. urtean, egilearekin puntuazioari eta perpausaren antolamenduari buruzko mintegi bat eraman zen EiTbRa.

EiTBren estilo-liburuarekin loturik ere, hainbat ekimen izan dira. Hala, 2013an, mintegi bat egin zen ETB osoan bigarren eranskinean jasota zegoen prozedura —adierazpenen itzulpenen azpidatziak prestatzeko eta pantailaratzeko prozedura— kazetariei azaltzeko eta praktikak egiteko. Bestalde, Euskal Irrati Telebistako Zuzendaritzak eta Erredakzio Kontseiluak adierazpenen hizkuntza-tratamenduari buruzko dokumentu berria adostu zutenean, 2015. urtean, mintegi bat egin zen EITBko erredakzioetan, kazetari guztiak jakitun ipintzeko. Handik denbora batera, kazetari berriengan eta praktikako ikasleengan pentsatuta, mintegian landutako edukia bideo batean jarri zen, eta bideoa EiTBren intranetean zintzilikatu. Praktikak egiteko EiTB aukeratzen duten komunikazio-arloko ikasleengan pentsatuta, halaber, astebeteko formazio-egitaraua prestatzen da urtero eta, horren barruan, saioetako bat euskara-ikastaroa izaten da, EiTBko hizkuntza-zaintzaren berri emateko.

Horrez gainera, 2006tik 2008ra, ETBko kazetarien banakako jarraipena egin zen EiTBko hizkuntza-aholkulariak landutako plangintzari jarraituta (4.2.2.3. puntuan azaldu dugunez). Ekimenaren lehen helburua ahoskera-ereduaren onarpen-maila ezagutzea zen baina, hizkuntzalariek kazetariekin urtean behin egiten zituzten aurrez aurreko jarraipen-saioak baliatuta, bakoitzari bere euskaran hobetu zitezkeen erabilerak jakinarazten zitzaizkion, EiTBk bere eskura jarrita zeuzkan hizkuntza-baliabideak gogorarazten zitzaizkion, eta hizkuntzaren lanketarako iradokizunak eskatzen zitzaizkion. *Postdata* programako erreportariekin jarraipen zehatzagoa probatu zen, asteroko saioen bitartez, doinueraren lanketan zentratuta. Oso bestelako esperientzia izan da 2017an egindako formazio-saioa. Albistegietan epaiketekin loturiko informazioak hain osagai garrantzitsua izanda, Euskara Zerbitzuaren ekimenez, astebeteko mintegi bat antolatu zen prozedura judizialari buruz hizkuntzalarientzat eta kazetariarentzat, euskaraz, UPV/EHUko Zuzenbide arloko irakasleekin, gaiaren alderdi biak batera lantzeko: euskara eta Zuzenbidea.

Hizkuntza-formazioan bereizi dugun azken ekintza-multzoa duela denbora gutxi hasi da garrantzia hartzen. EiTBn estilo-liburu bat osatzeak, 2013an, mugarri bat ezarri du hainbat gairi buruzko tratamendu informatiboan. Besteak beste, terrorismoaz, desgaitasunaz, immigrazioaz eta gizon-emakumeen arteko berdintasunaz informatzeko jarraibideak eman dira, hizkuntzaren erabileran ere ezarri behar izan direnak. Euskara

Zerbitzua partaide da estilo-liburua jorratzeko eta eguneratzeko ardura duen batzordean eta, jarraibideen lanketan esku hartzeaz gainera, komunikatzaileak jakitun ipintzeko ekimenak eramaten ditu aurrera, batik bat jarraibideok hizkuntzaren erabilera ukitzen duten aldetik. Ekimen bi dira aipagarriak. Bata, zalantza eragin dezaketen hitzen glosarioa, 2017an osatzen hasia, esate baterako, 'migratzaile', 'etorkin', 'asilo-eskatzaile' eta 'errefuxiatu' hitzen erabilerari buruzko argibideekin. Bestea, Berdintasun Batzordeak eta Euskara Zerbitzuak (2018) elkarlanean prestatutako erredakzio-eredua, indarkeria matxistak eragindako heriotzei buruzko albisteetan titularrak idazteko lagungarria.

#### 4.6.3.2. ETBko euskara-ereduaren kanpo-zabalkundea

Hizkuntza-formazioa enpresako profesionalei zuzenduta dagoen bezala, Euskal Telebistak hainbat ekimen eramaten ditu aurrera lantzen duen euskara-eredua eta prestatzen dituen hizkuntza-baliabideak enpresatik kanpo ezagutarazteko. Zabalkunde horri esker, Euskal Herriko unibertsitateetatik irteten diren komunikatzaileek, beste hedabide batzuetan ari direnek zein publikoki euskaraz egokiro aritzeko ardura duten edozelako hiztunek badute EiTbN egiten den hizkuntza-lanaren berri, ondo baloratzen dute, eta baliatu egiten dute.

EiTbNen hizkuntza-ekoizpenaren kanpo-zabalkunderako, funtsezko bitartekoak izan dira kazetariarentzat argitaratu diren eskuliburuak. Arrasate (1992, or. 22) zabalkunde horren garrantziaz ohartuta zegoen EiTbNentzat lehen eskuliburu prestatu zuenean eta, ordutik hona, beraren ikuspegiarekin bat eginda, beste hainbat ekimen eramanez aurrera komunikazio-taldean helburu horrekin. Nabarmendu beharrekoak, beste erakunde batzuen webguneetan parte hartzea ekarri dutenak. Hala, 2003. urtean, *Bikoizketan elkarlanean* txostenak Azpeitiko Euskara Patronatuaren erabili.com atarian argitaratzen hasi ziren serie modura. Hurrengo urtean, 2004an, EiTbko kazetariarentzat gertatzen zituen eskuorrekin beste serie bati ekin zitzaion webgune berean eta, 2011. urtean, berriazko artikulu-sorta bat prestatu zen.

Euskara Sailak (2004) helburu bikoitza zuen Azpeitiko Euskara Patronatuarekin kolaboratzen hasi zenean. Lehenik, beste hedabide batzuetako kazetariarentzat eta euskal

itzultzaileentzat baliagarri izan zitezkeen materialak erraz eskuratzeko eta kontsultatzeko moduan jartzea. Bigarrenik, EiTB komunikazio-taldearen barruan hizkuntza zaintzeko, eguneratzeko eta tresna gisa doitzeko egiten ziren ahaleginak kanpoan jakitera ematea. Kolaborazio hark 2012ra arte iraun zuen, eta emaitzak oraindino Interneten aurki daitezke<sup>34</sup>.

Ildo beretik, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak 2012an 31eskutik.com bloga abiarazi zuenean, EiTBko hizkuntzalariek euren postak zintzilikatu zituzten hilero, 2016an itxi zen arte. Post haietako askok hedabideetako euskarari buruz ziharduten<sup>35</sup>, zela gogoeta gisa, zela EiTBren lanaren berri gisa. Webguneetan ez ezik, hizkuntzalariorik beste euskarri batzuetan ere argitaratzen dituzte euren lanarekin loturiko artikulua<sup>36</sup>, eta hitzaldiak<sup>37</sup> ere eskaintzen dituzte. Helburu espezifikokoagoarekin, komunikatzaileentzako ikastaro eta formazio-saioetan ere hartzen dute parte<sup>38</sup>.

#### 4.6.3.3. HIKEA aplikazioa

EiTBko profesionalentzat hizkuntza-zaintzaren arloan aurrera eraman diren ekimenetatik, garrantzitsuenetako bat HIKEA aplikazioa izan da. Berez, hiztegi elektroniko baten moduko aplikazioa da, EiTBren datu-base lexiko eta terminologikoa

---

34 Bikoizketako txostenak: [www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1328861139](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1328861139)

Kazetarientzako orriak: [www.erabili.eus/zer\\_berri/berriak/1084490076](http://www.erabili.eus/zer_berri/berriak/1084490076)

Erabili.com-erako berariazko sorta: [www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1321604960](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1321604960)

35 Adibidez, *Etzetik botatzetik etxegabetzera* (I. Goikoetxea, 2012), *Nazio Batuak* (I. Goikoetxea, 2013), *Euskarazko bikoizketaren historia sentimentala* (Larrinaga, 2013d), *Saria edo ziria* (Larrinaga, 2013f), *Txahal inkatuaren sindromea* (Larrinaga, 2014a).

36 Adibidez, *ETBren zenbait gomendio (I)* (Menika & Larrinaga, 1995), *ETBren zenbait gomendio (II)* (Menika & Larrinaga, 1996).

37 Adibidez, *Hizkuntzalaririk telebistagintzan* (Larrinaga, 2004b), *Gazte hizkera telebistan* (Larrinaga, 2005c), *Pantaila euskarazko hitzez mintzo* (Larrinaga, 2011b).

38 Adibidez, EiTB eta UPV/EHUren Multimedia Komunikazioa masterreko mintegia, *Egokitasuna eta kalitatea. Euskarazko testuetan nola?* (Larrinaga, 2005a) ikastaroa, edo *Ikus-entzunekoetarako euskara: kazetarientzako baliabideak eta HIKEA aplikazioa* (Larrinaga, 2011a) saioa.



elikatzea eta kontsultatzea ahalbidetzen duena. Hurrengo paragrafoetan aztertuko dugu zein helbururekin sortu zen, eta zer eduki aurki daitekeen.

EiTBn datu-base lexiko eta terminologiko bat antolatzeke eta berorren kontsultarako aplikazio bat sortzeke erabakia Euskara Zerbitzuaren 2005eko PDCA batzarrean hartu zen, komunikazio-taldeko kazetariak eta sortzaileak tresna erraz bat izan zezaten EiTBra egoiakotzat edo lehentasunezkoztat jotzen ziren hitzak begiratzeko. Izan ere, lehenago (Larrinaga, 2013b) azaldu dugun bezala, telebista-programetan ari diren profesionalak era bitako beharrianak dituzte hiztegiarekin lotuta: kontsulta, alegia, hitzak aurkitzeko baliabideak eskura eta ondo hornituta egotea, eta egokitasuna, alegia, proposatzen diren hitzak ezagunak, zehatzak, harrapatzen errazak, eta sintaktikoki moldaerrazak izatea. Horregatik, HIKEAko fitxetan, hitz asko esanguren gaineko argibideekin, erabilera zehazteko oharrekin, adibideekin eta bestelako jakingarriekin hornituta daude. 'Piromano' fitxan, adibidez, ohar hau dator: «*Basoetako suteei buruzko albiste gehienetan "piromano" oker erabiltzen da*». Ondoren, 'piromano' eta 'sutzaile' hitzen definizioak ematen dira. 'Brasil' fitxan, toponimoa Euskaltzaindiaren 38. arauan finkatu dela argitzeaz gainera, herritarren izena dator —*brasildar*—, futbol-selekzioko jokalarien goitizena —*canarinhoak*—, eta hiriburua den 'Brasilia' fitxarekiko lotura.

Urteetan, zalantza lexiko eta terminologikoen aurrean, EiTBko hizkuntzalariek, galdera puntualen erantzunetatik harago, hitz-zerrendak prestatu dituzte kazetariarentzat, esamoldez eta adibidez hornituta, komunikazioaren gakoa hitzetan ez baizik esaldietan dagoela iritzita. Eginkizun horretan, hitz berriak sortu eta asmatu behar izan dira batzuetan eta, inoiz, beste inork asmatutako berbak erreskatatu dira jaio zireneko liburu eta hiztegietatik. Ikus-entzunezko hedabideek erakutsi dute baliabide ahaltsua direla hitz eta esamolde berrien zabalkundean. Hala, EiTBk arrakastaz hedatu dituen hitzen artean, informazioaren arloan, *artezilari*, *labe garai*, *zerga iraultzaile* (geroago, *iraultzarako zerga gisa zuzendua*), *etxegabetze* eta *birfindegi* aipa daitezke. Fikzioan, *oin-handi*, *Bizarzuri* eta *pottoki*. Programetan, *puxtarri*, *jatorri-izen*, *marrazain*, *bizar-mozteko* eta *Gilda eskote*. Telebistagintzarekin lotuta, *marrazki bizidun*, *irudi-gidoi*, *kilker*, *telesail*, *alvistegi* eta *artezle*. Barne-produkzioko dramatikoetako elkarrizketetan, *kirioak airean*, *kirioak dantzan*, *zokor-mazo*, *emaziringa*, *azaren kirtena*, *ziraun-kume*, *zorne-zaku*, *zorne-zorro* eta *lepatente*.

EiTBko hizkuntzalarien helburuetan, material lexiko eta terminologiko guztia erraz kontsultatzeko eran ipintzea bezain garrantzitsua bateratasuna zen, hau da, Euskal Telebistan, Euskadi Irratian, eta Eitbneten hiztegi-erabilera bateratzea eta koordinatzea. Datu-base batek asko lagunduko zuen eginkizun horretan eta, modu berean, erabakiei iraupena emango zien, arazo lexikoa edo terminologikoa atzera ere beste albistegi, dokumental, magazin edo telesail batean agertzen zenerako. Horregatik, datu-basea ordura arte Euskara Zerbitzuak landuta zeuzkan zerrendekin kargatzen amaitutakoan, 2006an, kontsulta-interfazea Tortolika EiTBren intranetean txertatu zen. EiTBren hizkuntza-lanari kanpoan ere zabalkundea emateko ekimenekin lotuta, 2009an, HIKEA EiTBren webgunean jarri zen euskaldun guztiek erabilgarri izan zezaten. 2013. urtetik, HIKEA aplikazioa Euskalbar Firefoxerako gehigarrian ere txertatuta aurki daiteke.

Euskalbarren egiazta daitekeenez, egun, ugari dira kontsulta-baliabide lexiko eta terminologikoak euskaraz. Horregatik, irizpide nagusi bi erabiltzen dira HIKEA osatzen jarraitzeko. Lehen irizpidea da kazetari eta komunikatzaileek esku-eskura behar duten informazio onomastikoa jasotzea —hala nola, toponimoak, errege-erreginak, artelanak eta aldi historikoak—. Bigarren irizpidea da beste hiztegi batzuetan ez dagoena eskaintzea, batik bat, eguneroko informazioarekin eta aktualitatearekin lotuta badago. Horrez gainera, programa jakin baten beharrezanean erantzuteko, hiztegi-lantze sistematikoak egiten dira. Esate baterako, *Merli* telesailaren bikoizketarako, gotik behera berrikusi, orraztu, eguneratu eta osatu behar izan da HIKEAko hizkera kolokialaren saila. Horrelako lanketek ikus-entzunezkoetan erabilera-eremu jakin baten hiztegiak izan duen eboluzioa aztertzei aukera eman dute. Dagoeneko (4.5.2. azpiatalean), eguraldi-iragarpenarena azaldu dugu. Sukaldaritzza-saioena, Interneten aurki daiteke, *EiTBren sukaldaritzza-hiztegia, eitb.eus-en eskuragarri* (EiTBko Euskara Zerbitzua, 2016) izenarekin.

#### 4.6.3.4. Euskaltzaindiarekiko hitzarmena

ETBko hizkuntzalariak, corpusaren arloan egin duten lanean, Euskaltzaindiaren babes eta kolaborazioa bilatu dute lehenengo urteetatik. 2003an, erakunde bien arteko harremana hitzarmen baten bidez formalizatu zen, aldian-aldian berrituz joan delarik.

Maila sinbolikoan, hitzarmenak balio handia izan du, ikusgai egin baitu euskara sustatzeko interes komunak elkarloturik sentitzen direla erakunde biok. Praktikan, tresna bat gehiago da EiTBren hizkuntza-erabileran Euskaltzaindiaren arauak inplementatzeko, eta inplementazio hori egokiro egiten dela egiaztatzeke. Hala eta guztiz ere, hitzarmenak ez du ekarri Euskaltzaindiaren aldetik EiTBrekiko hurrekotasun handiagoa akademiak aurrera eramaten dituen ekimenetan.

Euskaltzaindiaren eta EiTBren arteko lehen kolaborazioa albistegien arloan gertatu zen (3.5.2. azpiatalean ikusi dugunez). EiTBko Zuzendaritzaren eskariz, Euskaltzaindiak hainbat hizkuntza-gomendio jaso zituen liburuxka bitan, *Euskara (erabileraz)* (Euskal Irrati Telebista, 1989a, 1989b) izenarekin. Albistegietarako euskararen garapenean, oinarri garrantzitsua izan dira gomendio haiek. Kronologikoki jarraituta, 1995 eta 1998 urteen artean, EiTBk Euskaltzaindiaren Ahoskera Lantaldean hartu zuen parte, euskara batuaren ahoskerari buruzko arauaren prestaketarako. 2001ean, EiTBko zuzendaritzak eskatuta, Euskaltzaindiak *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren corpusa eskuratu zien komunikazio-taldeko hizkuntzalariei, beraien kontsultak eta ikerketak errazteko helburuarekin. Era berean, 2000 eta 2003 urteen artean, EiTBk Euskaltzaindiaren Komunikabideen Lantaldean hartu zuen parte.

Elkar-aditzezko testuinguru horretan, 2003an, Euskaltzaindiak eta Euskal Irrati Telebistak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten, EiTBren hedabideetan euskararen erabilera ona sustatzeko helburuarekin, batik bat hiru esparrutan: 1) lexikoan eta, bereziki, onomastikan; 2) gramatikan; 3) ahoskeran. Erakundeok betekizun osagarriak edukitzea aitortzen zioten elkarri: Euskaltzaindia erakunde arau-emailea zen, eta EiTB, arauen hedatzailea (Haritschelhar, 2003; Ortuzar, 2003). Bakoitza bere rolean arituta, Euskaltzaindiak aholkularitza-, kontsulta- eta prestakuntza-zerbitzuak eskaini behar zizkion EiTBri esandako hiru esparruetan eta, horrekin batera, formatu elektronikoan helarazi behar zizkion bere arauak eta zerrenda onomastikoak. Hitzarmenaren markoan, Euskal Irrati Telebistako hizkuntza-aholkulari Lourdes Oñederrak (2004) EiTBko albistegietako euskararen kalitateari buruzko iritzia eskatu zion Euskaltzaindiari. Erantzunak urte batzuk behar izan zituen, aurrerago azalduko dugunez.

Euskaltzaindiak eta EiTBk beste hiru urterako berriztatu zuten hitzarmena 2006an, betekizun bi erantsita. Lehena zen Euskaltzaindiak lehentasuna emango ziela,

berariazko batzordean, EiTbK kontsulta gisa bidal zitzakeen hitz-zerrenda eta glosarioei. Bigarren betekizuna zen erakunde biek txosten-eredu bat hitzartuko zutela, Euskaltzaindiak EiTbKo albistegietako hizkuntza-ebaluazioaren emaitzak aurkezteko erabil zezan, eta ebaluazio hori egiteko materiala EiTbK eskuratuko ziola Euskaltzaindiari. Bigarren hitzarmenak eranskin bat izan zuen 2009ko martxoan, esanez EiTbK Lexikoaren Behatokiaren garapenean lagunduko zuela Euskaltzaindiaren esku jarritz 2000. urtetik aurrera komunikazio-taldean sortutako testu-masa. Hitzarmenaren hurrengo berriztapenak 2010-2012rako, 2013-2016rako eta 2017-2019rako egin dira.

2013ko berriztapenaren kariatz zabaldu zen albistean (Komunikazio Saila, 2013) jaso bezala, Euskaltzaindiaren eta EiTbBren arteko hitzarmenak emaitza onak izan ditu. Inportanteenetako bat da Euskaltzaindiak erabakitzen dituen toki-izen guztiak HIKEA EiTbBren datu-basean eranstean direla, kazetariei kontsulta erraztearren. Oro har, hitzarmena tresna baliagarri bat izan da Euskaltzaindiaren araugintza EiTbBn hedatzeko, bai eta hedapen hori egokiro egiten dela egiaztatzeko ere. Gorago aipatu dugunez, 2004. urtean, Euskaltzaindiari EiTbBko eta Euskadi Irratiko informazio-saioretako hizkuntzaren kalitateari buruzko iritzia eskatu zion EiTbBko hizkuntza-aholkulariak, eta akademiak ez zuen arazo handirik aurkitu bere ebaluazioan:

«Euskaltzaindiaren iritziz, oro har, egokia da aztertutako programetan EiTbBko hedabideek darabilten euskara, bai zuzentasunari dagokionean eta bai egokitasunari dagokionean; nahiz eta prosodiaren eta oratoriaren ikuspegitik zer hobeturik sumatzen den esatari eta aurkezle zenbaitengan». (Euskaltzaindia, 2006)

Hiztegiaren arloan, EiTbBk prestatu dituen hainbat glosario Euskaltzaindiak aztertu eta balioztatu ditu: Euskal Herriko hondartzak, Euskal Herriko mendateak, kirol-probak, musika klasikoko obrak, eta ikus-entzunezko hedabideen terminologia. Hitz guztiak HIKEAn kargatu dira, eta erregistro bakoitzean espresuki jakinarazi da euskarazko formak Euskaltzaindiaren onspena duela. 2008an, Euskalmet meteorologia-zerbitzuak erabiltzen zuen terminologia glosario gisa atondu zuen EiTbBko hizkuntzalarien laguntzarekin eta, EiTbBren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren markoan, akademiara bidali zen. Euskaltzaindiaren iradokizun eta hobekuntzekin,

glosario hori ere HIKEAn kargatu zen. 2010ean, hiztegiaren arloko kolaborazioan, ildo berri bati ekin zitzaion. Gorago esan bezala, urte horretatik aurrera, Lexikoaren Behatokiaren corpusa EiTbren irratiko, telebistako eta Interneteko testuekin elikatzen da. Ohiko albisteez gainera, Behatokiarentzat interes handikoak diren ahozkotatasunaren esparruko materialak bidaltzen dira, besteak beste, telesailtako gidoiak.

Hitzarmena urrats bat gehiago izan da EiTb eta Euskaltzaindia 1980ko hamarkadan urratzen hasi ziren lankidetzaren bidean eta, aurreko urrats guztiek bezala, emaitza interesgarriak izan ditu. Halaz guztiz, erakunde bien arteko harremanean itzalak ere badaude. Euskaltzaindiarekin loturiko eragile batzuek garai batean agertu zuten mesfidantza edo urteokaz plazaratu dituzten gaitzespenak gogoratu beharrik gabe ere, EiTb jarduera akademikoetatik urrun edukitzen dela atzematen da Euskaltzaindiaren jokabidean, adibidez, lankidetzeta-hitzarmena bera kudeatzeko moduan. EiTbren kontsultetan, jarrera proaktiboa igartzen da askotan: bete-beteko itaun bat egin ordez, irizpide-beharra duen hizkuntza-gai bat seinalatzen da. Euskaltzaindiaren erantzunetan, berriz, nekez aurki daiteke hiztun arrunt bati Jagoneten emango litzaiokeen baino azalpen tekniko edo espezifikogorik, eta ez dira aintzat hartzen EiTbren kontsulten atzean egon litezkeen ekarpenak. EiTbtik bidalitako glosarioei eurei, Euskaltzaindiak ez die ez arau-maila eman, ez toki bat egin arautu beharrekoen zerrendan.

Urteak garrenean, Euskaltzaindiak arauak eman ditu EiTbren kontsultetan seinalaturiko hainbat gaiez, esaterako, kanpoko-pertsona izenen deklinabideaz, arabieraren transkripzioaz, edo Euskal Herriko eta mundu osoko toponimoez. EiTbri ez zaio eskaini arauok jorratu dituzten batzorde edo lantaldeetan parte hartzea edo mintzatzea. Euskaltzaindiaren lantalde eta batzordeetan, euskaltzainez gainera, hedabideetako eta euskalgintzako erakundeetako pertsonak izendatzen dira kide, baina oso gutxitan hartu dira aintzat EiTbko pertsonak corpusaren arloko langintzarako. Birritan baino ez: 1995 eta 1998 artean funtzionatu zuen Ahoskera Lantalderako, eta 2000an hasi eta 2003an bertan behera geratu zen Komunikabideen Lantalderako. Egungo Ahoskera Batzordean ez dago EiTbko pertsonarik. Euskara Batuaren Eskuliburuaren batzorde suntsikorrean ere ez da egon EiTbko pertsonarik, baina bai beste hedabide batzuekin lotura duten kideak. Ez dirudi harreman normalizatu batez hitz egin dezakegunik.

## **5. IKUSPEGI OROKORRA ETA AZKEN GOGOETAK**

Euskal Telebista debate publikoaren erdigunean dago 1980ko hamarkadaren lehen urteetan sortu zenetik, besteak beste, zalantzan jartzen delako Euskadiko gizarteari eman behar dion zerbitzua ematen ote dion. Eusko Legebiltzarraren 5/1982 Legeak, Euskal Irrati Telebista herri-erakundea sortu zuenak, hiru esparru bereizten zituen zerbitzu horretan —herritarren informazioa eta parte-hartzea, hezkuntza, eta euskal hizkuntza eta kultura— eta, hirugarren esparruari dagokionez, legeak euskara sustatzeko eta zabaltzeko betebeharra egotzen zion hedabide berriari. Guk, hain zuzen ere, euskararekiko betebeharrak horretaz ikertzeko interesa geneukan. Zehazkiago esanda, tesi honen helburua izan da ETBk euskararen normalizazioan izan duen eginkizuna aztertzea. Zer ondoriotara heldu garen azaldu aurreko kapitulu honetan, osatu dugun ikerketaren ikuspegi orokorra emango dugu.

Gure azterketako lehen urrats gisa, lehenengo kapituluan, tesi honi euskarria eskaintzen dioten ikerketen eta eredu teorikoen berrikuspena egin dugu, hiru arretagunerekin: 'hizkuntza-normalizazioa' kontzeptua, hizkuntza-normalizaziorako egitasmoen diseinua eta inplementazioa, eta hedabideen normalizazio-eginkizuna.

'Hizkuntza-normalizazioa' terminoa hizkuntza gutxituen iraupenarekin lotutako ikerketetan eta jardueretan azaltzen da, hizkuntza bat baino gehiagoko gizarteetan gutxituaren ordezkapena gelditzera eta beraren erabilera berpiztera zuzentzen den prozesua izendatzeko. Normalizazioak atal bi ditu. 1) Hizkuntza-politika: helburuak

hautatzeari dagokion atala. 2) Hizkuntza-plangintza: hiztunen jokabideetan eragiten ahalegintzeko jardueri dagokien atala. Atal bien artean harreman bereizgaitza dagoela agerrarazteko, hizkuntza-politika eta -plangintza (HPP) terminoa nagusitu da literatura soziolinguistikoan, normalizazioaren sinonimotzat jo duguna.

HPPari lotutako ideietan, eboluzio bat gertatu da, zeinean Ricentok (2000) hirualdi bereizi baititu. Deskolonizazioaren aldirian, 1960ko urteetan, hizkuntza-aniztasuna nazio berrien modernizaziorako eragozpen gisa ikusi zen, eta planifikatzaileen proposamena izan zen erabilera formalen eremua lehengo metropoliko hizkuntzari uztea eta, gainerako eremuetarako, nazio-estandar bat eraikitzea. Gutxira, Neokolonialismoaren aldirian, agerian geratu zen Europatik zuzendutako modernizazio-ahaleginak desegokiak zirela eta, hizkuntzari zegokionez, herrialde bakoitzaren testuinguru soziokulturalean kokatu behar zela normalizazio-plangintza. Globalizazioaren aldirian, 1990eko urteetatik aurrera, hizkuntza gutxituen galera bihurtu da HPParen arretagune nagusia. Mundu globalizatuan, ingelesa da hizkuntza hegemonikoa, eta hizkuntza gutxituen hiztunei ez zaizkie eskubideak errespetatzen.

Horren aurrez aurre, HPParen arloan hizkuntza-ekologiaren paradigma eratu da. Paradigma berri horretan oinarritzen den hizkuntza-politikak hiru ardatz izan behar ditu. 1) Hizkuntza-aniztasuna babestea, biodibertsitatea zaintzen den bezala. 2) Herritarrari bere hizkuntza-eskubideak bermatzea. 3) Behetik gorako (*bottom up*) eragintza, hots, gizarte-taldeen eta gizabanakoen parte-hartzea.

HPParen alderdi aplikatuari dagokionez, euskararen normalizazioan eredu bi dabilta: Haugenena (1983) eta Fishmanena (1991). Haugenek aldaera estandarren eraketaren behaketatik osatu zuen berea, eta lau dimentsio bereizi zituen. 1) Hautapena: estandarrerako hizkuntza-aldiera bat aukeratzea. 2) Kodifikazioa: zuzentasun-arauak zehaztea. 3) Inplementazioa: estandarra erakundeetan finkatzea eta hiztunen artean zabaltzea. 4) Lantze funtzionala: estandarren etengabeko eguneratzea, kulturak, teknikak, irudimenak eta emozioek sortzen dituzten beharriaz erantzuteko. Haugenek ardatz biren bidez antolatu zituen lau dimentsioak. Estatus-plangintzaren ardatzean, hautapena eta inplementazioa jarri zituen. Corpus-plangintzaren ardatzean, kodifikazioa eta lantze funtzionala. Hornbergerrek (2007), hizkuntzaren transmisioarekin loturiko jarduerak biltzeko, estatus-plangintzatik jabekuntza-plangintza bereizi du.

Fishmanek, berriz, hizkuntza gutxituen ordezkapena itzularazteko kezkatik sortu du bere eredua. Zortzi mailako eskala baten itxura dauka, eta ideia nagusia da hizkuntzak ez duela irauten baldin eta belaunaldi batetik hurrengora ama-hizkuntza gisa igarotzen ez bada eta intimitatearen esparrua —familia, auzoa, komunitatea— gordetzen ez bazaio. Eskalan transmisioa baino gorago dauden mailak (eskola, hedabideak, lana eta administrazioa) ez ditu baliagarritzat jotzen hizkuntza bat ama-hizkuntza bihurtzeko; bakarrik familia barruko transmisioaren aldeko kontzientzia sortzeko. Fishman erreferentzia garrantzitsua da 1990eko urteetatik euskara normalizatzeko gogoeta eta plangintza guztietan.

HPPko ereduetan, ez Fishmanenak, ez besteek, ez diete toki berezirik eskaintzen hedabideei. Hala eta guzti, hizkuntza gutxituek 1950eko hamarkadan egin zituzten lehen agerraldiak hedabideetan eta, orduetik hona, eboluzio bat egon da hedabideei hizkuntza gutxituen normalizazioan aitortzen zaien eginkizunari buruzko ideietan. Pietikäinen eta Kelly-Holmesek (2011) hiru aldi bereizi dituzte eboluzio horretan. Dohaintza aldian, hizkuntza gutxituek lehen agerpenak egin zituzten hedabideetan, hizkuntza handi baten programazioan txertatuak, helburu testimonial hutsez. Zerbitzu aldian, komunitate gutxituek euren hedabideak eratu zituzten —askotan erakunde propioetatik, Euskadin bezala—, komunitateari egungo bizimoduan behar diren zerbitzuak —informazioa, entretenimendua eta formazioa— eskaintzeko helburuz. Performantzia aldian, mundu globalizatu eta digitalizatu baten testuinguruan, hizkuntza gutxituko hedabideek (HGHeK) euren arduren lehen lerroan ipini dute komunikazio-produktuen ekoizpena, eta atzerago utzi dute hiztunen hizkuntza-eskubideak bermatzea edo hizkuntza gutxituari leiho bat ematea.

Dohaintza aldian, agerian jarri zen hedabideek hizkuntzaren estatus-plangintzan laguntzen dutela, komunitate gutxitua eta beraren hizkuntza ikusgai eginez. Zerbitzu aldian, HGHei baliagarri iritzi zitzairen hizkuntzaren iraupenerako. Hala izan zitezen, Moringenek (2007) baldintza bat deskribatu zuen: guztizkotasuna. Hiztunari bere hizkuntzaren komunikazio-esparruan mota guztietako hedabideak eskaini behar zaizkio (guztizkotasun instituzionala) eta, hedabide bakoitzean, formatu edo genero guztiak (genero-guztizkotasuna). Jonesek (2013b) HGHen hizkuntza-praktikak aipatu ditu hedabideok hizkuntzaren sustapenean baliagarri izatea baldintza dezaketen faktore



modura, besteak beste, elebitasunaren kudeaketa eta emanaldietako hizkuntza-eredua. Zerbitzu aldian, bestalde, corpus-plangintzan ere, baliagarri iritzi zitzaizen HGHei; estandarraren zabalkunderako eta hizkuntza-baliabideen lanketarako. Performantzia aldian, jabekuntza-plangintzaren ikuspegitik, hiztunaren eta hizkuntzaren arteko harremanak gertaleku berri batean kokatzea aitortu zaie hedabideei. Hiztun motibatuak hedabideetan aurkitzen ditu interesatzen zaizkion eredu berriak eta behar dituen hizkuntza-baliabideak.

Mundu globalizatu eta digitalizatuak asko aldatu du komunikazio-sektorea eta, beraz, horrek HGHen normalizazio-zereginen hainbat eragin izan ditu. 1) IKTei esker, norbanakoak ekoizle eta kontsumitzaile aktibo bihurtu dira, batez ere Interneten, eta hedabideetan logika berri bat zabaldu dute: aritzea, erabiltzen den hizkuntzaren kezka izan barik. 2) Ekoizleak ugarituta, eskaintza ere ugaritu da. Horrek produktuak espezializatzea eta audientziak zatikatzea ekarri du. Orain, ez da komunitate osoarentzat ekoizten. 3) Ekoizleak ugarituta, hizkuntza-moldeak ere ugaritu dira. Ikus-entzunezko produktuetan, hizkuntza-aldaera estandarrak tarte zabalak utzi behar izan dizkie aldaera bernakularrei. 4) Areago, Internet bidezko hedabide berrietarako ekoiztako produktuetan batik bat, komunitateko hizkuntza-dibertsitate osoa islatzen da.

Bigarren kapituluan, begirada xehea eman diogu euskararen normalizazioari, Euskal Telebista prozesu horretan kokatzeko helburuarekin. Ricentok (2000) HPPari buruzko ikerketetan proposatu duen aldi-banaketari jarraituta, euskararen normalizazioan lau aldi bereizi ditugu, bakoitzaren hasieran mugarri bat identifikatuz. Lau mugarriok euskararen corpus-plangintzari edo estatus-plangintzari lotutako gertaera nabarmengarriak dira: 1) Euskaltzaindiak 1968an Arantzazun antolatu zuen biltzarra, 2) Espainiako 1978ko Konstituzioaren onarpena, 3) Euskaltzaindiaren 1994ko Leioako biltzarra, eta 4) euskararen Interneterako irteera 2000ko urteetan.

Normalizazioaren aurreko egoera dela eta, euskarak aro historikoan zatikatze dialektala eta etengabeko murrizketa geografiko eta soziala jasan ditu. Horri aurre egiteko lehen ekimen planifikatua Euskaltzaindiaren 1968ko biltzarrean eraman zen aurrera. Biltzar hartan, euskara batuaren (estandarraren) oinarriak ezarri ziren eta, horregatik, normalizazioaren lehenengo aldia kodifikazioa jo daiteke ardaztat. Euskararen

iraupenerako, garrantzi handikoa irizten zitzaion euskaldun guztientzako kode literario bat edukitzeari, baina beharrezkotzat jotzen zen, halaber, euskal gizarteak burujabetza izatea; politikoa eta ekonomikoa eta, batez ere, kulturala. Burujabetza hori garatzeko bideak markatu zuen euskararen normalizazioaren bigarren aldia. Hego Euskal Herrian, bideari 1978an ekin zitzaion, Espainiako konstituzioa onartzearekin, zeinak, besteak beste, euskal lurraldeei autonomia eskaintzen baitzuen, eta euskarari, ofizialtasuna.

Autonomiaren aukera baliatuta, 1980ko hamarkadan Hego Euskal Herrian Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa eratu ziren, eta normalizazio-plangintzari ekin zioten erkidego biek euskararen ofizialtasuna implementatzeko. EAEn, euskal gizarte elebidun bat lortzeko helburua zehaztuta, euskarari hezkuntzan, administrazioan eta gizarte-bizitzako arlo guztietan egin zitzaion lekua 1982ko Euskararen Normalizaziorako Legearen bidez. Komunikazioari zegokionez, EAEko administrazioak hartu zuen bere gain leku hori bermatzea, 1982an Euskal Irrati Telebista sortuz. Nafarroan ere, erritmo motelagoan, hezkuntzan, administrazioan eta beste hainbat arlotan eman zitzaion sarbidea euskarari, baina euskararen ofizialtasuna ezberdinki implementatuz lege ezarritako hiru hizkuntza-eremuetako bakoitzean. Administrazioen ekimenekin batera, euskalgintzako eragileek nabarmendu behar dira 1980ko urteetan, euskara sustatzeko saiakerak Iparraldera ere zabaldu zituztenak. Ekimenok, sarri, 1970ko hamarkadan eta lehenago ere hasitako jarraipena izan ziren: ikastolak, helduen euskalduntze eta alfabetatzea, herriko bizitza eta lantokia dinamizatzeko euskara-elkarteak, eta euskarazko tokiko irriatiak.

Horrekin batera, euskalgintzako eragileek oso zeregin garrantzitsua bete zuten euskararen corpus-plangintzan: euskarak konkistatu berri zituen eremuetan (nagusiki, administrazioan, irakaskuntzan eta hedabideetan) behar ziren baliabide lexiko eta diskurtsiboen garapenean inplikatu ziren, eta hizkuntza-kontsultarako materialak prestatu zituzten. Lantze funtzionalean halako pausoak eman ahala, beharrezkoago egiten zen kodifikazioan ere ematea, euskararen batasuna ortografiara eta morfologiara mugatuta baitzegoen 1970eko urteetatik. Hain zuzen, araugintzaren bultzada berria da euskararen normalizazioaren hirugarren aldiko ardatzetako bat. Araugintzari berriro ekiteko helburuz, Euskaltzaindiak biltzarra antolatu zuen Leioan 1994an. Biltzarrean, hurrengo urteetan urratu beharreko bidea marraztu zen: ahoskera, hiztegia, onomastika,

hitanoa, eta zalantza eragiten zuten hainbat gai morfologiko. Estandarizazioa aurrerantz zihoala, baina, euskalgintzako sektore batzuetan, tokiko komunikabideekin loturikoetan batez ere, euskalkietara itzultzeko joera agertu zen, euskara batuan nahi bezalako grazia eta bizitasuna aurkitzen ez zituztelakoan.

Kodifikazioaren bultzadarekin batera, euskararen gizarte-estatusa jasotzeko ahalegina da hirugarren aldiko beste ardatzetako bat. Euskalgintzako eragileentzat, ofizialtasunaren onurak gorabehera, agerian zegoen euskarak lan-munduan, kirolean, komunikazioan eta beste edozein esparrutan erdararekiko menpekotasun-egoeran segitzen zuela, eta hainbat ekimen abiarazi zituzten hori aldatzen ahalegintzeko. Komunikazioaren arloan, esaterako, hedabide lokalen loraldia izan zen.

Plangintza publikoei dagokienez, EAEn, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) onartu zen 1998an. EBPNk —Fishmanen 1991ko ereduan oinarriturik— hiru helburu estrategiko finkatu zituen: transmisioa, erabilera eta elikadura. Estrategiaren funtsa euskararen belaunaldiz belaunaldiko jarraipena (transmisioa) ziurtatzea zen, eta gainerako ahaleginak euskara hiztunaren inguru hurbilean atxikitzea zuzendu behar ziren: eguneroko harremanetan (erabilera), eta aisialdiko eta kulturako kontsumoan (elikadura). Nafarroan, Gobernuak euskararen sustapena oztopatzeko jarrera hartu zuen, batez ere legeriaren irakurketa murriztailea eginez. Iparraldean, euskararen ofizialtasuna onartu gabe ere, hizkuntza-plangintza publikoari lurraldea sustatzeko egitasmoen barruan ekin zitzaion. Hiztun osoen kopurua handitzeko helburu nagusiarekin, hiru esparru hartu ziren aintzat, EBPNko bertsuak: 1) euskararen transmisioa, 2) euskararen gizarte-erabilera, eta 3) euskararen bizkortzea.

2000ko hamarkadaren bigarren erdian, euskarak Interneten presentzia sendoa erdietsita, normalizazio-prozesua aldi berri batean sartu zen. Presentzia hori, hein batean, euskarak IKTen arloan egin dituen urratsei zor zaie. IKTek, gainera, euskararen corpusean lan egiteko modu berriak ahalbidetu dituzte eta, horri esker, lexikalizazioan aurrerapen handia gertatu da. Halaz guztiz, Internetek eta IKTek eragin duten mundu globalizatuan, kezkatzeko arrazoiak ere badaude, ingelesaren mehatxuagatik eta normalizazioaren aurkako jarreraren zabalkundeagatik. Euskal gizartean, gainera, egoera soziolinguistiko konplexua utzi dute 1980ko hamarkadan abiarazi ziren egitasmoek: asko gehitu da

euskararen ezagutza, belaunaldi gazteetan batez ere, baina kaleko erabilera geldituta dago hasierako igoera baten ostean.

Egoera horren aurrean, estrategia ezberdinak hautatu dituzte gizarte-eragileek eta erakunde ofizialek. Euskalgintzako eragileek erabilera sustatzeko jarreraren eta diskurtsoen lanketan ipini dute arreta, argudio nagusi hauekin: euskal herritarren hizkuntza-eskubideak, kontsentsua, hizkuntzen elkarbizitza, eta hizkuntza-ohituren aldaketa. Erakundeen plangintzak, berriz, euskararen erabilera sustatzeko baliabideak antolatzen zuzendu dira nagusiki. EAEn, Euskara 21 egitasmoa dago abian 2007tik. Egitasmoak, lehenik, XXI. menderako hizkuntza-politika berri baten oinarriak ipini ditu. Oraindino ere, helburua gizarte osoaren elebitasuna da, baina asimetriaren ideia gehituta: baliabideak errealitate soziolinguistikoaren arabera antolatuko dira. 2012an, Euskara 21 egitasmoak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) eman du. ESEPrentz giltza euskararen bilakaeraren indarguneak zaintzea eta ahuleziak zuzentzea da eta, horretarako, hainbat ekintza proposatzen dira esparruz esparru.

Nafarroan, 2015ean, gobernu-aldaketa egon zen, eta agintari berriek euskara sustatzeko jarrera ekarri dute. Horretarako, *Euskararen I. Plan Estrategikoa* landu dute 2016-2019 epealdirako. Iparraldean ere, *Euskara jalgi hadi plazara* izeneko plangintza prestatu dute, 2017an Euskal Hirigune Elkargoa abiarazi ondoren. Elkargoak, lehen aldiz historian, erakunde bakarrean elkartu ditu Ipar Euskal Herriko lurralde guztiak, eta ofizialtasuna aitortu dio euskarari bere eskumenen esparruan.

Hirugarren kapituluan, Euskal Telebistak euskararen normalizazioan izan dituen eginkizunak aztertzeari ekin diogu. Azterketa kronologikoki antolatu dugu, Pietikäinen eta Kelly-Holmesek (2011) hizkuntza gutxituko hedabideen garapenean proposatu duten aldi-banaketari jarraituta. Euskararen kasuan, dohaintza aldia, 1970eko urteetan kokatu behar da. Garai hartan, euskara batua lehen urratsak egiten hasia zen, eta euskarazko komunikabide idatziek —*Zeruko Argiak* eta *Anaitasunak*— euren euskara-eredu egin zuten. 1976an, euskarazko komunikazioa aldarrikatzeko helburuz, 1950eko hamarkadatik euskarazko programak eskaintzen zituzten lau herri-irratiek baterako programazioa aireratu zuten 24 orduz. Giro hartan, Espainiako eta Frantziako telebista nazionalak tarte bat ireki zioten euskarari astero, 1975ean eta 1976an hasita hurrenez

hurren. Oso denbora gutxi iraun zuten ekimenak izan ziren, balio sinboliko hutsekoak eta, azpimarratzekoa dena, ikus-entzunezko komunikazioan euskarari eta euskaldun profesionalei bidea urratzen lagundu ez zietenak.

Euskal gizartean, asteroko tarte haiek baino toki handiagoa nahi zen hedabideetan euskararentzat eta, EAE eratu berrian, nahi horri erantzuteko, proiektu konplexu bat eraman zen aurrera euskara normalizatzeko plangintzari lotuta. 1982an, Eusko Legebiltzarrak Euskararen Normalizaziorako Legea onartu zuen, herritarrei hedabideetan eta gizarte-bizitzako gainerako arloetan euskaraz aritzeko eta euskarazko zerbitzua jasotzeko eskubidea bermatzen ziena. Urte berean, Eusko Legebiltzarrak Euskal Irrati Telebista herri-erakundea sortzeko legea onartu zuen, besteak beste, euskara eta euskal kultura sustatzeko helburua zuena, eta herritarrei hedabideetan euskaraz aritzea eta euskarazko zerbitzua jasotzea ahalbidetuko ziena. Horregatik, ETBren sorrera da zerbitzu aldiaren hasiera euskarazko ikus-entzunezko komunikazioan. Dena dela, horrek ez du definitzen erakundearen izaera. Gaia, egon ere, debate publikoan dago oraindino. Batzuen ikuspegitik, ETB euskararen normalizaziorako tresna bat da funtsean. Beste batzuen ikuspegitik, berriz, komunikabide bat da, euskaraz emititzen duena (eta gaztelaniaz ere bai).

ETBren sorrerara itzulita, proiektua zailtasunez beteta egon zen. Legeari zegokiona laster konpondu zen, Gernikako Estatutuak EAERI aitortzen zizkion eskumenak baliatuz. Beste zailtasun bat enpresa gisa behar zituen azpiegiturak eta langile-taldea antolatzea izan zen. Ezerezetik hasi behar izan zen. Lehenengo, profesionalak bilatu behar izan ziren, eta formatu. Ia aldi berean, egoitza bat eraiki behar izan zen, eta mikrouhin-sare bat osatu. Urte gutxiren buruan, beharizanak gehitu ahala, produkzio-zentro bat egin behar izan zen. Zailtasunik handienak, edozelan ere, hizkuntzarekin loturikoak izan ziren eta, hein handi batean, horiek gainditzeko saiakerak izan dira ETBk euskararen normalizazioan egin dituen ekarpenak.

Ekarpen horietatik, lehenik eta behin, euskararen estatusarekin loturikoak azpimarratu behar dira. ETB euskararen estatus ofizialaren irudia izan zen hasierako unetik, eta euskarari eta euskaldunei buruzko aurreiritziak aldatzen lagundu zuen. Horrez gainera, hedabide gisa, euskarari komunikazioaren arloa irabazten lagundu zion. Batetik,

hizkuntza baliagarri egin zuen egungo munduan informatuta egoteko, entretenitzeko zein lan egiteko. Bestetik, ETB nahitaezkoa izan zen euskarazko ikus-entzunezko produktuak ekoizteko industria era zedin. Azkenik, Euskadi Irratiarekin batera, funtsezkoa izan zen euskararen komunikazio-esparruak guztizkotasuna, irismen nazionala eta izaera profesionala lortzeko prozesuan.

ETBk, erakunde publikoa den aldetik, bere egin ditu EAEko hizkuntza-politika publikoak, eta horrek asko baldintzatu du euskararen normalizazioan jokatu duen rola. 1980ko urteetan, euskara zekiten herritarrak ez ziren biztanleriaren laudenera ere heltzen, eta EAEko aginte publikoek, egoera hura aldatzea erabakita, gizarte osoa elebidun bihurtzea jarri zuten helburu nagusi gisa. Elebiduna izan behar zuen gizarte baten tresna gisa, ETBk EAEko hizkuntza ofizial biak hautatu zituen bere emanaldietarako. Hasieran, ETBren kanal bakarra elebiduna izan zen eta, horretarako, egunean albistegi bat euskaraz egiten zen, beste bat gaztelaniaz, eta gainerako saioak euskaraz mintzatu eta gaztelaniaz azpidazten ziren. 1986an ETB2 sortuta, kanalak eta hizkuntzak banatu egin ziren, ETB1 euskaraz, eta ETB2 gaztelaniaz, eta euskarazko saioetatik gaztelaniazko azpidatziak kenduz joan ziren. Pantailarako hizkuntza-eredu modura, bestalde, euskara batua aukeratu zuen, Jaurlaritzak administraziorako eta hezkuntzarako erabaki bezala.

Telebista-emankizunak euskara batuan eskaintzeak esan nahi zuen pantailan zaildu barik eta estandarizazioan abiatu berri zegoen hizkuntza bat erabili behar zela. Erronka handi bat zen hori euskararen corpusaren arloan eta, aldez aurreko prestakuntzarik ezean, ETBren barruan eman behar izan zitzaizkion irtenbideak. Horrek debatea piztu zuen gizartean, Euskaltzaindiarekin loturiko hainbat gizarte-eragilek ez ziotelako ETBri zilegitasunik aitortu euskararen lanketari heltzeko. Euskal Telebistak, ordea, nahitaezkoa zuen berariazko hiztegia, esamoldeak eta bestelako hizkuntza-baliabideak garatzea programa-mota bakoitzerako.

Lau telebista-genero nagusietatik, zerbitzu aldian, informazioa eta drama izan ziren lantze funtzional horren helburuak. Informazioa egunero azaltzen da ETBren pantailan, eta berari eskaintzen zaio ahaleginik handiena euskararen lanketan. Lehen pausoak 1980ko azken urteetan egin ziren, Euskaltzaindiari laguntza eskatuta, eta emaitza esaldi

okerren eta esaldi haien bertsio hobetuen bilduma bi izan ziren. Hurrengo urteetan, ETBko hizkuntzalarien eskutik, albistegietako lanera zuzendutako hizkuntza-baliabide ugari prestatu ziren, zuzentasunaren ardura alde batera utzi barik, baina egokitasuna lehenetsita, alegia, komunikazio-egoeraren arabera hizkuntza-erabilera hartuta kezka nagusizat. Eraitza nagusiak eskuliburu bat eta eskuorri-bilduma bat izan ziren. Dramatikoei dagokienez, lehen garaian, kanpo-produkziokoak baino ez ziren eskaintzen ETBn eta, euskarara ekartzeko, bikoizketa hobetsi zen. Bikoizketaren teknika denbora gutxian menperatu zen baina, jatorrizko gidioen itzulpen-egokitzapenetan, zailtasun handiak aurkitu ziren, eta ez zen gogobetetasuna erdietsi. Bi izan ziren aurrerapauso aipagarriak: euskara batu irakurria finkatzea hizkuntza-eredu gisa, eta bikoiztetxeak ETBko hizkuntzalariekin koordinatzeko sistema bat antolatzea.

Hizkuntzalariak programa-arlo jakinei atxikita hasi ziren lanean ETBn, arlo bakoitzean sortzen ziren hizkuntza-premiei erantzuteko. Lehen premia pantailara ateratzen zen euskararen zuzentasuna bermatzea izan zen eta, horren ondorioz, arlo bakoitzerako euskararen lanketari ekin behar izan zitzaion. Lan hori albistegietan eta bikoizketan hasi zen, eta hurrengo urratsa lana koordinatzea izan zen. Helburu horrekin, eta enpresaren jardunean hizkuntza-zaintzak berezko tokia izatea komeni zelako, Euskara Saila eratu, eta hor bildu ziren hizkuntzalari guztiak. Gutxira, Euskara Sailak ETBko komunikatzaileen hizkuntza-formazioaren eginkizuna ere bere gain hartu zuen.

Laugarren kapituluan, Euskal Telebistak euskararen normalizazioan izan dituen eginkizunak aztertzen jarraitu dugu, 2000. urtetik gaur egunera arteko denbora-tartean kokatuta. Urte hartan, EiTbK bere lehen plan estrategikoa aurkeztu zuen, eta horrek performantzia aldiaren hasiera markatu zuen euskarazko ikus-entzunezko komunikazioan. Mundu osoan, komunikazioaren arloan, aldaketa handiak gertatzen hasiak ziren teknologia digitalaren eskutik eta, handiagoak etortzekoak zirela aurreikusita, EiTbK testuinguru berrirako prest egon nahi zuen.

XXI. mendeko mundu globalizatu eta digitala, EiTbBrentzat ez ezik, euskarazko komunikazioaren arlo osoarentzat ere, erronka handia da. Erronka horren aurrean, euskarazko hedabideak aurrera segitzeko moldatzen dira, euskara bultzatzeko eginkizunari eutsita, gainera. Zailtasunetako bat irismena da eta, horregatik, euren

erreferentzien erdigunean euskaldunen komunitatea jartzeko estrategia darabilte. Beste zailtasun garrantzitsu bat finantzazioa da, eta denek behar dituzte diru-laguntza publikoak. Euskal Herriko erakunde publikoek ezinbesteko eginkizuna dute horretan. Horrez gainera, EAEn, Eusko Jaurlaritzak hainbat egitasmo bultzatzen ditu plataforma digitaletan euskarazko ikus-entzunezko produktuen eskaintza ugaritzera eta eskuragarri jartzera zuzenduta. Egitasmo horietan, ez du EiTB partaide egiten.

EiTBri dagokionez, 2000ko plan estrategikoak, hurrengo urteetan egin beharreko ibilbidea zehazteaz gainera, ikuspegi eta jarduteko modu berriak ekarri zituen komunikazio-taldera. Jardunbide berri horren barruan, 2002an, EiTBk eta Eusko Jaurlaritzak lehen programa-kontratua sinatu zuten, bien arteko harremanak zehazteko. 2008an, EiTBk ekitaldi bat antolatu zuen euskal gizarteko ordezkari eta eragileekin, haien ideiak eta proposamenak entzunda, bere gizarte-erantzukizuneko plana abiarazteko. Plan estrategikoak, programa-kontratuak eta gizarte-erantzukizuneko planak EiTBren plangintza estrategikoa osatzen dute, eta aldika berriztatzen dira, normalean zuzendaritza berriztatzen denean. Edukiari dagokionez, EiTBren jarduera osoa ukitzen dute, besteak beste, kudeaketa ekonomiko-administratiboa, egoitzak, teknologia eta ekoizten diren kanalak eta produktuak. Euskara ere, atal garrantzitsua da eta, hala, plangintza estrategikoaren dokumentuetan jasota daude performantzia aldian EiTBk euskararen arloan izan dituen helburuak eta konpromisoak, eta aurrera eramane dituen jarduerak eta ekimenak.

Plangintza estrategikoan zehazturiko ildoari jarraiturik, 2000tik hona, EiTBk teknologia digitala implementatu du ekoizpen- eta emisio-prozesuetan; komunikazio-talde multimedia bihurtu da, Internetera jauzi eginda; Bilbora ekarri du egoitza nagusia, eta bere emaitzen ebaluazioa egiteko sistemak ezarri ditu. Euskararen arloan, EiTBko Euskara Saila EiTB osoarentzat lan egitera igaro da, Euskara Zerbitzua izenarekin, eta euskara-planak jarri dira abian, laneko harreman eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin. EiTBren lerro editorialari dagokionez, estilo-liburu bat prestatu da, informazioaren eta aktualitatearen lanketarako irizpideak emanez. EiTBren estilo-liburuak parte-hartze zabala eta kontsentsua bilatu ditu eta, horri esker, irtenbidea eman ahal izan dio EiTBren historian tirabirarik garrantzitsuenak eragin dituen gai bati: erreferentzia-esparruaren zedarritzea. Estilo-liburuak ontzat eman du urteetan *de facto* erabili den irizpidea, zeina baita euskara dela EiTBren erreferentzien ardatza.



EiTBk azken hamarkadetan euskararen normalizazioan bete duen rolari dagokionez, euskararen estatusari egin dizkion ekarriak aipatu behar dira lehenik. XXI. mendean, euskal gizartean euskararen ezagutza zabalduz doalarik, normalizazio-plangintzetako kezka eguneroko bizitzako erabilera sustatzea da eta, horretarako, lehentasuntzat jartzen da euskara hedabideen esparruan sendotzea. EiTB funtsezkoa da eginkizun horretan. Alde batetik, aro digitalean, euskal ikus-entzunezko industria bultzatzen segitzen du eta, hainbat ekimenen bitartez, edukien ekoizpen eta zabalkundea eta talentuaren prestakuntza ingurune digitalera egokitzen laguntzen dio. Beste alde batetik, euskararen komunikazio-esparruari iraunarazten eta sendotzen laguntzen dio, hurbiltasunaren eta lankidetzaren estrategien bidez. Horrez gainera, ingurune digitalean gertatu den audientzia-zatiketaren aurrean, EiTBk espezializatzeko eta interes-komunitateak aintzat hartzeko strategiara jo du. Apustu hori oso garbia da haurrentzako eta gazteentzako eskaintzetan.

Bigarrenik, hizkuntza-politika publikoek ETBren jardueran duen eragina dela eta, XXI. mendearen hasierarako EAEn zehaztu den hizkuntza-politikak gizarte elebiduna du helburutzat, elebitasun horretan asimetria geografiko eta funtzionala onartuta. Asimetriaren ideia lerratu dira, beraz, EiTBk zerbitzu alditik zehaztuta zeuzkan hizkuntza-hautuak. Hala, gizarteko elebitasunaren kudeaketari dagokionez, EiTBk hizkuntzak kanalen arabera banatzeko eredua gainditu, eta euskarari komunikazio-talde osoan eman nahi izan dio ikusgaitasuna, baita gaztelaniazko kanaletan ere, besteak beste, informazioetako protagonisten adierazpenen bitartez.

Telebistako hizkuntza-ereduan ere, eragina izan du asimetriaren ideiak. Albistegietan eta programa formaletan, ez da aldatu euskara batuaren hautua, baina entretenimenduari eta herritarren parte-hartzearekin loturiko programetan lekua egin zaie euskalkiei. Lehen irizpide zehatzak 2005ean eman ziren *EiTBra*ko *hizkuntza-funtsak* izeneko dokumentuan. Bertan, emanaldietako euskararen kalitateari buruzko irizpideak ere eman ziren. Komunikazio-taldean, lehen unetik zaindu eta bultzatu da kalitate oneko euskara erabiltzea baina, Euskal Herriko errealitate soziolinguistiko berriaz ohartuta, *Funtsetan*, EiTBko komunikatzaileei eskatzen zitzairen euren euskara zuzena ez ezik egokia eta komunikagarria ere izan zedila. Gonbidatu, elkarrizketatu, inkestatu eta gainerako herritarrei, berriz, EiTBn euren hizkera erabiltzeko eskubidea aitortzen zitzairen.

Euskara egoki eta komunikagarriaren erronkari erantzuteko, performantzia aldiari EiTBN corpus-arloan lan handia egin da, genero bakoitzerako behar diren erregistroak jorratuz eta hizkuntza-baliabideak garatuz. Baliabide horietatik, 2007ko *Euskarazko albistegietarako esku-liburua II* aipatu behar da (2013an *Albiste testu bikainak* izenarekin, edizio emendatua izan zuen). HIKEA ere aipagarria da, zeina baita EiTBN hitzen eta terminoen erabilera bateratzeko datu-base bat. Erregistroaren garapenari dagokionez, zerbitzu aldiari bezala, arretarik gehien albistegietan eta bikoizketan ipini da. Azken arlo horretan, itzulpen-egokitzapenerako irizpideak bikoizketa-estudioekin batera lantzeko dinamika egon zen 2003tik 2011ra, eta emaitzak *Bikoizketan elkarlanean* dokumentu-sortan jaso ziren. ETBren barne-produkzioari dagokionez, kolokialtasuna izan da arreta gehien eskatu duen gaia.

Erregistroen garapenerako zereginaren pisurik handiena EiTBNko Euskara Zerbitzuak du bere gain. Euskara Zerbitzuak du bere gain, era berean, hizkuntzaren lanketan Euskaltzaindiarekin harremanean egotea, hizkuntza-formazioa eskaintzea, eta EiTBN euskara-ereduari eta hizkuntza-baliabideei zabalkundea ematea. Egiteko horiek komunikatzaileei zuzenduta daude, eta beraien beharrez EiTBN hizkuntza-hautuen inplementaziotik sortu da. Hortik, ETBren ikusleei zuzendutako beste egiteko batzuen beharrez ere sortu da. Lehen egitekoa, programen azpidazketa. ETB1en, 1990eko urteetan utzi ziren gaztelaniazko azpidatziak baina, mende berrian, euskarazkoak ezarri dira, ikusleei euskarazko saioen irispidea errazteko helburuz, esaterako, pastoralen emankizunetan eta gorrentzako zerbitzuetan. Bigarren egitekoa euskararen ezagutzaren sustapena izan da, alegia, ikusleak euskara ikasteko motibatzea, eta euskararen ikaskuntzan laguntzeko saioak eta bestelako baliabideak ekoiztea.

Gure ikerlanaren ikuspegi orokorra emanda, lau ideien gaineko gogoeta egin nahi dugu hurrengo paragrafoetan. Lehen ideia da hizkuntza-normalizaziorako eredu batean oinarritzea aukeratu dugula azterketa antolatzeke eta emaitzak aurkezteke, eta aurrez ikus zitekeela horrek gure lan osoa baldintzatuko zuela, azterketaren ondorioetan eragina izateraino. Aukerarik logikoena Fishmanen 1991ko ereduak zirudien, 1990eko urteetatik euskara sustatzeko plangintza guztiek berorri jarraitu baitiote, baina ez, hain zuzen ere, gure ikerketan funtsezkoa den alderdi batean: normalizazio-plangintzetan zer toki egokitzen zaien hedabideei. Fishmanek bigarren mailako tokia egotzen die.

O'Connellék (2004), berriz, hizkuntza-plangintzaren atal guztietan deritze baliagarri hedabideei. Azterketa honetan O'Connellék landutako hamaika ataleko zerrendaren parez pareko bat osatu bagenu, oso egokiro bilduko genituzkeen ETBk euskararen arloan aurrera eramán dituen ekimenak eta jarduerak, sail koherenteak osatuz, baina ekimen eta jarduera horien atzean egon litezkeen arrazoi, inguruabar eta loturak aipatu ere egin gabe.

Gure ikerketarako, Hornbegerren 2007ko HPPko eredu integratzailea iruditu zaigu egokiena. Eredu integratzaileak hizkuntza-normalizazioan ohikoak diren kategoriak jasotzen ditu (estatusa, jabekuntza eta corpusa), eta hedabideei —gainerako baliabide, esparru eta arretaguneei bezala— planifikatzaileek eurek erabakitzen duten tokia aitortzen die. Eredu integratzaileak, beraz, aukera eskaintzen zigun ETBk euskararen arloan egin dituen ekimen eta jarduerak kategoria horietan koherenteki biltzeko eta, gainera, ekimen eta jarduerok kategoria horiexen bidez konektatzeko euskararen normalizazioari zegozkion ideia, helburu, egitasmo eta prozesuekin, berdín-berdín aldiune batean zein epealdi oso batean.

Izan ere, ikerketa honetan nahitaezkotzat geneukan denboraren ikuspegia hartu ahal izatea, Euskal Telebista momentu historiko jakin baten emaitza delako, hain zuzen ere, batetik, euskararen normalizazioa eta, bestetik, euskal gizartearen burujabetza politiko, sozial, ekonomiko eta kultural handiagoaren nahia bidean gurutzatu ziren momentuaren emaitza. Hala iritzita, azterketa osoa kronologikoki antolatu dugu. Euskararen normalizazioaz aritzeko, Ricentok 2000an HPPko ideien eboluzioan proposatu duen aldi-banaketa hartu dugu aintzat, Euskal Herriko hiru erkidegoak bereizita. ETBren sorreraz, garapenaz eta euskararen sustapenarekin duen erlazioaz aritzeko, berriz, Pietikäinen eta Kelly-Holmesek 2011n hizkuntza gutxituko hedabideei normalizazioan aitortu zaien ideien eboluzioaz proposatu duten aldi-banaketari jarraitu diogu, Ricentoren banaketarekin kongruentea dena.

Aldi-banaketa horien aplikazioz, periodizazio bana landu dugu euskararen normalizazio-prozesurako eta euskarazko ikus-entzunezko hedabideen historiarako. Euskara normalizatzekeo prozesuan, lau mugarri identifikatu, eta lau aldi bereizi ditugu. Lehen aldia 1968an hasi zen, Euskaltzaindiak Arantzazun antolatu zuen biltzarrarekin;

hori da, beraz, lehen mugarrria. Bigarrena Espainiako 1978ko Konstituzioaren onarpena da. Hirugarrena Euskaltzaindiaren 1994ko Leioako biltzarra da, eta laugarren mugarrria, euskararen Interneterako irteera, 2000ko hamarkadaren bigarren erdian koka dezakeguna. Euskarazko ikus-entzunezko komunikazioaz denaz bezainbatean, hiru aldi bereizi ditugu. Lehena, dohaintza aldia, 1970eko hamarkadaren bigarren erdian koka dezakegu nagusiki. 1982an, ETB sortu, eta munarri horrek zerbitzu aldiaren hasiera markatu zuen. Oraingoz azken aldia dena, performantzia aldia, 2000. urtean hasi zen, EiTbK bere plangintza estrategikoa abiaraztearekin batera.

Azken gogoeta honetara ekarri nahi dugun bigarren ideia da Euskal Telebistaren hizkuntza-alorreko hautuen eta ekimenen gaiak bat datozela Jonesek (2013b) hizkuntza gutxituko hedabideen hizkuntza-praktikei buruzko debatean identifikatu dituen gaiekin. Hiru hamarkada baino gehiagoko ibilbidean, gainera, ETBk bere praktikak aldatu egin ditu gai horietako batzuetan. Gizarteko elebitasunaren kudeaketatik hasita, ETB kanal elebidun modura sortu zen 1982an. 1986an emisioak kanal bitan banatu zirenetik, eredu duala deritzona ezarri zen: kanal bietako bat (ETB1) osorik euskaraz, eta bestea (ETB2) osorik gaztelaniaz. Dualtasun horrek edukietan izan zuen korrespondentzia alde batera utzita, hizkuntzen banaketa zurruna gainditzeko saiakerak 2000ko azken urteetatik datoz eta, EiTbren 2013-2016ko plan estrategikoan, hautu garbia egin da EiTbren gaztelaniazko kanaletan euskara ikusgai egin dadin.

Emanaldietako hizkuntza-ereduari dagokionez, ETBk euskara batuaren alde egin zuen lehen unean. 2000ko hasierako urteetatik, *Sorginen laratza*-rekin batik bat, euskalkieiei ere lekua egin zitzaient gonbidatuen eta fikzioko pertsonaien ahotan, eta gaur arte dirauen eredu hori 2005ean finkatu zen *EiTbrako hizkuntza-funtsak* deritzon dokumentuan. Gonbidatuen euskara zela eta, zehazki, «*gonbidatu, elkarrizketatu, inkestatu edo ikus-entzule bakoitzak bere hizkera erabiltzea*» errespetatu behar zela esaten zen *Funtsetan* eta, hala, euskalkian ari ziren euskaldunei ez ezik, edozelako hizkuntza-gaitasuna zuten euskaldunei ere ireki zitzaizkien EiTbren mikrofonoak. Horrek ez du esan nahi ordutik politika berri batek gidatu duenik emanaldietako euskararen hizkuntza-kalitatea (Jonesek identifikaturiko beste gai bat). Euskal Telebistak bere programetan kalitate oneko euskara erabiltzeko politikari jarraitu dio lehen unetik, eta aldaketa edo —hobeto esanda— eboluzioa 'hizkuntza-kalitate'

kontzeptua ulertzeko moduan gertatu da. Hasieran, kalitatea eta zuzentasuna berdintzat hartzen ziren eta, 1990eko hamarkadatik, beste irizpide batzuk gehitu dira; garrantzitsuena, egokitasuna —komunikazio-egoeraren premien arabera— izatea—.

Egokitasunaren ideiak Jonesek aipaturiko beste bi gai barne hartzen ditu: emanaldietako hizkuntzaren estiloa —formala edo kolokiala— eta maila —zaindua edo arrunta—. ETBko euskara-lanketan, kolokialtasuna izan da erronkarik zailena, eta oraindino ere bada. Bide bat baino gehiago jorratu dira, gainera. Lehena, 2000. urtean *Hasiberriak* telesailerako, *Goenkale*-ko euskararen tankerakoa saiatu zen; euskara batuan oinarritua, beraz. *Wazemank* umore saioan —eta 2005ean hasi zenetik hamar urtez atzetik ekarri zuen programa-agan—, hizkera kolokial lokalak (dialektalak) erabili ziren. Bikoizketan, jatorrizko produktuak lagunarteko hizkeraren beharrezana sortu duenean, *Hasiberriak* seriearen ereduari jarraitu zaio, baina euskara kaletarragoa eta garaikoagoa oratzeko ahalegina eginda. 2017-2018 denboraldian, *Merlí* telesail katalana bikoizteko, beste urrats bat egin nahi izan da jatorrizko bertsioko hizkera-ugaritasuna islatzeko. Horretarako, bertsiio bikoiztuan, pertsonaia batzuen hitz egiteko modua mendebaldeko euskaratik abiarazi da eta, biraoetan, graduazioak landu dira, esate baterako, 'ostia' (gordinagoa) eta 'ostra' (leunagoa).

Azken gogoeta honetako hirugarren ideia ETBri buruzkoa da. Lehen kapituluan egungo ikus-entzunezko komunikazioari buruz jardun dugunean, IKTek eragin duten iraultza deskribatu dugu: produktuen zabalkundea eta kontsumoa oraintsu arte ezagutu ditugun azpiegitura eta gailuetatik askatu direla, eta ekoizpena bera ere oraintsu arteko planteamendu eta egikeretatik askatu dela, besteak beste konbergentzia-prozesuak eta estrategia krosmediak eta transmediak tarteko. Testuinguru horretan, komunikazioaren arloko enpresek korporazio multimedia bihurtzera jo dute. Alegia, gero eta lausoagoak dira garai bateko dibisioak (irratia, telebista, Internet edo beste), eta enpresok gero eta arreta handiagoa ematen diote euren produktuak posible zaien formatu eta plataforma guztietan kokatu eta zabaltzeari.

Euskal Irrati Telebista ere modu bereko transformazio batean murgilduta dago azken urteetan eta, horregatik, zentzu gutxi du ETBri banakako enpresa modura edo komunikazio-talde bateko telebista-dibisio modura begiratzeak eta, era berean, zentzu

gutxi du ETBren irismena audientzia-datu tradizionalen arabera epaitzeak. ETBk, gaur egun, telebistarako, Interneterako, zinemarako eta appetarako ekoizten du, plataforma bakoitzerako berariazko produktuak zein produktu krosmediak eta transmediak ekoitzi ere, EiTbK eskaintzen dion euskarri tekniko, administratibo eta finantzarioaz baliatuz, eta EiTbK ezartzen dizkion irizpide eta lerro estrategikoei jarraituz. Hortaz, berdina dio ETBz zein EiTbz hitz egin. Ikuspegi historikotik, ordea, nahitaezkoa da ETB bere horretan hartzea 1980ko eta 1990eko hamarkadetan, ez baitago esandako transformazio horren aztarnarik 2000ko plan estrategikoaren aurretik.

Azken gogoeta hau ixteko, laugarren ideia gure ikerketan esku artean erabili ditugun dokumentuekin lotuta dago. Dokumentazioaren bilketan, antolaketan eta kontserbazioan egin dugun lana onura handikoa izango da, bai Euskal Telebistarentzat berarentzat, bai atzetik etor daitezkeen beste ikertzaile batzuentzat. Izan ere, agirien multzo handi bat barruko erabilerakoa zen; ezezaguna, beraz, enpresatik kanpo, baita enpresa barruan ere sarritan. Asko galtzeko zorian egon ziren egoitza nagusiaren lekualdaketagatik. Egun, dokumentu guztiak EiTbren Artxiboan daude, dossierretan bilduta eta katalogatuta.



## 6. ONDORIOAK

Euskararen normalizazioaren ibilbideari eta ETBren jardunbideari egin diegun gainbegiratutik, hamalau ondorio atera ditzakegu, multzo bitan banatuko ditugunak: euskararen normalizazio-prozesuari dagozkionak, eta ETBk euskararen normalizazioan izan duen eginkizunari dagozkionak.

Euskararen normalizazio-prozesuari dagozkion ondorioak azalduko ditugu lehenik.

- Euskararen egoera normalizatua ulertzeko eran eboluzio bat gertatu da, sasoi bateko eragile euskaltzaleen idealismotik («*Euskal Herri euskalduna*») egungo eragile instituzionalen pragmatismora («*gizartearen elebitasun asimetrikoa*»). Pragmatismo horrek ez dakarkio euskararen hautua egin duen herritarrari bere bizitzan esparru batzuk itxita aurkitzea baina bai, beharbada, murrizketak pairatzea, esate baterako, haurrak etxetik kilometro batzuetara apuntatu behar izatea pintura-ikastaro baterako.
- Euskararen normalizazio-prozesuan, Euskal Autonomia Erkidegoko plangintza publikoa izan da aitzindaria, bultzatzaile nagusia, eta urratsik irmo eta ausartenak egin dituenak, Euskal Telebista sortzea tartean.
- 2010eko hamarkadaren bigarren erdian, aldi berri bat hasi da euskararen normalizazioan. Hiru dira horren adierazleak. Lehenik, 2017. urtetik, hiru



erkidegoek daukatela euskara sustatzeko hizkuntza-politika bat zehaztuta eta dokumentu batean jasota. Bigarrenik, euskararen ezagutzak gora egin duela lehen aldiz hiru erkidegoetan 16-24 urtekoen tartean 2016ko Inkesta Soziolinguistikoaren datuen arabera. Hirugarrenik, erronka nagusia euskararen kaleko erabilera areagotzea izanik, norbanakoaren hizkuntza-ohituren aldaketan oinarrituriko ekimen berritzaileak gailendu direla 2015etik erakunde publikoen zein euskalgintzako elkarten plangintzetan. Ekimenon artetik, Euskaraldia da aipagarriena.

Jarraian, Euskal Telebistak euskararen normalizazioan izan duen eginkizunarekin loturiko ondorioak azalduko ditugu.

- Eboluzio bat gertatu da ETB —EiTB— euskararen normalizazioaren testuinguruan ulertzeko eran, garai batean gauza subsidiariotzat hartzetik («*normalizazio-tresna*») egun berezko izatea duela aitortzera («*Euskal Herriko komunikazio-maparen barruan eragile nagusia*»), EiTBren 2013-2018ko plan estrategikoak dioenez). Paradoxa dirudien arren, tresna izateko ideia hori atzean geratuz joan den heinean eta ETB bere hedabide-izaeraz ohartuago egin den heinean, ikuspegi helduago batetik inplikatu da euskararen sustapenean. Hala egiazta daiteke EiTBren 2000tik aurrerako plangintza estrategikoan.
- Euskarazko ikus-entzunezko komunikazioan, suspergarri baten beharra dago, euskara atzerantz egiten ari dela igartzen baita. Alde batetik, EiTBren eskaintza asko murriztu da fikzioan, entretenimenduzko ikuskizunetan eta eliteko kirolean. Beste alde batetik, euskarak sarbide zaila du ikus-entzunezko plataforma digital handietan, egun aisialdiko lehen aukeretako bat direnak. Horretaz guztiaz gainera, EiTBren plangintza estrategikoa inertziaz doa aurrera. Izan ere, oraingo goi zuzendaritza aurreko ekipoetako pertsonak osatzen dute, eta denak dira plantillako langileak, EiTBn urte asko egin dituztenak. Era berean, 2010eko hamarkadaren amaieran onartu diren planak (2016-2019ko programa-kontratua eta 2017-2020ko plan estrategikoa) biziraupen-neurritzat har daitezke, Eusko Legebiltzarrean egitekoa den EiTBren erreformak zer dakarren zain.

ETBk euskararen normalizazioan izan duen eginkizunarekin loturiko ondorioen multzoan, euskararen estatus-plangintzari buruzkoak aipatuko ditugu jarraian.

- Euskal Telebistak balio sinboliko oso handia izan du lehenengo momentutik. Funtsezkoa izan da euskara egungo mundurako baliagarria dela frogatzeko, eta euskaldun-komunitatea egungo munduko kulturen artean kokatzeko. Horrekin batera, euskal erkidego guztiek aitortzen, babesten eta partekatzen duten erakunde bakanetako bat da.
- ETB sortzeak Euskadin ikus-entzunezko industria bat garatzea ahalbidetu zuen eta, industria horren bitartez, euskarazko ikus-entzunezko produktuak ekoiztea eta merkaturatzea.
- Euskal Telebista eta, berarekin batera, Euskadi Irratia eta EiTb talde osoa nahitaezko elementuak dira euskararen komunikazio-esparruan. EiTb taldeak profesionalizazioa ekarri du euskarazko komunikaziora, eta irismen nazionala eman dio irratian eta telebistan.

Euskararen corpus-plangintzari dagokionez, hauek dira ondorioak.

- EiTbk rol erabakigarria izan du kodifikazioan. Izan ere, EiTbko hizkuntzalariek ahoskera batuaren arauaren prestaketan hartu zuten parte eta, egun, Lexikoaren Behatokiaren bidez, EiTbren testu-ekoizpenak eragina du lexikalizazioan.
- EiTbk ekarpen handia egiten du euskararen lantze funtzionalean. Batetik, aurreneko lerroko eragileetako bat da euskara informatiboaren garapenean eta, ahozko informazioan, buru-buruko eragilea. Bestetik, bere saio eta bikoizketen bidez, EiTb nahitaezkoa da hizkuntza-aldaeren jorraketan; bereziki aipatzekoak dira dibulgazioaren esparruko erregistroak eta batuaren hizkera kolokiala, zeina, egin den bidea egin dela, oraindino ere batuaren erronka nagusia baita. Beste erakunde batzuen kolaboratzaile modura, gainera, lantze funtzionalaren zereginen urrunago heltzeko aukera izan du: EiTbk Eusko Jaurlaritzaren Terminologia Batzordearen lanetan hartzen du parte, eta iritzi-emaile gisa jardun du EIMArene estilo-liburuetan.

Euskararen jabekuntza-plangintzari dagokionez, hauek dira ondorioak.

- EiTbK gizarte osoan zabaldu du euskararen estandarren ezaguera; lehenengo, euskara batua delako beraren hizkuntza-eredua; bigarren, euskara ikasteko edo hobetzeko berariazko saioak ekoitzi dituelako eta, hirugarren, euskaltegiarako ikasmateriala sortzeko erabili direlako EiTbren programa eta testuak.
- Arlo profesionalean, EiTb berealdiko eskola da komunikatzaile euskaldunentzat. Taldeko kazetariei, beste hedabide batzuetakoei nahiz unibertsitatean ari diren ikasleei zuzenduta, ekimen eta baliabide ugari prestatu ditu hasierako urteetatik hona, besteak beste, eskuliburuak, etengabeko formazioa, hasiberrientzako ikastaroak eta master bat (Multimedia Komunikazioa masterra, 2009tik UPV/EHUrekin batera antolatzen duena.).
- Komunikazioaz besteko profesionalen kasuan ere, EiTbn lan egiteko zein EiTbren saioetan parte hartzeko aukera hizkuntza-trebetasunak emendatzeko suspergarria izan da.

Laburbilduz, Euskal Telebistak eginkizun oso garrantzitsuak bete ditu eta oraindino ere betetzen ditu euskararen normalizazioan alderdi guztietatik begiratuta eta, beraz, 5/1982 Legeak euskararen arloan ezarri zion betebeharrari erantzun dio. Hala ere, azken ondorio deigarri bat aipatu beharra dago.

- ETBk ez du lortu normalizazio-eragile instituzionalen plangintza eta jardueretan euskararen sustapenarekin lotuta bete dezakeen rola neurriko tokia. Euskaltzaindiaren aldetik, EiTb urrun edukitzera jotzen da ekimen eta lan akademikoetan. Jaurlaritzaren aldetik, euskara normalizatzeko plangintzetan zein EiTbrekin sinaturiko programa-kontratuetan, EiTbri ezartzen zaizkion betekizunak nekez doaz alderdi sinbolikotik harago: euskarazko kanalak eskaintzea komunikazio-plataforma guztietan; kanal horietan euskararen kalitatea zaintzea (kalitatea zuzentasun modura ulertuta), eta erdarazko kanaletan euskararen aldeko jarrera sustatzea.

Ondorioen azalpena amaituta, aurrera begira jarri nahi dugu. Euskal Telebistak euskararen normalizazioan izan dituen eginkizunak testuinguratzeko, arakatzeko eta aurkezteko, Hornbergerren 2007ko HPPko eredu integratzaileaz baliatu gara eta, hortaz, politika, estatusa, corpusa eta jabekuntza izan dira gure diskurtsoaren ardatzak, bai eta gure ikuspegiaren mugak ere. Ohartzen gara muga horietatik haragoko ikuspegiak hartuta ikerketa berriak egin daitezkeela ETBren normalizazio-eginkizunaz. Ikerketa berrien helburua, gainera, esploratzea izan daiteke, hau da, eginkizun hori betetzeko bide berriak bilatzea. Guk hiru iradokizun egingo ditugu.

Lehenik eta behin, ikerketa-ildo interesgarria izango litzateke ETB hizkuntza gutxituko beste komunitate batzuen telebistekin konparatzea, arretagune nagusi hauekin: zein den komunitate bakoitzaren egoera soziolinguistikoa, eta telebistak zelan erantzun dion horri bere programazioaren bidez eta bere hizkuntza-hautuen bidez. Ikerketa horretan, Kataluniako TVCk eta Galiziako TVGk arreta berezia mereziko lukete, ETBren abagune historiko berean sortu zirelako eta, orduetik hona, testuinguru soziopolitiko eta mediatikoaren zati bat partekatu dutelako.

Bigarrenik, aberasgarria litzateke ETBri gizarte-kohesioaren eta norbanakoaren promozioaren ikuspegitik begiratzea, eta ikertzea zer espazio eta soluzio mediatiko eskaintzen dituen hizkuntza inplikatzeko duten egungo bizimoduko kezketarako. Halako kezkak dira, besteak beste, herritarren parte-hartze sozial eta politikoa, identitatea, ezagutzaren sozializazioa, migratzaileen integrazioa, edo informazio fidagarriaren atzipena. Gure azterketa honetan, zantzu batzuk baino ez dira agertu, baina sinetsita gaude ETBren —eta, oro har, hizkuntza gutxituko hedabideen (HGHen)— ekarpena handia dela alor honetan.

Hirugarrenik, bide berrien esplorazioarekin lotuta, beharrezkoa iruditzen zaigu IKTek egungo gizarteetako hizkuntza-aniztasunaren kudeaketan zer aukera eskaintzen dituzten aztertzea eta aukera horiek ETBn eta HGHetan zelan aplikatu ikertzea. Teknologiak irismena eta potentziala emendatzea ekar diezaike HGHei, batik bat baliabide teknologiko berriekin hizkuntzen tratamendu berriak konbinatuz gero, esaterako, ETBk *Supernanny*-ren euskarapenean saiatu zuena, bikoizketa eta azpidazketa konbinatuz.

Gizarte elebidunetan, badira ahots batzuk, HGHeKin oso kritikoak direnak. Hedabideoi aurka egiteko argudio nagusi modura, gizartean hesiak altxatzea eta finantza-baliabide publikoak gutxi batzuen interesetan xahutzea egozten diete. Argudio ekonomikoa sendotasun gutxikoa da, diru-sail publiko gehienak interes partikularreko sektore edo helburuetara zuzentzen baitira. Hesiak altxatzea dela eta, ez dirudi zentzu handikoa denik halakorik egoztea kultur aniztasuna, gizarte-kohesioa eta norbanakoaren promozioa sustatzen dituen erakunde bati. Proposatu ditugun hiru ikerketa-ildoek ETB halako erakundea dela frogatzen lagun lezakete eta, halaber, ETBk euskararen normalizazioan ikuspegi berritzaileekin eta eginkizun garrantzitsuekin inplikatzeko jarrai lezakeela.

---

BIBLIOGRAFIA ETA ERANSKINAK

---



## BIBLIOGRAFIA

- 3.2. Diziplina Arteko Lantaldea. (2014). Gaztelaniazko kanaletan euskara txertatzeko proiektuaren fitxa. EiTbren barne-dokumentazioa.
- A.E. (2013, abenduak 20). EiTbK, Ibaiak eta EPEk lankidetzaren hitzarmena berri dute. Interneten eskuratua: <http://www.eitb.eus/eu/kultura/osoia/1851482/euskal-ikusentzunezkoak--eitb-ibaia-eta-eperen-hitzarmena-berrituta/&>
- Agirre, G. (2003). *BIE, 25 urte*. Bilbo: Bizkaiko Ikastolen Elkarte.
- Agirre, L. (1989a). Euskarazko hitzen irudirik gabeko protagonistak (1). Bikoizketen kalitatea gelditu produkzioa gorantz doan arren. *Argia*, 18–19 or.
- Agirre, L. (1989b). Euskarazko hitzen irudirik gabeko protagonistak (2). Egokitze-itzulpengintza, tb-ko euskara arautuko duen elkartearen premian. *Argia*, 48 or.
- Agirre, L. (1989c). Euskarazko hitzen irudirik gabeko protagonistak (3). Lau bikoizketa etxeak merkatu berrien bila. *Argia*, 48–49 or.
- Agirre, L. (1989d). Euskarazko hitzen irudirik gabeko protagonistak (4). Igone Etxebarria: «Minimoak finkatu eta hortik gora jo behar dugu». *Argia*, 48 or.
- Agirre, L. (1989e). Euskarazko hitzen irudirik gabeko protagonistak (5). Bikoizketan aurrera egiteko oinarriko eritzi baliagarriak. *Argia*, 48–49 or.
- Agirre, M., Iturbe, M., Elguezabal, J., Sinde, A., Maiz, A., Korta, J. L., ... Errasti, B. (2008). Euskal Tebista, E. A.ren 2008ko hitzarmen kolektiboaren azken akta. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Agirrebaltzategi, P. (1992). Euskara Batua euskaldunak batzeko. *Ele*, 11–12, 7–13 or.
- Aizpurua, X. (1995). *Euskararen jarraipena*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Akuilua. (2015, uztailak 10). Imanol Aguirre eta Iker Loizate: «“Gu ta gutarrak” saioan gauden denok gara apur bat “pertsonaiak”». *Anboto*, 32 or.
- Alberdi, X., & Sarasola, I. (2001). *Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea - Argitalpen Zerbitzua.
- Albornoz, L. A. (2002). Televisiones públicas autonómicas en España y normalización lingüística. El caso de Telemadrid: una cadena autonómica singular. *Área Abierta*, 2, 1–17 or.
- Aldasoro, E. (2003). Euskararen irakaskuntza Nafarroan. *Eleria*, 11, 47–52 or.
- Alegria, I., Artola, X., Diaz de Ilarraza, A., & Sarasola, K. (2008). Hizkuntza-teknologia IXA taldean, euskararen erabilera errazteko eta sustatzeko aplikazioak. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 66, 41–59 or.



- Alkorta, L., & Zuberogoitia, A. (2009). *Masa-komunikaziotik informazioaren gizartera. Euskararen bideetan barrena*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Altuna, O., Iurrebaso, I., Isasi, X., Martínez de Luna, I., Ramos, R., & Uranga, B. (2012). Hizkuntzen kale-erabileraren VI. Neurketa, 2011. Emaizta nagusiak. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 84, 31–58 or.
- Amezaga, J. (1999, maiatzak 2). EITB nazio eraikuntzan. *Euskaldunon Egunkaria*, 6 or.
- Amezaga, J. (2013). Euskal Telebista 30 urteren ostean. *Jakin*, 194–195, 11–50 or.
- Amonarriz, K. (2008). Txostena. In *Euskara hedabideetan. Euskarazko hedabideak eta euskararen presentzia hedabideetan* (57–75 or.). Eusko Jaurlaritza.
- Amonarriz, K. (2014, otsailak 9). «Euskararen aldeko espiritua eta indarra erakutsi nahi dugu» [Berria, 28 or.].
- Amuriza, X. (1996a, irailak 7). ETB eta euskara (I) - Komentarista laguntzaileak. *Egin*, 8 or.
- Amuriza, X. (1996b, irailak 8). ETB eta euskara (II) - Aurkezleak. *Egin*, 8 or.
- Amuriza, X. (1996c, irailak 9). ETB eta euskara (III) - Etxe barrukoak. *Egin*, 8 or.
- Amuriza, X. (1996d, irailak 10). ETB eta euskara (eta IV) - Kontrola. *Egin*, 8 or.
- Anasagasti, K. (1990). Bikoizketaren hizkuntz ikerketa. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Androutsopoulos, J. (2001). From the streets to the screens and back again: On the mediated diffusion of ethnolectal patterns in contemporary German. *LAUD Linguistic Agency*, 522.
- Androutsopoulos, J. (2008). The study of language and space in media discourse. In *Language and Space: An International Handbook of Linguistic Variation* (740–758 or.). Berlin/New York: Mouton de Gruyter.
- Androutsopoulos, J. (2011). From variation to heteroglossia in the study of computer-mediated discourse. In *Digital Discourse: Language in the New Media* (277–298 or.). Oxford / New York: Oxford University Press.
- Aracil, L. (1986). *Papers de sociolingüística*. Barcelona: Edicions de la Magrana.
- Arana, E. (2002, maiatzak). Euskarazko telebista publikoa gaur [Larrun, 55, 2-17 or.].
- Arana, E., Amezaga, J., & Azpillaga, P. (2010). *Los medios de comunicación en euskara*. Leioa: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco.
- Aranberri, L. A. (1995). ETB: 25. urteurrenaren bidean. *Jakin*, 89, 77–94 or.
- Aranburu, A. (1988). Control de calidad lingüístico-artístico. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Aranburu, A. (1990). Bikoizketaren hizkuntz ikerketa. EiTbren barne-dokumentazioa.

- Aranburu, A. (1991). Euskal Telebistako Hizkuntz Jarraipena. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Aranburu, A. (1998). Hamabost urteko programazioa. In *Euskal Irrati Telebista, 1982-1997* (158–159 or.). Iurreta: EiTB.
- Aranburu, A., Agirre, A., & Castilla, M. (2008). Conclusiones de EiTB tras el World Café de 5 de junio 2008. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Aranburu, A., & Lejarza, M. (1991). Bikoiztetxetarako arautegia. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Aranburu, M. (2013, irailak 28). Bikoizketa euskaraz: off? *Berria*, 4 or.
- Areta, N., Gurrutxaga, A., & Leturia, I. (2008). Begiratu bat corpus-baliabideei. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 66, 71–92 or.
- Argia. (1985a). EMK: Hizkuntz politikaren eta nazioaren arazoa. *Euskal Kulturaren Urtekaria*, 215–217 or.
- Argia. (1985b). Euskalkizaleen eraso eta delatua. *Euskal Kulturaren Urtekaria*, 201–211 or.
- argia.eus. (2015, abenduak 3). Astebetez euskara hutsean bai? Interneten eskuratua: <https://sustatu.eus/1449142962238>
- Argoitia, J. A., Azkarate, N., & Gezuraga, X. (1995). *Eibarko euskararen esakerak eta bestelako berezitasun batzuk*. Eibar: Eibarko Udala.
- Arnedo, B. (2016, uztailak 16). Navarra y Euskadi acuerdan que EITB emita por los canales locales de TDT. *Diario de Noticias*, 16–17 or.
- Arrasate, M. (1992). *Euskarazko albistegietarako esku-liburua*. Iurreta: Euskal Irrati Telebista.
- Arregi, J. (2008). Consideraciones sobre las bases de la política lingüística. In *La política lingüística vasca a debate* (153–166 or.). Vitoria-Gasteiz: Asociación Ciudadanía y Libertad.
- Arregi, M. (2015, irailak 10). Gobernuen ikuspegi murrizketek edukiz hustu dute Euskarabidea [Berria, 6-7 or.].
- Arteta, A. (2008). Una política contra la justicia lingüística. In *La política lingüística vasca a debate* (55–66 or.). Vitoria-Gasteiz: Asociación Ciudadanía y Libertad.
- Artime, M., & Portell, S. (1997, irailak 19). Malestar en Euskaltzaindia por las críticas recibidas en una serie de ETB. *El Correo*.
- Ascorbebeitia, G. (2013, irailak 29). EITB, de Iurreta a Bilbao: la mudanza que hoy no tendría cabida. Interneten eskuratua: [https://www.eldiario.es/norte/euskadi/EITB-Iurreta-Bilbao-mudanza-cabida\\_0\\_180232294.html](https://www.eldiario.es/norte/euskadi/EITB-Iurreta-Bilbao-mudanza-cabida_0_180232294.html)

- Aurkezpen Saila. (1996). Promoción «Zine Oro». EiTbren barne-dokumentazioa.
- Azkarate, M. (2001). Komunikabideen lantaldea: proposamena. *Euskera*, 46, 313–315 or.
- Azkarate, M. (2012). The Current Situation of the Basque Language: Speakers. In *The Challenge of a Bilingual Society in the Basque Country* (113–135 or.). Reno: Center for Basques Studies - University of Nevada, Reno.
- Azkue, J., & Zeberio, J. M. (1996). Euskararen erabileraren normalkuntza prozesuaren ebaluazioa euskal herri administrazioetan. *Revista Vasca de Administración Pública*, 44 (II), 329–341 or.
- Azpitituluak Euskaraz. (2017, otsailak 2). Euskarazko ehundaka azpititulu askatu ditu Jaurlaritzak. Interneten eskuratua: <https://sustatu.eus/azpitituluak/1486027785>
- Azurmendi, J. (1984). Euskal Kulturaren Batzarrea. *Jakin*, 31, 94–95 or.
- Azurmendi, M.-J. (2002). Comentarios. *International Journal of the Sociology of Language*, 157, 49–58 or.
- Bakhtin, M. (1981). Discourse in the novel. In *The dialogic imagination. Four essays by M. M. Bakhtin* (269–422 or.). Austin: University of Texas Press.
- Barambones, J. (2009). *La traducción audiovisual en ETB-1: estudio descriptivo de la programación infantil y juvenil*. Vitoria-Gasteiz: Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Bastardas-Boada, A. (1987). L'aménagement linguistique en Catalogne au XXe siècle. In *Politique et aménagement linguistiques* (121–158 or.). Quebec: Conseil de la langue française.
- Bastardas-Boada, A. (1996). Política y planificación lingüísticas. In *Elementos de lingüística* (341–360 or.). Barcelona: Octaedro.
- Bastardas-Boada, A. (2007). Linguistic Sustainability for a Multilingual Humanity. Interneten eskuratua: <http://ebookbrowse.com/linguistic-sustainability-for-a-multilingual-humanity-pdf-d12052201>
- Bastardas-Boada, A. (2011). Ekologiatik hizkuntza-iraunkortasunera: marko teorikotik proposamen praktikoetara. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 11–22 or.
- Bastardas-Boada, A. (2012). *Language and identity policies in the «glocal» age. New processes, effects and principles of organization*. Barcelona: Generalitat de Catalunya.
- Basterrechea, J. (1989, martxoak 19). No polucionemos el euskara. *Deia*, 70 or.
- Basterretxea, J. I., & Zuberogoitia, A. (2005). Euskararen komunikazio-esparrua. In *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa* (29–42 or.). Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea - Argitalpen Zerbitzua.

- Baudu, M. (2000). TV Breizh - a Project in Bilingual Broadcasting and Dubbing. In *Proceedings of Mercator Conference on Audiovisual Translation and Minority Languages* (168–173 or.). Aveystwyth: Mercator Media.
- Baxok, E. (2006). Eremu urriko hizkuntzak Europa batuan. *Euskera*, 51, 919–968 or.
- Baztarrika, P. (2009). *Babeli gorazarre*. Irun: Alberdania.
- BBC. (2014). Creative Archive Group. FAQs. Interneten eskuratua: <http://www.bbc.co.uk/creativearchive/faqs.shtml>
- Begiristain, X. (2010). Andoni Aizpuru eta Xabier Euzkitze lagunei. Interneten eskuratua: <http://ttipi-ttapairitzia.blogspot.com.es/2010/11/andoni-aizpuru-eta-xabier-euzkitze.html>
- Bell, A. (1983). Broadcast news as a language standard. *International Journal of the Sociology of Language*, 40, 29–42 or.
- Beloki, J. (2008). Txostena. In *Euskara hedabideetan. Euskarazko hedabideak eta euskararen presentzia hedabideetan* (141–157 or.). Eusko Jaurlaritza.
- Berasategi, J. I. (1989). La traducción jurídico-administrativa en el País Vasco. *Revista de Lengua i Dret*, 13, 29–45 or.
- Berdintasun Batzordea, & Euskara Zerbitzua. (2018). Indarkeria matxista. EiTren barne-dokumentazioa.
- Berriozabal, R. (1992). Euskararen lanketa administrazioaren esparruan. *Ele*, 11–12, 131–138 or.
- Bidador, J. (2003). Euskararen Foru Legeak komunikabideetan izan duen eragina. *Eleria*, 11, 59–63 or.
- Billig, M. (1995). *Banal nationalism*. London; Thousand Oaks, Calif.: Sage.
- Blommaert, J. (2005). *Discourse: A Critical Introduction*. New York: Cambridge University Press.
- Bortairu, J. (2007). Helduen euskalduntze-alfabetatzea Iparraldean. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 62, 83–89 or.
- Broussain, P., & Champion, A. (1922). Informe de los señores académicos A. Champion y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre la unificación del euskera. *Euskera*, 3, 4–17 or.
- Carvalho, A. M. (2004). I speak like the guys on TV: Palatalization and the urbanization of Uruguayan Portuguese. *Language Variation and Change*, 16, 127–151 or.
- Casas, M. de la L. (1996). Identidad cultural y medios de comunicación. Una cuestión no resuelta para Canadá y para México. *Comunicación y Sociedad*, 27, 89–110 or.

- Castellanos, J.-A. (1997). Introducció. In *La llengua de TV3* (13–16 or.). Barcelona: Editorial Empúries.
- Castelló, E. (2005). Identidad cultural en las series de ficción en España. In *Actas do III Sopcom, VI Lusocom e II Ibérico* (499–507 or.). Covilhã: Universidade da Beira Interior.
- CCMA. (2013). Memòria anual d'activitats CCMA. 2013. Corporació Catalana de Mitjans Audiovisuals.
- Chambers, J. K. (1998). TV Makes People Sound the Same. In *Language myths* (123–131 or.). London ; New York: Penguin Books.
- Colomo, K. (2011). Ariadneren nafar haria. *Larrun*, 159, 15–17 or.
- Cooper, R. L. (1989). *Language planning and social change*. Cambridge; New York: Cambridge University Press.
- Corbeil, J. C. (1980). *L'aménagement linguistique du Québec*. Montréal: Guérin.
- Cormack, M. (2004). Developing Minority Language Media Studies. In *Mercator Media Forum* 7 (3–12 or.). Cardiff: University of Wales Press.
- Cotter, C. (1999). Small languages and small language communities. Raidió na Life: Innovations in the use of media for language revitalization. *International Journal of the Sociology of Language*, 140, 135–148 or.
- Coupland, N. (2009). The Mediated Performance of Vernaculars. *Journal of English Linguistics*, 37, 284–300 or.
- Coupland, N. (2010). Language, ideology, media and social change. *Swiss Papers in English Language and Literature*, 24, 55–79 or.
- Coupland, N. (2014). Sociolinguistic change, vernacularization and broadcast British media. In *Mediatization and sociolinguistic change* (67–96 or.). Berlin: De Gruyter.
- CRTG. (2014). Informe sobre a xestión de servizo público da CRTG e as súas sociedades dependentes. 2013. Compañía de Radio/Televisión de Galicia
- Davant, J.-L. (2005). Baionako biltzarra (1964). *Iker*, 17, 207–217 or.
- Defensor del Pueblo de Navarra. (2010). El bilingüismo y la situación de los derechos lingüísticos de los ciudadanos. Institución del Defensor del Pueblo de la Comunidad Foral de Navarra.
- Deia. (2003, otsailak 28). El Consejo Asesor del Euskera denuncia los intentos de ligar la lengua vasca con la violencia. *Deia*, 14 or.
- Del Burgo, J. I. (1992, ekainak 7). «No se puede hacer un referéndum en Navarra porque lo diagan los terroristas». *Navarra Hoy*, 13 or.

- Del Pozo, A. (2008, abenduak 27). RE: corpus.
- Del Teso, B. (1988, urriak 6). Zer ikusi - Zer ikusiko. *Eguna*.
- Del Valle, T. (1988). *Korrika.Rituales de la lengua en el espacio*. Barcelona: Anthropos.
- Deogracias, M. (2014). Adierazpenak EITB-n: «Eta orain gaztelaniaz, mesedez». *Argia*, 2.441, 44–46 or.
- DespidosRadioEuskadiIrratia. (2014, apirilak 25). Quiénes somos: un caso como ejemplo. Interneten eskuratua:  
<https://despidosradioeuskadiirratiaakaleratzeak.wordpress.com/2014/04/25/quienes-somos-un-caso-como-ejemplo/>
- Deumert, A. (2004). *Language Standardization and Language Change. The dynamics of Cape Dutch*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Pub. Co.
- Díaz Noci, J. (1998). Los medios de comunicación y la normalización del euskera: balance de dieciséis años. *Revista internacional de estudios vascos*, 43 (2), 441–459 or.
- Díaz Noci, J. (2007). Euskarazko kazetaritza XX. mendearen hastapenetan. In *Euskarazko kazetaritza: gogoetak, esperientziak eta analisiak* (75–82 or.). Iruñea: Nafarroako Unibertsitatea.
- Diez de Lezana, A. (2008). Euskarazko informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKTak). *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 66, 27–40 or.
- Díez Urrestarazu, R. (2003). *ETB. El inicio de una nueva era*. Euskal Irrati Telebista.
- Dolosor, F. (2017, urtarrilak 24). Etchegaray estrena la makila de la Mancomunidad Única de Iparralde. *Deia*, 22 or.
- Eguskiza, J. (2017, apirilak 23). «Mila hiztun totelek ez dute euskal komunitate bat sortuko» [Berria, 46-47 or.].
- Eibarko Euskara Batzordea. (1997). *Eibarreraz idazteko oiñarrizko erizpidiak*. Eibar: Eibarko Udala.
- Eibarko Euskara Batzordea. (1998). *Eibarko aditza*. Eibar: Eibarko Udala.
- EIKEN. (2014). *2013 txostena - memoria*. Zamudio: EIKEN.
- EiTB. (1998). Balance 97-ko Txostena. *Telebista*, 7 or.
- EiTB. (2000). EITBren Plan Estrategikoa. EiTBren barne-dokumentazioa.
- EITB. (2006). *Memoria eitb 2006*. EiTB Taldea.
- EiTB. (2007). EiTBko Estrategia-gestiorako Plana 2008-2011. EiTBren barne-dokumentazioa.
- EiTB. (2009a). *EiTBren Gizarte-Erantzukizuna. 2007-2008 Txostena*. Bilbo: EiTB.

- EiTB. (2009b). Memoria 2009. EFQM European Excellence Award. EiTBren barne-dokumentazioa.
- EiTB. (2010). EiTB 2010-2013 estrategia. EiTBren barne-dokumentazioa.
- EiTB. (2011). *EiTBren Gizarte-Erantzukizuna. 2009-2010 Txostena*. Bilbo: EiTB.
- EiTB. (2013a). *EiTBren Gizarte-Erantzukizuna. 2011-2012 Txostena*. Bilbo: EiTB.
- EiTB. (2013b). Plan estrategikoa 2013-2016. EiTBren barne-dokumentazioa.
- EiTB. (2014). Cliente Interno Servicios. Resultados 2014. EiTBren barne-dokumentazioa.
- EiTB. (2017a). Ebaluazio-txostena. Plan estrategikoa 2013-2016. EiTBren barne-dokumentazioa.
- EiTB. (2017b). *EiTBren Gizarte-Erantzukizuna. 2015-2016 Txostena*. Bilbo.
- EiTB. (2018). Proiektuak 2017-2020. EiTBren barne-dokumentazioa.
- EiTB, & EHU. (2000). Zerbitzu tekniko errepikatuak egiteko kontratua. EiTBren barne-dokumentazioa.
- EiTB, & EHU. (2001). Euskal Irrati Telebistak eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Euskal Fikologiako Sailak 2000ko azaroaren 13an eman zuten hitzarmenaren aldaketarako eranskina. EiTBren barne-dokumentazioa.
- EiTB, & EHU. (2003). Lankidetzaren hitzarmena, Euskal Irrati Telebista eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artekoa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikerlariak EiTBko Zuzendaritza Nagusiari atxikitako hizkuntza aholkularitzako zerbitzuarekin lankidetzan aritu daitezen. EiTBren barne-dokumentazioa.
- EiTBko Euskara Zerbitzua. (2016, azaroak 15). EiTBren sukaldaritza-hiztegia, eitb.eus-en eskuragarri. Interneten eskuratua: <https://www.eitb.eus/eu/kultura/euskara/oso/4490823/eitbren-sukaldaritzahiztegia-eitbeusen-eskuragarri/>
- EiTBko Kalitate Zuzendaritza. (2004a). Bikoizketako PDCA. EiTBren barne-dokumentazioa.
- EiTBko Kalitate Zuzendaritza. (2004b). Euskara Zerbitzuaren PDCA. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Elhuyar. (1990). *Munduko leku-izenak euskaraz emateko erizpideak eta izendegia*. Donostia: Elkar.
- Elhuyar. (1992). *Munduko pertsona-izenak euskaraz emateko erizpideak eta izendegia*. Donostia: Elkar.
- Elizari, T. (2000, abenduak 14). Niveles de euskera. EiTBren barne-dokumentazioa.

- Elordui, A. (2013). New media - new challenges for language policy: rethinking the role of public media in language revitalization. In *Edirenen du zertzaz kontenta: Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)* (249–265 or.). Bilbo: UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- Elordui, A. (2016). Elebakartasunetik heteroglosiara: Gaztea Irratia, bernakulizazioa gazte-komunikabideen diseinu sozioestilistikoan. *Uztaro*, 97, 31–52 or.
- Elordui, A., & Zabala, I. (2009). Euskara batuaren garapen lexiko-diskurtsiboa: batasunetik aniztasun funtzionalerantz. *ASJU*, 43, 231–246 or.
- Elorza, M. (1997, irailak 20). Txiste akademikoak. *Euskaldunon Egunkaria*.
- Elosegi, O. (2005). Euskarazko komunikabideak: eskaintza eta eskariaren artean. In *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa* (183–192 or.). Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea - Argitalpen Zerbitzua.
- Epaltza, A. (2008). Txostena. In *Euskara hedabideetan. Euskarazko hedabideak eta euskararen presentzia hedabideetan* (177–187 or.). Eusko Jaurlaritza.
- Epaltza, A. (2017, irailak 26). Zakarrontzira. *Noticias de Navarra*.
- Erasun, A. (1995). Haurren tele-gogoak superbat datoz. *Argia*, 1.515, 22–25 or.
- Erize, X. (2003). Euskararen “normalizazioaren” aurkako diskurtsoa eta diskurtso euskaltzalea Nafarroan. *Eleria*, 11, 19–26 or.
- Erostarbe, G. (2015, uztailak 14). Askoz gehiago dago emateko. *Berria*, 34 or.
- Esnal, M. (2010). Sutondo berria. Hamasei urtez Goenkalen. *Revista internacional de estudios vascos*, 55–2, 417–471 or.
- Esnal, P. (1991). Ahozko Euskaratik Kazetaritzako Euskarara. In *Euskal Kazetarien Jardunaldiak* (27–40 or.). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Esnal, P., & Zubimendi, J. R. (1993). *Idazkera-liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Estrada, A. (2004). La qualitat de la llengua de la televisió en català: ressenya d’un estudi del grup Llengua i Mèdia. *Quaderns del CAC*, 18, 75–80 or.
- ETB, Edertrack, Irusoin, & K2000. (2003, abenduak). Bikoizketan elkarlanean (III). EiTbren barne-dokumentazioa. Interneten eskuragai: [http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1074012486](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1074012486)
- ETB, Edertrack, Irusoin, & K2000. (2004a, apirilak). Bikoizketan elkarlanean (IV). EiTbren barne-dokumentazioa. Interneten eskuragai: [http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1083278134](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1083278134)



- ETB, Edertrack, Irusoin, & K2000. (2004b, ekainak). Bikoizketan elkarlanean (V). EiTBren barne-dokumentazioa. Interneten eskuragai: [http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1094473313](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1094473313)
- ETB, IBAIA, & EPE/APV. (2008). Acuerdo de colaboración entre Euskal Telebista, IBAIA y EPE/APV para el apoyo de la producción audiovisual independiente vasca. EiTBren barne-dokumentazioa.
- ETB, & Mixer. (2006, abenduak). Bikoizketan elkarlanean (X). EiTBren barne-dokumentazioa. Interneten eskuragai: [http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1180511802](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1180511802)
- ETB, & Mixer. (2007a, maiatzak). Bikoizketan elkarlanean (XI). EiTBren barne-dokumentazioa. Interneten eskuragai: [http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1180511802](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1180511802)
- ETB, & Mixer. (2007b, azaroak). Bikoizketan elkarlanean (XII). EiTBren barne-dokumentazioa. Interneten eskuragai: [http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1199870832](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1199870832)
- ETB, & Mixer. (2008, maiatzak). Bikoizketan elkarlanean (XIII). EiTBren barne-dokumentazioa. Interneten eskuragai: [http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1214992712](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1214992712)
- ETB, & Mixer. (2010, azaroak). Bikoizketan elkarlanean (XVII). EiTBren barne-dokumentazioa. Interneten eskuragai: [http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1293094886](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1293094886)
- ETB, & Mixer. (2011, ekainak). Bikoizketan elkarlanean (XVIII). EiTBren barne-dokumentazioa. Interneten eskuragai: [http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1324380500](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1324380500)
- ETB, & Mixer. (2017). Merlí (pilotua). EiTBren barne-dokumentazioa.
- Etxarri, T. (1985, maiatzak 29). El «eusker»a», principal impedimento de la televisión vasca para captar nuevos espectadores. *El País*.
- Etxarri, T. (2009, martxoak 23). El caserío electrónico. *El Correo*, or. 25.
- Etxebarria, I. (1994). Euskal Telebistako euskara. In *Hedabideetako euskara* (49–62 or.). Bilbo: Argitarapen Zerbitzua - Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Etxebarria, I. (1996). Euskalkiak ETBn: orain arteko jokabidea eta ondorioak. *Euskera*, 41, 547–555.
- Etxebarria, I., & Kalzakorta, J. (1988). Kalitate Kontrolekoen Bartzelonara bidaiak. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Etxebarria, J. R. (1992). Zientzia arloko euskararen batasunaz. *Ele*, 11–12, 99–112 or.
- Etxebarria, H. (2000). Telebisioaren zeregina euskararen normalkuntza bidean. *Eleria*, 5, 115–120 or.

- Etxegarai, E. (2017, irailak 5). Zapore bereziko irekiera. *Berria*, 3 or.
- Etxegoien, F. (1996, irailak 24). Patua. *Euskaldunon Egunkaria*, 37 or.
- Etxezarreta, R. (1999, maiatzak 2). Telebista XXI. *Euskaldunon Egunkaria*, 6 or.
- Europako Kontseilua. (1992). Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna.
- Euskal Hirigune Elkargoa. (2018). Euskara jalgi hadi plazara.
- Euskal Irrati Telebista. (1989a). *Euskara (erabileraz) 1*. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Euskal Irrati Telebista. (1989b). *Euskara (erabileraz) 2*. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Euskal Irrati Telebista. (1997). *Euskal Irrati Telebista 1982-1997*. Iurreta: Euskal Irrati Telebista.
- Euskal Irrati Telebista. (2005a). *EFQM Memoria*. Iurreta: EiTb Taldea.
- Euskal Irrati Telebista. (2005b). EITBrako hizkuntza-funtsak. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Euskal Kultur Erakundea. (2004). Les filières d'enseignement scolaire. Interneten eskuratua: [http://www.eke.eus/fr/culture-basque/euskara-la-langue-des-basques/enseignement/haurrentzako\\_erakaskuntza](http://www.eke.eus/fr/culture-basque/euskara-la-langue-des-basques/enseignement/haurrentzako_erakaskuntza)
- Euskal Telebista, Edertrack, Irusoin, & K2000. (2001). Tratamenduak ETBko fikzioan. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Euskaldunon Egunkaria. (1992). *Estilo liburua*. Donostia: Egunkaria.
- Euskalerrria Irratia. (2016, otsailak 21). Iruñeko euskalgintza “pozarren”, haur eskoletan euskarazko eskaintza handitzeko erabakiarekin. *Argia*, 6 or.
- Euskaltzaindia. (1920). *Euskaltzaindiaren sortarauak = Estatutos de la Academia de Lengua Vasca*. Bilbao: Euzko Argitaldaria.
- Euskaltzaindia. (1968). Literatura euskeraren batasunari buruz Euskaltzaindiaren agiria. *Euskera*, 13, 250 or.
- Euskaltzaindia. (1973). Aditz laguntzaile batua. *Euskera*, 18, 5–74 or.
- Euskaltzaindia. (1977). Aditz sintetikoa. *Euskera*, 22, 787–850 or.
- Euskaltzaindia. (1979a). *Conflicto lingüístico en Euskadi*. San Sebastián: Ediciones Vascas Argitaletxea.
- Euskaltzaindia. (1979b). *Euskal Herriko udalen izendegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. (1979c). «H» letraren ortografi arauak. *Euskera*, 24, 659–695 or.

- Euskaltzaindia. (1985). *Euskal Gramatika. Lehen urratsak - I*. Iruñea: Euskaltzaindia - Nafarroako Gobernua.
- Euskaltzaindia. (1987). *Euskal Gramatika. Lehen urratsak - II (aditza)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. (1990). *Euskal Gramatika. Lehen urratsak - III (lokailuak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. (1994a). *Euskal Gramatika. Lehen urratsak - IV (juntagailuak)*. Bilbo.
- Euskaltzaindia. (1994b). Euskaltzaindiaren Leioako adierazpena, 39, 1609 or.
- Euskaltzaindia. (1994c). XIII. biltzarra. Egitaraua. *Euskera*, 39, 629–637 or.
- Euskaltzaindia. (1998). Euskara Batuaren ahoskera zaindua. *Euskera*, 43, 528–532 or.
- Euskaltzaindia. (1999). Zuberoako herri izendegia. *Euskera*, 44, 393–4011 or.
- Euskaltzaindia. (2000). Hiztegi Batua. *Euskera*, 45, 475–757 or.
- Euskaltzaindia. (2001). 2000.10.27ko batzar-agiria. *Euskera*, 46, 259–263 or.
- Euskaltzaindia. (2004). Adierazpena, euskalkien erabileraz: Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan. *Euskera*, 49, 426–429 or.
- Euskaltzaindia. (2006). Euskaltzaindiaren txostena - 2005-2006. Euskararen erabilera EITB-n. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Euskaltzaindia. (2009). 158. Kanpoko leku-izenak euskaraz ahoskatzeko irizpideak. Euskaltzaindiaren gomendioa. *Euskera*, 54, 1601–1611 or.
- Euskaltzaindia. (2012). *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Donostia: Elkar.
- Euskara Batzordea. (2011). Eraketa akta. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Euskara Batzordea. (2013a). EiTbren 2013-2016rako euskara-plana. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Euskara Batzordea. (2013b). Euskara plana abian da. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Euskara Batzordea. (2015). EiTbren euskara plana. Kronologia. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Euskara Batzordea. (2017a). EiTbren 2017-2020ko euskara-plana, aurkezpenarekin eta eranskinekin. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Euskara Batzordea. (2017b, urriak 30). Euskararen erabilera sustatzeko taldeak abian. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Euskara Batzordea. (2018, martxoak 20). Euskaraldia zer den. EiTbren barne-dokumentazioa.

- Euskara Saila. (1994). Zabalkunde orria. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Euskara Saila. (1995a). Zabalkunde orria - 2. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Euskara Saila. (1995b, urtarrilak 13). Denbora ondo adierazi (I) - 52. zabalkunde-orria. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Euskara Saila. (1995c, urtarrilak 20). Denbora ondo adierazi (II) - 53. zabalkunde-orria. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Euskara Saila. (1996a). Zabalkunde orria - 3. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Euskara Saila. (1996b). «Zine Oro» promozioa. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Euskara Saila. (1999a, urriak). Euskara tantaka 1. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Euskara Saila. (1999b, azaroak). Euskara tantaka 2. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Euskara Saila. (2000, urtarrilak). Euskara tantaka 3. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Euskara Saila. (2004). Euskara Sailaren hobekuntzak. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Euskara Saila. (2005a). Zelan prestatu esateko diren albisteak. EiTBren barne-dokumentazioa. Interneten eskuragai: [www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1109691897](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1109691897)
- Euskara Saila. (2005b). Zelan prestatu esateko diren albisteak II. EiTBren barne-dokumentazioa. Interneten eskuragai: [www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1112144958](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1112144958)
- Euskara Saila, & Mixer. (2007). Pilotuak. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Euskara Zerbitzua. (2008a). Bizkaiera lantaldearen hastapen-dokumentua. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Euskara Zerbitzua. (2008b). Gaztea lantaldearen hastapen-dokumentua. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Euskara Zerbitzua. (2008c). Jakingarriak lantaldearen hastapen-dokumentua. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Euskara Zerbitzua. (2008d). Saskibaloia lantaldearen hastapen-dokumentua. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Euskara Zerbitzua. (2016). 2016ko ekintza planaren emaitzak. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Euskararen Aholku Batzordea. (1983). *Euskararen politikarako oinarriak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Euskararen Aholku Batzordea. (1993). *Euskararen Politikarako Oinarrizko Irizpideak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- Euskararen Aholku Batzordea. (1998). *Euskara biziberritzeko plan nagusia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Euskararen Aholku Batzordea. (2004). *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Euskararen Aholku Batzordea. (2008a). *XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak (1). Oinarrizko txostena*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Euskararen Aholku Batzordea. (2008b). *XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak (2). Batzorde-atal bereziko kideen ekarpenak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Euskararen Aholku Batzordea. (2009). *XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak (5). Itun berri baterantz*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Euskararen Aholku Batzordea. (2012). *Euskara sustatzeko ekintza plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Euskararen Aholku Batzordea. (2016a). *Euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoen lanketa. EGOD egitasmoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Euskararen Aholku Batzordea. (2016b). *Euskarazko IKTak. Gomendioak herri-aginteentzat*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Euskararen Erakunde Publikoa. (2006). Hizkuntza politika proiektua. Interneten eskuratua: [http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Documents\\_OPLB/Hizkuntza\\_Politika\\_Proiektua/2006\\_eep\\_oplb\\_hizkuntza\\_politika\\_proiektua.pdf](http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Documents_OPLB/Hizkuntza_Politika_Proiektua/2006_eep_oplb_hizkuntza_politika_proiektua.pdf)
- Euskararen Erakunde Publikoa. (2010). 2011-2016rako Jokabide Esparrua. Interneten eskuratua: [http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Documents\\_OPLB/Aktualitateak/Cadre\\_Operationnel\\_2011-2016\\_Avant\\_Projet\\_oct\\_2010\\_20101004.pdf](http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Documents_OPLB/Aktualitateak/Cadre_Operationnel_2011-2016_Avant_Projet_oct_2010_20101004.pdf)
- Euskararen Erakunde Publikoa. (2017). 2017ko aitzinikusi jarduera programa. Interneten eskuratua: [http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/2.2\\_2016\\_akt\\_bilana-2017\\_akt\\_prog.pdf](http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/2.2_2016_akt_bilana-2017_akt_prog.pdf)
- Eusko Jaurlaritza. (2005). *Hizkuntza politika aurrera begira. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2005-2009 egitasmoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza. (2003). Libro blanco del sector audiovisual en Euskadi. Interneten eskuratua: <https://docplayer.es/11389591-Libro-blanco-del-sector-audiovisual-en-euskadi-documento-a-debate-con-el-sector.html>
- Eusko Jaurlaritza. (2008). *Euskara hedabideetan. Euskarazko hedabideak eta euskararen presentzia hedabideetan*. Eusko Jaurlaritza.

- Eusko Jaurlaritzak. (2014a). Euskararen Agenda Estrategikoa 2013 – 2016. Bizikidetzarako hizkuntza bizia.
- Eusko Jaurlaritzak. (2014b, azaroak 18). Eusko Jaurlaritzak Canal+ - ekin sinatutako akordioari esker, urtero 100 filmi euskarazko azpigituluak. Interneten eskuratua: <https://sustatu.eus/1416319962>
- Eusko Jaurlaritzak. (2018). *Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko irizpide orokorrak eta plan nagusia. VI. plangintzaldia (2018-2022)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzak, & EITB. (2002). Euskal Irrati Telebista herri erakundearen 2002-2005 aldirako programa-kontratua. EITBren barne-dokumentazioa.
- Eusko Jaurlaritzak, & EITB. (2007). Kontratu Programa Euskal Irrati Telebista herri erakundearekin 2007-2010 aldirako. EITBren barne-dokumentazioa.
- Eusko Jaurlaritzak, & EITB. (2016). Programa-Kontratua Euskal Irrati Telebista herri erakundearekin 2016-2019 aldirako. EITBren barne-dokumentazioa.
- Eusko Legebiltzarra. (1985a). *Agintaritzak-Aldizkarietatikako Hitz-Bilduma*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- Eusko Legebiltzarra. (1985b). Comparecencia del Presidente del Consejo Asesor del Euskera para explicar a esta Cámara las actividades realizadas por el mencionado Consejo Asesor desde su creación. *Hezkuntza eta Kultura Batzordearen Bilkuren Aldizkaria, 19851002*, 10–26 or.
- Euzkitze, X. (2012, otsailak 12). Batuaren grazia. *Noticias de Gipuzkoa*.
- Euzkitze, X. (2013, urriak 3). «Inork ezin nau pilotarien abizenak gaizki ahoskatzera derrigortu» [Urola Kostako Hitzak].
- Faura, N. (1997). Els serveis lingüístics a TVC: política d'empresa. In *La llengua de TV3* (17–21). Barcelona: Editorial Empúries.
- Ferguson, C. A. (1959). Diglossia. *Word*, 15, 325–340 or.
- Fernández, I. (2009, abenduak 23). Euskaltel penagarri (publizitatean). Interneten eskuratua: <https://euskaraetapublizitateabloga.wordpress.com/2009/12/23/euskaltel-penagarri>
- Fernández, I. (2010a, otsailak 18). Haserretzeko moduko “errebotea”. Interneten eskuratua: <https://euskaraetapublizitateabloga.wordpress.com/2010/02/18/haserretzeko-moduko-errebotea/>
- Fernández, I. (2010b, otsailak 26). Larritasun mailak. Interneten eskuratua: <https://euskaraetapublizitateabloga.wordpress.com/2010/02/26/larritasun-mailak/>
- Fernandez, L. (2018, urtarrilak 2). 2017ko balantzea, eta 2018ko nire agurra. Interneten eskuratua: <http://azpigituluak.com/euskaraz/1514882296>

- Fernandez-Astobiza, I., & Zabaleta, I. (2017). Euskarazko hedabideen errealitatea eta garapena. *Uztaro*, 103, 41–59 or.
- Fishman, J. A. (1991). *Reversing language shift. Theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Fishman, J. A. (1994). Critiques of language planning: A minority languages perspective. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 15, 91–99 or.
- Fishman, J. A. (2001). *Can Threatened Languages Be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective*. Clevedon: Multilingual Matters LTD.
- Frantziako Estatuak, Akitaniako Eskualde Kontseilua, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia, & Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua. (1997). Euskal Herriko Garapen Hitzarmena. Interneten eskuratua: <http://www.lurraldea.net/uploads/media/conv-dvptPB-CIADTF1297.pdf>
- Frantziako Estatuak, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia, & Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua. (2000). Euskal Herriko Hitzarmen Berezia. Interneten eskuratua: <http://www.lurraldea.net/uploads/media/conv-dvptPB-CIADTF1297.pdf>
- Gandul, L. (2017, azaroak 30). SmartBerri 2017-2018 lehiaketaren oinarriak. Interneten eskuratua: <http://www.eitb.eus/eu/eitb-taldea/smartberri/osoa/5246232/smartberri-20172018-lehiaketaren-oinarriak/>
- Gara. (2003, otsailak 23). «Mientras no estructuramos Euskal Herria como país no atacarán de nuevo». *Gara*, 3 or.
- Garabide Elkarteak. (2010). *Euskararen berreskuratzea. Hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk*. Interneten eskuratua: [http://www.ehu.es/documents/3120344/3356416/Euskararen+berreskuratzea\(1\).pdf](http://www.ehu.es/documents/3120344/3356416/Euskararen+berreskuratzea(1).pdf)
- Garai, E. (2013). Euskara publizitate elebidunean: iragarkiak sortu eta itzultzeko prozedura. *Zer*, 18, 127–151 or.
- Garai, R., & Arana, E. (2013). Komunikabideen erabiltzaileak aztergai. Audientzia-ikerketaren zeregina digitalizazioaren garaian. In *Multimedia komunikazioa: gaur egungo erronkak eta estrategia berriak* (26–50). Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Garate, G. (1988). *Erdarakadak*. Bilbo: Mensajero.
- Garate, G. (2006). Euskal Filologiak 30 urte. Interneten eskuratua: [http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1146572848](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1146572848)
- Garmendia, M. K. (1988). Orotariko Euskal Hiztegiaren aurkezpena. *Euskera*, 33, 97–99 or.

- Garmendia, M. K. (1994). *Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusiaren agerraldia, berak eskatuta, Eusko Legebiltzarreko Iraskunde eta Herrizaingo Batzordearen aurrean*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Garmendia, M. K. (1998). Aurrera begira. In *Euskara biziberritzeko plan nagusia* (9–10 or.).
- Garmendia, S. (1968). Deklinazio. *Euskera*, 13, 151–161 or.
- Garzia, Joxerra. (1999, maiatzak 26). ETB: dugunetik behar genukeenera. *Euskaldunon Egunkaria*, 6 or.
- Garzia, Juan. (1997). *Joskera lantegi*. Gasteiz: IVAP.
- Garzia, Juan. (2005). *Kalko okerrak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Gaztañazpi, I. (2013, maiatzak 24). Arrauna, euskara eta komunikabideak. Karkara. Interneten eskuratua: <http://karkara.eus/komunitatea/euskaraz-bizi-bizi/396521057147>
- Gizaker. (2014). Telebista irudiaren ikerketa. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Gobierno de Navarra. (2017a, otsailak 1). El Gobierno de Navarra abre dos líneas en euskera y castellano en las escuelas infantiles del Casco Viejo y San Jorge de Pamplona. Interneten eskuratua: [https://www.navarra.es/home\\_es/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2017/02/01/Gobierno+Navarra+abre+dos+lineas+en+euskera+y+castellano+en+las+escuelas+infantiles+Casco+Viejo+y+Sa.htm](https://www.navarra.es/home_es/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2017/02/01/Gobierno+Navarra+abre+dos+lineas+en+euskera+y+castellano+en+las+escuelas+infantiles+Casco+Viejo+y+Sa.htm)
- Gobierno de Navarra. (2017b, maiatzak 24). El Gobierno remite al Consejo de Navarra el proyecto de Decreto Foral del uso del Euskera. Interneten eskuratua: [https://www.navarra.es/home\\_es/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2017/05/24/se+remite+decreto+euskera+al+Consejo+de+Navarra.htm](https://www.navarra.es/home_es/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2017/05/24/se+remite+decreto+euskera+al+Consejo+de+Navarra.htm)
- Goiena. (2018, apirilak 6). Goiena telebista, orain esku-eskura eta nahieran. Interneten eskuratua: <https://sustatu.eus/1520927898>
- Goikoetxea, I. (2012, azaroak 22). Etxetik botatzetik etxegabetzera. 31eskutik. Interneten eskuratua: <http://31eskutik.com/2012/11/22/etxetik-botatzetik-etxegabetzera/>
- Goikoetxea, I. (2013, azaroak 15). Nazio Batuakek? 31eskutik. Interneten eskuratua: <http://31eskutik.com/2013/11/15/nazio-batuakek/>
- Goikoetxea, J. L. (2003). Euskalkia eta hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian. *Iker*, 13.
- González, R. (1996). Departamento de Doblaje K-2000, S.A. (Rechazos E.T.B.). EiTBren barne-dokumentazioa.
- Gortazar, A. (2015, martxoak 11). ETB eta simulakroak. *Berria*, 21 or.



- Grin, F., & Vaillancourt, F. (1999). *The cost-effectiveness evaluation of minority language policies: case studies on Wales, Ireland and the Basque country*. Flensburg, Germany: European Centre for Minority Issues (ECMI).
- Guerrero, E. (2008). En busca del elixir de la alquimia televisiva: el contenido transversal y las alianzas estratégicas como claves del negocio. In *La televisión en España. Informe 2008* (UTECA, 295–309 or.). Barcelona: Deusto.
- Guevara, E. (2010, abenduak 26). La guerra de ETB. *El País*, 4–5 or.
- Gutiérrez, A., Mendizabal, A., Urrutia, S., Xamardo, N., & Zabaleta, I. (2005). Euskarazko komunikabideak eta kazetaritza: egoera, ardatzak eta pisu erlatiboa. In *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa* (97–116 or.). Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea - Argitalpen Zerbitzua.
- Gutiérrez, M. A. (2002). *Euskal irratigintzaren historia*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Guyot, J. (2004). Languages of Minorities and the Media: Research Issues. In *Mercator Media Forum 7* (13–28). Cardiff: University of Wales Press.
- HABE. (2012). Euskaltegiak. Interneten eskuratua: [http://www.habe.euskadi.net/s23-4728/eu/contenidos/informacion/euskaltegiak/eu\\_9719/euskaltegiak.html](http://www.habe.euskadi.net/s23-4728/eu/contenidos/informacion/euskaltegiak/eu_9719/euskaltegiak.html)
- Haritschelhar, J. (1994). Euskara batuaren 25. urtemuga. *Euskera*, 39, 645–646 or.
- Haritschelhar, J. (2003). EITB - Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena. *Euskera*, 48, 1137 or.
- Haritschelhar, J. (2007). Euskalkiak eta komunikabideak. *Euskera*, 52, 367–368 or.
- Haugen, E. (1959). Planning for a standard language in modern Norway. *Anthropological Linguistics*, 1 (3), 8–21 or.
- Haugen, E. (1966). Linguistics and Language Planning. In *Sociolinguistics. Proceedings of the UCLA Sociolinguistics Conference, 1964* (50–71 or.). The Hague: Mouton & Co.
- Haugen, E. (1971). The ecology of language. *The Linguistic Reporter*, 25, 19–26 or.
- Haugen, E. (1983). The Implementation of Corpus Planning: Theory and Practice. In *Progress in Language Planning. International Perspectives* (269–289 or.). Berlin: Mouton Publishers.
- Hauser, R. (2009). Cultural Identity in a Globalised World? A Theoretical Approach Towards the Concept of Cultural Identity. In *Neue Medien und Kulturelle Vielfalt. Konzepte und Praktiken*. (327–348 or.). Berlin: Trafo.
- Hauteman eta Informazio Saila. (2014). Encuesta satisfacción de personas. EiTBen barne-dokumentazioa.

- Hekimen. (2015, uztailak 14). Euskal hedabideentzako 2015eko diru laguntzen ebazpena dela eta. Interneten eskuratua: <https://zuzeu.eus/euskal-herria/euskal-hedabideentzako-2015eko-diru-laguntzen-ebazpena-dela-eta/>
- Higuera, J., & Gurrutxaga, J. M. (2005). Bikoizketako aginte koadroa - Hizkuntza arloko adierazleak. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Hiru3 Komunitatea. (2011). Bazkide berrientzako gutuna. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Hjarvard, S. (2004). The Globalization of Language: How the Media Contribute to the Spread of English and the Emergence of Medialects. *Nordicom Information Gothenburg*, 2, 75–97 or.
- Hornberger, N. H. (1994). Literacy and language planning. *Language and Education*, 8, 75–86 or.
- Hornberger, N. H. (2003). *Continua of Biliteracy: An Ecological Framework for Educational Policy, Research, and Practice in Multilingual Settings*. Clevedon: *Multilingual Matters*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Hornberger, N. H. (2007). Frameworks and Models in Language Policy and Planning. In *An introduction to language policy: theory and method* (3. arg., 24–41 or.). Malden, MA: Blackwell Publishing Ltd.
- Iacobacci, N. (2008, maiatzak 24). From crossmedia to transmedia: thoughts on the future of entertainment. Interneten eskuratua: <http://www.lunchoverip.com/2008/05/from-crossmedia.html>
- Ibáñez Serna, J. L. (1995). *Orígenes y desarrollo de Euskal Telebista (1982-1992). Una aproximación a la historia de la Televisión Vasca*. Leioa: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco.
- Ibarbia, M. (2002, maiatzak). Euskarazko telebista publikoa gaur [Larrun, 55, 2-17 or.].
- Iglesias-González, F. (Francisco). (1991). Tendencias publicitarias en la televisión. *REV - Comunicación y Sociedad*, 4 (1–2), 99–114 or.
- Ilundáin, M. (2009, ekainak 29). El mapa de ETB cambia sus fronteras. *El Mundo*, 7 or.
- Iñigo, A. (2012). «Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa» jardunaldia - Sarrera. *Euskera*, 57, 467–469 or.
- Intxausti, J. (2007). Euskararen ofizialtasuna: zenbait aurrekari historiko. *Euskera*, 52, 1235–1249 or.
- Irekia. (2012). Firmado el Contrato con el Ente Público Radio Televisión Vasca (EiTb) para el ejercicio 2012. Interneten eskuratua: <http://www.irekia.euskadi.net/es/news/11188-firmado-contrato-con-ente-publico-radio-television-vasca-eitb-para-ejercicio-2012>

- Irigoyen, A. (1979). Deklinabidea: Euskaltzaindiak deklinabideaz eskaintzen duen erabakia. *Euskera*, 24, 633–657 or.
- Irizar, M. (2005). Euskarazko komunikazioa: esparru ala egitura? In *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa* (41–47 or.). Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea - Argitalpen Zerbitzua.
- Iturbe, M. (2018). EITBren Kontrol Batzordeak 2018ko martxoaren 5ean egindako bilkuraren hitzez hitzeko transkripzioa. Euskao Legebiltzarra. Interneten eskuratua: [www.legebiltzarra.eus](http://www.legebiltzarra.eus)
- Iurrebaso, I. (2008). «Hedabideak eta euskara Zarautzen, 2006» ikerketaren emaitzak. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 68, 115–137 or.
- Iurrebaso, I. (2012a). Euskararen erabilera zertan den. Premiazko diagnostiko bat datuen argitan. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 84, 103–120 or.
- Iurrebaso, I. (2012b). Metodozko hainbat proposamen euskararen erabilera zertan den aztertzeko. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 84, 89–101 or.
- IVAP. (1986). *Administraziorako Euskal Eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- IVAP. (1992). *Euskal Herriko Herri Erakundeen Barne Errotulazioa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Ivarsson, J. (1992). *Subtitling for the Media*. Stockholm: Transedit HB.
- Izagirre, K. (1981). *Euskal lokuzioak*. Donostia: Hordago.
- Iztueta, P. (1992). Alfabetatze eta euskalduntzearen prozesua hizkuntz normalkuntzaren ildotik (1940-1992). *Ele*, 11–12, 65–89 or.
- Jauregi, M. (2003, otsailak 22). Kontseilua reclama «un amplio acuerdo político-social» ante el intento de «exterminar el euskera». *Gara*, or. 14–15 or.
- Jauregi, P., & Suberbiola, P. (2017). *Aldahitz ikerketa - Eusle metodologia. Esperientzien emaitzak 2013-2016*. Soziolinguistika Klusterra.
- Jones, E. H. G. (2013a). Minority Language Media, Convergence Culture and the Indices of Linguistic Vitality. In *Social Media and Minority Languages. Convergence and the Creative Industries* (58–72 or.). Bristol: Multilingual Matters.
- Jones, E. H. G. (2013b). Permeable and Impermeable Linguistic Boundaries: From Mass Media to Social Media in Policy and Practice in Minoritised Language Context. *Zer*, 18 (35), 29–45 or.
- Kalitate Kontrola. (1990a). Bikoizketa frogei buruzko inkesta. Akta. EiTbren barne-dokumentazioa.

- Kalitate Kontrola. (1990b). Bikoizketa frogei buruzko inkesta. Txostena. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Kalitate Kontrola. (1991). Bikoizketetako euskara aztertzeke ikerketa. Akta. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Kalitate Kontrola. (1992). 1992ko fitxa eredu berria. Zaindu behar diren bariabileak. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Kalitate Kontrola. (1993). Euskal Telebistako programa bikoiztuetan erabilitako itzulpena: euskal hitz / erregistro berriak. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Kanpo Produkzioa. (1990). Bikoizketaren hizkuntz ikerketa. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Kasares, P. (2011). «Diglosiaren purgatorioaz» iruzkin kritikoa. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 79–80, 199–205 or.
- Kasares, P., Aleman, S., & Zapata, O. (2011). Euskararen normalizazioa, herritarren esku [Larrun, 159, 2-14 or.].
- Kearns, R. (2009, abenduak 7). Quechua language TV hits the airwaves in Ecuador. Interneten eskuratu: <http://pictographs.turquoisetales.com/2009/12/quechua-language-tv-station.htm>
- Kelly-Holmes, H., & Milani, T. M. (2013). Thematising multilingualism in the media. Introduction. In *Thematising Multilingualism in the Media* (1–22 or.). Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Pub. Co.
- Kelly-Holmes, H., Moriarty, M., & Pietikäinen, S. (2009). Convergence and divergence in Basque, Irish and Sámi media language policing. *Language Policy*, 8 (3), 227–242 or.
- King, K. A. (2001). *Language revitalization processes and prospects Quichua in the Ecuadorian Andes*. Clevedon, UK; Buffalo, N.Y.: Multilingual Matters LTD.
- Kintana, X. (1984a, urtarrilak 3). Aspaldi honetako kritikarik ezaz zenbait gogoeta (I). *Egin*, 17 or.
- Kintana, X. (1984b, urtarrilak 4). Aspaldi honetako kritikarik ezaz zenbait gogoeta (II). Euskal Telebistaz segituz. *Egin*, 17 or.
- Kintana, X. (1984c, urtarrilak 5). Mediterraneoan aspaldian aurkitua izan zenik ez dakitenez. *Egin*, 17 or.
- Kintana, X. (1992). Batasunerako pausoak gogoratu. *Ele*, 11–12, 23–49 or.
- Kintana, X. (1999, ekainak 3). Galdeiozu... *Euskaldunon Egunkaria*, 4 or.
- Knorr, H. (2007, irailak 6). Las lenguas y ETB. *El País del País Vasco*.

- Komunikazio Saila. (2013). Datu jakingarri batzuk EiTbren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenari buruz. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Komunikazio Saila. (2014, urriak 3). EiTbK eta Tokikom-ek elkarlernerako akordioa sinatu dute. EiTbren barne-dokumentazioa
- Krauss, M. (1992). The world's languages in crisis. *Language*, 68 (1), 4–10 or.
- Kremnitz, G. (1981). Du « bilinguisme » au « conflit linguistique ». Cheminement de termes et de concepts. *Langages*, 61, 63–74 or.
- Krutwig, F. (1963). *Vasconia. Estudio dialéctico de una nacionalidad*. Buenos Aires: Norbait.
- Kruzeta, O. (2008). Lanerako ildoak. In *Euskara hedabideetan. Euskarazko hedabideak eta euskararen presentzia hedabideetan* (235–259 or.). Eusko Jaurlaritza.
- Kualitate. (2018). Estudio Cualitativo Preliminar sobre el Servicio Audiovisual Público Vasco. Informe de resultados. Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. (2016). Zinema euskaraz. euskadi.eus. Interneten eskuratua: <http://www.euskadi.eus/zinema-euskaraz-programa/web01-a2kulsus/eu/>
- Labaien, R. (1992, otsailak 8). ETB: otsoak oihuka. *Euskaldunon Egunkaria*, 3 or.
- Laitin, D. D., & Reich, R. (2003). A Liberal Democratic Approach to Language Justice. In *Language Rights and Political Theory* (80–104). New York: Oxford University Press.
- Lakunza, R. (2011, otsailak 18). «Aspaldiko» echa la persiana el día 28. *Deia*, 62 or.
- Lakunza, R. (2014, urriak 11). ETB añade cinco nuevos programas a sus dos canales. *Deia - Suplemento TV*, 60–61 or.
- Landa, J. (2005). Informazioaren gizartea? In *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa* (409–416). Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea - Argitalpen Zerbitzua.
- Larrañaga, I., Egia, G., & Amonarriz, K. (1984). Euskal Herriko hizkuntz normalizazioaren zenbait alderdi. *Jakin*, 32, 5–24 or.
- Larrañaga, J. (2008). La práctica profesional en el proceso de convergencia mediática. Una aproximación metodológica. Estudio del caso del grupo local de comunicación GOIENA Komunikazio Zerbitzuak, Koop.E. *Anàlisi*, 37, 93–108 or.
- Larrañaga, J., Agirreazkuenaga, I., Larrondo, A., Martínez, P. M., & Meso, K. (2011). *EITB aro digitalean. Kudeaketa estrategikoa konbergentziara bidean*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

- Larrarte, J. (2005). EKT: Etorkizuneko komunikazio taldearen oinarri sendoa. In *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa* (129–136 or.). Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea - Argitalpen Zerbitzua.
- Larrinaga, A. (1998). Ahoskeraren araugintza komunikabideetan. *Euskera*, 43 or.
- Larrinaga, A. (2001). Marileisis sufre (IV) oxidozko atmosferan. *Ekaia*, 14, 117–128 or.
- Larrinaga, A. (2004a). Hizkuntza egokitasuna telebistan. In *Egokitasuna hizkuntzaren erabileran* (65–73 or.). Bilbo: Mendebalde.
- Larrinaga, A. (2004b). Hizkuntzalariak telebistagintzan. *Senez*, 27, 145–151 or.
- Larrinaga, A. (2005a). Egokitasuna eta kalitatea. Euskarazko testuetan nola? UPV/EHU. Interneten eskuratua: <http://www.pdffooz.net/k-52861023.html>
- Larrinaga, A. (2005b). EiTB. In *Euskara enpresaren kudeaketan. Gakoak eta esperientziak* (34–39). Zamudio: Ezagutzaren Clusterra.
- Larrinaga, A. (2005c). Gazte hizkera telebistan. In *gazt\_ hizkera. Jardunaldien hitzaldiak eta ondorioak* (45–54 or.). Azpeitia: Urtxintxa Eskola.
- Larrinaga, A. (2007a). *Euskarazko albistegietarako esku-liburua II*. Bilbo: EiTB.
- Larrinaga, A. (2007b). Euskarazko Bikoizketaren Historia. *Senez*, 34, 83–103 or.
- Larrinaga, A. (2008). Hizkuntza aldaerak telebistan. *Iker*, 19, or. 39–46 or.
- Larrinaga, A. (2009, azaroak 20). Kirol taldeen izenak. Interneten eskuratua: [http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1258628904](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1258628904)
- Larrinaga, A. (2011a). Ikus-entzunekoetarako euskara: kazetarietzako baliabideak eta HIKEA aplikazioa. Universidad de Navarra. Interneten eskuratua: [http://www.unav.edu/centro/katedra/jornadas\\_de\\_periodismo](http://www.unav.edu/centro/katedra/jornadas_de_periodismo)
- Larrinaga, A. (2011b). Pantaila euskarazko hitzez mintzo. In *Ahoa bete hots. Idatziak ahotsa hartzten duenean* (37–50 or.). Andoain: Mintzola Fundazioa.
- Larrinaga, A. (2011c). Pastoral egungo ikus-entzunezkoetan. *Iker*, 26, 579–585 or.
- Larrinaga, A. (2011d, azaroak 18). Zerbait gehiago akats zerrendaz. Interneten eskuratua: [http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1321604960](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1321604960)
- Larrinaga, A. (2012). *Albiste testu bikainak. Irrati eta telebistarako eskuliburua*. Bilbo: EiTB.
- Larrinaga, A. (2013a). Eguraldia, egunero berri. *Administrazioa Euskaraz*, 82, 33 or.
- Larrinaga, A. (2013b). Hizkuntza bitartekariak eta terminologia. In *Ugarteburu V. Terminologia Jardunaldietan izandako mahai-ingurua*. Bilbo.

- Larrinaga, A. (2013c). Telerrealitate-formatuak eta hizkuntza-tratamendu berriak. In *Multimedia komunikazioa: gaur egungo erronkak eta estrategia berriak* (180–202 or.). Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Larrinaga, A. (2013d, urtarrilak 11). Euskarazko bikoizketaren historia sentimentala. 31eskutik. Interneten eskuratua: <https://31eskutik.com/2013/01/11/euskarazko-bikoizketaren-historia-sentimentala/>
- Larrinaga, A. (2013e, apirilak 16). Bihar, eguraldi. Interneten eskuratua: <http://31eskutik.com/2013/04/16/bihar-eguraldi/>
- Larrinaga, A. (2013f, azaroak 5). Saria edo ziria. Interneten eskuratua: <http://31eskutik.com/2013/11/05/saria-edo-ziria/>
- Larrinaga, A. (2014a, uztailak 3). Txahal inkatuaren sindromea. Interneten eskuratua: <https://31eskutik.com/2014/07/03/txahal-inkatuaren-sindromea/>
- Larrinaga, A. (2014b, irailak). *EiTB: From dual to bilingual*. Hemen aurkeztua: Intercultural cities. Building the future on diversity, Bilbao.
- Larrinaga, A. (2014c, azaroak 3). Euskararen desafektua (III). 31eskutik. Interneten eskuratua: <http://31eskutik.com/2014/11/03/euskararen-desafektua-iii/>
- Larrinaga, A. (2015a, apirilak 30). Iribas, zuretzat (II). 31eskutik. Interneten eskuratua: <https://31eskutik.com/2015/04/30/iribas-zuretzat-ii/>
- Larrinaga, A. (2015b, uztailak 9). EITB y la nueva realidad social del euskera. *Deia*, 5 or.
- Larringan, L. M. (2000). Hizkuntzaren kalitatea. *Ikastaria*, 11, 66–76 or.
- Lartanguren, E. (2014, azaroak 9). ETBk «urratsak» agindu ditu, erdaraz egitera ez behartzeko. *Berria*, 52 or.
- Latiegi, B., & Onatibia, D. (1982). *Euskaltzaindiari epaiketa*. San Sebastián.
- Laughton, R. (2004). S4C: An Independent Review. Department for Culture, Media and Sport. Interneten eskuratua: [http://www.s4c.cymru/abouts4c/authority/pdf/e\\_adolygiad\\_laughton.pdf](http://www.s4c.cymru/abouts4c/authority/pdf/e_adolygiad_laughton.pdf)
- Lawson-Borders, G. (2003). Integrating New Media and Old Media: Seven Observations of Convergence as a Strategy for Best Practices in Media Organizations. *The International Journal on Media Management*, 5 (2), 91–99 or.
- LEF Batzordea. (1986). *Hitz-Elkarketa/1*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- LEF Batzordea. (1990). *Hitz-Elkarketa/3*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- LEF Batzordea. (1992). *Hitz-Elkarketa/4*. Bilbo: Euskaltzaindia.

- Legarra, J. M., & Baxok, E. (2005). Language policy and planning of the status of Basque, II: Navarre and the Northern Basque Country. *International Journal of the Sociology of Language*, 174, 25–38 or.
- Lekuona, M. (1968). Euskeraren batasuna. *Euskera*, 13, 139–141 or.
- Leone, S. (2017, urtarrilak 25). Maite ditut, maite, gure euskalkiak, batua estaltzen didatenean. Interneten eskuratua: <https://zuzeu.eus/euskara/maite-ditut-maite-gure-euskalkiak-batua-estaltzen-didatenean/>
- Lertxundi, A. (2015, martxoak 15). Malguak gu. *Berria*, 24 or.
- Letona, X. (2016). Nafarroako gobernuak ozta-ozta gaintitzen du gizarte mugimenduen balorazioa. *Argia*, 2.534, 22–26 or.
- Livingstone, S. (2008). On the mediation of everything: ICA presidential address 2008. *Journal of Communication*, 59, 1–18 or.
- Lizarralde, J. (1984a, otsailak 15). Komunikabideetako euskara dela eta. *Egin*, 19 or.
- Lizarralde, J. (1984b, otsailak 28). Komunikabideetako euskararen inguruan. *Egin*, 29 or.
- Lizartza, R. (2009, abenduak 1). Hitanoa ikasteko idatzi dut liburu hau [HABE Ikasbil]. Interneten eskuratua: [http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p\\_p\\_id=56](http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p_p_id=56)
- Lobera, G. (2005). Euskararen aldeko komunikabideak edo euskarazko komunikabideak: Administrazioaren ikuspegiaren aldaketa. In *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa* (327–340). Laioa: Euskal Herriko Unibertsitatea - Argitalpen Zerbitzua.
- López, P. (2008). El euskera en libertad. In *La política lingüística vasca a debate* (197–170 or.). Vitoria-Gasteiz: Asociación Ciudadanía y Libertad.
- Mac Donnacha, J. (2000). An Integrated Language Planning Model. *Language Problems and Language Planning*, 24, 11–35 or.
- Maneiro, G. (2008). Política lingüística: consideraciones y propuestas. In *La política lingüística vasca a debate* (177–187 or.). Vitoria-Gasteiz: Asociación Ciudadanía y Libertad.
- Manias, M. (2018, irailak 12). Politika eta praktika. *Berria*, 25 or.
- Marcos, D. (2008). Bikoizketa. Aginte-koadroko adierazleak - 2008. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Marcos, D. (2011). Bikoizketa. Aginte-koadroko adierazleak - 2011. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Marko, J. I. (1994). Hizkuntz politiken arteko alderaketa (II). *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 12, 81–95 or.



- Marko, J. I., & Uranga, B. (2011). Hizkuntza-ekologia Euskal Herrian gaur egun, eragileen ikuspegia. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 81, 107–122 or.
- Martín, I. (1999, apirilak 27). El PP acusa a ETB de «deslegitimar» los poderes del Estado. *El Correo*, 21 or.
- Martin, R. M. (2017, apirilak 23). EITB: erakundea, eradua bainoago. *Berria*, 44 or.
- Martin, R. M., Cantalapiedra, M. J., & Zalbidea, B. (2013). *EiTBren Estilo Liburua. Informazioa eta Aktualitatea*. Bilbo: Euskal Irrati Telebista.
- Martin, R. M., Cantalapiedra, M. J., & Zalbidea, B. (2016). *EiTBren Estilo Liburua. Informazioa eta Aktualitatea*. Bilbo: Euskal Irrati Telebista.
- Martínez de Luna, I. (2001). Euskal Herriko gaztetxoek hizkuntz egoera aztertzeke eredu orokorraren proposamena. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 40, 47–68 or.
- Martínez de Luna, I. (2013). Euskarak duen framing berri baten premia asetzeke proposamena. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 86, 13–83 or.
- Mather, J. (2008). Maori Television - Te Reo. Briefing to the incoming ministers of Maori Affairs and Finance. Maori Television. Interneten eskuratua: <http://www.tpk.govt.nz/en/in-print/our-publications/corporate-documents/briefing-to-the-incoming-minister/download/tpk-mts-bim-2008-en.pdf>
- May, S. (2007). Language Policy and Minority Rights. In *An Introduction to Language Policy. Theory and Method* (3. arg., or. 255–272 or.). Malden, MA: Blackwell Publishing Ltd.
- Mayor, J. (1984). Proposición no de ley en relación con el uso del euskera en EUSKAL TELEBISTA, formulada por el Grupo Parlamentario Popular. *Boletín Oficial del Parlamento Vasco*, 10, 1–3 or.
- Mejuto, G. (2018, urriak 17). Euskara eta ikus-entzunezko konpainia multinazionalak [zuzeu.eus]. Interneten eskuratua: <https://zuzeu.eus/euskara/euskara-eta-ikus-entzunezko-konpainia-multinazionalak/>
- Mendiguren Bereziartu, X. (1983). Bikoizketako euskararen arazoak. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Mendiguren Bereziartu, X. (2012). Mende erdi batez euskalgintzan... *Euskera*, 57, 495–503 or.
- Mendizabal, J. (2005). Tokian tokiko prentsa eta informazioaren gizartea. In *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa* (137–153 or.). Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea - Argitalpen Zerbitzua.
- Menika, I., & Larrinaga, A. (1995). ETBren zenbait gomendio (I). *Administrazioa Euskaraz*, 10, 16 or.
- Menika, I., & Larrinaga, A. (1996). ETBren zenbait gomendio (II). *Administrazioa Euskaraz*, 11, 16 or.

- Michelena, L. (1985). La normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco. In *Lengua e Historia* (213–228 or.). Madrid: Paraninfo.
- Milroy, J., & Milroy, L. (1987). *Authority in Language*. London: Routledge & Kegan Paul Ltd.
- Mitxelena, L. (1968). Ortografía. *Euskera*, 13, 203–219 or.
- Mixer. (2008). Reflexión estratégica: El doblaje al euskara en Euskadi. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Monreal, G. (2003). Nafarroako Euskararen Legearen jatorria. *Eleria*, 11, 7–18 or.
- Moring, T. (2007). Functional completeness in minority language media. In *Minority language media: concepts, critiques and case studies* (17–33). Clevedon: Multilingual Matters LTD.
- Moring, T. (2013). Media Markets and Minority Languages in the Digital Age. *Journal on Ethnopolitics and Minority Issues in Europe*, 12–4, 34–53 or.
- Moring, T., Husband, C., Lojander-Visapää, C., Vincze, L., Fomina, J., & Mänty, N. N. (2011). Media use and Ethnolinguistic Vitality in bilingual communities. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 32 (2), 169–186 or.
- Moring, T., Lojander-Visapää, C., Nordqvist, A., Vincze, L., & Mänty, N. N. (2011). A comparative study of media, media use and ethnolinguistic vitality in bilingual communities. *The Journal of Estonian and Finno-Ugric Linguistics*, 2 (1), 283–301 or.
- Morris, N. (2008). Transmitting Identity: Radio in Barcelona. *International Journal of Communication*, 2, 543–560 or.
- Muhr, R. (2003). Language change via satellite: The influence of German television broadcasting on Austrian German. *Journal of Historical Pragmatics*, 4 (1), 103–127 or.
- Murua, G. (1985). Euskara eta komunikabideak. *HABE*, 64, 5 or.
- Nafarroako Gobernua. (2008, maiatzak 13). Bihar, Euskararen Nafar Kontseiluaren lehenengo bilera eginen dute. Interneten eskuratua: [http://www.sedelectronica.navarra.gob.es/home\\_eu/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2008/05/13/130508ed11.htm](http://www.sedelectronica.navarra.gob.es/home_eu/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2008/05/13/130508ed11.htm)
- Nafarroako Gobernua. (2017a). Euskararen I. plan estrategikoa (2016 - 2019). Interneten eskuratua: [http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/Euskararen I\\_Plan Estrategikoa \(2016-2019\)\\_ Nafarroako Gobernua.pdf](http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/Euskararen_I_Plan_Estrategikoa_(2016-2019)_Nafarroako_Gobernua.pdf)
- Nafarroako Gobernua. (2017b). Nafarroako herriguneeen izen elebidun ofizialak erabiltzeko foru-dekretuaren proiektua. Interneten eskuratua: [http://www.gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/proyecto\\_df\\_uso\\_deno\\_minaciones\\_oficiales\\_y\\_normalizadas\\_2.pdf](http://www.gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/proyecto_df_uso_deno_minaciones_oficiales_y_normalizadas_2.pdf)

- Naro, A. J., & Pereira Scherre, M. (1996). Contact with Media and Linguistic Variation. In *Sociolinguistic Variation. Data, Theory, and Analysis* (223–228 or.). Stanford: CSLI Publication.
- Nielsen. (2013). A look across screens - The cross-platform report. The Nielsen Company. Interneten eskuratua: [http://www.nielsen.com/content/dam/corporate/us/en/reports-downloads/2013 Reports/Q1-2013-Nielsen-Cross-Platform-Report.pdf](http://www.nielsen.com/content/dam/corporate/us/en/reports-downloads/2013%20Reports/Q1-2013-Nielsen-Cross-Platform-Report.pdf)
- Ninyoles, R. L. (1978). *Conflicte lingüístic valencià: substitució lingüística i ideologies diglòssiques*. València: Eliseu Climent.
- Ninyoles, R. L. (2001). Conflict lingüístic i ideologia. In *Ideologia i conflicte lingüístic* (13–32). Alzira: Edicions Bromera.
- Ó Laoire, M. (2008). Indigenous Language Revitalisation and Globalization. *Te Kaharoa, 1*, 203–216 or.
- O’Connell, E. (2004). Serving Our Purposes: audiovisual media, language planning and minority languages. In *Mercator Media Forum 7* (29–41 or.). Cardiff: University of Wales Press.
- O’Connell, E. (2007). TG4: 10 years on. *Estudios Irlandeses, 2*, 258–262 or.
- Ojer, P. (2016, maiatzak 6). Un juez suspende la imposición del euskera en las escuelas infantiles de Pamplona. *ABC*.
- Oñederra, M. L. (1998). Ahoskera lantaldearen errendapen txostena. *Euskera, 43*, 379–388 or.
- Oñederra, M. L. (2002). ETB1-eko albistegietako hizkuntzaren inguruko gogoetak. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Oñederra, M. L. (2003a). 2003-2004 ikasturterako gaiak eta lehentasunak. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Oñederra, M. L. (2003b). EITB - Euskal Herriko leku izenak I (lurralde, hiriburu eta herriak). Lehen proposamen-txostena. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Oñederra, M. L. (2003c). Euskadi Irratiko albistegietako hizkuntzaren inguruko gogoetak. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Oñederra, M. L. (2004). Euskaltzaindiarentzako galdera. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Oñederra, M. L., Elordui, A., Epelde, I., Etxeberria, P., Jauregi, O., & Salaberria, J. (2015). Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen txostena (Ahoskerak axola du). *Euskera, 60*, 499–531 or.
- Ordóñez, J. (1998, urriak 3). «Goenkale» hasi zela lau urte dira. *Euskaldunon Egunkaria*, 41 or.

- Ortuzar, A. (2003). Euskaltzaindia - EiTB akordioa. *Euskera*, 48, 1139–1140 or.
- Otaegi, L. (1985). Euskara Euskal Telebistan. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Otamendi, J. (2002). Komunikazioaren apustua hizkuntz zuzentasunaren aurretik. *Larrun*, 55, 18–21 or.
- Otermin, J. M., & Díez Unzueta, J. R. (2006). *EiTB 1982-2007. Hegaldi-kronika*. Iurreta: EiTB.
- Oyharçabal, B. (2004). Euskaltzaindiaren corpusez. *Euskera*, 49, 43–55 or.
- Pagola, R. M. (1984a, otsailak 2). Ikusentzunezko komunikabideetako mintzairaz (I). *Deia*, 11 or.
- Pagola, R. M. (1984b, otsailak 3). Ikusentzunezko komunikabideetako euskararen erabilkeraz (eta II). *Deia*, 11 or.
- Palazio, G. (1991). Euskal komunikabideetako euskara. *Uztaro*, 1, 105–114 or.
- Parlamento de Navarra. (1985, abenduak 18). Diario de sesiones del Parlamento de Navarra. Boletín Oficial del Parlamento de Navarra.
- Pastor, J. M. (2014). Un informativo, dos enfoques: la actualidad política vasca en ETB durante los mandatos de Ibarretxe y López. *Ámbitos*, 26. Interneten eskuratua: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=16832539017>
- Paulson, C. B. (1997). Language policies and language rights. *Annual Review of Anthropology*, 26, 73–85 or.
- Pauwels, A. (2004). Language Maintenance. In *The Handbook of Applied Linguistics* (719–737). Malden, MA: Blackwell Publishing Ltd.
- Pavón, A., & Zuberogoitia, A. (2011). Leintz bailarako nerabeak eta ikus-entzunezko edukien kontsumoa, digitalizazioaren garaian. *Uztaro*, 78, 31–49 or.
- Perez Gaztelu, E. (2000). *Luis Villasante Kortabitarte* (Libk. 20). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Perurena, P. (1984, martxoak 20). Eta euskararen fonologiaz zer? *Egin*, 21 or.
- Petirena, P. (2011). *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Phillipson, R., & Skutnabb-Kangas, T. (1996). English Only Worldwide or Language Ecology? *TESOL Quarterly*, 30, 429–451 or.
- Pietikäinen, S., & Kelly-Holmes, H. (2011). Gifting, service, and performance: three eras in minority-language media policy and practice. *International Journal of Applied Linguistics*, 21, 51–70 or.

- Pooley, J. (2006). Fifteen Pages that Shook the Field: Personal Influence, Edward Shils, and the Remembered History of Mass Communication Research. *The ANNALS of the American Academy of Political and Social Science*, 608, 130–156 or.
- Prado, E. (2008). Retos de la convergencia digital para la televisión. *Quaderns del CAC*, 31–32, 33–45 or.
- Prestakuntza Batzordea. (2011). Euskalduntze plana. EiTbren barne-dokumentazioa.
- Ricento, T. (2000). Historical and Theoretical Perspectives in Language Policy and Planning. In *Ideology, Politics and Language Policies. Focus on English* (9–24 or.). Amsterdam: John Benjamins Pub. Co.
- Ricento, T., & Hornberger, N. H. (1996). Unpeeling the Onion: Language Planning and Policy and the ELT Professional. *TESOL Quarterly*, 30, 401–426 or.
- Ritzer, G., & Jurgenson, N. (2010). Production, Consumption, Prosumption. The nature of capitalism in the age of the digital ‘prosumer’. *Journal of Consumer Culture*, 10, 13–36 or.
- Rodríguez Ochoa, J. M. (2001). Aplicación y desarrollo normativo de la Ley Foral del Vascuence en el ámbito de la Administración Foral de Navarra. *Revista internacional de estudios vascos*, 46 (2), 545–592 or.
- Romaine, S. (2006). Planning for the survival of linguistic diversity. *Language Policy*, 5, 443–475 or.
- Rotaetxe, K. (1987). L’aménagement linguistique en Euskadi. In *Politique et aménagement linguistiques* (161–210 or.). Québec: Conseil de la langue française.
- Rotaetxe, K. (1988). *Sociolingüística*. Madrid: Síntesis.
- Rubio-Marín, R. (2003). Language Rights: Exploring the Competing Rationales. In W. Kymlicka & A. Patten (Arg.), *Language Rights and Political Theory* (52–79 or.). New York: Oxford University Press.
- Rucabado, B. (2009, irailak 26). ETB apuesta por la información para ser «la televisión de todos los vascos». *El Mundo*, 72 or.
- Ruiz Olabuenaga, J. I. (1984). *Atlas lingüístico vasco*. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones - Gobierno Vasco.
- Ruiz Soroa, J. M. (2008). Política lingüística y democracia constitucional. In *La política lingüística vasca a debate* (9–54 or.). Vitoria-Gasteiz: Asociación Ciudadanía y Libertad.
- Sachdev, I., & Hanlon, D. (2000). Language Attitudes, Perceptions and Identity: Some Haida and Cree data. *London Journal of Canadian Studies*, 16, 69–87 or.
- Sagarna, A. (1997). Euskararen erronka teknologia berrien aurrean. *Bat: Soziolingüística aldizkaria*, 24, 13–28 or.

- Sagarna, A. (2008). Euskara XXI. mendeko informazio eta komunikazio teknologietan. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 66, 17–25 or.
- Salaburu, P. (1984a, urtarrilak 12). Euskal telebista dela eta. *Egin*, 17 or.
- Salaburu, P. (1984b, otsailak 16). Euskara batua ez da ulergaitzago. *Egin*, 19 or.
- Salaburu, P. (1994). Euskara batuaren egungo premiak. *Euskera*, 39, 675–695 or.
- Salaburu, P. (1995). Euskaltzaindiaren arauak. Aurkezpena. *Euskera*, 40, 1091–1092 or.
- Salaburu, P., & Kintana, X. (1982). *Euskara hobean hobe*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea - Argitalpen Zerbitzua.
- Sánchez, Á. (1994, azaroak 15). Andoni Aranbururentzako gutuna. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Santos, A. (2013, martxoak 26). ETB recupera su dibujo de Euskal Herria para su nuevo mapa del tiempo. *El Correo*, 24 or.
- Sarasola, I. (1997). *Euskara batuaren ajeak*. Irun: Alberdania.
- Sarasola, P. (2013, otsailak). «ETB1ek aurrekontu handiagoa behar du ETB2k baino» [Larrun, 173, 3-7 or.].
- Sarasua, J. (1996). *Bi begiratu euskarazko kazetari hizkerari*. Makina-izkribua.
- Sarasua, J. (2011). Egungo norabide batzuk eta hizkuntzen ikuspegi ekologikoa. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 81, 123–143 or.
- Sarasua, J. (2013). Euskal Telebista eta euskal telebista. Berrantolatze oinarri batzuk. *Jakin*, 194–195, 85–96 or.
- Schiffman, H. (2007). Language Policy and Linguistic Culture. In *An Introduction to Language Policy. Theory and Method* (3. arg., or. 111–127 or.). Malden, MA: Blackwell Publishing Ltd.
- Schlesinger, P. (1993). Wishful Thinking: Cultural Politics, Media, and Collective Identities in Europe. *JCOM Journal of Communication*, 43, 6–17 or.
- Serrano, I. (2011, urtarrilak). «Oso ondo neurtuta daukat noiz egiten dudana bizkaieraz eta noiz batuaz» [Aizu!, 353, 30-33 or.].
- Siadeco. (1991). ETB-ko telesail eta filmeen bikoizketan hizkuntz eredu egokiena definitzeko azterketa. II. Ondorioak eta Proposamena. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Siadeco. (1995a). Bertsozaletasunari buruzko azterketa. *Jakin*, 11–74 or.
- Siadeco. (1995b). Telebista eta euskara - «Goenkale» kasua. EiTBren barne-dokumentazioa.

- Smith, A., & Boyles, J. L. (2012). The Rise of the “Connected Viewer”. Pew Internet & American Life Project. Interneten eskuratua: [http://www.pewinternet.org/files/old-media//Files/Reports/2012/PIP\\_Connected\\_Viewers.pdf](http://www.pewinternet.org/files/old-media//Files/Reports/2012/PIP_Connected_Viewers.pdf)
- Soziolinguistika Klusterra. (2017). Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2006. Prentsa-txostena. Soziolinguistika Klusterra. Interneten eskuratua: [http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016-\\_eu\\_1.pdf](http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016-_eu_1.pdf)
- Strubell, M. (2001). Catalan a Decade Later. In *Can Threatened Languages Be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective* (260–283 or). Clevedon: Multilingual Matters LTD.
- Stuart-Smith, J., Pryce, G., Timmins, C., & Gunter, B. 2013. «Television can also be a factor in language change: Evidence from an urban dialect». *Language* 89: 501–36 or.
- Surio, A. (2009, uztailak 5). «EITB no es un instrumento ideológico de nada» [El Correo, 38-39 or.].
- Surio, A. (2011, urtarrilak 6). Por qué Euskadi necesita a EITB. *El País*, 2–3 or.
- Sustatu. (2012, maiatzak 16). Hautesgaua m-22, blogari elkarketa baterako deia EITBren egoitzan. Interneten eskuratua: <https://sustatu.eus/1305300704>
- Sustatu. (2017, abenduak 14). 2Deo: euskarazko ikus-entzunezkoak bultzatzeko «laborategi» bat. Interneten eskuratua: <https://sustatu.eus/1513257318>
- Tentazioak. (1999). «Ertzainak» telesailaren biblia. EITBren barne-dokumentazioa.
- Tokikom. (2013). Euskal hedabideen etxea, tokikoen ikuspegitik. Interneten eskuratua: [http://www.hekimen.net/wp-content/uploads/2014/03/EUSKAL\\_HEDABIDEEN\\_ETXEA.pdf](http://www.hekimen.net/wp-content/uploads/2014/03/EUSKAL_HEDABIDEEN_ETXEA.pdf)
- Torrealdai, J. M. (1985). *Euskal telebista eta euskara*. Donostia: Elkar.
- Torrealdai, J. M. (1993). ETB eta euskara. *Jakin*, 75, 151–159 or.
- Trudgill, P. (1986). *Dialects in contact*. Oxford, UK; New York, NY, USA: B. Blackwell.
- Txiliku. (1989, uztailak 6). Euskara (erabileraz). *El Diario Vasco*.
- Txillardeggi. (1977). *Oinarri bila: morfosintasian eta fonologian*. Donostia.
- Uribarren, P. (1992). Euskal Herriko eliza katolikoa eta euskara batua. *Ele*, 11–12, 143–162 or.
- Uribarren, P. (2010). Izan zirelako gara, eta garelako izango dira. *Euskera*, 55, 61–88 or.
- Uribarren, P., Baraiazarra, L., Solabarrieta, T., Badiola, R., Goikoetxea, J. L., & Aurrekoetxea, G. (1986). *Euskararako Hiztegia*. Bilbo: Bostak Bat.

- Uribarren, P., Baraiazarra, L., Solabarrieta, T., Badiola, R., Goikoetxea, J. L., & Aurrekoetxea, G. (1988). *Sinonimoen hiztegia. Antonimoduna*. Bilbo: Bostak Bat.
- Urkizu, U. (2003, urriak 9). Irizpide aldaketa toponimoen erabileran. *Euskaldunon Egunkaria*, 53 or.
- Urkizu, U. (2014, azaroak 13). ETB2n euskara sartzeko bidea «ibili ahala» egingo dutela agindu dute. *Berria*, 36 or.
- Urkizu, U. (2015, abenduak 27). Fikziorik gabe, etorkizunik ez. *Berria*, 36 or.
- Urkizu, U. (2017, azaroak 23). Euskarazko ikus-entzunezko eduki ugari eskura jarriko ditu JarriOn-ek. *Berria*, 36 or.
- Urkizu, U. (2018a, otsailak 9). «'Go!azen'-ekin lotutako bi saio berezi emango ditu gaur ETB1ek». *Berria*: 28.
- Urkizu, U. (2018b, urriak 12). «Errementari» Netflixen gaurtik. *Berria*, 36 or.
- Urrutia, A. (2005, urtarrilak 11). Kalitateko euskaraz [«Lagun batek esan dit lagun batek esan diola» bloga]. Interneten eskuratua: <http://eibar.org/blogak/gabiria/31>
- Urrutia, A., & Kintana, X. (2009). Euskaltzaindiaren batzar-agiriak. Urkiolan (Abadiño), 2009ko martxoaren 28an (goizean). *Euskera*, 372–376 or.
- UZEI. (1982). *Maileguzko hitzak. Ebakera eta idazkera*. Donostia: UZEI.
- UZEI. (1985). *Zuzenbidea. Hiztegia*. Donostia: Elkar.
- UZEI. (1988). *Laburtzapenen gidaliburua*. Donostia: Elkar.
- UZEI. (1994a). *Atzekoz aurrera. Hitz-bukaeren hiztegia*. Donostia: UZEI.
- UZEI. (1994b). *Kirol-hiztegiak. Atletismoa*. Vitoria-Gasteiz: Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea.
- UZEI. (1994c). *Kirol-hiztegiak. Futbola*. Vitoria-Gasteiz: Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea.
- UZEI. (1994d). *Kirol-hiztegiak. Pilota*. Vitoria-Gasteiz: Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea.
- Vallverdú, F. (1983). Hi ha o no hi ha diglòssia a Catalunya? Anàlisi d'un problema conceptual. *Treballs de Sociolingüística Catalana*, 5, 17–24 or.
- Vallverdú, F. (1986). Sobre el estándar oral catalán. El modelo de lengua en TV3. *Euskera*, 31, 317–326 or.
- Vargas Llosa, M., De La Marina, J. A., Arteta, A., De Azúa, F., Boadella, A., Castilla del Pino, C., ... Espada, A. (2008). Manifiesto por la lengua común. Interneten eskuratua: <http://estaticos.elmundo.es/documentos/2008/06/22/manifiesto.pdf>



- Vélez, N. (2018, maiatzak 15). 4K teknologia erabiliz euskaraz eginiko lehen telesaila, laster EiTBn. Interneten eskuratua: <http://www.eitb.eus/eu/eitb-taldea/osoa/5590755/puntu-koma-4k-erabiliz-euskaraz-eginiko-telesaila-laster-eitbn/>
- Villasante, L. (1961). *Historia de la literatura vasca*. Bilbao: Sendo.
- Villasante, L. (1968). Antziñako euskal hitzen formaz. *Euskera*, 13, 175–201 or.
- Villasante, L. (1980). *Hacia la Lengua Literaria común*. Oñate: Editorial Franciscana Aranzazu.
- Villasante, L. (1994). Euskara batuaren filosofiaz. *Euskera*, 39, 647–673 or.
- Williams, G. (1992). *Sociolinguistics. A Sociological Critique*. London: Routledge.
- Zabala, I. (2018). Euskarazko lexiko espezializatuaren garapenez eta harmonizazioaz. In *Bai, jauna, bai: fisika euskaraz!: Jose Ramon Etxebarria irakaslearen omenez* (349–358). Udako Euskal Unibertsitatea.
- Zabala, I., & Elordui, A. (2005). Euskara zientifikoaren normalizazioa: hizkuntzalarien ekarpena. In *Euskera zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologaziora* (15–53 or.). Bilbo: Mendebalde Kultur Alkartea.
- Zabaleta, I. (2007). Euskalkiak eta komunikabideak. *Euskera*, 52, 335–349 or.
- Zalbide, M. (1994). Eskola-munduan erabiltzen den euskara: egungo egoera eta zenbait hobekuntza-bide. *Euskera*, 39, 153–187 or.
- Zalbide, M. (2007). Euskararen Legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa. *Euskera*, 52, 1283–1516 or.
- Zalbide, M. (2011). Diglosiaren purgatorioaz. Teoriatik tiraka. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 79–80, 13–152 or.
- Zallo, R. (2003). El audiovisual en Euskadi. Consejo Vasco de Cultura.
- Zarate, M. (1978). Euskara batua ta euskalkiak. *Euskera*, 24, 557–568 or.
- Zarraga, A., Coyos, J.-B., Hernández, J. M., Joly, L., Larrea, I., Martínez, L. V., ... Bilbao, P. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza; Soziolinguistika Klusterra.
- Zatarain, A. (1968). Euskerazko itz berriak (Batasun-Batzordeak aginduriko lana). *Euskera*, 13, 163–173 or.
- Zenbait Egile. (1982). Euskara, hizkuntza nazionala: normalizazioaren behar larriaz. *Jakin*, 22, 5–12 or.
- Zenbait Egile. (2010). Eta euskara goi mailako hezkuntzara heldu zen. *Campus*, 70, 6–9 or.

- Zineuskadi. (2014a). Resolución del 8 de abril de 2014 de la comisión de valoración del programa «Zinema Euskaraz». Interneten eskuratua 2015eko martxoaren 15ean: [http://zineuskadi.eu/files/galeria/files/ZINEUSKADI COMUNICACION ZINEMA EUSKARA 1ª CONVOCATORIA 09\\_04\\_2014\\_eusk\(1\).pdf](http://zineuskadi.eu/files/galeria/files/ZINEUSKADI_COMUNICACION_ZINEMA_EUSKARA_1ª_CONVOCATORIA_09_04_2014_eusk(1).pdf)
- Zineuskadi. (2014b). Resolución del 27 de junio de 2014 de la comisión de valoración del programa «Zinema Euskaraz». Interneten eskuratua 2015eko martxoaren 15ean: [http://zineuskadi.eu/files/galeria/files/ZINEUSKADI COMUNICACION ZINEMA EUSKARA 2ª CONVOCATORIA 30\\_06\\_2014\\_eusk.pdf](http://zineuskadi.eu/files/galeria/files/ZINEUSKADI_COMUNICACION_ZINEMA_EUSKARA_2ª_CONVOCATORIA_30_06_2014_eusk.pdf)
- Zineuskadi. (2014c). Resolución del 28 de octubre de 2014 de la comisión de valoración del programa «Zinema Euskaraz». Interneten eskuratua 2015eko martxoaren 15ean: [http://zineuskadi.eu/files/galeria/files/ZINEUSKADI COMUNICACION ZINEMA EUSKARA 3ª CONVOCATORIA 27\\_10\\_2014\\_eusk.pdf](http://zineuskadi.eu/files/galeria/files/ZINEUSKADI_COMUNICACION_ZINEMA_EUSKARA_3ª_CONVOCATORIA_27_10_2014_eusk.pdf)
- Zorita, K. (2018, maiatzak 14). Zineuskadik Cannesko zine jaialdiaren merkatuan stand bat jarri du. Interneten eskuratua: <https://www.eitb.eus/eu/kultura/zinema/bideoak/osoa/5591993/bideoa-zineuskadik-cannesko-zine-jaialdiaren-merkatuan-stand-jarri-du/>
- Zuazo, K. (1988). *Euskararen batasuna. La unificación de la lengua vasca. L'unification de la langue basque* (Libk. 5). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskaltzaindia.
- Zuazo, K. (2000). *Euskararen sendabelarrak*. Zarautz: Alberdania.
- Zuazo, K. (2005). *Euskara batua. Ezina ekinez egina*. Donostia: Elkar.
- Zubimendi, J. R. (1997). Euskararen kalitatea: zuzentasuna eta egokitasuna. *Euskera*, 42, 705–709 or.
- Zulueta, A. (1992). EIZIEn egindako bilera - Ibon Sarasola. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Zulueta, A., & Eguskiza, J. (2005). ETB-1entzat bikoizteko irizpide nagusiak. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Zupiria, B. (2001, abenduak 21). Jean Haritzelharri zuzendutako gutuna. EiTBren barne-dokumentazioa.
- Zupiria, B. (2002, maiatzak). Euskarazko telebista publikoa gaur [Larrun, 55, 2-17 or.].
- Zupiria, B. (2005). EiTBraiko hizkuntza-funtsak (zabalkundea). EiTBren barne-dokumentazioa.
- Zupiria, B. (2008). Txostena. In *Euskara hedabideetan. Euskarazko hedabideak eta euskararen presentzia hedabideetan* (325–346). Eusko Jaurlaritzia.
- Zupiria, B. (2013). Eztabaida dezagun EITBren ereduaz. *Larrun*, 173, 13–14 or.



# I. ERANSKINA: TAULAK

*Testuan ematen diren hainbat informazio osatzeko datuak taula gisa jaso ditugu.*

## 1. taula: Belaunaldi arteko etenaren eskala

(Fishman, 1991a, or. 87–109)

8. maila	Xera <sup>39</sup> dakiten azken hiztunak zaharrak eta sakabanatuak dira, eta Xera haien ahotik eta memoriatik jaso eta osatu beharra dago, heldu banaka batzuei irakasteko.
7. maila	Xera dakiten hiztunak ondo integratuta daude gizartean, etnolinguistikoki aktiboak dira, baina igaroa dute haurrak hazteko adina.
6. maila	Xera da belaunaldien artean ahozko informalean erabiltzen den hizkuntza.
5. maila	Xerak idatzizko erabilera ere badu etxean, auzoan eta eskolan (alfabetatze-klaseetan).
4. maila	Xerak badu tokia derrigorrezko lehen (4a) eta bigarren (4b) hezkuntzan.
3. maila	Xerak badu tokia lan-harreman informaletan, tartean Xtarrak eta Ytarrak direnean.
2. maila	Xerak badu tokia administrazioaren eta hedabideen beheko mailetan.
1. maila	Xerak badu tokia hezkuntzaren, administrazioaren eta hedabideen goiko mailetan (ez du, ordea, independentzia politikoak eskaintzen duen segurtasuna).

---

39 Fishmanek X eta Y letretan oinarrituriko notazioa darabil. Xish: hizkuntza mehatxatua. Xman: jatorriz hizkuntza mehatxatua darabilen komunitateko kidea. Yish: hizkuntza menperatzailea. Yman: jatorriz hizkuntza menperatzailea darabilen komunitateko kidea. Guk honela egokitu ditugu, hurrenez hurren: Xera, Xtar, Yera, Ytar.

## 2. taula: Euskaraz errealizaturiko fikziozko film luzeak

(Egileak prestatua)

IZENBURUA	URTEA	OHARRAK	ETBren PARTAIDETZA
Balantzatxoa	1978		---
Segoviako ihesa	1981	euskara + gaztelania	---
Erreporteroak	1983		---
Hamaseigarrenean aidanez	1985	film ertaina	antena-eskubideak
Ehun metro	1985	film ertaina	antena-eskubideak
Zergatik panpox?	1985	film ertaina	antena-eskubideak
Oraingo izen gabe	1986	film ertaina	antena-eskubideak
Kareletik	1987		antena-eskubideak
Ander eta Yul	1988		antena-eskubideak
Ke arteko egunak	1989		antena-eskubideak
Offeko maitasuna	1992		antena-eskubideak
Urte ilunak	1993		antena-eskubideak
Maité	1994	euskara + gaztelania	antena-eskubideak
Aupa Etxebeste!	2005		produkzio elkartua
Kutsidazu bidea Ixabel	2006		produkzio elkartua
Zeru horiek	2006		produkzio elkartua
Eutsi	2007		produkzio elkartua
Ander	2009		produkzio elkartua
Zorion perfektua	2009		produkzio elkartua
Sukalde kontuak	2009		produkzio elkartua
Zigortzaileak	2010		produkzio elkartua
80 egunean	2010		produkzio elkartua
Izarren argia	2010		produkzio elkartua
Bi anai	2011	Euskal Zinemaren Irizar Sariaren irabazlea	produkzio elkartua
Arriya	2011		produkzio elkartua
Urteberrion amona	2011		produkzio elkartua
Dragoi ehiztaria	2012	euskara + gaztelania	produkzio elkartua
Baztan	2012	euskara + gaztelania	produkzio elkartua
Bypass	2012		produkzio elkartua
Amaren eskuak	2013		ustiapen-eskubideak

## 2. taularen jarraipena

IZENBURUA	URTEA	OHARRAK	ETBren PARTAIDETZA
Alaba zintzoa	2013		ustiapen-eskubideak
Loreak	2014	Zinemaldiko Sail Ofizialean aurkezturiko lehen euskarazko filma	ustiapen-eskubideak
Lasa eta Zabala	2014	euskara + gaztelania	ustiapen-eskubideak
Txarriboda	2015		ustiapen-eskubideak
Amama	2015	Euskal Zinemaren Irizar Sariaren irabazlea	ustiapen-eskubideak
Igelak	2016		ustiapen-eskubideak
Handia	2017	Zinemaldiko Epaimahaiaren Sari Bereziaren irabazlea Euskal Zinemaren Irizar Sariaren irabazlea	ustiapen-eskubideak
Errementari	2017	Euskal Zinemaren Irizar Sariaren irabazlea	ustiapen-eskubideak
Dantza	2018		ustiapen-eskubideak
Oreina	2018	Euskal Zinemaren Irizar Sariaren irabazlea	ustiapen-eskubideak
Black is beltza	2018	Helduentzako animazioa	---

## 3. taula: Euskarazko hedabide-lokalen kopurua 2010eko hamarkadaren hasieran

(Tokikom, 2013, or. 119–121)

HERRIALDEA	PRENTSA	IRRATIA	TELEBISTA	INTERNET	GUZTIRA
Araba	1	-	-	2	3
Bizkaia	11	5	1	2	19
Gipuzkoa	32	7	4	7	50
Lapurdi	1	1	-	-	2
Nafarroa	5	6	1	-	12
Nafarroa Beherea	-	1	1	-	2
Zuberoa	-	1	-	-	1
Euskal Herria	50	21	7	11	89

#### 4. taula: Hedabideen erabiltzaileak CIESen neurketetan Hego Euskal Herrian

(Egileak prestatua)

Datuak, milakotan  
Hamabost urte edo gehiagoko pertsonak

HEDABIDEA	1989	1993	1997	2001	2006	2011	2014	2016
Egunkaria / Berria <sup>40</sup>		18	26	41	59	60	52	63
Egunkariak <i>eusk + gazt</i>	1.098	1.221	1.238	1.225	1.224	1.268	1.163	1.110
Argia						53	51	50
Hitza						92	71	95
Ttipi Ttapa						29	27	27
Aldizkariak <i>eusk + gazt</i>						395	278	290
Euskadi Irratia	66	92	81	70	82	92	106	112
Gaztea		22	51	63	53	121	112	119
Arrate				4	11	8	5	5
Bizkaia				11	8	7	6	4
Euskalerrria						4	2	4
Xorroxin				1	2	1	1	2
Segura				3	3	2	1	1
Irratiak <i>eusk + gazt</i>	1.267	1.260	1.268	1.261	1.375	1.424	1.456	1.449
ETB1	166	227	262	215	213	164	126	163
ETB3						9	8	12
Hamaika								2
Xaloa								4
Telebistak <i>eusk + gazt</i>	1.344	1.528	1.521	1.497	1.601	1.558	1.568	2.008
Berria.eus <sup>41</sup>				22	31	63	82	89
Hitza.eus <sup>42</sup>						28	10	22
Informazio-webak <i>eusk + gazt</i>				390	660	1.280	1.411	1.428

#### Laburtzapenak

*eusk + gazt*: euskarazko eta gaztelaniazko hedabideak batuta

40 Euskaldunon Egunkaria: 1990-2003. Berria: 2003-egun.

41 2003 arte, 'egunkaria.com' izan zen. 2003tik 2015era, 'berria.info'.

42 2008tik 2015era, 'hitza.info' izan zen.

## 5. taula: CIESen ikerketan espresuki azaltzen diren hedabideen kopuruak

(Egileak prestatua)

HEDABIDEA	1989	1993	1997	2001	2006	2011	2014	2016
Egunkariak <i>eusk</i>		1	1	1	1	1	1	1
Egunkariak <i>eusk + gazt</i>		12	13	> 20	> 20	> 20	> 20	> 20
Irratiak <i>eusk</i>	1	2	2	6	6	7	7	7
Irratiak <i>eusk + gazt</i>	10	13	13	> 50	> 100	> 100	> 100	> 100
Telebista arruntak <i>eusk</i>	1	1	1	1	1	1	1	1
Telebista arruntak <i>eusk + gazt</i>	4	7	7	7	8	8	8	8
Telebista lokalak <sup>43</sup> <i>eusk</i>			~ 4	~ 5	~ 6	~ 6	~ 6	~ 6
Telebista lokalak <i>eusk + gazt</i>			~ 12	~ 16	> 20	> 20	> 20	> 20
Kablez/Satelitez <sup>44</sup> <i>eusk</i>				1	1	1	1	1
Kablez/Satelitez <i>eusk + gazt</i>				> 50	> 50	> 50	> 50	> 50
LTDko tematikoak <i>eusk</i>						1	1	1
LTDko tematikoak <i>eusk + gazt</i>						19	19	22
Telebistak, guztira <i>eusk</i>	1	1	1	~ 7	~ 8	9	9	9
Telebistak, guztira <i>eusk + gazt</i>	4	7	~ 19	> 70	> 75	> 100	> 100	> 100
Informazio-webak <i>eusk</i>				1	1	3	2	2
Informazio-webak <i>eusk + gazt</i>				> 10	> 15	> 15	> 10	> 15

### Laburtzapenak

*eusk*: euskarazko hedabideak bakarrik

*eusk + gazt*: euskarazko eta gaztelaniazko hedabideak batuta

43 CIESen argitalpenetan, "Tv local" edo "Otras" etiketa orokorrak ageri dira. Taulako zenbakiak, hantzen hementika bildutako informazioekin osatu dira.


44 CIESen argitalpenetan, "Canales de pago", "Digital/Extranjeras" eta beste hainbat erataria aipatzen dira. Datu zehatzak Euskaltelen webgunetik atera dira ([www.euskaltel.es](http://www.euskaltel.es)).



## 6. taula: EiTb Taldearen hedabideak eta kanalak denboran zehar

(Egileak prestatua)

Zerrenda grisak kanal bakoitzaren iraunaldia adierazten du  
Zerrendan izen berriak azaltzeak esan nahi du kanalaren deitura-aldaketa gertatu dela



### Laburtzapenak

C.: Canal


### Argibideak

2004an, ETBk lurreko telebista digitala (LTD) implementatu zuen.

2013tik, ETBSat kablez baino ez da banatzen, Europan.

2018an, ETBk telebista hibridoa (HbbTV) implementatu zuen, mundu osorako.

## 6. taularen jarraipena



### Laburtzapenak

I.: Irratia

R.: Radio

E.: Euskadi

**7. taula: EiTBko plantilla 2017ko martxoan, langileen hizkuntza-gaitasunaren arabera**

(Egileak prestatua)

Postuko hizkuntza-eskakizuna gaindituta ez edukitzeko arrazoiak 4.2.2.4. puntuan azalduta daude

SOZIETATEA		B2	C1	C2	GUZTIRA
ETB	langile kop.	134	362	156	652
	gaindituak	121	312	156	589
IRRATIAK	langile kop.	10	70	211	291
	gaindituak	7	49	132	188
EITB	langile kop.		74		74
	gaindituak		62		62
EITBNet	langile kop.		8	40	48
	gaindituak		8	40	48
EITB herri-erakundea	langile kop.	144	514	407	1.065
	gaindituak	128	431	328	887

**Laburtzapenak**

*langile kop.:* hizkuntza-eskakizun jakin bat atxikita daukaten lanpostuetan ari diren langileen kopurua

*gaindituak:* EiTBra sartzeko probetan lanpostuko hizkuntza-eskakizuna gainditu zuten langileak

*B2:* Euskararen ezagutza ertainari dagokion hizkuntza-eskakizuna, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko kodearen bidez adierazia. EiTBn, heziketa profesionaleko titulazioa behar duten lanpostuetan eskatzen da.

*C1:* Euskararen ezagutza onari dagokion hizkuntza-eskakizuna, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko kodearen bidez adierazia. EiTBn, gestore-postuetan, unibertsitateko titulazioa behar duten lanpostuetan eta administrazio-laguntzaileko postuetan eskatzen da.

*C2:* Euskararen ezagutza bikainari dagokion hizkuntza-eskakizuna, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko kodearen bidez adierazia. EiTBn, kazetariei eta hizkuntzalariei eskatzen zaie.

## II. ERANSKINA: LABURTZAPENAK

*Zerrenda honetan, testuan erabili diren laburtzapen guztiak bildu ditugu, laburdurak zein siglak. Euskarazkoak ez diren hitzen laburduraren ondoan, hitz osoa eta, kako zuzenen artean, euskarazko itzulpena jarri da Izen berezien sigletan, euskarazkoak izan ez arren, ez da itzulpenik eman.*

**AED** - Arrasate Euskaldun Dezagun

**AEBEMET** - Administrazioetan Euskara Bermatzeko Egitasmoen Metodologia

**AEK** - Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea

**art.** - artikulua

**CAPES** - certificat d'aptitude au professorat de l'enseignement du second degré

[*bigarren hezkuntzako irakasleentzako gaitasun-agiria*]

**CESP** - Centre d'Étude des Supports de Publicité

**CIES** - Centro de Investigación y Estudios Sociales

**CCMA** - Corporació Catalana de Mitjans Audiovisuals

**CNRS** - Centre National de la Recherche Scientifique

**COPE** - Cadena de Ondas Populares de España

**CRTG** - Compañía de Radio/Televisión de Galicia

**DIGIBat** - Donostia, Iruñea, Gasteiz, Iparraldea eta Bilbo Bat (eginda)

**e.a.** - eta abar

**EAB** - Euskararen Aholku Batzordea

**EAE** - Euskal Autonomia Erkidegoa

**EBAZ** - Euskara Batuaren ahoskera zaindua

**EBPN** - Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

**EEP** - Euskararen Erakunde Publikoa

**EFQM** - European Foundation for Quality Management

**EGLU** - Euskal Gramatika. Lehen Urratsak

**EGOD** - Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen lanketa

**EHKN** - Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren Kale-neurketa

**EI** - Euskadi Irratia

**EIKEN** - Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterra  
**EIMA** - Euskal Ikasmaterialgintza  
**EiTB** - Euskal Irrati Telebista  
**EKT** - Euskarazko Komunikazio Taldea  
**EPE/APV** - Euskal Produktoreen Elkarte / Asociación de Productores Vascos  
**erdald.** - erdaldunak  
**ESEP** - Euskara Sustatzeko Ekintza Plana  
**et al.** - et alii [*eta beste batzuk*]  
**ETB** - Euskal Telebista  
**eusk** - euskarazkoak  
**euskald.** - euskaldunak  
**FIBIZE** - Filmen Bikoizketarako Zentroa  
**gazt** - gaztelaniazkoak  
**GN** - gune soziolinguistikoa  
**guzt.** - guztira  
**H** - high [*goikoa*]  
**HD** - high definition [*bereizmen handia*]  
**HABE** - Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntze Erakundea  
**he** - hizkuntza-eskakizuna  
**HE** - herri-erakundea  
**HGH** - hizkuntza gutxituko hedabidea  
**HPP** - hizkuntza-politika eta -plangintza  
**HPS** - Hizkuntza-Politikarako Sailburuordetza  
**IBAIA** - Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarte  
**ibid.** - ibidem [*berbera*]  
**ik.** - ikus  
**IKA** - Ikas eta Ari  
**IKT** - Informazio- eta komunikazio-teknologia  
**ISL** - Inkesta Soziolinguistikoa  
**IVAP** - Instituto Vasco de Administración Pública / Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea  
**kap.** - kapitulu  
**kop.** - kopurua

**L** - low [*behekoa*]  
**LH3** - lanbide-heziketako goi gradua  
**LTD** - lurreko telebista digitala  
**NUP** - Nafarroako Unibertsitate Publikoa  
**NRJ** - Nouvelle Radio Jeune  
**OCA** - Observatorio Cualitativo de Audiencia  
**PDCA** - Plan, Do, Check, Act [*planifikatu, egin, aztertu, zuzendu*]  
**RE** - Radio Euskadi  
**RFO** - Réseau France Outre-mer  
**RTF** - Radiodiffusion-télévision française  
**RTL** - Radio Télévision Luxembourg  
**RTVE** - Radio Televisión Española  
**RV** - Radio Vitoria  
**SAU** - Sozietate anonimo unipertsonala  
**SER** - Sociedad Española de Radiodifusión  
**TF1** - Télévision Française 1  
**TVC** - Televisió de Catalunya  
**TVE** - Televisión Española  
**TVG** - Televisión de Galicia  
**u.** - urte  
**UPN** - Unión del Pueblo Navarro  
**UPV/EHU** - Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea  
**UZEI** - Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea  
**VHS** - video home system [*etxerako bideo-sistema*]  
**vs** - versus [*aurrez aurre*]



### III. ERANSKINA: EiTBrekin LOTURIKO PERTSONAK

*Zerrenda honetan, testuan aipatzen diren pertsonetatik EiTBrekin loturaren bat dutenak bildu ditugu. Batzuk EiTBn edo EiTBraiko ibili dira lanean; beste batzuk EiTBz aritu dira hedabideetan, telebista-kritikari zein iritzi-emaile gisa, eta beste batzuek EiTBri buruz ikertu dute.*

**Agirre, Lorea** (Beasain, 1968): Kazetaria, antropologoa eta Mondragon Unibertsitateko irakaslea. 2014tik, *Jakin* aldizkariaren zuzendaria da.

**Agirre, Mikel** (Anberes [Belgika], 1955): Ekonomialaria. 1984an hasi zen ETBn, eta hainbat kargu bete ditu. 2013an, Alberto Surio EiTBren zuzendaritza nagusian ordezkatzeko hautagaia izan zen, baina uko egin zion. 2013tik Eitbneten zuzendaria da.

**Aizpuru, Andoni** (Gabiria, 1964): Irakasle eta komunikatzailea. 1999an, ETB1en eguraldiaren tarteak aurkezteko aukeratu zuten audizio batean eta, harrezkero, horretan ari da. Tarteka, beste saio batzuk ere aurkeztu ditu, hala nola, *Bertatik Bertara* eta *Barnetegia*.

**Aldamiz-Etxebarria, Estepan** (Caracas [Venezuela], 1956): Kazetaria. ETBren sorreratik dihardu enpresan. Informazioko zein entretenimenduko programak egin ditu, aurkezle gisa eta, askotan, zuzendari gisa ere bai, besteak beste, *Firin Faran*, *Bakarrik*, *Bertatik Bertara* eta *Egun on Euskadi*.

**Altuna, Patxi** (Azpeitia, 1927 - Azpeitia, 2006): Jesuita, idazle eta euskaralaria. 1976tik 2001era, Deustuko Unibertsitatean jardun zuen, Euskal Filologiako karreran irakasle. 1965ean, Euskaltzaindian sartu zen eta, 1980an, euskaltzain oso aukeratu zuten. ETBn, *Berbetan* saioan jardun zuen 1985ean Miren Azkaraterekin batera.

**Amezaga, Josu**: Kazetaria eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Komunikazio eta Publizitate arloan. EiTBren Administrazio Kontseiluko kide izan da 1999-2002 legeintzaldian Euskal Herritarrok alderdiaren ordezkari gisa.



**Amonarriz, Kike** (Tolosa, 1961): Soziolinguista eta umorista. ETB1en, hainbat saio egin ditu gidoilari, aktore zein aurkezle gisa, besteak beste, *Funtzioa*, *Hau da A. U.*, *Balinda*, *Txiskola* eta *Mihiluze*.

**Amuriza, Xabier** (Zornotza, 1941): Bertsolari, idazle eta politikaria. ETBrako bikoizketetan egin du lan, itzultzaile gisa, besteak beste, "Dragoi Bola Z" mitikoan.

**Anasagasti, Koldo** (Cumaná [Venezuela], 1952): Ikus-entzunezko produktorea. ETBn Produkzio zuzendaria eta Programazio zuzendaria izan ondoren, ETBren zuzendaria izan zen 1987 eta 1989 artean. 1989 eta 1992 artean, Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarena.

**Arana, Edorta**: Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Komunikazio eta Publizitate arloan. EiTBraren Administrazio Kontseiluko kide izan da 2006-2009 aldian EHAK alderdiaren ordezkari gisa, eta 2013-2016 aldian LAB sindikatuaren ordezkari gisa..

**Aranberri, Luis Alberto** "Amatiño" (Eibar, 1945): Kazetaria. 1983an, ETBko Informazio Zerbitzuen zuzendari izendatu zuten, eta "Gaur Egun" albistegiaren editore eta aurkezle ere aritu zen. Geroago, 1985-1986 eta 1991-1995 epealdietan, ETBren zuzendari izan zen.

**Aranburu, Andoni** (Andoain, 1956): Filosofia eta Letretan lizentziatua. ETBn artezle moduan hasi zen 1985ean eta, harrezkero, hainbat ardura bete ditu komunikazio-taldean: 1986an, ETBko Emisio eta Aurkezpen burua; 1996an, Nazioarteko Kanalaren zuzendaria; 1999an, EiTBrako Kalitate zuzendaria; 2013-2016 aldian, EiTBrako Estrategia eta Komunikazio zuzendaria.

**Aranburu, Miren**: Kantaria, aktorea eta bikoizlea. ETBn, "Hamaika korapilo" saioa aurkeztu zuen, eta "Goenkale" seriean aritu zen.

**Areizaga, Andoni** (Donostia, 1934 - Donostia, 2012): Politikaria. 1982 eta 1985 arteko aldian Euskal Irrati Telebistaren zuzendari nagusia izan zen.

**Arrasate, Manu** (Mutriku, 19961): Hizkuntzalaria eta itzultzailea. 1987 eta 1991 artean, zuzentzaile jardun zuen ETBko albistegietan. 1992an, *Euskarazko albistegietarako esku-liburua* prestatu eta argitaratu zuen, EiTbko zuzendari nagusiaren eskariz. 1995-1996 aldian, urtebeterako hartu zuen EiTbko Euskara Sailaren ardura, Jaurlaritzako zuzentzaile-postuan eszedentzia eskatuta.

**Aurrekoetxea, Josu** (Bilbo, 1976): Mediaset taldeko Global In Media enpresako burua. 2014ko urriaren 22an, hitzaldia eman zuen EiTbren Bilboko egoitzan, sare sozialek telebista-audientzietan duten eraginari buruz.

**Arregi, Joseba** (Andoain, 1946): Politikaria. 1984-195 eta 1987-1995 aldietan, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu izan zen EAJtik. 2004an, alderdia utzi, eta Patxi Lopez PSE-EEkoa lehendakariarako babesten zuen plataforma bat bultzatu zuen.

**Azkarate, Miren** (Donostia, 1955): Hizkuntzalaria eta politikaria. Euskal Herriko Unibertsitatean, Filologiako katedraduna da eta hainbat ardura-postu izan ditu. 1992an, euskaltzain oso aukeratu zuten. 2000 eta 2001 artean, EiTbko hizkuntza-aholkularia izan zen. 2001-2009 aldian, Kultura sailburua izan zen.

**Azpillaga, Patxi** (Azpeitia, 1959): Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Komunikazio eta Publizitate arloan.

**Barambones, Josu** (Gateiz, 1963): Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Filologia Ingeles eta Alemanean. Euskarazko bikoizketan, itzultzaile-egokitzzaile aritu da inoiz.

**Basterretxea, Jose Inazio** (Galdakao, 1959): Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Komunikazio eta Publizitate arloan. 2009-2013 legegintzaldian, EiTbren Administrazio Kontseiluko kide izan zen Aralar alderdiaren ordezkari gisa.

**Baztarrika, Patxi** (Ataun, 1958): Hizkuntzalaria eta politikaria. 2005etik 2009ra eta 2012tik egun arte, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea izan da.

**Begiristain, Xanti** (Etxarri, 1958): Idazlea eta irakaslea.

**Beloki, Julián** (Legazpi, 1956): Geografia eta Historian lizentziatua. Donostiako Herri Irratitik, Euskadi Irratira igaro zen 1982an. 1991n, Euskadi Irratiaren zuzendari izendatu zuten. 1999an, EiTb Irrati Taldearen zuzendari, 2009 arte.

**Beobide, Iñaki** (Zumaia, 1934): 1960ko eta 1970eko hamarkadetan, euskara eta euskal kultura sustatzeko ekimen ugari eraman zituen aurrera eta, 1980ko hamarkadaren hasieran, ETBren proiektuan hartu zuen parte. Harrezkero, jubilatuta arte, ETBn egin zuen lan, Produkzio Sailean.

**Cantalapiedra, María José**: Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Komunikazio eta Publizitate arloan.

**Del Teso, Begoña** (Donostia, 1955): Kazetaria, besteak beste, zinema- eta telebista-kritikan jarduten duena.

**Deogracias, Marijo** (Antzuola, 1973): Kazetaria. EiTbN hainbat saiotan ibili da.

**Díaz Noci, Javier** (Gasteiz, 1964): Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Komunikazio eta Publizitate arloan.

**Díez Unzueta, José Ramón** (Durango, 1950): Kazetaria. 1982an, Radio Euskadin hasi zen. 1983an, Radio Vitoriaren zuzendari izendatu zuten, eta 2009ra arte bete du kargua.

**Díez Urrestarazu, Rosa** (Donostia, 1963): Kazetaria. ETBn, 1982an hasi zen. 2009-2010 aldian, Euskadi Irratiaren zuzendari izendatu zuten. 2010-2011 aldian, ETB1eko Eduki zuzendaria izan zen. 2011n, Eusko Jaurlaritzako Kultur Saileko komunikazio zuzendaria izan zen.

**Dolosor, Frank** (Senpere, 1977): Senpertar kazetaria. Ipar Euskal Herriko berri ematen du EiTbN hedabideetan, bai eta beste egunkari eta irrati batzuetan ere.

**Eguskiza, Jesús "Eguzki"** (Arrazola, 1946): Filosofia eta Letretan lizentziatua. Bilboko Herri Irratian hasi zen komunikazioan, eta bikoizketan, Xoxoa grabazio-estudioan

1982an. 1985ean, Edertrack estudioa sortu zuen, K200tik alde egindako kide batzuekin. Euskarazko bikoizketan, erreferentziazko bikoizlea eta itzultzaile-egokitzailea izan da.

**Elosegi, Olatz:** Kazetaria eta *Zabalikeko* erredakzio-burua.

**Epaltza, Aingeru** (Iruñea, 1960): Kazetaria, idazlea, eta Nafarroako Gobernuko itzultzailea.

**Esnal, Pello** (Andoain, 1950): Pedagogian lizentziatua, HABEko arduradun didaktikoa izan zen jubilatuta arte. 1991n, euskaltzain urgazle izendatu zuten.

**Etxarri, Tonia:** Correo/Vocento taldeari lotutako kazetaria. 1990ko urteetatik, ETB2ko hainbat debate-saiotan hartzen du parte. 2010-2013 aldirian, beraren senarra, Juan Carlos Viloria kazetaria, ETBko Politika arloburua izan zen, Vocentoko talde editoriala utzita.

**Etxebarria, Igone** (Bedia, 1962): Filologoa. 1988an hasi zen ETBn, saio bikoiztuen kalitate-kontrola egiten. 1991n, oposizioak gainditu, eta ETBko Albistegi Sailera igaro zen zuzentzaile moduan. 1993an, EiTbko zuzendari nagusiak EiTbko Euskara Saileko buru izendatu zuen. 1999an, ETBko erredakziora itzuli eta, 2002an, Labayru Fundazioan hasi zen teknikari moduan. 1996an, euskaltzain urgazle izendatu zuten.

**Etxeberria, Hasier** (Elgoibar, 1957): Idazle eta kazetaria. 1984an hasi zen ETBn, kultur saioetan lehenengo, eta albistegietan geroago. Hainbat programa aurkeztu eta zuzendu ditu; "Sautrela", bere kutuna.

**Etxegoien, Fermin** (Oñati, 1966): Idazle eta kazetaria. ETB1en, era askotako saioetan aritu da gidoilari eta, 2005etik 2013ra, Euskadi Irratian ere jardun du. *Euskaldunon Egunkarian* eta *Berrian* telebista-kritikako zutabea idatzi zuen hainbat urtez.

**Etxezarreta, Ramón** (Urrestilla, 1964): Idazle, itzultzaile eta politikaria. 2009 eta 2010 artean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea izan zen. 1984-1987 eta 1987-1988 aldirietan, EiTbren Administrazio Kontseiluko kide izan zen Euskadiko Ezkerraren ordezkari gisa.

**Euzkitze** [Xabier Peritz] (Azpeitia, 1966): Bertsolari eta komunikatzailea. 1988tik, pilota-emankizunetako esataria da ETB1en eta, horrez gainera, hainbeste saio aurkeztu ditu, hala nola, *Gaur Egun*, *Sorginen laratza*, eta *Euskal Herri zuzenean*.

**Fernández, Iñigo** (Orio, 1974): Publizista, eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Komunikazio eta Publizitate arloan. Hainbat urtez, EiTbren promozio-kanpainen kontuaren arduraduna izan zen Publis agentzian.

**Fraga, Monika** (1971): Psikologian lizentziatua. 1996tik dihardu ETBn gaztelaniazko albistegian gorrentzako azpidatziak prestatzen, Igon enpresarekin hasieran eta Multisignes enpresarekin 2015etik.

**Garai, Rebeka** (1968): Soziologoa. 1997an hasi zen EiTbN, eta Ikerketa eta Audientzia burua da.

**Garmendia, M. Karmen** (Ormaiztegi, 1947): Irakaslea, kazetaria eta politikaria. 1985 eta 1994 artean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkaria izan zen. 1995-2001 aldian, Kultura sailburua.

**Garzia, Joxerra** (Legazpi, 1953): Kazetaria eta idazlea. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Komunikazio eta Publizitate arloan. ETBn, *Hitzetik Hortzera* saioaren sortzailea izan zen, eta beraren aurkezlea eta zuzendaria 1988 eta 1993 artean.

**Garzia, Juan** (Legazpi, 1955): Idazlea, euskaralaria eta itzultzailea. Lehen gidoilari-taldean aritu zen *Goenkale* telesailean. 2013an, euskaltzain urgazle izendatu zuten eta, urte berean, puntuazioari buruzko mintegia eman zuen EiTbN.

**Gaztañazpi, Ibon** (Orio, 1977): Arraunlaria, arrauneko entrenatzailea eta kazetaria. 2008an hasi zen ETBn, albistegietan, eta hainbat programatan aritu da harrezkero, besteak beste, estropaden emanaldietan esatari moduan

**Goikoetxea, Iratxe** (Bilbo, 1968): Hizkuntzalaria. 1993an hasi zen Euskal Telebistako Euskara Sailean.

**González, Ricardo:** K2000 produkzio- eta bikoizketa-estudioaren gerentea 1996tik.

**Guevara, Emilio** (Gasteiz, 1941): Abokatu eta politikaria. 1979 eta 1983 artean, Arabako ahaldun nagusia izan zen EAJtik. Hainbat aldiz izan da parlamentari Eusko Legebiltzarrean, lehenengo EAJtik, eta 2005-2006 aldian PSE-EEtik, 1999an bere lehen alderditik bereizteko prozesua hasi ondoren.

**Gurrutxaga, Juan Mari:** Ekonomialaria. Edertrack eta Mixer bikoizketa-estudioetako gerentea. 2010 eta 2016 artean, EIKEN klusterreko presidentea izan zen.

**Gutiérrez Paz, Miren Arantza:** Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean Komunikazio eta Publizitate arloan.

**Haritschelhar, Jean** (Baigorri, 1923 - Biarritz, 2013): Literatura-ikertzailea. 1962-1986 aldian, Euskal Hizkuntza eta Literaturako katedra izan zuen Bordeleko Unibertsitatean. 1962an, euskaltzain oso aukeratu zuten eta, 1989tik 2004ra, euskaltzainburua izan zen.

**Hidalgo, Bittor** (Ordizia, 1956): Filologoa, idazlea eta euskara-irakaslea.

**Higuera, Jesús** (1952): Ingeniari teknikoa. ETBn, 1985ean hasi zen, eta Programa Erosketako burua da.

**Ibáñez Serna, José Luis:** Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean Komunikazio eta Publizitate arloan. 1995ean, ETBren sorrerari eta garapenari buruzko gaineko tesia defendatu zuen.

**Ibarbia, Martin** (Beasain, 1943): Ikus-entzunezko produktorea eta kultura-sustatzailea. 1982tik 1983ra, ETBko Programazio zuzendari gisa jardun zuen, hasieran Jaurlaritzako Kultura Saitetik. 1999tik 2005era, Euskadiko Filmategiko presidentea izan zen.

**Ibarretxe, Juan José** (Laudio, 1957): Politikaria eta Enpresa-zientzietan lizentziatua. Hainbat kargu publiko bete ditu EAJtik. 1999-2009 aldian, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria izan zen.

**Iglesias, Leyre** (Bilbo, 1985): Kazetaria. EiTBko Zuzendaritza Nagusia Maite Iturbek hartu zuen aldian, telebista-kritikaren ardura izan zuen *El Mundo* egunkarian.

**Iriondo, Jose Mari** (Urrestilla, 1938): Kazetaria, eta euskararen eta euskal kulturaren sustatzailea. Funtsezko lana egin zuen euskarak ikus-entzunezkoen esparrua irabaztean; 1960ko urteetatik, Loiolako Herri Irratian; 1970ko hamarkadaren bigarren erdian, Televisión Española, eta 1983tik aurrera, Euskadi Irratian eta Euskal Telebistan. Jubilatuta arte, hainbat ardura-postu bete zituen EiTBn.

**Irizar, Mikel** (Ormaiztegi, 1954): Enpresa Zientziak ikasi zituen, eta lana Kutxan egin du, berriki ardura politikoak hartu dituen arte. Eragile gisa, euskarazko komunikazioa bultzatu du Arrasaten eta Debagoiena eskualdean, Arrasate Komunikabideen presidente eta Goienaren zuzendari nagusi izateraino. 2015ean, Hizkuntza Berdintasunerako zuzendari nagusi izendatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundian.

**Iturbe, Maite** (1959): Enpresa-zientzietan lizentziatua. 1984an hasi zen ETBn, Produkzio Sailean. 1986an, Programa Produkzioko buru izendatu zuten; 1989an, Produkzio koordinatzaile; 1991n, Produkzio zuzendari. 2013an, EiTBko zuzendari nagusi izendatu zuten.

**Jones, Elin Haf Gruffydd**: Hizkuntzalaria, Aberystwytheko Unibertsitateko irakaslea Hedabideen eta Sormen Industrien arloan, eta Galesko Hizkuntza eta Kultura Sailaren zuzendaria. Mercator hedabide, hizkuntza eta kulturen institutuaren zuzendaria 1989tik.

**Kalzakorta, Jabier** (Markina-Xemein, 1961): Filologoa eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea. 1988 eta 1989 artean, bikoizketen kalitate-kontrola egin zuen ETBn. 1996an, euskaltzain urgazle izendatu zuten; 2013an, euskaltzain oso aukeratu.

**Kintana, Xabier** (Bilbo, 1946): Euskaralaria, idazlea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle jubilatua. 1966an, euskaltzain urgazle izendatu zuten; 1993an, euskaltzain oso aukeratu.

**Knorr, Henrike** (Tarragona [Katalunia], 1947 - Gasteiz, 2008): Hizkuntzalaria eta idazlea. UPV/EHUko Euskal Filologiako katedraduna izan zen; 1977tik, euskaltzain oso eta, 1999-2002 aldian, EiTbren Administrazio Kontseiluko kide Euskaltzaindiaren ordezkari gisa.

**Labaien, Ramón** (Tolosa, 1928 - Donostia, 2013): Politikaria eta enpresaria. Hainbat kargu izan zituen EAJtik eta, 1980-1983 aldian, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu. Agintaldi horretan antolatu zen EiTb.

**Lakunza, Rosana**: Kazetaria. EiTbko Zuzendaritza Nagusia Alberto Suriok bete zuen aldian, telebista-kritikaren ardura izan zuen *Deia* egunkarian.

**Landa, Josu** (Altza, 1960): Filologoa, idazlea eta editorea. 1980tik 1986ra *Argiako* erredakzioan jardun zuen, eta aldizkariak *Zeruko Argiatik Argiara* egin zuen bihurketaren sustatzaileetako bat izan zen.

**Lejarza, Mikel** (Bilbo, 1956): Geografia eta Historian lizentziatua, eta Komunikazioan doktoratua. 1983an, Radio Euskadiren zuzendari izendatu zuten eta, 1987an, Euskal Telebistara igaro zen, Programa zuzendari gisa. ETBn, Programa eta Programazio zuzendari izatera heldu zen eta, 1995ean, Telecincora igaro zen.

**Lertxundi, Anjel** (Orio, 1948): Filosofia eta Letretan lizentziatua eta idazlea. Zineman egin zituen lehendabiziko urratsak ikus-entzunezkoetan, bere eleberrietako batzuk pantaila handirako egokitu zirenean. ETBn, *Goenkale*-ko eta beste telesail batzuetako gidoilari-burua izan da Pausoka produkzio-etxearekin. 1983an, euskaltzain urgazle izendatu zuten.

**Lizartza, Ritxi** (Donostia, 1965): Itzultzailea. *Goenkale*-ren lehen hamar denboraldietan, gidaien zuzentzaile aritu zen.

**López, Patxi** (Barakaldo, 1959): Politikaria. Eusko Legebiltzarreko eta Espainiako Kongresuko diputatua izan da PSOEtik. Eusko Jaurlaritzako lehendakaria izan zen 2009-2012 artean.



**Manias, Miren:** Ikus-entzunezko Komunikazioan doktore UPV/EHUtik. Hizkuntza gutxituen ikus-entzunezko egitura ikertzen segitu du doktoretzaren ostean, lehenik, 2016an, Glasgowko Unibertsitatean eta, 2017tik, Edinburgoko Unibertsitatean. Urte beretik, telebista-kritika idazten du Berrian.

**Marcos, Daniel** (1962): Filosofian lizentziatua. 1989an hasi zen ETBn eta, 1992tik, Kanpo Produkzioko Sailean dihardu.

**Martin, Rosa María:** Kazetaria eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Komunikazio eta Publizitate arloan.

**Mendiguren Bereziartu, Xabier** (Ezkio, 1945): Idazlea eta itzultzailea. 1980-1982 aldian, Irrati eta Telebista Eskolan, hizkuntza-prestakuntzaren ardura izan zuen eta, eskola horren barruan, 1981ean, FIBIZE sortu eta zuzendu zuen. 1975ean, euskaltzain urgazle izendatu zuten.

**Menika, Igone** (Bilbo, 1968): Hizkuntzalaria. 1993an hasi zen ETBko Euskara Sailean.

**Murua, Gabino:** Eusko Jaurlaritzako euskara-teknikaria. 1984 eta 1985 artean, ETBko euskara-arduraduna izan zen.

**Oñederra, Miren Lourdes** (Donostia, 1958): Hizkuntzalaria eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Filologia arloan. 2001-2008 epealdian EiTBko hizkuntza-aholkularia izan zen. 1996an, euskaltzain urgazle izendatu zuten; 2007an, euskaltzain oso aukeratu.

**Ortuzar, Andoni** (Abanto-Zierbena, 1962): Informazio Zientzietan lizentziatua. Jaurlaritzan aritu ondoren, 1999-2008 aldian, EiTBko zuzendari nagusia izan zen. EiTB utzi zuenetik, kargu organikoak ditu EAJn.

**Osoro, Jasone** (Elgoibar, 1971): Kazetaria eta idazlea. ETBn, hainbat saiotan hartu du parte aurkezle, gidoilari zein solaskide gisa.

**Otaegi, Lourdes** (Beizama, 1959): Hizkuntzalaria eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. 1985tik 1986ra, ETBko hizkuntza-aholkularia izan zen. 2003an, euskaltzain urgazle izendatu zuten.

**Otamendi, Jaime** (Elduain, 1966): Kazetaria. Euskadi Irratian egin zen ezagun eta, Estatu Batuetan ikastaldi bat eginda, ETBko Albistegi zuzendaria izan zen 1999tik 2009ra. 2013an itzuli zen ETBra, eta hainbat saio aurkeztu eta zuzendu ditu, 2015ean Donostia Kulturara joan arte.

**Otermin, Jose Mari** (Amezketeta, 1948): Kazetaria. 1983an hasi zen EiTBN, eta hainbat ardura izan ditu, besteak beste, Euskadi Irratiaren zuzendaria, ETBko Programazio zuzendariordea. 2013an jubilatua izan zen.

**Oyharçabal, Beñat** (Paris [Frantzia], 1949): Euskal Ikasketetan eta Hizkuntzalaritzan doktorea, Bordeleko Unibertsitateko irakaslea eta CNRSko Ikerketa burua. 1983an, euskaltzain urgazle izendatu zuten eta, 1990ean, euskaltzain oso aukeratu.

**Pagola, Rosa Miren** (Iruñea, 1949): Hizkuntzalaria, politikaria eta Deustuko Unibertsitateko katedraduna. 1991n, euskaltzain urgazle izendatu zuten. 2013-2016 aldian, EiTBNren Administrazio Kontseiluko kidea izan da Eusko Ikaskuntzaren ordezkari gisa.

**Pastor, José María** (Barakaldo, 1961): Kazetaria eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Komunikazio eta Publizitate arloan.

**Pavón, Amaia** (Arrasate, 1984): Mondragon Unibertsitateko irakaslea, ikus-entzunezko komunikazioan espezializatua.

**Petirena, Patxi** (Sunbilla, 1963): Itzultzaile eta zuzentzailea. *Euskaldunon Egunkarian*, EHU eta Elhuyarren aritu da, besteak beste, eginkizun horietan, eta *Euskaldunon Egunkariaren* eta EIMAREN estilo-liburuen prestakuntzan hartu du parte.

**Rotaetxe, Karmele** (Bilbo, 1932 - Bilbo, 2013): Hizkuntzalaria; Euskal Herriko eta Deustuko unibertsitateetan jardun zuen irakasle. 1979an, euskaltzain urgazle izendatu zuten eta, 2004an, euskaltzain ohorezko.

**Salaburu, Pello** (Arizkun, 1951): idazlea, euskaralaria eta Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna. 1996 eta 2001 artean, EHUko errektorea izan zen eta, aurretik eta ondoren, hainbeste ardura-postu bete ditu erakundean; asko, euskararekin lotuak. 1983an, euskaltzain urgazle izendatu zuten; 1984an, euskaltzain oso aukeratu.

**Sánchez, Álvaro** (1960): K2000ko bikoizlea eta bikoizketa-zuzendaria 1986tik.

**Santos, Antonio**: Kazetaria. EiTbko Zuzendaritza Nagusia Maite Iturbek hartu zuen aldian, telebista-kritikaren ardura izan zuen *El Correo* egunkarian.

**Sarasola, Ibon** (Donostia, 1946): Idazlea, hizkuntzalaria eta Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna. Ikasketaz ingeniaria izanda, Mitxelenaren laguntzailea izan zen *Orotariko Euskal Hiztegiaren* prestakuntzan eta, haren heriotzaren ondoren, berak hartu zuen zuzendaritza. 1966an, euskaltzain urgazle izendatu zuten eta, 1988an, euskaltzain oso aukeratu.

**Sarasola, Pello** (Hernani, 1964 - Sopela, 2015): Soziologoa. 1989an hasi zen EiTbn, audientzia eta ikerketako teknikari moduan. 1995ean, ETBko Programazio zuzendari izendatu zuten; 1999an, Programa eta Programazio zuzendari. 2005ean, Antena3ra joan zen, Antena zuzendari postua betetzera. 2011n, ETBra itzuli, eta Eduki zuzendari postua bete zuen. 2013an, ETBren zuzendari izendatu zuten.

**Sarasua, Jon** (Aretxabaleta, 1966): Bertsolaria, kazetaria eta Mondragon Unibertsitateko irakaslea. 1996an, doktoretza-tesia defendatu zuen, gaitzak euskarazko kazetaritzako hizkera zeukana.

**Serrano, Ilaski** (Bermeo, 1976): Kazetaria. Euskadi Gaztean egin zituen lehen urratsak komunikatzaile modura eta, telebistan, 1999an hasi zen, *KTM* saioan. Harrezkero, hainbat programatan hartu du parte; aipagarrienak, *Mihiluze* eta *Ahoz aho*.

**Surio, Alberto** (Donostia, 1963): Kazetaria. 2009-2013 aldian, EiTbko zuzendari nagusia izan zen. Ondoren, *Diario Vasco* itzuli zen.

**Torrealdai, Joan Mari** (Forua, 1942): Idazlea, kazetaria eta soziologoa. 1975ean, euskaltzain urgazle izendatu zuten eta, 2007an, euskaltzain oso aukeratu zuten. 1985ean, doktoretza-tesia defendatu zuen, gaitzat euskal telebistaren sorrera zeukana.

**Txiliku** [Jose Luis Aranguren] (Zarautz, 1961): Itzultzaile-egokitzaila. Itzulan enpresatik, K2000rentzat eta beste bikoizketa-estudio batzuentzat egin du lan eta, 2006tik 2015era, platoko euskara-arduradun aritu da "Goenkale" telesailean.

**Urkizu, Urtzi** (Lezo, 1975): Kazetaria. Telebistako berrien atala darama *Berrian*.

**Urrutia, Andres** (Bilbo, 1954): Notarioa eta idazlea. 1997an, euskaltzain oso aukeratu zuten eta, 2005ean, euskaltzainburu.

**Urrutia, Santi**: Soziologoa. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Komunikazio eta Publizitate arloan.

**Xamardo, Nicolas**: Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Komunikazio eta Publizitate arloan.

**Zabaleta, Iñaki** (Leitza, 1952): Idazlea, kazetaria eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Komunikazio eta Publizitate arloan.

**Zabalondo, Beatriz** (Elgeta, 1961): Itzultzailea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Komunikazio eta Publizitate Sailean. 1997 eta 2004 artean, K2000ko Euskara arduraduna izan zen bikoizketa-arloan. *Euskaldunon Egunkaria*-ren eta *Berria*-ren estilo-liburuen erredakzioan hartu du parte.

**Zalbidea, Begoña** (Bilbo, 1954): Kazetaria eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Komunikazio eta Publizitate arloan.

**Zallo, Ramón** (Gernika, 1948): Zuzenbidean lizentziatua eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Ekonomia eta Komunikazio arloetan. 1999-2002 aldian, EiTBren Administrazio Kontseiluko kidea izan zen ELA sindikatuaren ordezkari gisa.

**Zarraoa, Iñaki** (1947): Politikaria. 1991 eta 1999 arteko aldiari Euskal Irrati Telebistaren zuzendari nagusia izan zen.

**Zuazo, Koldo** (Eibar, 1956): idazlea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea Dialektologia eta Soziolinguistika arloetan.

**Zuberogoitia, Aitor** (Etxebarria, 1972): Idazlea eta Mondragon Unibertsitateko irakaslea Komunikazio arloan.

**Zubimendi, Joxe Ramon** (Usurbil, 1952): Irakasle, itzultzaile eta idazlea. Jagonet zerbitzuaren arduraduna izan da sortu zenetik. 1996an, euskaltzain urgazle izendatu zuten.

**Zubizarreta, Iñaki** (Azpeitia, 1947): Linguistika Erromanikoan lizentziatua; kazetaria, idazlea, itzultzailea eta euskara-sustatzailea. 1983an hasi zen bikoizketan, Irusoineko euskara-arduradun moduan. 2004an, Mixerrera igaro zen, jubilatuta arte.

**Zulueta, Ana** (Getxo, 1962): Filosofian lizentziatua. 1990ean hasi zen ETBn eta, 1992tik, Euskara Sailean dihardu.

**Zupiria, Bingen** (Hernani, 1961): Filosofia eta Letretan lizentziatua. 1983-1989 aldian, ETBren eguneroko albistegiaren editorea izan zen, eta *Gaur Egun*-en aurkezlea. 1989-1999 aldian, Lehendakarietzako Komunikazio zuzendaria. 1999-2009 aldian, ETBren zuzendaria. 2012tik 2016ra, *Deia*-ren zuzendaria. 2016an, lehendakariak Kultura sailburu izendatu zuen.

## IV. ERANSKINA: ETBren EUSKARAZKO SAIOAK

*Zerrenda honetan, testuan aipatuta dauden ETBren euskarazko saio guztiak bildu ditugu. Lehen emanaldiaren urtea(k) parentesi barruan adierazi ondoren, programa bakoitzaren deskribapen labur bat eskaini da eta, amaieran, produkzio-etxea ageri da, letra etzanez. Datuak ETBren artxiboan bildu dira.*

**3txulo** (2016 - egun): ETB1eko eta ETB3ko haur-programazioa biltzen duen kutxa-saioa. 2015eko irailetik 2016ko urtarrilera, *Sorgintxulo* izena eman zitzaion. Pertsona errealek antzeztutako pertsonaiak agertzen dira (2ttor, 4ra eta Xbel, nagusiki), Gorritxo izeneko galtzagorri birtual baten ondoan. Haurrei pertsonaia horien abenturak, tarte didaktikoak, zuzeneko lehiaketak eta beste gauza asko eskaintzen dizkiete. *Baleuko*

**Abbey Road zuzenean** [Live from Abbey Road] (2009 - 2011). Pop eta rock izarren estudioko saioak, zuzeneko publikorik gabeak. Izarrok esaten zituzten hitz apurrak, bikoiztu beharrean, euskaraz azpidatzita eskaintzen ziren. *Michael Gleason*

**Ahoz aho** (2016 - egun): Bazkalosteko magazina. *Puxtarri*

**Altzaporru** (2002): Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen ikuskizuna. *Puxtarri*

**Axut** (1998 - 1999). Kultura orokorreko galderetan oinarritzen zen lehiaketa, ETB2n 1994tik arrakasta itzela zuen *El Rompecabezotas* programaren euskarazko bertsio modura sortu zena. *Pausoka*

**Bagdad cafe** (1991): Izen bereko filmean oinarrituriko umorezko telesaila. *New World Pictures*

**Barre Busa** (2000 - 2001): Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen ikuskizuna.

**Basetxea** (2002 - 2008): Elkarbizitza-lehiaketa, *Big brother*-en ildoari jarraitzen diona. *Globo Media*

**Bai horixe** (1986 - 1990): Ikus-entzunezko euskara-ikastaroa. *ETB*

**Balinda** (1993 - 1994): Hizkuntza eta umorea ardatz zituen lehiaketa, Andoni Egañak aurkeztua, Miren Azkarate eta Kike Amonarriz hizkuntza-adituen laguntzarekin. *Ikuskin*

**Bakarrik** (1998 - 2009): Gauerdi osteko programa, gidariak ikusleekin telefonoz izaten zituen solasaldiekin osatzen zena. Irratietan garai hartan moda ziren saioetan inspiratuta zegoen eta, haietan bezala, gidariak egiten zuen errealizazioa ere. *ETB*

**Barnetegia** (2004): Elkarbizitza-lehiaketa, *Basetxea*-ren ildoari jarraitzen ziona. Gertalekutzat euskara ikasteko barnetegi bat zuen. *3Koma93* eta *Mediapro*

**Beakmanen mundua** [Beakman's world] (1993 - 1994): Zientzialari xeble baten laborategian girotutako zientzia-saioa, gaztetxoei zuzendua. *Columbia*

**Benta Berri** (1997 - 1998): Turismo-baserri batean giroturiko umorezko telesaila. *Pausoka*

**Bertatik Bertara** (1995 - 2005): Informazio lokala eta soziala lantzen zuen magazina, *Euskadi zuzenean* albistegi lokalaren eboluzioz sortua. *ETB* eta *K2000* (2005)

**Betizu** (2001 - 2011): Haurrentzako kutxa-programa, animaziozko betizu batzuek gidatzen zutena. Kutxan eskaintzen ziren programez gainera, *Betizu* markak beste hainbat sortu zituen, hala nola, *Betizu Arena* eta *Betizuzenean*. *Baleuko*

**Betizu Arena** (2000 - 2001): Umeentzako ginkana estiloko lehiaketa. *Baleuko*

**Betishow** (2001 - 2003): Haurrentzako talentu-lehiaketa. *Baleuko*

**Betizuzenean** (2004): Umeen zuzeneko telefono-deietan oinarritutako saioa. *Baleuko*

**Bi eta bat** (1991 - 1993 eta 2012): Donostian elkarrekin bizi diren hiru pisukideren gorabeherak kontatzen dituen umorezko telesaila. *Orio Produkzioak*

**Bikote zelebrea** [The odd couple] (1990): Jack Lemmon eta Walter Matthau protagonista dituen komediazko filma. *Paramount Pictures*

**Bost txakur** (2007 - 2008): Txakur abandonatuak jabe berriak aurkitu eta bizitza berrira zelan egokitzen ziren erakusten zuen dokudrama. *3Koma93*

**Bosteko familia** [Party of five] (1996 - 2000): Umezurtz geratu diren bost neba-arrebaren gorabeherak. *Columbia*

**Brinkola** (2009): *Wazemank* sagako telesaila, esperpentoan oinarritua. *On Time*

**Buster Keaton** (1983 - 1986): Zinema komikoa. *Rete Europa B. V.*

**Burp** (2008 - 2010): Euskal sortzaile *underground*-ei buruzko erreportajeak eskaintzen zituen saio lotsabakoa, Jokin Etcheverria donibandarrak aurkeztua. *My Jok World*

**Cagney eta Lacey** [Cagney and Lacey ] (1991): Polizi telesaila, emakumezko detektibe bi protagonista dituena. *Orion Pictures*

**Chuck** (2011 eta 2014): Zientzia-fikzioko telesaila, protagonistatzat informatika-denda bateko saltzailea duena. *Warner Bros.*

**Dallas** (1983 - 1984): Ewing familia texastarraren petrolio-negoioak kontatzen dituen telesaila. *Lorimar*

**Don Don Kikilikon** (1984 - 1987): Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen ikuskizuna.

**Dr. Who** (2008 - 2010): Telefono-kabina batean denboran zehar bidaiatzen duen doktore izengabe baten abenturei buruzko telesaila. *BBC*

**Dragoi Bola** [Dragon Ball] (1989 - 1992): animazio-serie japoniarra, borroka-arteak, fantasia eta umorea nahasten dituena. Atzetik saga luzea etorri da: *Dragoi Bola Z*, *Dragoi Bola GT*, *Dragoi Bola Kai* eta hainbat banakako atal berezi. *Toei Animation*



**Ederra eta piztia** [Beauty and the beast] (1990): Akzio-telesaila, emakumezko abokatu bat eta ahalmen harrigarriak dituen gizonezko bat protagonista dituena. *Republic Pictures Corporation*

**Egun bete** (1992 - 1994): Profesional baten eginkizunen 24 orduko jarraipena eskaintzen zuen erreportajea. *ETB*

**Egun on Euskadi** (2013 - egun): Goizeko lehen orduko albistegi orokorra, aktualitateari buruzko elkarrizketekin eta tertulia batekin osatua. Saioa ETB2n hasi zen 2009an, gaztelaniaz, eta zuzendaritza berriak ETB1era eta euskarara aldatu zuen. *ETB*

**Elkartasunaren bideak** (1996 - 2007): Erreportaje-saioa, Eusko Jaurlaritzak Afrika, Asia eta Amerikako herrialdeen garapenera zuzendutako dirua zelan erabiltzen den erakusten zuena (60 min.). *Joserra Producciones*

**Ertzainak** (1999): Ertzain-talde baten gorabeheretan oinarrituriko telesaila, gertaleku nagusizat Bergarako ertzain-etxea daukana. *Tentazioak*

**Eskamak kentzen** (2016): Mutrikun eta bertako kontserba-lantegi batean giroturiko telesaila, herrira itzuli berri den negozio-emakume bat protagonistatzat duena. *K2000*

**Euskadi zuzenean** (1994 - 1995): Albistegi lokala, ETB2n denboraldi bat lehenago hasitako *Euskadi directo*-ren euskarazko bertsioa. *ETB*

**Euskal Herria zuzenean** (2013 - 2015): Informazio lokalari eskainitako albistegia, albistegi orokorraren aurretik sartzzen zena. *Media Producciones Time*

**Euskaraokea** (1996 - 1999): Umeentzako karaoke ibiltaria. *Baleuko*

**Finlandia** (2011): *Wazemank* sagako gau-saioa (*night show*). *Gorringo*

**Firin Faran** (1994 - 1996 / 2001 - 2009): Telebistan euskaraz egin zen lehen debate-eta analisi-saioa, Estepan Aldamiz-Etxebarriak sortua, zuzendua eta aurkeztua. *ETB*

**Funtzioa** (1989 - 1992): Xabier Otaegik eta Piter Ansorenak gidatutako saioa, oholtzako ikuskizunak eta esketxak tartekatzen zituen.

**Gaur Egun** (1983? - egun): Albistegi orokorra, eguerdiko eta iluntzeko edizioak dituen. ETBren hasieran, asteburuko edizioari *Jai Egun* zeritzon. *ETB*

**Gerra Zibila Euskadin** (1996 - 1997): Espainiako Gerra Zibilak Euskadin izan zituen episodiei buruzko dokumental-saila. *Baleuko*

**Go!azen** (2009 - 2018): Gaztetxoentzako telesail musikala. Film gisa estreinatu zen 2008an eta, 2009an, 12 kapitulu atera ziren material osagarriarekin. Seriearen inguruan telebista-fenomeno bat erne da: antzezlanak, talent-showak, berariazko appa. Lehen emanaldia ETB1en eskaintzen da, eta berremanaldiak, ETB3n. *Pausoka*

**Goenkale** (1994 - 2015): Fizkiozko itsas herri batean giroturiko telenobela, lehen urteetan eguneroko maiztasuna eta azkenean asterokoa izan zuena. Guztira 3.708 kapitulu ekoitzi ziren. *Pausoka*

**Good Morning Kalimantan** (2013): Borneoko basabizitza mehatxatua salbatzeko ahaleginei buruzko dokumental-saila. *Mike Birkhead Associates*

**Gran Torino** (2012): Clint Eastwood zuzendari eta protagonista duen filma, narrazioaren hari modura Ford Torino markako auto bat darabilena. *Warner Bros.*

**Gure kasa** (2017-egun): Gazteentzako saioa, *late night show* baten formatuari jarraitzen diona. *New Media Euskadi* eta *Orio Produkzioak*

**Gure lanbide zaharrak** (1996 - 1999): Euskal Herriko langintza tradizionalen buruzko dokumental-saila. *Videodifusión*

**Gu ta Gutarrak** (2014 - 2015): Gazteentzako errealitate-saioa, parte-hartzaileen arteko harremanetan eta elkarbizitzan sortzen diren gorabeheretan oinarritua. *New Media Euskadi* eta *Orio Produkzioak*

**Gutuberrak** (2018): Etxegabetzearen mehatxupearan bizi den familia batean oinarrituriko webseriea. *Erronka Berriak*

**Hamaika korapilo** (1998 - 1999): Solas-saioa, Oprah Winfreyk egiten duenaren estilokoa. *Gestmusic*

**Hasiberriak** (2001 - 2002): Nerabeentzako fikziozko telesaila (135 kapitulu, 25 min.). *Goenkale*-ren spin-off bat izan zen. *Pausoka*

**Hau da A. U.** (1990 - 1991): Umorezko telesaila, artista-agentzia batean inguruan girotua. *Ikuskin*

**Hemen eta munduan** (1988 - 1991): Euskal Herriko eta nazioarteko aktualitatea jorrazteko erreportajeak biltzen zituen asteroko informazio-saioa. *ETB*

**Hitzetik Hortzera** (1988 - egun): Bertsolaritzari buruzko magazina. Hainbat formatu izan ditu historian zehar. *ETB* eta *Bertsozale Elkarte*a

**Ikusgela** (1997 - 2006): Gaztetxoentzako magazin hezigarria. *Pausoka*

**Iparraldea** (1998 - 1999): Ipar Euskal Herriko gizarteari, kulturari eta ekonomiari buruzko saioa. *Eusko Jaurlaritz*a eta *Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia*

**Irrikitown** (2012 - 2014): Umorezko esketxez osaturiko saioa. *Pausoka*

**Itxuroso** (2014): Protagonistari *look*-aldaketa egiten zion programa. *Bainet*

**Jaun ta jabe** (1996 - 1998): Umorezko telesaila, telebistan lortutako famari esker lehendakari hautatu duten sukaldari bat protagonistatzat duena. *ETB*

**Kerman mintzalagun bila** (2010 - 2011): Euskara ikasten ari diren helduentzako hizkuntza-klaseak, umorezko telesailen formatuan. *3Koma93*

**Kirolez kirol** (1983 - egun): Programazio-premien araberako formatua hartzen duen kirol-saioa. *Euskal Telebista*

**Klasikoak jatorriz** (2000 - 2001): Programa zinematografikoa, kultuko film klasikoak jatorrizko bertsioan eta euskaraz azpidatzita eskaintzen zituena.

**Kontuzatsuak** (2012): Anjel Alkain eta konpainiaren umorezko dokudrama, *Wazemank* sagakoa. *On Time*

**KTM / Kate Mundiala** (1999 - 2000): Gaztetxoentzako magazina. *K2000*

**Lehenengo musuak** [Premiers baisers] (1992 - 1994): Frantziako lizeo batean girotutako telesaila. *A. B. Productions*

**Madison** (1997 eta 2000): Vancouverren bizi diren gazte batzuen gorabeherak.

**Martin** (2003 - 2009): Umorezko telesaila, Martin deritzon kirol-esatari baten eta beraren familiaren gorabeherak kontatzen zituena. *Tentazioa*.

**Martina** (2008 - 2009): Martina zeritzon neska gaztearen gogoetak jasotzen zituen saio onirikoa. *Orio Produkzioak*.

**Merlí** (2018): Bigarren hezkuntzako institutu batean giroturiko teleserie katalana, Merlí izeneko filosofia irakaslea protagonistatzat duena. *Veranda TV*

**Mihiluze** (2006 - 2013): Eguneroko lehiaketa, hitzetan eta hizkuntzaren bitxikerietan oinarritua. *Orio Produkzioak*

**Mugaldekoak** (2010): Argumentu nagusitzat Comète sarea duen telesaila. *Tentazioa*

**Noaoa** (2007 - 2008): Anjel Alkain eta konpainiaren esketx-saioa, *Wazemank* sagakoa. *On Time*

**Nick dut nik** (2009 - 2012): IKTen gaineko saioa, Euskal Herrian jarduera aktiboa zuten pertsonen ahotsak eta esperientziak biltzen zituen. ETB1 eta ETB3n euskaraz, eta ETB2 eta ETB4n gaztelaniaz eskaini zen. *Factoría Norte*

**Oh, happy day** (2009 eta 2010): Talentu-lehiaketa *glee club*-en estiloko taldeentzat. *Baleuko* eta *3Koma93*

**Otorduan Karlos Arguiñano** (2000 - 2001): Eguneroko menu baterako errezetetan oinarrituriko sukaldaritza-saioa. *Bainet*

**Parker Lewisek ez du sekula galtzen** [Parker Lewis can't lose] (1993): Estatu Batuetako *high school* batean girotutako telesaila. *Columbia*

**Pippi Galtzaluze** [Pippi Longstocking] (2003): Espiritu libre baten abenturak Eskandinaviako herritxo bateko haurren eta helduen artean. *Svensk Film Industry*

**Postdata** (2002 - 2008): Aktualitateko erreportajeak, eguneroko albistegiaren itxiera egiteko. *ETB*

**Powder park** (2001): Elur-parkea daukan Alpeetako herri batean bizi diren gazteen gorabeherak. *Columbia*

**Puntu koma** (2018): Ospitalean koman dagoen paziente baten gelan giroturiko webseriea. Euskaraz 4K teknologiarekin grabaturiko lehena. *Next Station*

**Ron eta Ron, abenturak eta kalenturak** [The management] (1990): Umorista-bikote baten barregarrikerietan oinarrituriko telesaila. *London Weekend Television*

**Sautrela** (2004 - 2017): literaturari buruzko magazina, Hasier Etxeberriak sortua, zuzendua eta aurkeztua. *Orio Produksioak*

**Sheena** (2009): Afrikan, Tarzanen estiloan, basapiztien artean bizi den emakume baten abenturak. *Columbia*

**Solstrom** (2004 - 2006): Cirque du Soleilen zirku-ikuskizunetan oinarrituriko saio-sorta. *Cirque du Soleil Productions*

**Sorginen laratza** (1999 - 2002): *Late night showa*, egunerokoa, Xabier Euzkitze eta Klaudio Landa *tandem* mitikoak gidatua. *ETB*

**Supernanny** (2006 - 2011): Telerrealitate saioa, haur hezigaitzei eta haien guraso desesperatuei laguntzen dien haurtzain bat protagonista duena. *Factual Entertainment*

**Sustrai**a (1989 - egun): Euskadiko lehen sektoreari buruzko erreportaje-saioa. ETB1en euskaraz, eta ETB2n gaztelaniaz. *Itesa*

**Sut&Blai** (2007 - 2010): Gaztetxoentzako magazin hezigarria. *Pausoka*

**Teknopolis** (1999 - egun): Asteroko magazina, zientzia eta teknologiako gaien buruzkoa. *Elhuyar Fundazioa*

**Tribuaren berbak** (2013 - 2015): Euskara ardatzat zuen programa, erreportaje formatukoa, modu entretenigarrian euskal hizkuntzaren inguruko mitoak, jakingarriak eta albisteak aztertzen zituen. *Orio Produzioak*

**Trikitraka Trikitron** (2003 - 2010): Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen ikuskizuna. *Puxtarri*

**Txiskola** (1995 - 1997): Umorezko programa, txisteen kontaketa eta antzezpenen oinarritzen zena. *Ikuskin*

**Wazemank** (2005-2006): Anjel Alkain antzezle polifazetikoa buru duen aktore- eta gidoilari-taldeak sorturiko eta ekoitziriko esketx-saioa, programa-saga bateko lehena. Horren atzetik etorri ziren *Noaoa*, *Wazemank 2.0*, *Wazemank 3.0*, *Brinkola*, *Kontuzatsuak*, *Finlandia*, *Zuek hor eta gu hemen* eta *Zuek hor. On time*

**Wazemank 2.0** (2009 - 2010): *Wazemank* sagako esketx-saioa. *On Time*

**Wazemank 3.0** (2010): *Wazemank* sagako esketx-saioa. *On Time*

**Zine Oro** (1996 - 2002): Igande gaueko pelikularako kutxa. 1999tik aurrera, emanaldiaren aurretik filmaren aurkezpen bat egiten zen, zinema-munduko berriak tartekatuta.

**Zinea Euskadin** (1994): Euskadin egindako zinemari buruzko dokumentala. *Zooming*

**Zinemateka** (2010 - 2011): 26 astez filmak jatorrizko bertsioan eta euskaraz azpidatzita eskaintzen zituen saioa, ikustaldiaren ostean zenbait zinema-adituren arteko solasaldi batekin osatzen zena. *Erpin*

**Zuek hor** (2015): *Wazemank* sagako *night showa*. *Gorringo*

**Zuek hor eta gu hemen** (2014): *Wazemank* sagako arratsalderoko magazina. *Gorringo*

## V. ERANSKINA: TELEBISTAKO TERMINOLOGIA

*Zerrenda honetan, testuan azaltzen diren telebistaren arloko hitz teknikoak bildu ditugu, bakoitzaren definizioarekin. Definizioetarako, Harluxet Hiztegi Entziklopedikoaren eta Euskaltzaindiaren Hiztegiaren laguntza izan dugu.*

**antena-eskubide.-** Ikus-entzunezko obra bat emititzeko eskubideei ematen zaien izen berezia preproduzio fasean eskuratzen direnean.

**agenda informatibo.-** Hedabide batek lehentasunezko arreta ematen dien gaien zerrenda.

**audizio.-** Ikus-entzunezko produkzio baten parte-hartzaileak aukeratzeko proba.

**albistegi.-** Programa mota bat, informazioaren generoaren barrukoa. Egunerokoa izaten da, edizio bakarrarekin edo gehiagorekin, albiste nagusien kontaketa egiteko.

**app.-** Internetera konekta daitezkeen gailuetan instalatzen den tresna (aplikazioa), erabiltzaileari atazaren bat egitea ahalbidetzen diona. Ikus-entzunezkoen arloan, irratiko, telebistako eta Interneteko operadoreen eskaintza atzitzea ahalbidetzen dio.

**argumentu.-** Telesail edo film baten historia-hari edo gai bakoitza.

**audientzia.-** Programa baten ikusle-kopurua.

**audientzia metatu.-** Programa jakin bat gutxienez minutu batez ikusi duten pertsona guztien batura.

**audientzia-kuota.-** Programa jakin bat ikusi duten pertsonen portzentajea, programa horren ordutegian telebistari begira zeuden pertsona guztiekiko.

**audio.-** Programa baten entzunezko edukia, giro-soinuek, elkarriketek, zaratek eta musikek osatua.



**audio-banda.-** Ikus-entzunezko euskarri batean, programa baten audioa daraman parte.

**azpidatzi.-** Ikus-entzunezko produktuak beste hizkuntza batera aldatzeko modalitateetako bat, pantailan xede-hizkuntzazko bertsioa idaztean datzana.

**banaketa.-** Telebistagintzako balio-katean, produktua kontsumitzaileari helarazteko fasea.

**banda komertzial.-** ik. 'maiztasun ertain'

**banda zabal.-** Informazio-bolumen handia garraia dezakeen telekomunikazio-sarea.

**barne-produkzio.-** Telebista-enpresa batek bere baliabideen bitartez ekoizten dituen programen multzoa.

**bereizmen handi.-** Telebista-pantailatan, 1920 x 1080 pixeleko bereizmena, emisio digitalekin batera etorri dena.

**berremanaldi.-** Lehendik emandako saio bat berriro ere pantailaratzea.

**bikoizketa.-** Ikus-entzunezko produktuak beste hizkuntza batera aldatzeko modalitateetako bat, jatorrizko soinu-bandaren ordez xede-hizkuntzazko soinu-banda ezartzean datzana.

**bikoizketa-estudio.-** Bikoizketak egiten dituen grabazio-estudioa.

**bikoizketa-etxe.-** ik. 'bikoizketa-estudio'

**bikoizle.-** Bikoizketan jarduten duen aktorea.

**dokumental.-** Programa mota bat, informazioaren generoaren barrukoa, egitate baten berri ematen duen kontakizunean datzana.

**drama.**- telebistako lau genero nagusietako bat, bizitzako gertaera erreal edo asmatuen antzezpenean datzana.

**ekoizpen.**- Telebistagintzako balio-katean, ikus-entzunezko produktua grabatzeko fasea. Balio-kate osoa biltzen duen prozesuari ere, 'ekoizpen' esaten zaio.

**ekoizpen-etxe.**- Ikus-entzunezko produktuak ekoizten dituen enpresa.

**elkarrizketalari.**- Telesailetan, kapitulu bakoitzaren gidoian azaltzen diren elkarrizketak idazten dituen pertsona, gidoilariak zehaztutako ildoak jarraituz.

**emanaldi (1).**- ik. 'emisio'

**emanaldi (2).**- ik. 'emankizun'

**emankizun.**- Entreenimenduaren generoko programa, ekitaldi publiko bat telebistaz eskaintzean datzana.

**emisio.**- Telebistako edo irratiko seinalea hartzaileen aparatuera helarazteko ekintza eta prozesua.

**emisio analogiko.**- Teknologia analogikoa darabilen emisioa.

**emisio digital.**- Teknologia digitala darabilen emisioa.

**emisio-zentro.**- Ikus-entzunezko enpresa batek bere seinaleak emititzeko erabiltzen dituen instalazioak.

**entreenigarri.**- Programa mota bat, entreenimenduaren generoaren barrukoa, izaera eta eduki ezberdinetako atalez osatua.

**entreenimendu.**- Telebistako lau genero nagusietako bat, denbora-pasako helburu orokorrak definitzen duena.

**erreportaje.-** Informazio-saio bateko pieza bat, gertakari baten berri ematen duen kontakizunean datzana.

**erreproduzitu.-** Ikus-entzunezko produktu baten edukia ikusgai eta/edo entzungai egin.

**estaldura.-** Igorgailu baten seinalea behar adinako indarrarekin eta kalitatearekin jasotzen den eremu geografikoa.

**euskarri.-** Ikus-entzunezko obra bat edukitzeko erabiltzen den tresna fisikoa.

**fidelizazio-klub.-** Programa baten jarraitzaileak beste aukera batzuetara aldatzea eragozteko eta jarraitzaile berriak biltzeko helburua duen tresna, klub baten forma hartzen duena.

**fikzio.-** ik. 'drama'

**film.-** Programa mota bat, dramaren generoaren barrukoa, gertaera bat ikus-entzunezko hizkuntzan kontatzen duena, nagusiki 90 bat minutuko formatuan.

**formatu.-** Programa bat deskribatzen duten ideia nagusia, abiapuntua, mekanika, girotzea, marka eta beste zeinahi elementu.

**gailu.-** Ikus-entzunezko produktuak biltegitratzen dituzten plataformak atzitzea eta arakatzea eta nahi den produktua hautatzea eta erreproduzitzea ahalbidetzen duen aparatua.

**gailu eramangarri.-** Erabiltzaileak aldean eraman dezaken gailua.

**gaininpresio.-** Telebistako irudi baten gainean ezartzen den beste edozein irudi edo idazkun.

**gidoilari.-** Film edo telesail baten historia, argumentuak eta pertsonaiak asmatzen dituen sortzailea.

**HbbTV.**- ik. 'telebista hibrido'

**hedabide konbentzional.**- Publiko-multzo zabalei zuzentzen zaizkien hedabideak.

**hedabide lokal.**- Herri, hiri edo eskualde jakin bat zerbitzatzen duen hedabidea.

**ikus-entzunezko industria.**- Ikus-entzunezko programak ekoizten dituen industria.

**informazio.**- Telebistako lau genero nagusietako bat, erakundeek, gizarte-elkartek, gizarte-eragileek eta herritarrek bata besteari bidaltzen dizkieten mezuak bildu eta ezagutaraztea ardaztat duena.

**interaktibitate.**- Ikus-entzunezko zerbitzuen hornitzailearen eta kontsumitzailearen arteko erlazioa, zerbitzuaren beraren kanalean zehar bideratzen dena.

**iragarki.**- Programa mota bat, publizitatearen generoaren barrukoa. Iragarkiak pieza laburrak izaten dira, normalean 20 segundo baino gehiagokoak ez, eta kontsumitzaileei produktu edo zerbitzu bat ezagutaraztera edo gogoraraztera zuzenduta egoten dira.

**irradi (1).**- Soinua igortzea eta erreproduzitzea ahalbidetzen duen sistema.

**irradi (2).**- Irrati-enpresa.

**irradi (3).**- Irrati-kanala.

**irradi (4).**- Irrati-aparatua.

**irradi komertzial.**- Dirua irabazteko helburua duen irradi-enpresa.

**irradi lokal.**- Herri, hiri edo eskualde jakin bat zerbitzatzen duen irratia.

**irradi publiko.**- Erakunde publikoek finantzatzen eta kontrolatzen duten irratia.

**irradi-formula.-** Genero bakarrari eskainitako irratia, programazioa saiotan garbiro banatuta ez daukana.

**itzultzaile-egokitzaile.-** Bikoizketan, jatorrizko hizkuntzako gidoia xede-hizkuntzara itzultzen eta itzulpena aho-mugimenduetara egokitzen duen pertsona.

**kable-operadore.-** Komunikazio-zerbitzuak kable bidez eskaintzen dituen enpresa.

**kanal.-** Uhin elektromagnetikoen tarte jakin bat, irradi-programazio edo telebista-programazio zehatz batek okupatzen duena.

**kanal anitzeko eskaintza.-** Telebista-enpresa batek prestatzen duen ikus-entzunezko eskaintza hainbat kanaletan bereizita aireratzea.

**kanal tematiko.-** Genero bakarrari eskainitako kanala.

**kanpo-produkzio.-** Telebista batek merkatuan erosten dituen programen multzoa.

**kate-eredu.-** Hainbat irradi lokalek edo hainbat telebista lokalek programa bera aldi berean emititzean datzan eredu.

**konbergentzia.-** Teknologia digitalak baliatuz, komunikabide-mota baterako prestaturiko edukiak beste komunikabide-mota batzuetara bideratzea ahalbidetzen duten lan-prozesuak antolatzea.

**kreditu** (pluralean erabiltzen da).- Ikus-entzunezko obra batean parte hartzen duten guztien izenak eta eginkizunak eta obran azaltzen diren irudien, hitzen eta soinuen erreferentziak zehazten dituen zerrenda, hasieran eta/edo amaieran gaininpresio gisa agertzen dena.

**krosmedia.-** Hedabide batean baino gehiagotan zabaltzen den ikus-entzunezko kontakizuna, hedabide bakoitzean ingurunearen ezaugarri teknikoetara egokitzen dena.

**kutxa-programa / kutxa-saio.**- Formatu zehatzik gabeko programa, izen bakar baten pean eta programazio-tarte finko batean biltzen dituen edukiagatik edo beste ezaugarriren bategatik erlazionatuta dauden saio independenteak.

**late night show.**- Egunaren amaierako saioa, aktualitatearen analisisa umorez egiten duena elkarrizketak, esketxak, monologoak eta musika tartekatuz.

**lehiaketa.**- Programa mota bat, entretenimenduaren generoaren barrukoa, parte-hartzaileak nor baino nor gehiagoka jartzen dituen era guztietako probetan.

**lokuzio.**- Telebistako programa baten ahozko parte; bereziki, esatari nagusiak estudio batean grabatzen duena.

**lurreko telebista digital.**- Telebista-seinale digitala lurreko erreplikagailuen bidez zabaltzen deneko sistema.

**magazin.**- Programa mota bat, entretenimenduaren generoaren barrukoa, orotariko gaiak buruzko elkarrizketekin eta erreportajeekin osatua.

**maiztasun ertain.**- Uhin elektromagnetikoen tarte jakin bat, irrati komertzialean oso erabilia sasoi batean estaldura zabala eskaintzen duelako.

**marrazki bizidun.**- Programa mota bat, dramaren generokoa, umeei zuzendua batik bat. Istorioak, hezur-haragizko pertsonen ordeztu, irudi animatuen bidez kontatzen dira.

**mikrouhin.**- Uhin elektromagnetikoen tarte jakin bat, telekomunikazioetan oso erabilia atmosferan interferentzia gutxiago jasaten duelako.

**multimedia.**- Informazioaren zabalkundean komunikabide bat baino gehiago erabiltzean datzan sistema.

**multiplex.**- Seinale-pakete bakarrean emititzen diren ikus-entzunezko zerbitzuen multzoa, hartzailearen aparatuan bereizten eta banatzen dena.

**new media.-** Internetek eta IKTek ahalbidetu dituzten sareetan garatu diren komunikabide berriak.

**nahierako telebista.-** Interneteko plataformetan oinarrituriko telebista-sistema, ikusleari bere gustuen eta interesen arabera programak hautatzea ahalbidetzen diona.

**onlineko albistari.-** Albisteak eskaintzen dituen webgunea.

**ordaindu eta ikusiko sistema.-** Harpidetzan oinarrituriko telebista-zerbitzua; ikusleak kontsumitzen duen programa bakoitzagatik baino ez du ordaintzen.

**orotariko telebista.-** Ikusle-mota guztientzako programazioa eskaintzen duen telebista.

**parrilla.-** Telebista-kanal baten programazioaren eskema, programa bakoitzaren hasierako eta amaierako ordua erakusten duena. Metonimiaz, programazioari berari esaten zaio horrela.

**plataforma.-** Programak biltegitatzeko eta kontsumitzeko inguruneak. Plataforma nagusiak telebista eta Internet dira. Interneten, aldi berean, hainbat plataforma bereiz daitezke, esate baterako, hainbat enpresak eskaintzen dituzten nahierako zerbitzuak.

**postproduktzio.-** Telebistagintzako balio-katean, produktua grabatu osteko prozesu guztiak (editatzea, lokuzioa, e. a.) biltzen dituen fasea.

**preproduktzio.-** Telebistagintzako balio-katean, grabatzen hasi aurreko fasea, besteak beste, sorkuntza, gidioen prestaketa, audizioak eta kokalekuen bilaketa biltzen dituena.

**produktzio.-** ik. 'ekoizpen'

**produktzio elkartu.-** Hainbat produktzio-etxe eta telebista-enpresa elkartzeko eta, adosten dituzten heinetan, ikus-entzunezko obra baten ekoizpenean partaide izatea finantzazioa, azpiegitura eta / edo talentua eskainiz.

**produkzio-zentro.**- Telebista-programak ekoizten direneko tokia.

**programa.**- Irratiko edo telebistako emanaldia, aldez aurretik zehazturiko eta egituraturiko iraupena eta edukia dituen.

**programa hezigarri.**- Haurrak hezteko helburua duen programa.

**programazio.**- Irrati edo telebista bateko emisio-denbora betetzen duten programen multzoa.

**promozio.**- Programa, programazio, kanal nahiz komunikazio-talde oso bat ezagutarazteko eta haren irudia hobetzeko zeregin eta jardueren multzoa; zeregin eta jarduera horien ardura duen saila.

**publizitate.**- Telebistako lau genero nagusietako bat, kontsumitzaileari zerbitzuen eta produktuen berri emateko helburua duena.

**reality.**- ik. 'telerrealitate'

**saio.**- ik. 'programa'

**satelite.**- Telebistako edo irratiko seinaleak zabaltzeko sistema, Lurraren orbitan jarritako aparatu batez baliatzen dena.

**seinale (1).**- ik. 'kanal'

**seinale (2).**- Telebista- edo irradi-kanal batek transmititzen duen uhin elektromagnetikoa.

**serie.**- ik. 'telesail'

**share.**- ik. 'audientzia-kuota'



**sorkuntza.**- Telebistagintzako balio-katean, produktua asmatu eta diseinatzeko fasea.

**streaming.**- Audio eta bideo digitalak banatzeko sistema bat; seinalea bidaltzeko Internetez baliatzen da, eta erabiltzaileari seinalea jasotzen doan eran ahalbidetzen dio pieza entzutea eta ikustea.

**talentu.**- Ikuskizunetan, publikoa erakar dezakeen edozer gauza egiteko berezko gaitasuna. Hala esaten zaio, halaber, gaitasun hori daukan pertsonari.

**telebista (1).**- Irudia eta soinua aldi berean igortzea eta erreproduzitzea ahalbidetzen duen sistema.

**telebista (2).**- Telebistagintza-arloko enpresa.

**telebista (3).**- Telebista-kanala.

**telebista (4).**- Telebista-aparatua.

**telebista digital.**- Produkzio- eta emisio-sistema digitala darabilen telebista-kanala.

**telebista hibrido.**- Telebista digitala eta Internet bateratzen dituen teknologia. Internetera konektaturiko telebista-aparatu adimendun baten bidez, ikusleari zerbitzu berriak eskaintzen dizkio, besteak beste, airean den programa hasieratik ikusteko aukera.

**telebista komertzial.**- Dirua irabazteko helburua duen telebista-enpresa.

**telebista lokal.**- Herri, hiri edo eskualde jakin bat zerbitzatzen duen telebista.

**telebista publiko.**- Erakunde publikoek finantzatzen eta kontrolatzen duten telebista.

**telebistagintza.**- Telebistako programak sortzeko, ekoizteko eta emititzeko prozesuak biltzen dituen langintza.

**telerrealitate.**- Entretenimenduaren arloko azpigeneroa, jende erreala itxuraz gidoirik ez duten egoera errealetan jarraitzeko aukera eskaintzen duena.

**telesail.**- Programa mota bat, dramaren generoaren barrukoa, aldi jakin batean behin emititzeko ataletan banatuta dagoena.

**tertulia.**- Programa mota bat, informazioaren generoaren barrukoa, aktualitatea aztertzeko solasaldi batean datzana.

**toki-hedabide.**- ik. 'hedabide lokal'

**toki-irradi.**- ik. 'irradi lokal'

**toki-telebista.**- ik. 'telebista lokal'

**transmedia.**- Hedabide batean baino gehiagotan zabaltzen den ikus-entzunezko kontakizuna, hedabide horietako bakoitzean hari eta eduki ezberdinak garatzen dituen interakzio-aukeren eta ingurunearen ezaugarrien arabera.

**umore.**- Entretenimenduaren arloko azpigeneroa, barrea ardatzat duena.

**ustiapen-eskubide.**- Ikus-entzunezko obra baten autoreak obra horren erabileragatik etekin ekonomikoa eskuratzeko duen eskubidea.

**VHS.**- Etxeko kontsumo zuzendutako bideo-formatua, kasetetan bildutako bideo-zinta darabilena.

**webgune.**- Pertsona, enpresa, elkarte edo erakunde batek kudeatzen dituen web-fitxategi guztien multzoa, sarrerarako fitxategi edo orri nagusi baten inguruan antolatua.

**webserie.**- Interneteko plataforma digitaletan banatzeko sortzen den ikus-entzunezko seriea, 5-15 minutuko kapituluekin osatuta egoten dena.



## **VI. ERANSKINA: LEGERIA**

*Zerrenda honetan, testuan aipatzen diren legeak bildu ditugu, administrazio publikoaren eta dataren arabera antolatuta.*

### **V.1. EUROPA**

1992: *Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna.*

### **V.2. ESPAINIA**

1978: Espainiako Konstituzioa

2010: 7/2010 Lege orokorra, martxoaren 31koa, Ikus-entzunezko komunikazioari buruzkoa

### **V.3. FRANTZIA**

1951: Deixonne legea / 51-46 Legea, 1951ko urtarrilaren 11koa, tokiko hizkuntzetan eta dialektoetan emandako irakaskuntzari buruzkoa

1975: Haby legea / 75-620 Legea, 1975eko uztailaren 11koa, irakaskuntzari buruzkoa

1975: Bas-Lauriol legea / 75-1349 Legea, 1975eko abenduaren 31koa, Frantsesaren erabilerari buruzkoa

1982: Fillioud legea / 82-652 Legea, 1982ko uztailaren 29koa, Ikus-entzunezko komunikazioari buruzkoa

1986: Léotard legea / 86-1067 Legea, 1986ko irailaren 30ekoa, komunikazio-askatasunari buruzkoa

1992: Frantziako Konstituzioa

1994: Toubon legea / 94-665 Legea, 1994ko abuztuaren 4koa, frantsesaren erabilerari buruzkoa

### **V.4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA**

1979: Gernikako Autonomia Estatutua

1982: 5/1982 Legea, maiatzaren 20koa, Euskal Irrati Telebista herri-erakundea sortzeari buruzkoa

1982: 157/1982 Dekretua, uztailaren 19koa, Euskal Telebista SA sortzeari buruzkoa

- 1982: 158/1982 Dekretua, uztailearen 19koa, Eusko Irratia SA sortzeari buruzkoa
- 1982: 10/1982 Oinarrizko legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabileraren normalizazioari buruzkoa
- 1983: 138/1983 Dekretua, uztailearen 11koa, EAEn hizkuntza ofizialen erabilera unibertsitateaz azpiko heziketan arautzen duena
- 1984: 77/1984 Dekretua, martxoaren 29koa, Radio Vitoria SA sortzeari buruzkoa
- 1989: 6/1989 Legea, uztailearen 6koa, Euskadiko funtzio publikoari buruzkoa
- 1989: 224/1989 Dekretua, urriaren 17koa, EAeko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko plangintzari buruzkoa
- 1997: 86/1997 Dekretua, apirilaren 15koa, Euskararen erabilera EAeko administrazio publikoetan normalizatzeari buruzkoa
- 2003: 100/2003 Dekretua, maiatzaren 6koa, Eitbnet SA sortzeari buruzkoa
- 2004 15/2004 Ebazpena, abuztuaren 2koa, EAeko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko plana onartzeari buruzkoa
- 2008: 123/2008 Dekretua, uztailearen 1koa, Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza- eskubideei buruzkoa
- 2008: 9/2008 Ebazpena, uztailearen 2koa, EAeko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko plana onartzeari buruzkoa
- 2014: 1/2014 Ebazpena, urtarrilaren 3koa, EAeko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko plana onartzeari buruzkoa
- 2018: 62/2018 Ebazpena, otsailaren 27koa, Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko plan ngausia onartzen duena VI. Plangintzaldirako (2018-2022)

## **V.5. NAFARROAKO FORU ERKIDEGOA**

- 1982: 13/1982 Lege organikoa, abuztuaren 10koa, Foru Erregimena Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa
- 1986: 18/1986 Foru-legea, abenduaren 15koa, Euskarari buruzkoa
- 1988: 159/1988 Foru-dekretua, maiatzaren 19koa, Nafarroan euskararen erabilera unibertsitateaz azpiko heziketan arautzen duena
- 1994: 70/1994 Foru-dekretua, martxoaren 21koa, Nafarroako administrazio publikoetan euskara arautzeari buruzkoa

- 1994: 135/1994 Foru-dekretua, uztailaren 4koa, Nafarroako administrazio publikoetan euskara arautzeari buruzkoa
- 1996: 135/1996 Foru-dekretua, martxoaren 11koa, Euskararen Nafar Kontseilua sortzeari buruzko
- 2000: 372/2000 Foru-dekretua, irailaren 11koa, Nafarroako administrazio publikoetan euskara arautzeari buruzkoa
- 2003: 29/2003 Foru-dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duena
- 2007: 183/2007 Foru-dekretua, irailaren 10ekoa, Euskararen Nafar Institutua sortzeari buruzkoa
- 2009: 55/2009 Foru-dekretua, ekainaren 15ekoa, Nafarroako administrazio publikoko plantilla organikoan euskararen ezagutza arautzeari buruzkoa
- 2015: 4/2015 Foru-legea, otsailaren 24koa, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzen duena
- 2017: 9/2017 Foru-legea, ekainaren 27koa, Euskararen Foru Legearen izenburua eta artikulua aldatzekoa



## **VII. ERANSKINA: EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO PLANGINTZA**

*Zerrenda honetan, euskararen normalizaziorako plangintza publikoari dagozkion dokumentuak eta egitasmoak bildu ditugu, erkidegoaren eta dataren arabera antolatuta.*

### **VII.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA**

- 1983: Euskararen politikarako oinarriak*
- 1993: Euskararen Politikarako Oinarrizko Irizpideak*
- 1998: Euskara biziberritzeko plan nagusia*
- 2004: Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako.*
- 2008: XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak (1) Oinarrizko txostena*
- 2008: XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak (2) Batzorde-atal bereziko kideen ekarpenak*
- 2008: Euskara hedabideetan*
- 2009: XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak (5) Itun berri baterantz.*
- 2012: Euskara sustatzeko ekintza plana*
- 2014: Euskararen Agenda Estrategikoa*
- 2016: Euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoen lanketa. EGOD egitasmoa.*

### **VII.2. NAFARROAKO FORU ERKIDEGOA**

- 2017: Euskararen I. plan estrategikoa (2016 - 2019)*

### **VII.3. IPAR EUSKAL HERRIA**

- 1997: Euskal Herriko Garapen Hitzarmena*
- 2000: Euskal Herriko Hitzarmen Berezia*
- 2006: Hizkuntza Politikako Proiektua*
- 2008: Euskal Herri Lurralde Kontratua*
- 2010: 2011-2016rako Jokabide Esparrua*
- 2018: Euskara jalgi hadi plazara*